DOKTORADUTZA TESIA

2015

Herri kontakizunak Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoan: bilketa, sailkapena eta irriaren adierazpenaren azterketa.

I. liburukia



Maialen Moreno Zubeldia

Tesi zuzendaria: Charles Videgain, UPPAko irakaslea

***Edizio joera berriak* doktoradutza programa**

Deustuko Unibertsitatea (Hirugarren zikloa)

Programa: Edizio joera berriak

Herri kontakizunak Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoan: bilketa, sailkapena eta irriaren adierazpenaren azterketa

(I. Liburukia)

Maialen MORENO ZUBELDIA andreak
aurkeztutako doktorego tesia

Zuzendaria:

Charles Videgain UPPAko irakaslea

Zuzendaria: Doktoregaia:

Donostian, 2015eko abuztuaren 31n

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....1

ESKERTZA.....3

1. LABURPENA-RESUMÉ.....7

2. SARRERA: AZTERGAIAK.....13

2.1. TRADIZIOZKO KONTAKIZUNA, IXTORIOA, IPUINA: DEFINIZIOAK.....14

2.2. AHOZKO-IDATZIZKO KONTAKIZUNA.....19

2.3. HERRI KULTURA ETA HERRI IXTORIOAK.....23

2.4. TESTUEN ANALISI SEMIOTIKOA: BEREIZGARRIAK.....26

2.5. KONTAKIZUNEN AZTERKETA ETA SAILKAPENA: SARRERA.....28

2.5.1. KONTAKIZUN ERREALISTAK.....38

2.5.2. TXISTEAK.....50

2.5.3. IPUIN MIRESGARRIAK.....54

2.5.4. LEIENDAK ETA MITOAK.....58

2.5.5. ARRAZOIN /ATERALDIAK.....59

2.5.6. BESTELAKOAK.....60

2.6. GAI "GORDINAK" IRRI KONTAKIZUNETAN.....61

2.7. IRRI IXTORIOEN HEDAPENA.....64

2.8. ANTIKLERIKALISMOA ETA ADIERAZPEN MISOGINOAK.....67

2.9. IKERKETAREN HELBURUAK ETA GALDERAK.....72

2.10. IKERKETAREN ZERGATIA, JUSTIFIKAZIOA.....75

3. AURREKARIAK. MARKO TEORIKOA.....79

3.1. IRRI KONTAKIZUNEN BALIOKIDEAK BILDUMA ZAHAR ETA BERRIETAN.....79

3.2. IRRI KONTAKIZUNAK EUSKAL LETRETAN.....87

3.2.1. IRRI KONTAKIZUNAK EUSKAL ALDIZKARIETAN.....90

3.2.2. WEBSTER-EN IXTORIOEN BESTE ESKUIZKRIBU BAT 108

3.2.3. LIBURUETAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IRRI KONTAKIZUN LABURRAK: FIKZIOA ETA ERREALITATEA AZTERGAI 114

3.2.4. EUSKARAZKO IRRI KONTAKIZUNAK AIPAGAI DITUZTEN IKERKETAK 119

3.3. KONTAKIZUNETAKO UMOREA ETA UMOREARI BURUZKO TEORIAK 124

3.4. IRRIAREN ADIERAZPEN MODUAK. XX. MENDE HASIERAKO BI PLANTEAMENDU: BERGSON, FREUD 128

3.4.1. BERGSON ETA IRRIAREN ADIERAZPENA 130

3.4.2. FREUDEN PLANTEAMENDUA 133

4. METODOLOGIA 139

4.1. IKERGAIAREN EGOERA 139

4.2. HIPOTESIAK 141

4.3. IKERKETA MOTA 145

4.4. IKERKETAREN DISEINUA 148

4.5. DATUEN BILKETA 150

4.5.1. POPULAZIOA ETA LAGINA 151

4.5.2. BILKETARAKO LAN METODOA 159

4.5.3. TRANSKRIPZIOEN INGURUKO AZALPENAK 163

4.5.4. DATUAK BILTZEKO TRESNAK ETA FIDAGARRITASUNA 165

4.6. DATUEN DESKRIPZIOA ETA AZTERKETA 167

4.7. IKERKETAREN MUGAK 169

5. BILDUTAKO MATERIALAREN AZTERKETA 173

5.1. IRRIAREN ADIERAZPENA ETA AZTERKETA IRRI KONTAKIZUNETAN 174

5.1.1. GURE SAILKAPENA ETA PERTSONAIA TIPOAK 177

5.1.2. EMAZTEEI, EZKON-BIZITZARI BURUZKOAK 180

5.1.3. AKATS FISIKOEI BURUZKOAK 187

5.1.4. APEZEI BURUZKOAK 190

5.1.5. ERGEL-ARGIEI BURUZKOAK 197

5.1.6. ERLIJIOAREKIN LOTUTAKOAK 203

5.1.7. ANIMALIEI BURUZKO IRRI IXTORIOAK 205

5.1.8. GEZURREI BURUZKOAK 206

5.1.9. IRRI IXTORIO “GORDINAK” 207

5.1.10. IRRI KONTAKIZUNETAKO ANTIKLERIKALISMOA ETA GIZARTE BIZITZAREN IRUDIKAPENA 224

5.1.11. IRRI IXTORIOETAKO HIZTEGIA 227

5.2. TXISTEAK 228

5.3. ATERALDIAK/ARRAZOINAK 232

5.4. GURE BILDUMAKO IRRI KONTAKIZUNAK: ONDORIOAK 234

5.5. IPUIN MIRESGARRIAK 234

5.6. LEIENDAK 237

5.7. BESTELAKOAK (BERTSOAK ETA KANTAK, HAUR JOLASAK) 238

6. ONDORIOAK-RÉSULTATS 241

7. BIBLIOGRAFIA 263

ESKERTZA

Lehenik, tesi hau egin ahal izateko elkarrizketak egitea onartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Beraien jatortasun eta prestutasunik gabe ezin izango litzateke corpusa osatu. Horiengana iristeko lotura-lanetan lagundu didaten guztiei ere eskerrik beroena eman behar diet.

Era berean, tesi-zuzendari lanak egitea onartu zuen Charles Videgaini ere eskerrak eman behar dizkiot, egindako zuzenketengatik eta hartu duen lanagatik.

Azkenik, etxekoei eta lagunei ere, ordu luzetako zeregin honetan animatu eta laguntzeagatik. Horien laguntzarik gabe ere, noski, ezin izango nuke tesia bukatu.

1. LABURPENA-RESUMÉ

Tesi honen oinarria ahozko literaturako kontakizunen bilketa lan bat da. Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoan jasotako 350 ahozko dokumentu baino gehiagorekin osatutako oinarri hori osatzeko, elkarrizketatu beharreko herritarrak aukeratu eta horien memorietatik ateratako ixtorioak (ikus-entzunezko bitartekoekin) jaso eta transkribatu dira. Bilketa oinarria izanik ere, material horren azterketak osatzen du tesiaren beste alderdi garrantzitsua. Horregatik, bi liburukitan aurkezten da tesia. Lehenak, ikergaien aurkezpena, ikerketaren aurrekariak, metodologia eta materialaren azalpena biltzen ditu. Bigarren liburukian (kronologikoki lehen tokian behar lukeen arren), berriz, corpusa dator, atalka sailkatuta. Corpusa, ahalik eta zehatzen transkribatzen saiatu gara, baina interesa duen orok, zehaztasun gehiago nahi badu, beti jo ahal izango du grabaketetara.

Kontakizun gehienak, salbuespen txikiren bat izan ezik, fikziozkoak dira eta denborapasarako ibili dituzte herritarrek ahotan. Kontakizun horiek

Cette thèse repose sur un travail de collecte de récits issus de la littérature orale. Cette base constituée de plus de 350 documents oraux provenant du Labourd, Basse-Navarre et Soule, n'a pu voir le jour que par un travail sur le terrain qui comprend le choix des personnes-témoins à interviewer, l'enregistrement (audio-visuel) des diverses histoires qu'elles ont mémorisées, et la tâche de transcrire ces récits. Cette collecte, si elle constitue la fondation de l'édifice de cette thèse, est suivie d'un examen de ce corpus qui constitue l'autre partie de la thèse. La thèse est donc présentée en deux volumes. Le premier est constitué des divers points de recherche traités : état de la question, méthodologie, examen du matériel. Le deuxième, quoique chronologiquement premier, fournit le corpus, classé par sections. Nous avons essayé de donner la transcription la plus précise possible, et toute personne interessée pourra entendre les enregistrements eux-mêmes.

Sauf quelques rares exceptions, la plupart des récits sont fictifs, et ceux qui les ont racontés l'ont fait apparemment pour se distraire et amuser. Comme nous

aztertu eta sailkatzean, zati handi bat irri ixtorioek osatzen zutela konturatuta, irri ixtorio horien ezaugarrietan sakontzea erabaki dugu: testuen egitura, landutako gaiak, euskal eremuan eta europako beste hizkuntza tradizio batzuetan horiei buruz egindako azterketak... Azterketa horrekin frogatu ahal izan dugu horietako zenbait ixtorio ez zirela berriak, Espainiako Urrezko Mendeak direlakoetan ere (XVI eta XVII. mendeak) ezagunak zirela, eta garaiko bildumetan jasota daudela.

Corpusaren edukia aztertzean, zati handi bat irri kontakizunek osatzen dutela konturatuta (ixtorio "errealistak", txisteak, ateraldiak) irriaren adierazpenean ere sakondu nahi izan dugu.

Duela urte gutxi arte, ahozko literaturako beste genero batzuen aldean irri ixtorioak azterketa gutxiagoren helburu izan dira. Ipuin miresgarri eta leiendei buruz egin diren azterketen aldean, eguneroko bizitzako pertsonaiak protagonista dituzten irri kontakizunak, askotariko eta ugariak, ez dira azterketa gehiegiren helburu izan. Hutsune hori betetzera dator lan hau.

nous sommes rendue compte lors de l'examen et de la classification du matériel, que la plupart des récits étaient des histoires comiques, nous avons décidé d'approfondir leurs caractéristiques: structure des textes, sujets traités, rappel des recherches qui ont été faites en domaine basque et dans d'autres domaines linguistiques européens… C'est ainsi que nous avons pu constater que certains récits et histoires n'étaient pas récents mais déjà connus au Siècle d'Or en Espagne.

Comme il nous est apparu évident q'une grand partie de la collecte était composée par des histoires comiques (histoires « réalistes », plaisanteries, boutades), la conséquence logique a été de vouloir approfondir l'expression du rire.

Jusqu'à ces dernières années, en comparaison avec d'autres genres de la littérature orale, les histoires humoristiques ou comiques ont été moins étudiées. Si l'on procède en effet à la comparaison avec les contes merveilleux et les légendes, les histoires comiques qui ont comme protagonistes des personnages de la vie quotidienne, nombreux et variés, n'ont pas été la cible de tellement de recherches. Ce travail veut combler ce vide.

Bajtinek esan zuen (2003 [1941]) "XVII. mendetik aurrera irriak munduaren ikuspegi unibertsala adierazteari utzi ziola eta osotasun horren zenbait alderdi bakarrik adieraztera igaro zela (gizarte bizitzako alderdi partzialak, negatiboak). Funtsezkoa eta garrantzitsua zena irrigarri ezin izatera igaro zela. Horregatik, irri gaiak garrantzi txikiagoko genero izatera pasatu zirela".

Euskal literaturan irri kontakizun batzuk jasota daude aldizkari zein liburuetan. Horiek beste kontakizun mota batzuekin (leiendak, ipuin miresgarriak...) tartekatuta aurkeztu dira zenbait bildumetan eta ohartu gara, ez dagoela irri kontakizunak sailkatzeko irizpide garbirik. Gure tesian sailkapen proposamen bat egin dugu, orain arteko ikerlariek egindako definizioetan oinarrituta. Horrela, kontakizun errealistak, txisteak, ateraldi edo arrazoinak, ipuin miresgarriak, leiendak, mito bat eta bestelakoak (bertso eta kantak) banatu ditugu.

Kontakizunetako irria aztertzean, Erdi Aroan nagusi ziren zenbait irri gaietatik hasi eta XX. mende hasierako Bergsonek eta Freudek komikotasunaren eta txistearen

Bajtin signale (2003 [1941]) que "depuis le XVIIème siècle le rire a cessé de montrer un point de vue universel, et il a évolué vers le fait de montrer quelques parties de cette totalité (aspects partiels de la vie sociale, aspects négatifs). Ce qui était fondamental et important ne pouvait plus être dérisoire. C'est pour cela que les sujets comiques, sont passés au stade d'un genre mineur".

Dans la littérature basque des histoires comiques ont déjà été collectées. Mais très souvent elles sont fournies au milieu d''autres types de récits (légendes, contes merveilleux…) et nous nous sommes rendu compte que ces collections ne suivent pas un critère clair quant à la classification. Nous avons donc présenté une proposition de classification, après avoir revisité les définitions de echercheur précédents. C'est ainsi que nous avons distingué histoires réalistes, histoires drôles, boutades, contes merveilleux, légendes, mythes et autres types d' histoires (chansons et vers) selon un tableau dans lequel est aussi fourni un résumé de chaque texte.

A l'heure d'examiner le type de rire dans ces histoires, nous avons prêté attention au type de rire qui se reflète dans notre corpus, en étudiant quelques sujets comiques du Moyen Âge,

baliabideen inguruan egindako gogoetak arte, gure corpuseko ixtorioetan islatzen den irri modua arakatu dugu. Era berean, ikusiko dugu zenbait gai behin eta berriz errepikatzen direla irri kontakizun horietan, hala nola, (antiklerikalismoaren adierazpenak, emakumeen argitasuna beren senarrak engainatzeko orduan…) eta gai horien zergatiaz eta izan dezaketen jatorriaz literaturan egin diren zenbait hipotesi jaso dira.

Era berean, mundu ikuskera baten berri ematen diguten pertsonaia tipoak ere aurkituko ditugu kontakizunetan (diagnostiko irrigarriak ematen dituzten medikuak, laborari tuntunak...)

Gai horiek guztiak kontuan izanik, ondorioztatu dugu irri kontakizun horietako asko ez direla gertakari isolatuak eta tradizio baten ondorio direla.

Euskal arloan, corpusen bilketaren ardura hartu dutenetatik asko elizgizonak izan direla kontuan izanik corpusen emaitzetan eragina eduki ahal izan duela ere ondorioztatu dugu.

Azkenik, gure corpuseko materiala aztertzetik ondorioztatu dugu, Bergsonek eta Freudek XX. mende hasieran egindako teorizazioek gure

jusqu'aux réflexions sur le comique et les ressources du mot d'esprit qui ont été faits par Bergson et Freud, au début du XXème siècle. De plus, on pourra vérifier qu'il y a quelques sujets qui se répètent (l'anticléricalisme, l'astuce des femmes à l'heure de berner leurs maris, etc…) et nous proposons quelques hypothèses qui ont était faites dans la littérature sur la cause ayant fait apparaître de tels thèmes et sur leur origine.

Par ailleurs, nous signalons quelques personnages types qui nous montrent une certaine vision du monde (médecins qui font un diagnostic ridicule, paysans stupides…)

En tenant compte des multiples facettes de ces récits, nous pensons avoir montré que beaucoup de ces histoires comiques ne sont pas des expressions isolées, mais qu'elles font partie de toute une tradition.

Si nous considérons que dans le domaine du basque, beaucoup de collecteurs des matériaux pour les corpus étaient des ecclésiastiques, nous pensons que cela a pu avoir une influence quant aux résultats obtenus

Finalement, de l'examen de notre corpus nous avons observé que les theorisations faites par Bergson et Freud,

corpuseko irri baliabideak aztertzeko balio digutela.

Ondorioz, irri kontakizunek euskarazko ahozko literaturen historietan toki bat izan behar luketela uste dugu, kontakizun horien aberastasunagatik eta horietan gizarteari buruz esaten zaiguna kontuan izanik.

au début du XXeme siècle nous sont d'une grande utilité pour examiner les recours du rire de notre corpus.

En conclusion, nous pensons que, par leur richesse intrinsèque et par ce qu'ils nous disent sur la société, les récits humoristiques doivent avoir leur place dans l'histoire de la littérature orale basque.

2. SARRERA: AZTERGAIAK

Tesi honi *Herri kontakizunak Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoan: bilketa, sailkapena eta irriaren adierazpenaren azterketa* izenburua jarri diogu. Izenburuak kontakizunen bilketa nagusiki zein eremutan egin den esaten du eta material horren sailkapen proposamena egiten dela erakusten du. Sailkapen proposamen hori arrazoitzen saiatu gara eta zeregin horretan aurkitu ditugun zailtasunak ere aipatu ditugu. Azkenik, nagusi diren irri-kontakizunak aztergai hartu eta horietan ageri den umorearen ezaugarriak deskribatu ditugu.

Ixtorio laburrak maite dituenak, orain arteko ahozko kontakizunen bilketei gehitu ahal zaien ekarpen berria aurkituko du lan honetan. Ekarpen berria diogu, euskaraz bildu gabeak direlako hemen jasotzen diren zenbait kontakizun. Beste zeinbait ere berriak direla esan dezakegu, ezagunak eta euskarazko aldizkari, eskuizkribu edo libururen batean jasota aurki ditzakegun arren, aldaera berriak eskaintzen direlako.

Herri kontakizunen azterketei erreparatuz gero, ipuin miresgarriei eta mitoei bestelako kontakizunei baino balio handiagoa eman zaie, lehenaldi urrun baten gordailu direlakoan. Eguneroko bizitzako pertsonaiak nagusi dituzten kontakizunak, "errealistak" edo "ohiturazkoak" deitu izan direnak, ez dira horren aztertuak izan azken urteak arte. Kontakizun errealista horiek ez dituzte horren kontalari trebeak behar. Kontakizun laburrak baitira, eta gehienek irri gaiak dituzte.

Hemen frogatzen saiatuko gara, bildumako kontakizun errealista horietako batzuk tradiziozko kontakizunak direla, eta ez direla "txiste" soilak. Kontakizunetako asko aztertzean, aurreko mendeetatik eta hizkuntza jakin baten mugetatik haraindi doazen gai eta motiboak aurkituko ditugulako.

Kontakizun gehienak bideo formatuan ikusi eta entzuteko moduan eskaintzen dira, transkribaketez lagunduta. Lau bakarrik dira audio hutsean eskainitakoak, hasiera-hasieran egindakoak. Kontalariek idatziz emandakoak beste gutxi batzuk dira, eta gehienak hemen transkribatu ditugu. Idatzita josotako horiek, eranskinetan sartu ditut.

Kontakizun horietako askok irria edo barrea eragiten dute. Irria eragiteko gaitasuna dute kontakizunetako askok eta ugarienak horiek izanik, horien azterketan gehiago sakondu dugu. Hainbat ataletan banatu ditugu: apezei buruzkoak, senar-emazteei buruzkoak, gordinak, erlijio gaikoak, gezurrei buruzko bat…

Kontuan izan behar da, kontatzen dena irrigarri gertatzeko, kontakizunaren erreferentziak ezagutu behar direla. Eta kontakizunetako gertakariak eta ingurua zenbat eta ezagunagoak izan, efektu komikoa ere areagotu egiten dela. Testuak irrigarri gertatzeko, bertako erreferentziak ezagutu behar dira. Kontakizunetako testuez haratago, bilketaren metodologia azaltzen dugunean ikusiko dugun bezala, irria fenomeno soziala izanik, kontakizun hori gauzatzen den giroak ere eragina du emaitzan.

Irri gaia duten ixtorio errealistez gain, ateraldi edo arrazoinak, txisteak, ipuin miresgarriak, leiendak… eta beste hainbat kontakizun ere (batzuk tradizioan arrastoak dituztenak, beste batzuk sorkuntza berrikoak) aurkituko ditu tesi hau irakurtzeko prest dagoenak. Kontakizun guztiak sailkatuta, tesiaren bigarren liburukian (corpusean) sartu ditugu. Lehen liburukian, kontakizun horien deskripzioa, sailkapen proposamena eta ezaugarriak aztertzen dira, besteak beste. Gaia kokatzeko, gure bildumako kontakizun errealistak tradiziozkoak direla frogatzen duten ixtorio bildumen (zaharrak zein modernoak) errepasoa ere egin dugu, eta beste ikerlari batzuek horiei buruz egindako oharrak jaso. Lehen liburukia, beraz, corpusa hobeto ulertzeko tresna edo bidea da.

2.1. TRADIZIOZKO KONTAKIZUNA, IXTORIOA, IPUINA: DEFINIZIOAK.

Scholes-ek (1976 : 96) dio ingelesez bi termino dauden tokian (*narration* eta *story*), frantsesez termino bakarra erabiltzen dela (*récit*). Ingelezko *narration* gertakari multzo bat denbora sekuentzia batean ematea izango litzateke; *story*, berriz, sekuentzia mota berezi bat da eta gutxieneko interes estetikoa izan behar du. Euskaraz narrazioa eta kontakizuna sarrera berean agertzen ditu *Orotariko Euskal Hiztegia*k.

Guk jasotako kontakizunetan gutxieneko interes estetiko hori bilatu dugu. Horregatik, elkarrizketetan jasotako diskurtso horretatik kontakizunak aukeratu eta eskaini ditugu hemen.

Tesi lan honetan "kontakizun" hitza gaztelaniazko eta frantsezko "relato" edo "récit" hitzaren pareko erabili dugu. Gure alboko hizkuntzetako bibliografia aztertzean, sarritan agertuko zaizkigu termino horiek eta "kontakizuna" hartu dugu euskarazko baliokidetzat. Kontakizuna hitz lauzkoa eta bertsozkoa ere izan daiteke. Bertsoz ere kontatu baitaiteke.

Izan ere, zer ulertzen dugu "kontakizuna" diogunean? Gassouma, S.-k (2009 : 182) dio termino horren esanahia nahiko lausoa dela:

> «Il est naturel donc que toutes les cultures connaissent «le récit», mais dans un sens trop vague et très difficile à cerner dans la mesure où chaque culture développe ses propes récits et ses moyens spécifiques pour élaborer sa vision du monde et pour trouver les thèmes, les idées, les formes et les moyens d'expression qui lui paraissent plus ou moins bien adaptés et en cohérence avec une certaine conception de l'être, de la société, de l'existence et de la vie».

"Kontakizun" hitzak esanahi bat baino gehiago izan dezake. Ives Reuter-ek (2009[1991]:2) dio "izaera desberdineko kontakizunak aurki ditzakegula mende batetik bestera, eta horien helburuak ere askotarikoak direla: informazioa ematea, dibertigarri izatea, heztea...".

Lan honetako helburuetako bat gure corpuseko aleak deskribatzea denez, corpus horretako materiala deskribatzeko terminologia eta material horren izaera ahal den neurrian zehazten saiatu behar dugu. Robert Scholesek (1976:94-96) azaldu zuen "fikzioko egituraren oinarriak deskribatzeari ekiten dionak arazoak aurkituko dituela, bariazio formal ugari jasan ditzakeen corpus bateko materialean osagai unibertsalak bilatzen hastean". Horretarako konponbide bat baino gehiago proposatu zituen: "lehena, arazoari ezikusiarena egitea (konponbide txarra bere ustez). Bigarrena, corpus bat osatuko duen materiala mugatzea, eta helburu eta forma antzekoak dituztenak aztertzea. Hirugarrena, fikziozko material horren zenbait alderditara mugatzea izango zen, beste batzuei jaramonik egin gabe"[1].

[1] Euskarazko itzulpena gurea da.

Azken bide hau hartu zuten, fikzio arloan ikerlari esanguratsuenak izan zirenek, Propp-ek eta Lévi-Strauss-ek. Lehenak, ipuin miresgarrien arloa aztertu baitzuen. Bigarrenak, berriz, mitoetan jarri zuen arreta. Guk hemen gure corpuseko materialaren sailkapen proposamen bat egin, eta horietatik, bereziki, irri gaiko kontakizunetan jarriko dugu arreta.

Gure ikerketan "ixtorio" edo "ipuin" hitzak erabili ditugu, "cuento" hitzaren parekoa adierazi nahi genuenean. "Ipuin" hitzaren tradizioa bizkaikoa eta gipuzkoako da, Orotariko Hiztegiari begiratuz berretsi dezakegunez. Iparraldeko herrietan "ixtorio" hitza askoz ere ezagunagoa eta erabiliagoa da, batez ere adin batetik aurrerakoen artean. Gure bilketa lana egitean, kontalariei beti "ixtoriorik" bazekiten galdetu diegu. Hala, hobeto ulertuko zigutelakoan. Izan ere, J. Kalzakortak (1997a:18) bere liburu batean esaten duen bezala, "Ixtorioa [hitzak] gure "ipuina" esan nahi du eta "ipuin kontatzailea" "ichtorio-errailea". Ichtorio idazten zen garai hartan (XIX. mendean) eta geroaro ere bestaldean"[sic].

"Ipuin" hitzak badu bigarren esanahi bat. Adibidez, "horiek ipuinak dira" diogunean, asmatutako kontuak edo gezurrak direla esateko erabiltzen baitugu. Proppek Levi-Straussekin duen polemikari buruzko liburuan dio, gauza bera gertatzen dela hizkuntzarik gehienetan:

> «En la mayoría de los idiomas, la palabra "cuento" es sinónimo de "mentira", "embuste". "El cuento ha terminado. Ya no se puede mentir", así concluyen los narradores rusos sus relatos». (Levy-Strauss eta Propp, 1972: 114)

"Ipuin" hitza "alegia" esateko ere autore askok erabiltzen dute. Honela dio J. Kalzakortak artikulu batean (1992:477).

> «(…) ipuin hitzak euskaraz eremu zabala dauka benetan. Kontuan eduki dezagun ipuin hori hemeretzigarren mendean "alegia" esateko ere erabiltzen dutela idazle askok. Aurretik daraman herri delako horrek hitzak daukan eremu zabala mugatzen du ezpai gabe, baina, herri-ipuinak ote dira, kasurako, Kirikiñok, Errose Bustintzak (Mañariko), Felix Bilbaok, Bitañok, Augustin Zubikaraik, Juan Jose Arrizabalagak idatzi dituzten ipuinak?».

"Kontakizun" hitza erabiltzen dugunean, beraz, gure bildumako edozein alez arituko gara, frantsesezko "récit" hitzaren pare. Pierre Lhande-ren hiztegiko bigarren sarreraren pare, alegia: "**KHONDA II** idée de conte, récit. **KHONDAKIZUN:** qui doit se conter". (Lhande, P., 2001 [1926])

"Ixtorio" edo "ipuin" hitza erabiltzen dugunean, berriz, "cuento" hitzaren baliokideaz arituko gara.

Izendapenetan harantzago joanda, "ixtorio" edo "ipuin" hitzak erabiltzean zertaz ari garen mugatu behar dugu. Baquero Goyanes-ek (2012 [1949]:31) XIX. mendeko ipuinen azterketa sakonean, "kontatu" hitzaren etimologian oinarritzen du "ipuin" hitzaren definizioa:

> «Cuento, etimológicamente, es un postverbal de contar, forma procedente de *computare*, cuyo genuino significado es contar en el sentido numérico. Del enumerar objetos pásase por traslación metafórica, al reseñar y describir acontecimientos».

Gure bilduma osatzean, ixtorioak kontatzeko eskatu dugunean, ixtorioak bere horretan izan gabe, txiste moduko ixtorio laburrak, pasadizoak, arrazoinak edo ateraldiak… eta are bertsozko kontakizunak ere jaso ditugu. Guk horiek guztiak multzoan aipatzeko, "kontakizun" hitza erabiliko dugun arren, gero sailkapenean bereizketa bat egiteko beharra ikusi dugu, guztiak ez baitira berdinak.

Beste bilketa lan batzuetan ere informatzaileek batzuk eta besteak nahasian ematea ohikoa da. Pascuala Morote-k bere kasua azaltzen du:

> «(...) en Jumilla los narradores de cuentos entienden el término como sinónimo de caso, chiste, anécdota, pasaje, etc. es decir, no tiene para ellos una única significación, consideran *cuento* todo lo que se narra en prosa, se transmite por tradicion oral y tiene un argumento mínimo». (Morote Magán, P. 1992:19).

Anderson Imbert-ek dio (1992 [1979]:19) hori bera Errenazimendu garaian ere gertatzen zela:

> «El termino cuento era empleado por los renacentistas para designar formas simples: chistes, anécdotas, refranes explicados, casos curiosos. Quedó, pues, establecido el término *cuento*, pero nunca como designación única: se da en una constelación de términos diversos».

Maxime Chevalier konturatu zen, Espainiako Urrezko Mendeko kontakizunak aztertzean, ixtorio errealista horietako batzuk aspalditik zetozela, eta horien tradizionaltasuna eta balioa azpimarratu nahi izan zuen. Eta "txiste" izendapenak tradiziozko izaera ezkutatzen zuelakoan, horietatik bereizi beharra azpimarratu zuen:

> «Con ser tan difundidos estos cuentos en la tradición europea, conocemos mal su vida histórica y su expansión geográfica. (...) En especial las huellas que

> dejaron los cuentos jocosos en los textos de la Europa renacentista y barroca han pasado frecuentemente desapercibidas. (...) Consecuencia lógica de nuestras ignorancias es nuestra incapacidad para trazar genealogías y mapas. Consecuencia de esta incapacidad es la definición perezosa de estos cuentos como chistes, anécdotas o facecias. Conviene esforzarnos por evidenciar el caracter tradicional que presentan razonable cantidad de ellos, confiriéndoles así el estatuto que les corresponde» (Chevalier, 2002: 122).

Hori dela eta, gure bildumako kontakizunak multzoan hartu eta tradiziozkoa zer den eta zer ez den sailkatzen eta azaltzen saiatuko gara. Era berean, tradiziozkotzat jotzen ditugun ixtorio horietatik zenbait, bilduma zaharretako arrastoak direla ikusiko dugu. Beste batzuk ere, tradiziozkotzat joko ditugu, nahiz eta bilduma zaharretan agertu ez, bilduma modernoetan hizkuntza desberdinetan lekukotasunak aurkitu ditugulako. Orri hauetan froga horiek egiten saiatuko gara. Baina nola egin bereizketa hori? Nola jakin, adibidez, zein den tradiziozko irri ixtorio bat eta zein den sorkuntza berriko "txiste" bat? Eta zer ulertzen dugu tradiziozkoa diogunean?

Galdera horiek erantzuten saiatuko gara, gure corpuseko materiala aztertzen dugun heinean. Maxime Chevalierrek hitz hauekin aurkeztu zuen arazoa Espainiako Urrezko Mendetik[2] iritsitako ixtorioen bila zebila:

«(...) resulta imposible apoyarse en los métodos de una historia regresiva como tampoco en unos rasgos estructurales para determinar el caracter tradicional de un cuentecillo. Dadas estas circunstancias, ¿en qué criterio hemos de fundarnos para afirmar que un cuentecillo fue tradicional en el Siglo de Oro?». (Chevalier, 1978: 51-52)

Berak proposatzen du, tradiziozkotzat jotzeko garai horretako eskuizkribu batean baino gehiagotan agertu behar izatea ixtorioak, edo eskuizkribu batean eta liburu batean. Euskaraz, garai horretako idatzi gutxi dugu, berririk agertzen ez den bitartean, mota horretako erkaketarik egiteko. Hizkuntza beraren barruan ere, ezin daiteke guztiz baieztatu, berriki ahoz nahiz idatziz jasotako kontakizun baten sustraia lehenaldiko idatzi bat denik, ahozko tradizioak idatzitako testu horiek zabaltzen lagundu duelako :

«Comparar unos cuentos gemelos, unos cuentos que presentan «aire de familia», es procedimiento legítimo. Pretender que una versión deriva automáticamente de otra por haber sido apuntada unos años después es afirmación mucho más arriesgada, que en ocasiones carece de la más leve justificación» (Chevalier, 1978: 41).

[2] Espainiako Urrezko Mendea (gaztelaniaz Siglo de Oro) espainiar kulturaren garai klasiko edo gorena da, nagusiki XVI. mendeko Pizkundea eta XVII. mendeko Barrokoa. Gertakari aipagarri hauen arteko datak hartzen dira kontuan: Antonio de Nebrijaren *Gramática Castellana* 1492an argitaratu zenetik Pedro Calderón de la Barca 1681ean hil zen arteko garaia hartzen du.

Horren lekuko hainbat adibide ematen ditu. Poggioren Facetiae-ek, esaterako, XVI. Mendeko Espainiar ixtorioetan izan zuten eragina. Ikusiko dugunez, gure bildumako ixtorio batzuk ere, Florentziako humanista horren bilduman jasota datoz. Izan ere, herri literaturaren mugak, hizkuntzaren mugetatik harantzago doaz. Ixtorio horietako batzuk latinezko, gaztelaniazko, frantsesezko eta italierazko bilduma zaharretan jasota aurkitu ditugu. Beste batzuetan, gure bildumako ixtorioen antzeko lekukotasun moderno batzuk ekarriko ditugu orriotara. Denak kontuan izanik, tradizionaltasun horren arrastoak bilatzen saiatuko gara.

Orokorrean, ixtorio bat tradiziozkoa ala literarioa den desberdintzeko, esaten da tradiziozkoa anonimoa dela, eta ez dela finkoa, aldagaietan bizi dela.

Stith Thompson-ek (1972:26) prosazko ipuin tradizionala (ipuin folklorikoa) aztegai hartzean, "ipuin folklorikoa" terminoaz hainbat definizio ematen ditu:

> «En su acepción más amplia el término indica toda aquella narración heredada del pasado, ya sea en forma escrita u oral. En este sentido *las fábulas de Esopo* y los cuentos de *Las mil y una noches* con cuentos folklóricos. En otro sentido [...] incluye toda clase de cuentos tradicionales de todo el mundo. Mientras que las *Las mil y una noches* sería excluído como esencialmente un producto de la tradición escrita, todo cuento, mito y leyenda, ya serio, sagrado o sencillamente gracioso, se incluiría. El tercer sentido iguala el término "cuento folklórico" al alemán "Märchen", de modo que se incluye dentro de este concepto sólo cuentos de la clase hallada en la colección de los hermanos Grimm, o lo que se llama confusamente en inglés, "fairy tales"»…

Gure ikerketa lan hau ahozko tradiziotik jasotako forma laburrek osatzen dute, ezin dezakegu, beraz, idatziz eman baditugu ere, ahozko formak direla ahaztu. Baina ixtorioetako askoren baliokideak tradizio zaharragoetako bildumetan jasota datozela frogatzen saiatuko gara. Hori horrela den neurrian, aipatu berri ditugun ipuin folklorikoaren hiru definizioetatik lehenaz baliatuko gara ikerketa honetan.

2.2. AHOZKO-IDATZIZKO KONTAKIZUNA

André Jolles alemaniarrak bere horretan artelanak izan gabe, sorkuntza artistikoak izango liratekeen formak aipatu zituen *Les formes simples* liburuan (1971 [1930]), eta horien garrantzia azpimarratu nahi izan zuen: hagiografía, mitoa, leienda, enigma edo ipuin miresgarriak. Literatur lanak hizkuntzaz osatuta daudela oinarritzat hartuz,

literatur lanaren azterketa estrukturala egin zuen. Beraren ustez, "zaila baita forma literario handiak ulertzea tarteko estruktura horiei erreparatu gabe".

Anderson Imbertek (1992 [1979]: 31), ordea, "generoen izendapenak batzuetan bat datozen arren, horiek definitzean Jollesek eta berak irizpide desberdinak dituztela" dio"[3]. Izan ere, Jollesen katalogoak ahozko formak barneratzen ditu, eta Anderson Imbertek, berriz, idatzizko formak aztertuko ditu bakarrik, bere ustez, "oso gutxi omen baitakigu adierazpen espontaneo, ahozko, anonimo, tradiziozko eta herritar horiei buruz, alegia, ahozko formei buruz" :

> «Pero aún en los estudios sobre el cuento oral los especialistas son los primeros en confesar que es muy poco lo que se sabe. No digamos en la antigüedad pero ni siquiera en la época moderna se recopilaron cuentos auténticamente folklóricos; y en los tiempos contemporáneos escasean. Las colecciónes más famosas –las de Perrault y los hermanos Grimm– retocan y estilizan lo que transcriben. La tradición del cuento oral y la historia del cuento escrito coexisten pero no en líneas paralelas. (...) A veces el cuento oral adquiere forma literaria. A veces el cuento escrito se difunde por el pueblo».

Baquero Goyanesek (2012 [1949]:59) "ipuin" hitzarekin adierazi nahi den hori zehazgabea bada, arrazoi nagusia tradiziozko ipuinen eta ipuin literarioen arteko banaketan ikusten du :

> «Esta imprecisión nace no sólo de la variedad de términos de distinta extensión, sino que tiene su causa primera en la convergencia −y lucha− de dos tipos de cuentos: el tradicional y el literario, es decir, el cuento a lo Perrault, Grimm, Andersen, y el cuento literario, a lo Maupassant, Pardo Bazán, Clarín, etc. El primero es tan antiguo como la humanidad, bien mostrenco de todos los países, aun de los más incultos».

Juan Mari Lekuonak gordin-gordin entzun bezala transkribatuak ez ziren kontakizunei "erdi-ahozkotasunekoak" deitu zien (Lekuona 1988:17-44). Badakigu, adibidez, Azkuek bere liburuko ixtorioak zertxobait txukundu edo orraztu egin zituela, horrela esaten baitu berak hitzaurrean. Horrek ez die hala ere izaera tradizionala kentzen.

Ahozko tradiziotik jasotako kontakizunak igorle-hartzaileak eta egoera kontuan hartu behar ditu, testuinguru batean gauzatu baitira, eta ez dira forma itxi eta egituratuak:

[3] Itzulpena gurea da.

> «À la différence d'une conduite narrative dominée scripturalement et donc faiblement présuppositionnelle et plus dégagée du contexte (lisible sans recours incessant à une interprétation situationnelle), la conduite narrative orale «ordinaire» repose sur une causalité interactive fondée sur l'appel à l'activité du (des) partenaire(s) communicationnel(s). D'où la différence bien connue entre des récits distanciés, proches de l'écrit, et ces récits opaques, hétérogènes à souhait où l'histoire semble s'effacer derrière les interventions du narrateur et ses interpellations de son auditeur» (Adam, J.M 1984:82-83).

Beraz, ahozko eta idatzizko kontakizunen artean alde nabarmenak dauden arren, (egilea jakina izatea ala ez, aldaerak izatea...) azpimarratu behar dugu, ahozko ixtorio horietako asko guregana heldu badira, mendeetan zehar ahozko eta idatzizko transmisio bideak tartekatu izan direlako izan dela. XXI. mendean ahoz jasoko tradiziozko ixtorio hauetako batzuk Erdi Aroko eta Errenazimenduko bildumetan ere jasotzen dira, eta neurri handi batean transmisioa ahotik belarrira eta belarritik ahora egingo bazen ere, idatzizko oinarri bat ere badute.

Idea berdina agertzen du Chevalierrek ere (1978 :44) :

> «Vemos, pues, que la inclusión de unos cuentecillos comparables en dos libros de fecha distinta no demuestra forzosamente que el autor de la segunda obra haya copiado al de la primera. Lejos de dejar sentado un fenómeno de reproducción fotográfica, la repetición puede evidenciar la actividad de una cadena de cuentistas».

Eichenbaum formalistak (1991 [1965]: 148), garrantzi handia eman zion narrazio literario eta ahozkoaren arteko desberdintasunari, eta muga garbiak jarri zituen:

> «La relación entre la narración literaria y el relato oral adquiere importancia fundamental. La prosa literaria ha utilizado extensamente las posibilidades de la tradición escrita y ha creado formas, impensables fuera del marco de esta tradición. La poesía está siempre destinada a ser hablada; puede vivir fuera del manuscrito, del libro, mientras que la mayor parte de los géneros prosaicos se encuentran completamente aislados del habla y tienen un estilo propio del lenguaje escrito».

Erdi Aroko literatura aztertzen aritu direnek, adibidez, ahozko eta idatzizko literaturaren mugak ez dituzte horren garbi ikusten. Jaques Le Goff historialariaren arabera (1999b:537), herriak sortutako literatura hau ez da "kontra-kulturatzat" hartu behar, "beste kulturatzat" baino. Elkar osagarri direla uste du. Iritzi berekoa da Maria Jesus Lacarra, Erdi Aroko kontakizunez ari dela (1999:37), esaten duenean "egile kultu batek ipuin folkloriko bat egokitzea, beti ere ipuin horrentzat salbazio modu bat dela, baina ipuina eraldatzea dakarrela berarekin. Ezinezkoa baita ahozko tradizio puruak

aurkitzea; berridazketak kasu askotan moralizazioa dakarrelako eta batez ere, aukeraketa". Ildo beretik, galdetzen du "idatzitakoaren zabalpenak folklorizazio prozesu bat sortzen lagundu ote duen eta elkarreraginek joan-etorriko bideak eraiki ez ote dituzten" .

Zenbaitetan, ipuin bildumak berriagoak diren arren, kontakizunak beste euskarri batzuetan txertatu izan ziren lehenaldian. Erdi Aroan, adibidez, ahots goran egiten ziren irakurketak. Beranduago beste norbaitek bere idazlan barruan txertatuko zituen, eta askotan ahots goran egiten ziren lanen irakurketetatik, jendearen belarrietara iritsiko zen berriz ere. Mª Jesus Lacarrak baieztatzen du (1999:11), "tradiziozko ipuina, kontakizuna (facecia), alegia eta exempluma, guztiak ahozko eta inprimatutako formetan tartekatzen joan zirela, eta zenbaitetan kutsadura harrigarriak ikus daitezkeela beraien artean".

Gure bilduman jaso ditugun kontakizunei erreparatuz gero, esan dezakegu ipuin erako gertaera xelebre horietako asko aspalditik ibili direla jendearen ahotan. Azalpen luzeagoetan nahastu gabe esango dugu lan honetako kontakizunak ahozko iturrietatik jaso ditugula eta idatzira ekarri ditugun ahozko kontakizunak direla. Bainan, aldi berean, horietako batzuk lehenagotik ahozko nahiz idatzizko tradiziotik etorri zaizkigun kontakizunekin loturan jartzen saituko garela, tradiziozko kultura baten eramale baitira.

Izan ere, gure bizitzako zatirik handiena ahozko ekoizpenean murgilduta igarotzen dugu. J. M. Apalategi-k (1987:46) ere horrela ikusten du, eta ahozko literaturaren garrantzia azpimarratzen du:

> «Nosotros proponemos la hipótesis de que en todo tiempo la literatura oral aparece, y es la primera en cantidad de entre toda otra producción (escrita y científica) en cualquier tipo de sociedad, ya que la expresión oral es la más extensa de cuantas posee la persona. Resulta que en sociedades industriales y post-industriales, la literatura oral puede aparecer en una amplia gama de modalidades, sin excluir los mitos, leyendas y cuentos».

Blanche-Benveniste-k eta Mireille-ek (1999:21-30) ahozko hizkutza kultur alderdietatik baztertzeko joera ikusi dute:

> «En définitve, le fait que cette équivoque ait eu (et continue à avoir) autant de succès pourrait s'expliquer par des raisons qui ne sont pas toutes de l'ordre de la linguistique; il se cacherait sans doute là une vieille habitude qui consiste à

> lier la langue parlée à quelque chose de "naturel", qui s'opposerait aux aspects "culturels" des règles de la langue écrite apprises à l'école».

Ahozkoa eta idatzia bi literatur estilo desberdin direla dakigun arren, beharbada, literatur sorkuntza landua egin nahi horrek ahozko tradizioarekin gehiegi puskatzea ekarri du. Koldo Mitxelena ohartu zen bilatutako haustura horretaz bere *Historia de la literatura vasca* liburuan (1960) "asmo literario handirik gabe idatzitako herri tradizioko gaiak" aipatzen dituenean, askotan "moralizatzaileak". Bere hitzetan, beharbada, "asmo literario" horretara iritsi nahiak, "herri tradizioko" gaiak gainditu nahi izanak ekarri du "prosa modu herrikoietik" tradizio handiegirik gabeko "prosa modu landuagoa" sortu nahia, ahozko hizkuntzatik aldenduagoa.

Ahozko eta idatzizko jardunen artean etena jarri beharrean, badira herri tradiziotik edaten dutela ezkutatu ez ezik, lau haizetara hedatu duten hainbat idazle garaikide aipagarri: Gabriel García Marquez adibidez, edota gure eremuan, Bernardo Atxaga. Azken honek honela dio:

> «Euskal Herria bezalako eremu ttiki eta jaioberrietan, haundia al da ahozko tradizioaren garrantzia? Beste eremu literarioetan duena baino haundiagoa, oro har? Nire iritzirako, erantzuna, lehen ezdakidaka bezala, baibainaka eman behar da orain. Eta baibainaka hasiz, baietz esan behar da aurrena, euskal idazleok maiz edan dugula herri-literaturaren erretenetik; ora har, idazle frantziar edo britaniar batek baino gehiago. Zergatik? -ba, labur esatearren, euskal kulturaren egoerak horretara bultzatzen zuelako». (Atxaga, 1992: 535)

Ahozko-idatzizko adierazpideen bereizketaz ahaztu gabe, baina horiekin itsutu gabe, gure corpuseko materiala literatur adierazpidea den aldetik aztertuko dugu, literatur objektu gisa.

2.3. HERRI KULTURA ETA HERRI IXTORIOAK

Herri kontakizunen ekoizpena kultur testuinguru baten barruan ulertu behar da. Izan ere, L. Díaz Vianak (1984:17) dioen moduan, ahozko tradizioek taldeak definitzen dituzte eta talde horien garapen sozial eta ekonomikoarekin batera aldatzen dira:

> «La Tradición Oral caracteriza y define muchos de los comportamientos y creencias del grupo y éste a su vez va transformando esa tradición según su

> propia evolución social y económica; según las presiones y cambios a los que se ve sometido».

Jakina da, gaur egun, tradiziozko herri kontakizunak jaso nahi izanez gero, adinekoengana eta eremu jakin batzuetara joan beharra dagoela. Gizartea, bere aurrerakuntzekin, onerako eta txarrerako, asko aldatu da azken urteotan, eta aldaketa horrek aurrerantzean ere jarraituko du. Hori ukaezina da.

Tradizioa ezagutzeak geure burua hobeto ezagutzen lagunduko digulakoan, garrantzitsua iruditu zaigu corpuseko material hau ezagutzera ematea. Zenbat eta adierazpide gehiago izan herri batean gauzatzen den literaturaz, literatura kultura den heinean, kultura horri Europako kulturen barruan leku bat egiten zaio. Euskaraz ere, Europako beste lurralde eta hizkuntzetan bezala, antzeko tradiziozko kontakizunak ahotan ibili direla erakusteko beste froga bat da corpuseko materiala.

Badakigu gure artera iritsi zaigun euskarazko fikziozko literatura idatzia, arrazoi desberdinak tarteko, ez dela oso ugaria. Zoritxarrez, literatura idatziaren pare, jendearen ahotan ibili den ahozko literatura ugariaren zati txiki bat baizik ez zaigu iritsi.

Ana Toledo-k 1879an ospatzen hasi ziren "euskal izkribatzalleen bilkidak" aipagai dituela (1990:9-12), idazten du "dirudienez, festa horiek "ikus-entzun" ekintzen mailan erakargarriago izan zirela, ondorenerako eskaintzen zuten "irakurketarenean" baino". Eta hau gehitzen du:

> «Harrigarri ez den gertaera, bestalde, kontuan hartzen bada euskalduna historiaren gorabeherek "entzule" trebeagoa egin dutela "irakurle" baino". (…) Lehenik eta behin baldintzak ez direlako erosoak: batetik, mendearen azken aldera hurbildu ahala eskolaratze maila geroz eta hedatuagoa bada ere, honek erdaraz jarraitzen du, egoera hori leuntzeko edo aldatzeko ahaleginek porrot eginaz; bestetik, kontaketa idatzia mundu berria da euskaldunarentzat. Hau ohituta egon daiteke kontaketak ahoz dastatzera, baina ez horrela, idatziz». .

P. Burkek (1991: 63) kritikatu egin zuen tradizio txikiaren eta handiaren arteko bereizketa egitea. Eskoletan eta elizetan lantzen zen tradizioa ez baitzuen herriaren tradiziotik aparte ikusten. Eta bi tradizioak elkarreraginean zeudela uste zuen.

Ildo beretik doaz Walter Mignolo-ren adierazpenak (1998:253) esaten duenean giza komunitateek kanon bat izateko beharra dutela, eta kanon desberdinak gatazkan sartzen direla nagusi den kanon horrekin:

> «Es comprensible que, en una sociedad plural, lo que ha sido, es o debería ser canónico para los que representan el poder no ha sido, no es y no puede ser representativo de las comunidades marginales».

Baina zergatik esaten dugu hori dena? Herri literaturako zenbait adierazpen, zenbait kasutan, "kultura" nagusiaren esparruetatik aparte garatu direlako.

Bajtinek (2003 [1941]) dio, Erdi Aroan, adibidez, Rabelais-ek adierazitako herri literaturako kanon komikoa ez zela nagusi, eta, beraz, kanon nagusi horretatik kanpo geratu zela. Eta horrek esan nahi du kultura desberdinetan forma kanoniko multzo bat dagoela, baina "zentralen" eta "periferikoen" artean banatu direla.

Era berean, Bajtinek (2003 [1941]) Erdi Aroko herri kultura komikoa ahaztu eta gutxietsi egin dela dio, irria baitu artikulazio elementu, eta ideia burgesek zentzu satiriko negatiboan definitu dutela. Bajtinek bere lanean frogatu nahi du Erdi Aroko irriak bizitzaren inauteri-artikulazio oso bat adierazten duela. Erdi Aroan kontakizunak hedatzeko modua ere aldatuz joan zela dirudi (Maire Bobes, 2002:34):

> «El predicador medieval empleaba los ejemplos para que el sermón fuera más eficaz, pero el auditorio gustaba más de los casos curiosos que de reprimendas y, paulatinamente, el objetivo didáctico de los ejemplarios fue perdiendo la batalla a favor de la finalidad recreativa. Surgieron de este modo, las colecciones de cuentos, proverbios, facecias ("cuentos graciosos, "donaires") que alcanzaron tal difusión en el Renacimiento, que en los medios diplomáticos, se consideraba inepto al embajador que no conocía alguna novela, relato o chascarrillo» .

Herri literatura, aldaeretan bizi delako, zenbaitetan originaltasun gutxi duelako, herri xehearen kultura baten adierazletzat jo izan da. Baina joera hori horrela izan al da beti? Chevalierrek dio kontakizun folklorikoak XVII. mende horretan oraindik ere gorteko eta gizarteko goiko mailako jendeengana iristen zirela (1986:292):

> «(…) lo que importa es observar que Juan de Arguijo y sus amigos no estiman inverosímil que le hayan referido un cuento folklórico al rey don Felipe. (…) El Siglo de Oro es época en la cual los relatos que solemos llamar folklóricos todavía no han venido a ser privativos de las zonas más conservadoras y de las gentes más humildes. Todavía, por poco tiempo sin duda, los conocen y refieren cortesanos y caballeros».

Chevalier konturatu zen Urrezko Aroan idatzi zen komediak pixkana irri ixtorio horiek baztertu eta sehien ahotan jarri zituela (1986:294):

> «La comedia palatina o urbana de Lope pratica una operación quirúrgica: (…)les reserva al criado y a la criada los equívocos, los apodos, las

> palabras germanescas, los proverbios, los cuentecillos familiares (…) La comedia lopesca propone a los caballeros un hablar castigado, exento de las groserías del equívoco y del apodo, purgado de las vulgaridades del proverbio y del cuento. Escuela de urbanidad, la comedia contribuye al esfuerzo polifacético del siglo XVII por formar un caballero perfecto».

Esan dezakegu, pixkanaka, herri literaturaren adierazpide horiek baztertzen joan zirela, literatura "kultuaren" esparruetatik baztertzen. Joera horri jarraituz, ematen du literatura aztergai hartu duten ikerlari eta kritikari batzuek ere, herri kutsuko adierazpideak dituzten lanak beren azterketa esparruetatik baztertu izan dituztela:

«Digámoslo sin rodeos: los estudiosos de la literatura no suelen interesarse por el cuento folklórico». (Chevalier, 1978:14).

2.4. TESTUEN ANALISI SEMIOTIKOA: BEREIZGARRIAK

Gure corpusa aztertzean ohartuko gara, irri gaiko kontakizunetan (ixtorio, txiste zein ateraldietan) irakurlearen edo entzulearen trebezia eta argitasuna jokoan jartzen direla. Metaforak, esanahi bikoitzak, ekibokoak eta hitz jokoak ulertu eta interpretatzeko abilezian dago sarritan kontakizun baten muina. Horiek ulertzeko, testuetan antzematen ditugun isotopiak izan beharko ditugu kontuan. Greimasek diskurtsoaren barne koherentzia izendatzeko erabili zuen lehen aldiz (1966) isotopia kontzeptua. Isotopiek diskustsoari, orokorrean, koherentzia emateko aukera ematen dute:

> «El concepto de isotopía es utilizado por la escuela estructuralista francesa para designar la coherencia interna del discurso. Con él pretenden designar al conjunto coherente de categorías semánticas que posibilita la coherencia global del discurso. En este sentido, puede afirmarse que la isotopía constituye una textualización del concepto de campo semántico».(Aguado, 2004: 114)

Testu batean zenbait isotopia ager daitezke. Testu ironikoetan eta txisteetan, sarritan, isotopien aldaketa horrekin jokatu ohi da. Izan ere, sarritan hizkuntza metaforikora joko da:

> «Las metáforas y las analogías constituyen en los textos nudos de encuentro entre isotopías» (Aguado, 2004: 115)

Bi isotopia mota bereizi ohi dira eta horiek azaltzeko adibide erraz batzuk jarriko ditugu:

Batetik **isotopia semantikoa** kategoria klasematikoen iteraziotik dator eta diskurtso batean anbiguotasuna kentzeko aukera ematen du. Hitz batek, testuinguru batean edo bestean, esanahi desberdinak izan baititzake. Polisemia kasuetan adibidez.

Gure corpuseko adibide bat ematearren, **(51.) "E29-07 Astoak ezin elkar ikusi ahal"** ixtorio ezagunean hau esaten da**:** "Bi astoek ez dute elgar ikusten ahal". Esaldi horretan anbiguotasuna dago. «Jarrera» edo «fisikoa» klasemak aukeratzeak, anbiguotasuna desagerrarazten lagunduko luke eta irakurketa isotopoa ahalbidetu. "Jarrera" klasema aukeratuz gero haserre daudela ulertuko dugu. "Fisikoa" klasema aukeratzen badugu, berriz, itsuak direla. Klasema horietako bat edo bestea aukeratzean, diskurtsoaren isotopiak esaldiari koherentzia ematen dio eta anbiguotasun oro desegiten da. Figura hori bere testuinguruan sartzean, «Jarrera» edo «fisikoa» klasemak aterako dira. Aztertzen ditugun testuetan, behin baino gehiagotan aurkitu ditugu anbiguotasunak edo esanahi bikoitzak.

Bestetik, **isotopia semiologikoak** dauzkagu, kategoria edo sema nuklearrak errepikatzen eta mantentzen direnean. Horiek metaforak eta hitz jokoak ahalbidetzen dituzte. Aurreko adibidearekin jarraituz, "ezin dute elkar ikusi" irakurri eta aurretik aipatutako klasema bat edo bestea aukeratu hainbat isotopia semiologiko aterako dira.

«Jarrera» → izaera zaila, haserrea, borroka

↓

«Fisikoa» → ikusmena, itsutasuna, akats fisikoa

Testu baten analisi semiotikoa egiteko moduak bi joera handitan bana daitezke:

1.-Horietako lehenengoan, analisiak bilatzen duena da kontakizun guztiak bilduko dituen izaera formaleko eredu narratiboa, kontakizunaren gramatika edo egitura, eta hortik abiatuz kontakizun jakin bakoitza aztertu ahal izatea. Horixe egin zuten Proppek eta Todorovek, besteak beste.

2.-Bigarrenean, diskurtsoa testua den aldetik aztertzen da, esanahi bila abiatu den prozesu baten moduan. Horretan adierazia/adierazlea bikotea etengabe ari dira lantzen, beste testu eta kode batzuekin loturan (hortik intertestualitatea).

Irri gaiko kontakizunak aztertuko ditugunez, semantikaren bigarren joera horretara joko dugu, irriaren oinarria gauzak adierazteko modu horretan baitago. Adierazten denaren eta ulertzen denaren arteko jokoan.

Testuen analisi semiotikoaren oinarrian, era berean, egoeren eta aldaketen arteko bereizketa proposatzen da, enuntziatu horiek beti testuko esaldiekin bat ez datozen arren (Mateos, 1982:24):

> «Las frases u oraciones de un texto pertenecen al nivel de la manifestación, mientras que los enunciados (de estado o de acción) forman parte del nivel construido».

Testu batean, beraz, adierazpenaren maila eta adieraziaren maila izango genituzke. Eta adierazitako hori **egoerak** edo **ekintzak** izan daitezke. Ikusiko dugunez, gure kontakizunetan ez dago apenas deskripziorik, ia dena ekintzak eta elkarrizketak dira. Izan ere, azkartasun hori beharrezkoa da irria sortzeko.

2.5. KONTAKIZUNEN AZTERKETA ETA SAILKAPENA: SARRERA.

Jasotako materialaren sailkapena egiteko, corpusean aurki ditzakegun kontakizun motei buruzko zehaztapenak egingo ditugu. Aldi berean, gure tesi lanean erabiliko ditugun terminoak deskribatu eta zehazteko, beharrezkoa da orain arte zein sailkapen erabili diren ulertzea.

Finlandiar eskola deitu izan denak sortu zuen ipuin folklorikoen ikerketa-modu historiko-geografikoa, tipo eta motiboen aurkibideak osatuz. Ipuin folklorikoaren sailkapen unibertsal garrantzitsuena 1910ean egin zuen Aarne-k. Finlandiar ikertzaileak ipuinak elkarren artean erkatu zituen eta "tipo" folklorikoak izango zirenak atera. Aarnek 540 tipo bereizi zituen. 1928an Stith Thompson-ek Aurkibide hori errebisatu eta zabaldu egin zuen, zatikako katalogoetan aurkitu zituen tipo berriekin. Horrela, 1961ean behin betiko bertsioa atera zuten (Aarne-Thompson, 1961).

Nazioarteko sailkapenean agertzen diren ipuin tipoak ez dira ereduak edo arketipoak, sarrien jasotako ipuinen deskripzioak baino. Hau da, agerpen kopuruak markatzen du araua. Honela dio J. Bru-k (1999):

> "Les contes-types tel qu'ils apparaissent dans la classification internationale d'Aarne et Thompson ne sont pas des modèles ou des archétypes. Ils sont simplement la description de contes attestés le plus souvent. La «norme» est statistique et non logique ou formelle".

Ipuinen antzekotasunak desberdintasunak baino handiagoak direla esaten denean, *tipo* berekoak direla esaten da. Tradiziotik jasotako ale bakoitzari, berriz, *bertsioa* esango zaio. Bertsio horrek aldaerak baditu, tipoaren *aldaera* esango zaio.

Thomposonek *tipoa* eta *motiboa* desberdintzen ditu. Motiboa ipuin edo ixtorio baten elementu txikiena izango litzateke, tradizioan iraun dezakeena. Hiru motibo mota antzeman zituen: 1) ipuin bateko aktoreak; 2) argumentuaren korapiloa osatzen duten zenbait elementu (objektu magikoak, sinesmenak...) eta 3) gertakari isolatuak. Tipoen erdiak baino gehiagok motibo bakarra dute.

Aarne eta Thomposonek tipoak bost multzo handitan banatzen dituzte:

I. Animalien ipuinak.

II. Ipuin folkloriko arruntak: Ipuin miresgarriak, erlijiozko ipuinak, nobelak edo ipuin erromantikok, ogro tuntunari buruzkoak.

III. Txisteak eta gertakariak: tuntunei buruzkoak, senar-emazteei buruzkoak, apaizei buruzkoak...

IV. Formula ipuinak.

V. Sailkatu gabeak.

Aarne-Thompsonen zerrendan dauden 700 ipuin inguruen artean, kontakizun sinpleenetik hasita, ipuin miresgarri konplexuenera arte aurki dezakegu. Gure bilduma gehienak "ipuin sinplea" deitzen dituen horietan sartuko genituzke. Horrela azaltzen du S. Thompsonek (1972:254):

> «Pero un cuento no necesita, en modo alguno, ser complejo para formar una fuerte tradición. Una muy considerable proporción de los cuentos legendarios entre cualquier pueblo, está hecha de simples chistes y anécdotas, algunas veces sobre seres humanos y otras sobre animales, y consisten en un solo motivo de narración. Aun en el área restringida a Europa y Asia, tales cuentos son muy numerosos. Cada país ha desarrollado muchos de ellos, los cuales no son conocidos más allá de sus fronteras, y en todas partes surgen nuevas anécdotas y las viejan pasan al olvido.

> No sería una generalización segura concluir que el cuento sencillo es menos firme de vida que uno más complejo. A pesar de lo efímero de algunos y de la naturaleza local de otros, exiten cientos de cuentos sencillos que tienen largas e interesantes historias».

Roger Pinon-ek (1965:10) ipuinen sailkapenaz diharduela Aarne-Thompson-en sailkapena azpimarratu eta nabarmentzen du, eta ipuinak 12 ataletan banatzen ditu :

> «Cada cuento es, antes que nada un tema; ello ha permitido elaborar una clasificación internacional extremadamente útil para los investigadores: es la llamada clasificación de Aarne-Thompson, concenbida por el primero, un sabio finlandés y perfeccionada por el segundo, un norteamericano».

Aarne eta Thompsonen sailkapena berrartu eta Frantziako eremuari egokitu zioten Marie-Loise Tenèze eta Paul Delarue-k *Le conte populaire français* (1976) liburuan.

Eskola konparatista horrek, ordea, kritikak jaso zituen, zenbaitetan ipui tipoa finkatzea zaila gertzen baitzen, gaiari buruzko bertsio desberdinak aztertuta. Aarne-Thompon-en Aurkibidea, hala ere, erreferentzia bat da ipuin jakin bat bilatu eta eremu geografiko jakin batean dituen barianteak aztertzeko.

Orain arte, bilketa egiteko zegoen presagatik, eta kontalari on eta jakitate zaharraren gordetzaile gehienak adinekoak zirelako, euskal eremuan materialaren bilketari eman zaio garrantzirik handiena, bildutako materialaren sailkapenari baino gehiago. Horregatik, orain arteko sailkapenak askotarikoak direla ikus dezakegu, eta ikerlari bakoitzak bere ustez egokiena zen moduan egin du materialaren sailkapena: batzuetan gaiaren arabera, bestetan kontakizun motaren arabera… Han-hor-hemen bildutako materiala aztertzeko, material hori nolabait sailkatu beharra dago, eta horretarako irizpide bat aukeratu behar da. Gure materiala sailkatzeko orduan, kontakizun mota bakoitzaren definizioetan oinarrituko gara. Lehenik antzeko ezaugarriak dituztenak multzokatuko ditugu (errealistak, ipuin miresgarriak, leiendak...) tradiziozkoak ala sorkuntza berrikoak diren eta egiazko oinarria duten ala ez kontuan izanda. Multzorik handiena irri kontakizunek osatzen dutenez, horien barruan banaketa egitea beharrezkoa ikusi dugu.

Kontakizunen sailkapenarekin jarraituz, J.M. Apalategik (1987:52) Barandiaranen lanari kritika bat egin zion, mitoak, ipuinak eta leiendak sailkatzean horietako bakoitzaren gaiak izan baitzituen ardatz:

> «Yo le he preguntado si no ha intentado ordenarlos por otro criterio, como prodría ser el estructuralista. Me ha contestado afirmativamente, pero añadiendo que los resultados que obtenía no le parecían lo suficientemente satisfactorios como para insistir en el empeño. A esta postura va dirigida nuestra crítica: primero, por no insistir más en el empeño de ordenar los cuentos y mitos según criterios estructuralistas, u otros, como formalistas, a lo Propp».

Kontakizunak sailkatzeko orduan, gaur egun, "pragmatikoa" deitu izan den azterketa modua ere nahiko arrunta da, eta ipuinak gehiago aztertzen dira dituzten desberdintasunengatik, dituzten antzekotasunengatik baino (Hernández Fernández, A. 2006:157):

> «Actualmente, superada la etapa en la que la investigación demostró la similitud entre los relatos de todo el mundo, se tiende a estudiar los cuentos más por sus diferencias que por sus semejanzas, es decir, se intenta descubrir las conexiones entre el relato y el entorno social que los transmite, con un enfoque que algunos, utilizando un término tomado de la lingüística, llaman "pragmático" ».

Eskola "pragmatiko" horretakoa izango litzateke Rosa Alicia Ramos. Berak (1988:13) ipuin tradizionalak bi multzo handitan banatzen ditu, narratzaileek eta entzuleek horien egiazkotasunaz diotenaren arabera. Alde batetik egiazko kontakizunak deitzen dituenak egongo lirateke, egiazko oinarria dutenak, hau da, mitoak eta leiendak. Mitoen barruan jainkozko pertsonaiak edo lehenaldi urrunekoak egongo lirateke. Leienden barruan, berriz, lehenaldi gertuko pertsonaia sakratu eta gizakiak. Bestetik, fikziozko kontakizunak izango genituzke: "Ipuin miresgarriak" (Märchen) eta irri ipuinak (Schwanke), umorezko kontakizun laburrak. Bigarren honetan, beste azpibanaketa bat egin litekeela ikusten du: animalien ipuinak eta gizakienak.

Bestalde, Pascuala Morote Magánek (1992:33) hartzailearen arabera sailkatu zituen kontakizunak: "Oso haur txikientzako direnak" eta hor formula ipuinak sartu zituen. Bestetik, "edozein adinetako haur, nerebe eta helduentzakoak". Eta hor ipuin errealistak eta ipuin miresgarriak sartu zituen.

Ikusten dugu, beraz, sailkapenak askotarikoak daudela eta batzuk zein besteak egokiak izan daitezkeela. Orain arteko lanetan ez dago sailkapenerako irizpide finkorik.

Kontagintzari buruzko azterketak XX. mendearen hasieran hasi ziren nagusitzen, ordura arte poesiaren azterketa nagusi izan bazen ere. GASSOUMA, S.-k honela dio (2009 :185) :

> «Il est vrai que la poésie a été longtemps l'objet principal et privilégié des études en Europe, mais au début du siècle dernier viennent les pionniers des recherches modernes dans le domaine de la prose en général et dans celui du récit en particulier».

Literaturako forma labur horietatik gehien aztertu direnak, batez ere, ipuin miresgarriak dira. 1928an Vladimir Jacovlevitch Proppek *Morfologija skazky* argitaratu zuen. Liburu horren berritasuna ez zen gehiegi hauteman, 1958 arte, ingelerara eta gero frantsesera eta gaztelaniara itzuli zen arte. Bertan jauzi bat eman zen eta ipuin folklorikoaren azterketa historiko-konparatibotik azterketa estrukturalista egitera igaro zen. Beraren ustez, ordura arteko azterketa metodoa ez zen egokia. Bere ideiak lau puntu nagusitan laburbiltzen dira:

1.-Ipuinean elementu konstanteak funtzioak dira, pertsonaiak edozein izanda ere, eta funtzio horiek betetzeko modua edozein izanik ere. Funtzioak dira ipuina osatzen duten funtsezko zatiak.

2.-Ipuin miresgarriak funtzio kopuru mugatua du.

3.- Funtzioak beti segida berean doaz bata bestearen atzetik.

4.-Ipuin miresgarri guztiak tipo berekoak dira egiturari dagokionez.

1960an Claude Lévi-Straussek "La estructure et la forme, réflexions sur une ouvrage de Vladimir Propp" argitaratu zuen *Cahiers de l'Institut de Science Economique Apliquée* aldizkarian, eta bertan Proppi erantzun zion funtzioen ordena ez zela finkoa eta funtzioen antolaketa berria aurkeztu zuen. Proppek gaizki hartu zuen kritika eta hortik ezaguna egin den bien arteko Polemika. (LEVY-STRAUSS eta PROPP Vladimir. 1972)

Proppek (1974:16) herri folkloreko Afanasiev-en ehun ipuin miresgarriko corpusetik abiatuz, eredu teoriko bat sortu zuen eta ipuinak beren osagaien arabera deskribatu zituen. Era berean, osagai horien arteko harremanak eta osatzen zuten osotasuna aztertu zituen. Propp ipuin miresgarriak aztertzera mugatu zen, eta halaxe dio berak bere ikerketaren premisak azaltzen dituenean:

> «El cuento es tan rico y multifome que resulta imposible estudiar toda su fenomenología por completo, en toda su extensión y en todos los pueblos. Por este motivo debe ser cincunscrito el material, y yo lo limito a los cuentos maravillosos».

Baina guk hemen jasotako kontakizunetako gehien gehienak ez dira ipuin miresgarriak. Ipuin miresgarritzat sailkatu ditugunek ere Proppek deskribatutakoaren arabera, funtzioetako gutxi batzuk besterik ez lituzkete beteko.

Proppen ondoren, asko dira narratologia aztertzen jardungo direnak. Errusiar formalisten literatur teoriaz —batez ere Tzetan Todorov-ek eta Julia Kristeva-k hedatutakoa —baliatuko da frantziako Kritika Berria. Hogeigarren mendeko hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadan hiru aldizkari aipagarriren bidez hedatu zen: *Communications, Tel Quel* eta *Poétique*. Horietako lehenaren 8. kapituluan "txisteaz" dihardu Violette Morin-ek eta horiek ere kontakizuntzat jo beharko liratekeela uste du (1966):

> «A veces es tan breve o tan «divertida» que su valor de relato podría ser cuestinado. Pero estas «historias» son finalmente relatos. Como éstos, y mejor aún, hacen evolucionar una situación en función de saltos imprevistos. Como los relatos, y mejor aún, nos invitan a demostrar sus resortes».

Proppen teoriaz geroztik, asko dira haren ereduari jarraituz egin diren azterketak. Espainian ipuin folklorikoaren ereduari jarraituz egin diren azterketen berri zehatzagoa jakiteko interesgarria da bere tesian oinarritutako Moreno Verdulla-ren liburua (2003). Bertan, miresgarriak ez diren ipuinei metodo estrukturalista aplikatzen zaie. Miresgarriak ez diren ipuinen artean hiru mota desberdintzen ditu: "engainuzkoak", "liskarrei buruzkoak" eta "agindu eta debekuei buruzkoak". Engainuzkoak tuntunen eta ergelen arteko ipuinak izango lirateke. Maria Teresa García Ruiz-ek (1976), kontakizun horiei "burlescos" deitzen die eta eskema honetan laburbiltzen ditu:

Harremana	Laguntzailea	Ekintza	Helburua	Zigorra
Nagusia/sehia	+/-	Engainatzea	Apostua irabaztea /inteligentzia frogatzea	-

Senarra /Emaztea-maitalea	+/-	Engainatzea	Sexu desioa	-
Argia/tentela	-	Hondatu, puskatu	Komikoa	+

Euskarazko kontakizunei Proppen eredua aplikatu zien Martin Etxeberriak bere tesian, eta tesi horretako ideia nagusiak *Ipuin harrigarriak* liburuan argitaratu zituen (1973).

Doubrovsky–k (1966:78-79) literatur kritikaz ziharduela, edozein testu aztertzeko ikuspegia aukeratu beharra azpimarratu zuen:

> «Si l'on pouvait additionner les perspectives et juxtaposer les méthodes pour arriver à une vérité totale, tout serait simple; si l'on pouvait, en superposant des structures partiellement cohérentes, prélevées à des niveaux significatifs différents, aboutir à une structure globale et à une cohérence entière, on pourrait charger une 'super-critique' de ce travail d'integration. Malheureusement, il n'y a pas plus de super-critique qu'il n'y a de super-vision qui, en accolant les perspectives, finirait par percevoir les six côtés du cube à la fois».

Proppek (1987:17) edozein fenomeno aztertzeko aukerak ugariak izanik ere, aldez aurretik deskripzio sistematikoa beharrezkoa zela uste izan zuen:

> «Es incontestable que se pueden estudiar los fenómenos y los objetos que nos rodean desde el punto de vista de su composición y de su estructura, desde el punto de vista de su origen, o desde el punto de vista de los procesos y de las transformaciones a que están sometidos. Hay otra evidencia más, que no precisa de demostración alguna: no se puede hablar del origen de un fenómeno, sea el que sea, antes de describir este fenómeno. Sin embargo, el estudio del cuento era abordado sobre todo en una perspectiva genética, y en la mayoría de los casos sin la menor tentativa de descripción sistemática previa».

Guk aztergai dugun material narratiboa askotarikoa da. Aarne-Thompsonen sailkapenaren arabera[4], badira "ipuin miresgarrien" atalean sar ditzakegun gutxi batzuk, euskarazko beste bilduma batzuetan ere jasoak; badira "erlijiozko ipuinak" atalean bil daitezkeenak eta euskal bildumetan baliokideak dituztenak. Azken horiek errealisten atalaren barruan sartuko ditugu, pertsonaiak, askotan Jainkoa eta apostolua

[4] THOMPSON, Stith - AARNE, Anti, 1955-1958. *Motif-Index of Folk Literature. A Classificationof Narrative Elements in Folktales*, *Ballads*, *Myths*, *Fables*, *Medieval Romances*, *Exempla*, *Fabliaux*, *Jest-books and Local Legends*. 6 vols. Copenhague & Blomington: Indiana University Press.

izanik ere, pertsonaia arrunt-errealisten jokabideak dituztelako. Bestetik, gure bildumako multzo handi bat folklorista bikoteak "gertakari irrigarrien" eta "apaizei buruzko txisteen" multzoa deiturikoan sailkatuko dugu, (alegia, 1200-1699 eta 1700-1849 zenbakidun bitartekoetan, hurrenez hurren). Ikerketa lan honen ekarpenik handiena azken horien azterketatik etorriko da, multzorik handiena ere horiek osatzen dutelako.

Gure bildumako kontakizun irrigarriak ere banatu egingo ditugu, eta tradiziozko ixtorio irrigarriak, ateraldietatik eta txisteetatik bereizten saiatuko gara, denen muinean umorea badago ere.

Ateraldiak benetan gertatutako bizipenetatik ateratarakoak dira. Zenbaitetan, ez da erraza izango narrazio bat fikziozkoa den ala ez erabakitzea. Gerta daiteke inoiz gertakari bat gertatu izana eta gero ahoz aho tradizionalizatu eta gero, fikziozkoa balitz bezala aurkeztea. Edo alderantziz, zenbaitetan gertatu ez den zerbait, benetan hala gertatu balitz bezala kontatzen dute bertakoek, beraien begiekin ikusi balute bezala. Fenomeno hori gehiago ematen zen duela zenbait urte, Barandiaran eta beste bilketa etnografikoak egiten aritu zirenean. Herritarrek laminak…ikusi egin zituztela ziurtatzen zutenean.

Txisteak laburrak direla esan izan ohi da (Morote eta Rodríguez 2001:261):

«El cuento popular es un relato de tradicion oral, relativamente corto (pero no tanto como el chiste o chascarrillo)(…)»

Baina luze-laburrari begiratzea ez da nahikoa. Gure txisteen atalean kontakizun luzeagoak ere sailkatu ditugu, sorkuntza berriko irri-kontakizunak zirelako, tradiziorik gabeak.

Euskarazko testuei dagokionez, herri literaturako materiala sailkatzeko orduan orain arte ugariak dira hartu diren iripizdeak. Azterketa kronologiko bat eginez, orain arte erabilitako zenbait sailkapen modu aipatuko ditugu. Lehendik egindako lanei erreparatzea beharrezkoa da eta lagungarri ere izango zaigu gure sailkapena hobeto osatzeko.

Vinson-ek, adibidez, sei ataletan banatu zuen *Le folk-lore du pays basque* liburua (1. ipuin eta narrazioak; 2. Kantak; 3. Formulak, eske kantuak...; 4. Asmakizunak; 5.

Esaera zaharrak; 6. Pastoralak) eta horietako lehena, aldi berean hiru ataletan banatu zuen (a. Legendak eta sineskeriak; b. Ipuin miresgarriak; c. Tontakerien eta lañokerien narrazioak (Récits de sottises et naïvetés)). Guri batez ere, azken hauek interesatzen zaizkigu, sail honetan sartzen baitira guk bildutako ipuin asko.

Jose Mari Satrustegi Euskaltzaindiak Herri Literaturari buruz antolatutako II. Jardunaldietan, 1992an, herri narratibaren atalak aztertu beharraz mintzatu zen. Berak onartu zuen atal batzuen eta besteen arteko mugak agertzea ez zela beti erraza, baina bere ustez joera nagusiak zirenak markatu zituen eta bereizketa hau egin: 1.-Gertakizuna; 2.-Kondaira; 3.-Historio-misterio; 4.-Alegia edo fabula; 5.-Leienda edo elezaharra; 6.-Ohitura zaharra (tradición); 7.-Atsotitza edo errefraua; 8.-Esamesa; 9.-Ipuina; 10.-Mitoa.

"Gertakizun" izendapenarekin jasotakoak, benetako gertakariak dira, kontalariak sumatutako gauzen kontaerak eta esatariak bere edo bere gertukoen esperientzia bezala emana. Tesi hori bera defendatzen du Joxe Mari Oterminek (2014) Fernando Amezketarrari leporatu zaizkion gertakariez mintzatzen denean Auspoako 330. alean. Berak dio, hainbat gertakari Fermando Amezketarrari gertatuak direla esan izan ez balitz, berdin berdin leporatu ahal izango zitzaizkiola Pastor Izuelari. Horregatik diogu errealitatearen eta fikzioaren muga ez dela beti horren zurruna.

Antzeko iritzia plazaratzen da Urkizuk zuzendutako literaturaren historian (2000:70) Garibay-eren lanaz ari dela:

> «Es evidente que por ejemplo la narración XLIII refiriéndose a un fraile hambriento luego se oirá referida a Fernando Amezketarra, considerado como un bertsolari de principios del siglo XIX, nacido en Amezketa, cuyas historietas reelaboradas por Gregorio Muxika y por Jon Ormazabal han llegado a ser el best-seller de la literatura vasca.
>
> En sus historietas laburdinas tituladas por Jean Elissalde como Arto xuritzetan (Deshojando el maiz), en vez de Fernando el bertsolari el personaje popular a quien se atribuyen dichos sucesos es el koplari Oxobi, también un personaje real del XIX».

Bilketa lanean jardun naizenean, kontalariengana jo dudanean, beti saiatu naiz fikziozko kontakizunei lehentasuna ematen, nire ikerketaren helburua ez baitzen errealitateko gertakariak biltzea, asmatutako kontakizunak baizik. Hala ere, ikusiko dugunez, zenbait irri kontakizun oso sustraituta zeuden, herrian bizi izandako pertsonaia bati lotutako gertakizun irrigarriak, errealitatearen eta fikzioaren mugan

koka ditzakegunak eta ateraldi edo "arrazoin" irrigarrien atalean sartu ditugunak. Kasu horietan ateraldi/arrazoin irrigarria dela esango dugu eta ez ixtorio irrigarria eta ezta txistea ere. Kontrako kasuren bat ere badugu, kontalariak "arrazoin" bat kontatuko zigula esatea, baina guk ixtorio errealisten atalean sailkatzea, tradiziozko ixtoriotzat jo dugulako. Adibidez: **(53.) E12-01 "Bi beizik ez"**.

Camarena Laucirica-ren ustez (1992:405) , orain arte egindako zenbait bilketetan bertan sartutako elementuen bereizketa hori ez da guztiz garbi egin, eta ipuinaren zakuan sartu dira gertakariak, leiendak…

> «Cuando los narratólogos vascos más importantes hasta el presente han editado los textos recogidos de labios de sus informantes no han creído necesario plantear qué tienen, o han tenido, éstos por cuento y qué no. Para ellos, imbuídos por lo general de una notoria religiosidad que no ha tenido por qué ir en detrimento del saber científico de sus trabajos, se trataba de composiciones cuya falta de verismo era incontrovertible pero que eran apreciables en cualquier caso por ser exponentes del "saber viejo"».

Pierre Laffite-k Herri literaturaz egindako lan batean (1990) bere sailkapena egin zuen eta bertan ipuinak, hitz laxozko beste josteta batzu, atsotitzak eta bertsuak bereizi zituen. Ipuinen atala 5 zatitan banandu zuen:

> «Mota guzietakoak badira eta gaiak ardura nahas-mahas ateratzen. Halere, klasatzekotan, bortz taldetan ezar ginazazke».

Hor sartzen ditu lehenik, **paganu sinesteri eratxikiak**, hala nola, Mariren ixtorioak, basa-jaun andereei buruzkoak, Tartaroari buruzkoak... Bigarrenik **ebanjelio-izunetarik bilduak**, Jesus eta Jondoni Petriren istorioak... Hirugarren atalean egongo lirateke **basa-edestikoak** deitzen dituenak, aspaldiko gertakari batzuen kondaira: "Gisa hortan kondatuak zaizku errege, gerlari, pilotari, marinel, eta bertze gizon aipatu hainitzen zori on ala gaitzak".

Laugarren atalean ixtorio-mixterio edo iduripen hutsezkoak. Eta adibide batzuk ematen ditu: Midasen minarena, Urregile xerriarena, Zozoarena, Xixtu xarmatuarena...

Beste guztiak, bosgarren eta azken atalean sartzen ditu:

> «Iduri gertatuak, bainan izpirituz emanak, gehienak jostagarri hutsak. Maizenik aipatzen zaizkun jende-motak talde hoitan guzietan dira: errege-erreginak, medikuak, apezak, sakristauak, buhamia eta ijitoak, guardak, soldadoak, makinunak, mozkorrak, jujeak, ohoinak, atso gaixtoak, zozoak, jokolariak, amerikanoak, arrotzak».

Orain banaka banaka, gure bildumako kontakizunen ezaugarriak deskribatzera igaroko gara:

2.5.1. KONTAKIZUN ERREALISTAK

Gure corpuseko kontakizun multzorik handiena atal honetan sartuko dugu. Ipuin miresgarriak eta mitoak azterketa ugari izan badituzte ere, mota honetako kontakizunak dira hedatuenak herritarren artean. Atal honetako ixtorioetan pertsonaiak eta gertakariak ez dira miresgarriak, eta Thomposonek horrela deskribatzen ditu (1972): "anecdotas breves de acciones de listos y bobos, cuentos de adulterio y amores ilícitos a veces entretenidos, a veces meramente obscenos".

Pascuala Morote Magánek, berriz, (1992:33) hau dio kontakizun multzo zabal honi buruz:

> «En primer lugar los denomino cuentos realistas, porque sus temas están vinculados con temas de la vida cotidiana: la religión, la mujer, las relaciones familiares entre padres e hijos, y hermanos y hermanas. A éstos he añadido los que expresan una visión burlesca de la vida, como los cuentos-chistes, los de tontos, sordos, curas, frailes y monjas; los que presentan personajes cuya principal cualidad es la astucia que triunfa sobre cualquier otra; los de engaños, malentendidos, aventuras, etc... De todos se halla ausente lo extraordinario o maravilloso, pues incluso en los de tema milagroso, los santos y Jesucristo están tratados con gran familiaridad».

R.A. Ramosek (1988:25) kontakizun horiei buruz bi elementu azpimarratzen ditu, laburtasuna eta gatazka (azkarren eta tuntunen artean, debekatuta eta onartuta dagoenaren artean…) eta argumentuak zailtasunik ez duenez, eta ezta desbideraketarik ere, entzulea korapiloaren amaieran ipuinaren amaiera iritsi dela ohartzen dela:

> «Así como el "Märchen" consiste en una larga sucesión de incidentes y "motivos", el "Schwank" limita el número de incidentes. Aunque la elaboración del relato depende mucho del estilo del narrador, el argumento del "Schawank" es más simple que el del "Märchen", consistiendo generalmente en un episodio o en una serie de ellos íntimamente relacionados y a menudo paralelos. (...) El oyente anticipa el desarrollo de la acción e intuye el advenimiento del desenlace. (...) De ahí que sea innecesaria la fórmula de conclusión. Al no haber complicación ni desviación argumental, el oyente se da cuenta de que ha llegado el final del cuento cuando el episodio llega a su desenlace».

Ideia hori bera, erakusten du J.M. Adam-ek (1984:17-18) irri kontakizunez diharduela. Esaten du kontakizun bat irakurri edo entzuten hasten garenean, zeri buruz ari den jakiteko beharra dugula. Eta berehala irakurle edo entzuleak kontakizunaren amaierara zuzentzen duela arreta, guk bildutako kontakizunetan argi ikusiko dugun moduan :

> «Il ya généralement la conclusion qui tire l'histoire en avant. Le lecteur anticipe et dirige inconscienmment son attente en direction du dénouement (ce que les histoires drôles mettent bien en évidence) (...) une macro-structure sémantique organisant le(s) sens du récit de telle sorte que l'on puisse savoir ce qu'il signifie globalement».

Gure corpuseko materiala aztertzean ohartu ginen Urrezko Aroko kontakizunen bildumetan gure kontakizunen baliokide batzuk zeudela. Horiek ixtorio tradizionalak dira −ipuin folklorikoak edo kontakizun tradizionalak−, forma eta eduki desberdinetakoak. Maxime Chevalier-ek (1978:44) XVI eta XVII. mendeetako Espainiako tradiziozko ipuinak aztertu zituenean, horietaz hitz egiteko ipuintxo tradizionala terminoa erabiltzea proposatu zuen, ipuin folkloriko terminotik desberdinduz :

> «Entre cuentos folklóricos y cuentecillos tradicionales existen unas semejanzas básicas: unos y otros son de carácter oral y vivieron dentro de una civilización de tipo tradicional, pero también saltan a la vista las diferencias».

Desberdintasun batzuk aipatzen ditu:

a) Ipuintxo tradizionalen **jatorria ez da horren zaharra**, ipuin folklorikoen aldean. Aintzinako ipuintxo tradizional bat garai modernoan berriz sortzeak ez du esan nahi ahoz aho ibili zenik ordutik, etenik gabeko tradizioa duenik, alegia. Inprentaren bidez, baliteke horietako batzuk berriz hedatzea, memoria tradizionalak ahaztuta bazituen ere.

b) Ipuintxo horietako zenbait **eremu geografiko mugatu batean** sortu eta bizi izan ahal dira soilik. Apez edo predikatzaileei buruzkoak, esaterako, kristau herri bateko berezkoak dira.

c) **Hizkuntzari dagokionez**, ipuintxo tradizional batzuk, hitz-joko batean oinarritzen dira. Horrek esan nahi du hizkuntza horretan sortuak direla eta ez direla beste hizkuntza batzuetatik jasoak.

d) Zenbait ipuintxo publiko kulto baten berezkoak dira, eta, beraz, publiko murritza dute nahitaez. Chevalierrek latinezko esaldiak barneratzen dituzten ipuintxoen adibideak ematen ditu eta horiek elizgizon eta ikasleen artean bakarrik tradizionalizatu ahal izan zirela.

e) Ez da agertzen hitz egiten duen animaliarik, eta motibo miresgarririk ere ez du izaten. Edukiari dagokionez, ipuintxo folklorikoaren gaiak hedaduraz txikiagoak dira, baina ipuin folklorikoak baino motibo askoz ere ugariagoak onartzen ditu.

f) Formari dagokionez ere, bi hitz egiten ditu. Esaten du laburregiak direla zatikatu ahal izateko eta horien aniztasuna handiegia dela, horietako elementuren batzuk kontakizun askori aplikatu ahal izateko. Zenbait errefrau batekin amaitzen dira.

Forma aniztasun hori dela eta, horietatik egitura oinarri duen azterketa estrukturalista egiteko ezintasuna da, hain zuzen, ukatu nahi duena lehen aipatutako Moreno Verdula-ren tesiak eta horretan oinarritutako liburuak (2003).

Antonio Lorenzo Vélez-ek ahozko tradizioko ipuin antiklerikalak aztertzen dituen lanean, "ipuin folklorikoak" eta "ipuin tradizionalak" terminoak desberdintzen ditu. Azken hauek laburragoak, irrigarriak, eta tonu errealistagokoak izaten direla dio (1997:20):

> «Por lo general, usamos indistintamente los términos cuentos "folklóricos" y cuentos "tradicionales". Si bien entendemos que los cuentos propiamente folklóricos son aquellos de temática más amplia, donde no se excluye lo maravilloso (objetos y poderes mágicos) y que se suelen presentar en varias secuencias. Los cuentecillos tradicionales, en cambio, suelen ser más breves, de carácter risible y con un tono marcadamente realista».

Ipuintxo tradizional horiek identifikatzeko Chevalierrek ematen dituen irizpideak ere bi dira (1978): bata horiei liburuetan aipamenak egitea eta bigarrena, aldaerak edukitzea. Gaztelaniazko Urrezko Aroko hainbat kontakizunetan horien aipamena egiten zen. Barianteei dagokionez, ipuintxo tradizionalak kokapen konkretu bat izan dezakeela dio, kontalariak herri jakin batean kokatzen dituenak. Protagonisten nortasuna, berriz, zehaztu gabeko hitzez aipatzen da: "gizon bat", "emazte bat". Batzuetan kontakizunerako ezinbestekoak diren aipamen batzuk agertzen dira, hala

nola, adina ("mutil bat", "atso bat"), familia harremanak ("alaba gaztea") eta akats fisiko batzuk ("itsu bat", "begioker bat", "konkordun bat").

Irri kontakizunen umoreari dagokionez, R.A. Ramosek (1988) Bremonden oharrak hartzen ditu kontuan, edozein narraziori aplikatu ahal zaizkion arau orokorrak ateratzen dituenean. Eta honela arrazoitzen du (1988:27):

> «Aunque lo inverosímil de los "Märchen" puede resultar cómico, el asunto global del relato es serio, ya que traza la trayectoria del protagonista hacia la realización de su meta, o hacia un "mejoramiento". El asunto del "Schawank", en cambio, traza la no-realización de la meta del personaje principal debido a su propia insensatez y es en esta degradación que estriba la comicidad del relato».

Izan ere, Bremondek zioen (1966) oinarrizko sekuentzia batean hiru funtzio egongo direla. Lehenak prozesuaren aukera guztiak zabaltzen ditu. Bigarrenak aukerak aztertzen ditu, eta hirugarrenak prozesua osatzen du. Eta aldi bakoitzak dakar hurrengoa ezinbesteko ordenean. Bakoitzean, aukera edo helburu baten eguneraketa, edo eguneraketa eza dira posible eta gertakariak hobekuntza eta degradazio artean banatuta daude.

Gero komikotasunaren gaian sakontzen dugunean berriz etorriko gara irri baliabideetara eta gure corpuseko adibideez hitz egingo dugu.

Euskal literaturaren azterketetan irri kontakizunaren deskribapenaz ez da gehiegi idatzi. Txomin Peillen-ek bere artikulu batean (2002) egiten ditu irri kontakizunez zenbait baieztapen interesgarri, berak bildutako hainbat kontakizun azaltzeko, eta horien gaiak, egiturak eta iturriak zeintzuk diren aipatzen ditu. Iturriekin ez gara orain sartuko, gai horri buruz teoria desberdin asko baitaude eta denak azaltzeak luze joko liguke. Beraz, gaiak eta egiturak deskribatuz hasiko gara.

Gaiei dagokionez, berak bildutako irri kontakizun horietan xinplekeriaz, moldegaiztasunaz, eta zintzotasunaz ere barre egiten dela dio: "Herri kontakizun gehienetan bezala ez da moral garbi-garbirik, araztasunik, zintzotasunik". Eta harantzago doa, behin eta berriz errepikatzen den gaia sexuarena dela dioenean: "Ipuin horiek asto lasterretako eta xikitoetako irri baliabideekin erkatzen baditugu, elkarren arteko gai nagusia sexuarena da".

Txomin Peillenek artikulu horretan zirtoak edo dritxoak ere bildu zituen, irriaren adierazpide garbi baitira. Horiek elkarrizketaz baizik ez dira osatuak. Ateraldi irrigarri bat izan daiteke, erantzun zorrotz bat. Oso forma laburrak dira, txisteak baino laburragoak, baina hitz gutxitan irri eragiteko gai dira.

Gaiekin jarraituz, gogoratuko dugu Thompsonek ipuin laburrek izan ohi dituzten gaiak aipatzen dituela (1972). Gai horietako batzuk berreikusiko ditugu, gure bildumako irri kontakizunetan ematen baitira. Beraz, esan dezakegu, ipuin laburrak direlakoen barruan, behin eta berriz errepikatzen diren gai batzuk ditugula. Gure bildumako ipuinetan ere, halaxe agertu dira, eta horien adibide batzuk emango ditugu hemen:

A atalean ingeniozko ipuinak sartzen ditu. Hainbat adibide ematen ditu horiek deskribatzeko. Zenbaitetan pertsona argiaren eta tuntunaren arteko kontrastean dago interesik handiena, eta tuntuna izango da askotan garaile. Gure bildumako **(49.) E1-04 Zordun abila** kontakizuna adibidez, hor sar genezake. Hauxe da argumentua: "Gizon aberats bat zen eta denak "Abila" deitzen zuten. Sosa prestatua eskatu eta horiekin behiak erosi zituen. Handik hilabete batzuetara oraindik sosa turnatzeko zegoen. Goiz mezan lagun batek ohartarazten dio sosa prestatu ziona akabailan dela. Bisitan joaten zaio kobratzeko asmoz:

> «-Enauk ezautzen, Abila nauk! –esaten dio.
>
> -Behartuko zaik! –erantzun besteak».

Sail honetako beste adibide bat izan daiteke **(70.) E45-12 Abila eta tontoa** izenburuarekin izendatu duguna. Honetan, ustez tontoa zen horrek irabazi zizkion laurogei pezeta, ustez abila zenari.

H atalean, adibidez, **sedukzioa eta adulterioa** gaitzat duten ipuinak sartzen ditu. Honela definitzen ditu engainu motak (1972:272):

> «Esos engaños pueden ser de muchos tipos. Pueden acabar en seducción, en la frustación de amores importunos, en el engaño de los maridos cornudos, o en el descubrimiento y castigo de los adúlteros por el altrajado esposo o por algún tramposo que se beneficia con la situación. Cuentos como estos son muy viejos, y fueron especialmente populares entre los escritores de fabliaux, novelle y libros de chanzas. Una gran proporción de tales cuentos literarios no se les oyen nunca a los narradores populares. Pero algunos de ellos se conocen muy bien en todas partes. Y ciertamente, muchos de tales cuentos se han hecho completamente independientes de influencias literarias».

Gure bilduman hainbat adibide ditugu gai multzo horretan sar daitezkeenak. Baten bat aipatzekotan, **(104.) E41-04 Gasna** aipatu daiteke. Argumentua hauxe da labur-labur esanda: "Ibiltari bat etxe pobre batean geratzen da ostatuz. Hartzen dute afaritan. Gizona gasna asko jaten hasten da eta mesedez horresbeste ez jateko, hil osoko jana dutela azaltzen diote. "Ah, bai barkatu!" esaten du. Gero denak ohe bakarrean sartzen dira. Hori besterik ez dute-eta. Senarra behitegira joaten da behia txahala izateko puntuan baitzen. Orduan emazteak aprobetxatu eta esaten dio ibiltariari ausartzeko! Gizona ez dela puxka batean itzuliko. Gizona ausartzen ez, ozarkeria iruditzen zitzaiolako eta emazteak dio: "−Ez hizak gose, eztuka nahi puxka bat gasna gehio!".

Beste adibide bat izan daiteke **(98.) E17-04 Mutila eta neskatua**. Honetan, etxe handi batetan, nagusia eta andrea ohera joaten dira eta jeikita geratzen dira mutila eta neskatua. Sua itzali behar dutela esaten diete nagusiek. Bi gazteak hasten dira jolasean, baina ohartu gabe zakua erretzen hasten da eta neskak dio: "−Le sac, le sac!". Baina mutilak beste zerbait ulertzen du eta erantzun: "−Ze luzak! Guzia hor duk". Gizonaren sexu-tresnari zeharkako erreferentzia eginez.

Baina sexuaren gaiarekin loturan, zenbaitetan animaliak eta gizakiak aldi berean protagonista dituzten irri ipuinak ere baditugu. Izan ere, animaliez baliatzen baitira askotan ipuinak, sexu-arloan gizakien ezagutza eskasa adierazteko. Gure bildumako pare bat adibide jarriko ditut. Esaterako, **(112.) E38-03 Ase eta hila** ipuinean, bi andre xahar, biak auzoak, elkartu egiten dira. Batek betroin bat bazuen, goseak, eta besteak asko. Betroin bakar hori bere pentzera pasatzeko esaten dio orduan, jan zezan. Jan eta animaliak zarra-zarra hasten dira. Gero bi andreak oheratu eta goizean jeikitzen direnean hila zen betroina. Ipuinari amaiera emateko arrazonamendu hau ematen du andre xaharrak: "−Horrek irudi dik gizonan tresna hura, gosearekin azkar dun eta ase ta hila!".

Beste adibide bat jartzearren, animaliak tarteko dituen **(96.) E21-09 Astoaren baztarra** ipuinak argumentu hau du gutxi gorabehera: Haurra aitarekin joaten da merkatura. Han asto bat eta astoaren instrumenta ikusten zen nabarmen. "−Zer du aita?"- galdetzen dio haurrak. "−Eri da"-erantzuten. Gero amarekin elkartzen da eta aitaren erantzunaren berri ematen dio. Amak orduan: "−Hobe luke aitak eritasun hori balu!".

Rosa Alicia Ramosek ipuin folklorikoaz ari dela (1988: 28) dio Thompson eta Krappe-k "animali ipuinak" bereiz aztertzen dituztela. Baina bere ustez "schwanke" direlakoen azpi-talde bat dira, antzeko ezaugarriak dituztelako:

> «La brevedad y la unidad episódica y el enfoque humorístico-burlesco. Dentro del género "Schwank" incluímos dos grupos: los "cuentos de animales" y los "merry tales" o los "schwanke" en su definición más restringida (…). El argumento de los cuentos de animales por lo general consiste en la habilidad de un animal de engañar a otro falto de sentido común; cuando el mismo tema tiene una función didáctica además de recreativa y encierra un mensaje ético o una moraleja, se conoce como fábula».

Badirudi denborarekin, moraleja ematea helburu zuten fabula batzuk izaera didaktiko hori galtzen joan direla, eta irri ixtorio modura kontatzen direla. Gure bilduman baditugu animaliak protagonista dituzten ipuin batzuk, irri ipuintzat sailka ditzakegunak. Bi adibide ekarri ditut hona horren argigarri:

(157.) E14-09 Hartza, otsüa eta axeria. Argumentua hauxe izango luke, labur-labur: "Hartzak eztia nahi eta burua sartzen du zuhaitz baten artekan. Ezin atera eta axeriari laguntza eskatzen dio. Elurra egiten zuen. Axeriak elur bola bat hartzaren atzean jarri eta otsuaren sudur hotza zelakoan, harritua, burua ateratzea lortzen du".

(158.) E20-03 Otsua eta axeria-k argumentu hau du: "Otsoa gose zen. Axeriak hori jakin eta engainatu nahi du. Asto bat ikusten dute eta harekin hitz egitera joango dela esaten dio. Bitartean, astoari lepotik soka bat estekatzeko ere esaten dio otsoari. Otsoak hori egin eta sokaren beste aldea bere lepoan jartzen du. Gero axeriak astoa jotzen du makil batekin, eta astoa korrika baten joaten da ihesi. Axeriak esaten otsoari: -Utzak! Utzak! -Utzi ahal banu, utzi niok!"

I atalari izendapen hau ematen dio Thompsonek: "**engainua harrokeriagatik**". Atal honetakoez ari dela hauxe dio:

> «Un grupo de cuentos cortos, algunos de los cuales ha llegado a tener popularidad mundial, tratan del alarde del héroe quien está deseoso de realizar tareas más grandes de las que le ha asignado el ogro. Cuando el ogro oye la nueva proposición, se asusta y huye».

Jean Barbier-en ixtorio-mixterioetan (1989: 202) jasota dago molde horretako ipuin bat eta baita *Gure Almanaka*-ren 1936.ko alean ere[5]. Ipuin hori laburra denik ezin

[5] Ikus "Tartaroa eta muthil gaztea" in *Gure Almanaka*, 1936, 83. or.

esango dugu, baina ipuin luze horren barruan Tartaro bati probak irabazten dizkion mutila agertzen zaigu. Bertan kontatzen da nagusiak mutila desegin nahi zuela; mutila abila zen, ordea, eta Tartaroa engainatzea lortzen du. Hementxe Barbierren liburuko pasarte zati bat:

> «Salbu zuen eta, xerri zain egortzen du oraikoan oihanera, Tartaro bat bazela han, eta Tartaro harek muthila agian janen diolakoan.
>
> Muthilak oihanerakoan, berekin hartzen ditu sakelan xori bizi bat, gasna bat eta hari-hailkatu bat. Eta badoa…».

Jakina da zertarako erabiltzen dituen hiru lagungarri horiek. Harria urrunago botako duelakoan xoria askatzen du eta hegaldaka urrun-urrun joanda Tartaroa engainatzen du. Gero harria bota eta zeinek gehiago puskatu egiten dute apustu. Gizonak harri bat hartuko balu bezala hartzen du gasna eta dena purruskatu. Azkenik, indarrak neurtzeko zeinek zuhaitz gehiago errotik atera apustu egiten dute. Gizonak banaka-banaka ez, hainbat zuhaitz bere hariaz inguratzen dituela ikustean aski dela eta ez dela beharrezkoa lehian aritzea erantzuten dio.

Jabier Kalzakorta-k bere liburu batean (1997:78) euskal ipuinetan agertzen den heroietako bat aipatzen du: Hamalau. Guk jaso dugu gure bilduman ipuin honen bariante bat **(187.) E20-02 Hamalau**. Hauxe dio ipuin honi buruz:

> «Pertsonaia honen inguruan dauden ixtorioak, ordea, ez dira berdinak. Guk bi tipo ikusi ditugu behintzat T. 650 A eta T 326 A. Lehena Cerquand-ek eskeini zigun corpus-ean daukagu eta bigarrena Webster-enean. (…) Funtsaren funtsean berdinak izan arren (morroiak lan guztiak egitea, azkenik Tartaroa bentzutzea) badituzte desberdintasun asko ere. 650 tipoa pertsonaiaren indarrean oinarritzen da eta 1000-1029 tipoa morroiaren azkartasunean (hots, argitasunean). Eredu bakoitzean dauden frogak ere zeharo desberdinak dira».

Gure bildumako ipuina, ordea, ez da amaitzen Tartaroarengana bidaltzearekin eta hura bentzutzearekin. Gurean deabruarengana bidaltzen du eta hura bentzutzea lortzen du trukesarekin sudurra hatzeman eta bi barrarekin hankak hautsita.

Esan bezala, ordea, eredu hori Thompsonek ipuin laburren artean sailkatzen duen arren, ez genuke irri ipuintzat joko, batez ere, elementu miresgarriak dituelako eta kontakizunaren bukaeran, bere helburua lortu eta "hobekuntza" bat ematen delako. Irri kontakizunean, berriz, ez da pertsonaiaren helburu hori betetzen eta "degradazio" bat gertatuko litzateke

Bremond-ek (1966) honela dio:

> «Todo relato consiste en un discurso que integra una sucesión de acontecimientos de interés humano en la unidad de una misma acción. Donde no hay sucesión, no hay relato sino, por ejemplo, descripción,deducción, efusión lírica. Donde no hay integración en la unidad de una acción, tampoco hay relato, sino sólo cronología, enunciación de una sucesión de hechos no coordinados. Donde, por último, no hay implicación de interés humano, no puede haber relato porque es sólo en relación con un proyecto humano que los acontecimientos adquieren sentido y se organizan en una serie temporal estructurada. Según favorezcan o contraríen este proyecto, los acontecimientos del relato pueden clasficarse de dos tipos fundamentales que se desarrollan según las secuencias siguientes: mejoramiento a obtener y degradación previsible».

Baina, orduan, beste galdera bat sortzen zaigu: "Hamalau"-en ipuin hori ipuin laburtzat jo behar dugu? Non dago luze-laburraren muga? Atal bakarraz osatuta al dago ipuina? Thompson-ek, neurri batean, erantzuten dio galderari honi (1972:49):

> «La simple anécdota, que por lo general consiste en un motivo narrativo único, no requiere usualmente una gran destreza o memoria y parece estar concebida como propia de particulares ocasiones sociales, diferentes de aquellas en que pueden disfrutarse largos cuentos complicados. No hay, ciertamente, una línea absoluta que separe estos grupos de cuentos, ni por su origen ni por su función y la distinción es, a menudo, puramente arbitraria. No obstante, será conveniente, para nuestro presente propósito, hacer esta distinción».

Harrokeria gai duten ipuinak asko dira. Horien artean ehiztari harroak kontakizun askotan agertzen dira. Honela dio J. Bru-k (1999):

> «Après les anecdotes sur les autres groupes de personnes, viennent les Contes de mensonge. La fantasie verbale règne au plus haut point dans ces récits où la vantardise des chasseurs se taille la part belle et qui clôturent le cycle des contes facétieux».

Gure bildumako **(124.) E11-12 "Ehiztaria aho-handi"** kontakizunak bete-betean jarraituko luke eredu hori. Hauxe da argumentua: Hiru ehiztari aho handi ehizan dabiltza. Batek bere zakurra uxanta dela dio: Larrainen urzo bat jo eta berrogei kilometra ekarri zuela. Beste batek dio, bere zakurrak basurdea harrapatu duela. Hirugarrenak gehiago izan nahi eta dio bere emazteak sudurra terriblekoa duela. Jarrutiela[6] konponarazi eta biharamunean facturr(ar)en (postariaren) koskoilekin jin zitzaiola.

L atalean sartuko lituzke Thompsonek "emazte gaiztoa" gaitzat duten ipuinak. (1972:280) hauxe dio kontakizun horietaz:

[6] Gaztelaniazko "liga" izango litzateke, izterretan galtzerdiak eusteko.

> «En la anécdota popular, influida quizá por las fabliaux y novelle con sus prejuicios medievales contra la mujer, ésta aparece, por lo general, como débil, dominante, infiel, o a lo sumo, inexpresablemente estúpida».

Herriak zenbaitetan kontakizun horiek baztertu egin dituela ere esaten du:

> «Al examinar estos cuentos de esposas malas, uno se asombra no tanto por el hecho de que algunos de ellos los cuentan los narradores en una gran área, sino porque fuera del número de tales anécdotas que se encuentran en fabliaux, novelle, libros de exempla y Schwänke, sólo una media docena escasa ha recibido aceptación general por el pueblo»

Gero aipatuko dugun "lañotasun itxura" edo sexu-ezjakintasuna, kontakizun batean baino gehiagotan agertzen da. Adibidez, **(81.) E7-03 "Neska puntxela bila"** kontakizunean.

N atalean gorreriaren gaia aipatzen du eta akats fisikoak ia beti umorez jorratzen direla esan. Gero umorearen gaia jorratzen dugunean, sakonago aztertuko ditugu irri eragiten duten mekanismoak, eta bertan azalduko da, goreria bakarrik ez, edozein ezintasun ahulezia edo ezintasun izatea umore gai bihurtu dela askotan irri kontakizunetan. Gure bildumako **(124.) E1-06 "Gorra eta medikua"** ipuinean gizon bat aziendak edanarazten ari da putzu batean. Medikua patarra goiti datorrela ikusten du. Ez du nahi medikuak jakitea ez zuela entzuten. Pentsatzen du: hau galdetzen badit, hau erantzungo diot. Galderak ez datoz bat berak pentsatutako erantzunarekin. Eta nahasmendu horrek in creschendo doan irria sorrarazten du.

O atalarekin izendatzen duen multzoa **"elizgizonek eta ordena erlijiosoek"** osatzen dutena da. Apaizak emakumeekin harremanak izaten dituztela agertzen da askotan. Adibidez, gure bilduman ere jaso dugun Aarne-Thompsonen T1326B sailkapen zenbakidun ipuina biltzen du: gelaritzat neska gazterik eduki ezin eta hori ezkutatzeko erabiltzen zituzten azpikeriak. Multzo horretako adibide ugari ditugu gure bilduman, aldaera bat baino gehiagorekin ia denak. Adibidez:

(41.) E31-04 "Bi gelarien artean 50 urte": Apez batek gelaria 50 urtez behekoa ez zuela izan behar dio apezpikuak eta galdezka etorri zitzaion apezari. Honek azaldu lasai egoteko, bien artean 50 urte egiten zituztela. Horren aldaera izango zen apezak apezpikuaren galderari, zera erantzuten dionean: -Ah! Ez larritu, nire gelaria herriko behirik zaharrena baino zaharragoa da eta! (Apezpikuak behiak zenbat urte bizi diren jakingo ez zuelakoan).

(5.) E25-02 "Xalgia ments": Gelariaren anaia ez zegoen pozik arreba apezaren etxean bizi zelako. Apezak afaltzera gonbidatzen du. Furtxetak lapurtzen ditu eta apezaren ohe-buruan jarri. Apezak eskutitza bidaltzen dio eta honek erantzun bere ohean lo egin balu aurkituko zituela.

(11.) E8-19 "Apezpikua eta apeza": Apezpikuak jakiten du apezak gelari kozinersa oso ona duela. Bere etxean geratuko dela esaten dio apezari. Bi ganbera dituztela eta apezak eta apezpikuak elkarrekin lo egingo dutela akordatzen dute eta bestean gelariak. Goizean panaderoak tutta jotzen du. Eta apezak: "Maria Koxepa, Maria Koxepa, pañadero, pañadero!" –ta alboan apezpikua.

(117.) E22-03 "Apezpikupiari gomita": Apezpikua etorri behar zela eta apezak esan zuen behar zituztela gauza guztiak prestatu. Berarentzako espresuki komun bat behar zutela jarri. Ezarri zuten gizon bat komunan behian isopa batekin. Apezak begiratu zuen behera eta orduan berriz pasatu.

(80.) E4-19 "Gormanta": Apezkupia Ligira jin eta erriza lazgarri maite du! Jan eta jan eritu egiten da. Medeziak telefonoz esaten dio gelariari behar zaiola sabela frotatu sendatzeko. Gelariak dio medeziari oso ona dela bere erremedioa. Lehenik sabela, gero sabelpea frotatu ziola eta bulta baten buruan esnea joan zaiola!.

(76.) E8-18 "Taula erdian": Apezpikua jin eta galdegiten du gela bakarra duten apezak eta gelariak. Baietz baina erdian zakurra jartzen dutela. "Eta orduan errabiatzen bazera zer egiten duzu?" –galdetzen dio apezpikuak. Etxeari itzuli bat egin. "Eta biak errabiatzen bazerate?" Zakurra igortzen etxen itzulian.

Simonsen-ek artikulu batean (2003-2004) irri kontakizunen gaiak aipatzen ditu (engainatutako gizonezkoak, tuntun itxurako emakumeak, neskatila arinen sedukzioa…) baina politenen artean ahulen eta boteretsuen arteko liskarrak aipatzen ditu:

> «Les nombreux contes de maris bernés, de femmes stupides, de "séduction" de jeunes filles simplettes, etc. Traitent des rapports combien difficiles entre les sexes. Un autre groupe de contes facétieux, parmi lesquels les plus beaux, traitent des rapports entre les démunis et les puissants: entre pauvre et riche paysan, paysans et seigneurs, paroissiens et curés, curés et sacristains, citoyens et juges, etc. Notons au passage que si tournent généralement ces conflits en dérision par des moyens naturels, ils n'en sont pas réalistes pour autant. Dans le conte d'Unibos (1535)Le pauvre paysan convaint le riche paysan

de se faire enfermer dans un sac et jeter au fonde de l'eau, afin d'y ramasser tout un troupeau de moutons qui, prétend-il, vivent au fond de la rivière…»

Kontakizun hori jaso dugu gure corpusean ere **(48.) E1-02 Sosdun tronpatua** izenburuarekin.

Aipatu berri ditugun gai horiek, tradiziozko irri kontakizunen gaiak deitu ditzakegu, herrialde batetik bestera kontatzen dira eta dokumentatuta daude gehienak. Gaiei dagokionez irri kontakizunak askotarikoak izan daitezkeela ikusi dugu beraz. Gai batzuk gehiago errepikatuko dira besteak baino, eta kontakizun baten bertsio bat baino gehiago aurkituko dugu sarritan.

Deskribatzen ari garen irri kontakizuna bete betean lotzen da, era berean, J. Bru-k berak (1999) Aarne-Thomposon-en sailkapeneko 1.200-1.999 zenbakidun atalaz aipatzen dituen zenbait alderdirekin (atal horiek **gertakari eta kontakizun irrigarriak** 1200-1699 zenbakidunak; **apaizei buruzko txisteak** 1700-1849 zenbakidunak; eta **iruzurrari buruzko kontakizunak**, 1850-1999 zenbakidunak dira). Horietako kontakizun batzuek tipo zenbakia jarrita daukate, baina horien barruan zer dagoen suposatu egin behar dugu, katalogoak ez baitu ez izenburua, ez edukia aipatzen, eta "gordina" ([obscene]) dela besterik ez dio askotan. Zenbaitetan sexu kutsuko kontakizunetan, kontakizuna toki jakin batean gertatua dela esaten da, lekutu egiten da, baina hori kontakizunari errealismo handiagoa emateko da. Alegia, edozein tokitan koka zitekeen kontakizuna da, gure bildumako adibideetan ikusiko dugun moduan.

Geroago, irriaren adierazpen moduak aztertzen ditugunean, atal berezi bat eskainiko diogu sexu kutsuko gaiak jorratzen dituzten kontakizunei, gure bildumako kontakizun asko atal horretan sar ditzakegulako eta orain arte, ez delako euskal arloan gai hori gehiegi aztertu, arrazoi desberdinak tarteko.

Egiturari dagokionez, bat gatoz Txomin Peillenen baieztapenarekin (2002:458) eta esango genuke gure bildumako irri kontakizunak, orokorrean, laburrak direla. Josiane Bruk dio (2003:78): pertsoinaia kopuru murritza dutela eta askotan aurkakotasuna ematen dela bi pertsonaien artean:

«La majorité des contes-types de la section Contes facétieux et anecdotes sont des récits brefs, limités à une seule action mettant en présence un nombre très restreint de personnages, généralement engagés dans des oppositions

binaires: mère et fils dans les histoires de couples, notable ou clerc eta paysan dans d'autres».

Gure bilduma osatzean, kontalari batek baino gehiagok esan zigun, ipuin luzeagorik ezagutzen ote zuen galdetzen genionean, kontakizunak irrigarri izateko labur behar zuela izan. Bertsoez ari dela, antzeko ideia adierazten du A. Luku-k (2014) eta esan nahi denaren muinera mugatzearen abantailak azpimarratzen: "sobera hitz baliatzeak hitzen indarra hiltzen baitu eta bertsoa funtzionatzen da hitz guti nozio horren gainean, poesiak bezala, poesi denez hori gero ikusiko".

Zenbaitetan ixtorio labur bat, guk ixtorioen argumentuak azaltzean egin dugun bezala, are laburrago konta daiteke. Gorago aipatu dugun "Gorra eta medikua" ipuina ere, Kaltzakortak jasota dauka bere artikulu batean (1999:177) askoz ere laburrago, erretorika gutxiagorekin eta elkarrizketa soil moduan osatua. Honen tradizionaltasuna ezagutuko ez bagenu, txiste batekin nahastu ahal izango baikenuke:

«***Baserritar gorraren hiru erantzunak***
Abadeak, bakisu lenau denak sien kaseruek, eta kasan or doa eskopeteagas, da gison bat ebillen makinen soloan da san gorra, da esauen:
-Abadea dator emekoxe dibersiñoan da preguntaukoste lehengo ser ar odagoan soloan, da ba esangotzepa ona dauela, da gero pregunteuko dost sein den indertzuena, beran obsesinoa sen ori.
Badoa abade ori ta dinotze:
-Egunon, erbie amendik pasetan ikusiosu (ta)?
-Bai ederra.
-Joño ta norantza in deu ba?
-Ramon indertzuena».

Hortik kontakizunen tradizionaltasunaren arrastoa bilatzearen garrantzia.

2.5.2. TXISTEAK

Zenbait kontakizun "txistetzat" izendatu izan dira, tradiziozko kontakizunak badira ere. Txisteez hitz egitean bereizketa bat egin behar dugu, benetan sorkuntza berriko txistea zer den eta tradiziozkoa zer den jakiteko. Forma aldetik, laburrak direlako, ez dira nahastu behar tradiziozko kontakizunak eta bestelakoak (Chevalier 2000:15):

«Dichos cuentos surgen a cada paso, mezclados con chistes que nada tienen de tradicional, en las obras de varios escritores aragoneses de fines del siglo XIX y primeras décadas de nuestro siglo XX. Conviene examinar con atención esta materia, separando el grano de la paja».

Gure zeregina izango da beraz, hemen jasota datozen irri kontakizunak tradiziozkoak diren ala ez aztertzea, testu zahar eta berrietan, euskaraz eta erdaraz baliokideak identifikatuz. Ez dugu beharbada beti bereizketa horretan asmatzea lortuko, baina ideia bat eman diezaguke tradiziozko kontakizunen aberastasunaz.

R.A. Ramosek (1988:29) irri ipuinaren azpikategoriatzat jotzen du txistea. Irri ipuinak bezala, laburra baita, umorezkoa eta pertsonaiak eguneroko bizitzatik ateratakoak dira. Desberdintasuna, ordea, "txistea"-ren argumentuaren garapen minimoa dela dio:

> «Aquí se presenta una situación que se resuelve rápidamente a causa del desacierto de uno de los personajes. No hay desarrollo de acción ni intento de caracterización por contrastes (entre, por ejemplo, bobos y listos) como en el "merry tale". El "chiste" plantea una situación aislada, no relacionada a incidentes previos ni posteriores, en que la locución de un personaje es suficiente para hacer patente sus limitados recursos intelectuales».

Gero adibide batzuk aipatzen ditu, besteak beste, apaizak katexima galdetzen dien ikasleei buruzkoak. Gure bilduman ere barra-barra dauzkagu mota horretakoak. Baina guk laburrak izanagatik ere kontakizun errealisten atalean sartu ditugu, horietako asko, tradiziozko arrastoak dituztelako. Gure corpusean, "txiste" bezala sailkatu ditugunak, gure ustez tradiziozkoak ez direnak izan dira, gehienetan gai modernokoak:

Lehen esan dugun moduan, bide beretik doaz Maxime Chevalierren adierazpenak. Berak ixtorio errealista horien tradizionaltasuna eta balioa azpimarratu nahi izan zuen, eta "txiste" izendapenak tradiziozko izaera ezkutatzen zuelakoan, horietatik bereizi beharra azpimarratu zuen (Chevalier, 2002: 122).

Txistea, ipuina bezala, fikzioaren alorrean kokatzen da. Eta halaxe difinitu izan du Ana Mª Vigara Tauste (1994:25) irakasleak:

> «En el marco de una tipología general de discursos, el **chiste** es un subgénero humorístico y pseudoliterario, que se mueve habitualmente en el terreno de la ficción y se define por su función lúdica, su intencionalidad cómica, su brevedad, su efecto-sorpresa y su "cierre" previsto».

Horretan, gertakari irrigarriarengandik desberdintzen da, guk ateraldi edo arrazoinen taldean sartu ditugunak, hori errealitatearen planoan ematen delako (Vigara Tauste 1994:26):

> «Breve, como el chiste, la anécdota "se cuenta" también, pero se establece sobre el plano de la realidad (sucesos o rasgos reales de seres reales), se suele identificar su origen y no siempre persigue la comicidad, sino que es, con frecuencia, una simple curiosidad más o menos alecionadora».

Violette Morin-ek, kontakizunen azterketa estrukturala eginez, "txistea"-n jarri zuen arreta, *Communicatios 8* aldizkariko artikulu batean (1966:121). Txistea zer den mugatzeko konstanteak diren zenbait alderdi antzeman zituen: batetik, hitz kopurua 25 eta 40 hitz bitartean kokatu zuena; bestetik sekuentzia bakarraz osatuta egoten direla esan zuen, 3 funtziotan egituratua:

1.- normalizazio funtzioa: pertsonaiak kokatzen dituena.

2.-funtzio egituratzailea (enclenchement) arazoa edo galdera plantetzen duena.

3.-disjuntzio funtzioa: arazo edo galderari konponbidea ematen diona.

Egilearen arabera, azken funtzio honek kontakizuna bi bidetatik eraman dezake: "serioa" eta "komikoa" izatera. Eta kontakizun narratiboa kontakizun lokabe (dislocado, disjoint) bihurtzen du. Bi bidetan banatze hori elementu polisemiko bati esker da posible, disjuntorea deitzen duena. Horren bitartez, egituratutako kontakizunak harritu egiten gaitu, norabide berri eta ustekabekoa hartzeko.

Txisteak sailkatu egiten ditu, oso gutxitan izaten baitira kontakizun horietan hitz jokoak. Askoz gehiagotan zeinu bidezko joko bat egoten da atzean. Horregatik *disjuntzio semantikoko kontakizunak* ditugula esango du, disjuntorea zeinu bat denean. *Disjuntzio erreferentzialeko kontakizunak* deituko ditu, berriz, disjuntorea zeinuek erreferentzia egiten dioten elementu bat denean, erreferente bat.

Gure sailkapenean hasierako banaketa horri erreparatuko diogu, alegia, zeinu bidezko jokoa dagoen, ala erreferentzia hutsezko jokoa dagoen txistean. Horrek lotura zuzena izango baitu kontakizunaren itzulgarritasunarekin.

Hauxe baieztatzen du M. Tolosa Igualada-k (2005:1081):

> «Consideramos, pues, que plantearse si el chiste es o no traductible depende, en gran medida, de lo que entendamos por traducción y la función que la misma desempeñe».

Hortik abiatuz, oinarrizko hiru kategoria banatzen ditu, itzultzaileak aurre egin beharreko itzulpenaren zailtasunetik abiatuz:

a) Txiste unibertsalak: kultur elementu neutroak edo mundu osoan partekatutakoak dituztenak.

b) Kultur alderdi jakinetan oinarritutako txisteak: kasu honetan gertutasun sozio-kulturalak oso zeregin garrantzitsua betetzen du. Itzultzaileak, sorburu nahiz xede hizkuntzan gaitasun handia izateaz gain, biei buruzko ezagutza kulturala izan beharko du.

c) Hizkuntza alderditan oinarritutako txisteak: txiste hauen oinarrian hitz-joko, anbiguetate, polisemia eta joko fonetikoak daude. Eta hauek dira itzultzeko zailenak, hizkuntza bakoitzaren berezkotasunak direla eta.

Askotan, ordea, txisteen izaera anitza izango da, eta txisteak hiru mota horien arabera sailkatzeari ez dio zentzu handirik bilatzen, batzuetan kategoria batean baino gehiagotan sailkatu behar baititugu.

Umorearen itzulpenaz hainbat lan egin dira. Ingelesetik frantsesera itzulitako testu pragmatikoez artikulu bat argitaratu zen *Humoresques* 34 aldizkarian. Bertan, S. Léchauguette egileak (2011: 158) umorea literatur testuetara mugatzen ez dela frogatu nahi du eta hor ere jokoan dagoela itzultzailearen trebetasuna:

> «Il s'ensuit que si la créativité du traducteur n'est pas sollicitée pour récréer des jeux de mots, elle l'est pour poursuivre le travail éditorial effectué sur les textes de départ afin de les mettre en adéquation avec les normes en vigueur dans la culture destinataire. In ne doit ni se mettre à la place de l'auteur, ni rester bloqué sur ses formulations mais pour reprendre l'heureuse formule de Viaggio, il lui faut « se libérer du fétichisme du sémantisme » pour devenir ce médiateur qui se situe quelque parte entre auteur et lecteurs».

Txisteen egiturari dagokionez, Freudek txistearen teknikaz egindako oharrak aztertzean (1905), ikusiko dugu, ez dela beti beharrezkoa pertsonaia batek akats egitea, edo irrigarri geratzea, batzuetan, nahikoa izango baita hitz-joko bat komikotasuna pizteko.

Geroago sakonduko dugu komikotasunaren mekanismoetan, Bergson filosofoaren idatziaz mintzatzen garenean baina interesgarria iruditu zait R.A. Ramos-en (1988:29) aipamen hau:

> «La situación por su simplicidad, es representativa de cualquier circunstancia cotidiana; al fallar el protagonista en ella sin darse cuenta, el

> oyente se siente intelectualmente superior a él, más aún por haber llegado a este juicio sin ayuda del narrador. Así como los cuentos de animales y los "merry tales" entretienen al oyente al contrastar abiertamente los defectos de un personaje con la cordura o rectitud de otros, el "chiste" lo hace al oponer implicitamente la lucidez del oyente con la torpeza del protagonista. Basta para conseguirlo una situación trivial sin caracterización ni conflicto argumental».

Alegia, entzulea edo irakurlea, bertan gertatzen den akatsa edo baldarkeria sumatzean "argia" sentitzen da, bertako protagonisten aldean. Izan ere, iluntasunean argitasuna bilatze hori aipatzen du Freudek txistearen tekniken artean ("desconcierto e iluminación" terminoekin). Ezinbestekoa da entzule-irakurle eta kontalari-idazlearen arteko harremana kontuan izatea. Hain zuzen ere, bai Bergson-ek, bai Freud-ek irria ikuspegi sozialetik aztertu zuten.

2.5.3. IPUIN MIRESGARRIAK

R.A. Ramos-ek horrela definitzen ditu ipuin miresgarriak (1988: 15):

> «Una narración larga, en prosa, cuya acción se desarrolla en un tiempo y lugar irreal e indefinido y cuyo protagonista supera una serie de dificultades para lograr su meta y un desenlace feliz».

Simonsen-ek (2003-2004) zehatz eta hitz gutxitan laburbiltzen ditu artikulu batean irri kontakizunen eta ipuin miresgarrien arteko antzekotasun eta mugak. Lehenik esaten du "irri kontakizunak eta ipuin miresgarriak bi genero osagarri direla eta bakoitzak gizakion behar bati erantzuten diola: amets egitea eta irri egitea, hurrenez hurren". Beraren ustez bien arteko muga ez da uste bezain garbia. Eta bien arteko aldea ere ez da horren handia, ez kontatzeko moduan, ezta darabiltzaten gaietan ere. Horrela arrazoitzen du:

> «Nous avons pris l'habitude de considérer les contes merveilleux comme des histoires très éloignées de la vie réelle, dite sur un ton solemnel, légèrement stylisé auquel nous ont habitués les frères Grimm, à des années-lumière du ton familier des contes facétieux».
>
> Grimm anaiek, ordea, ez zuten herritarren ahotik jaso bezala idatzi, eta haiek jasotakoak berridatziak izan ziren. Gero burgesiaren haurrentzako literatura bihurtu ziren eta horrek "ipuin estiloa" hartzea ekarri zien».

Gaiei dagokionez ere, motibo miresgarriak eta irri gaiak antzekoak izan daitezkeela dio, eta desberdintasuna egituran bilatu behar dela:

> «S'agit-il là d'un motif merveilleux ou d'un motif facétieux? Et imagine-t-on un conteur contant cela sans soulever un tonnerre de rires?Inversement, nombre de contes classés comme facétieux utilisent ce même motif merveilleux des trois souhaits magiques, mais utilisés à mauvais escient (…) Centains contes merveilleux contiennent donc des éléments facétieux et certains contes facétieux font usage de motifs magiques. C'est que la différence entre les deux genres tient moins à la présence ou à l'absence d'éléments surnaturels qu'à une différence de structure».

Ipuin miresgarria fikziozko beste kontakizun batzuetatik desberdintzen duena bere egitura dela defendatu zuen Vladimir Proppek ere. *Morfologia del cuento* liburuan (1987 [1928]: 31-83) metodo formalista-estrukturalista erabili eta ipuin miresgarri guztiek 31 funtziotako eskema unibertsala jarraitzen dutela ohartu zen, besteak beste: urruntzea; debekua; debekua ez betetzea; erasotzailearekin topo egitea; engainuak; konplizitatea; gabezia; heroi-protagonistaren itzulera; pertsekuzioa; ihesa; heroiaren iritsiera ez aitortua; iruzurgilearen etorrera; proba; konponbidea; errekonozimendua; agerpena; transformazioa; zigorra; ezkontza.

Martin Etxeberriak egindako liburuan (1973:105-107) ondo laburbiltzen ditu euskaraz funtzio horiek eta euskal ipuin harrigarrien zenbait adibiderekin osatzen ditu azalpenak.

Proppen arabera, argumentuko gertakariek adierazitako ordena jarraitzen duten bitartean, funtzio asko desagertu daitezke, eta beste batzuk errepikatu egin daitezke.

Simonsen-ek (2003-2004) dio, Bengt Holbek-ek adierazi zuen moduan, ipuin miresgarriak oinarrizko hiru gatazkaren inguruan egituratzen direla: generazioen arteko gatazka, sexu heldutasunaren inguruko gatazka eta boteretsuen eta ahulagoen artekoa, alegia, maila sozialen arteko gatazka. Irri kontakizunetan ere, gai horiek agertzen dira, baina kontakizun bakoitzeko gatazka bakar bat baino ez dute kontatzen, eta horregatik dute egitura sinpleagoa:

> «Notons que, eux aussi, manipulent l'un ou l'autre de ces trois types de conflits; simplement, ils ne traitent généralement que d'un type de conflit par conte, d'où leur structure moins complexe».

Boteretsuen eta ahulagoen arteko gatazkari dagokionez, adibidez, irri kontakizun eta ipuin miresgarri askoren oinarria izanik ere, irri kontakizunetan askotan boteretsuena erridikulizatzera iristen da:

> «Le conflit de classe constitue donc la base de nombreux contes facétieux comme des contes merveilleux, mais il s'exprime de manière encore plus virulente dans, en ceci que ceux-ci font usage du comique plutôt que de l'epique. Le rire est une arme bien plus léthale. Non seulement le héros l'emporte sur son adversaire plus haut placé, comme dans les contes de fées; mais encore, il le ridiculise».

Ipuin miresgarrietan korapilo nagusia komiko gerta daiteke. Ipuin miresgarriaren oinarrizko ideia, hain ikusten du irrealista, irrigarri gertatzen baita:

> «Les conte merveilleux ont un noyau central qui, pour les populations rurales de 19e siècle, prête forcément à rire. L'idée de base autour de laquelle pivote toute l'intrigue et la thématique du conte merveilleux classique est en soi si irréaliste, si contraire à l'experience, qu'elle en devient facétieuse».

Azkenik, esaten du, ipuin miresgarri moduan sailkatu izan diren zenbait ipuin, irri kontakizunak direla "zalantzarik gabe". Baieztapen horrekin bien arteko muga horren garbia ez dela erakutsi nahi du:

> «Centains contes facétieux sont même pleins d'une imagerie toute carnavalesque. Les gens de pouvoir sont soumis à un traitement totalement rabaissant, qui évoquent les charivaris et les parodies rituelles qui faisaient partie intégrante des festivités du Carnaval au moyen-âge et à la renaissance. Des contes tels que La marmite magique (591), Tous collés ensemble (AT 571) ou Le Conte du Bassin (AT 571 A) et Le Himphamp (AT 571B), bien que classés comme contes merveilleux, -et ils contiennent effectivement des éléments merveilleux- sont facétieux d'un bout à l'autre».

E. Mélétinski (1981) ipuin miresgarria sailkatzen saiatzen da hainbat oposiziotan oinarrituz eta kategoria hauek ateratzen ditu:

-Heroia bilatzaileen kategoriakoa duten ipuinak.

-Heroiak indar eta jatorri miresgarria du edo lehiatzaile mitiko baten aurka jarduten duten izaera heroikoko ipuinak.

-Beren familiako kideek jarraitzen dituzten heroiei buruzko ipuinak

-Sorgindutako ezkontideei buruzkoak.

-Objetu magikoei buruzkoak.

-Ezkontzara etab. bideratzen duten probei buruzko ipuinak.

Horiek oinarri hartuz, Hernández Fernándezek (2006:161) ipuin miresgarriak lau parametrotan oinarrituz sailka ditzakegula dio:

-Heroiaren nolakotasuna: heroiak naturaz gaindiko jatorria izan dezake edo bestela, familiak eta gizarteak marjinatutakoa da. Lehen kasuan, heroiak jaiotzeko modu miresgarria izaten du (…). Zenbait kasutan, protagonistaren indar neurrigabeak eragiten du marjinaltasun hori, ez bere gurasoek ez komunitateak mantendu ezin dutelako. Horixe izango zen, adibidez, gure bildumako **Hamalau** izenburudun kontakizunaren kasua.

-Gatazka familia barrukoa edo familiaz kanpokoa izan daiteke. Gatazka gurasoen eta seme-alaben artekoa izan daiteke, baina arruntena da anai-arreben artekoa izatea. Gatazka familia kanpotik datorrenean, heroiak aurre egin beharko dion arerioa aurkituko du. Hor sailkatuko genuke, adibidez, **(186.) Deabruaren adina** kontakizuna.

-Arerioak ere bi modutakoak izan ohi dira. Gizakiak izan daitezke edo naturaz kanpokoak (deabrua, erraldoiak, sorginak…)

-Azkenik, heroiaren bilaketak motibazio altruista izan dezake (borondatezkoa edo bortxatua); baina beste kasu batzuetan onura pertsonal hutsa bilatzen du (diru nahiak edo gizartean gora egiteko nahiak bultzatzen dionean).

Gure bilduman ipuin miresgarrien atalean lau baino ez ditugu sartu: **(186.) E1-03 Deabruaren adina; (187.) E20-02 Hamalau; (188.) E22-13 Tartaroa eta apustua; (189.) E45-01 Tartarua eta urde zainak.** Beste batzuek, ordea, laminei buruzkoak, adibidez, leienda bezala sailkatu ditugunak, elementu miresgarriak izango dituzte zenbaitetan.

Gure bildumako **E1-03 Deabruaren adina** delakoan, deabruak mendian dabilen baserritar bat atxematen du (urruntzea) eta tratu bat egiten dute, nahiz eta deabruarekin tratuak egiteko debeku inplizitua egon (debekua, desobedentzia); baserritarrak ez dakizki erantzunak (gabezia); protagonista etxera itzultzen da (itzulera); emazteari laguntza eskatzen dio (laguntzailea)…

Sarrera formularekin hasten da kontakizuna (“beraz eta bazen beti..”) eta horrekin entzuleari jakinarazi nahi dio kontakizun hori fikziozkoa dela eta ez dela sinestu behar. Ipuin miresgarriek amaiera formulak izan ohi dituzten arren, guk bildutako ahozko bertsioetan ez da horrela gertatzen. Kontalariak ez du amaiera formularik erabiltzen. Beren izaera irrealagatik, ipuin miresgarrietan ez da deskripzio zehatzik egoten giroari

eta pertsonaiei buruz. Pertsonaiak estereotipoak dira, lauak, sakontasunik eta garapen psikologikorik gabeak.

Protagonistak bertute asko ditu –balorea, eskuzabaltasuna, ontasuna-, akats gutxi, eta normalean azkartasuna erakusten du kontakizunetan. **Deabruaren adina** kontakizunean, azkartasuna erakusten du, ezinezkoa zirudien proba gainditzea lortzen baitu (emaztearen laguntzaz). Gauza bera gertatzen da **Hamalau** kontakizunean, gainditu beharreko probak gaitzak baino gaitzagoak izanik ere horietatik salbu ateratzeko modua bilatzen baitu. Ipuin hori kontatu zigunak ere, aitortu zigun egoeraren arabera luzeago edo laburrago kontatzen duela, pasarte batzuk gehituz edo kenduz.

2.5.4. LEIENDAK ETA MITOAK

Gure corpuseko beste material multzo bat leiendek osatuko dute. "Leienda" hitzaren pare "kondaira" hitza erabili zuen Larramendik. Barandiaran-ek "esaunda" erabili zuen, eta "ele-zaharra" hitza ere erabili dute hainbat egilek. Horiek guztiak leku bati lotutako kontakizunak dira. Denboraren poderioz ahaztutako gertaera historiko bat ere izan daitezke.

Josianne Bru-k honela definitzen du (1999):

> «Le conte est par définition un récit situé dans un temps et un lieu indéterminés (Il était une fois), alors que la légende –prise en compte et transcrite depuis plusieurs siècles comme récit historique –met en scène des personnages censés avoir existé, en des lieux dont le nom attesterait de l'ancienneté et de la vérité des faits racontés. Le conte est donc fiction assumée, la legende support de croyance et de réalité pseudo-historique».

Leiendak lehenaldi gertuko eta pertsonaia sekularren gertakariak jorratzen ditu. Naturaz kanpoko izakiek parte hartzen duten leiendetan, horiek gizakiekin erlazionatzen dira eta kontalariak kontakizunaren egiazkotasuna azpimarratzen du, ezagunen baten edo aintzinako pertsonaren baten lekukotza aipatuz.

Mitoak, berriz, lehenaldi urruneko eta jainkozko pertsonaiez jarduten du. Baina zenbaitetan, kontakizun labur eta azalpenezkoak besterik ez dira, "Zergatik?" galderari erantzuten diotenak (Bru, 1999):

> « (...) et parce que le mythe, dans les aires culturelles qui nous occupent, n'est présent que sous la forme de petits récits explicatifs répondant à la

> question «Porquoi?». Ces légendes étiologiques dont certaines figurent dans la classification d'Aarne et Thompson ne sont reprises dans le catalogue français que lorsqu'elles sont intégrées à des contes proprement dits».

Definizio horri jarraituz, gure bilduman mitotzat sailka dezakegun bakarra **(185.) E13-10 "Zendako ez den beretterrik"** da. Gertatu izan zaigu kontalariek berek kontakizun bat modu batera izendatzea, baina izendapen hori ez etortzea beti bat genero horretaz ezagutzen dugunarekin. Adibidez, behin baino gehiagotan gertatu zaigu "mito" bat kontatuko digutela esatea, baina gero kontatutakoan, "leienda" bat zela konturatzea. Gauza bera aipatu dugu lehen "arrazoin" edo ateraldiekin ere. Kontalari batek **(53.) E12-01 "Bi beizik ez"** kontatzean, "arrazoina" zela esan baitzigun, guk kontakizun errealisten artean sailkatu badugu ere.

2.5.5. ARRAZOIN/ATERALDIAK

Gure sailkapeneko beste multzo batean sartu ditugu "arrazoin" edo ateraldiak. Kontakizun irrigarri baten berri ematean, pasadizoren bat, dela Xalbadorri, dela "Axkar" delako herritar bati… gertatua dela esan izan digute zenbaitetan kontalariek. "Arrazoin" horiek itxuraz gertatutakoak dira, beti seguru ez dakigun arren. Esan dezakegu, erantzun azkar eta argiak dituztela, elkarrizketa baten testuinguruan ematen direnak. Kontalariek berek horrela izendatu izan dituzte eta "ateraldien" parekoak dira eta kasuren batean, kontalariren batek argi utzi nahi izan zigun, berak kontatuko zuena ez zela ixtorioa, *arrazúa* baizik. Nahiz eta aipatu berri dugun moduan, bada kontakizunen bat guk irri-ixtorio errealistatzat sailkatu duguna, kontakizun hori toki desberdinetan pertsona bati baino gehiagori egotzi zaiolako, eta tradizionalizatuta dagoelako. (Adibidez: **(53.) E12-01 "Bi beizik ez").**

Txomin Peillenek bere artikulu batean (2002: 439) ipuinen eta berak jasotako beste kontakizunen arteko aldea desberdintzen du :

> « Kontakizun batzuk, ipuinak izango dira ; besteak zirtoak, txisteak, zubereraz dritxo izenez ezagutzen ditugunak».

Gaztelaniaz "razomiento" izango genuke "arrazoina" hitzaren jatorria, baina esanahia ez da berdin-berdina, "arrazoinak" irria eragiten baitu. **(215.) E22-19 « Pernando Amezketarraren ixtorioa »** kontakizunean « arrazoinkari » hitza erabiltzen da : "Pernando hiru lagunekin dago eta beste lagun arrazoinkari bat etortzen da".

Arrazoinkari, dritxoari edo zirtolari paretsuak direla ematen du. Peillenek dritxoaren adibide hau ematen digu :

> «Dritxoak diogu zubereraz zirtoiei eta askotan elkarhizketaz baizik ez dira osatuak. Adib:−Zer hartzen dük / -Nik, deus ez /−A! Hortarik ez diagu».

Erretorikan, nonbait bilatzekotan, argumentazioan bilatuko genuke erantzun modu horien jatorria. B. Mortara Garavelli-k (2000 : 84 -117) bere liburuan, Perelman-ek argumentazioaz egindako sailkapena ematen digu eta bertan sailkatzen du "arrazonamendu" hori.

2.5.6. BESTELAKOAK

Atal honetan gure corpusaren azkenean sartu ditugun aleak daude, bereziki, haurrak lotsarazteko formulak, haurrak jostaraztekoak, bertsoak eta kantak. Pierre Duny-Pétré-k (1987) egindako lanean jasotzen direnen modukoak. Batzuk haurrekin jolasteko formula batzuk dira edo haurrak beldurraraztekoak. Hor sartzen dira hainbat kontalarik oroitzen zituzten esapide errimatu eta dibertigarriak, haurren entretenimendurako edo haurrak beldurtzeko balioko luketenak. J. M. Satrustegi-k gure bilduman ere jasota **(338.) E5-03 "Bar bau"** kontakizuna aztertzen du bere artikulu batean (2002:481-488).

Azkenik, eta guk jasotako material ia guztia hitz lauzkoa bada ere, informatzaileek bertso eta kantaren bat ere eskaini digute, ixtorioren batekin. Hor dauzkagu, adibidez, beste gizon batekin esperantzetan geratutako emakumeari buruzko bertsoak **(346.) E7-04 "Sorlekua dut Eskual Herria"**; Neska alferra aberats soinekoz jantziari buruzkoak, urguluz betea zena aitak zentzatu zuen arte **(347.) E8-06 "Urguluaren arbola"** ; **(348.) E22-09 "Pelo ikazkina"**[7] ; (**349.) E22-10 "Iñaki, Maria Terexa eta transistorra"**eta **(350. eta 351) "Artoxuritzetako kantuak"**.

(100.) E18-03 "Aphez bat osatu"eta **(101.) E19-02 "A zer neska politak zauzkun arribatu"** bertsoak, berriz, ixtorio irrigarri edo gordinen bat kontatzen zutenez « ixtorio gordinen » atalean sartu ditugu, bertsoz emanda badaude ere, atal horretakoekin loturan ikusi baitugu.

[7] Hauek Zalduby-ren bertsoak dira eta 1939ko Gure Almanakan ere agertzen dira.

2.6. GAI "GORDINAK" IRRI KONTAKIZUNETAN

Rodriguez Adradosek ipuin erotikoa horrela definitzen du (2005:170)[8]:

> «Izaera komikoa duen istoriotxoa, emakumea erdigune duena: bere adulteriotik eratorritako arazoei aurre egiteko argitasuna darabil (batzuetan, gaiztakeria); gehienetan onik ateratzen da, nahiz eta zenbaitetan zigortua ere gerta daitekeen. Beste aldaera batzuk daude, zenbait emakumeren desio burugabe, apeta, jelosia edo are maltzurkeriaren ingurukoak, edo zaharrenganako arbuioaren ingurukoak; beti gertakari komikoren bat da tartean. (...) Mota erotikoko gertaera komiko txikiak dira, eta emakumea, ia beti, kaltegarri balitz bezala agertzen da».

Maria Jesus Lacarra (1986: 339-361) areagoa doa definizioan eta hauxe dio:

> «Conviene subrayar que les relatos adoptan como eje de la historia la conducta adúltera de la mujer sin prestar atención al amigo, a veces tan culpable como ella.
> Tampeco se narra nunca el caso del marido que busca una amiga, pero el enfoque elegido sirve para destacar la malicia de la mujer. Los personajes masculinos en este tipo de relatos quedan en un segundo plano ante la astucia femenina. Ella será la que urda el engaño, limitándose el amigo a seguir sus indicaciones, y aun a veces con torpeza (…)».

Sexua aipagai duten gai gordineko kontakizun asko definizio horietan sar genitzake. Badira, ordea, emakumeen engainuaz ari ez diren gai gordineko kontakizunak ere, animaliak protagonista dituztenak, adibidez. Horregatik, gure corpuseko materiala deskribatzeko definizio horiek zabaldu beharra daukagu. Horretarako, kontakizun gordinetan, orokorrean, antzematen diren hainbat baliabide aipatuko ditugu:

A. N. Afanasievek (1991:21) beste zehaztapen bat ematen digu ipuin erotikoaz: **"transposizio poetikoaz"** hitz egiten du eta baliabide hori gai erotikoan oso ohikoa dela dio, gauzak eta ekintzak beren izenez deitzeko ezintasunak, horiek deskribatzera eramaten baikaitu. Afanasieven ustez, entzulearen edo irakurlearen esku geratzen da transposizio poetikoa eta horren barruan era alegorikoan deskribatzen dituzten asmakizunak ulertzea. Aditz baten esanahi bikoitza egon liteke tartean, bere lehen esanahitik apartekoa, sematika sexualean esanahi metaforikoa ere izango lukeen

[8] Itzulpena gurea da.

aditza. Esandakoari oinarri emateko adibide bat eskaintzen digu, hain zuzen ere, zorriaren eta arkakusoaren ikuspegitik koitoaren deskripzioa egiten digu bere bildumako VII. ipuinean "Zorria eta arkakusoa".

Felix Maria de Samaniego arabarrak ere, bere ipuin bilduma "debekatuan" (2004:309-310) badakarkigu horren antzeko kontaera larri bat. Kasu honetan, zorririk ez da aipatzen, baina bai arkakusoa. Samaniegok Baionan ikasi zuen gaztaroan, eta Jean de la Fontaine alegiagile frantziarrak zeharo liluratuta zuen. Palacios Fernándezek dio (2003) Jean de la Fontainek 1665ean argitaratu zuen *Contes et nouvelles en vers* bildumako laugarren zatia (2001 [1675]) laugarren zatia saltzea debekatu egin zutela gaietako batzuk antiklerikaltzat jotzeagatik.

Goyetche saratarrak La Fontaineren lanez egindako itzulpenaren (1852) hitzaurretik atera dezakegunez, ezagutzen zituen gai larriagoa zuten kontakizun horiek, baina alde batera uztea erabaki zuen:

> « Bertze alde, Lafontenen fabledegian ezdut itsurat eta ahurka hartu, aitzitik ikhusiz, miratuz eta berexiz. Lafontene gaizoak nahastatu ditu bere fabletan asko arinskoak, legartsuak eta izpirituen harrotzera eta bihotzen asaldatzera darontsaketenak: hek utzi ditut bazterrera. Baldin heien bidez eragiñ izan badu hirri asko, segur da azkenean berari isur-arazi izatu diotela nigarra franko ».

Ipuin horietako askotan agertzen den beste ezaugarrietako bat **"lañotasun itxura"** edo sexu kontuetan inuzentziaren itxura egitea da. Frappier-Mazur-ek dio (1993:30) lañotasun itxuraren estrategia hori elaberri lizun eta pornografikoan oso erabilia dela:

> «Ce genre de justification appartient à ce que Claude Reichler a nommé la "fiction d'innocence", stratégie discursive destinée à naturaliser les détails transgressifs et fréquente dans le roman libertin et ponographique».

Estrategia diskurtsibo hori ikus dezakegu, adibidez, "*De la grue*" fabliau-an: kontakizun horretan esaten da inork "uki" ez zezan, alaba dorre batean gorde zuela erregeak eta zaindari bat jarri zuela. Kalean igarotzen zen gizon gazte batek kurrillo baten truke txortan egitea eskatu zion, eta neskak hori zer zen ez zekiela erantzun zionean, mutilak erantzun berak lagunduko ziola bilatzen. Eta baita lortu ere, behin baino gehiagotan gainera. Websterren "Emazteak" ipuinean ere, adibidez, neskatxa gazte-ederrak ezkontzea zer zen ez dakielakoan, inuzente planta egiten du amaiera

arte, senargaiak inork ukitu gabeko emakumea lortzeko nahia txakur-amets bihurtu arte.

Felicia de las Casas-ek (1994) dio, fabliauen liburuaz egindako edizioaren hitzaurrean, ixtorio gordin horien beste ezaugarri bat **maitaleen sentsazioak edo maitasun sentimendua inoiz ez deskribatzea** dela, eta dibertigarritzat jotzen dutena kontatzera mugatzen direla, sexu harremana ekintza naturala balitz bezala, inolako gainbaloraziorik gabe.

Beste ezaugarri bat emakumeen **sexuari buruzko ezjakintasuna** izango litzateke. Arruntak dira antzinatetik datorkigun literaturan emakumeen sexu ezjakintasunaz barre egiten duten kontakizun gordinak ere. Adibidez, Accursiana-ko eranskinean jasotzen den "Alaba tuntuna" izeneko istorioa dugu horren adibide. "Fabulas transmitidas por las colecciones anónimas" atalean, Rodriguez Adradosek (1987:227) H305 signaturarekin katalogatzen du. "Esoporen bizitza"-n ere (2000), jasotzen den kontakizun hori (131. zenbakiduna). Kontakizun horixe bera Arratian (Bizkaia) ere jasota dago, bertako berezitasunekin, baina argitaratu gabe.

Gai larriko kontakizunak beste mota bateko kontakizunekin tartekatzea ohikoa zen. Aintzinatetik hasita, hor ditugu, Esoporen alegiak K.a. VII. mendean, *Panchatantra* K.o. V edo VI. mendekoa; edo latinez idatzia eta Erdi Aroan zabalpen handia lortu zuen *Disciplina Clericalis* exemplu bilduma. Frantziako fabliaux-en bildumetan ere, baditugu senar-emazteen arteko engainu ipuinak beste mota batzuetako kontakizunekin tartekatuta. Gero ikusiko dugunez, Websterrek jasotako bilduman "gai larriko" kontakizun horietakoren bat beste mota batzuetakoekin tartekatu zen: miresgarriak (Errege eta bere hiru semeak, Abenan...), haur ipuinak, animaliak protagonista dituenak (Otsoa eta astoa…).

Mundu zabaleko bilduma askotan ere gauza bera gertatzen da: Azerbaidjango herri ipuinen bildumetan (1985), adibidez. Indian ere, Ramanujan-en liburuko kontakizunen batean (1997) atso baten azpikeriek lagunduko diote erregeari merkatariaren andrearekin egoten, eta emakumeari txukun eta errugabe ateratzen. Txinako Songlin, Pu-ren ipuinen batean ere (2004 [1640-1715]), maitaleak ohearen azpian ezkutatu behar duela agertzen da, senarrak harrapa ez ditzan. Eta kontakizun horiek bestelako beste batzuen ondoan joan dira.

Beste tradizioetako azterketetan, beren asmo nagusia **gizonezkoak engainatzea dutela diruditen kontakizunak, emakumeak ardatz dituztenak**, literatura misoginoaren erakusletzat jotzeko joera izan da. Baina Goldberg-en arabera (1983:67-83) ez du zertan beti horrela izan.

> «The term "antifeminist" has been applied widely and indiscriminately to any story in which, even superficially, it appears that a woman is being criticized. (...)These tales vary in theme and in tone, some being jocular, others serious».

Asmo komikoa duten ipuin horietan ezin da gizona izan emakumezkoa engainatzen duena, indar fisikoa, soziala eta juridikoa berarekin dituelako, eta beraz, alperrikakoa litzateke eragin komikoa lortzeko. Publikoarengan interesa pizteko ahulenak jarri behar du indartsuenaren gainetik, paperak itzulikatu behar dira.

Era berean, esaten du noblea edo aitoren semea ezin zitekeela maila baxuagoko emakume bat amorez errekeritzen aurkeztu, eta zeregin horretarako, elizgizona besterik ez zen geratzen. Horregatik hautatu zuten **elizgizona maitasun abenturetako protagonista**, sedukziogilea errudun izatea eskatzen baitzuen.

2.7. IRRI IXTORIOEN HEDAPENA

Ipuin bat mendez mende, eta herriz herri igaro bada, Josef Bédierren ustez (1911:258), kontaketaren bitxitasunak eta kontatzen den horren orokortasunak lagundu du:

> «La force de diffusion et de durée du conte réside d'une parte dans **la singularité** de la situation, qui le rend plaisant, tragique, facile à retenir ; d'autre part, dans **la généralité** des sentiments, qui lui permet de s'accommoder aux les plus diverses. Les données morales qu'impliquent ces nouvelles sont éternelles, accessibles à tout homme venant en ce monde, et vivront aussi longtemps qu'il y aura, partout où il y aura des maris et des femmes, des amants venant à la traverse, des jaloux, des amis, des brus et des rivales».

Kontakizunen jatorriaren azterketak iritzi kontrajarriak sortu izan ditu. Morote Magán-ek (2010) dio ahozko eta idatzizko tradizioko ipuinen artean sinbiosia gertatzen dela sarritan. Ahozko ipuin bat idatzizko testu batetik etor baitaiteke eta azken hau, aldi berean, ahozko tradiziotik:

> «Queremos llamar la atención sobre la simbiosis existente entre el cuento de tradición oral y el cuento literario en la literatura española. Podemos afirmar que muchos cuentos literarios nacen en los de tradición popular, o toman de

> ellos su núcleo argumental. Por poco que hayamos rastreado en las colecciones de cuentos recogidos en la geografía española, hemos podido observar que muchos de sus temas y motivos se encuentran ya desde la Edad Media...».

Ipuin erotikoak aztertu zituen Francisco Rodriguez Adradosek (1993) ipuin erotiko horiek guztiek sustrai bera dutela ondorioztatu zuen, jatorri grekoa dutela alegia, eta denboraren joanarekin, kultura eta egoera desberdinetara egokitzen joan direla. Hau da, gaiak Greziatik Indiara igaro zirela; arabiarrek beren ikusmolde eta girora moldatu zituztela; ondoren, Europa mendebaldean kristautasunaren etorrerak eta zabalpenak kristauen bizi-egoerara egokitu zituela. Eta beraz, ipuin horiek, bai zuzenean, bai bitartekari desberdinen bidez (arabiarrak, beste batzuen artean), Erdi Aroaren amaieran literatura erromaniko, germanikoetara zabaldu omen zirela. Ondorioz, Rodriguez Adrados (2005) puin erotiko greko-latindar-indiarrek jatorri berdina dutelako ondoriora iritsi zen, filosofia zinikoa eta greziaren eta indiaren arteko harreman kulturalak eta ipuin erotiko horiek zabaltzeko egin zuten lana aztertu zituenean. Beraren ustez (1993:63) , zinikoek emakumeen ospe gaiztoa zabaltzen zuen herri literatura bultzatu zuten, beti ere testuinguru satiriko, barre-eragile edo dibertsio hutsekoan:

> «Es el noûs o razón aquello que propugnan, es el páthos o pasión aquello de lo que abominan: de acuerdo, de otra parte, con la filosofía helenística en general, diríamos que con toda la filosofía griega. Lo notable es que **para exponer este ideal utilizan las antiguas narraciones o cuentos populares que critican la avidez sexual de las mujeres, al tiempo que admiran su ingenio**».

XIII. mendetik aurrera, Ebanjelioa bertsoz bertso komentatzen zuen predikazio modua zaharkitua geratzen hasi zen, eta estudiorik gabekoentzat baztertzen hasi zen. Letrango IV. Kontzilioaren ondoren eta erlijio ordena berriak agertzen joan ziren heinean, sermoi metodoa sistematizatzen joan zen, eta kultuago bilakatu, baina izaera herrikoia inoiz galdu gabe. Bibliako aipamen bat egiten zen lehenbizi, gero kokatu egiten zen, eta hobeto ulertzeko, diskurtsoa zatitu egiten zen, eta zatietako bakoitza anplifikatu. Prozesu horri *dilatatio* izena ematen zaio eta baliabideak ugariak dira: batzuetan autoritateak aipatzen ziren, beste batzuetan, konparazioak eta exenpluak erabiltzen ziren. Hartara, eliza ipuinak zabaltzeko iturri nagusi bilakatu zen, moralizazio egokiarekin, erabilpen pedagogikoa bilatuz. Iturriak askotarikoak dira: batzuek iturri erlijiosoak dituzte, baina beste batzuk profanoak dira guztiz,

Antzinatetik etorritakoak, adibide historikoak, ekialdeko ipuinak edo animaliak protagonista dituzten alegiak.

Pasarte lohiak zentsuratu izan direnean, ez da beti ulertu sermoietan betetzen zuten funtzioa, hau da, herriari egin behar zirenak eta egin behar ez zirenak erakustea. Maria Jesus Lacarrak dioenez (1999:30), "argi eta garbi komikoak, lizunak edo erotikoak ziren ipuinak diskurtso teologikoa azaltzeko erabili izana harrigarria da, generoa herrian zenbateraino errotu zen ikusita". Exenpluetarako erabili zen corpusa handituz joan zen XIII. mendea aurrera joan ahala. Pertsonaia anonimoak zituzten protagonista, eta abokatuek, merkatariek…egindako pekatuak azalduz, eguneroko bizitzako pertsonaiak bilakatu ziren ardatz; hartara, entzuleek, nekazariak eta ikasketa gabeak gehienak, beren zenbait jokabideren islada ikusten zuten horietan. Gazteleraz, Sanchez Vercial-ek exenplu zahar horiekin egindako bilduma nagusian (1961) ikus daitezke adibideak.

Euskaraz, XVII. mendeko Axular eta Tartas ditugu kontakizunez hornitutako predikazio modu horren adibide zaharrenak, eta XIX. mendean, besteak beste, Agirre Asteasukoa. Predikazio modu horri buruzko zenbait adibide ematen dizkigu Inazio Mujika Iraolak artikulu batean (1992:301-311). Haritschelarrek dioenez (2003), Emmanuel Intxausperen hitzek erakusten dute, Axularren liburuari egindako hitzaurrean, exenplu bidezko predikazio modua nolakoa zen, eta horretan garbiketaren bat egin ote zuen planteatzen du:

> «Guti tokitan behar izan dugu Axularren mintzaldia estali, aphaindu edo aldatu, orainko yenden delikatutasunagatik. **Axular'en denboran, bai erdaraz, bai euskeraz, orai baino librokiago, nasaikiago mintzo ziren; gauzen bere izenaz deitzeaz nehor etzen asaldatzen**. Oraiko azturak, nahiz eztiren ordukoak baino hobeago, ez garbiago, bai ordea, minberago dira beharriak; eta benturaz gogoa ere gaizkiaren phentsatzera zalhuago ta lasterrago. Minberatasun horren ariaz eta amoreakatik arima garbienek probetxuekin irakur ahal dezaten **Axularren liburu ederra, garbitu, leuntu eta aphaindu ditugu lekhu harro, zakar, eta gordinegi zirenak;** alabaina osorik uzten dugularik Axularren lanegina» (Aintzinsolhasa, IX).

2.8. ANTIKLERIKALISMOA ETA ADIERAZPEN MISOGINOAK

"Antiklerikalismo" hitzarekin zer ulertzen dugun azaldu behar genuke lehenik, termino hori zer esanahirekin erabiliko dugun jakiteko. Antiklerikalismoa diogunean, klerikalismoaren aurkako joera historikoaz ari gara, alegia, erlijio erakundeek gai politikoetan edo gizartean eragina izatearen aurka egiten duen joera historikoaz.

Ezin uler daiteke joera antiklerikalaren indarra, klerikalismoak Europan izan duen indarra ulertu gabe. Erdi Arotik XX. mende erdi aldera arte, elizaren eta kristautasunaren indarra Europa osoan sakona eta ukaezina izan da. Gizartearen parte handi bat elizaren esanen eta ohituren arabera bizi izan da, eta horrek bere islada izan du literaturan ere.

Indarrean zen botere horrek ere, ordea, kritikoak izan ditu, beti gertatzen den bezala. Honela dio Caro Barojak (1978:189):

> «El poder establecido y sus representantes siempre han tenido críticos. (…) La iglesia católica, como tal poder, no es excepción. (…) Habrá, siempre, que establecer una tabla matizada para distinguir entre la crítica violenta, que supone un apartamiento total y que abarca todo, desde dogmas fundamentales a pequeños hábitos, de la que se hace desde dentro, con fines de corrección piadosa».

Barrutik egindako kritika hori, herriaren irri gai bihurtu zen zenbaitetan, eta hizkuntza batean zein bestean antzeko irri gaiak aurkitzen ditugu. Caro Barojak hitz hauekin laburbiltzen du, Espainiako inkisizioa tarteko, elizaren aurka sortutako umorearen fenomeno hori (1978:200):

> «Claro es que lo que el hombre de iglesia veía, también lo veían los demás, y que la Inquisición hubo de meterse más de una vez en el campo de lo policíaco para reprimir la tendencia a decirlo, de modo más o menos escandaloso y público; pero por muchos que fueran los amonestados y penitenciados por esta razón, el humor anticlerical pudo ir por cauces que resultaba difícil vigilar».

Caro Barojak era berean, antiklerikalismoaren historian bi aldi nagusi bereizten ditu. Lehen aldi horretan, Eliza erakunde gisa ondo ez joatearen arrazoia, gizonaren akatsetan ikusten du (2008: 22):

> «Ahora hay que empezar con la primera fase, en la que el creyente sincero ve en las flaquezas humanas, en la básica corruptibilidad del hombre la razón de que en Roma, o dentro de la Iglesia, las cosas no vayan bien».

Antiklerikalismo modernoaren izaera, berriz, guztiz desberdina dela dio, eta proiektu laizistekin edo erlijioaren kontrako proiektuekin loturan ikusten du. Antiklerikalismo moderno hori XVIII. mendean sortu zen, Ilustrazioarekin, eta ikuspegi arrazionalista batetik, Aintzinako Erregimeneko gizarte sakralizatua eta elizen boterea zalantzan jartzen du, munduaren garapenerako traba baitira.

Aldi batetik besterako jauzia, honela definitzen du Caro Barojak (2008:21):

> «El proceso mental que conduce al anticlericalismo es sencillo. Se parte de la creencia de que la religión católica como tal es buena, bella y verdadera: pero los que la sirven son malos, mentirosos y de fea conducta. (…) Pero he aquí que de esta manera de pensar se pasa, o se puede pasar, a una segunda. La inmoralidad, la falta de conducta, se atribuyen entonces a defectos de la misma organización de la Iglesia. Y después, en un tercer momento o fase, son ya los dogmas los que se atacan. El eje cambia; la Iglesia viene a estar en oposición con las ideas "modernas", y sus representantes no pueden ser buenos, porque están metidos en una organización mala, simplemente. Las pruebas históricas de su maldad se buscan de modo febril».

Jacqueline Lalouette-k antiklerikalismo politikoaren parean, pertsonen aurka zuzendutako antiklerikalismoaz hitz egiten du artikulu batean (1997: 29):

> «Hubo muchos librepensadores que no se contentaron con este anticlericalismo puramente político e institucional, con ese laicismo que se introducía progresivamente en la vida de la nación, sino que condujeron un combate sin tregua contra los eclesiásticos. Tampoco esta forma de anticlericalismo apareció con la Tercera República. Atraviesa la literatura francesa, de Rutebeuf a Béranger, pasando por Rabelais y La Fontaine, con sus frailes y canónigos rubicundos, licenciosos, codiciosos, muy alejados, en definitiva del ejemplo evangélico que se supone debían seguir. No obstante, el tono cambió durante el siglo XIX. El clero secular fue atacado tan duramente como el regular, ya que por entonces todos los hombres y mujeres de Iglesia se vieron condenados por igual».

Bigarren aldi horri dagokionez, adibidez, Xipri Alberbidek, iparraldeko kasua aztergai hartuta, garaitsu horren berri ematen digu (2007:5):

> «XIX. mende ondarra oso beroa izan da bai Frantzian, bai eta Iparraldean, politika eta eliza aldetik: orduan da gorenean izan xuri eta gorri, errepublikar eta besteen arteko borroka.
> Frantziako iraultzaren ondotik, Eliza peko errekara eroria zen. […] Hogoi urtez ez zen apez berririk izan, urte guziez zaharrak hiltzen zirelarik. 1802an,

> Napoleonek kondordatua egin eta urteak behar izan ziren zilotik ateratzeko, bainan lortu zuten eta molde harrigarrian».

Julen Urkizak egindako historian (1995:1045) garai horietako antiklerikalismoa aipatzen du:

> «XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendean zehar, gizarteari dardara eragin zioten iraultzak eta gerrak Europan, Frantzian eta Espainian batez ere, euskal Elizarentzat zailtasun larri bilakatu ziren. Antiklerikalismoak eta kristau erlijioaren aurkako amorruak Elizaren barruko erakunde eta pertsonak desegiten zituzten».

Pellistrandi-k (2007: 23) dio, Frantziako kasu zehatzean, antiklerikalismoa Frantziako errepublikar kulturaren oinarrietako bat izatea ezin uler daitekeela, urtetan Frantzian oinarri erlijiosoko korronte politikoa egon zela ulertzen ez bada. Honela azaltzen du:

> «La derrota final del clericalismo al mismo tiempo que el triunfo republicano entre 1877 y 1905, puede llegar a proponer una cronología deformada de ambas realidades. Dicho de una manera más clara, la derrota del clericalismo lo ha relegado al olvido y los historiadores se han dedicado a la historia del anticlericalismo más que a la del clericalismo. El libro clásico de René Rémond, "L'Anticléricalisme en France de 1815 à nos jours", no tiene su correspondiente historia del clericalismo».

Xabier Itçainak, XX. mendearen lehen erdian oraindik ere, elizaren nagusitasuna ikusten du (2001:362), bere gorabeherekin :

> «Un régime national-catholique vit ses dernières années en Espagne, marquées par un raidissement répressif inédit depuis la fin de la guerre civile. Au Nord, la structuration du mouvement nationalitaire et l'arrivée des réfugiés du Sud imposent un sens politique inédit aux expression identitaires. L'Eglise, de son côté, est dans un situation ambivalente : elle est en plein remise en question interne et externe mais elle occupe encore en Pays basque une position sociale prédominante».

Aipatutako Réne Remond-en liburuan (1976), apaizak botere politikoaren jaun eta jabe agertzen dira eta, horrekin batera, antiklerikalismoaren irudi eta topikoak: dirua eta ondo jatea maite dituztela-eta, beren bizio eta akatsak nabarmentzen dira.

Historian atzera eginda, Caro Barojak aipatutako antiklerikalismoaren lehen aldi horri dagokionez, berriz, agerpen edo testigantza ugari ditugu literaturan bertan. Nafarroako Margarita erreginak XVI. mendean idatzitako *Heptameron* liburuaren (1991 [1558]) hitzaurrean zenbait xehetasun ematen dira antiklerikalismo honi buruz. Erasoa

ez zaie elizgizon guztiei zuzentzen, pobrezia eta eskuzabaltasuna beren jokabidearen ardatz duten frantziskotarrei baizik. Ordena honek bere izena eta omena galduta zuen XII. mendeko herejiagatik Italian. Elizgizon herritarrak ziren gainera, eta "munduan" bizi ziren laikoekin kontaktu zuzenean, burgesekin eta artisauekin nahastuz.

Roterdamgo Erasmok XVI. mendearen lehen herenean, bere elkarrizketetako batean satirizatu egiten du; eskale aberatsak edo frantziskotarrak salatzen ditu lan egiten ez dutelako, gizonek bezala jan eta edaten dutelako, eta emazte edo alabak dituenentzat arriskutsuak direla dio.

Erdi Aroan, Frantziskotarren kontra egiten du eraso Chaucerrek (2003 [1387]) *Canterburyko ipuinetan*, XIV. mendean. Beren komentuetan aberastasuna eta oparotasuna nagusi zela, eta pixkanaka egia gezur bilakatzen joan zela. Baina elizgizon batzuen akats eta gehiegikeriak nabarmenak izan arren, eliza eguneroko bizitzaren lekuko zen. Santutegiak gidatzen zuen egutegia, kanpai hotsak herritarrak biltzen zituen eta santuen erlikienganako errespetua orokorra zen.

Antiklerikalismo horri azalpena bilatzen saiatu dira, eta arrazoia ez da horren sinplea, egindako lanek frogatu baitute beren botoak betetzen ez zituztenak gutxiengoa zirela San Luisen garaiko Frantzian (XIII. m). Herejiak asko ugaldu ziren eta elizgizonen aberastasuna erasotzea zen asmoa sarritan, dirua biltzen ibiltzen zirelako.

Antiklerikalismo horretan, elizgizonen jateko antsia, eta diruzalekeriarekin batera, elizgizonek emakumeekin ibiltzeko grina ere behin eta berriz azaldu izan da literatur adierazpenetan. Sarritan, emakumeek berek jukutriak edo azpijokoak darabiltzate senar adardunak engainatzeko. Emakumeen argitasuna eta azpikeriak beren senarrak elizgizonekin engainatzeko, irrigai ezagunak dira.

Adierazpen misoginoei buruz, Archer-ek dio (2001) "XIII. mendean emakumearen irudia kaltetzeko joera orokorra hasi zela, maitasun gortesauak emakumeaz egindako idealizazioaren ondoren". Filosofo moralisten, naturalisten, teologoen, gramatikoen… idatziek ematen diote oinarri teorikoa, ipuinek, ageriago, exenplifikatzen dutenari. Emakumeen irudikapen ezkor horretan funtsezkoa da, lehen aipatu dugun bezala, argitasuna. Argitasuna zen, oso kasu arraroetan izan ezik, emakumeen leporatzen zitzaien inteligentzia modu bakarra, inteligentzia arrazionalena gizonentzat gordetzen baitzen.

Urteak joan urteak etorri, ahozko tradizioan gorde dira idatziz ere jasota geratu diren zenbait irri kontakizun, dela exempluen bidez, bai bestelako ipuinekin tartekatuta, bai debekatutako kontakizun bildumetan. Esango genuke ipuin erotiko horiek gizartean errotu eta mantendu badira, gizartearen arauek ezarritako mugak hausten zituzten mundu ikuskerak eskaintzen zituztelako zela. Martin Gaite-ren hitz hauek (1972:166) gizarteak emakumeei jartzen zizkien mugez dihardute:

> «Las mujeres no se habían acostumbrado al permiso que el en siglo XVIII la sociedad empezaba a concederles. Pero es que se trataba de un permiso muy singular: lo que en el fondo era mirado con agrado y aplauso, más que el placer, era la fidelidad, el sacrificio, la renuncia a otros placeres; en una palabra, lo que el placer pudiera tener de expiación».

Satrustegik (1975:47) ildo bereko gertaerak bildu zituen XVIII. mendeko Nafarroan:

> «Ezkontzako eginkizunetaz hitz egitea oso gaizki ikusia zen. Handituik, e! ta bekatu zan gauza hoiek aipatzea. Izor hitza ez dut herri hauetan inoiz entzun. Ezkondu ta gero ere, haurdun gelditzen zen amak bazuen traba haundi bat bezala bere egoera etxekoei adierazteko garaian.
>
> Hemezortzigarren mendean isuna botatzen zieten haragizko harremanak ezkondu aurretik izaten zituztenei. Elizako liburuetan idatziak dira: "baita ere hamar errialen kargu egiten da, ezkondu aurretik elkarretaratu ziren lau jendeena».

Izan ere, idatzita iritsi zaizkigun testuek erakutsi digute zenbaterainoko garrantzia zuen emakumearen ohorerako birjintasunak. "Luma galdu" duen "uso kolpatua" edo "oilanda kolpatua" buruhauste handien eragilea da, azken mendeetako herri literaturako aleek erakutsi digutenez. Websterrek bildutako *Arrosa* ipuinean birjintasuna galtzea zimeldutako arrosaren irudiaren bidez ematen da.

> «Behin batez bazen errege bat. Bazituen bi alaba; arras maite zituen eta alaba hek ere beren aita maite zuten; eta errege hura egun batez deithua izan zen gerla handi batetara; eta hori aditu zutenian, arras tristatu ziren; eta beren aitak eman zioten bakotxari arrosa bana eta erran:
>
> -Jeus hutsetan erortzen bazarete, zuen arrosak histuko dire.
>
> Eta ez du faltatzen. Egun batez heldu da errege seme bat eta erraten dio arrats batez harekin oherat juan behar dela, eta andere gazte hura arras sokatzen da. Erraten dio ez duela posible errefusatzea. Eta biharamunian atzematen du bere arrosa arras histua. Eta haren ahizpari ere agertzen dio gisa berian eta erraten dio harek ere igual, eta bere boketa atzematen du igual histua.

> Eta errege hura gerla finitu zenean ethorri zen bere etxerat, eta bere bi alaben arrosak atzeman zituen arras histuak. Eta izan zen xangrina handitan».

Badakigu, Jose Antonio Moguelek gustuko zituela Vivesen lanak eta haren elkarrizketetan oinarrituta ondu zuela *Peru Abarca* esaten digu hitzaurrean. Izan ere, Vives humanistaren lanek, latinez idatziak, zabalpen handia izan zuen Europan. Emakume kristauaren hezierari buruzko Vivesen liburuak (1994[1524]) hauek esaten ditu emakumeei buruz:

> «Ez dago emakumearengan kastitatearekin aldera daitekeen bertuterik, eta hau galduz gero, denak galtzen ditu. (…) Emakumearengan inork ez du bilatzen elokuentzia, ez talentua, ez zuhurtasuna, ez bizitzeko artea, ez Errepublikaren administrazioa, ez justizia, ez ontasuna; azken batean, inork ez du berarengan kastitatea besterik bilatzen».

Literatura idatzia ez ezik, ahozko literatura ere gizartean gertatzen denaren adierazpide da. Gure corpusean jasotako irri kontakizunak aztertzean, antiklerikalismoak eta emakumeei buruzko ikuspegi horiek irri kontakizunetan duten islada erakutsiko ditugu.

2.9. IKERKETAREN HELBURUAK ETA GALDERAK

Gure lan honen helburuetako bat 2002 eta 2010 urte bitarteetan, Ipar Euskal Herrian eta mugakide dituen eremuetan euskaraz jasotako ahozko testigantzak eskaini eta aztertzea da. Testigantzok ahozko literaturaren corpusari beste ekarpen bat egiteko asmoz bildu ditugu eta literatur ikerketen barruan kontakizun horiek duten tokia bilatzen saiatu gara.

Lan honek balio berezia baldin badu, kontalarien irudiak eta adierazpideak, soinuz ez ezik irudiz ere hartu dituelako da. Halaxe ikusi du F. Descamps-ek (2006) ere, irudiaren mende honetan, etnografiari buruzko lanez ari dela:

> «A la faveur de cette entrée dans l'ère du numérique qui concerne également l'écrit et l'image, se pose de façon plus pressante la question de la caméra : faut-il en rester au magnétophone alors que l'image animée est désormais omniprésente ?»

Ahozko lekukotasun gehienak bideoz jaso ditugu, baina irudizko euskarriari laguntzeko horien **transkripzioa** egitea beharrezko ikusi dugu, transkripzioa

edukitzeak lekukotasun bakoitza izendatzeko eta zerrendatzeko aukera eman baitugu. Transkripzioak berak ez dira, ordea, gure lanaren azken helburua, lana gauzatzeko lagungarri bat baizik. Ez da gure lanaren helburua izan kontakizun horien edizio kritiko bat egitea. Horretarako dauzkagu bideoak beren audioarekin, batek batek transkripzio horien gainean zehaztapenen bat egin nahi badu. Transkripzio horiek baliatuko ditugu, fonetikaz eta gramatikaz harantzagoko gogoeta egiteko, eta kontakizunak literatur tradizioaren barruan kokatzeko.

Kontakizun horien **sailkapena** egitea izan da hurrengo pausoa. Horrek bere zailtasunak baditu ere, jasotako materiala ez baitago multzo bakarrean sartzerik, euskal literaturako forma laburrez gogoeta egiteko aukera eman digu. Lehen lana kontakizun horien izendapena zehaztea da. Izan ere, sailkapenak ondo egingo baditugu, kontakizun horiek behar bezala izendatzeko proposamenetik hasi behar dugu.

Sailkatutako kontakizun horietaz euskal literaturan eta ingurukoetan bildu eta aztertu dena eta nola egin den eta etorkizuneko ikerketentzat aztergai dagoena errepasatzea izan da lan honen beste helburuetako bat. Alegia, **gaia bere testuinguruan kokatzen** saiatzea. **Deskripzio sinkronikoa** egiteko, besteak beste, *Analyse semiotique des textes* liburuaz J. Mateos-ek egindako gaztelaniazko egokitzapenean (1982), testuen esanahia aztertzeko erabiltzen diren zenbait teknika aplikatuko ditugu eta iteratzen diren isotopiak aipagai izango ditugu. Era berean, pentsaera bat ere islatzen da kontakizun horietan eta pentsaera horren adierazpideak ere aipatuko dira.

Ikuspegi diakronikoarekin ez gara gehiegi sartuko, kontakizunok bere garaiaren argitan kokatzeak izan ditzakeen zailtasunak aipatuko baditugu ere. Izan ere, zenbait kontakizun irrigarrik antiklerikalismoa eta sexua gaitzat duten horietako askok, adibidez, gaur egun jasotakoak izanik ere, aspaldiko bildumetako antzeko irri gaiak dituzte.

Gure corpuseko irri kontakizunak beste bilketa lan batzuekin erkatzea ere izan da lan honen asmoa. Agerikoa egin zaigunean, aipatuko ditugu kontakizun irrigarrien parekoak euskal literaturan nahiz bestelakoetan. Bilketa eta ipuin katalogo guztiak erkatzea zeregin gaitza izanik, baliteke zenbaitetan antzekotasunen bat antzeman ez

izatea. Zeregin horri literatura konparatuan sakontzea esango genioke, eta horretan sakontzeko lana beste ikerlari batzuentzat utziko dugu.

Alejandro Cioranescuk[9] (1964: 35, 38, 57) literatura konparatua definitzean, "muga lingustikoz bereizitako bi edo literatura gehiagoren harreman kausalaren azterketa dela dio". Beraren ustez, "literaturak ez datoz dagoeneko bat muga politikoekin, ezta garapen nazionalekin ere, muga linguistikoekin baizik. Izan ere, literatura lehenik eta behin funtzio linguistikoa da, nazional edo politikoa baino askoz lehenago":

> "Literatura konparatuak artelanari kanpoko datuak, izaera historikokoak gehitzea lortzen du. Datu horiek gerturatu egiten dute obra, geure irudimenean azaldu, borobildu. Literatura konparatuak ez du literatur lana bere horretan ikerketen xedetzat hartzen, baizik eta bere baldintza eta proiekzioekin. Horrek ikerketa konparatisten helburua estilistikoa baino, eta izaera historikokoa izatea dakar. Ez ditu objektuak aztertzen, prozesuak baizik. Bere materia mugikorra da, historia bera den bezala"[10].

Azkenik, kontakizunetako askotan errepikatzen den **efektu komikoaz** mintzatuko gara. Euskal literaturan irri kontakizun batzuk bilduta egon arren, gutxi hitz egin da komikotasunaren gainean. Eta gure ikerketan leku hori zabaldu nahi diogu gaiari, batez ere Europan XX. mende hasieran umoreaz egin ziren bi lan garrantzitsuk diotena kontuan izanik (Bergson filosofoak irriari eta umoreari buruz egindako entsegua (2008 [1900], eta Freudek txisteari buruz idatzitakoa (1905)).

Bergsonek irria ikuspegi sozialetik aurkeztu zuen, gizartera zabaltzen den adierazpide gisa. Feurhahn-ek honela dio (1996:15) :

> «Le rire est un "geste social" affirme Bergson, rompant avec toute la tradition mentaliste selon laquelle il s'agirait uniquement d'une manifestation subjective et caractérologique.(...) Toutefois le rieur de Bergson n'est pas seulement l'instrument involontaire d'une certaine orthogenèse sociale, réduite à une brimade social exercée par le rire, cette conception serait l'otage de la sociologie de Durkhein, une conception dominante au début du XX.e siècle».

Hainbat galdera planteatu ditzakegu, beraz, eta tesi honetan hauek erantzuten saiatuko gara:

-Gure bildumako irri kontakizunek zein toki dute euskal literaturaren esparruan? Bai euskaraz, bai beste hizkuntzetan bildutakoekin parekotasunik al dute?

[9] Espainian XX. mendeko 90eko hamarkadan Literatura Konparatu ikasketak Unibertsitatean sustatu zituen aztertzaile eta irakasle errumaniarra.
[10] Itzulpena gurea da.

-Zergatik ez dira euskaraz "gai gordinak"dituzten herri literaturako kontakizunak ia batere argitaratu?

-Irriaren adierazpena nolakoa da kontakizun hauetan? Zein irri gai errepikatzen dira? XX. mende hasieran, ikuspegi sozialetik umoreari buruz egindako gogoetak (Bergson eta Freud pentsalarienak, nagusiki) bat al datoz gure kontakizunetako irriaren adierazpen moduekin?

-Ahozko literaturako forma laburrez zein sailkapen egin dira? Sailkapena egiteko zer irizpide erabiliko dugu guk?

2.10. IKERKETAREN ZERGATIA, JUSTIFIKAZIOA

Tesi lan honetan handik eta hemendik barreiatutako kontakizun laburrei balioa eman nahi izan diogu. Ahozko kontakizunak badira ere, lehen esan dugun moduan idatzira ekarri dira, transkribatu egin dira, eta testu horiek gozatzeak ematen digun atseginarekin geratuko gara. XIX. mendean euskal nobela sortu zenean, Txomin Agirreren elaberrigintzak ikuskera unidimentsionala zuela frogatu zuen Ana Toledok bere tesian (1989: 208):

> «Esan daiteke euskal fikziozko prosaren sorrera testu unidimentsionalek markatzen dutela. Ez dago aldi berean sailkapen batean gizarte-geruza desberdinei erantzun diezaiekeen erlatu desberdinik. Bai, sailkapen batean hitz egin daiteke "barre-kontakizunei" buruz edo leiendei buruz eta hauetan historikoak direnak eta ez direnak berezi edo elaberri historikoari buruz, etab... Baina ez dira amankomunean duten mundu-ikuskeratik urrutiratzen; barre eraginez, nahiz aintzinako gertaerak kontatuz, didaktizismoan eroriko dira; Euskal Herriaren alde batean kokatuko dira; irakurlego-mota berdinari edo berdintsuari zuzenduko zaizkio…Ez dago aldi berean "espezializaziorik".
>
> Irakurle euskaldunari ez zaizkio euskaraz elaberri antiklerikalak eta klerikalak helduko. Aukerarik gabe, guztiak klerikalak izango ditu. Honela, euskara mundu-ikuskera bakar baten igorpen-tresna bihurtzen da. Hortik at gelditzen denak beste hizkuntza batera jo beharko du. (…)
>
> Baina beharbada beste zerbait ere erantsi eta ametitu beharrean gaude: euskal "literaturak" bi "tradizio" edo ezagutu dituela, bata ahozkoa eta bestea idatzizkoa. (…)»

Elaberria, neurri batean, gizartearen ispilu dela esaten da. Baina gizartean, beste mundu ikuskera batzuk ere bizi ziren. Orduan, zergatik ez ziren papereratu? XX. mende erdialdean idatzitako (1970 arte argitaratu ez zen arren) Jon Miranderen *Haur*

Besoetakoa elaberria izan liteke beste mundu ikuskera horren erakusle bat. Bertan arau moral guztiekin hausten duen mundu ikuskera aurkezten da.

Tesi lan honetan frogatuko dugu, ahozko hizkuntzan, behintzat, beste mundu-ikuskera batzuk ere bizi zirela garai horietan eta lehenago ere. Ahoz aho zebiltzan kontakizunetan, elizgizonak kritikatu izan dira, haietaz barre egin da, sexu gaiak jorratu dira… Beharbada, elizak gizartean izan duen pisua eta boterea ikusita, nagusi zen kanon horretatik kanpo zegoenak leku txikia izan zuen idatzizko esparruetan. Ahozko tradizio hori urrutitik etorria dela eta Europako hizkuntza desberdinetan berdintsu eman zela esan dezakegu. Gure lehen idazleak berak ere, seguraski, sarritan entzungo zituen eta ezagutuko zituen mota horretako ixtorioak. Denok dakigunez, Etxeparek emazteez gaizki esaka aritzen zirenak kritikatu baitzituen (1995 [1545]) euskarazko lehen liburuko "Emazten fabore" poeman :

«Anhiz gizon ari bada andrez gaizki erraiten
Arhizki eta desoneski baitituzte aipazen
Ixilika egoitia ederrago lizate
Andrek gizoneki bezi hutsik ezin daidite».

Gure corpuseko txisteek eta kontakizun irrigarriek aukera paregabea eskaintzen digute umorearen gaian sakontzeko. Iruditzen zaigu umorea lantzea, edozein hizkuntzaren piper eta gatza lantzea dela. Modu labur eta zuzenean irri eragitea lortzeko, hizkuntzarekin trebea eta bizia izatea beharrezkoa da. Hiztunak edo idazleak irri eginaraztea lortzeko maisu izan behar da hizkuntzaren erabileran.

Izan ere, Driesen-ek (1999) dioen moduan, umoreak kulturaren pertzepzio sakonenen berri ematen digu, eta tresna garrantzitsua da kulturak moldatu dituen pentsatzeko eta sentitzeko moduak ulertzeko.

> «El humor refleja las percepciones culturales más profundas, ofreciéndonos así un poderoso instrumento para entender las formas de pensar y sentir que la cultura ha modelado».

Euskaraz ere irri eragiteko gai diren kontalari bikainak baditugu, hitz-jokoez, hiztegi aberatsaz…baliatuz bigarren esanahiak erraz ateratzen dituztenak. Lan honek ekarpen bat egin nahi dio euskarazko ahozko literaturaren azterketari, kontakizunaren, eta batez ere, kontakizun irrigarriaren azterketarekin. Hutsune hori nabaritu zuen Martin Ugalde-k (1965:11) euskal umorearen antologia bat publikatu zenean,

euskarazko literaturaren aipamen eskasa egin zelako, eta bertsolarien ekarpena ez ezik, euskal prosako umorea ere faltan ikusi zuen.

> «Me parece importante destacar que no habrá una muestra completa de la literatura vasca sin la presencia de la obra del bertsolari. (…) También aquí falta una muestra del humorismo en la prosa euskérica. La valiosa presencia de Muxica con trozos de su inmortal Pernando Amezketarra no es suficiente, ni mucho menos; existe en la novela euskérica material más propio, y más hondo, de las raíces y la expresión del humor vasco…»

Guk hemen ez dugu elaberria aztertuko, ezta bertsolarien jarduna ere, gure lana guk bildutako kontakizun laburretara mugatuko da, zein testuingurutan sortu diren ahaztu gabe, noski.

Hemen bildu ditugun kontakizunak, beren laburrean, hizkuntzaren aberastasunagatik ez ezik, beren balio literarioagatik azpimarratu nahi ditugu, beraz. Horiek eskaintzea, kokatzea eta aztertzea da izango da lan hau justifikatuko duten alderdiak.

3. AURREKARIAK. MARKO TEORIKOA

3.1. IRRI KONTAKIZUNEN BALIOKIDEAK BILDUMA ZAHAR ETA BERRIETAN

Atal honetan gure kontakizunetako batzuen "tradizionaltasunaren" arrastoa bilatzen saiatuko gara. Horretarako hainbat ipuin liburu eta bilduma arakatu ditugu, eta zenbait kasutan tradizio zahar edo modernoan zituzten baliokideak aurkitu dizkiegu gure corpuseko irri ixtorioei eta baita leienda eta ipuin miresgarriei ere. Ez ditugu kontakizun guzti-guztien baliokideak aurkitu, baina emango ditugun adibideak, kontakizun horien tradizionaltasunaz hitz egiteko baimena ematen digutela uste dugu. Kontakizun bakoitza banaka-banaka errepasatu beharrean, aurkitu ditugun eragin nagusiak zeintzuk diren aipatuko dugu. Gure kontakizunetan dauzkaten baliokideekin edo antzeko motiboekin.

Iturriak aztertzeko orduan, Poggio Bracciolini humanistak XV. mendean idatzitako *Facetiarum liber* bildumatik hasiko gara dira, garai horretaraino baitoaz gutxienez hainbat kontakizunen arrastoak. Adibidez, gure corpuseko **(80.) E4-19 Gormanta** kontakizuna eta Poggio-ren 195.ena ("Del Fraile que conoció y se tiró a comadre con zorrería y malicia") berdinak direla esan dezakegu.

Bilduma horrekin parekatuta aurkitu dugun beste baliokide bat gure corpuseko **(17.) E13-08 Bost mila ogi** izenburuduna daukagu. Poggioren bildumak ere 227 zenbakiarekin jasota dauka kontakizun hori : "Un cura que estaba predicando se equivoca en el número diciendo cien por mil".

Poggio-ren bildumako 12.ena ere ("Un artesano pregunta a unos paletos encargados de comprar un crucifijo, si lo querían vivo o muerto") badaukagu jasota erlijiozko kontakizun errealisten atalean **(153.) E9-11 Hila ala bizia?** izenburuarekin. Kontakizun hori, XVII. mendeko Juan de Arguijo eta beste batzuren (1979) bilduma delakoan ere jasota dator 102 zenbakiarekin. Bilduma hori eskuizkribuan egon zen, harik eta zatika argitaratu ondoren, 1979an Maxime Chevalierrek eta Beatriz Chenot-ek osorik argiratu arte.

Era berean, gure bildumako **(108.) E27-09 Astoaren uzkerra** ere Poggioren bilduman aurki dezakegu, 213. zenbakiarekin eta "Gracioso cuento de una joven que se peía" izenburuarekin.

3.2.2. puntuan aztertuko dugun Websterrek bildutako kontakizunen eskuizkribuan, **XX. Apeza eta andrea** delakoak ere badu baliokidea Poggiok jasotako bilduman: 232 zenbakiarekin "De las calzas de un fraile menor transformadas en reliquias" izenburuduna.

Horiek bete-beteko baliokideak izango lirateke. Baina Poggio-ren bilduma arretaz irakurriz gero, badira gure corpuseko zenbait ixtoriorekin bat datozen hainbat motibo.

Esaterako, Poggiorem 43. kontakizuna ("De una joven que acusó a su marido de pequeño pene") horrela amaitzen da:

> «Muchísimos hombres sentían que con tal mueblaje los superaba. Todos se volvieron a la joven esposa, reprochándole fuertemente su necedad. Ella les dijo: "Por qué me reñís y reprendéis?. Nuestro asno, que hace poco vi en el campo, es una bestia que tiene así (extiende el brazo) de largo su miembro: este marido mío, que es hombre, no tiene ni la mitad».

Orain goazen hona ekartzera gure corpuseko **(74.) E2-02 Apezaren froga** ixtoriaren amaiera:

> «Apezak erraten du:
> −Erakutsi nolako tresna duzun.
> Ta gizonak arrantza ari ttittar bat.
> −Bo, hori sei hilabetekoa duzu, sei hilabetekoa !
> Ta apezak ateatzeu berea ta [besoa mahai gainean zabaltzen du]:
> −Ta hau da beatzi hilabetekoa !»

Eta pentsa dezakegu: Ez al da harrigarria arrazoitzeko modu horien antzekotasuna? Apezarekin ibilitako emakumeak sei hilabeteko haurra duela kontatzen duen ixtorio hori 1362A tipoan sailkatzen dute Aarne-Thompsonen bilduman, eta Maxime Chevalierrek (1983:200) du 123. "El niño prematuro" izenburuarekin.

(74.) "Apezaren froga" kontakizunaren bertsio moderno bat ere irakurri dugu, Rodrigez Pastor-en bilduman (2001) 70. zenbakiarekin eta "Marzo magarzo" izenburuarekin.

> «Era una que se casó con un tío de estos ignorantes, y la tía iba *embarazá* de otro. Se casó y, claro, el hijo no era del marido, le engañó. Y a los tres meses tuvo el hijo y, claro, al marido no le salían las cuentas de que tuviera un niño a los tres meses. Ella le quería hacer creer que el hijo era de él; pero el hombre decía que no era suyo, porque no le salían las cuentas. Y dice la tía:
> –Sí, verás como salen las cuentas.
> Y empezó a contar los meses.
> –Marzo, magarzo
> y el mes de marzo,
> tres;
> abril, abrilete
> y el mes que la arremete,
> seis;
> mayo, magayo
> y el mes de mayo,
> nueve.
> Dice:
> –¿Ves?, ¡los nueve meses justos!
> Y así le convenció, porque le sacó la cuenta de los nueve meses».

Poggioren kontakizunekin beste baliokidetasun bat gure bildumako (**114.) Ametsak** ixtorioan legoke. Berdin berdinak izan ez arren Poggioren 130.enarekin ("Del hombre que encuentra oro en sueños") antzekotasun handiak ditu, muinean urre-ametsa kaka bihurtzen baita bietan. Juan de Arguijoren bilduma delakoan ere agertzen da ixtorio hori.

Websterrek jasotako **XXI Emazteak** ipuinak ere Poggioren bildumako 157. ena izango luke baliokide ("De un florentino que era novio de la hija de una viuda") ehuneko ehunean berdina ez izan arren, Poggiorena zertxobait luzeagoa baita, korapiloaren amaiera berdina dute. Bi ixtorioak neskaren sexu ezjakintasunean oinarritzen dira. Poggioren bertsioak kontatzen du florentziar bat neska batekin ibili ohi zela, baina neskaren ama egoeraz ohartuta ezkontza hori desegiten saiatu zela eta alabak onartu. Gero bakoitza beste batekin ezkondu zen. Gizonaren ezkontzara aurreko neska-laguna joan zen, ordea, eta emazte berriak zerbait nabaritzen du eta gizonari galdetzen dio:

> «Él targiversaba y ella le forzó a contarle todo, al mismo tiempo que ponía en evidencia la necedad de la primera mujer: "Dios confunda a la que fue tan tonta, dijo, en contar todo a su madre. ¿ Qué necesidad tenía de ir a decirle que habíais estado juntos?. Mi siervo me ha poseído más de cien veces y nunca hice saber nada a mi madre».

Beste antzekotasun batzuk aurkituko ditugu Poggioren 60. zenbakidun kontakizuna hartzen badugu. "Del que buscaba a su mujer ahogada en el río" kontakizuna berdina izan ez arren, oso antzeko motiboak ditu gure corpuseko **(139.) E14-06 "Ahoz behera"** kontakizunarekin. Bietan emazte txarra zendu eta gero, harekin zer egin den aipatzen da gogo txar handiz. Poggiorenean esaten da hil eta gero ere, "ibaiaren kontrako bidetik eta uraren korrontearen kontrako bidetik paseatuko dela". Gure corpusekoan berriz, buruz behera lurperatu dela, aztaparka gora aterako zela mehatxua egin baitzuen. Bietan emaztea zenaren agintzeko herioa agerian utzi nahi da, mundutik joan eta gero ere.

Ugariak dira katexima ikasteko zenbait galderari erantzun behar dioten mutikoen kontakiznak. **(1.) E2-03** "**Haurra katexima ikasten"** izenburua jarri diogun kontakizunaren amaieran, itxierako esaldian, mutikoak galdezka ari zaion apezari erantzun zorrotz batekin erantzuten dio, hiru zozoak zeintzuk diren erantzun behar dituenean. Hirugarrena apeza dela dio, norbait hiltzen delarik denak nigarrez eta bera orro kantuz ari delako. Azken motibo hori, predikatzailearen oihuak nigarrak eragite hori, Poggio-ren 230.enean ere badaukagu "De qué modo se confunde a un predicador que grita mucho" kontakizunean.

Poggiok XV. mendearen lehen erdian amaitu zuen bilduma hau. Harrigarria da gaur egungo bilduma bateko zenbait alerekin aurki ditzakegun antzekotasunak. Baina segi dezagun orain hainbat kontakizunen arrastoa Espainiako Urrezko Aroan. XVI eta XVII. mendeetan jasotako hainbat kontakizunekin erkatuko ditugu orain gure bildumako ixtorio batzuk. Maxime Chevalier irakasleak garai horretako tradiziozko ixtorioez egindako lanak oso baliagarriak izan dira zeregin horretan. 1983an argitaratutako *Cuentos folklóricos españoles del Siglo de Oro* liburuan baliokide batzuk aurkitu ditugu.

Has gaitezen beraz, adibidez, gure bildumako **(48.) E1-02 Sosdun tronpatua** ixtorioarekin. Hau 1539 tipokoa da eta Chevalierren bilduman (1983) 172 zenbakiarekin "El villano astuto" izenburua darama eta bertan Espainiako eta Ameriketako hainbat bertsiori egiten zaio erreferentzia.

Gure bildumako **(49.) E1-04 Zordun abila** kontakizunak ere Chevalierrek 203 zenbakiarekin jasotako "El acreedor dormido" du baliokide. Bertan esaten digu Timoneda-ren *Sobremesa* lanean ere (I,21) badatorrela jasota.

Santa Cruz-en *Floresta* liburuan jasota datorren "El tuerto y el corcovado" (1620 tipoa) ixtorioa ere Chevalierrek jasotzen du 188 zenbakiarekin. Gure bilduman (**128.)** zenbakiarekin bi bertsio ditugu: **E14-03 Tuñuta eta begi bakotxa; E40-09 Ttonttorra eta okerraren ixtorioa.**

Gure bilduman **(76.)** zenbakiarekin datorren **"Taula erdian" (1351 tipoa)** ixtorioa ere jasota dago Urrezko Aroan. Chevalierrek ematen du ixtorio horren berri, bere bildumako 118.ean "Quitad la tabla" izenburuarekin. Julio Camarenak ere (1979) jaso zuen ixtorio horren bertsio moderno bat 167. "El fraile quita la tabla" izenburuduna. Chevalierrek esaten digu (1989:125) antzinako ixtorio hori XVII. mendean ere ezaguna zela. Alfredo Asiainek (1999) ere jaso zuen ixtorio horren bertsio moderno bat Nafarroan, gaztelaniaz.

Frantzian dirudienez oso ixtorio ezaguna da gure bildumako **(34.) E31-04 "Bi gelarien artean 50 urte"** (1362 B* tipoa) eta besteak beste, Lope de Vegaren lanetan azaltzen da. Chevalierren bilduman (1983) 124 zenbakia darama eta "Dos veces veinte son cuarenta" izenburua.

Gure bildumako (**18.**) **"Konfesio ixtorioa"** ixtorioaren bertsioak ere (1804 tipoa) Cristóbal de Villalón-en *El scholático* lanean jasota zeuden (IV, 17:227) eta Chevalierrek 228 zenbakiarekin jasotzen du: "La intención basta". Kontakizun honen bertsio modernoa ere Camarenak bildu zuen 262 "Penitencia tan sólo por mirar" izenburuarekin.

Gezurrei buruzko ixtorioak ere oso zabalduta egon ziren Urrezko Aroan eta gehienak lelo bikoitz bati lotzen zaizkio (Chevalier, 1986:291):

> «La casi totalidad de los cuentos de mentiras que se leen en textos del Siglo de Oro caen bajo el doble lema de "A luengas vías, luengas mentiras" y "Cazador, mentidor". Es decir que son cuentos folklóricos».

Gure bildumako (**124.) Ihiztaria aho handi** kontakizuna bigarren sail horretakoa da. Horietan ehiztariak zein baino zein aritzen dira beren ehiza trebetasunak erakusten.

Chevalierren liburuan datozen beste hiru kontakizuni ere antzekotasuna hartzen diet gure bildumako batzuekin. Adibidez, 235. zenbakidun "¿Cordero o morueco?" ixtorioan, mutilak gaizki erantzuten die apezaren esanei. Baina bere burua astakeri batekin justifikatzen du: «Morueco de Dios, ave merced de mí» esaten du, «Cordero de Dios» esan beharrean. Gure bildumako (**107.) Agur, Maria, Graziaz, Betia** ixtorioa ez al da antzeko joko batean oinarritzen? «—Eta Maria? —Maria susara da» esaten duenean?

Beste antzekotasun bat gure bildumako (**19.) "Lantzerra Urdiñarben"** eta Chevalierren bildumako 234. "Conciértense, y lloverá" izango genuke. Gure bertsioan, apezak Altzürükürako euria eskatu zuela eta Urdiñarbekoak ere halaxe eskatzen diote. Baina apezak erantzuten die: "Altzükün ebia hasten bada, hemen lantzerra phü aiko düzü".

Azkenik, ixtorioa desberdina izan arren, astoaren familia abertitzearen inguruan hitz egiten du gure (**23.) "Asto hila"** ixtorioak, eta Urrezko Aroko kontakizunen batean ere (Chevalier, 1975:172-173) halaxe egiten dute: «Perdonad, señor asno, que no pensé que teníades parientes en la Corte», esaten du kontakizun batek.

Bilduma modernoak deitu ditut, XX. mendearen bigarren erditik honakoak. Bilduma horietan ere badaude gure corpusean aurkitzen ditugun hainbait ixtorio. Julio Camarenak egindako bilduman (1989) daukagu adibidez 247 zenbakiarekin "El labrador se hace el sordo" gure bildumako **(125.) E1-06 Gorra eta medikua** kontakizunaren baliokidea, eta Aarne-Thomposonek 1698 tipoaarekin izendatua.

Martin Criadok ere (2004) jasotzen du beste bertsio bat:

> 6. [EL LABRADOR SORDO] (Aarne–Thompson 1698: Los sordos y sus respuestas. 1698 J: Buenos días. Un leñador)
>
> Era una vez un sordo que estaba arando y alcanzó a ver uno por un camino y, entre él, pues claro, se figuró que le diría que qué gordas tenía las mulas y él dijo:
> –Pues le tendré que decir, cuando me diga esto, que las echo dos almuenzadas de cebada. Me dirá que cuánto aran, le diré que obrada y media.
> Y así fue, esto que ya se acercó, llegó a su altura y dice: –¿Qué hay? ¡Buenos días! Pero el otro ya dice:
> –Dos almuenzadas de éstas.
> Dice:
> –Que buenos días.

Dice:
–Obrada y media.
Y ya tanto le hartó que dice:
–¡Vete a tomar pol culo! (6).

Camarenaren 280. "El gocho en la capilla de San Antonio" ere gure bildumako **13. Urdia**-ren tipo berekoa da. Urdea apezaren sotanapean sartu zenekoa kontatzen du.

Erlijio gaiko beste ixtorio errealista multzo handi bat, Jondoni Petri eta Jesukristo-ren kontakizun sailak osatzen du. Hauxe Jossiane Bru-k horiei buruz (1999):

> «Mais ils peuvent aussi donner lieu à des récits quasiment facétieux où Saint Pierre, ayant tendance à se prendre pour son maître, est remis à sa place souvent avec beaucoup d'humour».

Ixtorio mota horietako multzo handi bat eskaini zigun Jean Barbierrek bere *Ixtorio-mixterioetan* (1989). Gaztelaniaz ere jasota badaukagu horrelako kontakizun multzo bat, adibidez, Pascuala Morote-ren bilduman (1992: 114-117). « Correrías de San Pedro y el Señor » izenburuarekin.

Martin Criadok (2004b:56-57) ere jasota dauka gure bildumako 2. zenbakidun "Konfesioa" ixtorioaren baliokide bat, "El cura y el alcalde" izenburuarekin.

Lorenzo Velez-en bilduman (1997: 186 eta 195-196) "La procesión nunca vista" eta "Las tres hijas del sacristán" kontakizunetan (katalogatu gabeak) ekintza sexuala hizkuntza metaforikoa deskribatzeko erabiltzeko moduak gure kontakizun batekoa gogorarazten digu: **(73.) E2-01 "Egun on".** Gure corpusekoan apeza Erroman sartzen ari zela esaten zaigu. Gaztela eta Leonen jasotako bertsio batean, berriz, formula hau erabiltzen da:

«En hermosas margaritas,
Hermoso clavel,
Que va a entrar
Pilatos en Jerusalén».

Martin Criadok (2005) artikulu batean apezei buruzko kontakizunen gaiak laburbiltzen ditu eta bertan gure corpuseko ixtorio baten (**47. Pastetxak**) baliokideak ematen ditu:

> «El cura comilón y goloso (...) mientras dice misa, el ama pregunta al cura la receta del guiso que piensa hacer y él le responde cantando: "El cura y el obispo"

(Díaz-Chevalier: 84-85), "La receta desde el púlpito" ("Lorenzo Velez: 159-160), "Epístola del tocino" (Puerto: 177-178) y "El evangelio del guiso" (Martín Criado 2004a:150)».

Santa Grazin kontatzen zen Apezpikua etorri zenekoa eta hari komuna dotore jarri behar eta ipurditik eskubila pasatzeko gizon bat komun pean jarri zutenekoa. Puertok ere jasotzen du ixtorio hori (1995:179-180) "La visita del obispo" izenarekin. Gure bilduman **117. "Aphezküpiaren gomita"** dugu horren baliokide.

Martin Criadok esaten digu (2005) apezak irentzearen edo kastratzearen inguruan ere hainbat ixtorio badirela. Guk ez dugu horrelakorik jaso, baina bai ideia horrekin burututako bertso bat. Honela dio **100.**enak **"Aphez bat osatu"** deitu dugunak:

«Zalgizen nahi dena neskatilakatü
Behar tu zaragoilak[11] üntsa bütüatü
Diauenaz aspaldi malhur bat agitü
Bi neskatila gaztek aphez bat osatü.
Tralala, laralalaila, trailala…»

Gai gordineko kontakizunekin jarraituz, gure corpuseko (**82.) E8-01 "Emaztea eta apeza"** ixtorioak kontatzen du emazte bat apezarekin zegoenean senarra sartu eta apezari ihes egiteko bidea errazteko apezak leihotik salto egiten duenekoa. Baina azpian otea izan eta ziztatu egiten dela. Orduan emazteak leihotik hitz joko bat oihukatzen dio: "−Otetik, jauna otetik! Gizonak ezpeitu zapetik!". Rodriguez Pastor-ek (2000) "La pulida hortelana" izeneko erromantze baten berri ematen digu. Izan ere nahiko arrunta da prosazko ixtorioak errimadun bertsioekin tartekatzea. Erromantze horrek honela dio zati batean. :

«Padre que ese es mi marido: /vayasé usté como pueda...
Volantín por la ventana,/el ...(fraile) cayó en la güerta.
Ha caído en un zarzal, /donde vivo se desuella».

Rodriguez Pastorren artikulu berean (2000) gure **(90.) E11-02 "Xoxüa"** ixtorioaren baliokide bat dator "El pájaro" izenburuarekin, hegaztia kolkotik barrena sartu zuen emakumeari buruzkoa.

Interesgarria irudi zait, era berean, bi bertsio desberdinetan jaso dugun **15.** ixtorioa **"Aiten ofizioa"** delako kontakizuna. Aarne-Thomsonen katalogoan (1961) 931

[11] Hau dio T. Peillenek (1986:174): Zaragollak, Aragoitarren prakak ziren Zuberotarrentzat. Gaztelaniaz, zaraguelles.

tipo zenbakiarekin (The King and the Peasant's Son. "What is your father doing? −He is in the vineyar…") sailkatzen du. Guk jasotakoa, ixtorio horren aldagai bat izango zen. Agundez Garcia-k (2004) kontakizun horren bertsio moderno bat eskaintzen digu eta hau dio ixtorio mota horri buruz:

> «Según Thompson (1972: 255-256) una gran proporción de las anécdotas y chistes más populares se relacionan con el ingenio, agrega que muchos de estos cuentos fueron del gusto de la Edad Media, especialmente aquellos en que se quería descubrir la verdad; señala también que muchas de las chanzas fueron más frecuentes en los narradores orales cuando formaron parte de una serie o cuento más complejo, siendo las formas simples, las anécdotas más sencillas muy abundantes en los libros de chanzas del Renacimiento y en los exempla medievales de donde fueron tomadas muchas de estas colecciones europeas».

Euskarazko bildumetan ere baditugu gure kontakizunen baliokide zenbait. Horietako batzuen berri kapitulu honen 3.2.3. puntuan emango dugu, euskarazko bildumak aipagai hartzean.

3.2. IRRI KONTAKIZUNAK EUSKAL LETRETAN

Ahozko tradizioa biltzeko grina, XVIII. mende erdialdean indartu zen Europan eta bilketa lanak gero eta ugariagoak izaten hasi ziren. Euskal eremuan XIX. mendean hasi ziren bilketa lan horiek, eta orduz geroztik, aldizkarietan lehenik eta liburu formatuan geroago, ipuin eta kontakizun horiek argitaratzen hasi ziren.

Honela diote beren liburuaren sarreran X. Alberdik eta X. Etxabe-k (2009):

> "Grimm anaiek Alemanian hasitako bideak, ipuin eta elezaharren bilketak, XIX. mendearen bukaeran izan zuen segida gurean, eta kanpotik etorritakoak izan ziren nagusi lantegi horretan. Horrela, Jean François Cerquand Frantziako eskola inspektoreak **Legendes et récits du pays basque** izeneko artikulu-sortan ipuinak idatzi zituen, Wentworth Webster artzain anglikanoak **Basque Légends** izeneko ipuin bilduma argitaratu zuen, eta Julien Vinson-ek **Le folk-lore du pays basque** liburua".

Euskaraz fikzioa idatziz XIX. mendera arte eskasa izan zen. Argitaratu ziren liburu asko eta asko erlijio gaiekoak baitziren. Koldo Mitxelenak euskal literaturaren historiari errepasoa egitean (1960), ahozko kontakizunaz harantzago fikzioa gutxi landu zela adierazi zuen:

> «La ficción no ha tenido gran cultivo entre nosotros, más allá del relato oral. Se han elaborado reiteradamente sin grandes pretensiones literarias temas

> populares, muchas veces con tendencia moralizadora: así en los libros de los sacerdotes Urruzuno y Zamarripa. Sobresalen una hábil adaptación de un motivo de Trueba por el médico Apaolaza (*Pachico cherren*, 1890), los relatos folklóricos de J. Barbier (*Ichtorio michterio, Supazter chokoan*) y con mayor variedad y amplitud, los cuentos de Enrique Zubiri "Manezaundi" (1867-1943) y las dos colecciones escritas por el vizcaíno Evaristo de Bustinza, conocido por "Kirikiño" (1866-1929):*Abarrak* (1918) y *Bigarrengo abarrak* (1930) (…) Algo de la sal vizcaína de Bustinza se encuentra en *Ipuin barreka* (1959), el reciente libro de cuentos ligeros de fray Félix Bilbao».

XIX. mendean, euskaraz, itzulpenetan oinarritutako ipuin eta alegia mordo bat argitaratu ziren. Koldo Mitxelenak *Historia de la literatura vasca* liburuan (1960) XIX. mendeko alegiagileen lanak aipatzen dizkigu: Vicenta Moguel-ek Esoporenetan oinarrituz *Ipuin onac* (1804) moldatu zituen; Fray Mateo de Zabala-k itzulitakoak, orduan inprimatu ez baziren ere; Goyetche lapurtarrak eta J.B. Archu zuberotarrak (1848) egindako La Fontaineren alegien itzulpena. Agustin Iturriaga gipuzkoarrak, berriz, Samaniego-ren alegiak itzuli zituen *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado* (1842) liburuan.

XIX. mendean, Antoine d'Abbadie-ren mezenasgoan Lore-Jokoak ospatzen ere hasi ziren. Patri Urkizuk 1851ean dagoeneko jokatu zirelako frogak eman zituen bere liburu batean (1997). Literaturari dagokionez, bertsoa izan zen nagusi egitarauan. Baina Ana Toledok dioen moduan (1990:9) 1873tik aurrera sariketa literarioko oinarriak zabaldu ziren arren, prosazko idazlanak aurkezteko aukera eskainiz, zabalpen horrek ez zuen islapenik aurkituko erakutsitako emaitzetan.

Antoine Abbadiaren hariketa horietan hainbat leienda saritu ziren eta horietako askotan herri tradizioko kutsua antzematen da. Esateko, *Miluzeko Zubiya* (1882an Joakin Larreta eta Arzak-ek aurkeztua) leiendak herri kontakizun baten egitura du: laburra eta amaiera harrigarrikoa, zubiaren izenari azalpena ematen dio eta prosa bizian idatzita dago. Baina literatur sariketa horietara bidalitako alerik gehienak bertsoz aurkeztu ziren.

Ahozko tradizioko kontakizunei dagokionez, XIX. mendeko ipuin-biltzaileez xeheki idatzi zuen Jabier Kalzakortak bere liburuan (1997:17-19). Cerquandek euskara ondo ez zekienez, eskolamaisuak baliatu zituen herritik harako kontakizunak jasotzeko, eta *Bulletin del a Société des Sciences, Lettres eta Arts de Pau* aldizkarian

argitaratu zituen[12]. Natalia M. Zaika errusiar jatorriko ikertzaileak bere artikulu batean dio (2009:990), eskolamaisu horiek jasotako euskal testuaren frantses itzulpena ez dela beti fidela:

> «Il croit indispensable de donner au lecteur non seulement la traduction française, mais également l'original basque qui la suit. Il y a très peu de contes dont on ne connaît l'original basque. (…) On remarque une différence énorme entre l'original et la traduction, ce qui a été critiqué par Vinson, qui n'utilise pas la traduction réalisée par les corresondants de Cerquand».

Websterrek egindako bildumako alerik gailenenak ingelesera itzulita eman zituen Ingalaterran (1877), bi urteko aldea duten bi ediziotan. Euskaraz, ordea, XX. mendeko 70eko hamarkada arte, ez ziren argitaratzen hasi. Gainera, aldizkari espezializatuetan argitaratzen hasi ziren Aingeru Irigaray eta Charles Videgain[13]. Hala ere, ipuinik gehienak argitaratu gabe Baionako Liburutegiko eskuizkribuan geratu ziren Xipri Arbelbideren edizioan Euskal Editoreen Elkarteak argitaratu zituen arte (1992). Geroztik edizio dotoreagoak egin dira, ipuin magikoei buruzko azalpenekin, eta ipuin miresgarrien tipologia azalduz, Martin Etxeberriarena, esaterako (2007). Eta horien ikerketa bide berriak proposatzen dituzten artikuluak egin dira I. Mercero Etxeberriarena, adibidez (2006). Gero ikusiko dugun moduan, ordea, oraindik ez daude Websterren ipuin guztiak euskaraz argitaratuta, eta argitaratu gabekoetatik hiru bat behintzat irri kontakizunen multzoan sar ditzakegu.

Cerquand eta Webster biltzaileak Vinsonen gainetik jartzen ditu Kalzakortak (1997), azken honek bildutako lanen inguruko laburbilketa egin zuelako, bilketa lana baino gehiago. Honela dio:

> «Vinsonen lana gehiago mugatu zen bildu zen guztiaren gaineko berri zehatza ematera, nahiz eta, noizean behin ekarri ttipiak ere egin».

Vinson-en *Le folk-lore du pays basque* liburua interesgarri gertatuko zaigu, ordea, bertako seigarren atalean (Récits de sottises et naïvetés) 98. orrialdean ematen digun

[12] Jatorrizko aldizkaria "Gallica" web-gunearen bitartez kontsulta daiteke, 1874. urtekoa.
[13] IRIGARAY, A. (1974): Noticias bio-bibliográficas del vascólogo y etnologo Wentworth Webster" in FLV, 1974, 18. zenb. 451-452 or.
VIDEGAIN , C. (1974): "Quelques contes basques tirés du manuscrit Webster" in FLV, 18. zenb, 451-452 or.
VIDEGAIN C. eta IRIGARAY.A (1974) : "W. Webster zenaren euskal ipuiñak" in FLV, 17; (1975) "Más del manuscrito de W. Webster. Herensugea" in FLV, 20. zenb.,129-135 or.; (1975) "Leyendas vascas de W. Webster" in FLV, 20. zenb, 271-278 or.

Les femmes ipuinaren euskarazko jatorrizkoa (**« Emazteak »**) aztertuko baitugu irri baliabideak aztertzean.

Atal honetan, beraz, euskaraz argitaratutako ixtorio, ateraldi eta irri kontakizun laburrez mintzatuko gara. Horiek umorezko narrazio luzeagoei eta bertsozko kontakizun irrigarriei gehituko zaizkie. Umorea ez baita noski, irri kontakizun laburretara mugatzen. Juan Antonio Moguel-en *Peru Abarca* liburuan (1981 [1882]), esaterako, umore printzak nonahi bila daitezke. Gauza bera esan dezakegu, Antoine Abbadiek antolatutako lehiaketetara aurkeztutako aleez. Bertsoz emana, baina hor dago, era berean, Pierre d'Ibarrart-ek idatzitako *Itsua eta Sastrea* (1892) , Lazarillo de Tormes-en moldaketa…

3.2.1. IRRI KONTAKIZUNAK EUSKAL ALDIZKARIETAN

Ipuin, ateraldi eta txiste moduko kontakizun laburrak, euskal aldizkarietan bildu izan diren mordoxka ikusita, jendartean barra-barra kontatu behar zirela pentsa dezakegu. X. Altzibarrek idatzitako artikulu batean (2008: 33) aldizkari zuri zein gorriek mota horretako kontakizun labur irrigarriak agertu zituztela dio. Le *Réveil Basque* aldizkarian (1886-1894), esaterako, istorio eta gertaera labur bitxiak edo ateraldi irrigarriak agertu zirela:

> «Gertaera bitxiak eta ateraldiak ugariak dira; maiz frantses kazetetarik hartuak, bardin frantsesezkoekin nahaste, aldizkatuz. Sailen izenak gehienak frantsesezkoak dira: Faits Divers (1887), Drolekeria (1888-1890; Droleries, 1890), Mots pour Rire (1888; hortik datorke "irri solasak", euskarazko azpigeneroa, geroago Eskualduna-n ere agertuko dena, Menus Propos (1892-1893), Variétés (1893,1894)».

Izan ere, artikulu horretan berean dioen moduan, "*Réveil basque* (1886) hasi zen euskara erabiltzen, ez *Eskualduna*(1887), nahiz eta gero xuriak euskarari toki nagusia eman, euskara erlijioaren babes eta hesitzat hartuz eta erabiliz. *Réveil*ek, ordea, gero eta euskara gutiago erabili zuen azken aldera, Errepublika inoiz baino indartsuago zelarik".

Antzeko zerbait dio J. Díaz Noci-k aldizkari horiei buruz:

> «Baina Ipar Euskal Herriari dagokionez, errepublikazale edo gorriak ahalegindu ziren urteroko prentsatik beste aldizkatasun batera pasatzen. Zehazki, ahalegin hori Paben zegoen errepublikazale-nukleoari zegokion, zeinak *Le Réveil Basque* astekari elebiduna argitaratzeari ekin zion 1886.ean. Ipar

> Euskal Herriko kazetagintzari buruzko testuetan behin eta berriro esaten zaigu *Le Réveil Basque*ren garrantzia *Eskualduna*ren sorrerarako akuilu izatean bakarrik datzala».

1890etik 1914ra Almanak uskara edo Ziberouko egunaria argitaratu zen, urtarrilean. Horietan atal bat agertzen da amaeira aldera, "istoria edo erasi zounbait" izenburua duena.

Hauek dira, adibidez, 1891ko almanakako hainbat adibide:

Hirour aphezgei astoz zouatzalarik, bathu zutien zaldiz jouaile elibat. Batek erran zeren : « Eta noula douatza astouak ? » — « Jaouna, batek arrapostu badouatzu zaldiz. »

Hiltzera zouela ikhousi oundouan gizoun zahar batek emaztiari erran zian : « Jaounts itzazu arropa hobena, urheria ederrenak. » — « Eta zertako ? » — « Ikhoustez hañ eder, zu benturaz hartuko beitzutu, ni utzirik, heriouak ! »


Ikus daitekeenez, txiste labur antzekoak dira, eta gure bildumako hainbat kontakizunekin antzekotasuna dute. Hona hemen 1914ko aleko beste adibide bat:

— Hiri hoietako etcheko-andere bati, uduritzen zaion, uda beroan, erosten zian eznia geroago eta mehiago zela, hots batheiatucherik izan behar ziala. Behin plañitzen zaio saltzaliari : « Oi, madama, bero handi hoietan goure behiek usatu beno hanitch haboro edaten beitie; hortarik horra duzu, eznia mehiago emaiten beitie.

Bestalde, ***Gure Almanaka*** urtekaria, adibidez, 1926an argitaratzen hasi zen eta bertan ere jaso zituzten horrelako zenbait kontakizun irrigarri. Guk 1946 bitartekoak aztertu ditugu, bertan agertzen ziren irri kontakizunak zer-nolakoak ziren aztertzeko. Batzuk "Bitchikeriak" izenburupean agertzen dira, beste batzuk "Irri-solas", "Atheraldi bat", "Haur Elhe" edo "Zirtoak" izenburupean eta beste zenbait solte, beren

izenburu soilarekin ala izenbururik gabe zenbaitetan. Zenbait adibide ekarriko ditugu hona, aztertutakoaren erakusgarri.


1926ko alean, adibidez, hainbat kontakizun ditugu: 32. orrialdean, "Merkhatuan" irri kontakizuna dago eta izenbururik gabeko beste bat, biak txiste laburrak. 36. orrialdean ezteiliarren ospakizunetara sartzen den gizon baten ateraldia agertzen da. 49 eta 50 orrialde bitarteetan hor ditugu "Senhar emazte geien artean" eta izenbururik gabeko beste batzuk; horien artean, gure bilduman jasotako bat behintzat agertzen da **(24.) E16-08 "Ertzo nindükezu"**, guk bildu baino laurogeita hamar urte lehenago:



Muthiko bat jian zankon aphez bati kofesatzera, eta hasi zenkon : Aita ni erdi zoroa niz. — Ze nahi duzu, dio aphezek, holakoak ere Jainkoaren haurrak dira. Gero ? — Etcheko phentzean lanean ari nintzelarik, auzoko phentzetik hartu dut belhar pochi bat eta etcherat ereman guretik zelakoan. — Ordean, erdi zoroa izan eta, nolaz ez duzu bada zuen phentzetik ere auzokoanerat eman ? — Jauna, hori egin banu, ez nintzen ez erdi zoroa izanen, osoki zoroa nintzakeen.

64. orrialdean "Amerikanoa eta haren bi auzoak" txistea dator. Beste hiru ere jasota daude 71. orrialdean.

1927ko alean, 38. orrialdean, adibidez, hauxe datorkigu:



BI EZKONTGEI

Hor hiza Pettan ? — Ba, Mattin, hi ere ba ? — Ez dakik berri ? — Zer da ? Bethi bakharrik, asia nuk ; ezkondu gogo diat. — Emazte geia baduka ? — Eiga ere baitiat eta, bainan etzakiat zoin hauta. Bata gaztia eta pullita diat ; bestia aldiz itsusia bainan aberatsa. Hea zer zaukan ? — To, Mattin, pullit hura har ezak, eta itsusia nik hartuko diat.

47 eta 50 orrialde bitartean ere "Bitchikeriak" izenburupean, adibidez, zazpi irri kontakizun badira behintzat: "Senhar emazten artian", "Arbi buru bat", "Ihiztariaren erbia", "Jaun erretora eta konkorra", "Haur huni?", "Bi emaztek elgarrekin", "Zigarreta emailea". Hona hemen horietako batzuk:

SENHAR EMAZTEN ARTIAN

Manech ! Zoin gocho litakeen biak batean hil baginite ? — Ez, Kattalin, ez ; hobe dazu lehenik hil ziten, eta ni bizi nadin zure nigarstatzeko.

ARBI BURU BAT

Laborari bati jin zankon arbi buru bat ikharagarritan ederra. Hau erregerentzat behar diat haatik, zuen bere beithan egin. Badoha beraz bere arbi buruarekin. Arbi buru hura ukhan ala ez erregeri bardin zankola, bistan dena da. Bainan laborari horren chede onak zuen hunki, eta saritzat eman zaizkon mila libera urhetan.


Hori jakinik beste laborari bati gogoratu zankon hak ere behar zakiola erregeri eman bere zamarirk ederrena. Arbi buru batentzat mila libera emaiten dituenak, zamariarentzat, zer ez othe dako emanen ? Errege zaldia untsa miaturik, espantuka hasi zankon halako zaldirik etzela etche guzietan izan behar. Gure gizona han zagon hantua laudorioez. Erregek zaldia muthil batekin bestetaret igortzen du, eta bera badoha barneret emalearekin. Han ere errege etzakon espantu egitetik athertzen. Azkenean erraiten dako : Ori, arbi buru hau emaiten dautzut, mila libera balio ditu

JAUN ERRETORA ETA KONKORRA

Jaun erretorak pedeikutik erran dee : Jainkoak eginak ountsa eginak dira. Konkor batek bere beithan : Hori eztuk haatik hala ? Mezatik landa jaun erretora igurikitzen du eliza aitzinian eta erraiten dako : Jauna, oichtian beitzinion Jainkoak eginak oro untsa eginak direla, beha zazu bada ni nola nizan. Aitzinetik eta gibeletik untsa so egin eta Jaun erretorak erraiten dako : Bainan badakisia gero konkor batentzat biziki untsa egina zirela ?

HAUR HUNI ?

Hazparneko karrikan gizon batek hatzemeiten du auzoko muthiko ttipi bat nigar eta nigar ari. — Zertako egiten duk hola nigar, Battitta ? — Ba eta bisoseko bat galdu baitut ! — Cho, Battitta, ez nigarrik egin ; to bisoseko berri berri bat ordain. Battittak irriño batekin hartzen dako. Bainan berriz ere aditzen duela haurra heiagoraz ari. — Zerduk bada berriz ere hola nigar egiteko ? — Ba eta beste bisoseko hura galdu ezpanu, orai biga beinuzkeen !




BI EMAZTEK ELGARREKIN

Kattalin ! — Zer nahi dun, Maiun ? — Gure gizon horren izpirituia, harritzeko dun ba haatik ! — Zer du ? — Zer duin ? Mochkorra heldu zautanean, chutik aise dagola erakaasteko, paretari lotzen dun. — Barkhatzeko dakon, no ! Mozkorra heldu denean, gure hura ez dun segurki paretari lotzen. — Zeri bada ? — Erhatz giderrari.

ZIGARRETA EMAILEA

Meza nausitik landa Alexis-ek zigarreta paket bat eskuian : Kaiet, zigarreta bat ? — Ez, ez diat egiten. — Hik Piarra ? — Nik ere ez. — Hik Juanes ? Ez eta. — Hik Battitta ? — Ez. — Bego beraz. — Errak, Alexis ? Niri ez dautaka eskaintzen ? — Ez hiri ez, beitakit hik har hezakeela.

Ale berean, 56. orrialdean "Zapateina eta mirikua" irri kontakizuna daukagu:




ZAPATEINA ETA MIRIKUIA

Astelehen goiz batez, ez dugu erraiten nun, zapetein bat beihi bezela karrikan zabilan goiti eta beheiti bezperako khaldatik ezin sendotuan. Herriko miriku batekin buru emaiten du, eta hunek zapeteinari : Domingo, ageri duk astelehen dukala. — Jauna, ez da egia bezelakorik, barda gaitzeko potroarekin nintzen, eta oraino ere ez niz sendotzen. Enetzat on ditakeen zerbeit bazinukea ? — Ba, muthikoa ba. Eta mirikuink untchi ãimiño bat atheratzen du, eta zapeteinari sudurpian ezartzen dako dioelarik : Useinda zak eta sendea hiz.

Bazinaki zoin on dautan ? Eta orai zure saria zombat da ? — Bost libera. Zapeteinak atheratzen du bost liberako bat, eta mirikui ari sudurpian ezartzen, erranez : Useinda zazu... pagatua zira.

91. orrialdean, berriz, "Untsa Atzemana" izenburupean agertzen da beste irri kontakizun bat:




UNTSA HATZEMANA

Maria Nahasianekoa badoha auzo batetara deus berririk ikhas dezakeenez. Nehor etzen etchen. Halarik ere sartzen da, eta mahainaren gainean erhauts pochi bat badela oharturik, egiten du ahalgarazi behar dituela. Erhiarekin izkiriatzen du beraz : Mari Zikhin. Biharamunian berriz badoha, eta erraitendako etcheko andereari : Atzo ere izan nindunan gero, bainan etzinezten etchen. — Ohartuak ginitunan ba izan hintzela ! — Zertaric ? — Hire izena izkirioz untzi haukun eta !

Hona, zenbait adibide ekarri ditut, baina aldizkarian bertan kontsulta daitezke beste hauek ere:

***Gure Almanaka*, 1928:** 34. orrialdean "Han-Hemenka" atala. 39. orrialdean "Nausi Chauchuna"; 47. orrialdean "Zor duna", "Argizari zaharrak", "Mirikuaren muthila", "Emazte eria", "Hori zer da?". 50. orrialdean, "Senhar emazten artean", "Ergelkeria", "Mirikua eta eria". 67. orrialdean, "Dendariak", "Aita eta semia", "Adichkiden artean", "Bi tratulant"; 73. orrialdean, "Jaun arrotza", "Biltzarreko solas", "Auzitan", "Ama eta haurra", "Bi ikhasleak", "Ihiztaria eta artzaina", "Mirikuari"; 83. orrialdean "Bakezko jujia", "Soldado geia", "Apeza eta Botigesa". 86. orrialdean "Neskato berria", "Hil mezularia", "Amerikanoa", "Senhar emazteak".


***Gure Almanaka*, 1929:** 35. orrialdean "Zirtoak" izenburudun bat daukagu. Zirtoak lehen aipatu dugun moduan, ez dira txisteak ere, ateraldi, erantzun bizkor eta irrigarriak baizik. Hona adibide bat:



ZIRTOAK

Gizon itsusi itsusi bat auzo batekin hizkatu zen eta erran zankon : Hi, bi begithartetako gizon zar bat hiz. Eta hunek berherala : Zuk ere nahi zinituske ba bi begtharte, kamporat duzun horrekin ez agertzeko.


43 eta 46 orrialde bitarteetan, ipuin labur eta ateraldi irrigarri zoragarri batzuk datoz jasota, euskara aberatsean emanak "Bitchikeriak" atalean: "Errege ta kaskoina", "Oilar sorgina", "Chartoa", "Zoin azkarrago", "Mandozaina", "Mozkor baten atheraldia", "Ohakoa". Hemen horietako bat:



MANDOZAINA

Harbideko mando zaina phazkuen egitera juana zen. Aphezak, jin berria zelakotz etzuen oraino ezagutzen. Aldia jin zakonean, Anton hasi zankon aphezari : Ez dakizu nor nizen ? — Egiaren erraiteko etzitut oraino ezagutzen. — Ni Harbideko mando zaina niz, eta arno saltzen nabila. — Untsa hori, beharra den lanari ari zira. — Bainan, Jauna, bekhatoros haundi bat niz. — Etzitela lotsa, barkha ez dezaketan bekhaturik ez da. — Huna beraz, Jauna : Zahagietan arno zorta bat ezar eta, gainetik ur emaiten dakot. — Anton, hori etzautzu haizu. Ur eta arnoren saltzea arno hutsa delakoan, hori bekhatu haundia da. Holakorik ez duzu gehiago eginen, ez dea hala ? — Ez, Jauna, ez, ezdakot gehiago arnoari urik emanen.


Anton-ek phazkuak egiten ditu, eta ostatuan lagun batzuekin haskari pochi bat eginik, etcherat badoha. Aldaturik eta lanerat heldu denean, hatzemaiten ditu



muthilak zahagien bethetzen ari. Zer ari ziezte ? — Arnoa zahagietan ezarria beitugu, orai uraren emaitera goazi. — Zer ? arnoari ur eman ? Holakorik ez. Phazkuak eginik heldu nuk, eta aphezak erran zautak arnoari uraren emaitea ez dela haizu, eta hitzemana zakoat ezdudala gehiago eginen. Emazue zahagietan lehenik ura, eta gero gainera arnoa, hori ez dela haizu ez beitaut erran.

61.-62 orrialdeetan ipuin labur irrigarri batzuk datoz jasota: “Zorduna eta hartzeduna”, “Ezkontza baten haustea”, “Ohoina artean”.


70 eta 73. orrialdeetan ere jasotzen dira beste kontakizun irrigarri batzuk: “Zer egin behar den handiegi denean”, “Monthlery-ko erretoraren khantua”, “Hala othe da?”, “Aphezaren mutila”.



HALA OTHE DA ?

Gizon bat buru haundikoa dela zertarik ageri da ? Gehienetan mintzatzeko moldetik. — Eta emazteak kasko haundia duela noiz erakasten du ? — Ichilik egoiten dakienean.

80. orrialdean ,berriz, “Haur gichakoa”, “Bitchikeria” eta “Marinela” datoz.




MARINELA

Itsasoaren ikhustera Miarritzerat juana zen eskualdun batek buru emaiten du mariñel zahar batekin. Agur eta bai zuri ere, eskualduna han dago itsasoaren orroak harritua. Mariñela aldiz inriz. — Zu ez beitzitu itsasoak izitzen ? — Ni ezden gutienik ere. — Oaino ere horrat juan gogo duzu ? — Bihar berean. — Etzia itho beldur ? — Zertako ? — Aita nun hil zauntzun? — Itsasoan. — Aitacho ? — Itsasoan. — Aitaren aita ? — Hura ere itsasoan. — Eta halarik ere itsasorat juan nahi zirela ?

Zuri aita nun hil zautzu ? — Ohean. — Aitacho ? — Ohean. — Aitaren aita ? — Hura ere ohean. — Eta halarik ere oherat juaiten zirela ?

88. orrialdean, berriz, "Adina" daukagu:




ADINA

Amerikano aberats bati norbeitek galdatu zankon zer adin zuen. — Berrogoi etarik eta berrogoi eta hamar urthe arte hura. — Zer ? urthen khondua ez duzu hobeki atchikitzen ? — Zertako ? Nik kondatzen ditut ene diruak, ene etcheak, ene behiak, ene ardiak. horiek gal diazkeenak beitira, bainan urtheak ? badakit ez khondaturik ere, horiek nehok ez daiztala eremanen.

***Gure Almanaka*, 1930**: 76. orrialdean "Bientzat abantail" kontakizun laburra dator, engainu bidez ezeren truke jan eta edan nahi duen jaunaren kontakizuna. 80. orrialdeko "Untsa jujatua" kontakizunean, tratulant baten eta saltzale baten arteko ikamika nola konpontzen den kontatzen da, jujeak pagatzeko eguna ezartzen duenean.

88. orrialdean, "Bitchikeriak" atalean, bederatzi kontakizun datoz: "Galtzak galdu", "Errege eta langile", "Senhar emazteak", "Juanano Khechu", "Uste gabetarik hatzemana", "Bakotchak bere lan", "Bisionesta eta paganoa", "Arroltze kharioak", "Ama alabak".

***Gure Almanaka*, 1933:** "Irri-solasak" izenburupean agertzen zaizkigu hainbat ateraldi labur, 24. orrialdetik hasi eta 73.-a bitartean. 76 orrialdean "Ongi hatchemana" irri ixtorioa kontatzen da: gizon batek beste bat trufatu nahi eta esaten dio saskia etxera eramaten badio hiru egia esango dizkiola trukean. Azkenean, ustez argia zena galtzaile ateratzen da, eta trufatua irabazle.



ONGI HATCHEMANA

Ez nuke juramentu egin nahi ichtorio hau egia dela.

Gizon batek bertzen trufan beizik onik.

Egun batez ercsi zuen saski bat bachera eta ondo hetan zen muthiko bati erran zion : « Sosik ez diat, bainan saski hau etcherat juaiten baduk, saritzat erranen dezteat hiru egia.

— « Onhartzen dut, abia giter. ». Eta muthikoak bizkarrian emaiten du saskia :

Emazu lehen egia. »

— « Nork ere erranen baitauk hobe dela gosez amikatua izaitia ongi asia baino, harek gezurra erranen dauk ».

Bide puchka bat egiten dute.

— Emazu bigarren egia. »

— « Nork ere erranen baitauk hobe dela oinez eta kargatua ibiltzea, hutsik eta zaldiz bano harek gezurra erranen dauk.

Etchiari hurbilduchiak ziren.

— Emazu hirugarren egia. »

— Nork ere erranen baitauk, izan ditakela iguzkiaren azpian hi baino muthiko zozoagorik, harek gezurra erranen dauk. »


Gure muthikoak egiten ditu hiru urhats oraino eta gero, blau ! lurrerat uzten du bere saski bachera erranez.

« Nork ere erranen baitauzu badela puska bat osorik saski horren barnian, harek gezurra erranen dautzu. »

Ichtorioak ez dauku ernaiten zer gisaz chuchendu zuten makurra.

87. orrialdean “Hiru medikuak” izenburuarekin ere badugu beste kontakizun irrigarri bat. Eta 93. eta 102. orrialdeetan beste bina ateraldi datoz “Irri-solasak” izenburuarekin. Aipagarriak dira era berean, 95 eta 100. orrialdeetan Jean Elissalde “Zerbitzari” azkaindarrak bildutako Arto xuritzetako istorio ederrak, “Artho Churitzetan” izenburuarekin.

1934ko *Gure Almanaka*n, 39 eta 40. orrialdeetan “Haur elhe” izenburupean, hainbat zirto labur agertzen dira: “Segretua”, “Neskatoaren arrapostua”,”Neskato bati”, “Hobe seurki”, “Alaba sorjesa”, “Zangoak galdu”, “Plomuaren kentzeko”, “Enperadorea heldu da”, “Oilo hoberenak”, “Hiru egun bakantza”, “Odol hotza”, “Kasu eginez...”, “Bihotz ona”, “Uste nuke”.



HIRU EGUN BAKANTZA


Jaun errienta ari da ezin konprendiaraziz zer den uste gabeko heriotzea...

— « Bidian banoha gosturik hoberenian, otomobil batek lehertzen nu, zer litake makur hori enetzat ?

Haur batek berehala.

— Guretzat segurik hiru egun bakantza. »

53. orrialdean “Irri solasak” izenburupean, 7 txiste eta ixtorio irrigarri labur datoz bizitasun handiarekin kontatuak: “Pellokeria”, “Haur minbera”, “Oraino bizi”, “Gezurtiari gezurra”, “Omen ona”, “Eritegian” eta “Ihizin”. Hona hemen horietako lehena:



PELLOKERIA

Uztaritzen bazen muthil gothor bat Pello deitzen zena. Etzen segurki gaichtoa, bainan pelloskoa. Orori to erraten zuen : aitari bezala amari, bere adinekoeri bezala nor-nahiri. Behin mandatuz igorri zuten jaun bikarioaren ganat, ongi buruan sarturik zu eranez polliki mintzatuko zela aphezaren etchean, bai jauna eta ez jauna galdeeri ihardetsiz. — Ez duk ahantziko, Pello ? — Egundaino deusik ahantzi othe diat nik, ama ?

Aphezak, ikusi zueneko : — To, gaizo Pello ? — Bai, jauna eta ez jauna. — Noik igorri hau hunat ? — Bai, jauna eta ez jauna. — Bainan zertako ihardesten duk bethi: Bai, jauna eta ez jauna? — Aitak erran baitzeitak hiri bethi hala ihardesteko...


Aurreraxeago, berriz dator "Irri solasak" izenburudun beste atal bat, aurrekoak bezalako beste 7 txiste eta ixtorio irrigarrirekin: "Bethi etchean", "Ohoinak eta kaputchinoa", "Arras tut", "Kofesioa", "Bakharrik", "Zikoitza", "Ehortzeta". Hona hemen horietako laburrena:



ZIKOITZA

Ostatuan Pellok bi soseko bat eortzerat utzi, eta nehun ezin atcheman. Azkenean erraiten dio ostalerari : — Atchemaiten baduzu, bertze egun batez itzuliko dautazu ; ez baduzu atchemaiten, zuretzat...

Jarraian "Orotarik"atalean, izenburuak ondo dioen moduan ixtorio eta ateraldi irrigarriak, bestelako idea labur batzuekin tartekatzen dira. Guri lehen multzo horietakoak interesatzen zaizkigu lan honetan: "Atheraldi pollita", "Gureak gure", "Makeako arbi burua", "Idi bat hegaldatua!", "Gezurra zilhegi?" eta "Zaude deskantsuan, etchek'anderia". Azken hau ekarriko dut hona:



ZAUDE DESKANTSUAN.

ETCHEK'ANDERIA


Ameriketan, alcola eta edari azkar guzien kentzerat zohatzin. Ostatu bateko etchek'anderea harritua zagon eta erran zuen bere boketa latsaleari.

— « Ez dakit nola behar dugun bizi sekulan legea iragaiten bada, ostatua hetsi beharko dugu.

Bokheta latsaleak bihotz ona zuen eta eman zion arrapostua.

« Ez izi, etchek'anderia ! Zure senbarrak hesten badu ostatua, enea ez da mozkortzen ahalko eta laster aberastuko gira. Orduan zu jinen zira gure boketaren latsatzerat.

"Haur elhe" izenburupean datoz berriz beste zenbait ateraldi, bestelakoekin tartekatuta: "Oro klikatu", "Arrapostu char bat", "Pittikaren zangoak", "Non da tontoa", "Arroltzen ez hausteko", "Apetitua galdu". Horietako bat dakart adibide modura:



ARROLTZEN EZ HAUSTEKO

Arrosatik Baigorrirako treina badoha uliaren urhatsian...

— « Zer mirakuilu du trein hunek egun? dio emazteki batek. »

Eta beste batek berehala.

— « Oh ! ez da sorginik ez, mekanizierari emanak dazkot sei arroltze present abiatzian ! »

96. orrialdean "Irri solasak" atal berria dator beste zazpi ateraldi edo ixtorio irrigarrirekin: "Atsegina", "Gurutzea irabazi!", "Baratzean", "Zer janen?", "Urtheberriz", "Bazkariz", "Itzala".


Jarraiko orrialdetan izenbururik gabe ateraldi laburrak tartekatzen dira: "Kokodriloak", trena beti atzeratu egiten dela adierazteko ateraldi bat eta "Astakilloren hitza" eta "Irri-solasak".



ITZALA

Muthil gazte beldurti bat Donibanetik Azkainerat zoan ilhargi churitan, ikara gorrian zer agertu behar zitzaion. Azkaingo eliza aintzinean bizpahirur lagunek gelditzen dute.

— Zer duk ?
— Deusik.
— Zerbeit ba : kopeta dena izerditan duk ?...
— Zubiburun debrua agertu zaut !
— Debrua ? Ba othe ?
— Ba : itzal handi bat egiten zuen !
— Zeren itzala ?
— Asto handi baten itzala !
— Gaizoa ! Hire itzala ikusi duk....




ASTAKILLOREN HITZA

Astakilloren emazteak termometra bat nahi zuen erosi, eta bethi kasaila gorria zuten, gizonak etzuela holakorik behar, andreak gauza behar-beharrekoa zela. Azkenean amor eman zuen Artakillok eta erran zion bere andreari :

— Ontsa dun, erosiko diagun, bainan orai biziki gora omen ditun tresna horiek; heldu den neguan-ikusiko diagun ; hotzarekin jausten omen ditun.

***Gure Almanaka*, 1935:** 33. orrialdean, "Orotarik" izenburupean kontakizun batzuk datoz, baina denak irrigarriak direnik ezin esan. Horietako batzuk, ordea, halaxe iruditzen zaizkigu. "Mirakuilu solas" izenekoa, adibidez, gure bilduman jasota daukagu, informante baten ahotik **(17.) E13-08 Bost mila ogi**. Irrigarrien multzoan sartuko nuke, era berean, adibidez,"Ez sobera egin ustegabetarik!" kontakizun laburra. Kontakizun irrigarritzat ezin dezakegu jo adibidez, "Zerbeit eskas" ipuin laburra, amaiera moraleja moduko bat ematen baitu.




ESKER MILA!

Patarrari goiti badoha muthiko bat karga baten azpian ukurtua...

Jaun batek laguntzen du eta gero erraiten dio.

« Bihotza nun du zure nagusiak zuri holako kargaren juan-arazteko ?

— Ori, Jauna, ez da egia bezalakorik ! Nagusiak errana zautan zozo zonbeit kausituko nuela bidean ene laguntzeko. »



ZERBEIT ESKAS.


Lehengo denboretan bazen errege bat onthasunez eta ohorez gainditua eta bethi trichtezian hondatua. Zer egin bada alegeratzeko eta uros izaiteko ? Mediku handi batek erran zion etzuela harentzat sendagailu bat beizik kausitzen : jauntzi behar zuela gizon urus baten athorra ! ! !

Eskualde guzietarat abiatzen dira erregearen muthilak, gizon urusaren ondotik... Bainan denak arrangura ; batek sosa eskas, bestiak osagarria... orotan zerbeit eskas.

Azkenian kausitzen dute laborari bat lorietan, choria bezein alegera goraki aithortzen duela munduan etzela hura bezelako gizon urusik...

Hatsa hartzen dute erregearen muthilek, bainan trichterik ohartzen dira laborari harek ere gauza bat baduela eskas... *soineko athorra !*

49 eta 50.orrialdeetan "Haur elhe" izenburupean datozen ateraldi laburrak ere irrigarriak dira.: "Jujeak gaichtaginari", "Eriak medikuari", "Bero handietan", "Jendetasuna", "Arrapostu presta", "Makurrik aski!", "Adina falta", "Chehetasunak emanez!...", "Biga baten orde", "Eritasun bitchia", "Chardina jaleak", "Zaldi ferratzailea…zapetain?", "Errechimeta maite…", "Tonto bat ederra", "Zaldi baliosa", "Esker mila!" (gure bildumako **"Asto anitz" (E39-02)** ateraldiaren antzekoa), "Auzitegian", "Tenoraz kestione", "Untsa mintzatuz", "Gaizo tokilua!", "Buhamiaren kopeta!", "Hitzari ohore!".




HITZARI OHORE!

« Etzaitut aste huntan ere pagatzen ahal ?

— Jadanik ere errana dautazu gauza hori !

— Ikusten duzu beraz ene hitza atchikitzen dutala. »

Ondoko orrietan badira beste txiste labur batzuk: "Nun?", "Ostatuan", "Irri solasak".




OSTATUAN

— Ez dut begirik hetsi : gambara hortan arratoinak lasterkatik ez dire gelditzen !...

— Hamar liberetan ez dezakegu bizkitartean guk zezen lasterrik eginaraz gambaran !

115. orrialdetik badira beste ateraldi irrigarri batzuk, bestelakoekin nahastuta: "Orotarat lanak!", "Zertako".



OROTARAT LANAK!


« Kontent hiza, hire etche berriaz, barneak gustatzen zauzkina ?

— Ez sobera ez, murruak hertchizko eta beldur nun gure solasak ez othe diren nabaitzen auzoen barnetan.

— Ezarkin aihal peza batzu, azkarki ezeztatuko dine harrobotsa !

— Bainan orduan, guk ez duen aditzen ahalko bertzen solasik. »

Gure Almanaka, **1936:** 43. orrialdean "Orotarik"izenburu orokorraren pean badira zenbait ateraldi irrigarri: "Jakin behar baitzen" izenburuduna, "Etzen ainhitz denbora", "Ederki hatchemana". "Han-hemenka"atalaren barruan ere, "Beharraren falta!" eta "Zozoen herronkan" kontakizun irrigarriak dauzkagu.



BEHARRENA FALTA!

Hendajako ur handian arrantzaran da *kosepo* landia, bere untzi tcharrean.

Jaunchkila bat iragana zankon ondorat eta han dena sino eta elhe ments ari zako gizon ergela.

« *Kosepo* ikasi duzu filosofia ? » — « Filosofia, ze demonio da ihizi ori ? ez naiz ortan arittu. » — « Ah ! Kosepo, orduan galdu duzu biziaren erdia.


— Ikasi duzu bederen trigonometria ?

— Are gutiago, Ghauna, ez naiz ari cartu !

— Kosepo, galdu duzu biziaren lauetarik hirua. »

Bainan jakintsunaren erlasturia ichildu zen, haize kalerna bat altchaturik...

Untzia ichkultzerat doha, igerika eman beharko dira.



ZOZOEN HERRONKAN.

Errege batek bazuen soldado aitzindari bat debruz egina abila; etzen aitzindari hura bezelakorik jenden ezagutzeko. Erregeak galdegin zion lerroka zazkon erresumako zozo guzien izenak.

Biharamunean heldu zako galdegin paperra eskuan eta erregeak irakurtzen du bere izena lehen lerroan emana...

« Oraikoan zureak egin du, hau soberakina da ! zendako ezarri nuzu zozoen herronkan ?


— Juanden astean egin duzun haurkeria baten gatik. Ezagutzen etzinituen makiñun zanpail batzu igorri dituzu, diruz hanpaturik, zaldi erosterat, kanpo erresuma baterat. Erran gabe doha, ez direla sekulan gibelerat itzuliko.

« Uste duzu ? eta gibelerat itzultzen badira ?

— Orduan, zure izena ken-eta, hejen izena ezarriko dut paperrian ! »

58. orrialdean hainbat ateraldi irrigarri dauzkagu, "Haur elhe" izenburupean: "Ura kalte!", "Achuentak soldadoari", "Berriz ez has!", "Soldado gardatsa", "Ongi altchatua".

71. orrialdean "Orotarik" atalean, "Arrazoinik aski!", "Asto beharretan!", "Bertzari aiher", "Giltza faltsuekin", "Iratzar norapeit!".



IRATZAR NORAPEIT!

Predeikari bat ari da oihu eta oihu sekulako kartsutasunian. Ikusten du han nunbeit aditzaile bat, galeria muttur batean, lo-churrungan dagola, bere besoez ohantzia eginik hein bat deskantchuan.


Odolak jauzi egiten dio gure predeikariari Haren iratzar-arazteko oihu bat egiten du gaitza eta predeiku alkiari ukaldi bat emaiten.

« Aitzina, aitzina ! » dio ihardesten kasik lotarik gure gizonak eta gero begiak thorratu..

— Nor debru da hor helaka ari, holako panpetan ? »

Bazuten aski ondoko lagunek !

92. eta 93 orrialdeetako "Haur elhe" atalean, mota bereko ateraldi irrigarri batzuk datozkigu: "Bere buruaren garbitzeko", "Bihotz eria", "Halere!", "Urrunago joan gabe", "Bitzi edo zozo", "Nolazpeit ezagun".



BIHOTZ ERIA.


Abenats okitu baten ehortz' egunean gizon bat nigar hipaka ari da, ezin ichilduzko heinian.

« Urrikaldurik, hurbiltzen zako beste gizon bat erranez.

— Ba, zer nahi duzu, cohakabia, guziak hortako eginak gira. Dudarik ez da, hilaren ahaide hurbila zirela ?


— Ez, eiki, a... a.. ahaide urruna ere Ho... hortako egiten dut bada nigar ! »

Azkenik, 137 eta 139 orrialdeko bitarteko Berrichkak atalean ere badira beste ateraldi irrigarri batzuk: "Zoin ichilduko den...", "Burutik mainku..." (honek 1935eko "Hitzari ohore" ateraldiaren gai bera du), "Biak bat?".



ZOIN ICHILDUKO DEN...

« Hizan bezalako etche jalia, auher tunante, es deusa.



Seurki hi bezelakoa baino hobe litakek gabia, erranago eta gibelago, jin doja garbi etche mozkin guziak, denian bun-bun, ez denian tun-tun, aspaldian peko-erreka joa ginikean, ni ez banintz... »

Bet-betan erasiatik ichiltzen da emaztekia ikusiz senharrak ez dakola arraposturik emaiten eta geldi geldia muntrari so dagola.


« Zer duk hor muntrari so ? ez ahal duk hautsi bederen ?

— Ez ez, seurki ari dun, ez dun makurtia, Bakarrik so nindagonan, ikusteko zein geldituko zinezten lehenik. »

***Gure Almanaka*, 1937:** 40. orrialdean "Hitza hitz" kontakizun irrigarria datorkigu. Eta 50. eta 59 orrialdeetan, "Irri solasak" ateraldiak ditugu.

113. orrialdean "Kafe ona maite" eta "Gizona ichilago" kontakizun irrigarriak datoz.

Azkenik, 115. eta 116. orrialdeetako "Han-hemenka" atalean ere ateraldi irrigarri batzuk daude: "Elgaz adituz", "Zozo kondatzen", "Mandil solas", "Toki salbaietan", "Ez da bardin".



ELGAR ADITUZ...


Louichak badu malestruka airetto bat. Bachera hausteko seurki bat balio du. Azkenian erraiten dio eichek'anderiak.

« Ori, Louicha, jadanik zure hilabethe saria igorria duzu bacheretan beretan. Zer behar duga egin ? »

Eta besteak arrapostua.

« Hilabethe saria emendatu. »

***Gure Almanaka*, 1939:** 67. orrialdeko "Bitchikeriak" atalean, zenbait ateraldi irrigarri jasotzen dira: "Zahartzeak deus onik ez", "Adina gorde nahi", "Asto ttipia", "Emaztea samur".




ZAHARTZEAK DEUS ONIK

— Zer diozu, Cadet?

— Zer nahi duzu erran dezadan? Errematisma demonio horrek errausten nuela, Piarres.

— Zer nahi duzu, zahartzeak ez du deus onik.

— Zahartzeak! Zahartzeak! Hori ere erran bat da, eta gezurra. Zango ezkerra eskuina bezen zaharra dut, eta ezker hortarik ez dut batere sofritzen.



EMAZTEA SAMUR

— Emazteak erran dautak lekhua hustuko duela.


— Ehaizela izit, gizona, emaztek ez die sekulan erraiten dutena egiten.

— Hortakotz nuk, ba, ni khechu.

107. eta 111. orrialdetako "Bitchikeriak" atalean ere, bina kontakizun irrigarri datoz izenbururik gabe. "Haur elhe" atala ere badu aurrerago, 3 kontakizun irrigarrirekin. Hona hemen horietako bat:

«Mozkor famatu bat eri gaizki zen. Elizakoak eman ondoan, aphezak erran zakon: Piarres! Orai Jainkoarekin bakean beitzira, duzketzun beste etsaiekin ere behar zira baketu. –Ba, jauna ba, ekhartzu beraz baso bat ur».

"Abokata" kontakizuna dator aurrerago, "Bitchikeriak" izenburupean. Eta azkenik, 121. orrialdean "Zozo elhe" izenburua daramana:



ZOZO ELHE

Hor numbait mendiko etche batean bazuten seme bat hazkar bezain buru gogorkoa. Nor nahiri *hi*-ka hari zen beti. Ez aitari, ez amari, are gutigo kampotiar zenbeiti, etzezoketen behin ere *zu* erranaraz.

Behin jaun erretoraren ganat oilasko pare baten heltzerat igorri behar eta, bere aitak erran zakon:

— Adizak Pello, etzakala gero zozokeriarik egin. Aphezari ez eta haren arrebari ez duk sekula *hi* erran behar. Jaun erretora ikustearekin, « ez jauna eta ba jauna » erranen diok. Haren arreba agertzen bazauk aldiz « ez andrea eta bai andrea ». Aphezari «ez jauna eta bai jauna », aphezaren arrebari « ez andrea eta bai andrea ». Ez ahal zauk ahantziko.

— Eni ahantzi behin aditu gauza!...

Huna gure Pello jaun erretoraren etchean: aphezaren arreba agertzen zako eta Jainkoak dizuela egun on erraiteko astirik hartu ere gabe « ez andrea eta bai andrea » derasa.

— Zer nahi duk Pello?

— Ez andrea eta bai andrea.

— Arrunt zoratzen haiz ala zer duk ?

— Ez andrea eta bai andrea.

Geroago eta harrituago bere anaia deitzen du emazteak. Jaun erretorak Pellori:

— Zer nahi huen Pello?

— Ez jauna eta bai jauna.

— Haurra burua galtzen duka?

— Ez jauna eta bai jauna.

— Nork igorri hau ni gana?


— Ez jauna eta bai jauna.

— Alo, alo, Pello, adizak zer diotan : Zertako ari haiz, batean andrea eta andrea, bertzean: jauna eta jauna.


— Aitak manatu zautak *hiri* hola erraiteko.

***Gure Almanaka*, 1946**: 45 eta 46. orrialdeetako "Irri solas" atalean hamaika txiste labur daude. Txiste horietako askotan jende multzoen karikaturizazioa egiten da. Adibidez: emazteak berritsuak direla, ez dutela

beren adina zein den esan nahi. Gizonak astoak direla baina langileak aldi berean. Senar-emazteak bere ika-mikan dabiltzala. Zenbait txiste irakurtzea besterik ez dago agertzen diguten ikuspegia zein den ohartzeko.



— *Kalichtro, haurra hasi zauku elheketa!*
— *Ba othe?*
— *Ba, ba. Doidoia leihotik asto bat ikusi du eta...*
— *Zer erran du?*
— *Aita! Aita!*



— *Hor gaindi dabiltzan gizon eta emazte horieH ezkonduak othe dira bederen?*
— *Ba, hala dira, Mañaña.*
— *Nundik edo nola dakizu?*
— *Hainitz aldiz ikusi ditut mokoka ari!...*

— *Haurra, emazte batek egunean bi galtzerdi egiten baditu, biek zer eginen dute bi egunez?*
— *Elhe frango, jauna...*

Gure Herria aldizkarian, Mayi Ariztiak, *Amattoren Uzta* izenburupean, bere inguruan bildutako kontakizunak jaso eta 1932an argitaratzen hasi zen. Kontakizun horietako askok aldizkarietan jarraitzen dute, liburura ekarri gabe, eta liburu formatoan horien antologia bat besterik ez da argitaratu[14]. Horietako asko ipuin miresgarriak dira, eta Proppek definitutako funtzioak biltzen dituzte. Gertakari magikoak agertzen dira, erregeak, probak, ezkontzak…

Baina 1937ko alean "Haur ichtorio"izenburupean, hainbat konfesio ixtorio irrigarri jasotzen ditu eta egiazkoak direla dio. Badira, era berean, errealisten atalean sailkatuko genituzkeen batzuk: gure bilduman **(48.) E1-02 Sosdun tronpatua** izenarekin jaso dugunaren parekoa da, adibidez, 1933ko azaroan argitaratutako "Arttoren ichtorioa" (*Gure herria* 1933, 486:490). 1958ko urrian argitaratutako "Jaun Andre eta Zapatai baten ichtorioa" ere ergel-argiei buruzkoen atalean sartuko nuke.

[14] ARIZTIA, Mayi (1982): *Amattoren uzta (La moisson de Grand' mère)*, Baiona, Elkar.

Jean Baptiste Darricarrerek ere RIEV aldizkarian 1907an ipuin bat argiratu zuen nagusi eta mutilen arteko gorabeherak dakartzana eta guk ergel-argiei buruzkoen atalean sartuko genukeena.

Euskal Esnalea aldizkarian ere aurki ditzakegu zenbait ateraldi irrigarri. Hor ditugu adibidez, Martin Lanaderrechek (1911:125) argitaratutako "Ez da moko hetsitan ulirik sartzen" edota "¡Elkar ezin adituz!".

Jon Mirandek berak ere jaso zituen zenbait txiste idatziz, umore beltzaren adierazgarri. Jon Miranderen mundu ikuskera "heterodoxotzat" jo izan da. Badakigu Mirandek orduan nagusi ziren arau moralekin hausten duen mundu ikuskera aurkezten duela euskal literaturan. Bere obra osoetan jasota dagoen "Liburu lizunetaz" izenburuko idazkitxoan (1999 [1951-1963]) bere usteez idazten du:

> «Khristarr zintzo batentzat, hitz dorpheen erabiltzea eta idazki pornographikoen irakurtzea bekhatu andi dela ba laiteke...Bekhatua, ordea, hizkuntza batetan edo bertzetan egonik ere, berdin handi da nik dakidanez. Zergatik ez dugu beraz geure hizkuntzan eginen, gure arimari kalterik gehiago eragiten ez zaiolarikan?" (...) "Gure orainko idazkuntza gehiena hain idor ba da, ez da beraz arrigarri. Euskal idazleak Mariaren Alhabentzat baizik ez lukeela idatzi beharr ba dirudi...Gure lehen auktorak ez ziran hain herabe, eta Biziaren egia gordinak ere azaltzen zituten, beharr-orduan; baina egungoak, aphezak baino aphezago izan nahi dute!».

J.B Coyos-ek *Gure Herria* aldizkaritik liburuan bildu ditu berriki umorezko kontakizun batzuk (2013). Kontakizun horiek, oso luzeak dira eta zenbait kasutan, azpiatalak ere badituela ikus dezakegu. Horien gaia komikoa izan daiteke, baina bere luzetasunean komikotasuna apaltzen da. Baten bat aipatzearren "Narrazioak" atalean sartuta dagoen "Maskaradak" izenburudunak, adibidez, hainbat azpiatal ditu, eta ez du lortzen gure kontakizunetan deskribatuko dugun efektu irri-eragilerik.

3.2.2. WEBSTER-EN IXTORIOEN BESTE ESKUIZKRIBU BAT

2005ean Parisetik Baionako liburutegira Websterren beste eskuizkribu bat ekarri zuten, enkantean erosi eta gero, antza denez O. Balleriaux-en liburutegian gorde zena ordura arte[15]. Natalia Zaikak horren berri ematen du bere tesian (2014:212-228):

[15] 22 -[BASQUE (Pays) / MANUSCRIT]. Contes populaires basques recueillis de 1874 à 1877 principalement par W[entworth] Webster à St Jean de Luz, Sare, St Pée, Ainhoa, &c. Bayonne,

> «Le manuscrit de Vinson nous donne de nouvelles pistes pour la compréhension de celui de Webster (…) Il est probable que Vinson traduisait les textes pour son ouvrage *Le Folk-lore du Pays Basque* en 1883 à partir du manuscrit MS720 de la Bibliothèque municipale de Bayonne. Les contes de Webster que l'on peut trouver dans le livre de Vinson sont légèrement modifiés».

Jabier Kalzakorta ikerlaria konturatu zen Baionan aurretik zegoen eskuizkribua baino argiagoa izanik, irri kontakizuntzat jo ditzakegun ale batzuk bazirela bertan, Xipri Alberbideren edizioan jasota ez zeudenak (1992). Eskuizkribuan zenbaki hauek daramatzate: *XX Apheza eta andrea*, *XXI Emazteak* eta *LXXXVIII. Nausia eta mutila*, hain zuzen. Irri kontakizun horietako lehen biek gai gordin edo berdeak dei ditzakegunak dituzte.

Horiez gain, Xipri Arbelbidek Websterren kontakizunez egindako edizioan (1992) jasota ez zeuden beste bi ipuin ere badira, miresgarrien atalean sartuko genituzkeenak.[16]: *XXII. Maria kirikittun*, *XXXII. Arbola kantaria chori egi-errallea eta ur gaztetzen duena*.

Irri kontakizun horien argumentua horrela laburbildu ditzakegu: "**Apheza eta andrea**" izenburua daraman irri kontakizunean herri bateko apeza bi emazterekin ibiltzen zen. Horietako baten gizonak ordu luzeak igarotzen zituen gauez komisioneak egiten. Gau batez apeza joaten da andrearen ohera, eta ilunpetan biluzten da. Ohera sartzera doala ukitzen du ohea eta ohartzen da senarra gau hartan ez zela oraindik joana. Orduan izutu eta ohe azpian sartzen da apeza. Emaztea ez zegoen lo eta senarra iratzartzen du, lo hartu zuela esateko. Senarrak jaikitzean alforjak jarri ohi zituen, baina ilunpetan nahastu eta apezaren galtzak jartzen ditu. Senarra partitzean apezak emaztearekin pasatzen du gaua. Goizean jaikitzean ohartzen dira galtzak faltan dituela eta etxera alde egiten du galtzik gabe ezkutuan. Emaztea bere senarraren beldurrez geratzen da, lehendik bazuen eta susmoa apezarekin ote zebilen. Orduan, bururatzen

---

1876-1878. In-8° carré, demi-chagrin vert à coins, dos à nerfs (reliure fin XIXe s.). -Manuscrit de 284 feuillets utilisés au recto seulement. -De la bibliothèque d'O. Balleriaux, avec ex-libris. -Dos passé ; quelques rares rousseurs.
Baionako liburutegian, Ms 720 identifikazioa du. Lehendik zegoen eskuizkribuak, berriz, 88 zenbakia zeraman. Eranskinetan horien kopiak jarri ditugu.

[16] XXXII. "Arbola kantaria chori egi-errallea eta ur gaztetzen duena". Kontakizuna ingelesez argitaratu zen ingelesezko edizioan (1877), "The Singing Tree, the Bird which tells the Truth, and the Water which makes Young" izenburuarekin.

zaio apezaren etxera joan eta peza bereko beste galtza batzuk eskatzea. Bitartean, eguna argitzean senarra ohartzen da alforjak ordez apezaren galtzak dituela soinean. Koleran jartzen da eta itzuli, baina bidean datorrela auzoko andre bat ikusten du apezaren peza bereko galtzekin. Andre honek azaltzen dio senarrak daramatzan galtzak emaztearenak dituela eta berak ere badituela beste batzuk peza berekoak. Biek elkarrekin erosiak. Senar engainatua pozik geratzen da. Handik aurrera, apeza kontuz ibiltzen zen emaztearen ohera joan eta galtzak kentzeko orduan[17].

Stith Thompsonen sailkapenean (1986) K1273 edo K1526 zenbakia daramaten motiboekin (Friar´s trousers on adulteress´s bed) zenbait puntutan bat dator kontakizun hori. Europan zabalpen handikoa da kontakizun hori, autore desberdinen lanetan jasota baitago, gaiaren komikotasunagatik beharbada erraz zabaldu zelako.

Bildutako ipuin honen baliokide batzuk aipatzearren, berrienetik zaharrera aipatuz, 1993an Murtzian, Espainian Hernández Fernández-ek (2006a) bildutakoa: "Los años bisiestos" izenburuarekin argitaratu zen *Revista de folklore*-n. Ipuin hori bera, XIX. mendean, Felix María de Samaniegok jaso zuen bertsoz (2004), baina Donald McGrady-k artikulu batean (1981) frogatzen duenez, italian baditu aurrekariak hitz-lauz.

XVIII. mendeko gaztelaniazko itsu-paper batzuetan ere bertsoz jasota dago ipuin hori (Caro Baroja, 1996) baina oraingoan senartzat ikazkina duen emakumeak bizargin batekin egiten dion engainua azaltzen du.[18] Cara Barojak aipamen hauek egiten ditu erromantze horri buruz (1990: 178):

> «Antifeminista es la relación vieja sobre "los calzones y las alforjas. Discreto, gracioso y divertido romance que sucedió el día dos de Enero de este presente año (1742) a un Carbonero, que le dieron un par de calzones, pensando darle sus propias alforjas, y como una vieja con sus industrias raras engañó de tal manera al Carbonero, que aún la dio la mitad del dinero que sacó del carbón».

Eta ezusteko gaien atalean biltzen du. Kasu honetan, Valentzian kokatzen da gertakaria.

Lehen aipatu dugu *Facetiarum liber* izenburuarekin, 1438 eta 1452 bitartean Poggio Guccio Bracciolini-k egindako liburuan (2001 [1438-1452]) ere badatorrela. 273

[17] Testuaren transkripzioa amaierako eranskinetan gehitu dugu.
[18] Jatorrizko testua Jabier Kalzakortari zor diot, Madrileko liburutegi historikoan aurkitu baitzuen eta handik ekarri. Bukaerako eranskinean gehitu dut.

ixtorio txiki biltzen dira liburu horretan, labur-laburrak, asko antiklerikalak, emakumeen kontrakoak, eta adulterio gaiak aipatzen dituztenak. Kontakizun horietatik 232 zenbakidunak parekotasun handiena Samaniegok bildutako bertsioarekin du, oraingoan Italian kokatua. Horretan, frantzikotar batek eta emakume batek elkarrekin hitzartzen dute beren enkontrua gertatuko den modua eta lekua: emakumeak gaixo dagoela eta bere aitorlearekin bakarka egoteko aukera eskatzen du, alegia fraidearekin. Elkarrekin oheratu eta galtzak ahazten ditu fraideak. Engainua konpontzeko fraideen komentutik San Frantziskoren galtzak direla asmatuko dute.

XIV. mendeko Giovanni Boccaccio-ren *Decameron* liburuan (zehazki, 5. eguneko, II. narrazioan) antzeko ipuin bat aurkitzen dugu. Garaiko zenbait ipuin bilduma bezala, markodun kontaketaz osatuta dago, eta istorio nagusi baten barnean beste batzuetarako aurkezpena egiten da. Kontakizun honetan mojen komentu batean kokatzen da istorioa, eta engainu estali bikoitza ematen da: komikotasuna areagotzeko moja xoil bat zigortu nahi zuen moja-nagusiak, gauerdian arrapaladan jaiki, eta bere kofia jarri beharrean buru gainean berarekin ohean zegoen apaizaren galtzak janzten baititu. Moja xoilari gizon batekin oheratzeagatik sekulakoak eta bi esaten ari zaion bitartean, bera berdin zebilela jakiten da.

Aipatu dugun Websterren gai "gordineko" bigarren kontakizunak ("**Emazteak**") argumentu hau du: herri batean baziren jaun-andre batzuk aski ongi zeudenak eta nahi zuten semea ezkonarazi. Baina semeak bazekien herri hartako neska gehienen berri, eta ez zuen konfidantzarik, eta berak nahi zuen inorekin ibili gabeko neskatxa bat. Mutilak dirua hartzen du eta beste herri batzuk ezagutzera joaten da. Han estxola batean ezagutzen du neska eder, guri eta zoragarri bat. Eta galdetzen dio ea nahi duen berarekin ezkondu. Neskatxak erantzuten dio ez dakiela zer den ezkontzea. Eta mutila loriatzen da, pentsatuz sekula inorekin ibili gabea behar duela. Prestatzen dute ezkontza. Eta ezkontza egunean iristen denean, neskatxa irrikitan zen ezkontzea zer zen jakiteko. Gonbidatuak joaten direnean, egiten dute "ezkondu". Eta neskak harriduraz dio hori egiten zuela igande guziz herriko sakristauarekin. Gizonak orduan haserre, bere buruari esaten dio ez dela inoiz gehiago emazteez fidatuko.

Badira beste hizkuntzetan ere nesken "lañotasun itxuraren" motiboak jasotzen dituzten kontakizun irrigarriak: J1737 motiboan maitale tuntunak ez ditu bere neskatxaren akatsak ikusten (Foolish lover ignorant of mistress´s flaws), izan daitezke

akats fisikoak, begi bat falta izatea adibidez, edo gure kasuan birjintasuna eta garbitasuna bilatzea emakume batengan, eta ustez aurkitu zuelakoan kukuak oker jotzea. Badu ere zerbait J1744 (Ignorance of marriage relations) eta J1745etik (Absurd ignorance of sex), neskak ez baitu jakingo zer den ezkontzea, edo ezjakinarena egingo baitu sexu kontuetan. K1315.7.1 motiboa ere agertzen da (Seduction by pretending to instruct (or to need instruction) in marital duties), gizonezkoak bere gain hartuko baitu ezkontzea zer den irakasteko lana. Felicia de las Casas-ek egindako edizioan dio "la Grulla" delako fabliauan ere (1994 [1159-1340]:257), azalpen behar horixe izan zen neska tentela erakartzeko modua.

Websterren bildumako **LXXXVIIII. Nausia eta mutila** irri kontakizunaren beste bertsio bat gure corpusean ahoz jasota daukagu eta bideoan grabatuta: gure sailkapenean **(62.) E22-04 Nagusia eta erbia** izenburua jarri diogu, Pierrot Erramouspek kontatutako ixtorioari, eta ixtorioa berdin-berdina da: ehiztari bat eta bere mutila ehizan ari dira, berengana zauritutako erbi bat iristen denean. Nagusiak harekin sekulako asealdia egitea pentsatzen du. Horretarako ezkutatu egiten du erbia, tiroa bota dioten ehiztariak heldu aurretik, eta halaxe esan mutilari: "—Ah! Manech zer erbi asea egin behar duguna, nik segurrik". Ehiztariak iristean eta erbia ikusi ote duten galdetzean, nagusiak ez duela ikusi esaten die. Mutilak, berriz, keinu batez non den ez dakiela adierazten die. Ehiztariek izugarrizko zaflaldia ematen diote orduan nausiari, eta mutilak orduan esan: "—Ah! Yauna, zer panpetakoak hartu tugunak, zuk segurrik!"

Websterren kontakizun horiek, Xipri Arbelbideren edizioan (1992) ez datoz jasota. "Emazteak" izenburuduna, Julien Vinsonen folklore liburuan (1983:98) frantsesera itzulita agertzen zen "Les femmes" izenburuarekin eta oraintsu Claude Seignolek egindako Frantziako ipuin bilduma batean ere (2003), "Qu'est que c'est se marrier?" izenburupean frantsesera itzulita argitaratu zen. Badira era berean, besteak beste, Websterren ipuinei buruzko azterketa berriagoak (Mercero, 2006), euskarazko bertsio horien berri ematen ez dutenak, beharbada, azken eskuizkribu horretara jo ez dutelako.

Euskarazko ipuinok irakurtzean, Frantziako Erdi Aroko fabliaux-etako kontaera barregarriak etortzen zaizkigu gogora; hauek ere ahozko tradiziokoak, nahiz eta XIII. eta XIV. mendeetakoak eta bertsozkoak izan. Bocaccioren *Decameron* ere mota honetako kontakizunez osatzen da, eta harrigarria iruditzen zaigu ipuinen gai eta

motibo batzuk zenbat eta zein garai desberdinetan errepikatzen diren frogatzea. Txomin Peillenek Zuberoan jasotako kontakizunetatik bat ere behintzat (1986:169) **"Azpia, azpi truk"**, Decameronean dator.

Ipuin miresgarriei dagokionez, **XXXI Maria Kirrikittun** delakoak kontatzen du amak alaba jotzen zuela, harik eta behin jaun gazte bat agertu eta harekin ezkondu nahi zuela esan zion arte. Baina horretarako proba bat gainditu behar zuen, zazpi atorra josi behar zituen, epe jakin baterako. Neska ezinean zen, ez baitzekien nola egin, harik eta amazte xahar bat laguntzera etortzen zaion arte. Harek josiko dizkiola, baina baldintza batekin: haren izena gogoan atxiki behar duela. Josten dizkio eta jauna oso pozik neska ederrarekin ezkontzen da. Baina neska gaztea beti triste zen, eta jaunak festa handiak ospatuta ere, ez zen alaitzen. Halako batean emazte xahar bat etortzen da galdezka zer dela eta horrelako besta handiak. Eta arrazoia jakiten duenean, berak dio: "Jakingo balu zer aditu dudan gaur irri egingo luke!". Ikusi duela emazte xahar bat saltoka eta "Maria Kirikittun nehor eztun orhoituko ene izenaz" oihukatzen. Orduan neska gaztea alegeratzen da oroitzen baitu andrearen izena eta andre xaharra errekonpentsatua da.

Ipuin miresgarri hau sinple xamarra da eta Proppek adierazitako funtzioetako zenbait antzematen ditugu bertan: ezkontza, laguntzaile bat izatea, errekonpentsa ematea…Amaiera ere zoriontsua du, hobekuntza prozesu batekin amaitzen da, ipuin miresgarriek ohi duten moduan.

Aipatu dugun Websterren bosgarren eta azken kontakizuna, berriz, ipuin luze bat da, jatorrizko eskuizkribuan eta ingelezko edizioan ere agertzen zena, baina euskaraz Xipri Alberbideren edizioan (1992) argitaratu ez zena. **XXXII. Arbola kantaria chori egi-errallea eta ur gaztetzen duena** izenburua darama eta bete-betean da ipuin miresgarria. Proppek adierazten dituen funtzio ezagunak argi eta garbi ikusten dira: etxetik alde egitea, objektu miresgarri bat (sagarra) edukitzea, zerbaiten falta, probak pasatu beharra...

Azken ipuin miresgarri hau aurrekoa baino konplexuagoa da, eta funtzio gehiago ematen dira bertan. Baina bai bata, bai bestea, molde berekoak direla ikus dezakegu, eta irri kontakizun errealistetatik bereizten dira, bai edukian eta bai forman.

3.2.3. LIBURUETAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IRRI KONTAKIZUN LABURRAK: FIKZIOA ETA ERREALITATEA AZTERGAI

Arretagune nagusia irri kontakizuna izango badugu ere, gure bilduman agertzen zaizkigun bestelako kontakizunen eta horien argitalpenen aurrekariak eta baliokideak aipatzea ere beharrezkoa da.

Juan Mari Lekuonak ahozko euskal literaturari buruzko liburuan (1982:239) euskal kontaera guztietatik, bi motatakoak gogoan hartuko dituela dio: folklore gaiak eta dibertigarri eta denbora-pasakoak diren kontaerak. Dibertigarri diren horiek bereiztea beti erraza ez dela dio: "Egia esan, herri kontaeretan gauza zaila da erabakitzen, zein den kontaera serioa eta zein entretenigarri alaia". Eta beren antropologi balioaz baino, beren literatur balioaz arretagarri diren kontakizunak aipatzen ditu. Batetik, kontaera horien iturri nagusiak, eta testuak biltzen eta argitaratzen saiatu diren laguntzaileen izenak: Barandiaran eta bere laguntzaileak, R.Mª de Azkue, Mayi Ariztia, Jean Barbier…

Ahozko irri kontakizunen baitan, fikziozko kontakizunak ala errealitateko gertakariak diren bereiztea zaila izaten da zenbaitetan. Juan Mari Lekuonak errealitatean oinarritutakoak "herri umorezko liburuak" deitzen ditu: "Herri-umorezko liburuak ditugu gogoan. Hauen protagonista hezur eta mamizko pertsonaia izaten da, eta bertsolaria gehienetan, noski".

Gregorio Muxikak argitara emandako Pernando Amezketarraren ateraldi eta gertaerak (1927), esaterako, errealitatearen planoan jarriko ditugu, beti benetan gertatuak izan ote ziren ala pertsonaia irrigarriari leporatzen zaizkion argi jakingo ez dugun arren. Aurrerago Antonio Zavalak beste argitalpen bat egin zuen, Pernandori buruz (1965a) barra-barra kontatzen ziren gertakizun batzuk jaso gabe zeudela ohartu zenean. Beste horrenbeste egin zuen Pello Errota (1965b) eta Txirrita-ren (1962) ateraldiekin. Txirritaren bizitzako pasarteekin Auspoa bildumakoa beste argitalpen berriagoak ere egin ditu A. Zavalak (1992).

Guk jasotako kontakizun irrigarri laburren artean ere badira mota honetako kontakizunak. Adibidez, Zuberoan jasotako "Axkar" delakoa protagonista duten ixtorioak. Hari ere hainbat gertakari irrigarri leporatzen zaizkio. Xiberoko Botzak,

kontakizun irrigarriekin egindako kasetean[19] ere jasotzen dira hainbat kontalariren ahotik Axkarri buruzko gertakariak.

Aita Luis Villasantek Graziano Anduagaren (1961) kontakizun eta bertsoak bildu zituen, horietako asko irrigarriak. Sail honetan jasotzen da, adibidez, "gizona gizon otarrapian ere" esaera zaharrari sorrera ematen dion kontakizuna. *Zirikadak* (1960) eta *Eztenkadak* (1965) izenburupean ere Juan San Martinek Eibar inguruko hainbat kontakizun irrigarri jaso zituen, eta Yon Etxaide-rekin batera *Pernando Plaentxiatarra* izenburuduna (1984). Horra gertaera irrigarrietan euskaraz dauzkagun erakuskaririk aipagarrienetako batzuk.

Benetako gertakariak omen direnez gain, ipuin bildumak ere mordo bat ditugu euskaraz, nahiz eta sakabanatuta, eta zabalpen handiegirik gabeko edizioetan argitaratuak izan.

XIX. mendetik etorri zaizkigun Cerquand eta Websterren bildumak balio handikoak dira. Horietan badira gure corpusean ere jasotako zenbait kontakizun. Cerquanden bilduman adibidez[20] (1985-1986 [1875-82]), gure corpusean ere jaso ditugun kontakizun batzuk datoz: "Ligiko zubia", "Hamalau", "Altzaiko heretsugea", "Deabruaren adina", "Altzürükuko Urrutiko anderea"… Websterren bilduman ere (1992 [1887]) badator, adibidez, "Hamalaur" kontakizuna.

Bestalde, Jose Miguel Barandiaranek bere Obra Osoen II. tomoan jasotzen dituen kontaera eta leiendetan, eusko folkloreko pertsonaien inguruko kontakizunak ditu ikergai: herensuge, lamina, basajaun, sorgin… Eta ahoz jasotako kontakizunak papereratzen ditu.

Azkuek, berriz, *Euskaleriaren Yakintza* liburuan (1989 [1935-1947]) askotariko ipuin luze eta laburrak tartekatzen ditu. Batzuk pertsonaia mitologikoei buruzkoak, leiendak…baina beste asko irri kontakizunen multzoan sar ditzakegunak. Gure bilduman jasotako zenbait kontakizunen aldaerak ere baditu jasota Azkuek. Adib.: 123. "Txerrenen adina", 133. "Aietz sogor bat", 162. "Erbiduna", 167. "Eutsi eta tati", 229. "So egiten", 234. "Txarteletan mutil bat", 144. "Arrosako zubia"… Aipagarri da, azken

[19] Audioa: Xiberoko Botzaren eri ixtorioak. Hizlariak: Urbain Agoutborde, Rene Bedecarrax, Roger Idiart, Jakin Barcos

[20] Jatorrizko testua "Gallica" orrialdean kontsulta daiteke: http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k6490632p

horretan zubia egiten duena deabrua omen dela; gure kontakizunetan, berriz, laminek egiten dute.

Jean Barbierrek argitaratutako liburuak ere(*Supazter xokoan* eta *Ixtorio-mixterio ipuin-mipuinak*) aipagarriak dira. Lehenak (1987) poesia bat, bost komedia eta hogeita lau ipuin biltzen ditu. Horietako baten ("Kontzientzia eta…bertza) aldaera bat gure bilduman jasota daukagu **(54.) E12-05 "Bertza"** . Bigarrenak (1989) Laminen ixtorio ugari, Jesus eta Jondoni Petri-ren kontakizun ugari eta ipuin miresgarri zenbait ere jasotzen ditu.

Piarres Lafittek *Historio-Misterio edo Eiherazainaren ipui hautatuak izenburupean* argitaratutako liburuan bederatzi atal banatzen ditu: (I. Eiherazainari hamalaukoa; II. Alegia, ixtorio zahar; III. Gertakari zenbaiten oihartzunak; IV. Senar-emazteak; V. Erlisione eta apez; VI. Irri eta kitto!; VII. Enganatzaile, enganatu; VIII. Sineskeria, beldu zahar; IX. Hiru ixtorio miragarri). Gure bilduman hemen jasotako kontakizunen bat edo beste ere jaso dugu. Esaterako, 108. orrialdean "Gasna" izenburua daramanak gure bildumako **(141.) E25-03 "Gasnak mututu"** kontakizunaren argumentu berdina du.

Era berean, *Murtuts eta bertze* izenburupean (1945), beste bederatzi ipuin bildu zituen Laffitek, luzetasun desberdinekoak. Horien artean, gure bilduman jasotako baten antzeko motiboa dago, ezkilek hitz egingo balute bezala agertzen baita: bilduma honetan *Ezkilaren errana* izenburua daraman kontakizunean, neska batek ezkondu ala ez zalantzak zituen eta apezak kontseilu bat ematen dio, joateko elizara eta hiru danga egiteko ezkilari. Harek esan ziola zer egin. Neskatxak *tilin, tilin, tilin!* jotzen du eta *Balentin, Balentin, Balentin!* ulertu. Ezkondu eta gero, damutu eta elizara berriz joan eta *tilin, tilin, tilin!* beharrean *mutxurdin, mutxurdin, mutxurdin!* ulertzean kargu hartzen dio bere buruari… Kanpaiek hitz egiteko kontu hau gure kontakizun batean ere jasota daukagu, gaia zeharo desberdina izan arren: **(179.) E18-01 "Zeiniak"**. Honetan hiru herrietako ezkilek elkarrizketa bat izaten zuten beren artean. Elizetako ezkilekin kontakizun mordo bat bildu dira, baita euskaraz ere. Juan M. Etxebarriak artikulu bat idatzi du horien inguruan (1997).

Aipatu dugun **(141.) E25-03 "Gasnak mututu"** kontakizuna Txomin Peillenek ere jaso zituen Allande Elixagarairi jasotako kontakizunen liburuan (1986) eta gure bildumako beste zenbait kontakizunen aldaerak ere badakartza: "Apezaren gazna",

"Apheza eta apezküpia", "Adorazionea Santa Grazin", "Esne beltza ala beltzaren esnea", adibidez.

Julene Azpeitiak (1961) ere herri ipuinen bilduma bat egin zuen, "erri ipuinak izan diralako kulturadun izkuntzen literatura oñarri". Berak hitzaurrean aitortzen duen moduan, tradiziozko ipuinak dira, lehen eskutik jasoak, baina apaindu egin dituela esaten du:

> «Orregatik, irakurle, emen arkituko dituzun askori, lenago beste nunbait entzun edo irakurritakoen antza artuko diozu. Batez ere Azkue'n "Euskalerriaren Yakintza" liburu ederretan edo Barandiaran'en "Eusko Folklore" orrietan baña ez emengoak bezin txukun adierazirik. Aiek erria mintzatzen dan bezelaxe jasoak dituztelako. Ta ipuin auek, egilleak berak zuzenki jasoak izanarren, apainduak dituzu, batez ere umeentzako eran».

Euskarazko herri ipuinetan egin den bilketarik baliosenetako bat Mayi Ariztiak egin zuen eta *Gure Herria*n aldizkarian argitaratu (1932-1958). Ipuin horietako hamasei, liburu batean argitaratu ziren gero *Amattoren uzta* izenburupean (1982).

XX. mende hasierakoa dugu, era beran, bost ipuinez osatutako bilduma txikia, *Zenbait ichtorio chahar artho churitzetako* izenburuduna[21]: "Errumes bat nola sarthu zen zeruan"; "Bi zaldiak"; "Erregeren taillurra"; "Zikhoitza eta bekhaiztia"; "Alkhi prestuz emanaren ordaina".

Aipatu beharra daukagu, era berean, berak halaxe aitortu zigulako, Marie Jeanne Minaberry-k idatzitako *Itchulingo Anderea* (1963) eta *Marijane konta zan* (1998) izenburudun ipuin bilduma ederrak berak moldatu zituela euskarara, frantsesez irakurritako zenbait aldizkaritako ipuinak oinarri hartuta.

Xipri Arbelbide-k *Irri solas* izenarekin (1983) argitaratutako irri kontakizunak ere interesgarriak dira. Kontakizunak bere horretan eman dituela dio, eskaintzen duenari buruzko sarrera hitz labur batekin:

> «Hemen diren orrialdetan ez du holako literatura "barnakorrik" kausituko. Irri eginaraziko dioten ixtorio labur batzu, karrikan gertatuak, ostatu xokoan edo eztei bazkari batetan entzunak". Horietako asko bertsolariei entzundakoak dira».

[21] *Zenbait ichtorio chahar artho churitzetako.* Petite bibliothèque basque. Baiona. Imprimerie Lamaignère, 1909.

Derioko Labayru Institutuak hainbat ikerketa etnografiko argitaratu ditu gaur egungo biltzaileek egindako bilketa eta ikerketa lanekin. Juan Manuel Etxebarria Ayestak, esaterako, *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak* (1995a) eta *Bizkaialdeko ipuin-esaundak* (1995b) argitaratu zituen. Lehenengoan, jentilak, Anbotoko Señorea, deabrua… protagonista dituzten kontakizunak, alegiak…batera aurkezten ditu eta kontakizun irrigarriren bat ere tartekatzen du. Bat aipatzearren, gure corpusean ere jasota dakargun 155. orrialdeko "Hiru ahizta joskila berbaltudunak" (ikus **(131.) E42-04 "Alaba motelak"**). Aipatutako Etxebarriaren bigarren liburuan (1995b) kontakizunak sailkatzen dituen "Aurkibide tematikoa" agertzen du amaieran. Bertan, gaika banatzen ditu kontakizunak (Anbotoko Señorea, Deabrua, Jentillak, Parte txarrekoak, Lamiñak, Arimak, Sorginak, Didaktiko-moralak, Animalia eta landareak, Barregarriak, Sexu kutsukoak, Bizikera zaharrak, Eguzkia, Sineskerak, Ospakizunak, Eleiz kutsukoak...). Guri horietatik guztietatik "Barregarriak" eta "Sexu kutsukoak" atalean sartzen direnak interesatzen zaizkigu batez zere. Sexu kutsukoen artean, gero irriari buruz egingo ditugun zehaztapenengatik "Untze-joak karu urten" kontakizunean hizkuntzaren alusioaz baliatuz erabiltzen den terminologia interesgarria da: bertan "potro-boltsak tximortu arte" "untze joaz" hitz egiten du. Emakumearen sexuari, berriz, "uso" deitzen dio. Eta honako adierazpen hauek egiten ditu informatzaileak:

> «Orain abadeak be ez diote mirarik egiten honango kontuak konteteari, batzuk barre be majo egiten dute, orain, jakina, kontetea da gauza bat eta egitea beste bat».

J.M. Etxebarriak berak, Astoa gaitzat harturik kontakizun bilduma bat egin zuen (2004), fabuletan, esaundetan, mitoetan...izan dituen agerpenak azalduz. Gure bilduman ere baditugu astoa eta mandoa protagonista dituzten kontakizunak, zenbaitetan, baita sexu kutsukoak ere. Gure bildumakoak dira, esate baterako, **(192.) E3-03 "Xalbadorren gertakaria"; (10.) E8-16 "Erreka"; (52.) E10-01 "Asto gainera"; (96.) E11-10 "Astoaren baztarra"; (23.) E16-03 "Asto hila"; (65.) E27-05 "Astoari xistuka"; (108.) E27-09 "Astoaren uzkerra"; (144.) E29-06 "Astoa eta emazteak"...**

Goi-Nafarroako euskarazko lekukotasuna Mariano Izetaren Baztango kontuak liburuan daukagu (1999). Bertan, gertatutakoak, kontaerak, kronikak eta ipuinak jasotzen dira, Baztango euskaran.

Jabier Kalzakortak, berriz, *Lamia, Sorgin eta Tartaroen erresuma ezkutua* liburuko sarreran gure corpuseko lamina, tartaro eta basajaun ixtorioak hobeto ulertzen

lagunduko diguten zehaztapen ugari egiten ditu, XIX. mendeko Agustin Etcheverryren testuak eskaintzeaz gainera (1997a).

Zuberoako irri kontakizunen bilketa eta azterketa laburra eman zigun Txomin Peillenek artikulu batean (2002) eta bere senide kontalari bati egindako gertakizunen bilketan (1986). Lehen aipatu dugu, Txomin Peillenek jasotako kontakizun batzuk gure bilduman ere jasota dauzkagula. Bertan hainbait gai jorratzen direla esaten digu, baina gai horiek herri kontakizunetara mugatu gabe, XX. mendearen lehen erdian, (1920-1940) *Gure Herria* aldizkarian idatzi zuten zuberotarrek ere erabili zituztela dio.

Berriki Jean Baptiste Coyos euskaltzainak kontakizun horien bilduma argitaratu du *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin erri egingarri* (2013) izenburuarekin.

J.L. Davant-ek ere horrelako ixtorio batzuk bildu zituen XX. mendeko *Zuberoako idazle zenduak* antologia liburuan (2001). Kontakizun horiek idatzizkoak eta askotarikoak dira (luzeak, laburrak, irrigarriak, seriosak, irakaspenen bat dutenak...), horietako zenbait *Gure Herria* aldizkaritik jasoak.

Bai Coyos-ek, bai Davant-ek egindako antologietan askotariko kontakizunak daude. Coyos-ek *Gure Herria* aldizkaritik jasotakoak, adibidez, kontakizun luzeak dira, gertakari irrigarrien berri ematen digute, baina beren luzetasunean irri efektu hori leuntzen dela esango genuke. Zenbaitetan esaldi luzez osatuta baitaude, eta kontakizunak atal bat baino gehiagoz osatzen baitira. Gure bildumako irri kontakizunak, ahozkotasunetik gertuago daude, laburrak dira eta kontakizunaren amaieran jartzen dute arreta, efektu komikoa sortzeko.

3.2.4. EUSKARAZKO IRRI KONTAKIZUNAK AIPAGAI DITUZTEN IKERKETAK

Irriaren gaia jorratu duten ikerketak ez dira asko euskararen alorrean. Kontakizuna aztergai duten ikerketa lan gehienak ez dira irriaren gaia aztertzera sartzen. Eta irri kontakizunak jasotzen dituzten bildumek ere toki gutxi eskaintzen diote kontakizunen umoreari. Jesus Basañez-ek egindako *El humorismo vasco* liburuan (1965) euskara adierazpide duten lanei eskaintzen zaien toki eskasa nabarmendu nahi izan zuen Martin Ugaldek liburuari egindako hitzaurrean.

Euskarazko kontakizunei buruzko ikerketak, egin diren kontakizun bildumen aldean ez dira oso ugariak. Ana Toledok artikulu bat idatzi zuen (2002:85), unibertsitate mailan kontagintzaz egin diren lanen izaera aztertuz. Artikuluan, tesi lanetan jartzen du arreta eta tesi horiek lantzeko erabili diren ikuspegiak laburbiltzen ditu, beti ere elaberriaren azterketara mugatuz, ikerketari ikuspegi diakronikoa ematen bazaio:

> «Euskal kontagintzak bultzatutako azterketetan ere, bilakaeraren berri ematen dutenak dira urrienak. Guk hona ekarriko ditugunak honako baldintza hauei egokitzen zaizkienak izango dira: eleberrigintzari soilik eskainitakoak (honenbestez, abiapuntutik bertatik bazterturik gelditzen dira euskal literaturaren historiak) eta euskal eleberrigintza sistema legez joaz, beronen barnean, gutxienez, aldiren bat aztergai hartzen dutenak, nahiz eta izenburuan historia hitza ez eraman».

Kontakizun laburren arloan, euskarazko ipuin miresgarriei buruz Martin Etxeberriak egindako tesi lana aipatu behar dugu, frantsesez erredaktatuta egon arren. Tesi horretako ideia nagusiak laburbildu zituen *Euskaldunen Ipuin Harrigarriak* (1973) liburuan. Besteak beste, honako hauek aztertzen ditu: ipuinaren jatorriari buruzko teoriak, Lévi-Strauss-ek mitoari buruz emandako zehaztasunak, Propp-ek ipuin harrigarriez egindako deskripzioa eta Lévi-Straussek Proppi leporatutako hutsuneak eta honen erantzuna deskribatzen ditu. Gero, Etxeberriak Claude Bremonden lana aztertzen du. Proppen azterketan oinarrituta, Claude Bremond edozein kontaerarentzat balioko duten lege batzuk ateratzen ahalegintzen da eta Proppen ondorio nagusietako bi aztertzen ditu: 1º Funtzio guztiek beti antolamentu berdina gordetzen dutela. 2º Egituraren aldetik, ipuin harrigarri denak era edo tipo berdinekoak direla. Azkenik, euskal ipuin harrigarrien morfologia aztertzen du.

Nafarroako herri literaturari dagokionez, tesia egin zuen Alfredo Asiainek (2006) gaztelaniazko kontaketetara mugatuz, zenbaitetan informatzaileengan euskararen eragina nabaritzen zela aitortu arren. 2 tomotan banatzen du ikerketa lana.

Lehenengoan, kulturaren semiotikaz eta kontakizun folklorikoez hainbat definizio eta azalpen jaso ondoren, bere azterketa eredu semiotikoa azaltzen du. Disziplinarteko gerturapena egingo duela dio, eta horretarako bi ikuspegi nagusi (antropologikoa eta literarioa) eta osagarri bat (historikoa) proposatzen ditu (1999:58).

Ikuspegi antropologikoari dagokionez, kontakizunak kontatu dizkion gizarte edo komunitatean jartzen du arreta.

> «Como explica Rafael Corres Díaz de Cerio (1980:156-157) ésta perspectiva intenta aprehender en toda su dimensión el fenómeno oral. Registra directamente, sin ningún tipo de mediación, las narraciones orales añadiendo cuanto se oye y se ve en derredor; considerando el papel que desempeñan narradores populares y auditorio, sus reacciones, y recursos verbales, cinésicos y paralingüísticos, así como el contexto de de dichos relatos, sus tiempos y lugares.
>
> Además dentro de esta perspectiva antropológica y con la ayuda de la interpretación hermenéutica, se tratará de explicar la estructura profunda psicosocial a la que responden los relatos recopilados…»

Ikuspegi literarioan, berriz, ahozko literatura literatur forma gisa aztertzen da:

> «Desatiende un tanto el contexto y la cultura que rodean a las narraciones para centrarse y analizar los textos ya transcritos y casi siempre despojados de su carácter oral. (…)
>
> Nos interesa, como hemos dicho, la intertextualidad que es la presencia en un texto de uno o varios textos diferentes. Así podremos dar respuesta a las relaciones entre literatura oral y literatura escrita, a las relaciones concretas entre las narraciones folklóricas y las fábulas escritas, las epopeyas, la novela, los fabliaux, las baladas folklóricas, el teatro, la literatura de cordel, etc.»

Osagarritzat izendatzen duen **ikuspegi historikoan**, kontakizunak komunitate baten ibilbide historikoaren barruan kokatzen direla ulertuko du. Eta horretarako, Vladimir Proppen *Las raíces históricas del cuento* (1987) erabiliko du, narrazioen azterketa semantikoan.

Jarraian, bere bildumako corpusaren transkripzioa gehitzen du:

Lehen zatian, **nagusiki historikoak ez diren narrazio folklorikoak** sartzen ditu: **animaliei buruzko ipuin folklorikoak**; **ipuin folkloriko arruntak** eta horren barruan **ipuin miresgarriak, ipuin erlijiosoak, novelle (edo ipuin erromantikoak)** eta **ogro tuntunari buruzkoak.**

Ondoren, gure gaiarekin lotura duten kontakizunak datoz, **txiste eta anekdotei** buruzko atala: hor sartzen ditu **tontakeriei buruzko ipuinak, emakume edo neskatila bati buruzko istorioak** (senar-emazteen kontakizunak, emakume bati buruzkoak), **gizon bati buruzko istorioak** (gizon argia, gizon tuntuta, apaiz eta erlijiosoei buruzko gertakari irrigarriak, beste lanbide batzuei buruzko gertakari irrigarriak eta bestelakoak). Formulazko ipuinak (kateaketaz osatutako ipuinak, amaitzen ez diren ipuinak, ipuin txikiak).

Hurrengo atalak **leiendez, erromantze narratiboez,** eta **kanta narratiboez** osatuta daude.

Narrazio historikoen barruan, **gertakariak**, **usteak eta sineskeriak** eta **ahozko historiari buruzko kontakizunak** biltzen ditu.

Bigarren tomoan, kontakizunen analisia egiten du: testuen morfosintaxia aztertzen du, funtzioak, sekuentziak, ekintzak eta aktanteak, tradiziozko bereizgarri estrukturalak, eta narrazioen eraldaketa sozio-historikoa aztertzen ditu, adibide praktikoekin. Erretorikari ere atal oso bat eskaintzen dio, narratzailea bera eta erabiltzen dituen baliabideak aztertzen ditu, bai bere kontakizunekin, bai entzuleekin dituen harremanak kontuan izanik. Azkenik, analisi semantikoari buruzko gogoeta orokorrak eskaintzen ditu, betiere adibideak emanez.

Natalia Zaikak frantsesez idatzitako tesia ere 2014an argitaratu da. Bertan Webster, Cerquand, Barbier, eta Azkueren testuak aztertzen eta erkatzen ditu. Ipuinen bertsio elebidunetan jartzen du arreta eta bertsio batetik bestera dauden aldeak jorratzen ditu.

Berriki, Eric Dicharry-k bertsolaritzan irriaren fenomenoa aztertzen duen liburua argitaratu du (2013:318) eta bertan irriaren sustraietara iritsi nahia adierazten du:

> «C'est sur ces sens cachés, sous entendus, non dit, interprétatios plurielles, évocations et allusions que nous arrêterons afin d'envisager les "racines du rire". La malaise ou l'incorfort du chercheur qui travaille sur le rire provient certainement de ce dévoilement, de cette énontiation du non dit, du pensé non énonce. En venant compléter les omissions volontaires, en précisant les allusions, il surpasse ce qui était non dit mais compris, il met des mots la où il y avait trois petits points».

Bertsolaritza inprobisazioan oinarritzen baita, irriak izan ditzakeen erreferentziak aztertzen ditu lehenik: gaia bera denean irrigarri, irri bertsolarien arteko dialektikatik eratortzen denean, bertsolariak berak sortutakoa denean, edo norbere buruaz irri egitean sortutakoa. Bertsolariek erabili izan dituzten gaiak aipatzen ditu ondoren.

4. kapituluan irria sortzeko baliabideez hitz egiten du, bertsolaritzako adibideez hornituta: anbiguetatea, ekibokoa eta anbiologia; adiera bikoitza, ironia, zeharkako ulerkuntza eta insinuazioa. 6. kapituluan irriaren mugez hitz egiten du: lehenik, zein

gaiez ez duten txisterik egiten eta hauek aipatzen ditu: homosexualitatea, euskaldunok jasan ditugun "eraso"polizialak…Bigarrenik, zenbaitetan ekibokoak gertatu direla dio, gai bat berdin ulertu ez delako, eta ondoriozko garapena ez delako esperotakoa izan (2013:494):

> «Nous constatons donc ici avec cet exemple que la "connaissance commune"est la condition nécessaire à ´l'intercompréhension. Elle est la base minimale sur laquelle le rire va pouvoir s'emanciper. Sans cette condition préliminaire, point de rire partagé. Le rire ne touche ou ne concerne que ceux qui sont capables de reconnecter entre eux les différents jeux sur les polysémies».

Azkenik, hedatzen joan den moral laizista aipatzen du, bai bertsolaritzaren aldetik, bai gizartearen aldetik. Adibidez, ezkontza aurreko harremanak oso gaizki ikusiak ziren arren (neskatilak birjina izan behar zuen ezkontzaren unean), orain gizonen eta emakumeen arteko harremanak asko garatu direla. Sexu harremanak esplizituak izaten ez diren arren, zeharka ulertzen direla, eta apaizei egindako kritikarekin batera, bertsolaritzaren gai tradizionaletako bat direla dio.

Irriaren gaia, teatroaren edo antzerkiaren arloan gehiago landu da. Patri Urkizuk hiru liburutxo argitaratu ditu Zuberoako irri teatroaren inguruan. Lehena 1984koa da (bigarrena 1988koa) eta bertan Baionako Liburutegian zeuden XVIII eta XIX. mendeko zenbait eskuizkribu inprentako letretara ekarri zituen. 1998an argitaratutako hurbiltze saioan, Urkizu "Izenez", "Etorkiaz", "Egileez", "Gaiez", "Jazkeraz, Dantzaz eta Musikaz", "Hizkuntzez" eta "Literatur Balioez" mintzo da. Azken atal horretan zentsurari buruzko ohar aipagarria egiten du:

> «Aske eta lizun omen zelako astolasterren hizkera ez zien eman lekurik bere errebistan (RIEV) zuzendariak, eta 1922. urtean, oraino xit gazte zelarik uste berdintsua agertzen zuen Piarres Lafittek, mintzatzen zelarik sataneriez (…).
> Txomin Peillenek, bere aldetik *Komiko Baliapideak Zuberoako Herri Literaturan* aztertzerakoan, Aintzinako Erroman eta Grezian zerabiltzaten baliapide berdinak aurkitzen ditu. Halaber, Europan zehar Erdi Aroan nonahi ematen zirenen paretsuak ikusten ditu astolasterretan, ala irrigarriak diren elementu guzti hauek: erortzeak, medikuntzazkoak, mehatxuak, jendeen itxurari dagozkionak, zuloak, kaka eta sendakuntzaren trufatze osoa».

Besteak beste, erretorika liburuek sailkatu ohi zituzten irudietako batzuk aipatzen ditu, eta beste batzuen artean, sexu gaietaz jardutean agertzen den hizkuntza aberatsaren lekuko diren metaforak aipatzen ditu (1988: 125):

> «Larrua jo, xortan egin, izorratu, badira esamolde ezagunak astolastergileak beste anitz ere badarabiltza, batzuek eufemismo hutsak direnak, eta beste batzu maileguak. Hona zerrendatxo bat: adarrak (egin, sorthu, thiratu, kharreia erazi), alua eman, andrekan ibili, antatu, bisita egin, bortha zabaldu, erautsi, estali, etzan, ezagutu, eztrenatu, frekentatu, gortia egin, gozatu, hunki, jokhatu partida, kontsolatu, lanak egin, libertitu, pharte ukhan, plazer (errendatu, hartu, kausatu), pratikatu negozia, tresnak ibili, zaragoilez ardura, zerbutxu egin…».

Kontagintzaren arloan, irriaren adierazpideaz zenbait ohar egin zituen Txomin Peillenek goian aipatutako baliabide komikoei buruzko artikuluan ez ezik (1985), baita Allande Elixagarairen ixtorio liburuaren hitzaurrean (1986), eta Zuberotar irri kontakizunaren azterketaz *Euskera* aldizkarian idatzitako artikuluan ere (2002).

Kontakizun laburren arloan ere hainbat azterketa-lan egin dira. 1992an herri narratibari eskaini zitzaizkion herri literaturari buruzko jardunaldietan, ordura arte euskalki desberdinetan ahoz bildutako ipuinen zerrenda bildu zen. Orduz geroztik, lan sakonak egin dira ipuinen azterketan. Hor daukagu, esaterako, Jabier Kalzakortak euskarazko ipuin miresgarriei buruz bere liburuari (1997a) egindako sarrera mamitsua, tartaroaren inguruko artikulu bat (1994)...

Ipuinen egiturari buruzko bi liburu txiki ere badaude, bata Pierre Duny-Pétré-k egindakoa (1987) eta bestea Kalzakorta, Larringan eta Etxebarriarena, *Tradiziozko ipuingintza* izenburua daramana (1989). Biek ipuinen sarrera-amaierak aztertzen dituzte, besteak beste.

Laburbilduz, esan dezakegu kontakizun laburren inguruko azterketak ugaritzen joan direla azken urteetan. Egin diren zenbait bildumetan irri kontakizunak jasota daudela, beste batzuekin tartekatuta. Irriari buruzko azterketak ere badaude, baina nagusiki bertsolaritzaren edo maskaraden arloan jartzen dute arreta. Hori dela eta, euskarazko irri kontakizuna aztergai hartzen duten azterketetan Txomin Peillenen lana nabarmenduko genuke batez ere.

3.3. KONTAKIZUNETAKO UMOREA ETA UMOREARI BURUZKO TEORIAK

Umoreak, irriak, ikuspegi desberdinak izan ditu historikoki, eta hori garai bakoitzeko lanetan islatu da. Checa Beltrán-ek (1999:13) artikulu batean zioen "Aristotelesen garaitik XIX. mendera arte sistema teoriko nagusia Aristotelesena izan

zela. Baina Aristotelesen *Poetica*-n ez zegoela komediari buruzko azterketarik. Hala ere, komikotasunari buruzko tradizio teoriko bat egon badagoela, baina zatikakoa edo partziala dela eta ez duela tragikoaren tradizioaren egitura perfektu hori".

Antzinako komediaren topikoak teoria klasikoaren tradizioan oinarritzen dira eta hauek dira: kalterik ez egitea (pertsonaren akatsez irri egiten da; lotsagarri utzitako pertsonari, ordea, ez zaio kalterik egin behar, bestela errukia sortzen da); behe mailako pertsonaiez bakarrik egitea irri (Pinciano-k esaten zuen komedia "okerrenen imitazioa"zela); fikziozko ekintzak, baldarkeria eta itsustasuna.

Checa Beltránek dio (1999:20) irriaren kausak aztertzea zeregin zailtzat hartu dela historikoki:

> «También en el Renacimiento se cree en la práctica imposibilidad de determinar con precisión las causas de la risa; se considera tarea casi imposible sistematizar el ámbito de lo cómico, al contrario de lo que sucede con el llanto, espacio mucho más fácil de explicar y clasificar»

Aristotelesek bi poesía mota zeudela esan zuen bere *Poetika*n: "handienek ekintza nobleak imitatzen zituzten, arruntenek berriz behe mailakoenak". Eta behe mailakoen ekintzak imitatzeak zekarren irria sortzea.

Poeta komikoenganako gutxiespena honela azaltzen du Checa Beltranek (1999:17):

> «El menosprecio por los poetas cómicos se debe a que en este pasaje el estagirita está hablando de la historia de la poesía, y está criticando, una vez más, la comedia antigua, plagada de invectivas y ataques personales, que, aunque provocaran la risa, hacían "daño", algo que no debería suceder en una obra literaria. (...) Esta distinción aparecerá invariablemente en toda la tradición poética bajo diversos binomios terminológicos (por ejemplo, "alto cómico" y "bajo cómico", cuyo significado último no trata sólo de distinguir una risa de calidad literaria de otra más elemental, sino que también pretende condenar cualquier risa subversiva, grotesca, popular, contraria a las normas establecidas».

Irriak bere bidea egin du historian, eta behe mailakoa, iraingarria, gordina izan denean, baztertu egin da nagusi zen kanonetik. Bajtinen arabera, (2003:[1941]) Erdi Aroan, irriak, bizitzaren eta ideien arlo ofizialetatik kanpo uzten baitzen, muga

horietatik kanpo pribilegio handiak izan zituen: plaza publikoan, festetan eta aisiazko literaturan.

Erdi Aroan, irriak mundu ofizialaren ikuskeratik aldenduta, bere eremua sortu zuen festen anparoan: astoaren festa, eroen festa…Horietan, gorputzaren eta materiala denaren "azpiko alderdiak" jartzen ziren agerian. Honela dio Bajtinek (2003 [1941]:74):

> «Puede afirmarse que el lenguaje familiar de los clérigos (e intelectuales medievales) y de la gente del pueblo estaba saturado de elementos tomados de lo "inferior" material y corporal: obscenidades y groserías, juramentos, textos y sentencias sagradas invertidas; al formar parte de este lenguaje, las palabras eran sometidas a la fuerza rebajante y renovadora del poderoso principio "inferior" ambivalente».

Festa zenean, sistema ofizialaren funtzionamendua eteten zen, horrek zekartzan debeku eta banaketa hierarkikoekin. Denbora tarte labur batez, bizitza arau estuetatik atera eta askatasun utopiaren baitan sartzen zen. Ideia horixe bera azpimarratu zuen Caro Barojak *El Carnaval* liburuan, "ihauteria elizaren seme dela" baieztatzen duenean.

Guk bildutako irri kontakizun batzuetan ere, koitoa, kaka, pixa, ipurdia garbitzea…behin eta berriz errepikatzen diren elementuak dira eta Rabelaisen liburuetan erabiltzen diren irudietako batzuk ekartzen dizkigute gogora.

Baina Errenazimenduan, herriaren eta "herri xehearen hizkuntzen" sustraietatik urrundu, eta "goi mailako" literaturan txertatu zen. Hortik, mundu mailan ezagunak diren artelanak sortzea: Bocaccio-ren Decameron, Rabelais-en liburua, Cervantesen elaberria, Shakespearen dramak…

Honela dio Bajtin-ek Rabelaisi buruzko liburuan irriaren historiari eskaintzen dion kapituluan (2003 [1941]: 57):

> «La época de Rabelais, Cervantes y Shakespeare, representa un cambio capital en la historia de la risa. Las fronteras que dividen el siglo XVI y siguientes de la época renacentista son especialmente claras en lo que respecta a la opinión que tienen sobre la misma. (…) La actitud del siglo XVII en adelante con respecto a la risa puede definirse de la manera siguiente: la risa no puede expresar una concepción universal del mundo, sólo puede abarcar ciertos aspectos –parciales y parcialmente típicos de la vida social, aspectos negativos; lo que es esencial e importante no puede ser cómico (…) de ahí que la risa ocupe en la literatura un rango inferior, como un género menor, que describe la vida de individuos aislados y de los bajos fondos de la sociedad; la risa o es una diversión ligera o una especie de castigo útil que la sociedad aplica a ciertos seres inferiores y corrompidos. Esta es, esquemáticamente, la actitud de los siglos XVII y XVIII ante la risa».

Errenazimenduak klasikoen iturrietatik edan zuen eta halaxe islatu zen bai literatur lanetan, bai garaiko iritzi teorikoetan. Hiru iturri nagusi aipatzen ditu Bajtinek: Hipocrates, Aristoteles (berak esandako esaldi famatuarekin "gizona da irri egiten duen izaki bakarra") eta Luciano. Hiru iturriek mundu ikuskeraren printzipio unibertsal gisa definitzen dute irria, sendaketa eta errenazimendua ziurtatzen duena, "ongi bizi eta ongi hiltzera" daramaten metodoak.

Bajtinek dio Errenazimenduaren (eta antzinako iturrien) irriaren teorian bereizgarri nagusia irriari esanahi positiboa, sortzailea aitortzea dela. Horrek geroko irriaren teoria eta filosofietatik bereizten du, baita guk aztergai izango dugun Bergsonen teoriatik ere, geroko teoria eta filosofiek irriaren funtzio mespretxagarriak azpimarratzen baitituzte.

XVIII eta XIX. mendeetan irria aztertzeko metodo alegoriko-historikoa izan da nagusi eta horren arabera interpretatu izan dira Rabelaisen irudien alusioak, baina metodo hori ez du beti baliagarritzat jotzen. Honela dio Bajtinek (2003:94):

> «Aunque la interpretación de la imagen del limpiaculos fuese cierta, esto no serviría estrictamente para nada, ni para la comprensión de la imagen y su lógica artística, ni para la comprensión de su sentido. El limpiaculos es una de las imágenes más difundidas dentro de la literatura escatológica: figura en las anécdotas, los géneros verbales familiares, las groserías y las metáforas y comparaciones obscenas. Incluso dentro de la literatura en general es una imagen vieja».

Beharbada, komikotasunari dagokionez, lehen aipatu dugun azterketa klasikoen tradizio eskasagoak ekarri zuen komikotasunaren oinarrietan indefinizioa, eta gai komikoa zuten lanak, gai tragikoa zutenen aldean, bigarren maila batean geratzea. Georges Hérellek ere (1925:9) batzuen eta besteen arteko alde hori nabaritu zuen, XX. mende hasieran gai komikoko lanak aztertzeari ekin zionean:

> «Nos ancêtres attachaient aux pièces comiques beaucoup moins d'importance qu'aux pièces tragiques. Une tragédie, ouvre de longue haleine, laborieusement composée, toujours jouée avec solennité et écoutée avec recueillement, paraissait digne d'être conservée comme une chose précieuse; mais une comédie, qui n'était le plus souvent qu'un écrit de circonstance et que ni visait qu'à faire rire les spectateurs, perdait son intérêt après la représentation, et on en détruisait le cahier ou on le laissait pourrir dans un coin».

XX. mendean irria aztertzeko hainbat teoria sortzen joan dira: teoria biologikoak, jolasaren teoriak, nagusiatasunaren teoriak, liberazioaren teoriak...

Umorea azaltzeko hainbat eboluzio-teoria ere agertu dira. Umorearen teoria ezagunena **inkongruentzia-konponbidearen** teoria izan zen. Hurley, Dennett eta Adams-ek (2013) umorearen teoria kognitiboa babesten dute eta uste dute umorea eboluzionatu egin dela, testuinguru askotan erabiltzen dela. Horren arabera, emozioek gidatzen dituzte gure gaitasun kognitiboak, eta beraz, umore hori tresna baliagarria da gure burua aztertzeko.

Egile horiek proposatzen duten teoria **akats zuzentzailea** izango litzateke (The debugging theory of humour). Teoria horren arabera, umorea gertatzen da akatsen batengatik ideia ezkuturen bat gure buruan sartzen denean, eta finkatuta genituen eskemak hausten dituenean. Orduan, gure garunak ideia hori ulertzeko bide bat bilatu behar du, eta hortik sortzen da umorea. Umorearen papera ideia engainagarri hori lehenbailehen deuseztatzea da, kalterik eragin baino lehen.

Guk XX. mende hasierako Bergson eta Freud pentsalariek irriaz egindako entseguak hartuko ditugu kontuan gure lana ikertzerakoan. Biek ikuspegi sozialetik aztertu zuten irriaren adierazpena. Tesi lan honetan, gure bilduman jasotako irri kontakizunak zergatik diren irrigarri azaltzen saiatuko gara. Gaiak berak, kontakizunetako hizkuntza baliabideak…aztertuko ditugu.

3.4. IRRIAREN ADIERAZPEN MODUAK. XX. MENDE HASIERAKO BI PLANTEAMENDU: BERGSON, FREUD

Azterketa gutxi egin dira umoreaz bere eremu sozialaren barruan, alegia, pertsonak elkareraginean ari direnean, txiste bat partekatzen dutenean edo aipamen zorrotzen batekin norbait inpresionatu nahi dutenean.

Kontakizunen esanahiaz dihardugula eta bildu ditugun kontakizunetako asko irri-eragileak direnez, umorearen gaia jorratzera behartuta gaude. Umorea nahiko baztertuta egon da literaturaren ikerketetan. Bajtin-ek berak halaxe aipatu zuen (2003 [1941]: 6):

> "La risa popular y sus formas, constituyen el campo menos estudiados de la creación popular. La concepción estrecha del carácter popular y del folklore nacida de la época preromántica y rematada esencialmente por Herder y los románticos, excluye casi por completo la cultura específica de la plaza pública y

> también el humor popular en toda la riqueza de sus manifestaciones. Ni siquiera posteriormente los especialistas del folklore y la historia literaria han considerado el humor del pueblo en la plaza pública como un objeto digno de estudio desde el punto de vista cultural, histórico, folklórico o literario. Entre las numerosas investigaciones científicas consagradas a los ritos, los mitos y las obras populares, líricas y épicas, la risa no ocupa sino un lugar modesto".

Irria eragiteko igorleak hainbat baliabide erabiliko ditu. Gure corpusean idatziz jaso ditugun ahozko kontakizunetan aztertuko dira baliabide horiek, Bergson (2008 [1900]) eta Freud (1905) pentsalariek beren lanetan azaldutako baliabideak gure kontakizunetara aplikatuz. Bergsonek irriaz egiten duen planteamendua guztiz berritzailea dela azpimarratzen du Feuerhahn-ek (1996:9-27):

> "L'interprétation du rire proposée par Bergson diffère radicalement de toutes celles qui précèdent, en particulier parce qu'elle déborde le partage disciplinaire et qu'elle s'émancipe de la causalité subjective. Pour la première fois -et cette extrême originalité explique peut-être les malentendus qui se sont attachés à sa réception- le rire est compris comme l'une des formes les plus socialisées de l'impensé émotionnel et de ses effets incontrôlés dans les groupes sociaux".

Bi pentsalari horiek irriaren gaian sakondu zuten, bakoitzak bere intereseko ikuspuntutik. Atal honetan horien ideia nagusiak laburbilduko ditugu, gero, 5. kapituluan, gure kontakizunei buruzko xehetasunak azaltzeko baliagarri izango zaizkigula uste baitugu.

Kritikak ere jaso dituzte, ordea. Jaques Le Goff aztertzaileak irria aipagai hartuz idatzitako artikulu batean (1999:1343-1356) esan zuen Bergson eta Freudek irria ikuspegi sozialetik aztertzea izan zela beren azterketako alderdi interesgarri bakarra. Baina besteak beste, irria gorputzaren bidez adierazten dela, eta Bergson eta Freud ez zirela gorputzaren adierazpenaz arduratu:

> "Je dirais même que c'est le seul point qui me parait intéressant dans l'étude, par ailleurs extrêmement décevante, de Bergson sur le rire; mais il a, et parfois avec des formules hereuses, insisté sur cet aspect social du rire, et Freud a marqué sur ce point la convergence de ses théories avec la pensée de Bergson. (…) Le rire est un phénomène qui s'exprime dans le corps et à travers le corps; or, chose stupéfiante une grande partie des auteurs qui se sont occupés du rire, historiens, historiens de la littérature, ou même philosophes: Bergson et même Freud, ne s'intéressent pratiquement pas à cet aspect corporel qui me paraît essentiel".

Kritikak kritika, bai Bergson lana, bai Freudena oso baliagarriak izan direla esan dezakegu, eta irriari buruzko geroko ikerketek haien planteamenduak kontuan hartu dituzte.

3.4.1. BERGSON ETA IRRIAREN ADIERAZPENA

Henri Bergsonek bere liburuko (2008 [1905]) **lehen atala**, orokorrean, komikoa denari buruzko azalpenak ematera zuzentzen du. Bere ustez, ez dago komikorik ezer gizon-emakumeengandik kanpora, «gizatiarra» denetik kanpora. Animalia batez irri egin dezakegu, baina kasu horretan, beti izango da gizon edo emakumeren baten jarreraren bat ohartarazi dugulako bertan.

Beste sintoma aipagarri bat «sentiberatasunik eza» da. Izan ere «irriaren etsairik handiena emozioa» dela dio. Komikoa denak une batez bihotzari anestesia ematea eskatzen du, adimen hutsari zuzentzen zaio. Baina adimen horrek beste adimen batzuekin harremanetan egon behar du. Ez litzateke komikoa dena gozatuko, isolatuta sentituz gero. Irriak irri egiten duten beste pertsona batzuekin adostasuna, konplizitatea ezkutatzen du, benetakoak nahiz irudimenezkoak izan. Irria ulertzeko, ingurune naturalean kokatu behar da, gizartean, alegia. Eta batez ere, bere funtzio erabilgarria zehaztu behar da, bere funtzio soziala.

Irria kanpoko zerbaitek eragiten du, ustekabeko zerbait da. Efektu komikoren bat kausa zehatz batetik eratortzen bada, kausa zenbat eta naturalagoa izan, efektua komikoagoa irudituko zaigu. Adibidez, distrazio batek irria eragin diezaguke, baina are irrigarriagoa izango da, distrazio hori gure aurrean sortzen eta garatzen ikusi badugu. Pertsonaia bat komikoa da, bere buruari ezikusiarena egiten dion neurri berean. Komikoa «inkontzientea» baita. Gizarteak etengabe erne mantenduko gaituen arreta eskatzen digu, eta baita gorputzaren elastikotasuna ere, egoera horretara egokitzen lagunduko diguna. Gorputzean «tentsioa eta elastikotasuna», bi indar osagarriak, falta badira, mota guztietako istripuak, gaixotasunak…sortzen dira. Horregatik «automatismoa eta zurruntasuna» irrigarri iruditzen zaizkigu.

Zenbait forma-anormaltasunek irria eragin dezateke. «Eta komikoa gerta daiteke, itxuraz, forma-anormaltasunik ez duen pertsona batek konpondu dezakeen edozein forma-anormaltasun». Adibidez, konkordun batek postura txarrean dagoen gizon bat ematen du. Edo aurpegiaren adierazpen irrigarri bat are irrigarriago egiten

zaigu, ekintza sinple, mekaniko bat iradokitzen digunean, nortasuna desagertaraziko duena. Beraz, automatismoak, zurruntasunak eta hartutako eta mantendutako ohitura batek irria eragin diezagukete. Baina efektu horren intentsitatea areagotzen da, ezaugarri horien atzean kausa sakon bat ikusten dugunean, pertsonaren «arreta gabezia». Karikatura egilearen artea, honexetan datza: arreta gabe egindako mugimendu hori harrapatzean. Exagerazioa komikoa izan dadin, beharrezkoa da helburu bat ez izatea, bitarteko bat baino.

Keinuen eta mugimenduen komikotasunari dagokionez esaten du, «gorputzaren jarrera, keinu eta mugimenduek irria eragiten digutela, gorputz horrek mekaniko hutsa den zerbaitean pentsarazten digunean». Era berean, keinu batzuk irrigarri gertatzen dira beste pertsona batek imitatzen dituenean. Gure keinuetatik uniformetasun mekanikoa duena bakarrik imitatu daiteke. Mekanikoa den horretaratz desbideratzen den bizitza da irria benetan eragiten diguna. Txontxongiloak bagina bezala. Komedia egilearen artea izango da giza gertaeren artikulazio mekanikoa erakustea, baina kanpotik egiantzekotasun itxura galdu gabe.

Sorpresak, kontrasteak ere irria eragingo digu. Mozorro batez ariko bagina bezala. Imaginazioaren logika bat dago, arrazoiaren logika ez dena, eta zenbaitetan azken horrekin aurkakotasunean dagoena. Mozorro guztiak komikoak izango dira, ez soilik gizakiarena, baizik eta baita gizartearena eta naturarena ere.

Bergsonen ustez, «komikoa da pertsona baten alderdi fisikoak gure arreta guztia erakartzea, garrantzitsua alderdi morala denean». Ideia hori adibide honekin irudikatzen du (2008:44):

> «El poeta trágico tiene buen cuidado de evitar todo aquello que pudiera llamar nuestra atención sobre la materialidad de sus héroes. En cuanto interviene la preocupación por el cuerpo, es de temer una infiltración de lo cómico. Por lo cual los héroes de las tragedias no beben, ni comen, ni se excitan. Incluso procuran no sentarse. Sentarse en pleno recitado sería recordar que tienen un cuerpo».

Bergsonek dio irria eragiten digula pertsona bati, une batez, gauza baten itxura hartzeak. Pertsona gauzarekin identifikatzera iritsi gabe, nahikoa da pertsona bera, betetzen duen funtzioarekin nahastea.

Bigarren atalean, egoeren eta esaldien komikotasunaz hitz egiten du. Hori azaltzeko hiru adibide ematen ditu. Esaldien errepikapen komikoan bi termino egongo dira aurrez aurre: erreprimitutako sentimendu bat ziztu bizian ateratzen dena, eta ideia bat, sentimendua berriz erreprimituko duena. Egoera hori, «malguki batetik ateratzen den deabruarekin» parekatzen du. Era berean, komikoa da «hari batzuez mugitzen den txontxongiloa». Itxuraz daukagun askatasuna hari batzuek zuzenduko balute bezala. Azkenik, elur bolaren adibidea ematen du. Hasieran, garrantziarik gabekoa zirudien kausa, ustekabean, handitzen joaten denean.

Irria sortzeko, hiru prozedura aipatzen ditu: **errepikapena, itzulikatzea** eta **serieen interferentzia.** Adibidez, errepikapena gertatu dela esango dugu kasu honetan: egun batean kalean lagun batekin topatzen banaiz, egoera ez da batere komikoa. Baina egun berean, behin eta berriz topatzen badut "kointzidentziaz" irri egiten amaituko dugu.

Itzulikatzearen adibidea, berriz, mundua itzulikatuta erakusten digun edozein egoera izango litzateke. Esaterako, bere gurasoei ikasia eman nahi dien haurra, edo epaileari lezio morala eman nahi dion gizona.

Azkenik, serieen interferentzia edo antzeko esanahia duen *quid pro cuo* hauxe litzateke: aldi berean bi adiera desberdin dituen egoera bat. Izan ere, egoera bat komikoa izango da aldi berean gertakarien bi serie independente egon eta batera interpretatu daitezkeenean, biak oso esanahi desberdinarekin.

Bergsonek desberdindu egiten du hizkuntzak adierazten duen komikotasuna eta hizkuntzak sortutako komikotasuna. Lehena hizkuntza batetik bestera itzul daiteke, bigarrena, berriz, ez. Bigarren hori komikoa bada, esaldien egituragatik eta bertako hitzen aukeraketagatik da komikoa. Lengoaia bera da komikoa. Gure keinu, jokabideetan antzeman dugun zurruntasun, mekanizismo hori, hizkuntzan ere antzeman daiteke. Hori lortzen da adibidez, *ideia absurdu bat egindako esaldi batean txertatzen dugunean.* Adibide hau ematen du: «No me gusta trabajar entre comidas». Efektu komikoa lortzen da, era berean, "hitz bat berezko esanahian ulertzen delako itxura egiten denean, benetan irudizko adieran esan denean. Edota arreta metafora baten materialtasunean jartzen denean".

Lehen aipatu ditugun hiru baliabideak (errepikapena, itzulikatzea eta interferentzia) hitzen serieetan ere eman daitezkeela dio. Hiruretatik itzulikatzea da

interes gutxieneko prozedura. Interferentziari dagokionez, esaten du modu asko daudela esaldi berdinari gainjartzen zaizkion bi esanahi independente emateko. Hor leudeke, ekibokoa, hitz jokoa.

Komedia klasikoaren baliabiderik gustukoena errepikapena dela dio. Efektu komikoa lortuko da «ideia baten adierazpen naturala tono desberdin batera aldatzen denean». Muturreko bi tono daude: irmoa eta lagunartekoa. Batetik bestera aldatzean, efektu komikorik handienak lortuko dira. Irmoa dena lagunarteko tonora aldatzen badugu *parodia* sortuko da. (Bergson: 2008 [1905]:90)

Transposizioaren baliabidea ere aipatzen du, eta horren barruan degradazioa eta exagerazioa egongo lirateke. Edo zintzoa ez den ideia bat zintzoa balitz bezala adieraztea. Adibide hau ematen digu, Gogol-en obra batean nagusi batek bere mendekoari esaten dionean: "Gehiegi lapurtzen duzu zure mailako funtzionario bat izateko".

Hirugarren atalean, izaeraren komikotasunaz hitz egiten du. Gizarte harremanetan zurruna izateak komikotasuna sortzen duela dio. *Ez hunkitzea* da benetako baldintza beharrezko bakarra komikotasuna sortzeko. Hiru baldintza aipatzen ditu: lehena **zurruntasuna** izango litzateke; bigarrena, gure arreta ekintzetara zuzendu beharrean, keinuetara zuzentzea; hirugarrena, **automatismoa** izango litzateke. **Distrazio** maila zenbat eta handiagoa izan, handiagoa izango da komikotasuna. **Arreta gabezia** hori, soziabilitaterik ezarekin nahasten da.

Izan ere, pertsonaia komikoa pertsonaia *tipo* bat da.

3.4.2. FREUDEN PLANTEAMENDUA

Freudek ere txisteei buruzko lan mardula egin zuen, eta bertan esaten du (1905:11) txistea aztertu zuten Jean Paul Richter eta hainbat filosoforentzat ere (Theodor Vischer, Kuno Fisher eta Theodor Lipps) txistea bigarren mailako aztergaia izan zela, komikotasunari buruz jardun baitziren. Berak horrela definitzen du:

> «Llamamos chiste, en general, a toda provocación consciente y habil de la comicidad, sea esta de la intuición o de la situación».

Egile horiek oinarrizkotzat jotzen dituzten ezaugarri horietan oinarrituz txisteen sailkapen bat egin nahi du Freudek, baliabide teknikoak eta txistea nola erabiltzen den kontuan izanik. Txistearen teknikari buruz harek egindako zenbait ohar ekarriko ditugu hona, gehiegi sakondu gabe, gure ikerketako materiala aztertzeko baliagarri izan daitekeelako. Txisteen teknikan murgiltzen da, txiste batekin irri egiten dugunean horretan pentsatzen ez dugula aitortu arren (1905:48):

> «Cuando uno ríe de buena gana con un chiste, no está precisamente en la mejor predisposición para investigar su técnica. Por eso depara algunas dificultades al orientarse en estos análisis».

Batetik dio, txistearen izaera ez zaiola pentsamenduari atxikitzen, forman bilatu behar dela, txistea adierazten den testuan berean. Horregatik garrantzi handia ematen dio txistearen hizkuntzaren formari. Txisteetan erabiltzen den hainbat teknikaren berri ematen digu, berak lortutako adibideetatik ateratakoak. Hemen laburbildu besterik ez ditugu egingo, gero gure corpuseko materiala aztertzean, azalpena gure bildumako eta bestelako adibideekin osatuko baitugu.

Tekniketako bat "kondentsazioarena" da, ordezkapenaren bidez hitz berria sortzen duena. Heine-ren alemanezko adibide bat ematen du[22] "familiär" eta "millionär " hitzekin "familionär "hitz mistoa sortzen baitu:

> «Y así, verdaderamente, señor doctor, ha querido Dios concederme toda su gracia; tomé asiento junto a Salomón Rothschild y él me trató como a uno de los suyos, por entero **famillonarmente**».

Kondentsazio bidez, hitz mistoa sortu ordez, beste teknika bat erabil daiteke: hitz batean aldaketa txiki bat sartzea, alegia. Adibide hau ematen du: "he viajado con el tête-à-bête" ("tête-à-tête" esan beharrean).

Txistearen laburtasunari buruz, mota jakin batekoa izan behar dela dio, prozesu jakin baten emaitza: aipatu ditugun ordezkapenezko egituraketek eragiten duen laburtasuna.

Zenbaitetan kondentsazio hori egiteko "homofoniaz" ere baliatzen da txistea, edo hitz baten "esanahi bikoitzaz". Homofoniaren adibide hau ematen du(1905:30): "Vous m'avez fait connaître un jeune homme roux et sot, mais non pas un Rousseau".

[22] *Reisebilder* III, II zatia, VIII. kapitulua.

Beste teknika bat hitz berak hartu eta horien ordena aldatzea besterik ez da. Aldaketa zenbat eta txikiagoa izan, eta ondorioz, esanahi anitz hori hitz berdinak erabiliz adierazi delako irudipena zenbat eta handiagoa izan, hobea izango da txistea bere alderdi teknikoei dagokionez. Horri "lotura bitxiaren" teknika esango dio (1905:35). Adibide hau ematen du: "Eifersucht (los celos) son un Leidenschaft (pasión) que con Eifer Bucht (celo busca) lo que Leiden schafft (hace padecer)".

"Hitz jokoak" izango lirateke esanahi bikoitzaren erakuskaririk gorenena. Horietan ez baita hitza bortxatzen, ez da bere silaba osagaietan banatzen, ez zaio aldaketarik egin behar… (1905:37) Adibide hau ematen du: "Esta sátira no habría sido tan mordaz si su autor hubiera tenido más para morder".

Freudek dio hitz jokoen barruan sexu-kutsua daukatenek beste atal bat osatzen dute, eta sexu-kutsu hori, esperientzia sexualarekin kontrajarrian jartzen du, izan ere, "ekibokoa" sortzea du helburu. Sexuaren esanahi hori ezkutatu egiten du, eta gerta liteke maliziarik gabeko pertsona batek txistea ez harrapatzea.

Beraz, gero azpisailetan banatuko baditu ere, hiru atal hauetan laburbiltzen ditu txistearen teknikak:

1. Kondentsazioa
2. Material beraren esanahi anitza
3. Esanahi bikoitza

Freudek dio aniztasun horrek nahasmena sor dezakela. Eta teknika horiek guztiak bi talde nagusitan bateratu daitezkeela uste du: lehen taldea (kondentsazioa) eta beste biak (material desberdinaren esanahi anitzean oinarritzen baitira). Freuden ustez, kondentsazioak kategoria gorena izaten jarraitzen du. Laburtzeko, edo "aurrezteko" joera nagusi ikusten baitu beste teknika guztien gainetik. Baina (1905:43) "adierazpenean egiten den laburtzapen edo aurrezpen orok ez du irrigarria izango denik esan nahi. Beraz, laburtzapen mota jakin bat izan behar du". Horri erantzuteko, txistearen teknika gehiago ezagutu beharra aipatzen du.

Horietako bat retruekanoa (calembourg) deitzen dena da, adierazpenaren teknikari exigentzia txikiena eskatzen dioenetakoa. Nahikoa da bi hitzek elkarri bi esanahien ebokazioa egitea, antzekotasunen bat dutelako, oharkabea ia. Izan daiteke

egiturazko antzekotasuna, errimaren baten antzerako asonantzia bat, kontsonante leherkarien multzoa, eta abar. Txiste fonetikoak ere deitu izan zaie. Adibidez: "Se ocupa más de la *botella* que de la *batalla*, prepara más la *panza* que la *lanza*". Hitz jokoak, hitzaren soinutik harantzago, hitzarekin berarekin jokatuko luke.

Beste teknika bat "desbideraketa" izango litzateke. Arreta esaldiaren beste elementu batera desbideratzearen ondorioz sortzen den irria. Txiste mota horren adibide bat ematen digu:

> «Gizon batek dirua uzten dio beste bati. Eta prestatu diona jatetxe batean ikusten du gero. Aurpegiratzen dio:
> -Nola? Nire dirua lortu eta gero izokina maionesarekin eskatzen duzu? Horretarako erabiltzen duzu nire dirua?
> -Ez dut ulertzen, dirurik ez dudanean, ezin dut izokina maionesarekin jan. Dirua dudanean, ez zait baimentzen izokina maionesarekin jatea. Eta orduan noiz jan dazaket nik izokina maionesarekin!»

Hori Freuden ustez txistea baino gehiago, "zinismoa" izango litzateke. Zinismoaren beste adibide bat ematen digu txiste honetan:

> «Un hombre muy inclinado a la bebida se gana el sustento en una pequeña ciudad dando clases. Poco a poco le conocen todos el vicio, lo cual hace que pierda la mayoría de sus alumnos. Encargan a un amigo quelo inste a corregirse: "Vea, usted podría conseguir muchísimas horas de clase en la ciudad con tal que dejase la bebida. Hágalo pues". –"Qué me propone usted? – es la indignada respuesta-. Yo doy clases para poder beber; si tengo que abandonar la bebida, ¿para qué querría conseguir clases?».

Txiste horretan "bitartekoak / azken helburua", "edan / eskolak lortu" harremanaren inbertsioa dago funtsean. Hori dela eta, puntu garrantzitsu bat azpimarratzen du: adierazten duen ideia horretan murriztutako adierazpen modu hori erabiltzen ez den unean, txistea desagertu egiten da. Beste modu honetara azalduta egongo balitz, ez luke horrenbeste graziarik izango:

«Qué disparate me propone usted? Para mí la bebida es lo principal, no las clases. Estas son para mí sólo un medio para poder seguir bebiendo».

Beraz, txistea adierazpenari lotuta dago benetan. Txistea adierazteko erabiltzen den testuaren mende dago.

Desplazamenduaren eta esanahi bikoitzaren teknikak desberdinak izan arren, zenbaitetan batera etor daitezke. Hori frogatzeko adibide hau ematen du:

«El casamentero ha asegurado al novio que el padre de la muchacha yo no está con vida. Tras los esponsales, se sabe que el padre todavía vive y expía una pena de prisión. El novio le hace reproches al casamentero. ”Y bueno –responde éste-; qué le he dicho yo? ¿Acaso eso es **vida**?»

Kasu horretan esanahi bikoitza, ”vida” hitzean dago, eta desplazamendua izango litzateke ”bizitza” ”heriotzaren” antonimotzat hartu ordez, ”hori ez da bizitza” esaldian duen esanahiarekin erabiltzea.

Freudek beste teknika bat ere aipatzen du (1905:54): “zentzugabekeria, astakeria, tontakeria”, eta txiste horien teknika azaltzen du: astakeria irrigarriaren atzean esanahi bat ezkutatzen da, eta esanahi horrek zentzugabekeriaren barruan, zentzugabekeria txiste bilakatzen du. Adibide hau ematen du:

> «Itzig ha tomado plaza en la artillería. Sin duda se trata de un mozo inteligente, pero es indócil y carece de interés por el servicio. Uno de sus jefes, que siente sinpatía por él, lo lleva aparte y le dice: ”Itzig, no nos sirves. Quiero darte un consejo: Cómpráte un cañón e independízate».

Txistean pentsatzeko modu normaletik “desbideraketaz” baliatzen da — desplazamendua eta zentzugabekeria — adierazpen irrigarria sortzeko teknika gisa. Adibide hau ematen du:

> «Un señor llega a una confitería y se hace despachar una torta; pero enseguida la devuelve y en su lugar pide un vasito de licor. Lo bebe y quiere alejarse sin haber pagado. El dueño del negocio lo retiene. “Qué quiere usted de mí?. Debe pagar el licor”. –“A cambio de él ya le he dado la torta”. – “Tampoco la ha pagado.- “Pero tampoco la he comido».

Txiste honen muina bezero argiak torta itzultzearen eta likorearen truke aldatzearen artean dagoen loturarik ezean bilatzen duen loturan dago.

Beste teknika bat “falaziarena” izango litzateke, sofisma baten bitartez falazia bat ezkutatu nahiko lukeena. Horretarako, ezkontzeko zalantzaz dagoen gizon bat konbentzitu nahian dabilen baten aipamena egiten du. Senargaiak banaka-banaka aipatzen ditu emakumearen akatsak, eta besteak banaka-banaka erantzuten die haren zalantzei, akats guztien batuketa egitera iritsi gabe.

Bergsonek (2008) bere liburuan aipatzen zuen moduan, Freudek ere “automatismoaren” (1905:62) teknika aipatzen du. Eta halaxe jarraitzen du beste

hainbat teknika zerrendatzen eta azaltzen: azkartasuna (erasoari erantzuten dion defentsa), batasuna, zeharkako aipamena…

4. METODOLOGIA

4.1. IKERGAIAREN EGOERA

Euskal literatura idatziaren parean, argitaratu eta paper euskarrian zabaldu den literaturaren parean, inguruko hizkuntzetan bezala, ahozko edo tradiziozko literatura deitu izan duguna garatu da. Ahozko literaturak ahotik belarrira eta belarritik ahorako bidea egin du eta egiten du, are eta norbaitek paperera ekarri eta bestelako difusio modu bat ematen ez dion bitartean.

Literaturaren historietan ahozko literaturari atalen bat eskaini izan zaio. Patri Urkizuk zuzendutakoak (2000: 69-70), adibidez, kontakizunei buruzko atal bat du eta horren barruan, irri kontakizunei tarte bat eskaintzen zaie:

> «Los chistes y anécdotas son abundantes en todas las literaturas populares y forman parte del sentido del humor de cada nación. La sal con la que se cocina la narración, puede ser más gruesa o más fina, por lo que también el resultado puede variar de color, de tono y de picante. Garibay (Mondragón, 1533-Madrid, 1599) en sus breves historietas aparece con un humor negro en el que no faltan reyes, damas de corte, cardenales, caballeros frailes, herreros o verdugos. (…)
>
> En los almanaques tanto del siglo XIX como del XX publicados a ambos lados del Pirineo había una sección clara dedicada a los chistes que podían ser de lo más diverso, y se llamaban historiak, istorio xaharrak, ixtorio bitxiak, izkirimiriak, xapladak… Y por su ligereza a la vez que su laconismo estas breves piezas se pueden considerar como un monumento de la oralidad y de la lengua cotidiana, rica en giros expresivos, refranes, etc.»

Ahozko literatura aztergai hartu zuen Lekuonaren liburuan (1982), literatur alderdiak aztertzeko orduan (besteak beste bertsoak, kopla zaharrak, dekorazio olerkiak…), arreta hitz neurtuetako inprobisazioan jartzen du: irudi poetikoen kohesio logikoa, irudien eta ideien mugimendu azkarra, artifizio erritmikoa… aipatzean esaterako.

Euskarazko prosazko kontagintzaren azterketak nahiko berriak dira eta batez ere kontakizun luzeetan eta ipuin miresgarrietan jarri dute arreta. Kontagintzari ere bertsoei, eta herri teatroari bezala, beren atalak eskaintzen zaizkion arren, argi esaten du Lekuonak berak, herri kontaera horren azterketan gehiago sakondu beharra dagoela (1982:237):

> «Halanik ere, herri-kontaera hauen literatur balioa ez da sistemaz aztertu eta neurtu. Kapitulu hau oraindik osatzeko dago ahozko euskal literaturan. (…) Kontalaritzak eta bertsolaritzak antza handia dute beren artean; baina ez zaio behar den arretarik jartzen lehenengoari (…) Zibilizazioaren aurrerabideari begiratzen badiogu, joera bikoitza nabarmentzen da literaturgintzan: herri literaturak eragin egiten dio literatura idatziari, eta alderantziz».

Ahozko literaturak gure gizartean eta kulturaren transmisioan izan duen garrantzia alde batera uztea, literaturaren historiari huts egitea izango litzateke. Hainbat folklorezale zeregin horretan aritu ziren mugaren bi aldeetan. Aurreko kapituluan aipatu ditugu Jose Miguel Barandiaran eta Resurrección María de Azkue bide-urratzaileek mugaren bi aldeetan etnologia eta antropologia arloetan egindako azterketak. Iparraldean ere atzerriko eta tokiko etnografoak eta literatur zaleak aritu ziren zeregin horretan: Wentwoth Webster, Cerquand, Mayi Ariztia, Laffite... Horiekin guztiekin biltzaileen zerrenda luze xamarra osa genezake, euskararen eremua handiegia ez dela kontuan izanik. Lan horietan guztietan bilketa lanak lehentasuna izan du, eta tesi honetan kontakizun horiek ikuspegi literariotik aztertzeko urratsean sakondu nahi izan dugu, kontakizunok beren testuinguruan uler ditzagun.

Lan horietaz baliatuz, eta gure corpusetik ateratako materialarekin, literatur ikuspegitik azterketaren bat egiteko pausoa eman beharra zegoela iruditzen zitzaigun. Bi pauso eman dira beraz: guk bildutako testigantzetatik, kontakizunak (gehienak irrigarriak) atera eta horiekin corpus bat osatu dugu, gero literaturaren ikuspegitik dituen bereizgarriak aztertzeko. Alegia, corpusa osatutakoan, hori deskribatu dugu. Estrukturalistek, XX. mende hasieran egin zuten moduan, literatur zientzia beste zientzietatik bereizi eta literatur testua bere horretan deskribatzea da asmoa: zer ezaugarri dituzten irri kontakizunek, umorea nola islatzen den horietan, zein irri baliabide erabiltzen diren…

Irriaren adierazpenak aldatzen joan dira eta garai bakoitzeko ezaugarriei egokitzen joan zaizkie. Ikusi ditugu umorearen inguruan egindako hainbat teorizazio lan eta horietaz baliatuko gara gure bildumako irri kontakizunen irri baliabideak aztertzeko.

4.2. HIPOTESIAK

Tesi honen 1. kapituluan hainbat galdera planteatu ditugu, gure corpuseko materiala hobeto ulertzeko bidean eta ikerketa lana bideratzen lagunduko zigutelakoan. Horietan oinarrituz, **lehen hipotesi bat** egin dezakegu: gure bildumako irri kontakizunak tradizio baten barruan sartzen direla, alegia, ez direla gertakari isolatuak. Irri kontakizuna diogunean, "laburtasuna, atalen batasuna eta umorea" bateratzen dituen kontakizunaz ari gara, gaiak askotarikoak direlarik: izan daitezke tuntunen ipuinak ("numskull tales") , iruzurgileen ipuinak ("trickster tales") , ipuin gordinak ("obscene tales")…

Hori dela eta, ahozko euskal literaturaren historietan, irri kontakizun horiek beren tokia izan behar lukete. Gure bildumako zenbait kontakizun euskarazko beste bilduma batzuetan ere aurkitzen ditugu, eta beste zenbait kontakizunek beste hizkuntza batzuetan bildutakoekin baliokidetasunak dituzte. Ahozko tradizioak berezkoa duenez, eremu batetik bestera eta hizkuntza batetik bestera antzeko baliokideak aurki ditzakegu. Baliokide horietako batzuk, gertuko bildumetan dauzkagu, euskal arloan, zein gaztelaniaren eta frantsesaren herri literatura adierazpenetan. Adibidez, katexima galdetzen zaion haurraren kontakizunak; gor bati buruzko irri kontakizunak...

Baina era berean, antzeko irri kontakizunak aurreko mendeetako literaturan idatziz jasota ere badaudela ikusi dugu. Antzeko gaiak eta baliabideak erabiliko dituzte Erdi Aroko eta Errenazimenduko kontakizun liburuek ere: apaizen azpikeriak, lizunkeriak, eta batez ere Bajtinek Rabelaisen lanari buruz ari dela "gorputzaren eta materiala denaren beheko alderdiak" deitu zituena: kaka egitea, pixa egitea…

Gure corpuseko irri kontakizunetako batzuk sorkuntza berrikoak izan arren, beste batzuek bilduma zaharragoetan lekukotasunak izanik, tradiziozkotzat jo ditzakegu. Tradiziozko kontakizunek dituzten gaien artean, "gai gordinekoek" multzo handi bat osatuko lukete. Tokian tokiko berezitasunetara egokituta, behin eta berriz errepikatzen dira antzeko gaiak herri desberdinetako tradizioetan. Horrek **bigarren hipotesira**, eramaten gaitu: euskaraz "gai gordinak" dituzten herri literaturako kontakizunak ia batere argitaratu ez izanaren arrazoia bilatzera.

Euskaraz "gai gordinak" dituzten herri literatur kontakizunak ia batere argitaratu ez badira, bi arrazoi egon daitezkeela uste dugu. Lehena, biltzaile-kontalarien arteko harremanean dagoela uste dugu. Bigarrena, irriari buruzko ikerketek izan duen toki marginala izango litzateke.

Kontuan izan behar dugu euskal arloan, herri tradizioaren biltzaileak eta kontalariak zeintzuk izan diren, eta horri erreparatzea nahikoa da bildumetan islatu denaz ohartzeko. Biltzailea-kontalaria eragina bi norabidetan eman dela esan genezake: kontakizunen biltzaile nagusietako asko elizgizonak izanik (Barandiaran, Azkue, Laffite…) beren bilketa lanak egitean, irri kontakizun "gordinez" galdetu ere egingo ez zutela pentsa dezakegu, arreta bestelako mito, errito eta irri kontakizun tolesgabeagoetan jarriko zutelako. Baina, baita alderantzizko arrazoiagatik ere. Kontalariek elizgizonak galdez zetozkiela ikusirik, zenbait gai ahotan hartzera ere ez zirelako ausartuko.

Ildo horretatik joango lirateke, Ayats Abeyà-ren adierazpenak (2010:87-89) Kataluniako kantutegiak osatzerakoan biltzailearen subjektibotasunaz hitz egiten zuenean:

> «Tenía que decidir qué merecía el esfuerzo y la estabilización escrita, y qué se dejaba esfumar en la memoria. Estas decisiones son claves para entender cómo se han construido los cancioneros". (…) "Cuando en el siglo XIX los primeros colectores se enfrentan al caudal de la oralidad cantada, inmediatamente toman conciencia de que en los cantos se expresan una serie de argumentos, de historias y de expresiones que les desagradan o, sencillamente, que les repugnan. De inmediato califican estos cantos de "canciones vulgares", entendiendo el vulgo como aquello desagradable y envilecido. Podemos resumir las temáticas que se rechazan en una serie de categorías bastante evidentes: las descripciones de sexo y de erotismo; las narraciones que pueden conllevar interpretaciones de anticlericalismo o de modelos de comportamientos sociales no admitidos por la moral hegemónica(…)»

Kantutegien biltzaileez dioen gauza berbera esan dezakegu kontu eta ipuinen bilketan jardun zirenez ere. Izan ere, bilketa lana egitean, zertxobait xaxatuta, gai "gordin" horiek zeinen erraz ateratzen ziren ikusirik, barra-barra eta bestelako kontakizunak bezain hedatuta, edo gehiago daudela esango genuke.

Iritzi berekoa da Simonsen (2003-2004) esaten duenean ikerlarien aldetik baztertuta egon direla. Berak dio zabaldutako ustea dela, ipuin miresgarriak eta mitoak aintzinako garaitan kontatzen zirela; irri kontakizunak, berriz, garai modernoko

lekukotasunak direla. Baina ez dago horrekin ados. Eta ikertu, gutxiago ikertu badira oso sail heteregeneoa osatzen dutelako dela, eta irriaren gaia gai marginala izan delako:

> «Les contes facétieux constituent de loin le groupe de contes populaires numériquement le plus important. Il est vrai que dans les recueils de contes imprimés, ils ne sont généralement qu'un appendice aux contes merveilleux, qui se taillent la part du lio. Mais ceci reflète les goûts et les préjugés des collecteurs et de leur époque, et non la pratique du contage. D'ailleurs, pendant tout le 19ème siècle et une bonne partie du 20ème siècle, les contes populaires les plus grivois n'étaient pas publiés du tout dans les recueils pour le grand public, mais seulement dans des collections confidentielles et des journaux spécialisés, tels que Kryptadia[23], pour le seul bénéfice des chercheurs, qui étaient censés les étudier, mais non s'en amuser. Par ailleurs, de nombreux contes facétieux n'ont sans doute jamais été recueillis, car la simple présence d'un collecteur a dû inévitablement exercer une auto-censure préventive, et empêché bien des conteurs de dévoiler l'ensemble de leur répertoire. Mais il y a tout lieu de croire que contes et anecdotes facétieux ont à toutes les époques constitué la plus grande part des récits par lesquels les hommes se sont distraits les uns les autres. On présume parfois, il est vrai, que dans les temps anciens, les gens racontaient surtout des mythes et des contes merveilleux, longs, complexes et sérieux, mais qu'à l'époque moderne le contage est censé se réduire aux récits réalistes et facétieux. Cette présomption n'est pas valide. Elle reflète une conception très démodée de l'évolution culturelle, et qui est invalidée par tous les témoignages de l'ethnographie sur les sociétés que pratiquent à la fois le contage de mythes, de contes facétieux et de contes merveilleux.
>
> Par ailleurs, le contes facétieux n'ont pas suscité le même intérêt de la part des chercheurs que les contes merveilleux, loin de là. C'est d'abord parce qu'ils constituent un groupe très hétérogène, et donc déconcertant à manier. Le catalogue international Aarne-Thompson[24] range sous l'appellation "Facéties et Anecdotes" des contes longs et complexes tels que Unibos. Le paysan pauvre et le paysan riche (AT 1535), Le Maître Voleur (AT 1525) ou Jean le Sot (AT 1696), et des très courtes facéties à peine narratives, qui se réduisent presque à de simples mots d'esprit. C'est aussi parce que, tant que les recherches sur le conte se sont cantonnées dans la quête impossible des origines, comme ce fut le cas pendant tout le 19ème siècle, les contes merveilleux ont été considérés comme un genre plus noble que, et donc leur étude comme plus importante. Et d'une façon générale, l'importance culturelle du rire a été, jusque très récemment, presque entièrement ingnorée».[sic]

[23] Kryptadia, recueil de documents secrets pour servir à l'étude des traditions populaires, 12 bolumen in-12, Heilbronn 1883-1889, Paris 1997-1905.
[24] Antti Aarne eta Stith Thompson, The Types of the Folk-Tale. A Classification an Bibliography. Helsinki [1928], édition revue et corrigée 1961.

Hirugarren hipotesi gisa esan dezakegu, XX. mende hasieran umoreari buruzko gogoetak egin zituzten Bergson eta Freud pentsalarien teorizazioak irakurrita, gure kontakizunetako irriaren adierazpen moduetan islatuta aurkitzen ditugula.

Bergsonek irriari eta komikotasunari buruzko entsegua idatzi zuen 1900ean, eta hainbat berralgitarapen izan ditu liburuak. Liburu horretan hainbat ideia aipatzen ditu irria pizten duten faktoreak arakatzen diharduela. Labur-labur esanda, hauek izango lirateke nagusienak:

Gizatiarra izatea: Ez dago komikorik ezer gizon-emakumeengandik kanpora, *gizatiarra* denetik kanpora. Animalia batez irri egin dezakegu, baina kasu horretan, beti izango da gizon edo emakumeren baten jarreraren bat ohartarazi dugulako bertan.

Sentiberatasunik eza : Beste sintoma aipagarri bat sentiberatasunik eza da. Izan ere irriaren etsairik handiena emozioa dela dio.

Inkontzientea izatea : Irria kanpoko zerbaitek eragiten du, ustekabeko zerbait da. Efektu komikoren bat kausa zehatz batetik eratortzen bada, kausa zenbat eta naturalagoa izan, efektua komikoagoa irudituko zaigu.

Automatismoa eta zurruntasuna: Gorputzean *tentsioa* eta *elastikotasuna*, bi indar osagarri, falta badira, irria sortzen duten mota guztietako istripuak, gaixotasunak…sortzen dira.

Arreta gabezia: Automatismoak, zurruntasunak eta hartutako eta mantendutako ohitura batek irria eragin diezaguke. Baina efektu horren intentsitatea areagotzen da, ezaugarri horien atzean kausa sakon bat ikusten dugunean, pertsonaren *arreta gabezia.*

Mekanikotasuna: Gorputzaren jarrera, keinu eta mugimenduek irria eragiten digutela, gorputz horrek mekaniko hutsa den zerbaitean pentsarazten digutenean.

Errepikapena: Egoera/esaldi bat behin eta berriz errepikatzea, irrigarri gerta daiteke.

Itzulikatzea: Gertakariak itzulikatuta edo atzekoz aurrera erakusten dizkigun edozein egoera.

Serieen interferentzia (edo antzeko esanahia duen *quid pro cuo*): aldi berean bi esanahi edo interpretazio desberdin izan ditzakeen egoera bat irrigarri gerta daiteke.

Freudek 1905ean txistea aztergai hartuta, irriaren eta inkontzientearen arteko lotura aztertu zuen liburu batean. Txisteen sailkapen bat egiten zuen bertan, txisteen teknikak kontuan izanik, eta hiru talde nagusi osatu zituen:

1- Kondentsazioa

2- Material beraren esanahi anitza

3- Adiera bikoitza

Gure ikerketa lan honetako irri kontakizunak aztertzeko, bai Bergsonek eta bai Freudek egindako teorizazioak egokiak direla eta gure ikerketara aplikatu ahal direla iruditzen zaigu. Horietan irria sortzen duten mekanismoen teknikaz eta irriaren izaeraz hainbat gogoeta egiten dira. Gure ikerketa osatzen duen corpusa bereizgarri horietara egokitzen dela frogatzen saiatuko gara hurrengo kapituluan.

4.3. IKERKETA MOTA

Hernandez Sampierik eta bestek diote (1991) ikerketa motak sailkatzeko, ikerketaren helburua eta prozedura zein izan diren hartzen dela kontuan[25]. Sailkapen horietan oinarrituz, tesi lan honetan bi ikerketa mota landu direla esan daiteke.

Batetik, esan dezakegu gure ikerketaren zati garrantzitsu bat **datu-bilketa lana** izan dela. Izan ere, han-hor-hemen barreiatutako kontakizunak, orokorrean, eta irri kontakizunak bereziki bilduz eta aztertuz, ekarpena egin nahi izan diogu corpus horiei.

Irri kontakizunek, ikusi dugunez, askotariko gaiak izan ditzakete, eta horietako bat, irri kontakizun "gordinen" sailak osatuko luke. Kontakizun horiek, jendartean barra-barra kontatu eta herritar askok ezagutzen dituzten arren, euskarazko bilketetan

[25] HERNÁNDEZ SAMPIERI R, FERNÁNDEZ COLLADO C, BAPTISTA LUCIO P (1991): *Metodología de la investigación*, Mcgraw-hill, México.

baztertuta egon dira eta ikerlariek entzun badituzte, ez dituzte ia papereratu. Beraz, euskal arloan, gutxi landutakoa izango genuke. Gure asmoa ikergai horren ikuspegi orokorra ematea izan da. Horretarako, galdeketaren teknika erabiliz aztarnak bilatu behar izan dira, eremu jakin batean.

Informatzaileekin elkarrizketak egiten hasi ahala, ohartu ginen euskarazko liburuetan jasota dagoen kontakizun motaz gain, bazela jaso beharreko beste kontakizun mota bat ere, irri eragilea, beste edozein baino hedatuagoa. Euskarazko bildumetan jaso gabeko zenbait gai bildu ahal izan ditugu horrela: sexu-kutsua duten ixtorioak; apaiezez eta indarrean zen moralaz irri egiten duten kontuak; senar-emazteen arteko engainuei buruzko kontakizunak...

Informatzaileei lagunartean kontatzen ziren ixtorioez galdetzean, gehien-gehienetan irria eragingo zuen ixtorioren bat etorriko zitzaien burura. Bereziki harrigarri gertatzen da gai "gordineko" ixtorioak, "arruntak" edo "ez pullitak" ere izendatzen dituztenak entzutea. Horrek zer pentsatua eman zigun, eta irria eragiten zuten ixtorio horiek biltzeak ere bazuela bere balioa pentsarazi. Irria gai eta motibo askok sor dezakete, eta guk bildutako kontakizunetan ere halaxe ikus daiteke.

Beste alde batetik, bildutako informazioarekin **ikerketa deskriptiboa** ere egin beharra zegoen. Horregatik, errealitateko zati edo gertakari bati buruz eskuragarri daukagun informazioa bateratu eta aztertu egin nahi izan dugu. Azterketa deskriptiboek aztergaia nolakoa den eta nola garatzen den aztertzeko balio dute (Hernandez Sampieri, 1991:62):

> "La investigación descriptiva, en comparación con la naturaleza poco estructurada de los estudios exploratorios, requiere considerable conocimiento del área que se investiga para formular las preguntas especifícas que busca responder".

Kontuan izan behar dugu, Molina Hebe-k dioenari jarraituz (2004: 230), literaturaren zientzia *testuen zientzia* dela. Ikerketa honetan ahoz jasotako materiala aurkezten badugu ere, idatziz jarri dugun momentutik testu bilakatu da, eta bi alderditatik aztertuko dugu, ahozko sorkuntza den aldetik, hori biltzeak dauzkan baldintzekin, eta aldi berean, baita testuak diren aldetik ere, literatur testuak.

Horregatik dio Molina Hebek (2004:231) literatur zientzia errusiar formalistekin hasi zela, testu bat zerk bihurtzen duen literario definitzen saiatu zirenean, hau da,

testua teoria jakin batetik abiatuz objektu gisa ikusi zutenean, eta teoria horrekin bat etorriz testuak aztertzeko metodo kritiko bat jarri zutenean. Izan ere, estrukturalistak literatur zientzia beste zientzia batzuetatik bereizten saiatu ziren (psikologia, soziologia…), azterketa literario hutsa egiteko asmoarekin.

Todorov-ek (2004 [1968] 23-44) XIX. mendeko positibismoaren aldebiko ikuspegia hartu zuen literatur adierazpen bat interpretatzearen eta deskribatzearen arteko aldea azaltzeko. Interpretatzeko lana, subjektiboa, arbitrarioa da; deskribatzeko lana, berriz, zehatza eta objektiboa, "zientzia" bat. "Zientzia" dioenean testu jakin bat zein lege orokorren ondorio den ezarri nahi du. Eta berak "Poetika" proposatzen du, literatur ikasketen barruan interpretazioaren eta zientziaren arteko simetria hausteko, literaturaren ikuspegi "abstraktua" eta "barnekoa" bateratzeko. Beraz, Poetika literatur agerpenaren singularitatea osatzen duen ezaugarri abstraktuaz arduratzen da: literariotasunaz. Eta abiapuntutzat zeinua duten ikerketa guztiak bateratzen ditu:

> «En este sentido participa la poética del proyecto semiótico general, que unifica todas las investigaciones cuyo punto de partido es el signo».

Beraz, bi metodo bateratuko lirateke (Moreno Torres eta Carvajal Córdoba 2009:24):

> «Al método analítico se une el inductivo. Esto quiere decir que al estructuralista le interesa analizar un corpus de obras literarias con la idea de encontrar las leyes generales que las rigen. En palabras de Todorov, se trata de identificar la literariedad, entendiéndose por ello la búsqueda del sistema en el discurso literario»

Gure ikerketaren kasuan ere, metodo analitiko eta induktiboak jarraituko ditugu. Gure ikerketa analitikoa izango da, corpuseko materiala osatzen duen osotasunetik atalak banatuko ditugulako, eta irri gaia duten horiek indibidualki aztertuko ditugulako. Era berean, metodo induktiboa ere jarraituko dugu, literatur testuak azaltzeko, baliozkotzat jotzen diren definizioetatik abiatuko baikara gure corpuseko materialaren zati garrantzitsuena osatzen duten irri kontakizunen azterketaz ondorioak ateratzeko.

4.4. IKERKETAREN DISEINUA

Ikerketa lan honetan erabili den metodologia azaltzeko, ikerketa mota zein den izan behar dugu kontuan. Ahozko corpus batetik abiatzen garenez, bi urrats nagusi azaldu behar ditugu.

Lehen urratsa, bilketa bera egiteko erabilitako metodologia izango litzateke. Horretarako hainbat alderdi jorratu ditugu: zer populazio eta lagin erabili den erabaki dugu, informatzaileak aukeratu ditugu, galdeketetan zein ikerketa teknika erabili den azaldu dugu, ikerketa lanerako zein tresna eta baliabide erabili diren agertu dugu… hau da, ikerketa literarioaren aurreko urratsean, datu bilketa nola egin den aztertu dugu. Tesi honetako bigarren liburukian, bilketa-lanaren emaitza, hau da, corpusa aurkeztuko dugu.

Bigarren urratsa, datu horien deskripzioa eta interpretazioa izango litzateke. Bildutako materiala azaltzeko, jasotako corpusaren ikerketa deskriptiboa egingo dugu lehenik. Hainbat ikerlarik generoari buruz egindako definizio eta azalpenetan oinarrituz, datuak atal batean edo bestean sailkatzeko jarraitu diren iripizdeak azalduko ditugu. Hau da, aztertuko dugu zein ezaugarri dituzten kontakizunek izendapen jakin bat jasotzeko. Horretarako kontakizunen estrukturari eta gaiei begiratu diegu, eta patroi batzuk zehazten saiatu gara. Aldi berean, arrazoitu dugu zeintzuk izendatu ditugun tradiziozkotzat; katalogo tipologikoetan edo inguruan egindako beste sailkapen batzuetan baliokideak ote dituzten; eta baliokide ezagunik aurkitu ez dugunean ere, halaxe adierazi dugu. Datu horien laburpena eranskinetan gehitu dugun "sailkapen taulan" kontsulta daiteke.

Era berean, gure corpuseko kontakizunen **alderdi semantikoaz** zenbait xehetasun eman ditugu. Testuen esanahia aztertzeko, *Analyse semiotique des textes* liburuaz J. Mateos-ek egindako gaztelaniazko egokitzapenaz (1982 [1979]) baliatu gara.

Alderdi semantikoarekin batera, gure corpusaren zati handi batean, irria eragitea xede duten kontakizunak daudenez, **irriaren ezaugarrien inguruko gogoeta eta azterketa egin dugu**: irria zerk eragiten duen eta hori nola islatzen den guk jasotako narrazioetan. Horretarako, XX. mende hasierako Bergsonek eta Freudek irriaren adierazpenaren teknikez esandakoak baliatu ditugu.

Azkenik, eta irriaren gaiari lotuta, multzo bat osatuko duten **kontakizun "gordinak"** aztertu ditugu. Guk jasotakoek erabiltzen dituzten baliabideak eta ezaugarriak eta beste literaturetako kontakizunekin dituzten antzekotasunak aztertu ditugu.

Stith Thompsonek ipuin folklorikoaren azterketaz egindako lan sakonean (1992 [1946]: 471 eta hurrengoak) ipuin folklorikoaren ikertzaileek ipuin folklorikoa *zer* den bakarrik ez, *nola* eta *zergatik* sortzen den jakin nahi izaten dutela dio, eta munduko herrialdez herrialde ipuin folklorikoaren jatorria landu eta atzera bota diren teorien berri ematen digu sakonki eta zehatz.

Kontakizunen jatorrian sakontzea gure tesiaren mugetatik harantzago doa. Hala ere, beste hizkuntza batzuetako literaturei erreparatuz, antzeko gaiak eta egiturak dituzten kontakizunak aztertzean eta horien tradizionaltasunean sakontzean, zenbait kontakizunek Errenazimendu garaitik behintzat badatozen arrastoak dituztela ohartuko gara. Horregatik, lehen esan bezala, bildutako materiala deskribatzen eta interpretatzen jardun garen arren, ikuspegi soziala ahaztu gabe, gizartearen gauzapen literarioak diren heinean, kontakizun horiek **ikuspegi sozialetik izan duten tokia** ere aipatu behar dugula uste dugu. Bajtin-ek berak (1994 [1928]:86) horrela esan zuen:

> "Porque si la literatura es un fenómeno social, el metodo formal que desconoce y niega su naturaleza social, resultaría, ante todo, inadecuado a la literatura, daría interpretaciones y definiciones falsas justamente de sus rasgos específicos".

Izan ere, formalistei gertakari extraliterarioak baztertu izana leporatu bazitzaien ere, ez zuten literaturaren ikuspegi historikoa alde batera utzi. Honela dio Eichenbaum-ek (1962:56):

> «The facts of the past have meanings for us that differentiate them and place them, invariably and inevitably, in a system under the sign of contemporary problems».

Gure bilketa lanean, arrazoi batengatik baino gehiagogatik, euskarazko bestelako bildumetan bazter utzi diren gaiak aurki ditzakegunez (sexu kutsuko ixtorioak, apezen inguruko kontakizun irrigarriak…), bazterketa horien arrazoien inguruan aipamenak egin ditugu. Euskarazko bestelako bildumetan badiogu, gai horien bazterketa literatura guztien joera izan delako da eta ez gurea bakarrik. Afanasievek bildutako ipuinekin aparte egindako bilduma (1991) ikustea besterik ez dago. Horregatik, gure

corpusa ikuspegi historikotik euskal literaturaren eta ahozko euskal literaturako lanen testuinguruan kokatzen saiatu gara.

4.5. DATUEN BILKETA

Tesi lan honetako corpusa osatzeko datu bilketa egin behar izan dugu, eta zeregin horrek denbora-tarte luzea eskatu digu. Lehen grabaketak 2002an egin genituen, tesia egiteko asmoa oraindik erabaki gabe zegoenean. Kontalari on bat bilatzeak (Azkaingo Adrien Irazoki), zeregin horretan sakontzetik lan polita atera zitekeela pentsarazi zigun.

Horregatik, literaturaz zenbait ikasgai egin eta gero, gure literatura aberastu lezakeen kontakizun mota bat hedatuta zegoela ikusi, eta hori bilduta, ekarpenen bat egin zitekeela pentsatu genuen. Horretarako eremu bat mugatu beharra zegoen eta iparraldera mugatzea erabaki genuen, arrazoi desberdinak tarteko: lehen arrazoia izan liteke, beharbada, bestaldeko ipuin biltzaile esanguratsuen kontakizunez gozatu izana, Cerquand, Webster, Mayi Ariztia... Kontakizun horiek herritarren ahotik atera, eta kontatu bezala jaso zirela jakiteak bultzatu gintuen iparraldean kokatzera ikerketa.

Aldi berean, eremu hori ezezagunagoa izanik guretzat, erronka handiagoa izan zitekeela iruditu zitzaigun. Zenbaitetan, bakarrik, beste zenbaitetan lagun edo senideren baten laguntza ere izan genuen, asteburu-pasak, edo joan-etorriak aprobetxatzeko.

Datuak bildu eta bildu, zenbait emaitza interesgarri atera zirela ohartuta, kontakizunen ikerketan sakontzeko baliagarri izan zitezkeela pentsatu genuen. Horrek lan handia eskatzen zuen, kanpoko lana ez ezik liburutegiko lana ere egiteko baitzegoen. Eta batez ere, denbora eskatzen zuen, eta dirua. Batera eta bestera ibiltzeak gastuak baitzekartzan (gasolina zela, lo egiteko lekua, jana…) eta asteburu batzuetako zereginera mugatuta, lana amaitu gabe uzteko arriskua ikusi genuen. Horregatik, denboraldi bat bilketa lana tokian bertan egitea erabaki genuen. Behin iparraldean egonlekua bilatuta, horrek aukera eman zigun, tokian bertako bizimodua, neurri batean, ezagutzeko.

Lehenik Mauleko Sü-Azia elkarteari zein asmo genuen eta Omize-gaineko (Abens de haute) familia batekin jarri ginen harremanetan (Lacroix-Etxeberri). Bigarren

egonaldia Urdiñarbeko Gene Salle-ren familiaren etxean izan zen. Bi tokietan lagundu ziguten zenbait kontalarirengana iristen, ezagunen bitartez eta bertakoa izateak ematen duen konfiantza eta gertutasunarekin.

Azkenik, Baxe Nafarroa aldean hirugarren egonaldi bat egin genuen. Apartamentu txiki bat alokatuta Donibane Garazi erdian. Handik, Behe Nafarroatik, bide erdian ginen batera eta bestera joateko, lekukoren bat bilatuz gero. Etxe horretan hiru-lau hilabete egin genituen, askoz gehiago ateratzerik ez zegoela erabaki eta bilketa lana amaitutzat eman arte.

Behin bilketa egin eta gero, datu horiek guztiak ordenatu, transkribatu, antolatu eta aztertzea izan da ikerketa lan honetako bigarren zatia. Baina hori beste urrats bat da, eta lehenik bilketa zein eremutan egin den eta kontalariak nola hautatu ditugun aipatuko dugu. Behin kontalariarekin elkartu eta gero, jaso nahi genituen datuak lortzeko jarraitu dugun estrategiaz ere hitz egingo dugu Eta azkenik, datuak biltzeko erabilitako baliabideez, horiek dituzten alde on eta txarrekin.

4.5.1. POPULAZIOA ETA LAGINA

Bilketa lan hau Ipar Euskal Herriko Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan egin da batez ere. Baina Zuberoarekin mugakide den Eskiulan, Biarnon eta Donibane Garazirekin lotura estua izan arren, bizilekua Luzaiden duen informatzaile bana ere izan ditugu kontalari.

Iparraldea deitzen dugunak Biarnorekin batera Pirinio Atlantikoak departamendua osatzen du (64 zenbakiduna), Akitania eskualdearen barnean. Ipar Euskal Herriak honako hauek ditu mugakide: Landak iparraldean, Kantauri Itsasoa mendebaldean, Hego Euskal Herria hegoaldean eta Biarno ekialdean.

Ipar Euskal Herriko biztanleriaren ezaugarririk adierazgarriena biztanleriaren banaketa desorekatua da, lurraldearen beraren oreka handirik gabeko garapen orokorraren isla zuzena dena. Lapurdik hartzen ditu Ipar Euskal Herriko ia biztanle denak: 859 km²-rekin, 205.000 biztanle inguru ditu, horietako gehienak BAB distritoan. Lapurdi baino handiagoa da Nafarroa Beherea −1.318 km² ditu, Gipuzkoaren antzekoa−, baina 29.000 biztanle inguru baino ez ditu. Zuberoa Ipar Euskal Herriko

lurralde txikiena da, 785 km²-ko eremua du, baina bera da orobat biztanle gutxien duena, 16.000 lagun inguru. Estrukturaltzat jo daitezkeen arazoak gutxi arindu dira azken hamarkadan Ipar Euskal Herrian: kostaldeko eta barnealdeko lurraldeen garapen desorekatua, hainbat eskualderen kinka sozioekonomiko eta demografiko larria eta euskararen gainbehera.

Kostaldeko eta barnealdeko eskualdeen arteko desoreka gero eta handiagoa da alor ekonomikoan. Lapurdin turismoak jarraitzen du lehen diru-iturria izaten, baina industria ere asko garatu da. Oro har, asko dibertsifikatu da ekonomia Lapurdin azken urteotan, eta Hego Euskal Herriko hainbat sektorerekin ere integrazio maila handi samarra lortu du. Zuberoan eta Nafarroa Beherean, aldiz, nekazaritzari eta abeltzaintzari eusten diote gehienbat, nahiz eta industria ere hasi den garatzen han-hemenka. Eskualde horien garapenerako garrantzi berezia izan dezake laborantzari lotutako industria berriak sortzeak -esaterako, gaztagintzaren ingurukoak-, baita kostaldetik barrualdera zabaldu den turismoak ere, nahiz eta hori jarduera osagarria izan oraindik. Nolanahi ere, langabezia tasak handiagoak dira Ipar Euskal Herrian Frantziako gainerako eskualdeetan baino. Hori dela eta, oraindik ere gazte askok beren herriak utzi behar dituzte eta bizimodua beste nonbait aurkitu, edota barnealdetik kostaldera abiatu, eta, hortaz, ezin izan da aldatu Ipar Euskal Herriko ohiko emigrazioa.

Egoera linguistikoari dagokionez, 2011ko Soziolinguistika Inkestaren (2013) datuek diotenez, Iparraldean 65 urtetik gorakoen artean dago elebidunen ehunekorik handiena, eta adinak behera egin ahala, behera egiten du elebidunen ehunekoak. Hala ere, iparraldeko gazteen artean, 2011ko datuen arabera, elebidunen kopuruak gora egin du zertxobait. Iparraldean egindako egonaldian herri batetik bestera eta etxe batetik bestera, batekin eta bestearekin hizketan denetariko kasuak ikusi ditugu euskararen aldeko jarrerari dagokionez eta horrek euskararen gainbehera hori erabatekoa eta hedatua ez dela pentsarazten digu.

Ikerketa lan hau egiteko adineko pertsonengana jo badut, ez da bakarrik hizkuntza haiek darabiltelako egokien, hizkuntzarik aberatsena beraiena delako. Era berean, ahozkotasunerako joera ere nabarmen handiagoa da adin batetik gorakoen artean. Joera hori ez da bertako ezaugarria bakarrik, fenomeno orokorra da. Gazteen

artean, memorizatzeko joera ere txikiagoa da, eta denbora gutxiago eskaintzen zaio elkarrizketa lasaiari.

J.M. Barandiaran kontakizun bilketan aritu zen garaian, oraindik ere baziren aintzinako mito eta errito asko herritarren pentsaeratik desagertzen joan dira, gizartea sekularizatzen joan den heinean. Laminez edo bestelako pertsonaia mitologikoez galdetzean (herensugeak, basajauna…) nabarmena zelako ez zutela horretan sinesten, baten batek txikitan kontakizun horiek arretaz entzun eta goitik behera sinesten zituela aitortu arren. Hala ere, bilketa egin dugun urteetan, oraindik ere kontakizun eta kantuak partekatzeko ohitura bizirik zegoen herritar batzuen arteko bilkuretan: bazkari baten inguruan, Donibane Garaziko merkatu egunaren aitzakian, tabernan…

Gertakari folklorikoak ez dira gizarte osoan hedatzen, baina oraindik ere giza-talde batzuen adierazpide dira. Julio Caro Barojak (2006 [1989] :24) berak zioen, gizarte batean, gizabanako batzuek arreta osoa folklore adierazpen jakin bati jarriko badiote ere, beste batzuentzat erabat desezaguna izan daitekeela. Beraz, gertakari folkorikoek sistema heteregeneoa osatuko luketela:

> «Estimo que hay que reaccionar fuertemente contra quienes nos dan a entender que los hechos que estudiamos bajo la denominación de folklóricos constituyen una especie de sistema homogéneo y trabado en la conciencia de cada uno de los individuos de aquella sociedad dentro de la que se registran; en primer lugar porque para unos no tienen tanto relieve como para otros, y así mientras hay personas que son a modos de verdaderas enciclopedias de usos, creencias, supersticiones, etc., otros no se han ocupado demasiado de acumular nociones de esta índole, se dejan llevar por los demás, de suerte que lo importante es observar no tanto el caso aislado de conciencia como lo que hace la suma de personas que admiten una creencia, se guían por una superstición o celebran una costumbre cuando llega la ocasión».

Euskalkien aberastasuna jasotzen ere saiatu gara. Iparraldeko ereduak ez ezik, horiekin mugakide diren herrietako eredu batzuk ere aurkitu ditugu. Kasuren batean euskarazko kontakizunak frantsesezkoekin nahastea ere gertatu zaigu, euskarazko kontakizunak bilatzen genituela azaldu arren; zenbaitetan hegoaldetik gentozela jakinda, beren diskurtsoa hegoaldeko hizkerara egokitu ere egin dute. Guztira 46 informatzaileren informazioa baliatu dut corpusa osatzeko. Gehiagorengana jo arren, zenbaitetan ezin izan dugu erabili han jasotakoa, bilatzen genuen horretara egokitzen ez zelako, edo gurekin elkarrizketatzeari uko egin diotelako, arrazoi desberdinak tarteko.

Gizarte anitz horren baitan, batean eta bestean galdetuz hainbat pertsonarengana iristea lortu dugu. Horiekin izandako elkarrizketetatik, ikerketarako baliagarri izan zitezkeen batzuk hautatu ditugu, lanerako interesgarri izango zirelakoan. Horietako baten bat, 2010ean egindako azken elkarrizketetatik zendua dela ere jakin dugu.

Jarraian informatzaileen zerrenda gehitu dugu. Kontalariaren izenaren aurretik elkarrizketatu zenbakia daramala (E1, E2, E3…:), gero corpusean eta sailkapen taulan identifikatuta egon zitezen:

E1: Adrien Iratzoki: bi alditan bisitatu genuen Azkainen, lehena 2002an 70 urte zituenean; bigarrena 2008an, 77 urte zituenean. Lanbidez arotza, bere alabaren bidez (Bernadette Luro) egin genuen kontaktua, Azkaingo ikastolako zuzendari lanetan zebilena. Oso kontalari argia, ixtorioak bere aitarengandik ikasi zituela eta oso gogoko izanik ongi atxiki zituela aitortu zigun.

E2: Joxe Manuel Eliceche: Bidarraiko mendian elkarrizketatu genuen, emaztearekin bizi zen etxean. Haren ezagutza Peio Jorajuria bidarraitarrari eskerrak egin nuen. Peiok Bidarrairi buruzko liburua (1998) egina dauka, eta besteak beste, bertako leiendak ere jasotzen ditu bertan. Berak aurkeztu eta eraman gintuen lekukoarengana. 80 urte zituen orduan, eta lanbidez artzaina eta gaztagilea zen.

E3: Dominique (Txomin) Esponda: Ahetzen duen bizilekuan elkarrizketatu genuen, 1937an Jaxun jaiotakoa bada ere. Bertsolaria izanik beste bertsolari askorekin harremanetan egona, kontu asko ikasi zituen ibilera horietan.

E4: Michel Chilope: Urdiñarbeko plazan duen etxean elkarrizketatu genuen. Patxada handiko gizona, luzaz egon ginen kontu-kontari. Lanbidez laborari izandakoa, erretretan zegoen elkarrizketatu genuenean.

E5: Mixel Echecopar eta bere ama: Mixel irakaslea eta musikari da. Zuberoako Gotainen amarengana eraman gintuen haur jostaketa batzuk konda zitzan.

E6: Julien Barneix: Larrainen bizi zen emaztearekin, Karrikabürüa etxean. Etxearen izenez ere ezaguna. Laboraria.

E7: Piera Hiribarren: Aiherran elkarrizketatu genuen, sortzez Irisarrikoa, Ospitaleakoa bazen ere. André Martinonen bidez iritsi nintzen harengana. Laboraria. 80 urtekoa, Berrueta etxean bizi zen, Beltzuntzeko gaztelu parean.

E8: Jean Pierre Curuchet: Heletan elkarrizketatu genuen, Iturburua etxean. Orduan 73 urte zituen. Lanbidez laboraria, Herrian eta Sud Ouest egunkarian ere idazten zuen Heletako kronika. Oso kontalari trebea eta alaia, beste kontalari batzurengana iristen lagundu zidan.

E9: Eñaut Etxamendi: Mithiriñan (Beyrie sur Joyeuse) duen bizilekuan, Donapaleu ondoan elkarrizketatu genuen (Harandokia etxean). Sortzez Esterenzubikoa den arren. 70 urte zituen orduan eta irakasle izana eta idazlea lanbidez.

E10: Erramun Hardoy: 61 urtekoa. Domintxaineko Garat auzoko Bellegardia etxean bizi zen.

E11: Urbain Augoutborde: Lichose herrian bizi zen, Sarrikotapetik, hurbil. Laborari izandakoa. Lehenago Xiberoboko Botzak egindako kasete batean ipuin kontari ibili zen, Jaqui Barcose, Jean Pierre Beocaray eta Roger Idiartekin batera.

E12: Aguer Clement: Zalgizeko Cocosteguy etxean bizi zen 61 urteko laboraria.

E13: Thomá Bustanoby: Sohutan bizi zen, sortzen Larrainekoa izan arren. 77 urteko gizona, mahasturi egin zuen lan. Kontuak esateaz gain, Larraineko Albadakak kantatzen ibilitakoa.

E14: Jean Castillon : Eskuilako Maisonave etxean elkartu ginen. 70 urte zituen eta laborari izandakoa zen.

E15: Dominique Epherre : "Sukot" ezizenez ezaguna, 52 urteko gizon honek Atharratzeko Credit Agricole-n egiten zuen lan. Altzürüküko Epherre ostatua bere familiarena zen eta han elkartu ginen.

E16: Jaqui Barcose: Lanbidez herri langile izandakoa, orain erretretan zen. Urdiñarbekoa izanik ere Maulen elkarrizketatu genuen, herriko plazan zegoen denda baten atzealdean.

E17: Jean Pierre Beocaray: 70 urtekoa. Laborari izana, erretretan zen. Sohutan, Bizkay etxean bizi bazen ere Maulen elkarrizketatu genuen, herriko plazan zegoen denda baten atzealdean.

E18: Marcel Queheille: Zalgizeko herrian elkarrizketatu nuen, 80 urte zituela. Txirrindulari izandakoa, Frantziako Tourrean etapa bat irabaztera ere iritsi zen. Orduan oraindik ere bizikletan ibiltzen zen Zuberoako bazter batetik bestera.

E19 : Manex Azkarren: Elkarrizketatu genuenean 90 urte zituen. Laborari izandakoa, Armendaritzeko Salaberria etxean bizi zen. Jean Pierre Curuchetekin batera joan nintzen haren etxera, eta denok elkarrekin ginela elkarrizketatu genuen.

E20: Pierre Popol Dalgalarrondo: 84 urteko gizona, irakasle aritutakoa zen. Elkarrizketatu nuenean, Sohutako Muxurrenborda etxean bizi zen emaztearekin.

E21: Jean Bidart: Ibarlako Loiola etxean bizi zen gizon hau. Laborari izandakoa, erretretan zen. 75 urtekoa.

E22: Pierrot Erramouspe: Sortzez Aldudarra, Baigorrin bizi zen. 83 urte zituen elkarrizketatu nuenean. Lan desberdin asko egin zituela esan zidan. Mutil ibilia, gero Estatu Batuetako Wyoming-en 6 urte egin zituen. Alduden bide bazterrak, ubideak…garbitzen ere lan egin zuen. 63 urteak arte lan egin zuela zioen.

E23: Juje Etchebarne: Atharratzen Karrikaberri etxean elkarrizketatu genuen. Sortzez Gamerekoa. 74 urte zituen.

E24: Charles Hoqui: Hoqui Jaureguizahar izenez ezaguna, Zalgizeko Jauregizahar etxean bizi da. 60 urteko laboraria.

E25: Piarres Trounday: Ortzaizeko eliza aintzinean elkartu nintzen berarekin. Ortzaizen etxea izan arren, Bordelen bizi da, eta hango euskal etxearen sorkuntzan lagundu zuen. Baditu liburu batzuk idatziak.

E26: Jean Louis Davant: Zuberoako Ürrustoi-Larrebilen elkarrizketatu genuen, Aizegorria etxean. Idazlea eta antzerkigilea ere bada.

E27: Jean Michel Bedaxagar: 55 urtekoa. Lanbidez arotza, Urdiñarben bizi eta lan egiten du. Dantzari eta musika-jolea ere bada. Pastoralak egin izan ditu eta

euskarazko balada eta kontakizunen arloan idazteko denbora ateratzeko erretreta hartzeko zain zegoela esan zigun.

E28: Piarres Petoteguy: Jutsiko Behokia etxaldean elkarrizketatu nuen. Laborari izandakoa, 75 urte zituen elkarrizketatu nuenean. Algeriako gerlan egotea egokitu zitzaion eta horrek sakon markatu zuen.

E29: Alexandre Bordagaray: Gabadin bizi zen, Donapaleu ondoan, sortzez Pagolakoa izan arren. 75 urte zituen orduan eta elkarrizketatu eta hilabete gutxira zendu zen. Lanbidez laborari izana, musika talde batean kantatzen zuen bere seme Xoxo-rekin batera.

E30: Michel Mendibil: Alexandre Bordagarayren bizilaguna, Gabadin bizi zen, sortzez Mehainekoa bazen ere. Biak elkarrekin elkarrizketatu genituen. Lanbidez laboraria izandakoa.

E31: Alexandre Etxeberri eta emaztea, Veronica: 80 urteko gizona, laborari izandakoa zen. Emaztearekin bizi zen Arrantsusiko Larrondoa etxean.

E32: Robert Uhart: Aiherrako Andre Martinonen bidez ezagutu genuen eta harekin batera joan ginen Panpoxenea etxera, Aiherran. 73 urtekoa, laborari izandakoa.

E33: Junes Cazenave Harigile: 82 urteko apeza. Artikuluak eta libururen bat eginak ditu euskazko kontakizunen inguruan. Altzain elkarrizketatu genuen. Harek emandako informazioa, nagusiki bere artikuluetan jasota daukana da.

E34: Gaxuxa Etchelet: Oztibarren Jutsi herrian bizi zen Arnabi izeneko baserrian. Bertan ostatuan hartzen zuten jendea, Gitte d'hotes moduan baitzutan jarria baserria. Baserrian bere familiakoek egiten zuten lan eta arditegi handi bat zuten besteak beste.

E35: Pierre Lako: Jutsi herrikoa hau ere, herriko plazan bizi zen. Lanbidez laborari izandakoa.

E36: Andre Martinon eta Aña Mari Martinon: Aiherrako Kapotenea etxean elkarrizketatu genituen, Hazparne aldean. Laborari izandakoak, kontaktu ugari egiteko lagungarri izan ziren.

E37: Jean Baptiste Heguy; E38: Joseph Mariezcurrena; E39: Pierre Hargindegi: Iholdiko "Goxa Leku" adinekoen egoitzan elkarrizketatu nituen. Bertan bizi ziren hiru lagunak.

E40: Dominique Iriberri "Xoko": Laborari izandakoa, Lasa herrian bizi zen, Donibane Garazin elkarrizketatu genuen arren, Paris tabernan. Gazteagotan astolasterretan ibiliak zirela esan eta argazkiak erakutsi zizkigun.

E41: Jean Michel Pochulu: Domintxaineko gizona (Domezain Berraute), eliza aintzinean elkartu ginen. Harek eraman ninduen gero, Ibarlako Jean Bidartengana. Biek elkarrekin kontatu zituzten ixtorioak.

E42: Graxiana Paris (Pierre Parisen emaztea): Donibane Garaziko Paris ostatuko emaztea. Tabernan egiten zuen lan. Bertan ixtorio asko entzun zituela esan zidan, eta zenbait gogoan hartu zituela.

E43: Pierre Etchebarne eta emaztea: Altzürüküko Lohitzunia etxean elkarrizketatu genituen Ahusky bidean. Emaztearekin batera. Mendiko benta izan zuten lantoki.

E44: Paul Iriart: Sarrikota gainean elkarrizketatu genuen. Ana Mari Etxeberrik lagundu zidan elkarrizketan. Laborari izandakoa.

E45:Ankel Ainciburu: Luzaideko Pecocheta auzoko bere etxean egin genion elkarrizketa 78 urteko gizon honi. Astelehenero Garaziko merkatuan elkartzen zen beste gizon talde batekin eta sarritan kontuak elkarri kontatzen zizkiotela aitortu zidan. Hainbat ixtorio xahar ezagutzen zituen eta baita kontalari on batzuk ere.

E46: Etchebarne: Barkoxen elkarrizketatu genuen. Lanbidez laborari izandakoa.

Lekuko gehienak gizonezkoak dira, ez hala nahi izan genuelako; "kontakizunez" galdetzean, eta zer esanik ez, "irri kontakizunen kontalariez" galdetzean, normalean gizonezkoengana bideratzen gintuzten. Aurkitu genituen emakumezko kontalarien artean, batek ostatu batean egiten zuen lan eta kontakizun horiek ostatuan kontu kontari zebiltzanengandik ikasi zituela esan zigun.

Beste emakumezko kontalariak gîte bat zuen, eta bertan ikasi zituela esan zigun. Beste kasu batzuetan, gizonezko kontalariarengana iritsi eta etxeko emakumeak

ere ezagutzen zituen kontuak. Beraz, esan dezakegu, gure bilduman kontalari gehienak gizonezkoak izan arren, horrek ez duela esan nahi emakumezkoek ixtorioak ezagutzen ez zituztenik.

4.5.2. BILKETARAKO LAN METODOA

Informatzaileak edo datu-iturri izango ziren kontalariak bilatzeko, bide bat baino gehiago erabili dugu eta horretan lagungarri izan zaigu ikerketarako eremu zabalegia ez hautatzea. Era berean, herri txikiek jendea elkar ezagutzeko ematen duten aukeraz baliatu gara. Informatzaileak bilatzeko orduan, herrietara jo dugu, hiri handiagoetara beharrean, batez ere herrietan bizilagunek elkar ezagutzen dutelako eta batengana edo bestearangana jotzeko arrastoak errazago aurkitzea zegoelako. Batzuetan oso garbi esaten ziguten honakok edo halakok balio zuela ixtorio kontaketarako, eta kasu horietan, gutxitan saiatu ginen haiekin zuzenean hitz egiten, horrela ezezkoa jasotzea errazago izango baitzen. Horrelakoetan, bertakoei eskatzen genien lehen kontaktu bat egiteko informatzailearekin eta hartuko ote gintuen galdetzea.

Beste zenbaitetan "erreferentziazko pertsona batekin" harremanetan jartzea lortzen genuen. Erreferentziazko pertsona herria ondo ezagutzen duen norbaiti esaten diogu, normalean informatzaileak baino dexente gazteagoa. Hori da, adibidez, Bidarraiko kasua. Bertan Peio Jorajuria-rekin harremanetan jarri eta hark bideratu gintuen herriko zenbait adinekoengana, eta zenbait kasutan, baita haien etxera lagundu ere, mendi puntako zenbait baserri ez baitziren aurkierrazak. Jorajuriaren kasuan, Bidarrairi buruzko liburu bat idatzia zuenez (1998), ondo ezagutzen zituen bertako txoko guztiak.

Donibane Garazi aldean, beste erreferentziazko pertsona bat izan genuen, elkarrizketatuen artean agertzen ez dena. Zaro herrian bizi zen Ttale Duret, eta hasierako elkarrizketak egiteko oso lagungarri izan zitzaigun.

Zuberoan egindako egonaldian, ostatuz hartu gintuzten bi familietako kideak ere erreferentziazkoak izan ziren, Ana Mari Etxeberri irakaslea Omizegainen eta Gene Salle Urdiñarben.

Erreferentziazko pertsona bat, azkenean, kontalari izatea ere gertatu zitzaidan. Horixe da Aiherrako Andre Martinonen kasua, adibidez, edo Domintxaineko Jean Michel Pochulurena, beste kontalariren batzuei laguntza egin eta agerian geratu baitzen beraiek ere ezagutzen zituztela zenbait "irri ixtorio".

Askotan gertatu da, era berean, kontalari batek beste batengana bideratzea, behin edo beste nork bidaltzen zituen ez esatea eskatu baziguten ere.

Kontakizunak biltzeko "giro" bat beharrezkoa zela esan zigun kontalari batek baino gehiagok, alegia, txikia izanik ere, kamera baten aurrean kontu-kontari aritzea, bortxatua iruditzen zitzaiela. Bergsonek (2008 [1900]:14) ere esana zuen irriari buruz idatzitako lanean, komikotasuna sortzeko beharrezkoa zela giro bat:

> « Lo cómico para producir su efecto, exige algo así como una momentánea anestesia del corazón. Se dirige a la inteligencia pura. Pero esa inteligencia ha de quedar en contacto con otras inteligencias (…) no se saborearía lo cómico si se sintiera uno aislado. (…) La risa oculta una segunda intención de acuerdo, casi diría de complicidad, con otros sujetos, reales o imaginarios, que rían ».

Zoritxarrez, nire baliabideekin ezin nuen "giro" hori sortu beti, inoren laguntzarekin ez bazen. Horregatik, adibidez, eskertzekoa izan zen Aiherrako Andre Martinonen laguntza, bere etxean bazkari bat antolatzeko prest agertu baitzen, kontalariren bat edo beste bertara gonbidatuta.

Kasu gehienetan, ordea, horrelako giro aproposik "eraiki" ezin eta beste modu batera saiatu ginen giro hori sortzen, kontu kontaketaren jokoa biren arteko elkarrizketa bilakatuz. Galdera-erantzunetan oinarritzen den inkesta modu hutsa, ez zen beti eraginkorra bilatzen genuen helbururako. Komikotasunak "elkarreraginaren" beharra du, eta hori ez da sortzen inolaz ere batek galderak egin eta besteak horiei erantzunez. Oihartzun baten aurrean bagina bezala, irriak irria dakar, eta kontakizun bat edo txiste bat dioenak, oihartzun baten moduan, irri-karkaila behar du erantzun. Eta are gehiago, joko horretan jarraituko bada, beste kontakizun irrigarri bat entzuteko beharra du, horrek bakarrik bultzatuko baitu entzundakoari beste batekin erantzutera.

Aurrekoa kontuan izanik, informatzaileekin elkartutakoan jarraitu genuen inkesta modua, ondo ikasitako kontakizun multzo bat izan da oinarrian. Inkestagintzaz baliatu gara informazioa biltzeko eta informazio iturriak lehen mailakoak izan dira. **Elkarrizketa luzeez** baliatu gara. Orokorrean, nahiko erraz jakinarazi diegu zer bilatzen genuen, eta horren inguruan esatekorik zeukana erraz

konturatu da elkarrizketaren norabideaz. **Inkestak aurrez aurrekoak** izan dira beraz. Ezin liteke bestela egin. Gaiak aurrez aurreko harremana eskatzen du, zenbaitetan elkarrizketa bideratu egin behar izan delako.

Inkestaren egiturari dagokionez, ixtorioak, normalean, ez dira bat-batean burura etortzen, eta horretarako, ondo memorizatutako kontakizun eredu batzuk prestatuta eramaten genituen. Adibideak, beste informatzaileek emandakoetatik atera, eta katenbegiak bezala, bata bestearen atzetik etortzen ziren.

Inkestaren hasieran, gaia eta ikerketaren helburuak erraz azaltzen genizkien, eta grabaketak gero haiek esandakoa etxean berriz entzun ahal izateko egiten genituela, zabalpen handirik emateko asmorik gabe. Lehenbizi, guk jartzen genuen adibideren bat, eta segituan erne, arretaz entzuten zuten esatera gindoazena. Kontalari ona denak ixtorioak entzutea oso gogoko izaten baitu. Batzuetan ezagutzen zuten guk kontatutakoa, baina horrek ez zuen inporta. Garrantzitsuena lehen aipatutako "giro" hori sortzea zen.

Behin konfiantza giro hori sortuta, gaia bideratzen saiatzen ginen, eta galderaren bat egiten ausartu. Adibidez: ezagutzen al duzu astoei buruzko ixtoriorik? Bada bat kontatzen duena…eta apez eta gelariei buruzko ixtoriorik? Hau kontatu zidaten honako tokian…

Beraz, esan dezaket, itxuraz inkesta egituratu bat jarraitu ez dela ematen duen arren, uste baino prestatuagoa zegoela, eta gakoa zenbait ixtorio on memorizatu eta argi eta labur kontatzen jakitean zegoela.

Behin elkarrizketa amaitu ondoren, grabaketaren kopiak egin ditugu. Elkarrizketa ordu luze horietatik kontakizunak agertzen diren zatietara mugatu gara, ez ditugu kontakizunetatik kanporako elkarrizketarik transkribatu. Kontakizun horiek sailkatu egin ditugu, eta elkarrizketatuaren zenbakiari marra batez berezitako zenbaki batekin izendatu. Adibidez: E2-15 (2 zenbakidun kontalariak kontatutako 15. kontakizuna izango litzateke).

Corpusaren lagungarri, eta begi kolpe batez, corpusaren laburpen modura, sailkapen taula bat osatu dugu, eranskinetan gehitutakoa. Sailkapen taula hori sei zutabetan banatu dugu.

Lehen zutabean, "zerrenda" izenekoan, batetik hasita, zenbaki bat eman diogu kontakizun bakoitzari, zerrenda baten modura. Kontakizun beraren aldaerak direnek zenbaki bera eramango dute.

Bigarren zutabean, "kontakizuna" izenburua daramanean, kontakizunaren identifikazioa errazago egiteko, elkarriztatua zein den identifikatzen duen E letrari elkarriztatu zenbakia gehitu diogu: E1, E2…, zenbagarren kontakizuna duen adierazten duen zenbakiarekin batera, corpuseko identifikazioan daraman berdina.

Hirugarren zutabean, "izenburua" deitzen den horretan, kontakizunaren gaiari begiratuta, asmatutako izenburu bat gehitu diogu kontakizun bakoitzari. Oso kasu gutxitan eman digu kontalariak kontatzera zihoanaren izenburua. Kasu horietan kontalariak esandakoa mantendu dugu. Kontalari batek baino gehiagok kontakizun berdina kontatu digutenean, izenburu berdina jarrio diogu (II, III…) gehituta.

Laugarren zutabeari "deskribapena" izenburua jarri diogu eta hori ikerketa lana errazteko egin dugu batez ere. Bertan, kontakizunaren gaia laburtzen da. Corpusaren azalpena egitean, behin eta berriz corpusera jo behar ez izateko egin dugu batez ere, corpusa luzeegi gertatzen baitzen. Kontakizuna, "arrazoin" bat edo oso txiste labur bat zenean, derrigorrean ia testu osoa, edo testu osoa jarri behar izan dugu, beren laburtasunean, osotasuna zen irria eragiten zuen gakoa edo muina.

Bosgarren zutabea, "baliokideak eta oharrak" delakoan, zenbaitetan, baliokideren bat duela jakin dugu, kontakizun liburuen irakurketatik aterata, Aarne Thomposen sailkapenean agertzen direlako, edo gure corpuseko beste lekuren batean ere agertzen direlako. Kasu horietan adierazi egin dugu. Zutabe hori hutsik utzi dugu zenbait kasutan, baliokiderik aurkitu ez dugulako... haur jolasei, edo bertso sorta bati buruz ari garenean, adibidez. Bestetik, hizkuntza aldetik adierazgarriak irudi zaizkigun zenbait esapide edo hitz ere zutabe horretan jaso ditugu.

Seigarren eta azken zutabean, "sailkapena" delakoan, zein kontakizun mota den jarri dugu: errealista, ipuin miresgarria, leienda, ateraldi edo arrazoina, haur jolasa edo txistea.

4.5.3. TRANSKRIPZIOEN INGURUKO AZALPENAK

Ahozko jardunaren transkripzioa egitea lan luze eta zehatza da. Kontuz, arreta handiz eta ahozko jardunari ahalik eta fidelkienik egin nahi izatea, ikerketaren helburu bilakatu ahal da. Gure lan honetan, transkripzioaz haratago, kontakizun hauen alderdi literarioari begiratu nahi izan diogu. Batez ere, irriaren gaia aztertu nahi izan dugu, gurean gutxi landuta zegoela iruditzen zitzaigulako eta interesgarriagoa egiten zaigulako alderdi literarioa, fonetiko hutsa baino. Lan honen azken helburua ez da, beraz, transkripzio fonetikoa egitea izan, eta transkripzioak ahalik eta egokien azaltzen buru-belarri saiatu bagara ere, ez da transkripzio fonetikoa lanaren jomuga izan, material horren azterketa literarioa baino.

Izan ere, transkripzio lan hau bideo batzuetan oinarritzen da, eta lehen iturriak hor daude, edozein zalantza argitu nahi izanez gero. Hori bai, kontalarien hitzak ahalik eta fidelkienik jaso nahi izan ditugu, esanahian eragin lezakeen akats larririk egin gabe.

Azterketa fonetikoei eman zaien garrantziaz ohartu izan dira ahozko corpusak aztertu dituzten zenbait ikertzaile. Jakobsonek berak bilketa lanetan transkripzioari garrantzi handia eman ziola zioen, idazketarik eta ortografiarik ez duten hizkuntzen kasuan batez ere. Honela adierazi zuen (2004):

> «Les langues sur lesquelles les linguistes de terrain travaillent sont souvent des langues « rares », « en danger » ou « minoritaires ». En fait, il s'agit de langues souvent sans tradition d'écriture, parlées par peu de locuteurs, dans des endroits où ce sont d'autres langues qui sont utilisées par les administrations, les écoles, les médias, etc. Le problème de la transcription est alors ici central, contrairement aux corpus sur les langues qui possèdent écriture et orthographe».

Lehen biltzaileak euskarazko ahozko jarduna ikertzen hasi zirenetik, euskararen egoera asko aldatu da. Euskara batua sortu eta garatu da, eta euskara batuak euskalkietatik edan du beren lekua egiteko ahozko nahiz idatzizko jardunetan. Euskalkien forma batua ere landu da, eta euskalkien hiztegiak eta idazmoldeak beren lekua egiten joan dira. Zuberera idazteko jarraibideak ezarri zituen Euskaltzaindiak, esaterako. Bizkaierazko hiztegiak ere egin dira, bertako formei dagokien lekua eginez.

Transkripzioak egiterakoan, Barandiaranek egin zuen moduan, entzundakoaren adierazpena ohiko letraz adierazi dugu. Letraz, entzun bezala adierazi dugu, edozeinek ulertzeko moduan. Ez gara fonetikaren hotsak erabiltzen

saiatu, batetik asko ilunduko lukeelako testuen ulerkuntza irakurle arruntarentzat, eta gainera, iparraldeko euskalkiak eta zuberera batez ere, nahiko ulergaitzak gertatzen baitira hegoaldeko irakurlearentzat, irakurketa bera ere zailtzen hasteko. Corpusean, hala ere, hiztegi aldetik, ulergaitzak gerta zitezkeela iruditu zaizkigun formak oin oharretan azaldu ditugu.

Simoni-Aurembou eta bestek diotenari jarraituz (1992:97), esan dezakegu ahozkoa idatziz jartzerakoan, idatzizko testu bihurtzen dela. Eta ahozkoaren gramatika bat egitea paradoxa hutsa izango zela. Hori dela eta, gure kasuan, gure ustez egokiena zen moduan egin dugu ahozkoaren transkribaketa, arau zorrotz eta betibatekorik ez dagoela ulertuz:

> «Oui, d'ailleurs pourquoi voit-on si mal la différence entre l'oral et l'écrit ? Parce que nous avons en général accès à l'oral sous forme d'écrit, c'est-à-dire transcrit. Et on oublie que la transcription de l'oral ne permet pas de travailler sur l'oral. Une fois qu'on a écrit de l'oral, c'est de l'écrit ! et la spécificité de l'écrit, c'est d'être de la langue déjà représentée.(...)
>
> « Y a-t-il une grammaire de l'oral ? ». On a admis qu'il y avait des problèmes d'intonation, des lexiques, dans les patois, qui n'étaient pas relevés, des faits de pragmatique, mais on n'a pas démontré qu'il y avait une grammaire de l'oral. Les termes eux-mêmes sont paradoxaux : «gramma » signifie la lettre, la grammaire par définition se soutient de l'écrit. Il faudrait se justifier d'écrire une grammaire de l'oral dès lors qu'il y a contradiction dans les termes».

Izan ere, azterketa literarioa egin nahi badugu, testuetan oinarritu behar dugu, beharrezkoa da idatzizko euskarri bat izatea, ahozkoa askotarikoa eta anitza baita (1992:102) :

> «Pourquoi a-t-on focalisé sur l'écrit ? Parce qu'il est moins nombreux que l'oral. L'extrême problème de l'oral, c'est qu'il est partout, il est à l'infini. C'est parce qu'il y a trop d'oral qu'on ne peut pas le conserver. Le problème, c'est la profusion».

Hala ere, ahozko jarduna idatzira pasatu dugunean, ahozko jardunaren ñabardurak agerian geratzea nahi badugu, hainbat alderdi izan behar dira kontuan. **Loturei** dagokionez, euskara batuaren idatzizko arauak jarraituko ditugu, haiek esaten baitigute nola irakurri edo ahoskatu behar den idatzitakoa (Zubimendi, 1993:9). Alegia, denok dakigu, hots jakin batzuk bi hitzen arteko zubi direnean, batera ahoskatzen ditugula, eta ez dugu, beraz, beharrezkoa ikusi idazkerara pasatzea, irakurleak, ahoskatzen den moduan irakurriko duela ulertzen baitugu. Adibidez, ez zion → /etzion/ ahoskatuko genuke.

H mutuari dagokionez, lapurteraz eta behe nafarreraz /h/ soinu mutua da, eta idazkeran baizik ez da adierazten. Guk "h" grafiak jarri egin ditugu, ahoskatzen ez badira ere. Beste kontu bat da, zuberareran kasua, euskalki horretan, "h"-ak ozenak baitira:

IDAZKERA	AHOSKERA
Ahula /bahitu	a-u-la /ba-i-tu (lapurteraz eta behe nafarreraz)
	a-hu-la /ba-hi-tu (zubereraz)

Iparraldeko euskaran, bustidura ez da automatikoa, ahoskerari dagokio. Bustidura ahoskatzen denean hala adierazi dugu. Bestetik zubereraz, beste euskalkitan ez ditugun /ü/hotsaz gain, bokal sudurkariak ahoskatzen dituzte: /ã/, /õ/, /ĩ/… Horiek ere, oso nabarmenak egin zaizkigunean transkribatu ditugu.

4.5.4. DATUAK BILTZEKO TRESNAK ETA FIDAGARRITASUNA

Grabaketak bideo kameraz egin ditugu, eta beraz ikus-entzunezko materiala dago, transkripzioen oinarri, eta horietara jo daiteke edozein kontsulta egin behar izanez gero. Izan ere, transkripzioa ahalik eta fidagarriena eta zehatzena egiten saiatuta ere, ahozko jardunetik idatzizkora xehetasunak galtzen dira, hala nola, keinuak, intonazioa… batez ere forma laburrei, txisteei, edo irri-kontakizunei gagozkionean. Horietan, beste kontakizunetan baino gehiago, funtsezkoak izan daitezke zenbaitetan kontalarien keinu, intonazio, eta hizketa erritmoak.

Descamps-ek (2006) gogoeta hori egin zuen, aro digitalaren garaian irudiak daukan garrantzia eta zabalpena kontuan izanik, entzutezko material hutsarekin konformatu beharra eskasa iruditzen zitzaiolako:

> «Faut-il en rester au magnétophone alors que l'image animée est désormais omniprésente ? N'est-il pas temps d'ajouter l'image au son et de passer à la *parole filmée* ? Pourquoi se contenter du son alors que l'audiovisuel numérique semble offrir désormais des horizons illimités en matière de transmission et de diffusion ? »

Izan ere, irudia gure bizitzako alor guztietara hedatu da, eta gure ohituretan finkatuta dago (Descamps, 2006:17):

> «La première est le constat de l'omniprésence de l'écran et de l'image animée dans notre vie quotidienne, professionnelle ou de loisir : la télévision, le cinéma, le camescope à usage familial, l'écran d'ordinateur, Internet, les produits multimédia».

Grabaketak egiten hasterakoan, funtsezkoa iruditu zitzaigun irudia ere jasotzea, kontalari bat baino gehiago, bideo kamera ateratzean, harritu eta urduritu ere egin bazen ere. Gure estrategia, une horietan, bideo kameraz ahaztu behar zutela esatea zen, ez zela inon erakusteko, eta hitz egindakoa, gero etxean berriz entzun ahal izateko zela. Bideo kamera, txikia izanik, zenbait kasutan, han egongo ez balitz bezala jokatzen zutela iruditu zitzaigun, ezertarako ezkutatu gabe. Beste kontalari batzuk, berriz, larritu egin ziren.

Lehen aipatu dugun moduan, komikotasunak « giro » bat eskatzen du, lasaitasuna, elkarregina eta lotsarik gabe jardun beharra, eta horretan ez du laguntzen grabatzen ari zaizkizula jakiteak. Hala ere, inongo momentutan ez genuen baldintza hori ezkutatu, begien aurrean ikusi baitzuten nire kamera. Kontalariren batek, lehenik entseatu egin nahi zuela ere esan zidan, grabatu egingo nuela jakitean.

Hemen jasotako grabaketak, erabilera pertsonalerako dira beraz, eta bestelako hedapenik izatea nahi izango balitz, kontalarien baimena beharko litzateke, edota haien senideen oniritzia. Frantzian, 1970eko legea oso zorrotza da horretan. Halaxe gogorarazten digute Simoni-Aurembou eta bestek (1992):

> «La loi du 17 juillet 1970 est très stricte. Elle rappelle le droit qu'a le témoin sur sa voix et sur son image. Je vous la lis :
> Sera puni quiconque aura volontairement porté atteinte à l'intimité de la vie privée d'autrui :
> 1. en écoutant, enregistrant ou transmettant au moyen d'un appareil quelconque des paroles prononcées dans un lieu privé par une personne sans le consentement de celle-ci ;
> 2. en fixant ou transmettant au moyen d'un appareil quelconque l'image d'une personne se trouvant dans un lieu privé sans le consentemente celle-ci.
> Sera puni quiconque aura sciemment conservé, porté ou volontairement laissé porter à la connaissance du public ou d'un tiers, ou utilisé, publiquement ou non, tout enregistrement ou document obtenu à l'aide d'un des faits prévus à cet article. »

Lehenik bideoak ikusi eta pasarte erabilgarrien transkripzioa egin dugu. Elkarrizketak zenbait kasutan luze joan zirenez gero, grabaketa ordu asko entzun behar izan dira, eta horietatik interesatzen zitzaiguna atera dugu, kontakizunetara bakarrik mugatzeko. Bilketa egiteko erabilitako metodologian, kontalariengana iristeko

eta haiengan eragiteko erabilitako estrategien berri eman da, eta dena grabatuta egon arren, corpusera kontakizun hutsak ekarri dira.

Kasuren batean, kontalariak hitzen bat edo hitz multzoren bat beharrik gabe errepikatzen zuela iruditu bazaigu, eta kontakizuna iluntzen bazuen, transkripzioetan behin bakarrik jarri dugu, baina, bestela, transkripzioak ahalik eta fidelenak egiten saiatu gara. Azkuek berak, *Euskalerriaren Yakintza* liburuan aitortu zuen datuak txukundu egin zituela. Berriki jardun diren biltzaileek, ordea, ahozkotasunaren garrantziaz konturatuta, bere horretan jaso dituzte lekukoen hitzak. J.M. Etxeberriak transkripzio "literarioago" baten ondoan, transkripzio fonetikoa jartzea hautatu zuen. Beraz, esan dezakegu, bilketa berriek garrantzi handia eman diotela fidagarritasunari. Nafarroa erdalduneko kontakizunak aztertu zituen Alfredo Asiain, bere zehaztasunean, kontalarien keinu eta hotsak deskribatzeraino iritsi zen bere tesiko corpusaren deskripzioan.

Bideoz jasotako informazio hori kontalarien arabera, lehenik, eta eta kontakizun motaren arabera sailkatu da gero. Ondoren, hainbat atal eratu dira: errealistak (apezenak, senar-emazteei buruzkoak, gordinak...), ipuin miresgarriak, leiendak... Atal bakoitzean, aldaera bat baino gehiago aurki daiteke; hala denean, bakoitzean kontalaria zein den adierazi da.

4.6. DATUEN DESKRIPZIOA ETA AZTERKETA

Lan honetako bigarren urratsa, gure corpusean jasotako datuak deskribatu eta aztertzea izan da, corpusetik ateratako adibideez baliatuz, eta horiek azalduz. Corpuseko kontakizunen deskripzioa hainbat ikerlarik egindako definizioetatik abiatuz egin dugu. Kontakizunen interpretazioa eta irriaren adierazpenaren azterketa tesi lan honetako 5. kapituluan egin dugu, "Bildutako materialaren azterketa" delakoan.

Deskripzioa egiteko, lehenik, gure corpuseko adibideetan oinarrituz, **kontakizun mota bakoitzaren ezaugarriak** aztertu ditugu. Adibidez, ipuin miresgarrien eta leienden ezaugarriez dakiguna, eta beste azterketa batzuetan landu dena, gure kontakizunei nola aplika dakiekeen aztertu dugu, sailkapen taulan izendapen horrekin zergatik jaso dugun justifikatzeko. Era berean, irri kontakizunez

aipatu izan diren ezaugarriak gure corpuseko kontakizunetan nola islatzen diren justifikatzen saiatu gara. Gai "gordineko" kontakizunen ezaugarrien kasuan ere, gai horretaz idatzi dena kontuan izanik, ezaugarri horietako zeintzuk ikus ditzakegun gure kontakizunetan aztertu dugu. Ixtorio errealistak, ateraldi/arrazoinak eta txisteak, denak irri-gaikoak izanik ere, bereiz sailkatzeko erabili ditugun irizpideak azaldu ditugu, horietako bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanik. Azkenik, bestelakoak atalean sartu ditugun aleak aipatu ditugu, horien ezaugarrien berri emateko.

5. kapituluan gure kontakizunetako **komikotasunaren ezaugarriez** mintzatu gara. Bergsonek irriari buruz egindako gogoetak gure kontakizunetan nola islatzen diren aztertuko dugu, adibideak emanez. Gauza bera egingo dugu Freudek txistearen ezaugarriez bere liburuan egindako oharrak gure corpuseko txisteei aplikatzean.

Horiekin batera, gai "gordinak" dituzten kontakizunetan sakonduko dugu, dexente baitira gure bilduman, eta beste literaturetako hainbat kontakizunekin alderatuko ditugu. Asmoa euskaraz bildutako kontakizun horiek gertakari isolatuak ez direla frogatzea da, eta beste literatura batzuetakoekin dauzkaten antzekotasunak hautematea.

Irri kontakizunetan (errealistak, txisteak, arrazoin/ateraldiak…hainbat isotopia aurkitu ditugu. Semiotikaren aldetik aztertu dira irri kontakizunetako hainbat hitz-joko, metafora eta irri-baliabide.

Azkenik, irriaren adierazpideak garaian garaiko **gizartearekin izan dituen loturak** aztertu dira. Irria fenomeno soziala da, eta testuinguru baten barruan ulertzen da bakarrik. Irri kontakizunetako zenbait, bestelako kontakizun bildumetatik aparte argitaratu dira, edo ez dira argitaratu. Kontuan izan behar da Erdi Arotik hasi eta XX. mende erdi aldera arte, gizartea bera eta literaturaren adierazpen moduak aldatzen joan badira ere, gizartearen bizimoduak arautzen zituen arau moral batzuk nagusi izan direla, elizaren eta kristau ohituren indarrak pisu handia zutelako, eta herri xehearen bizimodua arautzen zutelako. Umorea inguratzen gaituzten gauzen inguruan sortzen da, eta mende luzetan elizaren kristau morala izan da nagusi eta berak zuzendu ditu bizimoduaren arauak.

Gure kontakizunetako ixtorioetako irri-gaiak, orokorrean, elizaren mentalitatea eta kristau ohiturak nagusi ziren garaietan kokatuko genituzke. Apaizez eta beren ohiturez irri egiten dutenak, kasu askotan, elizaren ohiturak jarraitzen dituztenak dira.

Sarritan antzematen den umore mota horrek elizaren ohiturak nagusi ziren garaian, eta kristautasunak bizi-ohiturak arautzen zituen garaietan dauka zentzua.

4.7. IKERKETAREN MUGAK

Ikerketa lan hau egitean hainbat muga eta oztopo izan ditugu, eta ikerketaren garapenean eragina izan dute. Horiek aipatzea eta muga pertsonalak aitortzea funtsezkoa iruditzen zaigu, ikerketaren garapena nondik-nora joan den ulertzeko:

Lehenik, datu bilketaren atalari dagokionez, esango dugu informatzaileak bilatzeko lana ez dela beti erraza izan, arrazoi bategatik baino gehiagogatik:

Metodologiaren atalean aipatu dugun moduan, lehenengo elkarrizketak egiten hastean, hegoaldetik joan-etorrian aritu eta informatzaileren batekin kontaktua egin ahala bertaratzen ginen. Beti ez zen, ordea, horren erraza izaten, lanari segida ematea, eta bertakoa ez izatean informatzaileengana iristeko modua zaildu egiten zen. Bilketa lana egitean, askotan informatzaile batek beste batengana eramaten zaitu eta hitzorduak egin aurretik, informantzailearen onespena jaso beharra dago, eta elkarrizketatzeko lekua hitzartu. Hori, norbere "ingurutik" kanpo egitea ez da beti erraza.

Beste muga bat hizkuntzarena izan da. Izan ere, frantsesa, bertako hizkuntza ofiziala jakin arren, bertakoen pare ez egitea ere muga izan da. Zenbaitetan herrietako administrazioetara jo izan dugu informatzaileez galdezka, eta bertan ez ziren beti euskaraz mintzatzen. Euskalki desberdina egiteak ere lekukoekiko urruntasuna sortzen zuen. Kasuren batean, informatzaileekin lehen kontaktua telefonoz egin behar izan dugu, eta komunikazioa telefonoz are zailagoa da. Hori konpontzeko, informatzaile batetik besterako saltoa egiten saiatu gara. Behin batekin hitz egitea lortutakoan, hari laguntza eskatzen genion beste batekin harremana egiteko, kate baten modura.

Informatzaileetzat ezezagunak izanik, haienganako lehen hurbilpena zaila izan da, zenbait kasutan. Kontaketak testuinguru jakin batean gauzatzen dira, modu espontaneoan, lagun artean, etxekoen artean, sarritan mokadu bat tartean dela. Guk egindako grabaketak, berriz, sortutako edo probokatutako egoera batean egin dira.

Alegia, kontuan izan behar da, beren testuingurutik kanpo aritu direla hizketan, kamera baten aurrean. Hori nolabait arintzen saiatu gara, eta elkarrizketa aldebikoa egiten saiatu. Alegia, elkarrizketa baten modura antolatuz hitzorduak, geuk ere parte hartuz, galdera-erantzun soiletan oinarritu beharrean.

Kontalariak beren testuinguru arruntetik kanpo aritze horrek erabilitako hizkuntzan ere eragina izan du. Ulermena errazteko, zenbaitetan hegoaldeko euskalkietako hitzak erabili dituzte, nahita edo konturatu gabe. Gerora, grabaketak entzundakoan ohartu gara zenbait kasutan beren eguneroko hizkuntza arruntetik egindako aldaketa horretaz.

Zenbaitetan, iparraldeko euskalkiak entzutera ohituegi ez egoteagatik, txisteak edo irri ixtorioak ez ditugu lehenengoan harrapatu. Ondorioz, komunikazioa zaildu egin da. Elkarrizketatuaren hizkera ulergaitza egiten zitzaigunean, elkarrizketa gehiegi ez eteten saiatu gara. Batzuetan, etxean egindako bigarren entzunaldia ezinbestekoa izan da, beraz, kontakizuna bere osotasunean ulertzeko. Elkarrizketatzaile bakoitzarengandik onena lortzeko, oihartzun baten modura, irri kontakizun bakoitzak irria eskatzen zuen erantzun.

Transkribaketak egitean guretzat ezezagunak ziren zenbait termino aurkitu ditugu, oso erabilera jakinekoak direlako (ehiztari bizitzaren inguruko terminoak, nekazaritzan erabiltzen direnak…), eta eguneroko bizitzako hizkuntzan erabiltzen ez ditugulako. Era berean, zubererazko aditza transkribatzea ere zaila gertatu zaigu, gure erabileratik nahiko urrun baita. Era berean, frantsesezko terminoak agertu direnean tartekatuta, hiztegiez baliatu gara horiek ondo transkribatzeko.

Materiala biltzea eta ordenatzea lan luze eta neketsua da, horretan jardun den edonork froga dezake. Zailena, ordea, ikerketaren helburuak ez ahaztea eta baztertzea izan da. Izan ere, ikerketaren asmoa, irri kontakizunetan eta irriaren adierazpenean sakontzea izan da. Horregatik, transkripzio guztiak egin eta corpusa osatzeak, denbora luzea eskatzen zuenez, beti zeregin hori findu nahi horretan, ikertu nahi genuen "irri kontakizunen" muinetik urruntzeko arriskua zegoen. Transkribaketak, testuei egindako ekarpen bat dira, baina helburu horretatik harantzago joan nahi genuen. Transkribaketetan ikerketaren norabidea galtzeko arriskuaren arazoaz konturatu ziren Beaud eta Weber (2003):

> «Pour ce qui concerne les entretiens, ne commencez pas par vous enfermer dans un travail de transcription, long et répétitif, ne cherchez pas à décrypter intégralement tous vos entretiens. Autrement dit ne foncez pas, comme on dit dans la « frappe au kilomètre ». C'est le plus souvent une fuite en avant. Si vous avez tendance à le faire, c'est parce que cette tâche, que vous effectuez alors de façon purement mécanique, vous « tranquillise ». Pendant ce temps-là, vous pouvez « oublier » votre recherche, négliger votre « problématique », et vous en venez à ne plus vous interroger sur ce que vous « cherchez ». Bref la transcription tous azimuts est une manière de gérer votre angoisse face au matériel : vous « faites quelque chose », trouvant là le moyen idéal de vous déculpabiliser. »

Euskaraz irriaren gaiaz literatura askorik ez dago eta beste hizkuntza batzuetako bibliografia erabili behar izan dugu. Sarritan frantses bibliografia baliatu behar eta hegoaldeko liburutegietan hori eskuratzeko zailtasunak izan ditugu. Askotan internetak erraztu digu zeregin hori.

Horiek izan dira ikerketa lana gauzatzeko aurkitu ditugun mugarik nabarmenenak, nahitaez gainditu beharrekoak.

5. BILDUTAKO MATERIALAREN AZTERKETA

Kapitulu honetan gure corpuseko materiala aztertuko dugu. Corpusaren zatirik handiena irri kutsuko kontakizun errealistek zein "txisteek" osatzen dutenez, horietan jarriko dugu arreta nagusia. Irri kontakizun horiek aztertzeko, **bi alderdi nagusitatik** begiratuko diegu gure testuei:

Alde batetik, irriaren adierazpenari buruz arituko gara. Bi teoria edo planteamendu, Bergson eta Freudena, hain zuzen, guk bildutako kontakizunetako irri moduari aplikatzen saiatuko gara. Bi pentsalariek mendearen hasieran egindako oharpenak gure corpuseko testuekin erkatu eta irria sortzen duten ezaugarriez jardungo gara.

Erdi Aroan eta Errenazimenduan irriak izandako adierazpenak azaltzen dituzten lanetan, garai horietako irriaren zenbait bereizgarri erakusten dira. Lehen aipatu dugu, gure kontakizunetako batzuek, tradiziozkoak izanik, baliokide izan daitezkeen kontakizunak dituztela garai horietan, eta zenbait gaik eta pertsonaik garai horietan ere antzeko lekukotasunak zituztela. Hori dela eta, batez ere, Bajtinek (2003 [1941]) herri komikotasunari buruz esandakoak izango ditugu kontuan, gure corpuseko zenbait gai eta motibo aztertzean. Eta horien berri gure corpuseko adibideak azalduz emango dugu.

Bestetik, irriaren agerkari horietan guztietan, alderdi semantikotik hainbat ohar egingo ditugu eta isotopia semantiko-semiologikoak antzeman eta azaltzeko ahalegina egingo dugu. Irri kontakizunen artean, "kontakizun gordinak" dei ditzakegunak ere badauzkagu, eta horien baliabideei eta gaiei erreparatuz, kontakizun multzo horretan ere trukatzen diren alderdi semantikoez hainbat aipamen egingo ditugu.

Azkenik eta azterketa lanarekin amaitzeko, kontakizun horietako pertsonaiez arituko gara. Irri kontakizunetako pertsonaiek, ezaugarri finko batzuk dituztela ikusiko dugu eta pertsonaia "tipoez" zenbait ezaugarri aipatuko ditugu: medikuak, laborariak, apaizak, gelariak, lanbiderik aipatzen ez zaien emazteak… Kontakizunaren amaierara azkar eramaten gaituen argumentuak ez du pertsonaien garapen psikologikorako aukerarik ematen, nahiz eta ekintzetan segida bat egon, narrazioa

osatzeko beharrezko segida. Baina pertsonaiek, lauak izanik ere, pentsaera bat islatzen dute: apaizek jan-edanean eta emazteengan pentsatzen dute; emazteak zenbaitetan argiak izango dira, beren senarrak engainatzeko orduan; beste batzuetan, berriz, sexu kontuetan ezjakin hutsak balira bezala aurkezten dira.

Carlos Barros-ek (1993: 98) honela definitu zuen "pentsaera":

> «Formas de pensar y de sentir y de imaginar la realidad. Tenemos ya tres mecanismos intelectuales de conexión con lo real objetivo, a saber, pensamiento racional, emociones e imaginario; a los cuales habría que añadir las maneras de actuar, tanto el comportamiento consciente como el inconsciente...»

Kontakizunetan erakusten den apaizen pentsamolde eta jokabide horren atzean antiklerikalismoaz hitz egin ote dezakegun ere aztertuko dugu kapitulu honetan. Gure bildumako zein kontakizun joko genukeen "antiklerikaltzat" eta horiek erakusten duten "mundu ikuskera" aztertuko dugu. Irria sortzeko gai izango badira, igorle-hartzaileek hizkuntza bera ez ezik, "mundu ikuskera" ere partekatu behar dute. A. Lorenzo Velez-ek (1997:25) mundu ikuskera deskribatzean dioenez, "mundu ikuskera taldearen kontzientzia kolektiboaren adierazpena" baita:

> «Una "visión del mundo" se refiere, pues, a una estructura significativa coherente hacia la cual tienden el pensamiento, la afectividad y el comportamiento de los individuos. A todo esto añade que la visión del mundo es expresión de la conciencia colectiva del grupo que es, en definitiva, quien la elabora, con lo que subraya el carácter netamente sociológico del concepto».

5.1. IRRIAREN ADIERAZPENA ETA AZTERKETA IRRI KONTAKIZUNETAN

Gure corpuseko multzo handi bat irri kontakizunek osatzen dutela esan dugu. Irri kontakizunak esango diegu bai tradiziozkotzat jo ditugunei, baina baita txiste eta ateraldiei ere. Tradiziozkoak jo ditugunak, era berean, ipuin folklorikoak zein tradiziozko ixtoriotxo irrigarriak izan daitezke. Tradiziozko ixtoriotxo irrigarriak ipuin folklorikoak baino laburragoak dira eta eremu geografiko mugatuan sortu eta bizi daitezke (Chevalier, 1978:44). Ipuin folkloriko irrigarriek, 1990eko Aarne-ren katalogoan *Schwänke* direlakoen artean izendatu zirenek, Aarne-Thompsonen katalogoan *Jokes and Anecdotes* izena hartu zuten. Paul Delarue eta Marie Louise Tenèze-k egindako Frantziako herri kontakizunen azterketan, berriz, *Contes facétieux et anecdotes* izendapena jaso zuten.

Ipuin edo ixtorio folklorikoetan agertzen den umorea aztertzeko, R.A. Ramosek (1988) Bremonden oharrak hartu zituen kontuan eta aipatu zuen *Schwänke* horietan irria sortzen duena, amaierako degradazio egoera dela. Ramosen ustez, degrazio horrek, unitate batasunarekin batera, umore ukitu bereizgarria ematen dio irri ipuinari. Irri ipuinaren gaiak, pertsonaia nagusiaren helburua betetzen ez dela erakusten du, bere zentzugabekeriagatik. Eta, hain zuzen, degradazio horretan oinarritzen da kontakizunaren komikotasuna. Bergsonek degradazio horretaz dio (2008 [1900]: 90) "degradazio hori badela irria sortzeko modu bat, baina aurkako egoera berdin-berdin gerta daitekeela irrigarri: exagerazioa, adibidez"):

> «Lo risible se produciría "cuando se nos presenta como mediocre y vil una cosa anteriormente respetada". (…) Por lo demás, sin ir tan lejos, es fácil ver que si la transposición de lo solemne a lo trivial, de lo mejor a lo peor resulta cómica, la transposición inversa puede serlo aún más».

Ikusiko dugunez, degradazioaren arau horrek irri ixtorio askotarako balio du, baina ez beti, adibidez, txisteen multzoan sailkatu ditugun irri kontakizun askotarako, edo ateraldi irrigarrietarako. Azken horietako batzuk hitz-joko sinple batean oinarritzen baitira, eta ez dute kontakizunean zatikatzerik onartzen.

Pascuala Morote Magánek (1992:88-89) herri ixtorioen bilketa batean oinarritutako bere tesian, komikotasun hori lortzeko zazpi baliabide azpimarratzen ditu:

1. Hizkuntzaren desmetaforizazioa. Pertsonaiek esaten zaizkienak hitzez hitz egiten dituztenean.
2. Zenbait akats fisikori egiten zaion burla.
3. Pertsonaiaren baten inteligentzia falta edo sinplekeria.
4. Gizartean tabutzat jotzen diren gorputz atalak aipatzea: ipurdia…
5. Pertsonaia batzuen behar fisiologikoak aipatzea.
6. Harridura desegitea.
7. Sexu kontuei erreferentzia zuzenak edo zeharkakoak egitea.

Ikusiko dugunez, baliabide horietako askorekin josita datoz Bergsonen eta Freuden testuak, gauza bera beste modu batera adierazten badute ere.

Henri Bergson filosofoak komikotasunaren esanahiari buruzko bere entseguan (2008 [1900]) irria eragiten duten zenbait faktore erakusten zituen, eta horietako asko aurki ditzakegu guk jasotako lekukotasunetan ere. Ez gara sartuko Bergsonen lana balioztatzera. 3.4. kapituluan aipatu dugu Jaques Le Goff aztertzaileak gorputzaren adierazpenaz arduratu ez izana leporatu ziela Bergson eta Freudi.

Gure ikerketan kontalariak bideoz grabatuta daude eta bestela ilun geratuko liratekeen pasarte batzuk, kontalarien keinuei begiratuta, argigarri egin zaizkigu. Horregatik, kontakizuna ulertzeko beharrezkoak edo osagarriak zirenean, halaxe adierazi dugu corpusean berean edo oin-oharren bidez. Baina ez dugu aldendu nahi izan ikerketaren azken helburutik: irri kontakizunak berak eta horietan ematen den komikotasuna aztertzetik.

Keinuen garrantziaz jabetzeko adibide bat **(29.) E20-01 Kiristina** irri-ixtorioan daukagu. Hori ulertzeko, kontalariaren keinuei begiratu behar zaie. Irudiak irudi direnez, eta orain, paperean ari garenez kortxete artean sartu ditut kontalariaren keinuak. Apezei buruzko irri ixtorio horretan kontatzen da gizon bat ez zela inoiz joaten elizara, eta apaiza ikusten zuenean zeinatzen hasten zela. Apaizak harrituta galdetzen dio zergatik ez zen orduan joaten elizara:

> «−Ni enüzü kiristina.
> −Ordin zentako hola, hola eta hola (zeinatzeko keinua) egiten düzü.
> −Ba pentsatzen dizit honekin [burua] hoi betatzia [sabela], hoik aiazi gabe [besoak].»

Freudek idatzi zuen (1905) ”txistea adierazpenari lotuta dagoela. Txistea txistea bera adierazteko erabiltzen den testuaren mende dagoela”. Hori kontuan izanik, gure corpuseko hainbat adibide erabiliko ditugu azterketa semiotikoa egiteko. Bai irriaren adierazpenaren ezaugarriak aipatzeko, bai alderdi semantiko-semiologikoko oharrak egiteko, kontakizunetako ekintza eta esaldi ”gakoetara” mugatuko gara eta laburtuta adieraziko ditugu; askotan, gure hitzekin. Kontakizun aipagarri batzuetako adibideak azaldu aurretik, ordea, gure sailkapena zertan oinarritu dugun eta kontakizun horietan antzeman daitezkeen hainbat pertsonaia "tipo" aipatuko ditugu.

5.1.1. GURE SAILKAPENA ETA PERTSONAIA TIPOAK

Gure corpuseko materiala sailkatzeko orduan "ixtorio errealisten" atalean kontakizun kopuru handia sartu dugu. Errealistak edo ohiturazkoak deitu ditugu, bertan agertzen diren pertsonaiak ez direlako "magikoak", eguneroko bizitzako pertsonaiak baizik. Baina, gainera, tradiziozko kontakizunak direla uste izan dugulako (tradizioan beste eredu batzuk bilatu ditugulako, besteak beste). Hala ere, sailkapen hau ez da behin betikoa, badakigulako, adibidez, Freudek txistetzat sailkatu duen baten bat (**(76.) "Taula erdian"**, esaterako) tradiziozkoa dela, XVII. mendetik dokumentatuta baitago. Gure bildumako **(280.)"Bizitza eta lana"**, ordea, guk txistetzat sailkatu dugu, eta Freuden liburuan ere (1905:53), XX. mende hasierakoa, horren aldaera bat jasota dator, desberdintasunen batekin: bietan «bizi» hitzarekin hitz jokoa osatzen da. Bietan «bizi» hitzaren desplazamenduaz, bi klasema nahasten dira: «fisikoa» eta «psikologikoa». Eta lan egitea heriotzarekin identifikatzen da.

«−Seirak bizi zizte?
−Ez, ez, nihaur bizi.
−Ze, oaiko hilak?
−Ez, lanean ai tuk.»

Askotariko kontakizunak aurki ditzakegu beraz gure corpusean, eta zehazkiago, tradizioan oso zabalduta dauden kontakizunak ditugu ixtorio errealista horietako batzuk. Aniztasun horri orden pixka bat jarri nahian, zortzi azpi-ataletan banatu ditugu kontakizun errealista horiek: "apezei buruzkoak"; "ergel-argiei buruzkoak"; "gordinak (hauek ere bi azpiataletan banatu ditugu, "sexua aipagai dutenak" eta "eskatologikoak" edo kaka-pixak…aipagai dituztenak); "gezurrei buruzkoak"; "akats fisikoei buruzkoak"; "emazteekin, ezkon-bizitzarekin lotutakoak".

Batzuetan atal batean edo bestean sailkatzea erabaki pertsonala izan da. Izan ere, badira apezak aipagai dituztenak, baina gai gordina dutenak. Kasu horretan gordinen atalean sartu ditut. Edo badira, mediku bat protagonista dutenak, baina gordin eskatologikoen atalean sartu ditudanak. Sailkapena egitean, protagonista den pertsonaia tipoari baino gehiago begiratu diot kontakizunaren gaiari (nahiz eta adibidez, apezen ixtorioekin multzo bat osatu). Ixtorio errealistez gain, irri gaia duten txisteak zein arrazoi/ateraldiak ere aipagai izango ditugu, irri kontakizunez jarduten garenean.

Hala ere, kontakizunetako batzuen irri-gaia aztertzeko, hitz batzuk egin behar ditugu ixtorio horietan agertzen diren pertsonaia "tipoei" buruz. Maxime Chevalierrek tipo komikoei buruz idatzitako liburuan (1982) gure bildumakoekin pareka ditzakegun hainbat jasotzen ditu. Gure corpusean medikuak aipagai dituzten ixtorio ereduetan irrigarri geratzen dira, eta molde bereko mediku tipoak aurkezten dira. Maxime Chevalierrek XVI eta XVII. mendeetako literaturan agertzen diren medikuez diharduela (1982:18-40) hauxe dio:

> «El tema satírico por excelencia en este terreno es el siguiente: los médicos yerran la cura. Yerran la cura porque no saben nada. (…) Convicciones todas éstas puramente folklóricas. Pertenecen a un folklore que cuaja en refranes y cuentos».

Txomin Peillenek ere hauxe esaten digu sendakuntza praktika irri eragileez (1985:3):


«Erdi-Haroan hasirik, gero Molière-rekin, Jules Romain-en "Docteur Knock" eraino, gorputzari egiten zaizkion sendakuntza praktikak parre eragileak dira».

Gure bildumako **(135.) E10-07 "Medikuaren froga"** kontakizunaren argumentua hau da hitz gutxitan esanda: "Emazte batek bere senarrak asko edaten duela uste du. Horregatik, medikuarengana joateko esaten dio. Medikuak froga bat egiten dio: txitxare bat urean eta arnoan sartzen du, edateak dakarren kaltea zein den erakusteko. Txitxarea, noski, arnoan, hil egiten da. Emazteagana joaten da gero gizona eta, emazteak: –Zer esan dizu? Eta gizonak erantzun: –Edaten jarraitzeko, bestela xixareak ateratzen direlako".

Prozesuaren amaieran degradazioa gertatzen da. Ez da emaztearen nahia betetzen, senarrak ez dio edateari uzten eta engainatu egiten du. Kontakizuna espero gabe itzulikatzen da, gizonaren erantzunarekin. Gizonak bere erara ulertzen du medikuaren diagnostikoa, bere horretan jarraitzeko. Esango genuke, gizona medikuaren tokian jartzen dela, haren rola betetzera igarotzen dela gure irudimenean. Bergsonek honela azalduko luke (2008 [1941]:36-37):

> «Se explicará la risa por la sorpresa, por el contraste, etcétera, definiciones que se aplicarían igualmente a una multitud de casos en los que no nos dan ganas de reír. La verdad no es tan simple. Pero he aquí que llegamos a la idea de disfráz (…) Hay una lógica de la imaginación que no es la lógica de la razón».

Semiologia aldetik aztertuta, esan dezakegu hemen ere bi klasema nahasten direla: «zientifikoa» vs. «ez-zientifikoa». Bakoitzaren barruan hainbat isotopia semantiko dauzkagu:



Medikuaren nolabaiteko "zientifikotasuna" gezur bilakatzen da, senarrak azalpenak bere erara interpretatzen dituenean, eta itzulikatze horrek komikotasuna sortzen du.

Era berean, medikuak erabiltzen duen teknika zientifikoa bera ere irrigarri gertatzen zaigu. Bergsonek, irria sortzeko baliabideen artean, lanbideen komikotasunaz hitz egiten du (2008 [1900]:127) eta lanbide jakin batzuetan erabiltzen diren arrazoitzeko moduak testuingurutik kanpo erabiltzeak komikotasuna sortzen duela dio. Beren hizkera profesionalean, adituek beren lanbidearen logika erabiltzen dute, alegia, ingurune jakin batzuetan ikasten diren arrazoitzeko moduak, eta ingurune horretarako baliagarriak direnak. Baina irrigarri gertatzen da lanbidearen logika hori, logika unibertsalarekin, absurdoaren logikarekin kontrajarrita ikustea:

> «Insistiendo en la misma dirección, se vería que también hay una lógica profesional, es decir, unas maneras de razonar que se aprenden en determinados medios y que son válidas para ese medio, pero no para el resto del mundo. Mas el contraste entre esas dos lógicas, particular una y universal la otra, engendra unos efectos cómicos de naturaleza especial».

Aurreko adibidearekin jarraituz, esango genuke jakitun behar lukeen medikuari arrazoitzeko modu "arrunta" aplikatzeak ere irria sortzen duela. Medikuen diagnostiko bitxiei buruzko ixtorio gehiago ere baditugu jasota.

Adibidez, **(115.) Diagnostikoa (E4-08** eta **E12-06)** irri ixtorioak honela dio: Errepidean herrenka dabilen gizona ikusten dute bi medikuk. Ibilera trakets hori atzetik ikusita, bi mediku eztabaidan sartzen dira: mediku batek errematisma duela dio, eta horrek ezetz, ziatika duela. Gizonari berari galdetzera joaten zaizkionean, ordea, jo eta ma uzten ditu gizonaren erantzunak: "-Ba, medezi txarrak zizte biak. Ezpaduzue gizon bat pantalonetan kaka egina ezagutzen!".

Kontakizun horretan medikuak itxuraz eztabaidagarria dirudien diagnostikoa atera ezinik dabiltza, eta beren hizkuntzazkoak diren hitzak erabiltzen dituzte:

errematisma, ziatika... itxuraz zaila dirudien diagnostikoaren bila, baina Bergsonek dioen bezala (2008 [1900]:21) irrigarri gertatzen da kausa askoz naturalagoa dela jakitea:

> «Cuando cierto efecto cómico deriva de una causa determinada, el efecto nos parece tanto más cómico, cuanto más natural juzguemos la causa…Más risa nos causará la distracción que hayamos visto surgir y crecer ante nosotros».

Eta kausa hori, gorputzaren eta materiala denaren "azpiko alderdiak", alegia, kakak direla jakiteak areagotu egiten du komikotasuna.

Medikuen ezjakintasunaren hirugarren agerkari bat izango genuke **(95.) Pistoleta moztu (E11-09)** kontakizunean, ezkontzaz besteko harremanetan ibiltzeagatik, "pistoleta" usteldu zaion gizonari medikuak ematen dion erremedioa hori moztea da. Horrek irria eragiten du, mediku baten ahotik beste diagnostiko mota landuago bat espero baitugu, gizonaren larritasunaren aurrean. Baina bigarren mediku baten iritzia jasotzera joaten direnean, ez da honen erantzuna aurrekoarena baino kualifikatuagoa, eta horrek ustekabean harrapatzen gaitu: "-Bon, bon, bon, zertako moztu, hori bea e(r)oiko duk!".

Bergson-ek horrela laburtzen du tonu aldaketa horrek eragiten duen komikotasuna (2008 [1900]:90): "Primeramente podrían distinguirse dos tonos extremos: el solemne y el familiar. Se obtendrán los mayores efectos mediante la transposición de uno en otro".

5.1.2. EMAZTEEI, EZKON-BIZITZARI BURUZKOAK

Sarritan ikusi dugun beste "tipo" bat emazte ezkonduarena da, "emazteeekin, ezkon-bizitzarekin lotutako" ataleko kontakizunetan sarritan ikus dezakeguna. Chevalierrek esaten du (1982:53) pare bat salbuespen kenduta (besteak beste, lehen aipatutako **(76.) "Taula erdian"** kontakizuna) senar-emazteen harremana liskarrez beteta erakusten dela:

> «Estos cuentos representan notables excepciones; los demás cuentos de casados, incomparablemente más numeroros, todos son de reproches y riñas».

Ahozko tradizioan emakumeen maltzurkeriaz eta azpikeriez ixtorio asko kontatuko ziren aurreko mendeetan, folklorea horietaz josia heldu baitzaigu. Badakigu, Bernard Etxeparek (1995 [1545]) "emazteez gaizki erraitia" salatu zuela. Cervantesek

ere (1605-1615) antzeko jarrera erakutsi zuen, emazteen duitasuna aldarrikatu baitzuen (Chevalier, 1985:84):

> «Cervantes reivindica la dignidad de la mujer, esposa y madre, actitud tanto más notable cuando que la madre es personaje que apenas asoma en las letras del Siglo de Oro, actitud extraordinariamente moderna. Actitud que no sorprende en Cervantes, escritor tan abierto a las sugerencias del folklore, pero que rechaza una serie de tipos esquemáticos y convencionales elaborados a partir de materiales folklóricos».

Emazteak eta ezkon bizitza aipagai dituzten gure corpuseko kontakizun batzuk dira hauek:

(138.) E14-05 "Kakoilak" kontakizunaren argumentua hauxe da labur-labur: "Edateari utzi dion senarra karakoilen bila joaten da. Lagun batek edatera gonbidatzen du, eta azkenean berandu heltzen da etxera. Etxera heltzean emaztea haserre entzuten du. Karakoilak lurrean jarri eta esaten du: -Ale, ale, oai heltü beikia, hel zite etxia".

Gizonak disimulatzeko karakoilak lurrean uzten ditu eta haien erritmora etorri delako berandutu dela disimulatu nahi du. Prozesuaren amaieran degradazioa ematen da, emaztea senarraren tontakeriaz ohartzen baita. Protagonistak ez du emaztea engainatzea lortzen, eta horrek komikotasuna sortzen du. Senarrak tuntun baten jokabidea du, karakoilei botatzen baitie berandu heldu izanaren errua. «Gizona» eta «Karakoilak» klasemak nahastu eta parekatu egiten dira:

«Karakoilak» → «motelak» → «Gizona»

Adierazpenaren maila minimoa da kontakizun horietan. Hitz gutxirekin asko esaten da. Ez dira egoerak esplikatzen, guk orain egin dugun moduan; askotan esaldi zorrotz batekin, esanahi handiko mezuak ematen dira.

Gizonak arrazoirik ez duela dakigun arren, mozkorra eta berandu datorrelako, komiko gertatzen zaigu. Bergsonek (2008 [1900]) egoki azaldu zuen komikotasun modu hori:

> «Por instinto natural, y porque, al menos con la imaginación, prefiere uno ser el engañador a ser el engañado, el espectador se pone de parte de los pícaros».

(133.) E8-11 Arrautzak irri-kontakizuna ere senar-emazteen arteko engainuez ari da. Hauxe da argumentua laburtuta: "Emazte batek bakantzetara joan nahi du ahizparekin. Ohe-mahaian senarrak eta emazteak beren gauzak uzten dituzte. Emaztea kanpoan dela, gizonak emaztearen ohe-mahaia begiratzen du ta bi arrautza eta ehun mila libera topatzen ditu. Emazteak haserre esan: −Arrautza bat ematen zidatek tronpatzen hauten bakoitzean. Ta gizonak orduan pentsatu, ez zela horrenbeste, hamabost urtean bi aldiz. Baina gero emazteak: −"Dozena bat iten nian bakoitzean saldu egiten nian".

Kontakizun hau degradazioarekin amaitzen da: senarra adardun bilakaten da, eta irrigarri geratzen da. Emazteak bere jokabidea azaltzeko modua ere irrigarri gertatzen da. Lehenbizi esaten dio tronpatzen duen bakoitzean arrautza bat ematen diotela, eta gero, informazioa *in creschendo* ematen joaten da, eta dozena egiten duen bakoitzean saldu eta dirua egiten duela. Tronpatu duela adierazteko modu fina da, eta emaztearen argitasuna erakusten du. Gainera, ez dira maitaleen sentsazioak edo maitasun sentimendua deskribatzen (De las Casas, 1994) eta dibertigarritzat jotzen dutena kontatzera mugatzen dira.

Gure corpuseko **(140.) E30-08 Ostatüa izan bazen** ixtorioan, Freudek "desbideraketa deituko lukeen teknika ematen da. Baliabide horretan pentsatzeko modu normaletik desbideratu egiten da adierazpen irrigarria sortzeko. Hauxe kontatzen da: « Gizonak ostatuak maite ditu, baina emazteak esaten dio gau hartan osagarri zela eta joateko goizik etxera. Gizona berandu heltzen da, ordea. Emaztearen gainetik pasa eta lo hartzen du. Emazteak orduan: Ostatu bat izan balitz, sartuko hintzan ba hor! »

Ostatuan sartzea eta « emaztearen barnean sartzea » pentsamenduak trukatu behar dira kontakizuna ulertzeko. Hitz joko bat ikus dezakegu hor, "ostatua" hitzak elkartrukatzen diren bi klasema agertzen dizkigu, toki batez edo emaztearen sexuaz ari den arabera:

«bizigabea»→«edanlekua», «kanpoa»

↓

«biziduna»→«sexua», «barrua»

(141.) E25-03 kontakizunari **"Gasnak mututu"** jarri diogu izenburua. Honetan hauxe kontatzen da: "Apezak esan zion gelariari herritarrek jatekoak ekartzen bazituzten, zerbait emateko jateko. Gizon batek jatekoak ekartzen ditu eta gelariak, nahastuta, etxean zeukaten gazta onenetik ematen dio dastatzeko. Dena jango zuela-ta, gelariak, beldurrez, apaizari kontatzen dio eta apaizak gelariari agintzen dio gizonari mututzen duela esateko. Hori entzuten duenean, gizonak erantzun, orduan, emazteari eramango diola gazta. Eta osorik eramaten du".

Kontakizun horretan, apeza irrigarri geratzen da. Antiklerikalismoaren adierazle ez ezik, emazteez gaizki esaten duen beste kontakizun irrigarri bat daukagu hor. Degradazioarekin amaitzen da, ez du gelariak bere nahia lortzen (gizonak alde egitea). Gainera, komikotasuna sortzen duen beste alderdi bat aipatu behar dugu. Izan ere, gizonak bere emaztea mututzeko aukera aipatzeak irria sortzen du, ustekabeko erantzun horrek hitz jokoz emandako desbideraketa ezkutatzen duelako:

> «El doble sentido propiamente dicho o juego de palabras, al cual podríamos llamar el caso ideal de la acepción múltiple; aquí no se ejerce violencia sobre la palabra, no se la divide en sus componentes silábicos, no hace falta someterla a ninguna modificación ni trocar por otra la esfera a que pertenece». (Freud 1905:37)

"Mututze" horrek bi isotopia semantiko izango lituzke. Gizonak ulertu behar luke gasnak kalte egingo diola; baina beste modu batera ulertzen ditu gelariaren hitzak, eta alde onetik begiratzen die: emaztea mututzeko balioko diotelakoan. Isotopia horien nahasketatik sortzen da komikotasuna, eta esaldi azkarren bitartez, entzule edo irakurleak harrapatu egin behar ditu.

Gelariaren esana: «negatiboa»→ «kaltea», «gaixotasuna».

↓

Gizonak ulertzen duena: «positiboa»→ «onura», «isiltasuna», «bakea».

(**148.) E4-06 "Haur beltza"** izendatutako ixtorioan ere emakumeak gizona engainatzen du: gizonak bere inuzentekerian semea azal beltzekoa jaio zaiola ikustea arraro ikusten du, baina ez du argitasun nahikorik adarrak jarri dizkiotela pentsatzeko. Amarengana jo eta emazteak emandako azalpena kontatzen dio: bularra ezin eman, eta

emakume beltz batengandik edoskitzean, azala belztu zaiola. Amak hain inozoa ikusten du azalpena, paralelismo batekin erantzuten baitio: berak ere esnerik izan ez eta behiaren esnea edatera emateagatik atera zaizkiola adarrak. Paralelismo hori idea-joko dibertigarria da. Arrazonamenduaren arauak ahuldu egiten dira. Izan ere, Henri Bergsonek esaten duen moduan:

> «Los razonamientos que nos hacen reír son aquellos que sabemos que son falsos, pero que podríamos tenerlos por verdaderos si los oyésemos en sueños. Imitan el razonamiento verdadero lo bastante como para engañar a un espíritu adormecido» (Bergson 2008 [1900]:132).

Emazteez, alarguntzen direnean ere, ez dira hitz gozoak esaten herri foklorean. Gure bilduman pare bat ixtorio dauzkagu alargunei buruz. Chevalierrek esaten du (1982:91), folklorean errefrau asko zeudela alargunaren nolakotasuna salatzen zutenak, negatiboak eta iraingarriak (la máxima de la viuda «llorar poco y buscar otro»). Euskarazko atsotitzekin egindako bildumarik handienean, Gotzon Garateren bilduman, berriz, alargunari buruz esaten direnak errukitsuak direla eta ez direla batere iraingarriak esango genuke ("Alargun, begi ilun"; "Alarguna, alderdi"; "Talaierurik onena, andre alarguna: beti itsasoari begira").

Gure bildumako (**233.) "Salbatu balitz bederen"** txisteak hau dio: bi emazte hizketan ari eta batek esaten dio besteari senarra galdu duela auto istripu batean. Besteak, berriz, mainkatuik duela. Mainkaturik zuenak dirua kobratuko zuela-eta, alargunduak ezer kobratuko ez zuelako: "Ta nunbaitik e gure xoxola horrek salbatu behar xinan beden!" erantzuten dio.

Txiste horretan "salbatu" hitzaren desplazamendua ematen da, eta bi isotopia semantiko trukatzen ditu, bakoitzak dakartzan isotopia semiologikoekin. Eta bati garrantzia ematetik, besteari garrantzia ematera pasatzen da:

«bizitza»→ «maitasuna», «poza»

↓

«dirua»→ «etekina», «gorrotoa»

Beste adibide bat daukatu **281. "Hiru senar hilak"** txistean:

> «Emazte bat hiru aldiz alarguntsatia zen, hiru senar bazitin segituik tombalat. Ta beste emazte batek galdeiten dako:

−Nola galdu inen hire senarra?
−Onddoak jan eta gaixoa.
−Eta bigarrena nola galdu inen?
−Onddoak jan eta gaixoa.
−Oh! Soizak, hirugarrena ere onddoak jan eta gaixoa?
−Ez, ez, lepohezurra hautsi, etzinan onddoik jan nahi».

Freudek honela laburbiltzen du txiste mota horren teknika "zentzugaberiaren barruko zentzua" aipatzen duenean (Freud 1905:14):

> «Prestamos a un enunciado un sentido y sabemos que, según toda lógica, no puede convenirle. Hallamos en él una verdad que sin embargo no puedemos volver a encontrale luego, si atendemos a las leyes de la experiencia o los hábitos universales de nuestro pensar».

Aipatzekoa da, alderantziz ere, alargundutako gizonek ere ez dituztela emazteentzako hitz xamurragoak, inondik ere. Adibidez, **(138.) "Ahoz behera"** ixtorioan, emaztea ahoz behera lurperatu duela esaten du gizonak, aterako ote zen beldurrez:

> «Badakika zer pentsatzen nin: Emaztek erran zitala "ehorzten banaik barne ehortzik e, aztaparkaz goiti elkhiren nük eta aitzen ahal dük to!" Ahoz behera ezarri diat tunban».

Alargundutako gizonen beste adibide bat daukagu **(142.) E27-06 "Domixine"** irri ixtorioan. Horretan hauxe kontatzen da: Mutil gibeloia Santa Graziko neskarik politenarekin ezkonduko zela zabaltzen da. Ezkondu eta gero, astoan zihoala neska hil egiten da. Ehorzketan Santa Graziko emakume eta gizon guztiak han ziren. Apezak arraro ikusten du eta galdetzen zergatik ziren gizon guztiak ehorzketan: "-Astoa erosi nahi zuten".

Irri ixtorioan, ustekabeko amaieraren efektua antzematen da.º Hor ez da esaten noski, zertarako nahi zuten astoa erosi. Lotura hau egitea irakurle-entzulearen trebezian kokatzen da:

Astoak → emazte baten heriotza ekarri.

↓

Astoak → emazte guztien heriotza ekarri.

Isotopia semantiko hauek trukatuko lirateke:

«Dolua»→ «hileta», «tristezia»

«Konponbidea»→ «bitartekoa», «poza», «merkataritza».

Labur-labur kontatutako irri ixtorio horretan ere, espero gabeko amaierak sorrarazten du irria. Gizonek beren emazteak akabatu nahi izatea, gertakari latza izanik ere, kontatzeko moduak, juxtu kontrako efektua sortzen du, eta irria eragiten digu. Esaldi labur, zuzen eta azkarrak dira komikotasunaren ezaugarri.

Alargunduta egon gabe emazteez esaten direnak ere, ez dira beti xamurrak. **(131.)"Ohazpikoa satorra uzkailia"** irri ixtorioan, adibidez, esaten ez bada ere, azkeneko emaztea norbaitekin dabilkiola ematen du; ohazpikoa satorrak uzkaildu duela esatean, "satorra" azpiko lanak egiten dituen "maitaleren bat" dagoela ulertzen dugu, ixtorioak koherentzia izan dezan. Izan ere, gizonak aurreko bi emazte galdu dituela, eta hirugarrenari kasu egiten diola esaten baita.

(145.) E29-19 "Musean" irri kontakizunean adibidez, musean erabili ohi den hiztegia sexuaren alorrera ekartzen da desplazamenduz. Musean hordagotzea, sexuan "hordagotzearekin" parekatuta ulertu behar baita inplizituki. Labur-labur hauxe dio irri kontakizunak: "Gizona muslari amorratua, beti buruan zuen musa. Oheratzean, "jokoan" aritu nahi eta emazteari museko hitzak esaten diozkio: −Inbido! Ta besteak: −Paso! Horrela egun bat eta bestea. Bukaeran emazteak: −Gaizo astoa! Holako jokuakin ez duk hola hordagotzen!".

Hitz jokoen bidez eraikitako kontakizun horiek ezin daitezke itzuli, eta gainontzeko txiste edo irri kontakizun osoa edozein hizkuntzetan eman badaiteke ere, amaierako hitz jokoak sorburu hizkuntzan behar du.

Azkenik azpimarratuko nuke, badela **hitz lauzkoa** ez den eta irri ixtorioen atalean sailkatu dugun kontakizun irrigarri bat: **(147.) E30-02 Garruzeko Margarita** bertsotan dator. Kontatzen duen gertakaria irrigarria izanik, eta adar-kontuak ere biltzen dituenez, bertsoz transmititutako ixtorio hori tradizionalizatu egin da. Margarita ezkonduta egon arren, senarra lanera bidali eta Manex delako alargun batekin egiten zituen egonaldiak kontatzen dira. Ez dakigu gertatua ote den ala ez, edo

sorburua benetako gertakariren bat duen ala ez, baina senar-emazteen arteko ixtorioetan sailkatu dugu.

5.1.3. AKATS FISIKOEI BURUZKOAK

Sailkapen taulan **(125.) E1-06** erreferentzia daraman kontakizuna, **"Gorra eta medikua"** izenburuduna aztertuko dugu lehenik. Irri ixtorioak hauxe kontatzen du: gizon bat aziendak edanarazten ari zen putzu batean. Medikua dator patarra goiti. Ez du nahi medikuak jakitea entzuten ez duenik eta pentsatzen du: hau galdetzen badit, hau erantzungo diot. Beste hau galdetzen badit, beste hau. Baina egiten dizkion galderak ez datoz bat berak pentsatutakoarekin eta irrigarri gertatzen da.

Bergsonek dio (2008 [1900]:105) pertsonaia baten akatsa zenbat eta inkonszienteagoa izan, zenbat eta sakonagoa izan, orduan eta handiagoa dela sortuko den irria. *In creschendo* joate horrek areagotu egiten du komikotasuna:

> «En un defecto e incluso en una cualidad, lo cómico está en aquello en que el personaje se entrega sin saberlo, en el gesto involuntario, en la palabra inconsciente. Y cuanto más profunda sea la distracción, más elevada es la comedia».

Kontakizun honetan irria pizteko bitarteko bat baino gehiago dago: gorraren akatsa nabarmendu egiten da, ematen dituen erantzun okerrekin. Akats fisiko hori azpimarratu egiten da, eta akatsa *in creschendo* joateak are irrigarriago bihurtzen du eszena.

> «-Agur, jauna, agur.
> Eta bertziak:
> -Ttipitto bainan propitto.
> -Baduzuia buruik?
> Eta bertziak:
> -Iaz baino pittat gehiago.
> -Makila hori sar bazineza ipurditik !
> Eta bertziak:
> -Hunako aska huntaino, jauna.
> -Debruak joan bazineza hortik. Eta bertzeak:
> -Horrako patar hori barna, jauna».

"Makila ipurditik sartzea" erantzuna bera, aipatutako komikotasunaren baliabideetako bat azpimarratzera dator: ipurdia, kakak, pixak… aipatzeak gorputzaren eta materiala denaren "azpiko alderdien" eremura ekartzen baikaitu, Erdi

Aroko eta Errenazimenduko herri-adierazpenetan indar handiz errepikatu izan diren irri gaiak. Honela gogorarazten digu Del Campo Tejedorrek (2003:493):

> «A pesar de que existen notables ejemplos de literatura escatológica cómica en la Edad Media, esta prolifera especialmente a partir del Renacimiento, y crece al mismo ritmo que la cultura burguesa anatematiza los actos fisilógicos. Frente a la prescripción, su confinamiento al ámbito privado y su ocultación como signo de educación y distinción, pervivió el "caga el pobre, caga el rico / caga el Papa y caga el rey" que nos recordaba nuestra más igualitaria animalidad».

Kontakizun horretan pertsonaia gorraren jokaera itxuraz automatikoak komikotasuna sortzen du, eta automatismo horretan eskema zurrun baten arabera jokatzen du (Bergson 2008 [1900]:29):

> «Las actitudes, gestos y movimientos del cuerpo humano causan risa en la exacta medida en que dicho cuerpo nos hace pensar en algo simplemente mecánico».

Zer pentsatu, huraxe esan, medikuak egindako galdera edozein izanik ere. Automatismo horrek, txontxongilo baten moduan jokatze horrek komikotasuna sortzen du. Izan ere, Bergsonen arabera, "garrantzitsuena alde morala izanik, pertsona baten alde fisikoari begiratzen diogunean sortzen da komikotasuna". Komikotasuna kausa jakin batetik eratortzen bada (gorra delako, adibidez), are komikoagoa iruditzen zaigu, zenbat eta kausa naturalagoa izan. Bergsonek dio elur bola baten antzera, hasieran ezereza zen kausa handitzen-handitzen doala, eta horrela emaitzak neurriz kanpoko larritasuna hartzen du. Gorrak, lehen erantzuna gaizki eman eta irria eragiten du; bigarren galderari ere gaizki erantzutean, are gehiago, eta halaxe hurrenez hurren, berak aldez aurretik pentsatutako erantzun guztiak bata bestearen atzetik bota arte.

Kontakizun horren muinari alderdi semantikotik begiratuz gero, ikus dezakegu isotopia semantikoak nahastu egiten direla bi pertsonaien arteko galdera-erantzun bakoitzean. Adibidez:

−Behi ederrak ditutzu horiek (ustez etorriko den galdera) : «abeltzaitza» klasema

−Agur jauna agur (benetan egiten den galdera): «agurra» klasema

−Ttipitto bainan propitto : «abeltzaitza» klasema

Batzuk eta besteak nahasteak, ustekabean harrapatzen gaitu, eta mentalki horiek berrordenatzera behartzen gaitu.

Aurrekoaren antzeko efektu komikoa aurkituko dugu **(131.) E42-04 "Alaba motelak"** kontakizunean. Bertan hauxe kontatzen da: gizon batek bazituela hiru alaba, hirurak motelak. Baten gizongaiak etxera etorri behar zuen, baina amak ez zuen nahi alaben akatsaz konturatzea eta haien partez berak hitz egingo zuela esan zien. Gizongaia iristean iruten ai ziren. Batek erraten du: -Tenta haria. (Haria trenkatu) Besteak:-Tontorropilomaria! (koropilo zan Maria!) Ta gizongeiak erraten du: -Zer dira hok, motelak? Ta hirugarrenak: -Bai, ta hi petoter (begi-oker). Orduan, orratzarekin begia xixtatu zion.

Hemen ere, *in creschendo* doa umorearen tonua. Kasu honetan, pertsonaien akatsa ez da gorreria, hitz-totela baizik eta degradazioarekin amaitzen da kontakizuna. Egoera itzulikatu egiten da, hitz-totelak nagusi gertatzen baitira; gizongaia, berriz, orratzarekin begian xistatzen dute.

Txomin Peillenek (2002) Allande Elixagarairen ixtorioei erreparatuz esaten zuen gorputzeko akatsak gutxitan aipatzen zirela. Baina horietako mordo bat tradizio guztietan bezala euskaraz ere baditugula ikus dezakegu:


> « Gutxitan aurkitzen da bildu ditudan herri ipuinetan irribarrea eragiteko gorputzeko akatsen aipatzea. Itsuez, konkorrez eta mianguez ipuin gutxi, beharbada, leheango entzuleen artean gehiago zeudelako. Frantses ipuinetan, ordea, horrelakoak ugari dira. Ero ipuin bat edo beste kontatzen da. Susmoa dut, frantsesez horrelakoak eurrez direlako kanpoan ikasiak izan direla ».

Gure bildumako **(126.) E10-02 Gorra** kontakizunean beste irri baliabide bat ikus dezakegu: joko fonetikoa. Balibide horren bidez, hitz multzo bat hartu eta horien ordena aldatu besterik ez da egiten. Freudek dioenez, hitza zenbat eta gutxiago aldatu, eta ondorioz, esanahi anitz hori hitz berdinekin adierazi delako irudipena zenbat eta handiagoa izan, hobea izango da txistea bere alderdi teknikoei dagokionez. Joko fonetiko horrekin *lotura bitxia*ren teknika sortzen da. Kontakizunean argumentuak Donibaneko merkatuan erosle eta saltzaile baten arteko gaizki-ulertua erakusten digu, eta horretarako, galdera-erantzunen hitz jokoan oinarritzen da: *"– ¿Cuánto vale la gallina? – Harina? – ¡Que te calles loca! – Koloka?"*.

5.1.4. APEZEI BURUZKOAK

Antiklerikalismoaren gaian sakontzean ikusiko dugun bezala, asko dira apaizak mintzagai hartzen dituzten irri-ixtorioak. **(1.) E2-03 Haurra katexima ikasten** izendatutako irri ixtorioan, apaizaren eta haur inuzentearen funtzioak trukatzeak eragiten du komikotasuna. Egoera arruntak itzulikatuta erakusten dira. Apaizak haurrari katexima galdetu beharrean, haurrak aurrea hartzen dio, eta beste gizon bati ikasitakoa azalduz, jo eta ma uzten du apaiza, mundu honetako hiru zozoak zein diren galderari erantzun behar dioenean. Hemen ere, gradazio bat ematen da, eta apaizak arretaz entzuten ditu bere galderei ("Zendako ahuntza?", "Zendako belia?" eta "Zendako apeza?") haurrak emandako erantzunak. Azken erantzunean, apezari adarra joz amaitzen du: "Norbait hiltzen delaik, jendea nigarrez, ta apeza orroz kantuz". Apezak orro egiten duela esatean, era berean, animalien ezaugarri bat ezartzen zaio apezari, eta bere gizatasuna beheratzen du.

Hiru zozoen berri galdetzean, lehen bi galderen erantzunak «animalia» klasemarekin lotuko genituzke. Ahuntzaren jokabide zozoaz hitz egiten digu lehenik, eta belearenaz gero. «Animalia» klasematik «gizakia» klasemara salto egiten da, ordea. Eta apeza nolabait "animaldu" egiten da, kantuz "orroka" egiten duela esaten delako.



Bergsonek "inbertsioaren" teknikaz hitz egiten digunean (2008 [1900]:71) hauxe adierazten du:

> «Así nos reímos del hombre prevenido que da una lección moral al juez, y del niño que pretende dar lecciones a sus padres; en suma, de todo lo que pueda colocarse bajo el epígrafe de "el mundo al revés"».

Aurrekoaren antzekoa den **(6) E6-03** kontakizunean, **"Katexima galdetzen"** izenekoan, hauxe kontatzen da, laburbilduta:

> «Apez bat haur bati katexima galdetzen ari zaio:
>
> −Nola deitzen da Jainko onaren ama?
> −Ama Birjina.
> −Nola deitzen da Jesus salatu zuen apostolua?

−Judas.
−Nuiz hil da Jainkoa?
−Ah! Ez nekien eri zenez ere».

Kontakizun honen amaierako erantzunak, haurrak botatzen duen astakeraiak, espero dugun horretatik kanpo begiratzera garamatza.

Alderdi semantikotik aztertuta, ixtorioaren muina «Jainkozkoa» klasematik, «gizatiarra» klasemara ustekabean egindako saltoan daukagu, eta horrek komikotasuna sortzen du. Ondorengo isotopia semiologikoak aurki ditzakegu bertan:

«Jainkozkoa» → «Ama Birjina», «apostolua», «Judas».
↓
«Gizatiarra» → «eritasuna», «heriotza».

Apezei buruzkoen atalean sartu dugu **(2.) E4-02 Konfesioa** ixtorioa ere. Hauxe da argumentua: apezak konfesatzen zuenean, herriko emazteek behin eta berriz esaten zioten senarra tronpatu zutela...Apezak ez zuen hori entzun nahi eta eskatu zien esateko urketa joan zirela eta iturri ondoan erori zirela. Behin apez gazte bat etorri zen herrira, aurreko apaizak emandako gomendioaren berri jakin gabe. Eta merari esan zion iturria konpondu behar zuela: -Jaun mera, zure emaztea hiru aldiz erori da ta!” .

Kontakizun horren alderdi komikoari begiratuz gero, ikusiko dugu isotopia semantiko «moral» bat, «fisiko» batekin trukatzen dela. Isotopia horietako bakoitzak, isotopia semiologiko hauek eramango lituzke berarekin, jokoan dagoen akatsa fisikoa edo morala den arabera:

«morala» → «engainua», «sexua»
↓
«fisikoa»→ «erorikoa», «konponketa»,

Kontakizun horretan komikotasuna sortzeko “mozorroaren” teknika ezaguna ere agertzen da, mozorroaren funtzioa beteko lukeen gertakaria ematen baita: apaiz gaztea jartzen da lehengo apaizaren tokian eta horrek narrazioaren muina den nahasmendura eta prozesuaren amaiera eta degradazioa dakartza.

Ixtorio horretan ere, beste askotan gertatzen den bezala, emakumezkoa da engainatzailea, eta gizona engainatua. Senarrak tuntun papera jokatzen du, ez du jakiten emaztearen engainuaren berri, eta irrigarri geratzen da. Gainera, apaiz gazteak

merari beraren emaztea bi aldiz iturrian tronpatu zela esateak apaizaren baldarkeria eta meraren dorpezia agerian uzten ditu, eta horrek irria eragiten du.

(12.) E8-20 eta **E22-12 "Apeza eta harria"** kontakizunean, adibidez, apezari oilaskoa ebatsi ziotela kontatzen da. Mezetan, predikuan esaten du harri bat hartu eta ebatsi duenaren kopetara joango dela, altxatzen ez bada. Emazte batek oihukatzen du orduan: "-Manez apal ak buria, tiratuko ik horrek intsentsua eta!"

Ixtorio hori degradazioarekin amaitzen da, ebaslea salatu egiten dutelako, eta irrigarri geratzen delako. Emaztearen hanka-sartze edo baldarkeria horrek komikotasuna sortzen du. Gogora ditzagun Bergsonen hitzak bizitza sozialarekin talka egiten duen zurruntasunaz hitz egiten duenean (2008 [1900]:97):

> «Es cómico el personaje que sigue automáticamente su camino, sin cuidarse de establecer contacto con los demás. La risa viene entonces a corregir su distracción y a sacarlo de su ensueño».

(3.) (E10-05) Aphez tronpatüa kontakizunaren gaia hau da gutxi gorabehera: Bi auzok ez zuten elkar ikusten ahal. Bata zendu egin zen eta besteak hari meza eskaintzea pentsatu. Mezak asko balio duela, eta bezpera, berriz, urririk dela esaten dio apezak. Orduan haren aldeko bi bezpera eskatzen ditu, urririk.

Prozesuaren amaieran degradazioa gertatzen da. Hildakoaren ohorea bost axola zaiola erakusten da, baina komikotasuna eragiten duena, hori adierazteko modua da.

Alderdi semantikotik jauzi bat ematen da hemen ere: «humanitatea» klasematik «bihozgabekeria» klasemara aldatzen baita. Horietako klasema bat edo bestea aukeratzeak hainbat isotopia semiologiko emango dizkigu.

«humanitatea» → «estimazioa», «laguntasuna», «errukia»
↓
«ekonomikoa»→ «xuhurkeria», «axolagabekeria».

Protagonistei buruz, ez zaigu zehaztapenik ematen, ez dago inolako deskripziorik, bi "edozein" izan daitezke, baina meza eske joaten den horren xuhurkeria irrigarri gertatzen da. Bergsonek izaeraren komikotasunaz ari dela hauxe dio (2003 [1941]:99):

> «En primer lugar, tratándose de defectos, es difícil trazar un límite entre lo leve y lo grave; quizá un defecto no nos hace reír porque sea leve, sino que nos parece leve porque no hace reír».

Kasu honetan ere, auzorenganako xuhurkeria eta axolagaberia hori ez zaigu hain larria iruditzen eta irria sortzen digu.

(31.) E22-11 "Oilo ebaslea" kontakizunean, xerri hiltzaile batek oiloak ebasten ditu. Bazkotan kofesatzera joaten da. Apezak, bekatua nabarmendu nahian, gero eta ozenago hitz egiten du eta denak begira geratzen dira. Ebasleak apezaren bizarra ateratzen du konfesategiko sarearen zulotik eta dio: "-Baietz jauna, oiloak, oiloak, oiloak –bizarretik tiraka".

Kontakizun hori ere degradazioarekin amaitzen da, bekatu egilea lotsarazi nahi zuen apaiza irrigarri geratzen delako. Apaizaz irri egiteak komikotasuna sortzen du, nagusi den arauaren eta moralaren aurka doalako. Elizgizonak eta eliza, orokorrean, eguneroko bizitzako parte izan dira. Zuzentasunaren eta moralaren ikurrak izan behar direnak, irrigarri uzten dituzte kontakizun horietako askok. Hurrengo puntuan, irriaren baliabideak aztertzean sakonduko dugu kontu horretan, eta antiklerikalismoak literaturan izandako arrastoez ere mintzatuko gara.

Apaizak, orokorrean, tipo modura agertzen zaizkigu gure corpuseko kontakizunetako askotan. Eta tipoak irrigarri gertatzen zaizkigu. Eta tipo horiek Are gizarte tradizionalaren mundu ikuskera itzulikatzen dute. Apaizak gizartearen arau moralak irakatsi dizkigun eskemetatik kanpora erakusten dira eta hainbat klasema erabil genitzake horiek definitzeko: «emazte-zaleak», «gormantak», «engainatuak»...

> «El personaje cómico es un *tipo*. A la inversa, todo parecido con un tipo tiene algo cómico».(Bergson, 2008 [1900]:107)

Apaizen tipoarekin jarraituz, beste adibide bat jarriko dugu: Hainbat aldaeratan jaso dugun **(18.) (E22-16 eta E38-05) "Konfesio ixtorioa"** kontakizunaren argumentua hauxe da: gizon bati borta bat zerratu zitzaion eta leiho ttipi batetik pittikak ikusi zituen. Horietako bat hartu nahi zuen. Pittikak ondora heltzen zitzaizkion, baina gero aldendu. Ta hurbildu baina berriz alde. Konfesatzera joatean apaizak esan zion ebasteko asmo hutsa nahikoa zela bekatu egiteko eta ebatsi balitu bezala pagatu behar zuela ebasteko nahi hori. Sosak sakeletik atera eta tati egiten zion orduan apaizari ordainetan, eman eta kendu.

Kontakizun hau ere degradazioarekin amaitzen da, eta apaiza irrigarri geratzen da. Honetan ere, aurretik aipatutako bi kontakizunetan bezala, apeza irrigarri uztea,

antiklerikalismoaren adierazpena izan daitekela esango genuke. Baina benetan, kontakizuna irrigarri egiten duena bi egoeren arteko "paralelismoa" da: gizonaren ebasteko modua, eta apezari ordaintzeko era gertakari paraleloak dira. Bi kasuetan gerturatze eta aldentze prozesuak gertatzen dira. Azken batean, paralelismoa ekintzen imitazioa izango litzateke, eta berriz ekartzen digu gogorara errepikapenaren teknika komikoa.

Kontakizun horretan pentsatzeko modu normaletik egindako desbideraketaren teknika ere baliatzen da irria sortzeko, Freudek desplazamendua eta zentzugabekeria deitu zuena (Freud 1900:58). Izan ere, lotura gabeko bi ekintzen artean lotura bilatzeak irria sortzen du.

Kontakizun horren aldaeratzat jo genezake **(97.) E14-04 "Pantaluak"** kontakizuna, dituen ezaugarriengatik "gordinen" atalean sartu duguna. Horretan pentsamendu gaiztoak izan dituela konfesatzen dio emazteak apaizari. Apaizak eskatzen dion penitentzia ere desberdina da, kasu honetan. Apeza gormanta izanik, pate bokale bat eskatzen dio, eta emazteak, ordea, bi bokale huts ekarri, "pantaloinak ere hutsik zirela" argudiatuz.

Proppek *Morfologia del Cuento* liburuan (1987 [1928]) ipuin miresgarrien kasurako idatzita utzi zuen moduan, kasu honetan ere esan dezakegu, kontakizuneko elementuak aldatzen badira ere, oinarrian ixtorioak berdina izaten jarraitzen duela.

(38.) E29-09 "Bahea buxatua" kontakizunak hauxe kontatzen du: apeza serora bat kofesatzen eta Jainkoaren aginduak banaka errepasatzen ari da. Lapurretarik ez egiteko manamendura iristean, esaten dio serorari, bere gelariak ikusi omen duela, lur-sagarretan sarea hertsatzen. Serorak aditzen ez diola erantzuten dio, gor xamar dagoela. Orduan lekuz aldatzen dira, froga egiteko, eta serorak apezari emazte batekin besotik helduta ikusi dutela esaten dio. Horren aurrean apezak ere, ez adituarena egiten du eta bahea buxatua dagoela arrazoitu.

Kontakizunaren amaieran degradazioa ematen da, eta apeza toki txarrean geratzen da, emakume kontu batengatik.

Irria eragiten duen alderdi bat baino gehiago dauka kontakizun horrek: alde batetik, seroraren gorreriagatik eta egindako lapurretaren salaketa behin eta berriz

errepikatu behar izateagatik, akats fisikoaren eta automatismoaren irri baliabideak errepikatzen dira.

> «Automatismo, rigidez y hábito adquirido y conservado son rasgos por los que una fisionomía nos causa risa. Mas ese efecto gana en intensidad cuando podemos referir dichos caracteres a una causa profunda, a determinada distracción fundamental de la persona (…)» (Bergson 208 [1900]:26-27).

Bestetik, ekintzak errepikatu egiten dira eta pertsonaiek, mozorrotu egingo balira bezala, beren paperak aldatzen dituzte: apeza konfesatuaren tokian jartzen da, eta alderantziz, konfesatua apezaren tokian. Ondorioz, paralelismoa gertatzen da bi akatsek ustez ekarritako ondorioen artean: bata fisikoa eta bestea materiala. Eta bi serieen artean interferentzia ematen da.

«Fisikoa»→ gorreria
↓
«Materiala»→ buxadura

Honela azaltzen du Bergsonek:

> «El *quid pro quo* es efectivamente una situación que presenta al mismo tiempo dos sentidos diferentes: uno simplemente posible, que es el que le prestan los autores, y el otro real, que es el que le da el público. (…) Si ambas series llegan a interferir en nuestra imaginación, ya no habrá *quid pro quo,* y sin embargo continuará produciéndose el mismo efecto cómico» (Bergson 208 [1900]:73-74).

(40.) E34-01 "Erbia bera bakarrik" irri-kontakizunean ere apaizaz irri egiten da, antiklerikalismoaren beste adierazle xume batean. Bertan Ganix ihiztariaren ixtorioa kontatzen zaigu. Ganix ehizera joan zen, mezetara joan beharrean. Apezarekin aurkitu zen ondoren eta esan zion erbi bat ikusi eta bere etxera bidali zuela. Apezak, etxera iristean, gelariari galdetu zion erbia iritsi ote zen. Baina, ezetz. Hurrengoan, Ganix ikustean erbiarengatik galdetu zion. Eta Ganixek ezjakinarena eginez: "—Ah! Nik esan nion ba zure etxera joateko!"

Kontakizun hau ere degradazioarekin amaitzen da, eta apaiza engainatzeak irrigarri bihurtzen du kontakizuna. Komikotasuna pizten duen baliabidea ehiztariaren ahotan bilatu behar da. Izan ere, "—Bai eta erbi bat banuen ikusirik eta oain doa zure etxeat" esaldia entzutean denok pentsatzen dugu erbia ehizatu eta bidali egin duela. Baina kontakizunaren laster konturatuko gara, bere kabuz joango zelakoan bidali zuela, edo hori esan ziola behintzat apaizari. Hemen daukagu adibide argi bat, bai

Freudek, bai Bergsonek komikotasunaz aipatutako alderdi baten inguruan: komikotasunak gauzak adierazteko moduarekin duela lotura estua.

Bergsonek interferentziaz ari dela esaten du modu asko daudela esaldi berdinari gainjartzen zaizkion bi esanahi independente emateko. Besteak beste, ekibokoa eta hitz jokoa aipatzen ditu. Ehiztariak esaten duen esaldi hori, ekibokoa izango litzateke, interpretazio bat baino gehiago izan baititzake.

(28.) E19-06 Urdia zuria kontakizuna ere, hitz joko batean oinarritzen da, eta irakurle-entzulearen eskutan dago hori interpretatzea. Horrelaxe kontatzen da:

> «Beste bat joana da kofesatzeat, eta zazpigarrenian:
> -Urdia eatsi dut! Urdia zuria.
> -Berdin balio dio hola erabiltzia.
> -Urdia zuria zen.
> -Berdin balio dio zuria ala beltza.
> -Ze in behar?
> -Ahal baduzu turnatu eta bestenaz ez, zerbeit elizandako eman.
> Meza finitzen duzu
> Gelaria: Badiau politik,
> -Zer da?
> -Urdia falta diau.
> -Urdia falta? Gizon bat izan da kofesatzen, eta "urdia zuria" uste nin koloria ziala erran nahi.
> Etziala bihamonian emain!»

Kontakizun honetan, polisemia joko batekin bi klasema nahasten dira, eta batetik besterako saltoa ematen da. Bakoitzean isotopia semantiko hauek bana ditzakegu:

«izenlaguna»→ «zuria»

↓

«kolorea»→ «zuria»

(5.) E4-17 "Xalgia ments" kontakizunean kontatzen da Adorazionean apezak elkartzen zirela. Batek bazekien apeza gelariarekin etzaten zela eta xalgia apezaren ohean gorde zuen. Urte batetik bestera apaizak berriz elkartu ziren eta orduan xalgia faltan somatu zuen apaizak. Gorde zuen apezak berak bazekien non zen. Apezaren ohean gorde zuela. Horrela, jakin zen ez zuela apezak bere ohean lo egiten, gelariarekin baino.

Kontakizun hau ere degradazioarekin amaitzen da. Apeza irrigarri geratzen da besteen aurrean, eta gelariarekin etzaten dela jakiten da. Bergsonek mundua

itzulikatuta erakusten digun edozein egoera irrigarri gertatzen dela dio. Kasu honetan, apaizak egunero gelariarekin oheratzen dela pentsatzeak irria sortzen du.

(11.) E14-08 "Apezpikua eta apeza" kontakizunean, apezpikua apezaren etxean geratzen da lotan. Arrazoiak desberdinak dira kontakizun batetik bestera. Batean eguraldiak okerrera egin duelako, bestean gelariarekin lo egiten ote zuen zurrumurrua entzun duelako…Bi gela besterik ez zituela esan zion apaizak, eta berarekin egin beharko zuela lo. Goizean esne banatzailea pasatu zenean, apezak, bestetan bezala, gelaria berarekin ohean zela pentsatuz, esaten dio: "Maddi, esnekaria duk!". Eta bere burua salatzen du.

Degradazioa gertatzen da, protagonistak, alegia, apezak, gelariari deitzean, ustez berarekin ohean delako, eta bere burua nabarmen uztean, apezpikua haren ohiturez ohartzen delako. Berriz, ere dorpezia eta mekanikotasuna dira protagonistaren ezaugarriak. Gelaria eta apezpikua ohean trukatzeak, era berean, mozorro-festa ekartzen digu gogora, eta komikotasuna sortzen du.

5.1.5. ERGEL-ARGIEI BURUZKOAK

Pertsonaia tipoak aipagai ditugula, kontakizunetan sarritan agertzen den beste "tipo" bat "laboraria" edo "nekazaria" da. Chevalierrek defendatzen du (1982:126-128) tuntun papera jokatzen duen nekazariaren parean, badela beste nekazari "bizkor" eta "irri-eragile" bat:

> «El folklore español de los siglos XVI eta XVII conoce el tipo del campesino ridículo, el tipo del tonto de la aldea. Pero al lado de esta imagen vive otra, la de un socarrón».

Euskal literaturan, horren adibiderik onena, Peru Abarca bera izango genuke, hizkuntza erabiltzean daukan trebetasunarekin mediku doktorearen gainetik jartzea lortzen baitu, eta buruan daukagun ordena logikoa aldarazten digu, komikotasuna sortuz.

Era berean, beste puntu garrantzitsu bat aipatzen du Chevalierrek "nekazariaren" tipoa aztertzean eta esaten du nekazarien inozokeriari buruzko folklore hori ez dela zertan kalekumeek edo hirietakoek sortua izan behar, izan daitekeela norbere buruaz irri egiteko modu bat ere, frantsesez "autodérision" dioguna:

> «Sera verdad que la risa es fenómeno social, fenómeno de grupo; pero es idea simplista pensar que un folklore negativo sobre un grupo social forzosamente hubo de nacer en grupo social distinto o antagónico. Se da con frecuencia el caso opuesto: harto sabemos, por ejemplo, que una considerable fracción del folklore anticlerical se forjó en seminarios y conventos» (Chevalier, 1985:128).

Antton Lukuk (2014: 172-173) maskaradez ari dela "arraileria" hitzaren atzean norbere buruaz irri egite hori ikusten du:

> «Arraileria umorea da bai, baina autoderisio batean finkatua, ez erranaren bidez konplizitatea bilatzen duena. Haurrek ez dute batere eta xaharrek kitzikatzen dituzte izpiritu itzuli hori bil dezaten kanpora joateko. Geriza daitezen kanpoko erasoetarik? Ingurua eta arraileria ahizpa biak dira.
>
> Arraileriak erakusten digu ez dela taburik, denetaz irri egin daitekeela. Trufa aitzintzen du erreplika ebakiz, ditxoka ari delarik besteari errima ebasten zaiolarik bezala edo dantzan beste aintzindariari ematen duen puntua. Bizitzeko manera da, ezbeharretan haserrearen uxatzeko, umore txarra elkarrekin lan egin beharra delarik ezin jasana delako. Baina bereziki probreen irria da, halabeharrari kaka hiri errateko manera. Pobre eta ez deusen aberastasuna».

Beraz, laborariek laborariei buruzko ixtorioak kontatzeak, eta apezek apezei buruzkoak arraileria horrekin loturan egon daiteke. Hona hemen laborariak aipagai dituzten zenbait ixtorio:

(55.) E13-11 kontakizunak, **"Olhan txakurren ixtorioak"** izenekoak, hauxe kontatzen du: mutil gazte bat olan lan egitera joan zen. Olatik ura ateratzean "Benedicamus" esan behar zen. Baina behin ahaztu egin zitzaion, eta nagusiak berriz bidali zuen ur bila. Gizon xahar bat topatu zuen bidean eta hark esan pixa egiteko bertan. Orduan nagusiak ur hori dastatzean: "Hau bai ur ederra!".

Gorputzaren eta materiala denaren "azpiko alderdiak" jartzen dira agerian ixtorio honetan ere, mutilak bere nagusiaz barre egiten du eta ixtorioa degradazioarekin amaitzen da, nagusiak bere mutilaren pixa edaten bukatzen baitu. Honelaxe baieztatu zuen Bergsonek:

> «(…) la persona jamás resulta ridícula si no es por un disposición que se parece a una distracción, por algo que vive en ella sin organizarse con ella, al modo de un parásito» (Bergson 2008 [1900]:120)

Nagusia galtzaile eta irrigarri geratzen da, tuntuna bezala, gertatu zaionaz konturatu ere egiten ez delako, eta mekanikoki jokatzeaz gainera (ura pixarekin nahastuta egonda ere berdin-berdin edaten du) ez da edan duenaz ohartzen. Horrek komikotasuna sortzen du.

> «Es cómica toda combinación de ocios y de acontecimientos que nos produce, insertas una en otra, la ilusión de la vida y la sensación de una disposición mecánica» (Bergson 2008 [1900]:54).

Alderdi semantikoari begiratuz gero itzulikatzen diren klasemak bereiziko genituzke. Horietako bakoitzak gure buruan sortzen diren isotopia semiologiko batzuk izango lituzke bere baitan. Oharkabean batzuk besteekin trukatzen ditugu eta egoerak itzulikatu egiten dira:

«nagusia» «autoritatea», «fidagarria», «boterea»

«mutila» «obedientzia», «esanekoa», «otzana»

Ustekabeko erantzun batekin amaitzen da **(60.) E17-03 "Müthil joan"** kontakizuna. Bertan kontatzen da, mutil joateko garaia iritsi mutil bati eta nagusiarekin lanaren ordaina akordatzera joaten dela. Nagusiak etxeko xingar, tripot… denak erakusten dizkio, eta han ez duela ezer faltako esaten dio. Mutilak, orduan, erantzun: "Aintzinekoak ukhen balitu ez zütükezün heben gehio!". Xingar-tripotak "aberastasunarekin" identifikatzea nahi eta mutilak "xuhurkeriarekin edo zekenkeriarekin" lotzean, gertakariak itzulikatu egiten dira.

(62.) E22-04 "Nagusia eta erbia" kontakizuna, Websterren eskuizkribuan ere jasota zetorren. Gutxi gorabehera hauxe da argumentua: nagusia eta mutila iratze pikatzen ari ziren. Ehiztariak inguruan zebiltzan. Ehiztariek erbi bati eman eta nagusi-mutilarengana iristsi zen. Nagusiak esan zuen: "—Ze asealdia behar dutan nik seurik!". Mutilak, orduan, keinuka ehiztariei abisatu zien han zela erbia ta ehiztariek, haserre, nagusia zafratu zuten hori ezkutatu izanagatik. Orduan, mutilak nagusiari erantzun: "—Ze zanpaldia bildu dukan hik seurik!".

Kontakizun honetan, nagusia eta mutila dira protagonistak, eta, berriz ere, bizitzaren ordena logikoa itzulikatu egiten da, mutila garaile ateratzen baita, eta ixtorioa nagusiaren degradazioarekin amaitu, sekulako zafraldia jasotzen baitu.

Nagusiaren eta mutilaren asmoen artean dagoen paralelismoa ere irrigarri gertatzen da:

> «(…)la repetición de una frase no causa risa por sí misma. Sólo nos hace reír porque simboliza una determinada combinación particular de elementos morales, símbolo a su vez de una combinación enteramente material»(Bergson 2008 [1900]:57)

Errepikapen horretan ixtorioaren muina azaltzen duten bi "hitz" edo "figura" giltzarri trukatzen dira, errimatzen dutenak gainera.

«Asealdia»→ garaipena, ospakizuna
↓
«Zanpaldia»→ huts egitea, zigorra

Hitz bakar bat trukatuta, guztiz itzulikatzen diren gertakarien berri ematen zaigu esaldi labur batean eta horrek efektu komikoa areagotzen du.

Beste ixtorio labur bat aztertuko dugu orain. **(54.) E29-08 "Bertza"** ixtorioa daramanak adibidez hauxe kontatzen du: gizon batek bertza lapurtu ziola bertza saltzaile bati. Donapaleuko gortera joan zirela afera konpontzeko eta gizonak dena ukatu zuela gero. Gortetik ateratzean eskaileretan behera zihoala bertza saltzaileak esan omen ziola: "—Galdu duk kontzientzia! Eta lapurrak erantzun: −Bai eta hik bertza!".

Kontzientzia galdu duela azpimarratuta, kargu hartu nahi zaio, baina ematen duen erantzuna, inolako damurik ez duenaren ahotik ateratakoa da. Freudek komikotasunaren teknika horri "astakeria" esango lioke.

> «Desde aquí nos gustaría, (...) tomar conocimiento de otros chistes que, totalmente al contrario, mostraran sin disfraz un contrasentido, un disparate, una estupidez. Tenemos la curiosidad de averiguar en qué podría consistir la técnica de estos chistes». (Freud, 1905:54)

(63.) E22-20 "Eiharazaina eta prefeta" kontakizunean kontatzen da prefetak herri batera etorri behar zuela. Alkateak ez zekien euskaraz baizik eta eiherazainari eskatu zion bere lekuan jartzeko. Iristean, elkarrizketan hasi eta ondo moldatzen zen frantsesez, baina puntu batera iritsita, ez zekien nola jarraitu eta aspertu eta egia esan zio: "Ni eiherazaina naiz, eta atzekoak nire astoak".

Kontakizun horretan ere degradazio bat ematen da kontakizunaren amaieran, alkatea irrigarri geratzen baita. Eiherazaina alkatearen lekuan jartzean, neurri batean

"mozorrotu" egiten da eta horrek komikotasuna sortzen du geure buruetan. Inauteri baten aurrean bagina bezala.

> «Causará risa toda imagen que nos sugiera la idea de una sociedad que se disfraza, la idea de una mascarada social. (…) Desde el momento en que nos olvidamos del objeto grave de una solemnidad o de una ceremonia, los que participan en ellas nos causan la impresión de estarse moviendo como marionetas». (Bergson 2008 [1900]:39-40)

Pertsonaiak, era berean, guztiz lauak dira, ez dago horien pentsamenduetan inolako garapenik. Panpinak edo txontxongiloak balira bezala jokatzen dute. Kontakizunaren amaierako esaldian, era berean, herriko alkateak eta gainontzekoak "asto" deitzen ditu, eta animaliekin identifikatu.

(67.) E29-17 Beruan azkar kontakizuna hitz joko batez osatua dago: laborari seme batek mutil joan nahi eta kontratua egitean esan zion nagusiari bera langile ona zela eta beroan azkar zela. Baina, gero, udan beroa etorri eta itzaletan lasai etzan zen.

> «—Beroan azkar? —galdetu dio nagusiak.
> —Bai, salda beroan»

Bi klasema nahasten dira "beroan" hitzarekin osatutako hitz jokoan, "beroaz" ari dela "giro berotik" "salda berorako" jauzia ematen baita, ondoko isotopia semiologikoekin:

«giroa»→ lana, jarrera
↓
«jana»→ gozamena, asea

(66.) E27-11 "Ardi kutzu" izenburua jarri diogun ixtorioak hauxe kontatzen du: etxekanderiak, nagusiari eta mutilari esan zien antzara sutan jarri zuela eta tarteka joateko begiratzera. Baina mutilak begia jan zion. Aitak mihia. Eguerdian nagusiak estalkia kendu eta: «-Ardi kutzu, begia non duzu? Mutilak erantzun: -Mihia emaiozu, berak erranen dauzu!».

Kontakizun hori irri kontakizunen aberastasunaren beste erakusle bat da. Prozesuaren amaieran degradazioa ematen da. Nagusiak mutila salatzen du, eta alderantziz, eta egoera horrek irria sortzen du. Baina hemen irrigarriena, salaketa hori adierazteko modua da. Freudek ideiak adierazteko moduari garrantzia emate hori horrela adierazten du:

> «No nos hace falta más que estudiar la particularidad de ese modo de expresión para asir lo que puede designarse como la técnica en las palabras, o expresiva, de este chiste, y que por fuerza ha de vincularse íntimamente a la esencia del chiste, pues tanto su carácter como su efecto de tal desaparecen si sustituímos aquel modo por otro». (Freud 1905:19)

Aipagarria da kontakizuna hitz joko batekin amaitzen dela. Horrelako kontakizunak ez dira asko gure bilduman. Hitz joko horiek erakusten digute kontakizun horiek euskaraz pentsatutakoak direla, itzulezinak direlako (-Ardi kutzu, begia non duzu? Mutilak erantzun: -Mihia emaiozu, berak erranen dauzu!). Euskarazko hitz joko errimatuak izanik, kontakizuna euskaraz sortutakoa dela esan dezakegu, kontalariak beste hizkuntza batean ikasi eta itzulitako hitz jokoa ez dela, alegia.

Hitz joko batean oinarritzen den gure corpuseko beste ixtorio bat **(49.) E1-04 Zordun abila**, honela laburbilduko genuke: gizon aberats bat zen eta denak "Abila" deitzen zuten. Gizon bati sosa prestatu zion eta horrekin behiak erosi zituen. Handik hilabete batzuetara oraindik sosa turnatzeko zegoen. Goiz-mezan lagun batek esan zion: "—Antton, sosa prestatu ziana akabailan duk!" Hartzekoduna bisitan joan zitzaion kobratzeko asmoz, eta esan: "—Enauk ezautzen, Abila nauk!". Eta besteak: "—Behartuko zaik!".

Irri kontakizun horren teknika esanahi bikoitza duen hitz jokoan dago. "Abila" delako pertsonari erantzun ordez, kinka horretatik ateratzeko, abila izateko beharra azpimarratzen baitu. Isotopia semantiko hori horrela irudikatuko genuke:

«Ezizena» → «Abila»
↓
«Nortasuna» → «abila», «trebea»

Hitz jokoak borobiltzen duen erantzun azkarrak irria sortzen digu, lehenik erantzun azkar horrek nahasmena sortzen digulako; jarraian, nahasmen hori argitu eta adierazpen horren esanahia agerian geratzen delako:

> «La respuesta en apariencia carente de sentido nos produce sorpresa, desconcierto, como dirían los autores. Ya sabemos que estos derivan todo el efecto de tales chistes de la alternancia de "desconcierto e iluminación"» (Freud, 1905: 57)

Frantsesezko hitz-jokoa izango genuke berriz, **(250.) Liburua khimberaz** txistean, "Leon" eta "Noel" hitzekin hitz-jokoa osatzen baitu.

5.1.6. ERLIJIOAREKIN LOTUTAKOAK

Mota honetako kontakizunak asko dira. Jean Barbierrek atal bat egin zuen bere liburuan horiekin (1989). *Gure Almanaka* aldizkarian ere, Jesukristo eta Jondoni Petri edo Jondoni Juanes pertsonaiekin badago kontakizunen bat edo beste jasota[26].

Gure bildumako **(150.) E23-05 "Jesukristo eta Jondone Jüane ber ohin"** kontakizuna, Jesukristo eta bere laguntzaileei (Jondoni Petri, Jondoni Juanes…) buruzko kontakizunetako bat da. Kontakizun horren argumentua hauxe da: Jesukristo eta Juanes etxe batean hartzen dituzte. Baina etxekandereak esaten die ogi jotzen lagundu behar diela. Jaikitzen ez direnez ohera joan eta zafrako bat ematen dio Juanesi. Jesukristok esaten dio lekuz aldatzeko, bestela beti Juanesek jasoko dituelako. Han, ordea, berriz jasotzen du.

Irri kontakizun honetan ere degradazioak edo kaltetua ateratze horrek eragiten du irria.

Hemen neurri batean, **mozorroaren** funtzioa ere betetzen da, bi pertsonaiak trukatu eta lekuz aldatzen direnean, Jondoni Juanes bi aldiz gertatzen delako zafratua, Jaungoikoa delakoan. Bata bestearen tokian jartzen delako. Jesukristo eta Juanes kontakizunetako pertsonaiek "edozein bi lagun" balira bezala jokatzen dute, ez dira inongo momentutan haiei buruzko datuak ematen, eta Jondoni Juanes (edo Jondoni Petri, beste kontakizun batzuetan) Jesukristoren laguntzaile funtzioa betetzera mugatzen da. Josianne Bruk (1999) erlijiozko gaia zuten zenbait kontakizunen umorea azpimarratzen zuen:

> «Mais ils peuvent aussi donner lieu à des récits quasiment facétieux où Saint Pierre, ayant tendance à se prendre pour son maître, est remis à sa place souvent avec beaucoup d'humour».

Gure corpusean pertsonaia horiekin kontakizun gehiago ere badauzkagu: **(149.) E1-01 Jesukristo eta Jondoni Petri** izenburudunaren argumentua hauxe da: Jondoni Petri

[26] Ikus, adibidez, "Jondoni Pethiri" in *Gure Almanaka*, 1928,69 or.

eta Jesukristo ostatu bila zebiltzan. Etxe batean abegitsu hartu zituzten. Etxean ostatuz hartu zituztenei nahi zuten eskaria egiteko aukera eman zien Jesukristok, eta ordainetan urre pila eman. Haien bizilagunak, horren berri jakitean, ostatu-truke dirua lortuko zutelakoan ziren. Horiek ere, beste batean, ostatuz hartu zituzten Jesukristo eta Jondoni Petri, dirua lortuko zuten itxaropenarekin. Baina dirua kontatzen hasi baino lehen, ordu luzetako lana izango zutenez, pixa egin behar zutela eskatu, eta desio horixe eskaini zien Jesukristok: pixa egiten pasa zuten gau guztia".

Irri baliabideei dagokionez, kontakizun horren amaieran, adibidez, ixtorioa borobiltzeko *quid pro quo* delako estrategia komikoa erabiltzen da. Antzerkian eta erromatarren garaitik, umore eta gatazka egoerak sortzeko erabiltzen zen estrategia hori, eta bi egoera nahastetik dator, pixa egitera joan nahi dutela eskatu eta behar fisiologiko hori "desio" modura hartzen baitute Jesukristok eta Jondoni Petrik.

> «Una situación es siempre cómica cuando a un mismo tiempo pertenece a dos series de acontecimientos enteramente independientes y puede interpretarse a la vez en dos sentidos muy diferentes». (Bergson 2008 [1900]:72).

(153.) E9-11 "Hila ala bizia?" kontakizunaz daukagun bertsio zaharrena, (3.1. kapituluan aipatu dugun moduan) Poggio humanistarena da. Bertsio horretan ez da hotsen aldaketazko hitz jokoa ematen, eta amaierako erantzun tuntuna da irria sortzen duena: sainduaren irudia bizirik ala hilik nahi ote duten galdetze hutsa.

Gure corpusean jasotako bertsioetako bat, ordea, *mauve ou vive* eta *mort ou vive* hitzen arteko jokoan oinarritzen da. Izan ere, bi isotopia semantiko nahasten dira : «kolorea» eta «existentzia» isotopiak trukatu egiten dira, gor xamar dagoen saltzaile baten akatsagatik.

«kolorea» ⟶ bizia ≠ iluna

↓

«existentzia» ⟶ bizia ≠ hila

Ixtorioak hauxe kontatzen du: elizetako alboetan jartzen diren sainduak garbitu egin behar ziren eta horietako bat puskatu egin zen. Baionako saindugile frantximenta bati berria egitea agindu zioten, eta orduan gizon bat bidali zuten erostera. Hango andre batekin mintzatu zen, baina andreari zer koloretakoa nahi zuen galdetzea ahaztu zitzaion. Haren senarrak kaletik urrutira ohiukatzen zion erosleari: Zer nahi duzu

mauve ou vive? Baina eroslea zertxobait gorra zegoen, eta "*mort ou vive*?" ulertu. Eta « −Guhaurek hilen dugu" erantzun.

Gure bertsioan kontakizunari irria eragiten dion pizgarria ulertzeko, amaierako frantsesezko hitz jokoa ulertu behar da. Amaierako gaizki-ulertu horrek eragiten du irria, hitz joko batek eragindako gaizki-ulertuak. Kasu horretan, saltzailearen gorreria ere ezinbesteko bilakatzen da kausalitatea borobiltzeko. Baldarkeria horrek zabaltzen baitio bidea amaierako hitz jokoari.

Poggioren aldaera zaharrean, berriz, eta guk jasotako beste bertsio batean ere ez da frantsesezko hitz jokorik agertzen eta "hilik ala bizirik" nahi ote duen galdetze hutsak, galderaren zentzugabekeria hutsak bere horretan sortzen du irria.

5.1.7. ANIMALIEI BURUZKO IRRI IXTORIOAK

Thompsonek bananduta aztertzen ditu "animalien ipuinak" eta "irri ipuinak". Baina R.A. Ramos-en ustez (1988:28), biak "irri ipuina" generoaren azpitaldeak dira, ezaugarri berdinak dituztelako: laburtasuna, atalen batasuna, eta umore alderdiak. Animalien ipuinak denborapasako funtzioaz gain, funtzio didaktikoa eta mezu etikoa ere baldin badauzka, "fabula"izena ematen zaiola dio:

«La brevedad y la unidad episódica y el enfoque humorístico-burlesco. Dentro del género "Schwank" incluímos dos grupos: los "cuentos de animales" y los "merry tales" o los "schwanke" en su definición más restringida (…). El argumento de los cuentos de animales por lo general consiste en la habilidad de un animal de engañar a otro falto de sentido común; cuando el mismo tema tiene una función didáctica además de recreativa y encierra un mensaje ético o una moraleja, se conoce como fábula».

Gure bildumako kontakizun batzuk ere, animaliak protagonista dituztenak, sartu genitzake irri kontakizunen multzoan, bukaerako moraleja edo erakutsi hori desagertzen joan eta irri ixtorio modura aurkezten baitzaizkigu:

(157.) E14-09 "Hartza, otsua eta axeria" kontakizunean, adibidez, hartzak eztia nahi eta burua sartu zuen zuhaitz baten artekan. Axeriari laguntza eskatu zion handik ateratzeko. Elurra egiten zuen. Axeriak esan zion kontuz ibiltzeko otsoarekin. Orduan, axeriak elur bola bat hartzaren atzean jarri eta otsoaren sudur hotza zelakoan, harrituta burua atera zuen zulotik.

Degradazioa gertatzen da, hartza tuntun modura geratzen baita eta axeriaren engainu hutsarekin ateratzen baitu burua.

Kontakizun honetan Bremondek (1966) "laguntzaile" deituko lukeen papera beteko luke axeriak. Axeriak kinka larri batetik ateratzen lagunduko baitio hartzari. Kontakizuna hain da laburra ez baitu zehazten zergatik laguntzen duen, eta ez genuke jakingo Bremondek (1966) hiru laguntzaile mota horietatik bat den ere (solidarioa, hartzekoduna edo zorduna), emandako laguntzaren truke jaso nahi dutena kontuan izanik desberdintzen baititu.

Animaliak protagonista dituzten kontakizun hauetan, animaliek gizon-emakumeen jokabide eta pentsamenduak dituzte, eta hitz egin ere, gizon-emakumeek bezala egiten dute. Bergsonek honela azaldu zuen hori:

> «No hay nada cómico fuera de lo que es propiamente humano. (...) Nos reiremos de un animal, pero porque en él habremos sorprendido una actitud propia del hombre o una expresión humana». Bergson (2008 [1900]:12)

(158.) E20-03 Otsua eta axeria izenburukoan, hauxe da kontakizunaren argumentua: otsoa gose zen. Axeriak hori jakin eta engainatu egin nahi zuen. Asto bat ikusi zuten eta otsoari esan zion harekin hitz egitera joango zirela eta astoari lepotik soka bat estekatu behar ziola. Otsoak hori egin eta sokaren beste aldea bere lepoan jarri zuen. Gero axeriak astoa jo zuen makil batekin, eta astoa korrika joan zen ihesi. Axeriak, orduan, esan zion otsoari: "—Utzak! Utzak!" Eta otsoak erantzun: "—Utzi ahal banu, utzi niok!".

Amaieran, degradazioa gertatzen da, otsoak ez baitu jatea lortzen, eta gainera, zigortuta eta kolpatuta geratzen da.

Animaliak protagonista dituzten kontakizun hauetako batzuk ere, irri ixtoriotzat joko genituzke, beraz. Horien helburua ez baita beti didaktikoa, jolasezkoa baizik, ez dute amaieran moralejarik, eta protagonistaren degradazioarekin amaitzen dira.

5.1.8. GEZURREI BURUZKOAK

(124.) E11-12 Ihiztaria ahohandi kontakizunak oinarri emango lioke "Ehiztariari erdia bakarrik sinestu" errefrauari, frantsesez "Chasseur, vanteur" esaten zaionari.

Ehiztari ahohandi eta handiusteen kontakizunak ezagunak dira herri literaturan. Honela dio J. Bruk (1999):

> "Après les anecdotes sur les autres groupes de personnes, viennent les Contes de mensonge. La fantasie verbale règne au plus haut point dans ces récits où la vantardise des chasseurs se taille la part belle et qui clôturent le cycle des contes facétieux".

Hauxe da argumentua: hiru ehiztari aho handi elkartu ziren. Batek zioen bere zakurra kuxanta zela: Larrainen jo urzo bat eta berrogei kilometra ekarri zuela. Beste batek bere zakurrak basurdea harrapatu zuela. Hirugarrenak, gehiago izan nahi eta emazteak sudurra terriblekoa zuela esan zuen : jarrutiela konponarazi eta biharamunean facturr(ar)en koskoilekin jin zekiokela".

Kontakizun horretan ehiztaria bera irrigarri geratzen da, bere handiustean emaztea postariarekin ibiltzen zaiola esaten baitu.

5.1.9. IRRI IXTORIO "GORDINAK"

Gure corpusean gai "gordinak" edo "berdeak" dituzten zenbait irri kontakizun jaso ditugu. Euskarazko bildumetan sail honetakoak izango dira ezezagunenak. Beste tradizio eta hizkuntza batzuetan ere baztertuta egon dira, arrazoi desberdinak tarteko. Zenbait kasutan, bestelako kontakizunekin tartekatuta argitaratu badira ere, beste zenbaitetan, aparteko bildumetan argitaratu dira.

Atal honetan gure bildumako kontakizunez eta horien ezaugarriez mintzatuko gara. Era berean, aipagai izango ditugu Websterrek jasotako bi ixtorio, horiek ere gai gordinekoak, hain zuzen ere, Websterren ipuinez Xipri Arbelbidek Euskal Editoreen Elkartean agindako edizioan (1992) jasotzen ez direnak.

Gure corpuseko material "gordina" sailkatzean, Claude Gaingnebet-ek (1980) egin zuen moduan, banatu egin ditugu gorputzaren behar fisiologikoez (kakak, pixak, hutzak...) ari diren eskatologikoak eta sexu kontuei aipamena egiten dietenak, "engainu ipuinak" ere deitu izan direnak. Del Campo Tejedor-ek (2003:497) gai eskatologiko horien komikotasunaz ohar hauek egin zituen:

> «En un nivel básico, la comicidad deriva de tratar un tema normalmente tabú, perteneciente a la esfera de lo innombrable, y muy especialmente de lo bajo y lo sucio. Muchas coplas juegan con la inversión del orden, enfatizando

> precisamente las bondades de lo que normalmente, en el tiempo cotidiano, resulta inmundo. (…) En el fondo, ambas lógicas remiten a la misma, pues tanto mentar el tabú, como exaltar lo ínfimo, resultan inversiones contra el docoro y el orden».

Gai eskatologikoa dutenen artean, besteak beste, orain aztertuko ditugun kontakizun hauek sartu ditugu:

Gure bildumako **(120.) E8-14 eta E29-12 "Xaguak elizan"** kontakizunean**,** apeza eta eliz gaiak tonu komikoan hartzen dira, antiklerikalismoaren beste erakusgarri batean**.** Hauxe da argumentua: **a**pez lapurtar bat Zuberoara joan eta zuberotarrez meza ematen saiatu zen. Neska ergel batzuk, ordea, barrez ari ziren. Bere gelariari galdetu zion zer zuten. Gelariak gezurra esan zion: xagu bat zebilela zulo batetik bestera. Hurrengo igandean berdin. Baina emazte lodi bati errosarioa erori ta jasotzean uzkerra bota zuen. Apezak orduan esan: "—Bai hurrengorako tapatuko dut nik zuloa!".

Kontakizunaren amaieran degradazioa ematen da, apaiza pertsonaia nagusia irrigarri geratzen baita. Kontakizun guztia antzerki bat bezalakoa da, apaiza barregarri uzten duen antzerkia. Eta amaierako hitz jokoak "zuloa" hitzaren esanahi anitzarekin jokatzen du. Paretako zuloaz gain, ipurdiko zuloa ere adierazten baitu. Freud-ek honela dio (1905:39): "La acepción multiple es mucho más llamativa que el doble sentido".

Isotopia semantiko «material» batetik «fisiko» batera igarotzen gara.

«materiala» → «pareta», «zuloa», «konponketa»
↓
«fisikoa» → «ipurdia», «gorputzaren beheko alderdiak», «uzkerra»

(119.) E17-01 "Putzaren barkamendua" irri ixtorioan erabiltzen den umore motan ere, uzkerrak, ipurdia, eta gorputzaren eta materiala denaren "azpiko alderdiak" errepikatzen dira. Kontakizun honetan, tonu irmoaren eta lagunarteko tonuaren arteko talka hori ikusten dugu.

Hauxe da kontakizunaren argumentua: emazte batek artoxuritzetan hutza bota zuen. Baina ez zuen aitortu eta sekulako zalaparta sortu zen, nondik atera zen ezin jakin eta batak bestea salatzen baitzuen. Gero damutu eta konfesatzera joan zitzaion apezari. Apezak penitentziarekin batera gutunazal bat eman zion senarrari eramateko.

Eta hauxe jartzen zuen bertan: "Barkatu dut Aña Gorriri/ Joan den egunian egin din utz hori / Baina gauza hori ez dadin berri/ Zilotik sarkozu sudur handi hori".

Kontakizun hau ere degradazioarekin amaitzen da, eta emazte uzkergilea salatua eta irrigarri geratzen da. Ixtorio honetan bi alderdi komiko behintzat baditugu. Batetik, lehen aipatu dugun testuingurutik kanporako hizkuntzaren erabilera hori. Ez dugu espero, apezak, pertsona serios eta errespetuzkoa, horrelako erantzuna ematea.

Bestetik, eta nagusiki andreari ateratako hutz horrek, hutza atera zaiola azpimarratzeak berak, irria sortzen digu (Bergson 2008 [1900]:44):

> «El poeta trágico tiene buen cuidado de evitar todo aquello que pudiera llamar nuestra atención sobre la materialidad de sus héroes. En cuanto interviene la preocupación por el cuerpo, es de temer una infiltración de lo cómico».

(116.) E4-09 Ezkonberria ixtorioan, emazteak gizonari pantaloinak[27] erosi zizkion beroa emateko asmoz, baina gizonak pantaloinak eramateko ohiturarik ez, eta kaka egitera joatean, pantaloinak jaistea ahaztu zuen eta gainean kaka egin. Ondorioz, pantaloinek beroa ematen zutela jakinda (kausa), pantaloinetan kaka egin eta berotasuna sentitu zuen (efektua).

Bergsonek idatzi zuen (1900:128) zenbaitetan irria sorrarazten diguna **absurdoa bera** dela, agerian dagoen absurdoa. Zentzuzkoak diren gauzak trukatzeak eta egoerak, gauzak horiei buruz aldez aurretik daukagun ideiari egokitu nahi izateak, irria sortzen duela:

> «El absurdo cuando lo encontramos en lo cómico, no es un absurdo cualquiera. Es un absurdo determinado. No es un absurdo que crea lo cómico, sino que más bien se deriva de él. No es la causa, sino el efecto, un efecto muy especial, en el cual se refleja la naturaleza especial de la causa que lo produce. Ya conocíamos la causa. Por lo tanto, no nos costará mucho comprender ahora el efecto».

Izan ere, kontakizuneko gizonak pantaloinek beroa eman behar ziotela jakinda, ez zen ohartzen gainean kaka eginda zihoanik. Egoera hori absurdoa izanik ere, oharkabean pasatzen da gizonarentzat.

[27] Gantzontziloak, alegia

(121.) E8-21 Hiru neskato gazte txistearen argumentua horrela laburbilduko genuke: hiru emazte joan ziren Jondone Petiriren aintzinerat. Hark emazte bati: "Ta zuk nola pastu duzu lurrean bizia?": "—Gizonekin ibilita". "—Zoazi heriorat". Bigarrenak: "—Gizonekin ibili ta batek haur bat egin ta hori altxatzen". "—Zoaz zerura". Hirugarrenak: "—Nik pixiteko besterik ez dut erabili". "—Zoazi kakiterat!".

Ixtorio honetan "pixa" eta "kaka" aipatzen dira, irri kontakizun askotako irri baliabidea. Txomin Peillenek (1985) hain zuzen ere, Zuberoako herri literatura aztertu zuenean, besteak beste, "ziloak", "kaka", "ipurdi eta gorotzak" aipatu zituen, aintzinako Erromako eta Greziako herri literaturan, eta baita Europako Erdi Aroan ere erabiltzen ziren baliabideak.

Ixtorio hori irrigarri bihurtzen duen beste alderdi bat, amaierako erantzuna da, Jondone Petiriren ahotan entzutea espero ez duguna. Bergsonek honela azaltzen du ustekabeko erantzun horren irri mekanismoa (1900:36):

> «Se explicará la risa por la sorpresa, por el contraste, etcétera, definiciones que se aplicarían igualmente a una multitud de casos en los que no nos dan ganas de reír. La verdad no es tan simple. Pero he aquí que llegamos a la idea de disfráz».

Izan ere, zaila egiten zaigu Jondoni Petri itxuraldatu hori ulertzea, hain juxtu ere, beste gizonekin ibili ez dela aitortzen duenari ustekabeko erantzun hori emanez, jokoz kanpo uzten baikaitu, Jondoni Petriren paperean ezagutuko ez bagenu bezala, eraldatuta, mozorrotuta balego bezala.

Sexu gaiko kontakizun gordinen ezaugarriez mintzatu garenean (2.6. kapitulua), gure kontakizunetan ikus ditzakegun lau alderdi azpimarratu ditugu. Aipatutako alderdi horiek, gure corpuseko kontakizunekin lotzen saiatuko gara kapitulu honetan. Kontakizun guztietan ez dira ezaugarri guztiak ematen. Kontakizun batean, beharbada, horietako bat aurkituko dugu, eta beste batean beste bat, baina ohartuko gara, antzeko baliabideak errepikatzen direla guztietan. Ezaugarri horiek xehekiago aztertu eta hobeto ulertuko ditugu gure corpuseko adibideekin.

Laburbiduz, hauek izango lirateke kontakizun gordinez aipatu ditugun lau ezaugarriak: lehenik Afanasievek aipatutako (1991:21) eta kontakizun larrietako bereizgarri den **"transposizio poetikoaz"** hitz egin dugu, alegia, gauzak eta ekintzak beren izenez deitzeko ezintasunak, horiek deskribatzera eramaten gaituela. Baliabide horien antzekoak oso erabiliak izan dira bertsolarien artean. Esaterako, Mañukortak

Imanol Lazkanori ofiziokako saio batean emandako erantzunean, "kandelaren punta" aipatzen duenean[28]. Era berean, koitoaren ekintza bera, arrazoi berdinagatik, askotan onomatopeia bidez izendatzen da. Gure corpuseko (**75.) E2-04 "Artzaina ostatu bila"** kontakizunean, adibidez, "kitxin-katxaketan" dabiltzala esaten da.

Bigarrenik, **"lañotasun itxura"** aipatu dugu, kontakizun batzuetan emakumeak sexuari buruz ezer ez dakiela ematen baitu, kontakizunak aurrera egin ahala, hori itxura hutsa dela frogatu arren (Frappier-Mazur 1993:30).

Hirugarrenik, esan dugu, **inoiz ez dituztela maitaleen sentsazioak edo maitasun sentimendua deskribatzen** eta dibertigarritzat jotzen dutena kontatzera mugatzen direla, sexu harremana ekintza naturala balitz bezala.

Laugarren ezaugarria **emakumeen argitasuna** izango litzateke, kontakizun askotan ageri den ezaugarria: gizona engainatzea lortzen duelako, edo arazo bat konpontzeko azkartasuna duelako… Emakumeak gizonezkoa engainatu eta garaile ateratzeak kontakizunari komikotasuna ematen dio.

Gordinen atalean sailkatu ditugun guztiak ez dira, ordea, "engainu ipuinak". Baratza hori baino oparoagoa da. Badira, besteak beste, animaliak tarteko dituzten ixtorioak… T. Peillenek bere lanetan bildutako kontakizunak eta gure bildumako batzuk berdinak dira eta hauxe dio kontakizun horietako umoreaz (2002: 458):

> «Biraoak eta hitz itsusiak, zubereraz « elhe llarri » bezala ezagutuak ez ditut ixtoria horietan orainarte entzun. Sexu gauzetan ere barre gehiago eginarazten dute sugerentziek, deskribapen eta hitz larriek baino».

Gure corpuseko "irri kontakizun gordin" batzuk xehekiago aztertuko ditugu orain, aurretik aipatutako ezaugarriak erakusten ote dituzten ikusteko:

(107.) E40-10 "Agur, Maria, Graziaz, Betia" kontakizuna paralelismoan oinarritzen da. Labur-labur hauxe da argumentua: apezak behizain egoteaz gozatzen zuen mutil bati errezoak irakatsi nahi zizkion, baina kosta egiten zitzaionez, irtenbidea

---

[28] Ikus Bertsolaritzaren Datu Basean Imanol Lazkanok, Sebastian Lizasok eta Mañukortak 1990eko otsailaren 24an hirunaka egindako saioan Mañukortak esanak:

Hamar-hamabost umek / egin zuten junta
bi neska-mutil hortxe /galdurik kondukta,
ia-ia sarturik / kandelaren punta
ez da pekatu baina, / mila duro multa.

bilatzen saiatu zen, mutilaren behiei izenak emanez: "Agur", "Maria", "Graziaz", "Betea". Apaiza beste egun batean ikasitakoa gogoraraztera etortzerakoan, haurrak Maria izendatzea ahaztu zuen. Apaizak, orduan, kargu hartu zioenean, haurrak erantzun: "—Maria, susara dago!".

Mutilak hutsune bat zuen, ez zekien errezatzen. Apaiza mutila bide onetik zuzentzen saiatu zen, baina ez zuen lortu eta, horregatik, apaizaren degradazioarekin amaitzen da kontakizuna. Kontakizunaren amaieran, era berean, antiklerikalismoaren adierazpentzat jo genezakeen esaldia ateratzen da mutikoaren ahotik: "Maria" behia "susara" dagoela baieztatzen du. Gure buruetan, errezutik jaten duen "Andre Maria"-hitzarekin egiten dugu inplizituki lotura. Bi klasema horiek maila berean jartzeak irria sorrarazten du. Isotopia semantikoak trukatu egingo lirateke, bakoitzarekin loturan datozen isotopia semiologikoekin:

«Jainkozkoa» → «Andre Maria», «birjina»
↓
«Animalia» → «behia», «susara»

Irri kontakizun "gordinen" artean bereizgarrienetako bat, beharbada, **(73.) E2-01 Egun on** izenburuduna da. Hauxe da kontakizun horren argumentua: apez batek bazuen bettoin bat. Beste gizon zahar batek bi zituen ta behiak elkarrekin nahasten ziren. Apezak nahi zituen behiak bildu beretzako eta apustua egin zuten. Zeinek esan batak besteari lehenik "egun on". Gizon zaharrak zurubi bat jarri zuen apaizaren leihora eta handik apaiza gelariarekin jolasean ikusi. Apaizak segituan leihoa ireki zuen eta gizon zaharra han zen. "–Aspaldi al zaude hor?"–galdetu zuen. "–Aita Saindua Erromako zubian sartzen ari zela".

Kontakizun horretan, egoera komikoak sortzeko baliabide ezaguna erabiltzen da: serieen interferentzia edo antzekoa den *quid pro cuo*. Bergsonek dioenez, (2008 [1900]: 73) teknika hori esaldi berari bi esanahi ematean datza. Elkarri gainjartzen zaizkion bi esanahi, baina oso modu desberdinean interpretatu daitezkeenak:

> «Pasamos de ese juicio falso al juicio verdadero; oscilamos entre el sentido posible y el sentido real; y ese balanceo de nuestro espíritu entre dos interpretaciones opuestas es lo que primeramente aparece en la diversión que el *quid pro cuo* nos causa».

Lehen aipatu dugun transpozio poetikoa ere ikus dezakegu kontakizun honetan: gizonaren sexu organoari "aita saindua" esaten dio. "Alua", berriz, "Erroma"

izango litzateke. Gauzak eta ekintzak beren izenez deitzeko ezintasunak horiek deskribatzera behartzen baikaitu.

Azken batean, kontakizun horretako isotopia semantikoei begiratzen badiegu, efektu komiko hori lortzeko «erlijioa» eta «sexua» isotopiak trukatu egiten direla ikus dezakegu:

«erlijioa»→ «Aita Saindua», «Erroma»
↓
«sexua»→ «gizonaren tresna», «alua»

Kontakizun horretako pertsonaia nagusia, apaiza, irrigarri geratzen da, eta haren degradazioa ematen da kontakizunaren amaieran, gelariarekin jolasean harrapatzen baitute. Herri literaturako antiklerikalismoaren beste adibide bat izango litzateke.

(76.) E3-05 Taula erdian kontakizunak hauxe kontatzen du: apezpikuak jakin nahi zuen nola egiten zuten lo ganbera bakarra edukita, hain apez etxe txikian. Eta apezak erantzun ohe bakarra zutela baina erdian taula (edo zakurra, beste aldaera batean) jartzen zutela. "—Eta zer egiten duzu inketatzen zarenetan". "—Itzuli bat egin eta ohera berriz". "—Eta biak inkietatzen bazerete?". "—Taula kendu. (edo zakurra bidali)".

Freudek aipatzen duen tekniketako bat (1905:55) *zentzugabekeria, astakeria, tontakeria* da eta teknika hori darabilten txisteen berri ematen digu. Zentzugabekia irrigarriaren atzean zentzu bat ezkutatzen dela esaten du, eta zentzu horrek zentzugabekeriaren barruan, zentzugabekeria txiste bilakatzen duela:

> «¿Por qué vía, pues, el disparate se convierte en chiste? (...) en ese sinsentido (disparate) chistoso se esconde un sentido, y que este sentido dentro de lo sin sentido convierte al sinsentido en chiste.»

Gure bilduman behin baino gehiagotan jaso dugun kontakizun hori txistetzat jotzen du Freudek, tradiziozkoa dela dakigun arren. Kontakizun hori ezaguna da eta Alfredo Asiainek ere jasota dauka bere bilduman (1999).

Freud-ek, era berean, txistea definitzerakoan (1905:14), "ustekabeko gertaera edo erantzuna" aipatzen du, besteak beste, hau dionean:

> «El factor del «desconcierto e iluminación» nos hace ahondar en el problema de la relación del chiste con la comicidad».

Alegia, espero ez dugun amaiera batekin gertakarien haria hausten bada, komikotasuna sor daitekeela. Horixe gertatzen da kontakizun horretan. Bete-betean harrapatzen gaitu ustekabean. Apezpikuaren galderei bi aldiz zentzuz eta neurriz erantzun eta gero, hirugarren erantzunak ustekabean harrapatzen baikaitu:

«(Apezpikuak) –Eta zer egiten duzue biak inkietatzen bazarete?

(Apaizak) –Taula kendu».

(86.) E8-14 "San Antoniori eskerrak" izenburua daraman kontakizunean, bi lagun ditugu protagonista. "Bi lagunak San Antoniori eskatzera joan zitzaizkion eta bakoitzak desio bat zuen. Batak eskatu nahi zuen bere haurrak oinez ikas zezala. Besteak, berriz, bere behiak bi ume izan zitzala. Hurrengo urtean eskerrak ematera joan zitzaizkion San Antoniori eta elkar ikusi zuten: lagunetako bat kurri joan zitzaion besteari, kontatzeko bere haurrak lortu zuela oinez egitea. Lagunak erantzun zion, behiak ordez emazteak izan zituela bi haur".

Protagonistaz ezer gutxi dakigu. Protagonistez dakiguntxoa da bakoitzak zer duen, batak seme bat, eta besteak behi bat behintzat. Ez da esaten, baina baserritarrak izan daitezkeela pentsa dezakegu.

Prozesuaren amaieran degradazioa gertatzen da. Degradazioa gertatzen da, bietako batek ez duelako bere nahia lortzen. Horren ordez, behiak izan ditu haurrak. Emaztearen eta behiaren ekintzak parekatzeak sortzen du komikotasuna. Hain zuzen ere, bigarren lagun horrek bere nahia lortu ez izana, gertatu zaion horixek egiten du irrigarri kontakizuna (adieraziaren maila). Baina ez horrek bakarrik, bi lagunen elkarrizketak modu labur eta zuzenean, paraleloki agertzeak ere (adierazpenaren maila) irrigarri egiten du kontakizuna.

Hemen ere, «animalia» klasematik «gizakia» klasemara salto egiten da eta horrek inplizituki animaliaren eta gizakiaren arteko lotura egitera eramaten gaitu. Eta horrela irudikatuko genuke:

«animalia» ⟶ «umeak izan»
↓
«gizakia» ⟶ «haurrak izan»

Bergsonek lege hori horrela izendatzen du (2008 [1900]:47): "Nos reímos siempre que una persona nos causa la impresión de una cosa".

Beste adibide polit bat daukagu kontalari beraren **(74.) E2-02 "Apezaren froga"** kontakizunean**.** Argumentua honela laburbilduko genuke: apezak neska haurdun utzi, eta beste gizon batekin esposarazi zuen, eta haurra sei hilabeteren buruan sortu. Senarrak orduan esan zion sei hilabeteko haurrik ez zela sortzen. Apezak, egoera horren aurrean, emazteari lagunduko ziola esan zion. Senarra arrantzan aritzen zen eta amuarrainak ekarri zizkion apezari eta kezkatuta apezari kontatu: emaztea ukitu ez eta haurra jaio zela sei hilabetera. Apezak "buxtana" edo "tresna" erakusteko eskatu zion eta azalpena eman: «Badirela seikoak, zazpikoak eta gizon harena "hari ttittar bat" dela. "—Hori tresnak iten du". Apaizak, orduan, bere tresna ateratzen du: "—Hau da bederatzi hilabetekoa".

Sexuaz hitz egiteko, termino materialez baliatzen da, eta isotopia semantiko hauek trukatzen ditu:

«fisikoa» → «sexua»
↓
«materiala» → «hari ttittarra», «tresna»

Kontakizun horretan transposizio poetikoa ematen da gizonaren sexua izendatzean: "tresna", "buxtana", "hari ttittar bat" hitz eta esapideak erabiltzen baitira. Maitaleen sentimenduak ere ez dira adierazten, sexu-jarduna ekintza naturala balitz bezala. Senarra adardun bilakatzen da, emazteak engainatu egiten du, eta degradazioarekin amaitzen da kontakizuna. Ematen du emazteak ez dakizkiela sexuaren ondorioak, apaizarekin jolasten denean, eta neurri batean, "lañotasun itxuraz" ere hitz egin genezake.

Kontakizunean irria sortzen duena pertsonaia nagusiaren tolesgabetasuna, inozentzia da, ziria sartu dioten gizonak ez baitu maliziarik, tuntuna izaterainoko irudipena ematen diguna. Bergsonek (2008 [1900]:105] berak hitz hauekin azaltzen digu:

> «Tomad cualquier otro personaje cómico. Por más consciente que pueda ser de lo que dice y de lo que hace, si resulta cómico es porque hay un aspecto de su

> persona que él ignora (…) Las frases profundamente cómicas son las frases ingenuas en las que un vicio se muestra desnudo».

Izan ere, gizon adarduna haurra sei hilabeteren buruan jaio izana ulertu ezinik, apaizarengana joaten da, azalpen bila. Eta ez hankarik ez bururik ez duen azalpena jaso arren, gizon xaloak onartu egiten du.

Apaiza bera ere komiko gertatzen zaigu, elizaren eta kastitatearen ikur den apaiza sexu kontuetan horren esplizitua izatea, espero ez dugun ustekabeko jarrera delako. Kontakizuna degradazioarekin amaitzen da, senarra adarrekin eta engainatuta geratzen delako, eta horrek komikotasuna sortzen du.

(75.) E2-04 "Artzaina ostatu bila" kontakizunaren argumentua hauxe dugu hitz gutxitan esanda: artzaina menditik jaitsi zen nekatuta eta ostatua galdegin zuen. Bi ohe zituzten bakarrik eta artzaina Maddi alabarekin ezarri zuten ohean. Baina berotzearekin pixka bat ernatu zen. Artzaina biharamonean joan egin zen, eta amak alabari galdetu zion zertan aritu ziren. Eta alabak erantzun: "–Ez balu pixa iteko zuloa bilatu, tripak aterako zizkan".

Kontakizun hori "lañotasun itxuraren" beste adibide bat da. Maddi gaztea artzainarekin "jolasten" da, baina zer egin duen ere ez dakiela azaltzen du: " ez balu pixa iteko zuloa bilatu, tripak aterako zizkan" esaten duenean, sexuaz ezer ez dakiela adierazten du eta hori komiko gertatzen da.

Bergsonek esaten zuen (2008[1900]:105) "distrazio batek irria eragin diezagukeela, baina are irrigarriagoa izango dela, distrazio hori gure aurrean sortzen eta garatzen ikusi badugu". Eta horixe gertatzen da kontakizun honekin. Gurasoek artzain ezezaguna alabarekin ohe berean sartzea axolagabekitzat jo genezake, eta etorriko denaren aurrerapena ematen digu. Horregatik amaierako erantzun hori irrigarri gertatzen da.

Kontakizun honetan, neskatila xalo eta inuzente bat agertzen zaigu, itxuraz sexu-kontuez batere ez dakiena, eta hain zuzen, muturrera eramandako inuzentzia horixe da irria sorrarazten diguna. Bere-berezkoa du ezjakintasun hori, karikatura bat balitz bezala. Amaren galderari erantzunez, dena kontatzen dio: "Akerrak adarra bezalakoa sartu da pixa iteko zulotik barnerat. Ezpalu pixa iteko zuloik harrapatu, tripak aterako zizkan". Ez du, beraz, itxuraz, gizonaren tresna ezagutzen, ezta zertarako erabiltzen den, ez nondik sartzen den ere.

(80.) E4-19 "Gormanta" kontakizun gordina esplizituagoa da. Bertan kontatzen da apezpiku bat etorri zela Ligira eta arroza lazgarri maite zuela. Asko jan ondoren, ordea, eritu. Gelariak medeziari deitu zion telefonoz eta hark esaten sabela frotatu behar zaiola. Haren esana bete eta medeziak sendakuntzak nola joan ziren galdetzean, gelariak erantzun erremedioa oso ona izan zela. "Lehenik sabela, gero sabelpea eta bulta baten buruan esnea joan zaio!"

Kontakizun hori ere degradazioarekin amaitzen da. Medezia irrigarri geratzen da, harek emandako sendakuntzaz irri egiten baita, eman duen emaitza ikusita.

Kontakizun horretan ekibokoa ematen dela ere, "esnea" hitzaren esanahi bikoitzarekin jolasten baita. Bata esanahi erreala izango litzateke, eta bestea "transposizio poetikoz" emandakoa, gizonaren haziaz ari baita:

> «-Ordin nula da eri hoi? Eta frotatu duzie untsa?
> -Bai, frotatu dit ba untsa, ta nik uste esnia igorri din kanpon, errixa handi zuano!»

(84.) E8-12 "Gora eta behera" kontakizunean, elipsia erabiltzen da gizonaren instrumentuaz hitz egiteko. Kontatzen du gizon bati ez zitzaiola zutitzen, eta beste gizon batengana joan zela erremedio bila. Igotzeko: "Ieup!". Jaisteko, berriz, "fiu!" esan behar zen. Lehen aldian eskaileretan behera zihoala "ieup!" egin eta xistua gero eta horrekin galdu zuen lehen aukera. Bigarrenean gerdarmeak "ieup!" egin eta gelditu egin behar izan zuela, gero txistua jo aurrera segitzeko. Hor bigarren aukera galduta. Azkenik, etxera iristean emaztearekin oheratu zela, hirugarren eta azken aukera aprobetxatzekotan. Emazteak tresna ikustean "fiu, fiu!" egin eta orduan behin betiko jeitsi.

Bergsonek aipatu zuen akats bat behin gertatuz gero, irrigarri gertatzen dela, baina behin eta berriz gertatzen zen akatsa, baldarkeria bihurtzen dela eta horrek komikotasuna dakarrela. Gizonak behin eta berriz akats berdina egitea komiko bilkatzen da. Kontakizuna degradazioarekin amaitzen da, ez baitu bere helburua lortzen eta irrigarri geratzen da.

(85.) E8-13 "Jesuista Garizuman" kontakizunak argumentu hau du: herri bateko erretorak jesuista bat ekarrarazi zuen Garizuman predikatzera. Predikuan esan zuen ganbera banandutan egin behar zela lo. "—Eta ganbera bakarra baldin badago?". "—Orduan, bi ohetan. "—"Eta ohe bakarra badago?" "—Bestela ohe berean baina uzkiz-uzki". "—Eta egingo balu putxi-putxi". Eta jesuistak: "—Ordin nik ere eniro utzi".

Onomatopeia bidez, denok ulertzeko moduan adierazten du sexu-jokoa kontakizun horrek. Informazioa *in creschendo* ematen digu, urrats bakoitzean irriaren adierazpena sakonagoa baita. Bergsonek dioen bezala (2008[1900:62):

«(...)Un efecto que se propaga acrecentándose, de modo que la causa, insignificante en un principio, alcanza, mediante un progreso necesario, un resultado tan importante como inesperado».

Eta degradazioarekin amaitzen da, jesuistak berak bere burua agerian uzten baitu eta, "putxi-putxi" egingo baliote, "nik ere ez niro utzi" erantzungo bailuke.

(88.) E9-06 "Apeza eta xitoak" kontakizunak hauxe kontatzen du: apeza egun baten ez zen mezara agertu eta gelaria haren gelara joan zen. Apezak esan zion oilo koloka lapurtu ziola azeriak. Oiloaren xitoak ateratzeko zeudenez arrautzak berotzen ari zela. Orduan gelariak arrautzak ukitzen ditu eta: «—Hara, baño sortua da!».

Kontakizun honetan gelariaren "lañotasun itxuraz" hitz egin dezakegu (Frappier Mazur, 1993:30). Sexu kontuez ezer ez baleki bezala erakusten zaigu. Apezaren gelan sartzen da, eta "arrautzak ukitzera" ausartzen da. "Tranposizio poetikoa" ere argia da, "arrautza" hitzaren ageriko eta ezkutuko esanahiekin, edo lehen eta bigarren esanahiekin jokatzen baita (Afanasiev, 1991:21).

Isotopia semantikoei erreparatuz gero, «animalia» klasematik «gizakia» klasemara salto egiten dela ikus dezakegu. Honela irudikatuko genituzke:

«Animalia»→ «arrautzak», «sorkuntza»
↓
«Gizakia»→ «barrabilak», «sexua»

Kontakizuna ateraldi irrigarri batekin amaitzen da. Bergsonek serieen interferentzia deitutakoa edo antzeko esanahia duen *quid pro cuo* emango litzateke hemen: aldi berean bi esanahi desberdin dituen egoera bat. Alde batetik egoera guztiz

"xalo" eta "garbia", apezari oilo loka aurkitzen laguntzen. Bestetik, "sexuari" eta debekatutako egoerei" lotutakoa. Izan ere, egoera bat komikoa izango da aldi berean gertakarien bi serie independente egon eta batera interpretatu daitezkeenean, biak oso esanahi desberdinekin.

(98.) E17-04 Müthila eta neskatua ixtorioan etxeko nagusiak neskatoa eta mutila (morroia) lagun zituztela zeuden sutondoan. Nagusiak ohera joan ziren eta mutila eta neskatoa sutondoan bakarrik geratu ziren. Orduan, elkarrekin egoteko gogoa piztu zitzaien. Zaku batzuen gainean ohatu ziren eta beren zereginetan zebiltzala zakuetako batek su hartu zuen. Orduan, neska, biarnesa baitzen, oihuka hasi zen "—Lou sac!, Lou sac!". Eta mutikoak, gaizki ulertuta: "—Zer luzak?, hori duk dena!", bere tresnaren nolakotasunari erreferentzia eginez.

Horretan, ekibokoaren irri baliabideaz balitzen da, aldaketa fonetiko txiki batek eragindakoa. 3.4.2. atalean aztertu dugun bezala, Freudek laburtzeko edo aurrezteko teknika ikusten zuen irria sortzeko beste teknika guztien gainetik:

> «La condensación sigue siendo la categoría superior. Una tendencia a la compresión o, mejor dicho, al ahora gobierna todas estas técnicas» (Freud, 1905:42).

Isotopia semantiko «material» batetik, isotopia «fisiko» batera igarotzen gara, horiek berekin dituzten isotopia semiologikoekin.

«materiala» ⟶ «artikulua+izena», «zakua»
↓
«fisikoa» ⟶ «aditza», «gizonaren tresna», «sexua»

(106.) E25-04 "Xakur usnaria" kontakizuna ehiztariei buruzkoa da, eta apaiz ehiztaria du protagonista. Ehiztari batek izugarri zakur ona zuen. Edozer usaintzera eman eta ekartzen zuen. Apez ehiztariak zakurra erosi zion ehiztariari eta oinak usaindu eta gero, gelariaren kulotak ekarri zizkion.

Kontakizun horretan apaiza irrigarri geratzen da, neskazalea dela agerian geratzen baita. Eta beraz, kontakizuna degradazioarekin amaitzen da. Baina gaia irrigarri izateaz gainera, gauzak adierazteko moduak sortzen digu benetan irria. Zakurrak erbi biloak usaindu beharrean, ehiztari apaizari eriak usaintzen dizkio, eta

serieen interferentzia horretatik eratortzen da irria. Hitz hauekin adieraziko luke Bergsonek (2008 [1900]:73):

> «El equívoco no es por sí mismo cómico; sólo lo es porque manifiesta la conciencia de dos series independientes. Prueba de ello es que el autor ha de ingeniárselas continuamente para fijar nuestra atención sobre ese doble hecho de la independencia y de la concidencia».

(112.) E38-03 "Ase eta hila" kontakizunak argumentu hau du: Bi andre xahar auzoak ziren. Batek betroin bakarra zuen, goseak; besteak, berriz, asko zituen. Bere betroin bakar hori bere pentzera pasatzea eskaini zion, jan zezan. Baina jan eta zarra-zarra hasi ziren. Goizean hila zen. Andre xaharretako batek besteari, orduan: "Horrek irudi dik gizonan tresna hura, gosearekin azkar dun eta ase ta hila!".

Alderdi semantikoari dagokionez, «animalia» eta «gizakia» klasemak trukatzen direla ikusiko dugu:

«animalia» ⟶ «indarra», «heriotza»
↓
«gizakia» ⟶ «gizonaren tresna», «sexua»


Kontakizun hori ere degradazioarekin amaitzen da, betroina hilda agertzen baita. Bergsonek esan zuen mozorro guztiak komikoak zirela, eta irria eragiten digula pertsona bati, une batez, gauza baten itxura hartzeak (Bergson, 2008 [1900]:39). Kasu honetan andrearen ateraldiak sortzen du irria: betroina "gizonaren trenarekin" parekatzen baitu eta gure buruetan trukatzen diren bi elementu horiek mozorro baten modura ikusten ditugu.

(104.) E41-04 "Gasna" kontakizunean hauxe da argumentua: Ibiltari bat etxe pobre batean geratu zen. Afaritan hartu zuten, baina gasna asko jaten hasi zen, eta emakumeak mesedez gelditzeko eskatu zion, hori hil osoko jana zutela-eta. Gero hirurak ohe bakarrean etzan ziren lotara. Gauerdian behiak umea izan behar zuela-eta, senarra behitegira joan zen. Emazteak ibiltariarekin jolasteko aprobetxatu nahi zuen aukera, baina ibiltaria ausartzen ez. Emazteak ausartzeko esan zion: "—Ez hizak gose, eztuka nahi puxka bat gasna gehio!".

Kontakizun hori ere degradazioarekin amaitzen da. Emaztea irrigarri geratzen baita. Hasieran ibiltariari lagundu nahi diote eta hobekuntza prozesu batekin hasten da, baina amaieran emazteak bere burua salatzen du. Irri kontakizun askotan

errepikatzen den gaia izango genuke beraz hemen: emazteen argitasuna beren senarrak engainatzeko.

Baina emaztearen argitasun horretatik harantzago, eta gertakariak adierazteko moduari begira, emazteak berak eragingo digu benetan irria, bere burua gasna puxka batekin parekatzean. Mozorro baten itxura hartzen diogu "ez izak gose, eztuka nahi puxka bat gasna gehio!" esaldiaren atzean ezkutatzen denari, pertsona bat gauza batekin parekatzen baitu. Berriz ere, «materiala» eta «fisikoa» trukatuta aurkeztuko zaizkigu:



(77.) E4-01 "Behia jeizten" ixtorioak hauxe kontatzen du: Laborari etxekanderiak baizik ez zuen behia jeizten ahal. Eta mutila gaitzitua zen. Etxanderearen teknika hauxe zen: Kotak altxa eta behiak milikatu bitartean geldirik egoten zen. Mutilak borta atzetik ikusi eta bere tresna sartu zion. Laborariak orduan: " —Mihia nahi baduk bena ez adarra!".

Ixtorio horretan, etxekanderea hain da inuzentea, ezin baitu pentsatu ere egin adarra sartzen diona behia ez denik. Gertakari horretan, atzetik abisurik gabe "adarra" sartzean, etxekanderea makurtuta dagoen bitartean, etxeko mutila animalia batekin parekatzen da, eta irria eragiten du, mekanikoki animalia batek bezala jokatzeak. Neurri batean, **bere giza izaeratik atera eta mozorrotu** egingo balitz bezala. Izan ere, Bergson-ek adierazi zuen bezala (2008 [1900]:103), giza gorputzaren jarrera, keinu eta mugimenduek irria eragiten digute, gorputz horrek zerbait **mekanikoa** gogora ekartzen digun neurrian. Komediak gertakari serio bat seriotasunez hartzea galarazteko baliabide hau erabili ohi du: gure arreta ekintzetan jarri ordez, keinuetara zuzentzea:

> «La comedia (…) para impedir que tomemos en serio la acción seria, para prepararnos, en suma, para la risa, emplea un medio cuya fórmula expondré como sigue: en lugar de concentrar nuestra atención sobre los actos, la dirige más bien sobre los gestos. Entiendo aquí por gestos, las actitudes, los movimientos e incluso las conversaciones mediante los cuales se manifiesta un estado de alma sin fin alguno (…)»

Aurreko kontakizunaren baliabide berdina erabiltzen da beste honetan ere: **(92.) E11-06 Behi susara.** Argumentua hauxe da: gizon batek Donibaneko merkatuan behi bat erosi zuen, biharamunean susara izango zela eta. Soroan jarri zuen eta zezena penetratzera zihoanean, put! uzkia ateratzen zuen. Gizon batek trufaz: "—Ene emaztia (e)re Donianeko düzü gaxua!".

Ixtorio horretan, azken batean emaztea animaliarekin inplizituki parekatzeak irria sotzen du. Izan ere, Freuden arabera (1905: 15) horixe baita txisteen muina, ilun dagoena argitzea lortzen dugunean komikotasuna sortzen baita :

> «La comicidad resulta de la solución del desconcierto, del entendimiento de la palabra. Lipps (1898:95) completa esto señalando que al primer estadio de la iluminación, el caer en la cuenta de que la palabra desconcertante significa esto o aquello, sigue un segundo estadio en que uno intelige que es esa palabra carente de sentido la que nos ha desconcertado primero y luego nos ha dado el sentido correcto.[…] sólo esta resolución de la nada, decimos, produce la comicidad».

"Dobibandarra" jentilizioarekin "behia" eta "emaztea" parekatzen dira, eta isotopia semantiko hauek trukatuta aurkitzen ditugu:

«animalia» → «behia», «susara», «uzkia atera»
↓
«gizakia» → «emaztea», «sexurako gogorik ez»

(82.) E8-01 Emaztea eta apeza kontakizunean emaztea apaizarekin harrapatu zuen gizonak: Orduan apezak leihotik salto egin eta senarra atzetik joan zitzaion. Eta andreak apezari : "—Otetik, jauna, otetik! Gizonak ezpeitu zapetik!".

Kontakizun horrek irria sorrarazten baditu, Bergsonek "inbertsioa" deituko lukeen baliabidea gordetzen duelako da: mundua hankaz gora jartzen duen edozein egoerak irria sortzen baitu. Emazteak apezari nola ihes egin aholkua botatzen ikusteak irria sortzen du. Honela dio Bergsonek (2008 [1900]:71):

> «Así nos reímos del hombre prevenido que da una lección de moral al juez, y del niño que pretende dar lecciones a sus padres; en suma de todo lo que pueda colocarse bajo el epigrafe de "el mundo al revés».


(83.) E8-07 Apezaren agindua ekiboko batean oinarritzen da. Apezak mezetan agindu zuen gizonez kanpo ibilki ziren emazteak joateko aldarera. Emazte xahar batek

ondo entzuten ez eta ondoko andreari galdetu zion zer esan ote zuen apezak: "−Bonbonak emango dizkiola joaten denari". Apezak andre xaharra ikustean, bera ezetz, ez joateko aldarera esan zion. Orduan andre xaharrak erantzun: "−Hortzik ez izanik ere murtxatzen ahal dit!".

Irakurleak edo entzuleak bere buruan egin behar du bi elementuen arteko lotura: zer murtxatzen ahal du emazte xaharrak? Bonbonak…ala "beste zerbait"… Freudek ekibokoari buruz idazten dituen hitz hauek (1905:40) egokiak dira kontakizuna azaltzeko eta "lañotasun itxuraren" baliabidearekin lotuta daude:

> «La palabra "inocencia", sobre cuyo dobre sentido se construye el chiste, tiene en un coxtexto el sentido usual de este tipo, y en todos ellos, para el efecto del chiste cuenta muy particularmente el sentido sexual. Acaso podría reservarse para este grupo la designación "equivocidad"».

Alderdi semantikotik begiratuz gero, «materiala» klasematik «fisikoa» klasemara salto egiten da hemen ere:



Ekibokoan oinarritzen da, era berean, **(93.) E11-07 Emazte phüntxela** kontakizuna. Hauxe kontatzen du: gizon batek emazte zahar adinetako batekin ligatu nahi zuen. Afaltzera gonbidatu eta ohera joan ziren. Eta pentsatu zuen: "−Jakin banu puntxela zela, beste afari bat barkatuko niozun lehenago". Emazteak, berriz, bere aldetik pentsatu zuen: "−Jakin banu hain ardita zela hau, pantiak elkiko nützün".


Sexua pantiak jantzita eduki bazuten, puntxela ez zela esan nahi zaigu hemen. Hori gizonezkoaren irudipen bat besterik ez zela. Gizonezkoak engainatzen dakien emaztea aurkezten zaigu berriz ere hemen.

Irria sortzeko teknikei dagokionez, paralelismoa daukagu. Kontakizuneko bi esaldi nagusiak egitura berekoak direlako. Eta Bergsonek (1900:72) "serieen interferentzia" deitutako teknika ere ikus dezakegu, pantiak jantzita sexua izateak bi serie independente sorrarazten dituelako, gizona engainatuz eta emaztearen nolakotasuna salatuz:

> «Una situación es siempre cómica cuando a un mismo tiempo pertenece a dos series de acontecimientos enteramente independientes y puede interpretarse a la vez en dos sentidos muy diferentes. (…) Cada una de las series que interesan a cada uno de los personajes se desarrolla de un modo independiente, pero en un momento determinado se hallaron en tales condiones que los actos y las palabras que forman parte de una de ellas, pudieran de igual modo convenir a la otra».

Azkenik, eta atal honekin bukatzeko, **(94.) E11-08 Punizionea** kontakizunaren argumentuari begiratuko diogu: emazte bat bazkoan konfesatzera joan eta apaizari aitortu zion felation bat egin zuela. Apaiz gazteak hori zer zen jakin ez, eta beste apaiz bati galdetu zion: "−Felation-enentako zer emaiten dügü?". Eta besteak erantzun: "−Ez ehun libera baino gehio!"

Alegia, penitentziagatik galdetu, baina "zerbitzuagatik" zer ematen zuten ulertu zuen. Isotopia semantiko batetik besterako saltoa nabarmena da hemen:



Degradazioarekin amaitzen da, bere burua nabarmen uzten baitu eta berriz, ere esaldiarekin ekibokoarekin jolasten da. Ekibokoarekin agerian geratzen da zerbitzu horietaz baliatu ohi zela. Antiklerikalismoaren beste adierazle bat izango genuke hauxe.

5.1.10. IRRI KONTAKIZUNETAKO ANTIKLERIKALISMOA ETA GIZARTE BIZITZAREN IRUDIKAPENA

Jaques Le Goff aztertzaileak irria aztergai hartuz idatzitako artikulu batean (1999a:1343) zioenez, irriak fenomeno sozial eta kulturala denez, historia bat izan behar du. Gure irri kontakizunak azaltzean antiklerikalismoaren gaia azaldu zaigu behin baino gehiagotan. Garai historikoak eta kontakizunek loturarik ote duten planteatu dugu 2.8. atalean. Bertan zer-nolako literatur adierazpenak diren eta ikuspegi sozialetik non koka ditzakegun ulertzeko arrasto bat eman besterik ez dugu egin nahi izan.

Bergsonen testuetan irakurri dugu, "umorea eta irria «giro» batean sortu behar direla, eta oihartzun baten moduan, erantzuna jasotzeko beharra dutela (2008 [1900]:14:

> «Lo cómico, para producir su efecto, exige algo así como una momentánea anestesia del corazón. Se dirige a la inteligencia pura. Pero esa inteligencia ha de quedar en contacto con otras inteligencias. (…) No se saborearía lo cómico si se sintiera uno aislado. Es como si la risa necesitase un eco».

Elizgizonak irrigaitzat hartzen dituzten kontakizunak sortu eta ahoz aho baziren kristautasuna hedatuta zegoen giro batean ulertu behar dira. Izan ere, umore mota bat sortzeko testuinguru bat beharrezkoa da, eta umore hori ulertuko dutenak giro horretako erreferentzietan murgilduta egon behar dira.

Aldaik eta Esnalek Auspoan argitaratutako Uztapideren liburuan (2009), antiklerikalismoaren gaiarekin loturan datorren umore mota horren adibide bat daukagu. Zumarragako Zelai Aristi aretoan, 1964an, Uztapide, Baxarri, Lazkao txiki eta Lasarteri, bertsotan hasteko gai hau eman zieten: "Garizuman gaude. Basarri erretorea izango da; Uztapide, sakristaua; Lasarte, bertako serora; eta Lazkaotxiki, monagiloa. A zer disgustua izan duen erretore zaharrak! Meza emateko ardorik gabe gelditu omen da". Gaia aurkeztu hutsarekin publikoa barrez hasi zen, elizaren inguruko kontuak eguneroko gaia baitziren. Gaur egun, herri horretan bertan gai horrek, beharbada, ez luke graziarik egingo, edo ez garai horretan adina.

Gure corpusean agertzen diren kontakizunekin, gauza bera esango genuke. Horietan aipatzen diren irri gaiak giro jakin bati lotutakoak dira. Giro hori bizi edo behinik behin ezagutu beharra dago, bertan gertatzen dena irrigarri iruditzeko. Alegia, irri ixtorioetako apaizak irrigai bihurtzea ezin uler daiteke, elizak duela urte gutxi arte gizartean izan duen hedadura ulertu gabe. Baina giro hori zenbat eta ezagunagoa izan edo horrekin zenbat eta gehiago identifikatu irrigarriago iruditzuko zaigu. Eta ez bakarrik aipatu berri dugun antiklerikalismoaren kontu horregatik.

Kontakizunetako batzuk baserri inguruan kokatuta daude, eta baserri giro hori ezagutu eta horretatik gertu dagoenarentzat ere kale giroan bizi izan denarentzat baino hurbilagokoa izango da kontakizun horietako umorea. Irri ixtorioetan agertzen diren zenbait lanbide eta zeregin ere urrun xamarrak egiten zaizkio gaur egungo kalekume bati, ofizio horiek ezezagunagoak zaizkiolako, eta horrenbeste bizi izan ez dituelako. **(77.) E4-01 "Behia jeizten"** kontakizunean, adibidez, baserritarrak behiak jeizten ikusi ditugu; **(284.) E28-06 "Behiak egarri"** kontakizunean, adibidez, ogi joiteak agertzen dira, dagoeneko desagertuak direla esan dezakegun lan moduak, gauetan kantuz eta

kontakizunez laguntzen zirenak; **(104.) E41-04 "Gasna"** kontakizunean emaztea ibiltariarekin ohean bakarrik gelditu eta nahi dutena egiteko denbora izango dutela ulertzeko, adibidez, jakin beharra dago behiak umea izateko prozesuak denbora-tarte luze-xamarra hartzen duela, gauerdian senarra behitegira joaten baita behi batek umea izango duelako …

Antiklerikalismoaren adierazpenei dagokionez, berriz, gure irri kontakizunetan, apezpikuak ipurdia garbitzen ikusi ditugu **(117.) E24-03 Apezpikuari gomita** kontakizunean; apezak gelariarekin oheratzen agertu dira **(76.) E3-05 Taula erdian** kontakizunean; apeza emakume ezkondu bat haurdun utzi eta bere lana ezkutatzen saiatu da **(74.) E2-02 Apezaren froga** kontakizunean; **(141) E35-03 Gasnak mututu** kontakizunak apez bat tripontzi hutsa zela erakutsi digu, azpikeriatan ibili baita, inork ez zezan bere jatekorik gustukoena jan; **(18.)E38-05 Konfesio ixtorioa (II)** kontakizunean apez bat gustuko jatekoak lortzeko konfesioaren barkamenduaz baliatzen ikusi dugu … Eta horrela jarraitu genezake, banan bana elizgizonen kritika egiten duten irri kontakizun eta txisteak aipatzen.

Emakumeen edo emazteen azpikeriaz ere, bildu ditugu zenbait kontakizun: emakumeek zenbaitetan sexuaz ezer ez dakitela agertzen da, **(75.) E2-04 Artzaina ostatu bila** kontakizunean; emazte bat apaizarekin ibili eta hori ezkutatzeko laguntza eske joaten zaio **(74.) E2-02 Apezaren froga**-n; **(2.) E4-02 Konfesioa** kontakizunean, beren senarrak behin eta berriz tronpatzen zituzten emakumeak agertzen dira herri batean…

Antiklerikalismoa eta sexu kontuetan emakumeen ausarkeria eta itxurakeria nabarmendu nahia irrigai errepikakorrak direla esan dezakegu beraz. Irrigai horiek, ordea, garaiko testuinguruaren barruan ulertu behar dira, elizaren pisua gizartean oso errotuta zegoen garaiak.

Azkenik, lehen esan dugu Txomin Peillenek idatzi zuela herri literaturako zenbait baliabide, bat datozela idazle greko-latindarrek eta Erdi Arokoek agertutakoekin (1985): erortzeak, medikuntzazkoak, mehatxuak, jendeen itxurazkoak, zuloak, kaka, sendakuntzaren trufatze osoa… Irrigai horiek oso antzinetik etorri ahal izan diren moduan, emakumeen argitasuna senarra engainatzerakoan, eta emakumeen lañotasun itxura adierazten duten irri gaiak ere antzinatik etorrikoak izan daitezke.

Maria Jesus Lacarrak (1986: 339-361) Erdi Aroko kontakizunez esan zuen moduan, emakumeen adulterio jarrera istorioaren ardatz izatea, emakumeen malizia azpimarratzea, gizonezkoen papera bigarren mailan geratzea, eta gizonezkoak tuntun papera betetzea gure irri kontakizun batzuen irrigai ere badira, eta irrigai horiek ere beharbada aspalditik datozela pentsa dezakegu.

5.1.11. IRRI IXTORIOETAKO HIZTEGIA

Gure kontakizunetako hiztegiaz eta esapideez bi hitz egingo ditugu, aberatsak iruditzen baitzaizkigu. Izan ere, kontuan izan behar dugu gai gordineko testuak, adibidez, ez ditugula euskaraz asko. Ondorioz, arlo semantiko horretako zenbait hitz ez dira ohikoak euskarazko irakurketetan:

Gure bildumako **(11.) "Artzaina ostatu bila"** kontakizunean gizonaren tresna adar batekin konparatzen da. Alaba tuntunak, itxuraz, ezer ez daki sexuari buruz eta amari kontatzen dio adarra sartu diotela. "Adarra" sartze hori aspaldiko literaturan ere erabiltzen zen: Rodriguez Adrados-ek egindako (1993) *El cuento erótico griego, latino e indio* antologian "La hija tonta" ixtorioan ere erabiltzen zen. Ildo beretik, Martin Criado-k esaten digu (2008) inauterietan Duero-ko Erriberan jotatxo hau kantatzen zela:

«A la buena moza
la ha pillao el toro,
la ha metido el asta
por debajo el moño.

A la buena moza
la ha vuelto a pillar,
la ha metido el cuerno
por el delantal.»

Gizonaren nahiz andrearen sexuei modu askotan deitzen zaie, zenbaitetan eufemismoz edo modu metaforikoan: gizonezkoarenari "Aita Saindua", "Arrantza hari ttittat bat", "Akerrak adarra bezalakoa", "pistoleta", "baztarra", "gizonaren tresna". Emakumezkoarenari, "Erroma", "ostatua".

Sexu ekintza, berriz, modu askotara izendatzen da: "xixkun egin", "kitxin katxaketan", "neska batekin borrokan aritu", "arraina jan", "txurru-txurru", "txasta-txasta aritu", "putxi-putxi egin", "elkarri lotu", "itzalean aritu", "beren zerak egin",

"lehen xixka", "zarra-zarra hasi". Bestetik, "zartagina lekatu" esapidea emaztearen sexua lekatzeko metafora gisa erabiltzen da.

Sexuarekin lotututako terminologiaz aparte, kontakizunetan hainbat esapide jator datoz jasota. Adibidez, "emazte kumers", "zuhurtziaren gainean atxiki", "txoria lumarengatikan biltzen dela uste izan", "galtzak soinean izan", "ohazpikoa satorrak uzkailia" (adarrak jarri adierazteko), "itsasoan urak handi dira eta tentazioneak ere bai", "saludoak banatu", "antzarrak akordatuz" (guztiz mozkortuta), "beren burua baliotan eman", "eguzki azpian ezer ez eduki", "konduak egin"…

5.2. TXISTEAK

2.5.1. kapituluan aipatu dugu kontakizun bat ixtorio errealistatzat edo txistetzat sailkatzeko orduan, kontakizunaren tradizionaltasuna edo modernotasuna izan dugula kontuan. Gure corpusean jasotako kontakizunetako zenbait txisteen multzoan sailkatu ditugu, zenbaitetan zalantza egin dugun arren irri kontakizuntzat edo txistetzat jo. Izan ere, formaren aldetik, txistearen ezaugarrien artean laburtasuna aipatu dugu, baina aldi berean, zenbait irri ixtorio oso laburrak izanik ere, tradizio luzekoak direla ikusiko dugu. Adibidez, **(34.) "Bi gelarien artean 50 urte"** izenburua daramana, badakigu XVII. menderako jasota zegoela (Chevalier, 1983: 201).

Kontakizunaren azterketa estruturalean jardun zen Violette Morin ikertzaileak (1966) txistearen egituran banatu zituen hiru funtzioetatik azkenekoan elementu polisemiko bat antzeman zuen, harritu eta norabide berri eta ustekabeko batetik eramaten gaituena. Disjuntore hori zein motatakoa den arabera bi mota bereizi zituen: gutxitan gertatzen bada ere, elementu polisemiko hori hitz joko batean oinarritzen bada, **disjuntzio semantikoa** dagoela esan zuen. Kasu horretan disjuntorea zeinu bat da. Hitz jokorik ez badago, **erreferentzia hutsezkoa** deitu zion.

Bergsonek berak desberdinketa hori ere egin zuen (2008 [1900]):77), hizkuntzak adierazten duen komikotasuna eta hizkuntzak sortutako komikotasunaren artean bereizketa egin baitzuen:

> «Pero hay que distinguir entre la comicidad que el lenguaje expresa y la comicidad creada por el lenguaje. La primera podría, en rigor, traducirse de un idioma a otro, a reserva de perder la mayor parte de su relieve al pasar a otra

> sociedad, distinta por sus costumbres, por su literatura y sobre todo, por sus asociaciones de ideas».

Freudek txisteari buruz egindako saiakeran (1905) txistearen aniztasunean sakondu zuen, eta hainbat adibidez hornitu zituen txisteetan erabiltzen diren baliabideak. Batzuk hotsen trukaketa sinple batean oinarritu zituen. Deskripzio horren arabera, beraz, horietan ez dago Viollete Morin-ek egindako zatiketa estrukturala banatzerik (pertsonaiak kokatzea, arazoaren planteamendua eta arazoaren konponbidea).

Gure corpusean txistetzat sailkatutako zenbait adibide aukeratu ditugu, horietako baliabide komikoak aztertzeko:

(330.) E32-02 "Medikuak supositorrak eman" txisteak hauxe kontatzen du: emazte gazte bat medikuarengana joan zen gorputz osoan min zuela esanez. Supositorrak eskatu zituen farmazian. Etxerakoan emaztearen gizona merkatutik etorri zen, briketeko harriak erosita eta supositorrak zeuden mahai gainean hustu zituen sakelak. Emazteak supositorren tokian briketeko harriak sartu zituen ipurtzulotik eta, gero, uzkar guziez saiak erre".

Txistearen muinean, "distrazioa" edo "arduragabekeria" dagoela esan daiteke, nahastuta trukatzen diren bi elementuren arteko jokoa ematen baita. Txiste horretan disjuntzioa erreferentzia hutsezkoa da, ez dago txistea itzulezin bihurtzen duen hitz-jokorik. Eta irria sortzen duena emaztearen nahasmen horrek dakarren ondorioa da. Hemen ere, irri kontakizun horretan ere, ipurdia, kaka, pixa, puzkar eta abarren aipamena errepikatzen da.

(261.) E16-30 "Zer edaten?" izenburudun txistea, adibidez, zentzugabekeria baten erakusle da, eta irrigarri bihurtzen da. Honela dio:

> «Gizon bat heltzen da hospitaliala, aseik, khordoka. Ikhertzen dian bedeziak : −Oh la la! Ze edaten düzü.
> Eta bestiak: −Ez dakit! Ze eskentzen deitazut».

Baliabide hori honela deskribatzen du Freud-ek (1905:14) esaldi bati esanahi bat eman eta jarraian esanahi hori kentzen diogunean:

> «Un enunciado parece chistoso cuando le atribuimos con necesidad psicológica un significado, y en tanto lo hacemos, en el acto se lo destribuimos».

Mota bereko beste adibide bat dugu (**268.) E21-01 Errientaren galdeak** txistean:

> «Errient bat zen eskolan haurrekin eta egun batez ideia heldu zako haur bati galdeiteko, eta er(ra)ten dako:
> −Soizu baitutzu hiru botila arno, hiru botila arnok egiten dute hamabost libera, zenbat egiten dute ba sei botila arnok?
> Haurrak arrapostia:
> −Gure etxen egun bat jauna».

Esanahi bikoitzaren kasu gorena, ordea, hitz jokoak izango lirateke, edo bestela esanda "disjuntzio semantikoz" osatutako polisemia. Horietan batzuetan hitzak bortxatzen dira, hitzen silabak osagaietan banatzen dira...

Gure bilduman badaukagu hitz jokoaren adibide den txisteren bat. **(239.) 16-07 Manifikata** izenekoan adibidez, bezperetako aire baten izena, eta alkoholdun edari baten izena inplizituki trukatuz, hitz joko bihurtzen dira, irri eragiteko. Bi emazte mezetan baitaude eta batak lo hartzen duela ikusirik besteak dio:

> «−Iatzar hadi, Manifikata[29] ai duk.
> −Eztiat nahi, ixurtan ai balitz e.»


(302.) E30-10 Dassance eta Berro izendatu dugun txistean ere hitz jokoa dago tarteko, hitz-hotsen antzekotasunean oinarritutako jokoan:

> «Dassance Bikaria eta Berro apeza samurtu egiten dira. Batek besteari : -Jakiteko zer zaren kendu behar duzu lehen letra: Assance (Azantz). Eta zuk ere bai : -Erro».

(329.) E29-18 Itzalian aritu txisteak, berriz, hauxe kontatzen du: mutiko batek Kattalinen eskua eskatzen dio aitari. Aitak, ordea, eguzkiaren azpian ezer ez duela esaten dio mutilari. Eta mutilak erantzun : "−Lasai ez du inporta, itzalian ariko gaituk !"

Kontakizun horretan euskarazko "eguzkiaren azpian ezer ez edukitzea" esaera, bere kontestutik ateratzen da eta sexuaren alorrera ekartzen da "itzalian arituko direla" esateko. Berriz ere aurreko atalean aipatutako isotopia semantikoen saltoa ematen delarik:

[29] Bezperetako aire bat da.



Hitz jokoen barruan sexu-kutsua daukaten txisteek beste atal handi bat osatuko lukete. Sexu-kutsu hori esperientzia sexualarekin kontrajarrita dator, izan ere, *ekibokotasuna* sortzea du helburu. Freudek dioen moduan, sexuaren zentzu hori zenbaitetan ezkutuan geratzen da, eta gerta liteke maliziarik gabeko pertsona batek ez harrapatzea (Freud 1905:41), nahiz eta hori hitz-jokoz osatutako edozein txistetan gerta daitekeen:

> «Pero también en chistes sin sentido sexual puede presentarse la peculiaridad de que los dos significados del doble sentido no nos resulten igualmente obvios, sea porque uno de los sentidos en en sí el más usual, sea porque lo privilegia su nexo con las otras partes de la oración».

(314.) E3-06 "Erlojuak hitz egin" txistea neska-mutil batzuen arteko elkarrizketan oinarritzen da, eta denboraren faktorearekin jokatzen du entzule-irakurlearen trebezia bilatzeko:

> «−Jo, zen muntra edo erlejo polita dezun!
> Ta eskua hola keresatzen zion. Mutikoa arras polita zen. Ta mutikoak erraten dio:
> −Kontuz eh! Hitz egiten nau erlojuak, eh!
> −Ah bai!
> −Bai, hitz egiten nau.
> −Ta ze esaten dizu?
> −Galtzoinik ez daukazula.
> −Baditut!
> -Joño, aurreratzen da ordu bat»

Izan ere, txisteak zerbait ezkutatzen digu eta gure zeregina izango da ezkutuan dagoen hori deskubritzea:

> «La comicidad resulta de la solución del desconcierto, del entendimiento de la palabra. Lipps completa esto señalando que al primer estadio de la iluminación, el caer en la cuenta de que la palabra desconcertante significa esto o aquello, sigue un segundo estadio en que uno intelige que es esa palabra carente de sentido la que nos ha desconcertado primero y luego nos ha dado el sentido correcto» (Freud, 1905:15).

5.3. ATERALDIAK/ARRAZOINAK

Hemen jaso ditugun ateraldiak edo arrazoinak ez dakigu zehatz-mehatz benetan gertatuak diren ala ez, nahiz eta kontalariek hala esan diguten sarritan. Kontalariek halaxe baieztatu digute, eta gertakari irrigarri horietako pertsonaiak benetan existitu ziren arren, ez dakigu horiei pasatakoak omen diren gertakariak benetan haiek eginak diren, ala ahoz aho kontatzen diren gertakariak leporatu zaizkien.

Zuberoan jasotako kontakizunetan, bertakoa izandako gizon baten inguruko kontakizunak ugariak dira. Pertsona hori benetan bizi izan zen, pertsonaia xelebrea itxura guztien arabera, eta berari gertatutakoak herriaren oroimenean txertatuta geratu dira. Hor sartuko genituzke, adibidez, bai **E11** kontalariaren batzuk **(E11-03 Hire anaia bezala; E11-04 Gerizak)** eta **E15** saileko kontakizunak. Pertsona horren ezizena *Axkar* da, eta Pernando Amezketarrarekin gertatu zen bezala, herriak gogoan ditu haren kontakizunak. Nolabait *pertsonaia tipo* bat dela esan genezake, molde batzuen arabera jokatu ohi duena, ateraldi argiak dituena eta hori komiko gertatzen da. Informatzaileek berek esan zidaten, ixtorio gehiago bazituela. Are gehiago, bera ezagutu izan banu emango zidala barregurea, ez bestela. Beraz, kasu honetan Lorenzo Velez-ek aipatutako ahozko tradizioaren arauari salbuespena izango genuke (1997:12):

> «En la tradición oral no importan tanto los personajes que intervienen en una trama como la trama misma. Lo que importa al fin y al cabo es lo que sucede, lo que nos cuenta el relato; los personajes suelen ser intercambiables. (...) "el" pastor, "el" zapatero, "el" médico, es decir, colectivos a los que se convierte en algo así como perchas en los que colgar relatos».

Kontakizun horietan garrantzitsuena pertsonaia bera baita, pertsonaia hori irudikatzeak ematen digu barre egiteko gogoa, benetan bizi izandako pertsona tipo horrek. Izan ere, pertsona bera irrigarri gertatu ahal dela esan zigun Bergsonek, akats bat behin eta berriz errepikatzen badu. "Automatismo" eta "zurruntasun" hitzekin deskribatu zuen pertsonaren akats errepikakorra:

> «Automatismo, rigidez y hábito adquirido y conservado son rasgos por lo que una fisionomía nos causa risa. Mas ese efecto gana en intensidad cuando podemos referir dichos caracteres a una causa profunda, a determinada distracción fundamental de la persona…»(Bergson 2008 [1900]:26)

"Axkar"-en ixtorioekin batera, badira bertsolari ezagunez kontatzen direnak ere, Xalbadorrenak, Pernando Amezketarrarenak, Ezponda eta Xanpuni gertatuak…

Pertsona jakin bati lotutako gertakari irrigarriez aparte, badira beste batzuk, kontalariek benetan gertatuak direla esan zigutenak ere. Horietan ez da pertsonaren izena aipatzen, benetan gertatu zela esaten da, besterik gabe.

(202.) E12-09 "Bihotz onak" izenekoa, adibidez, ateraldien sailean sailkatu dugu. Ematen du benetan gertatua den ateraldi irrigarri bat dela, jendearen memorietan txertatu dena:

> «Bazüzün aphez bat Zalgizetik izan züzün Mendikotat, aphezküpiak leküz kanbiatüik. Ikusi bide luze hortan paseatzen züzün, eta i(r)agan zizün urtek aphez haik Zalgizen eta geo jun baitzen Mendikotat. Mendikotan münduk agurtzen zizün, agur, agur.
> Zalgizetik jin zinen eta hemen gütützü, ta erraiten diozü:
> −Zalgizen ederki zinen?
> −Ah, bai, bai. Ni Zalgizen ederki nindüzün. Zalgizen jente xüxena eta jente jakintsüna. Balin bada hutsüne.
> −Bai, bihutz ünak musala artino! (sosantako musa, le porte monnaie, diru-zorroa)
> Ez ziela sobera musa zabaltzen».

(199.) E8-17 Ikaslea bakantzetara izan daiteke mota horretako beste gertakari irrigarri bat. Benetan gertatu dela esan digute eta ez dugu tradizioan horren beste adibiderik aurkitu. Hauxe kontatzen du: errienta ikasgelan hanka puntetan jarri zela eta ikasle batek hari zerbait ikusi nahi eta etzan egin zela. Errientak hiru egunez zigortu zuen horregatik. Beste ikasle batek orduan esan, berak errientaren behera gaina ikusi zuela. Hura zigortzeko, astebeterako etxera bidali zuen. Gero, crera puskatu eta konkortu egin zen errienta. Eta ikasle batek erantzun errientari: "−Nik denak ikusi dizkiat eta banoa bakantzeta".

Atal honetan ere askotariko kontakizunak daude, eta zenbait ahoz aho hedatu dira, zenbaitetan kontalari batek baino gehiago errepikatu baitizkigute. Beraz, gertatuak ala ez, herrikoitu behintzat egin direla esan dezakegu.

5.4. GURE BILDUMAKO IRRI KONTAKIZUNAK: ONDORIOAK

Irri gaiko kontakizun horien azterketak balio digu irri kontakizunaren aberastasunaz konturatzeko. Gaiak ugariak dira, batzuk besteak baino korapilatsuagoak, baina denek badituzte ezaugarri aipagarri batzuk:

-Pertsonaiak lauak dira. Ez dute inolako garapen psikologikorik. Kontakizun askotan, pertsonaien izenak ere ez dira ematen, eta beren lanbidea aipatu besterik ez da egiten, apenas deskribatzen dira.

-Kontakizun gehienen amaieran, C. Bremondek (1966) degradazio prozesua deituko lukeena gertatzen da. Dena delako pertsonaiak edo "tipoak" ez du bere helburua lortzen, lotsagarri geratzen da edo salatu egiten du bere burua…

-Kontakizunaren adierazpenari dagokionez, tenporalizazioari begiratzen badiogu, kontakizunak askotan egun bakar batean gertatzen dira, edo bi egunetan gehienez ere. Eta denboralizazioa markatzeko honelako adierazpenak erabiltzen dira: "gero", "beste batean", "hurrengo egunean"…

-Kontakizun horietako irri gaiak askotan errepikatu egiten dira: apaizak eta konfesioak, ehiztari aho handiak, etxekandereak eta senar edarizaleak, aberatsak eta pobreak zein baino zein… eta, era berean, askotan, irria pizten duten elementu eskatologikoak agertzen dira, hala nola, pixak, kakak, ipurdiak…

-kontakizun irrigarri gehienen muinean, sarritan trukatzen diren isotopia semantikoak antzeman ditugu, irakurle edo entzulearen azkartasuna eta trebezia jokoan jartzen dituztenak.

-Azkenik, ondorioztatu dezakegu Freudek eta Bergsonek ikuspegi sozialetik aztertutako komikotasunaren eta txistearen baliabideak gure kontakizunetako askoren teknika azaltzeko baliagarri zaizkigula.

5.5. IPUIN MIRESGARRIAK

Ipuin miresgarri batzuk ere jaso ditugu gure corpusean, gutxi diren arren. Zenbaitetan zalantza izan dugu kontakizun bat ipuin miresgarri moduan sailkatu ala

ez. Adibidez, Basajaunaren ixtorioez ari garela, Basajauna pertsonaia miresgarria izanik ere, zenbaitetan zalantza egin dugu ipuin miresgarrien ala leienden atalean sartu. Gauza bera esango genuke tartaroari buruzko kontakizunekin. Guk jaso ditugun kontakizunek ez dituzten Propp-ek (1987 [1928]:32) ipuin miresgarrietan errepikatzen ziren 31 funtzio horietako batzuk eta zenbaitetan ez bete-betean baizik biltzen. Propp-ek funtzioa balio konstantea zela aurkitu zuen eta horrela definitu: "Por función entendemos la acción de un personaje, definida desde el punto de vista de su significado en el desarrollo de la intriga".

Aurretik esan dugu, Rosa Alicia Ramos-en arabera (1988), ipuin miresgarrietako sinesgaiztasuna komikoa gerta daitekeen arren, kontakizunaren gai orokorra serioa dela, eta horrek desberdintzen duela irri ixtoriotik. Izan ere, protagonistaren ibilbidearen berri ematen digu bere helburua lortzera bidean, edo "hobekuntza" baten bidean. Eta gainera, pertsonaia miresgarriak agertu ohi dira.

Ipuin miresgarritzat sailkatu dugunetako bat, adibidez, **(186.) E1-03 "Deabruaren adina"** kontakizuna da. Kontakizun horren aldaeraren bertsio bat Websterren bilduman ere jasotzen da eta bertan Proppek definitutako funtzioetako batzuk ematen dira: urruntzea, erasotzailearekin topo egitea, hiru proba gainditu behar izatea, laguntzaile bat izatea horretarako… Kontakizunaren amaieran probak gainditu eta garaile ateratzen da protagonista. Beraz, "hobekuntza" prozesu batekin amaitzen da kontakizuna, eta ez degradazio batekin.

Gure kontalariak esandakoaren argumentua hauxe izango litzateke labur-labur: "Deabrua larrez larre ibiltzen zen eta baserritarrei galderak egiten zizkien. Behin baserritar bat hartu zuen eta hiru galdera egingo zizkiola esan zion eta erantzuna bilatu behar zuela. Asmatu ezean akabatu egingo zuelako. Lehen biak ez zituen asmatu eta, beraz, salbatzeko bere adina asmatu behar zuela esan zion. Gizona etxera joan zen beldurrak airean. Emazte argiak oiloa lumatu eta lumak kolatu zituen gorputzean. Gero, deabruarengana joan, iztar koloka jarri eta burua sartu zuen hanka tartetik. Orduan, deabruak beldurtuta esan zuen: "Laurogeita hamazazpi urte baditut eta sekula ez dut holakorik ikusi!" Orduan, adina jakinda, senarra salbatu zuen.

Ipuin miresgarrien artean sar dezakegu, adibidez, **(187.) E20-02 Hamalau** izenburua daraman kontakizuna ere. Westerrek beste bariante batean, bere bilduman

jasota dauka hori ere. *Hamalau* ipuin horretan Propp-ek definitutako zenbait funtzio identifikatu ditzakegu: gabezia, etxetik urruntzea, protagonistari zeregin zail bat proposatzea (25. funtzioa), erasotzailearekin topo egitea, protagonistaren itzulera… "Hamalau" protagonistaren ezizena da, bere etxean ezin zuten mantendu eta handik atera zen. Bidez bide joan eta etxe batean mutil hartu zuten. Etxekandereak bere zerbitzuez baliatu ondoren, etxetik bidali nahi, ordea, asko jaten baitzuen eta ezin baitzuen berarekin. Horregatik, hiru zeregin zail egitera bidali zuen, harekin akabatuko zutelakoan: lehen zeregina eman zioten ogia (garia) moztea. Dena pikatu zuen. Hurrena bidali zuten oihanera behiekin. Hartz batek behi bat jan zion. Hartza garaitu zuen eta laborari etxera itzuli zen. Hangoek ez zekiten nola galarazi. Berriz oihanera igorri zuten zubi bat egitera, urak eramango zuelakoan. Baina hori ere egin. Azkenik, infernura igorri zuen, burdin bat eta trukesekin. Baina han deabrua garaitzea lortu eta zaku bete urre lortu zuen.

Azkenik, Tartaroari buruzko bi ipuin miresgarri ere jaso ditugu. Tartaroari buruzko hirugarren kontakizun bat ere jaso dugu, baina **(177.) E20-10 "Tartarua eta ihiztaria"** leienden atalean sartu dugu ez zaigulako iruditu Propp-ek deskribatzen dituen funtzio horiek betetzen dituenik.

Tartaroari buruzko kontakizunetan tartaroaren mehatxuaren aurka, hura gainditzeko proba batzuk pasa behar dira, batean haur batek, eta bestean artzain batek. Kaltzakortak bere liburu batean esaten digu (1997a:76) Tartoaroaren kontakizunetan bi direla argumentu nagusiak:

> «Batez ere 1137 (gizajale itsutua. Polifemo) aurkitu dugu ugarien, baina horrek ez du esan nahi, aurkezten ditugun ereduetan, aurkezten ditugun ereduetan, argi ikusiko dugunez, eredu bakarra denik. Aurkitzen da bigarrenik 1000-1029 (lan tratuarena, tratu aserrarazlea). (...)Badago beste eredurik ere, baina nagusiki horiek horiek dira ereduak maiztasunaren arabera».

Hona hemen gure corpuseko argumentuak laburtuta:

(188.) E22-13 Tartaroa eta apustua: "Haur bati bidean zihoala iruten ari zen batek hari pilota eman zion. Gero txoriak hazten zituen norbait ikusi eta hark txori bat eman zion. Haurrak apostua egiten zuen tartaroarekin: Zeinek harria urrunago igorri. Txoria tartaroaren harria baino urrunago joan zen. Hari pilota zuhaitz bati estekatu eta tartaroa harrituta geratzen da. Azkenik, ardi bat hil eta haren tripak ezarri zituen gainean. Tartaroak gauza bera egingo zuela, baina hura hil egin zen".

(189.) E45-01 "Tartarua eta urde zainak": Tartaro batek bazituen urde zainak. Behin txori saltzaile batek tartaroarengana urde zain zihoan gizon bat ikusi zuen. Ez joateko gomendatu zion. Mutilak bat emanez gero, ez zela hilko erantzun zion. Gero hari korda saltzaile bat ikusi zuen eta azkenik, gazta saltzaile bat. Tartaroaren etxera joan eta norgehiagoka hasi zen. Ea nork bota harria urrunago. Ea nork xehatzen harria. Ea nork arbola gehiago bota. Gauean ohe azpian gizon bat hilik aurkitu zuen. Hildakoa ohe barruan sartu zuen, eta bera ohe azpian. Goizean galdetu zion tartaroak ea zerbait sentitu ote zuen. Ta hark erantzun: "—Kukuso ausiki bat bezalakoa". Gero arditegira joan eta ezpatarekin borrokan, haren begi bakarra atera ta itsutu egin zuen. Ardi larru bat gainean jarri ta ihesi egin zuen. Baina tartaroak emana zion gizonari eraztun bat eta "hor-hemen" esaten zuen. Orduan eria moztu eta zubitik behera bota zuen. Eta tartaroa atzetik, galdu.

Kontakizun horiek luzeagoak eta zehaztasun handiagokoak dira, baina aurrekoen molde berekoak direla esan dezakegu. Horietan ere, Tartaroaren atzaparretatik libratzeko hainbat proba gainditu behar izana agertzen da, eta elementu miresgarrien funtzioa beteko duten elementuak ere badaude: harria, hari korda eta gazta. Amaieran Tartaroa garaitu eta onik ateratzen dira heroiak.

Tartaroari buruzko aipatutako hirugarren kontakizuna bezala, Basajaunaren ixtorioak ere leienden atalean sartu ditut. Basajauna aipatzen duten ixtorioak hiru dira gure bilduman. Kaltzakortak Basajauna Tartaroarekin nahastu izan dela esaten digu eta haren izatea bera ere zalantzan jarri izan dela (1997a:80-81) zenbaitetan:

> «Basajauna izan da lehenengoz Chahok aipatu zuenez gero, batek baino gehiagok euskal mitologiako izakia izan ote den dudatan jarri dutena. Gauzarik harrigarriena da, batez ere basajaunaren izatasuna jarri dela zalantzan, Chahok Tartaroa, lamiak eta abar aipatzen baditu ere».

5.6. LEIENDAK

Leiendak, leku jakin bati lotatutako kontakizunak dira. Leiendak lehenaldi gertuko eta pertsonaia sekularren gertakariak jorratzen ditu. Naturaz kanpoko izakiek parte hartzen duten leiendetan, gizakiekin erlazionatzen dira eta kontalariak kontakizunaren egiazkotasuna azpimarratzen du, ezagunen baten edo aintzinako pertsonaren baten lekukotza aipatuz. Gure corpusean honako hauek jaso ditugu:

Laminei buruzkoak: **E6-01 Laminak Orin eta Ligin; E9-03 Laminak dorre egile; E13-06 Ligiko zubia; E20-07 Laminak; E20-08 Game(re)ko laminak; E20-09 Lamina haur minetan; E20-12 Ligiko zubia; E23-02 Laminen urrezko orrazea; E33-01 Laminak Gamere-Zihigan; E41-03 Laminak Ibarlan.**

Basajaunari buruzkoak: **E6-02 Basajaun ixtorioak; E20-06 Basajauna; E33-02 Haginetako mina**

Sorginei buruzkoak **E9-01 Sorgin ixtorio**

Deabruei buruzkoak **E9-02 Deabruaren ituna**

Tartaroari buruzkoak **E20-10 Tartarua eta ihiztaria**

Herensugeari buruzkoak **E20-11 Herensugea; E23-01 Altzaiko herentsugia; E33-03 Altzaiko herensugia**

Hartzari buruzkoak **E26-01 Arbailako azken hartza; E26-02 Hamargarren hartza.**

Eta askotariko gaiak dituzten beste asko: **E1-05 Sarako zubia**; **E13-10 Zendako ez den beretterrik; E18-01 Ezkilak mintzatzen zirenekoa; E32-03 Beltzuntzeko jauna**; **E43-02 Chateuko Leienda-Urrutiko anderea**; **E43-03 Ahüzkiko iturriko leienda…**

Batzuk, laminenak adibidez, ezagunak dira oso eta Webster eta Cerquanden bildumetan aurkitzen ditugu. Beste batzuk ezezagunagoak dira, **E18-01 Ezkilak mintzatzen zirenekoa,** adibidez. Modu horretan kontatua ez genuen ezagutzen, nahiz eta aurrekariei buruzko kapituluan aipatu dugun moduan, herri literaturan ezkilak mintzatzeko kontu hori gai ezaguna izan eta Piarres Laffitek (1945) ere gai horrekin lotutako kontakizun bat jasota izan, *Ezkilaren errana* izenburuarekin.

5.7. BESTELAKOAK (BERTSOAK ETA KANTAK, HAUR JOLASAK)

Azkenik, gure ikerketaren helburu ez baziren ere, corpusean jasota datozenez, atal bat eskeiniko diegu bertako bertso, kanta eta haur jolasei ere.

Bertsoei dagokionez, askotarikoak dira gaiak: infidelitatea (**E7-04 Sorlekua dut Eskual herria** delakoak gizon batekin esperantzetan geratutako emakumeaz dihartu);

urguluari buruzkoak (**E8-06 Urguluaren arbola** bertso sortak kontatzen du neska alfer aberats soinekoz jantzia, urguluz betea zela, aitak zentzatu zuen arte); Zaldubiren bertso batzuk ere badira **E22-09 Pello ikazkina** izenburudunak[30]; **E22-10 Iñaki, Maria Terexa eta transistorra** izenburuarekin bertsotan kontatzen da Iñakik transistorra erosi ziola Maria Terexari eta hura entzunik Maria Terexa ohartu zela maitasuna hauskorra dela; **E29-02 Artoxuritzetako kanta,** artoxuritzetan irri egiteko kantatzen ziren bertso batzuk.

Haur jolas batzuk ere jaso ditugu corpusean: **E5-01 Amak haurra sortu din** haurrak lotsarazteko formula bat da; **E5-02 Behin bazen Muntzerat** izenburuduna, lehen mintzatzen dena harrapatzeko haur jolasa da; **E5-03 Bau, bau** haurrak lotsarazteko beste haur jolas bat da eta **E29-03 Kukurruku!** haur jolas ezaguna. Euskal aldizkarietan motako honetako haur jolasak jasotzeko ohitura zegoen. *Gure Herria* aldizkariko (1921:319) "Haurren Chokoa" atalean, adibidez, horrelakoak datoz: "Kadira, kadira, lumatcha /Chantchin tcharreko neskatcha/ Hupa hupa Mariaño!,...

1934ko *Gure Almanaka*-n ere "Haurren jostarazteko" izenburupean, antzeko haur jolas batzuk datoz, adibidez, hor dauzkagu "Errak bat" jolasaren bi aldaera eta "Ilabetheak" izenburua daramana.




Errak bat

Errak bat ? — Gure Jaina bera duk bat.
Errak bi ? — Bi testamendu, zahar eta berri.
Errak hiru ? — Trinitateak hiru presuna ditu.
Errak lau ? — Ebanjelistak dira lau.
Errak bortz ? — Jesu-Kristok bortz zauri.
Errak sei ? — Sei argi meza-nausian.
Errak zazpi ? — Zazpi sakramendu direla.
Errak zortzi ? — Mendian agindu zortzi zorionak.
Errak bederatzi ? — Bederatzi aingeru-alde zeruan.
Errak hamar ? — Orhoit hamar manamendnez.
Errak hameka ? — Hameka mila aingeru.
Errak hamabi ? — Hamabi apostoluak.

Errak bat

Errak bat ? — Gizon bakotchak buru bat.
Errak bi ? — Bi alde, eskuina eta ezkerra.
Errak hiru ? — Luze, zabal eta gora, hiru negurri.
Errak lau ? — Lau bazter ditu munduak.
Errak bortz ? — Bortz erhi ene eskuak.



Errak sei ? — Eizak sei manamendu.
Errak zazpi ? — Zazpi eskual-herriek bat egin dezagun.
Errak zortzi ? — Baionan zortzi kalonje.
Errak bederatzi ? — Lehengo bederatzi musak.
Errak hamar ? — Borz tantorekin hamarra.
Errak hameka ? — Hogoi-ta-hameka eta esku, biba gu !...
Errak hamabi ? — Dotzena oso-osoa, horra zer den hamabi.

[30] 1939ko *Gure Almanaka*n agertzen dira.

6. ONDORIOAK-RÉSULTATS

Gure ikerketaren oinarria corpus bat da, ahozko tradiziotik jaso diren kontakizunek osatzen dutena. Corpus hori biltzeko zenbait kontalarirengana jo dugu, eta horiengandik ateratako informazioaren transkripzioa dago gure tesiaren oinarri den corpusean. Ipar Euskal Herrian eta mugakide dituen eremuetan euskaraz jasotako ahozko testigantzak eskaini eta aztertu ditugu eta horien transkripzioa egin dugu, bertako kontakizunak aztertzera igarotzeko beharrezko urrats gisa.

La base de cette recherche est un corpus qui se compose de narrations recueillies dans la tradition orale. Pour constituer ce corpus nous avons travaillé avec divers conteurs, dont nous avons retranscrit les histoires, laquelle transcription constitue le corpus de base de notre thèse. Nous avons offert et examiné les témoignages oraux recueillis en basque au Pays Basque et à ses proximités et rédigé leur transcription, phase obligatoire avant leur étude proprement dite.

Corpus hori argitaragabea da zati handi batean. Corpusa ez da homogeneoa, -ezingo luke bestela izan- baina zati handi bat irri kontakizunek osatzen dute. Corpuseko materiala aztertzetik hainbat ondorio atera ditzakegu: alde batetik, esan dezakegu irri kontakizunek gure ahozko literaturaren barruan toki zabala hartzen dutela, baina hala ere, ez zaiela gehienetan ahozko literaturaren azterketetan arreta bereizirik jarri. Bestetik, batzuetan, beste kontakizun mota batzuekin tartekatuta etorri dira (ipuin miresgarriak, leiendak, fabulak…), eta beste kontakizun mota batzuen aldean garrantzi txikiagoko generotzat jo

Ce corpus est inédit pour une grande part. Il n'est pas homogène, et il ne pouvait pas l'être- mais une grande partie des textes qui le composent sont les narrations comiques. De l'examen de ce corpus on peut tirer quelques conclusions: d'un côté, on peut dire que les narrations comiques occupent une grande partie de la littérature orale, et cependant, elles n'ont pas reçu une attention particulière dans la recherche sur notre littérature orale. D'autre part et dans certains cas, elles se sont mélées avec d'autres types de récits (contes merveilleux, légendes, fables), et peut-être, étant considérées comme un genre mineur, elles n'ont pas donné lieu à

direlako-edo, ez da horien bereizgarrietan eta erakusten duten komikotasunean sakondu.

Tesiaren hasieran (2.1. kapitulua) kontagintzarekin lotutako terminologia nola erabiliko dugun aurkeztu dugu eta kontakizunen azterketa eta sailkapena egiten lagunduko diguten testu motei buruzko definizioak azaldu ditugu (2.4 eta 2.5 kapituluak).

Kontakizun horien sailkapenaren inguruan, euskal literaturan eta inguruko literaturetan aztertu dena azaldu dugu (2.5. kapitulua). Alegia, gaia bere testuinguruan kokatzen saiatu gara. Horretarako, besteak beste, kontakizun errealistak direlakoak aipagai hartu dituzten aurretiko ikerlanez (2.5.1. kapitulua) eta testuen azterketa semiotikoaren oinarriez (2.4. kapitulua) baliatu gara, testuen deskripzio sinkronikoa egiteko.

Definizio horiek oinarri hartuta, gure corpuseko materiala sailkatzera igarotakoan (5.1.1. kapitulua) zailtasun batzuk izan ditugu, testu batzuk talde batean edo bestean sailkatu erabaki beharra zegoelako, eta horrek euskal literaturan bildu izan diren forma laburrez gogoeta egiteko aukera eman digu.

Adibidez, ez da beti erraza izan

un approfondissement de ses caractéristiques, ni à l'expression du comique.

Au début de la thèse (chapitre 2.1.), nous avons presenté comment nous avons utilisé la terminologie relative aux récits et nous avons exposé les définitions qui nous sont indispensables pour éxaminer et classifier les récits (chapitres 2.4. eta 2.5.).

Nous avons repris ce qui a été étudié quant à la classification de ces narrations dans la littérature basque et dans les littératures voisines (chapitre 2.5.). Nous avons donc essayé de situer le sujet, le motif dans son contexte. Dans ce but, nous avons utilisé les études précédentes qui mentionnent les récits dits réalistes (chapitre 2.5.1.), ainsi que les principes de l'examen semiotique des textes (chapitre 2.4.) pour en faire une description synchronique.

Sur la base de ces définitions, appliquées à la classification de notre matériel (chapitre 5.1.1.), nous avons éprouvé quelques difficultés, puisqu'il a été malaisé d'insérer certains textes dans un groupe, et cela même nous a fourni l'occasion de réfléchir sur les formes courtes qui ont été recueillies dans la littérature basque.

Par example, il ne nous a pas été toujours facile de distinguer s'il fallait

kontakizun bat errealistatzat edo txistetzat sailkatu behar zen jakitea. Txisteek irri kontakizun horien barnean beste multzo bat osatzen dute. Txiste horiek askotan oso laburrak izaten dira, eta horien egitura minimoa da. Baina txistetzat sailkatzeko irizpideetako bat kontakizun horien tradizionaltasun falta izan da, agerpen berrikoak izatea.

Zenbait kontalarik "arrazoinak" deitu dituztenak, ateraldi edo erantzun argi batekin amaitzen diren irri kontakizunak dira, "zirtoak" edo "dritxoak" izan daitezkeen bezala, eta laburrak direlako txisteen atalean sartu ditugu.

Irri kontakizunen ezaugarriei dagokionez (2.5.1. kapitulua), ikus dezakegu gehienetan laburrak izaten direla, eta horrek efektu komikoa areagotzea dakar.

Gure corpuseko irri kontakizunen egiturari erreparatuz gero, "errealisten" atalean –guk eta zenbait ikerlarik ere– sailkatu ditugun kontakizun gehienak degradazio prozesu batekin amaitzen dira, eta horrek komikotasuna sortzen du. Adibidez, apaizak gelariarekin oheratzen direla jakiten da; konfesatzera joaten denak penitentziatik libratzea lortzen du eta apaiza irrigarri geratzen da; behartsuak aberatsari lapurtzen dio…

classifier un récit parmi les histoires ou les histoires drôles. Les histoires drôles constituent une autre partie des narrations comiques. Ces histoires drôles sont souvent très courtes, et elles ont une structure minimum. Mais un critère qu'on a utilisé pour les classifier comme histoires drôles, a été leur manque de tradition, leur apparition récente.

Les "arrazoinak" (raisonnements), comme quelques raconteurs les ont appelés, sont des narrations comiques qui finissent par une boutade ou une plaisanterie, tels que les "zirtoak" ou "dritxoak", et comme elles sont aussi courtes, nous les avons classées comme histoires drôles.

Quant aux caractéristiques de ces récits (chapitre 2.5.1.), nous pouvons observer que les narrations comiques sont très souvent courtes, et cette brièveté ne fait que renforcer l'effet comique.

Si on examine la structure des récits recueillis, on peut constater que la plupart de ceux classifiés –par nous et par les spécialistes- comme "réalistes" se terminent avec un processus de dégradation, ce qui provoque le rire. Par exemple, on apprend que le curé couche avec la chambrière; celui qui va faire sa confession peut échapper à la pénitence

Bergsonek idatzi zuen (1900) "pertsonaiak edo gertakariak itzulikatu egiten direla, mozorrotze prozesu bat gertatuko balitz bezala, eta horrek irria sortzen duela".

Irri kontakizunetako gaiei erreparatuz gero (2.5.1. kapitulua), ikus dezakegu hizkuntza tradizio desberdinetan antzeko gaiak edo motiboak errepikatzen direla: ehiztari aho handiak, katexima ikasle gazteei galdetzen dieten apaizak, mozkortu eta hori disimulatu nahian dabiltzan senarrak… Frantsesezko eta gaztelaniazko corpusez baliatu gara batez ere irri kontakizunetako gaiei erreparatzeko.

Han-hor-hemen bildutako materiala aztertzeko, material hori nolabait sailkatu beharra dago, eta horretarako irizpide bat aukeratu behar da.

Orain arte, ahozko materialaren bilketak egiteko zegoen presagatik, kontalari on eta jakitate zaharraren gordetzaile gehienak adinekoak zirelako, bilketari eman zaio garrantziarik handiena, bildutako materialaren sailkapenaren aurretik. Horregatik, orain arte euskal arloan egindako sailkapenak askotarikoak eta arau zuzentzaile argirik gabeak izan dira eta sailkapenei buruzko gogoetak ere ez dira oso ugariak izan:

prévue et le curé en devient ridicule; le pauvre vole le riche… Comme Bergson le fait remarquer, (1900) "les personnages ou les actions sont bouleversés, comme s'il se produisait un processus de déguisement qui provoque le rire".

Si on observe les sujets des histoires comiques (chapitre 2.5.1.), on peut voir, que dans les différentes traditions linguistiques, les mêmes sujets ou motifs se sont répétés : des chasseurs vantards, des curés qui donnent l'instruction de catéchisme aux jeunes élèves, les maris qui sont ivres et qui essayent de le dissimuler… À l'heure d'examiner les sujets des narrations comiques, nous avons surtout utilisé des corpus en français et en espagnol.

Pour examiner le matériel recueilli, il faut le classer, et il est nécessaire de suivre pour cela divers critères.

Jusqu' à présent, très souvent, et dans la hâte de vouloir récupérer les matériaux oraux, étant donné que les conteurs qui gardaient l'ancienne sagesse étaient assez âgés, on a donné plus de priorité à la compilation de textes, plus qu'à leur classification. C'est pour ça, que les classifications en domaine basques qui ont été faits jusqu'à aujourd'hui ont été très variées et sans principe directeur évident, et les réflexions sur les classifications aussi

batzuetan, gaiaren arabera sailkatu izan da, bestetan, kontakizun motaren arabera… Camarena Laucirica-ren ustez (1992:405) , orain arte egindako zenbait bilketetan, bilketa lanean sartutako elementuen bereizketa hori ez da guztiz garbi egin, eta ipuinaren zakuan sartu dira bestelako kontakizun batzuk ere: gertakariak, leiendak…

Gure materiala sailkatzeko orduan, genero bakoitzaren definizioetan oinarritu gara. Mugak, ordea, beti horren garbiak ez direla ondoriozta dugu. Ipuin miresgarrien eta irri kontakizunen arteko aldeez ari garela Rosa Alicia Ramosek batez ere, kontakizunek dituzten amaiera mota desberdinetan jartzen du arreta (1988:27) eta irri kontakizunen ezaugarrietako bat degradazioarekin amaitzea dela esaten du, pertsonaia nagusiak ez duelako bere helburua lortzen. Ipuin miresgarriek, berriz, gai orokorra serioa dute, sinesgaitzak direlako komiko gerta daitezkeen arren.

Irri kontakizuna degradazioarekin amaitzen dela esatean, C. Bremond-ek narrazioen azterketa semiologikoa egitean (1966) kontakizunaren oinarrizko sekuentziak definitzeko darabilen terminologiaz baliatzen da.

Gaiei dagokionez ere, Simonsen-

ne sont pas très abondantes : parfois elles sont basées sur le sujet, parfois sur le type de narration... Selon Camarena Laucirica (1992: 405), dans diverses compilations réalisées à ce jour, la division des élements constitutifs n'a été pas claire, et ont été intégrées dans le vaste « sac » des contes d'autres récits comme les évènements comiques, les légendes…

À l'heure de classifier le matériel de notre corpus, nous nous sommes basée sur les définitions de chaque genre. Cependant, les limites ne sont pas toujours aussi claires. Quant aux différences entre les contes merveilleux et les narrations comiques, Rosa Alicia Ramos a souligné surtout les différentes terminaisons de la narration (1988:27) et elle a affirmé que les narrations comiques se terminent par une dégradation, parce que le personnage principal n'obtient pas son but. Par contre, les contes merveilleux ont un sujet général serieux, même s'ils peuvent être tenus pour comiques car être fort difficiles à croire.

En affirmant que que la narration comique se termine avec une dégradation, elle utilise la terminologie de C. Bremond, lors de sa recherche sémiologique des narrations (1966).

Quant aux sujets ou motifs de la

ek (2003-2004) motibo miresgarriak eta irri gaiak antzekoak izan daitezkeela esaten du, baina desberdintasuna kontakizun horien egituran bilatu behar dela. Horretarako klaseen arteko gatazkaren adibidea ematen du. Eta esaten du heroiak ez duela bere gainetik dagoena garaitu soilik egiten, lotsagarri ere uzten baitu.

Izan ere, gure bildumako kontakizunekin frogatu ahal izan dugu, irri kontakizunetan gehien errepikatzen diren gaiak, Simonsenek berak aipatzen dituenak direla: engainatutako gizonezkoak, tuntun itxurako emakumeak, neskatila arinen sedukzioa…, baina politenen artean, Simonsenek ahulen eta boteretsuen arteko liskarrak aipatzen ditu. Gure bilduman **(48.) E1-02 "Sosdun tronpatua"** izenburua daraman kontakizunak ere motibo horixe du kontakizunaren amaieran, eta bertan kanpaina gizon pobre batek kanpaina gizon sosduna kupela batean sartzea lortzen du eta itsasora botatzen du.

Irri kontakizunen barruan, txisteak sailkatu ditugu, baina bi horien arteko muga, bertan kontatzen denaren luze-laburrean bakarrik jartzea zaila da. Bat gatoz Rosa Alicia Ramosek txisteari ezartzen dizkion ezaugarriekin (Ramos, 1988:29): laburtasuna, umorezkoa, eguneroko bizitzatik ateratako

narration, Simonsen (2003-2004) signale que les motifs merveilleux et ceux comiques peuvent être similaires, mais qu'il faut chercher la différence dans la structure de la narration. Pour illustrer cette idée elle nous donne l'exemple de la lutte de classes. Elle observe que le héros non seulement vainc le protagoniste qui est au-dessus, mais même qu'il le ridiculise.

En fait, nous avons pu démontrer avec les narrations de notre corpus, que les sujets qui se répètent le plus dans les narrations comiques, sont ceux que mentionne Simonsen : les hommes bernés, les femmes apparemment stupides, la séduction des filles innocentes..., mais parmi les plus belles, Simonsen mentionne cex narrations qui parlent des luttes entre les puissants et les démunis. Dans notre corpus, la narration qui s'appele **(48.) E1-02 "Sosdun tronpatua"** contient aussi ce motif à la fin de la narration. Dans cette narration un homme de campagne pauvre réussit à introduire un autre homme de campagne riche dans un barril et il le jette à la mer.

Parmi les narrations comiques on a classifié les groupes qui forment les mots d'esprit, mais il est difficile de tracer la limite entre les deux en observant seulement la longueur de la narration. Nous pensons comme Rosa Alicia Ramos

pertsonaiak, argumentuaren garapen minimoa. Esaten du pertsonaietako batek egindako hutsak ekartzen duela kontakizunaren amaiera, ez dagoela ekintzaren garapenik eta ezta kontrasteetan oinarritutako karakterizaziorik ere (adibidez, argien eta tontoen artean). Era berean esaten du, txisteek isolatutako egoera bat azaltzen duela, aurreko edo geroko gertakariekin loturarik gabea.

Bestetik, kontakizun "gordin" edo "berdeak" dei ditzakegunek osatzen duten multzo handia legoke (2.6. kapitulua): beren senarrak engainatzeko orduan, emakumeen argitasuna azpirratzen duten ixtorioak; senarrak beti tuntun papera jokatzen dutela erakusten dutenak; emakumeek sexuaz ezer ez dakitelako itxura egiten dutenak, Frappier-Mazur-ek (1993:30) "lañotasun itxura" deitu zuena; sexu kontuez ari garela gauzak eta ekintzak beren izenez deitzeko ezintasunak, horiek deskribatzera behartzen duten kontakizunak (A.N. Afanasiev-ek (1991:21) "transposizio poetikoa" deitu duzuena).

Ikuspegi diakronikoari dagokionez, kontakizun horiek gaurko garaiaren argitan kokatzeak izan ditzakeen zailtasunak ere aipatu ditugu. Izan ere,

quant aux caractéristiques qu'elle attribue à la narration comique: il est court, comique, il concerne des personnages de la vie quotidienne, le déroulement de l'argument est minimum. Elle montre comment l'erreur commise par un personnage entraîne la fin de la narration, qu'il n'y a ni un déroulement des actions, ni une caractérisation basée sur les contrastes (par exemple, entre les dégourdis et les bêtes). Elle dit aussi que les mots d'esprit nous montrent une situation isolée, sans liaison entre les faits antérieurs et postérieurs.

D'autre part, nous aurions le grand groupe des narrations comiques qu'on peut appeler "obscènes" ou "vertes" (chapitre 2.6.): des narrations qui remarquent l'astuce des femmes quand elles veulent tromper leur mari ; les narrations qui nous montrent des maris qui jouent le rôle d'un idiot ; des narrations dont les femmes feignent de ne rien savoir sur le sexe, ce que Frappier-Mazur (1993:30) a appelé "une innocence feinte"; des histoires dont l'impossibilité de nommer les choses par leur vrai nom nous oblige a les décrire (ce que A.N. Afanasiev (1991:21) a appelé "la transposition poétique").

Quant au point de vue diachronique, nous avons mentionné les difficultés à

zenbait kontakizun irrigarrik, antiklerikalismoa eta sexu adierazpenak aipagai duten horietako askok, adibidez, gaur egun jasotakoak izanik ere, aspaldiko bildumetan agertzen direnen antzeko irri gaiak dituzte, eta horiek gure garaietara iritsi izana ulertzeko, kontakizunek ustez izan duten hedapen moduari erreparatu beharko genioke (2.7 kapitulua).

Zenbait irri gairen edo motiboren tradizioa urrutitik datorrela ere ondorioztatu dezakegu. Iritzi berdina agertu zuen Txomin Peillenek ere (1985), Zuberoako zenbait irri gai aztertu zituenean. Bajtinek Rabelaisi buruzko liburuan dio Erdi Aroan, irriak mundu ofizialaren mundu ikuskeratik aldenduta, bere eremua sortu zuela festen anparoan: astoaren festa, eroen festa… Horietan, gorputzaren eta materiala denaren "azpiko alderdiak" jartzen ziren agerian. Honela dio Bajtinek (2003 [1974]:74):

> «Puede afirmarse que el lenguaje familiar de los clérigos (e intelectuales medievales) y de la gente del pueblo estaba saturado de elementos tomados de lo "inferior" material y corporal: obscenidades y groserías, juramentos, textos y sentencias sagradas invertidas; al formar parte de este lenguaje, las palabras eran sometidas a la fuerza rebajante y renovadora del poderoso principio "inferior" ambivalente».

Gure corpusean kaka-pixak,

l'heure de situer ces narrations dans l'époque actuelle. De fait, quelques narrations comiques, par exemple, celles qui portent sur un sujet anticlérical ou sexuel, même si elles ont été recueillis par nos soins dans l'actualité, concernent cependant des sujets pareils à ceux qu' apparaissent dans les collections antiques, et pour comprendre comment ces récits nous sont arrivés, nous devions repérer le mode de diffusion que probablement ils ont eu (chapitre 2.7.).

On peut aussi remarquer que la tradition de quelques sujets ou motifs des narrations comiques vient de loin. Txomin Peillen (1985) a eu le même avis, quand il a examiné quelques sujets comiques. Bajtin dans son livre sur Rabelais a dit qu'au Moyen Age, le rire a créé son domaine à l'occasion et sous le patronage des fêtes, loin de la vision du monde officiel : la fête de l'âne, la fête des fous… Dans toutes ces fêtes c'était "l'inférieur corporel et matériel" qui se manifestait. Bajtin l'exprime ainsi (Bajtin (2003) [1974]:74):

> «On peut affirmer que le langage des clercs (et des intellectuels du moyen âge) ainsi que des gens du peuple est saturé d'éléments provenant de l'inférieur corporel et matériel: obscénités y grossièretés, jurons, textes et sentences sacrés subvertis; en faisant partie de ce langage, les mots sont soumis à la force rabaissante et novatrice du puissant principe "inférieur" ambivalent»

uzkerrak... aipatzen dituzten kontakizun ugari ditugu. Esate baterako: **(119.) E17-01 Hützaren barkamendua** (artoxuritzen uzkerra bota zuen emakumearen ixtorioa); **(55.) E13-11 Olhan txakurren ixtorioak** (Olhatik ura atertzean "Benedicamus" esan behar zen, baina behin mutilari ahaztu eta nagusiak berriz bidali zuen ur bila. Gizon bat bidean errekontratu eta erraten dio pixa egiteko bertan. Eta orduan hori dastatzean, nagusiak erantzun: «Hau bai ur ederra!.)»

Festa zenean, sistema ofizialaren funtzionamendua eteten zen, horrek zekartzan debeku eta banaketa hierarkikoekin. Denbora tarte labur batez, bizitza arau estuetatik atera eta askatasun utopiaren baitan sartzen zen. Ideia horixe bera azpimarratu zuen Caro Barojak *El Carnaval* liburuan.

Antiklerikalismoak garaian garaian eduki ahal izan dituen adierazpenez ere mintzatu gara eta azpimarratu dugu ezin uler daiteekela joera antiklerikalaren indarra, aldi berean, urtetan klerikalismoak Europan izan dituen indarra eta pisua ulertzen ez baditugu (2.8 kapitulua).

Aipatu dugun beste alderdi bat, kontakizun horietako askotan emakumeez egiten den irudikapen

(traduction; M.M).

Dans notre corpus on peut trouver beaucoup d' histoires qui mentionnent le pipi-caca, les pets… Par exemple : **(119.) E17-01 Hützaren barkamendua** (l'histoire de la femme qui lâche un pet lorsqu'elle travaille en groupe à dépiquer le maïs); **(55.) E13-11 Olhan txakurren ixtorioak** (quand on tirait de l'eau du puits il fallait dire « Benedicamus », mais une fois le jeune employeur l'a oublié, et son patron l'a renvoyé tirer de l'eau. Un homme lui conseille de pisser dedans. Et le patron goûte l'eau et répond: « Oh, la la ! c'est magnifique! Elle est très bonne) ».

Quand la fête régnait, le fonctionnement officiel du système et ses prohibitions et différences hiérarchiques se paralysaient. Pour un moment limité, la vie rompait avec les règles strictes et entrait dans l'utopie de la liberté. Cette idée a été également soulignée par Caro Baroja dans son livre *Le Carnaval*.

Nous avons aussi abordé les manifestations que l'anticléricalisme a pu avoir à chaque époque, et qu'il est impossible de comprendre la force de cet anticléricalisme, sans comprendre aussi le poids du cléricalisme en Europe (chapitre 2.8).

Par ailleurs, un autre aspect que nous

ezkorra da. Urteak joan urteak etorri, irri kontakizun (eta kontakizun misogino). horiek idatziz ere jaso dira zenbaitetan eta Europako ahozko tradizioan gorde dira, dela exempluen bidez, bai bestelako ipuinekin tartekatuta, bai debekatutako kontakizun bildumen barruan. Maria Jesus Lacarrak dio (1999:30) "harrigarria dela ikustea kontakizun horiek zenbateraino errotu ziren gizartean". Eta pentsatzen dugu ixtorio gordin horietako gaiak mendetan mantendu badira, gizartearen arauek ezartzen zituzten mugak hausten zituztelako izan dela (2.7. kapitulua).

Maria Jesus Lacarrak (1986: 340) Erdi Aroko zenbait kontakizun aztertzean adierazi zuen "istorioaren ardatz emakumearen adulterio jarrera azpimarratzen dutela, honen lagunaren erruan erreparatun gabe, beraz, aukeratutako ikuspegiak emakumearen malizia azpimarratzeko balio duela, eta kontakizun mota horretan gizonezko pertsonaiak bigarren mailan geratzen direla emakumeen argitasunaren aldean".

Deskribapen horiek bete-betean datoz bat gure corpuseko zenbait irri-ixtoriok kontatzen dutenaren inguruan azpimarratutakoarekin. Hor daukagu, adibidez, **(104.) E41-04 Gasna** izenburudun irri kontakizuna. Horretan, emazteak senarra behitegira joaten dela

avons mentionné, est l'image négative des femmes que beaucoup de ces narrations nous offrent. Pendant fort longtemps, des narrations comiques (et misogynes) qui ont aussi été recueillies par écrit, se sont conservées dans la tradition orale d'Europe, soit dans les exempla, soit mélangées avec d'autres contes ou dans les collectes des narrations interdits. Maria Jesus Lacarra (1999 :30) insiste sur le fait "qu'il est étonnant observer comment ces histoires sont enracinées dans la société". Et nous pensons que si ces narrations, obscènes, se sont mantenues pendant des siècles, c'est parce qu'elles rompent les limites que la société imposait (chapitre 2.7.).

Maria Jesus Lacarra (1986: 340), signale aussi en examinant les sujets de quelques narrations médiévales que "ces histoires soulignent l'attitude adultère de la femme, sans guère prêter attention à son compagnon. Donc, le point de vue choisi sert à insister sur la malice des femmes, et dans ce type de narration, les personnages masculins sont assignés à un deuxième niveau par raport à la lucidité des femmes".

Ces descriptions sont complètement en accord avec ce que nous remarquons dans quelques narrations comiques de notre corpus. On peut mentionner, par exemple, la narration comique intitulée **(104.) E41-04**

baliatzen du, ohe berean lotan hartu duten ibiltariari berarekin sexua izan dezan proposatzeko.

Umoreari buruzko teoriak aztertzean ikusi dugu (3.3. kapitulua) Errenazimenduan, aldaketa eman zela irriaren adierazpenean. Bajtin-ek Rabelaisi buruzko liburuan irriaren historiari eskaintzen dion kapituluan ([1941] 2003: 57) esaten du XVII. mendetik aurrera irriak ezin duela munduaren ikuskera unibertsala adierazi, eta zenbait alderdi besterik ez dituela beteko, alegia funtsezkoa eta garrantzitsua denak ezin izango du komikoa izan. Horregatik, irriarena literaturaren barruan garrantzi gutxiagoko generoa izatera pasako da:

> «La época de Rabelais, Cervantes y Shakespeare, representa un cambio capital en la historia de la risa. Las fronteras que dividen el siglo XVI y siguientes de la época renacentista son especialmente claras en lo que respecta a la opinión que tienen sobre la misma. (…) La actitud del siglo XVII en adelante con respecto a la risa puede definirse de la manera siguiente: la risa no puede expresar una concepción universal del mundo, sólo puede abarcar ciertos aspectos –parciales y

Gasna. Dans cette narration, la femme profite du moment où son mari va à l'étable pour proposer au chemineau qui dorme avec eux dans le même lit, d'avoir des relations sexuelles avec elle.

En examinant les théories sur l'humour (chapitre 3.3.) nous avons vu qu'à la Renaissance, un changement se produisit en ce qui concerne l'expression du rire. Dans le chapitre que Bajtin consacre à l'histoire du rire dans son livre sur Rabelais ([1941] (2003) :57) il explique, qu'à partir du XVIIème siècle, le rire ne peut pas exprimer la vision du monde universel, et qu'il n'en montrera que quelques aspects. Ce qui est fondamental et important ne sera plus comique. C'est pour cela que le comique deviendra un genre mineur au sein de la littérature :

> « L'époque de Rabelais, Cervantes et Shakespeare, représente un changement capital dans l'histoire du rire. Les frontières qui divisent le seizième siècle et les suivants de la période de la renaissance sont particulièrement claires en ce qui concerne l'opinion sur le rire (…) l'attitude à partir du XVIIème siècle quant au rire peut se definir de la manière suivante: le rire ne peut exprimer une conception universelle du monde, il ne peut

> parcialmente típicos de la vida social, aspectos negativos; lo que es esencial e importante no puede ser cómico (…) de ahí que la risa ocupe en la literatura un rango inferior, como un género menor, que describe la vida de individuos aislados y de los bajos fondos de la sociedad; la risa o es una diversión ligera o una especie de castigo útil que la sociedad aplica a ciertos seres inferiores y corrompidos. Esta es, esquemáticamente, la actitud de los siglos XVII y XVIII ante la risa».

Gure corpuseko zenbait irri kontakizun beraz, aspaldiko irri kontakizunen oihartzuna izan daitezkeela uste dugu. Ez denak, noski. Badira eta sorkuntza berrikoak behar duten txiste edo irri kontakizunak ere.

Kontakizunen baliokidetzak bilatzeari dagokionez (3.1. eta 3.2. kapituluak), agerikoa egin zaigunean aipatu ditugu kontakizun irrigarrien parekoak euskal literaturan nahiz bestelakoetan eta horien erreferentzia eman dugu. Baliokide zaharren artean, multzo handi bat Poggio Bracciolini florentziar humanistaren bilduman aurkitu dugu. Baina gai horretan gehiago sakondu daiteke, zalantzarik gabe.

> embrasser que certains aspects – partiels et partiellement typiques de la vie sociale, aspects négatifs; ce qui est essentiel et important ne peut être comique; d'où il se produit que le rire occupe dans la littérature un rang inférieur, un genre mineur qui décrit la vie d'individus isolés et provenant des bas fonds de la société; le rire est donc soit une diversión légère ou une espèce de châtiment utile que la société applique à certains êtres inférieurs et corrompus. Voilà, schématiquement, l'attitude des XVII et XVIIIeme siècles face au rire» (traduction M.M).

Nous pensons que quelques narrations comiques de notre corpus peuvent être l'écho de ces anciennes narrations comiques. Pas toutes, évidemment : il y a aussi dans notre corpus, quelques narrations et histoires drôles de création moderne.

Quant à la recherche des équivalents des narrations (chapitres 3.1. et 3.2.) dans la littérature basque ou dans d'autres littératures, on ne les a mentionnées que quand le fait nous a paru évident pour nous, et on a donné la références des récits. Parmi les compilations assez semblables et anciennes nous avons trouvé une grand groupe de récits proches dans la collecte

2005ean, W. Websterrek bildutako ipuinen beste eskuizkribu bat iritsi zen Baionako Liburutegira, Vinsonek egina. Eskuizkribu horretan euskaraz argitaratu gabeko hiru irri kontakizun daude, beste bi ipuin miresgarrirekin batera. Irri kontakizun horiek ere aztertuta (3.2.2. kapitulua), aurretik aipatutako egitura mota berdina jarraitzen dutela ondorioztatu dugu.

Websterren bilduman "gai berdeko" (gordineko) kontakizun horiek beste mota batzuetakoekin tartekatu zirela ikusi dugu: ipuin miresgarriak (*Errege eta bere hiru semeak*, *Abenan*...), haur ipuinak, animaliak protagonista dituzten kontakizunak (*Otsoa eta astoa*…). Tartekatze hori ohikoa izan da beste bilduma askotan ere: Aintzinatetik hasita, hor ditugu, Esoporen alegiak K.a. VII. mendean, *Panchatantra* K.o. V edo VI. mendekoa; edo latinez idatzia eta Erdi Aroan zabalpen handia lortu zuen *Disciplina Clericalis* exemplu bilduma. Frantziako fabliaux-en bildumetan ere, baditugu senar-emazteen arteko engainu ipuinak.

Irri kontakizun horiekin batera, jaso ditugu ipuin miresgarri, leienda, fabula eta bertsozko kontakizun batzuk ere. Horietako asko orain arte bildutakoen bertsio berriak dira, eta batzuetan gure de l'humaniste Poggio Bracciolini. Mais cette question est sans doute à approfondir.

En 2005, un nouveau manuscrit de contes recueillis par W. Webster est arrivé à la Bibliothèque de Bayonne, rédigé par Vinson. Dans ce manuscrit, on peut trouver trois narrations comiques inédites en langue basque, et deux autres contes merveilleux. Quand on examine ces narrations comiques (chapitre 3.2.2.), on peut en conclure qu'elles suivent un même modèle, celui indiqué ci-dessus.

Nous montrons que dans la collecte du Webster ces histoires « vertes» (grivoises) étaient mêlées à d'autres : des contes merveilleux (*Le roi et ses trois enfants*, *Abenan*…), des narrations pour les enfants, celles qui ont des animaux comme protagonistes (*Le loup et le baudet*). Ce mélange est typique aussi dans beaucoup d'autres collections : depuis l'Antiquité, on peut mentionner les fables d'Ésope au VIIème avant Jésus-Christ, ou *Panchatantra* du Vème ou VIème siècles après Jésus-Christ; ou la collection d'exempla *Disciplina Clericalis*, écrite en latin et qui a eu une grande diffusion au Moyen Age. Dans les collections des fabliaux français on peut aussi trouver des narrations sur les maris bernés.

corpusera ekarritako kontakizunen artean aldaera berriren bat ere badago. Tesi honetan, kontakizun horiek beste bilduma batzuetan dituzten zenbait baliokide adierazi dira eta baita corpusaren barruan kontalari batek baino gehiagok kontakizun baten bertsio desberdinak eman dituenean ere, halaxe adierazi dugu.

Gure corpuseko irri kontakizunetako hizkuntza ere (5.1.11. kapitulua) aztergai aberatsa izan daiteke, kontalari horien hizkeraren aberastasuna maite dutenentzat. Esapide jatorrak aurki ditzakegu horietan, kontuan izanik beren hizkuntzaren jabe direnez, huts egiteko beldurrik gabe hitz egiten duten pertsonen ahotatik jasoak direla. Gaur egun erabiltzen diren eguneroko esapide arruntez gain, adibidez, Ramon Etxezarretak sexu gaiko hitzekin egindako *Hiztegi Erotikoan* (1983) ez datozen zenbait esapide ere aurki ditzakegu gure corpuseko kontakizunetan. Hitz eta esapide horietako batzuk eranskinen atalean sartu dugun sailkapen taulan jasota datoz: "kitxin katxaketan aritu", "neska batekin borrokan aritu"…

Umorea eguneroko bizitzako elkarrizketa eta diskurtsoetan ez ezik, literatura adierazpen gehienetan aurki

Outre ces narrations comiques, nous avons aussi recueilli des contes merveilleux, des légendes, des fables et quelques narrations versifiées. Beaucoup de ces textes sont de nouvelles versions d'autres récits qui ont été déjà recueillis, et quelque fois les récits que nous fournissons constituent de nouvelles variantes. Nous avons identifié quelques unes de ces variantes connues dans d'autres collections, mais aussi à l'intérieur même de notre corpus quand plus d'un conteur nous ont offert différentes versions de la même narration.

La langue de notre corpus (5.1.11. kapitulua) peut aussi être un objet d'étude riche, destiné à ceux qui sont intéressés par la richesse de la langue de ces conteurs. On peut trouver des expressions et éléments phraséologiques authentiques, étant donné qu'ils ont été recueillis de la bouche de personnes qui ont un sens remarquable de la langue dans laquelle ils parlent sans hésitation ni insécurité. Outre ces expressions communes faisant partie de la phraséologie commune à ce jour, on peut y trouver quelques mots où expressions que n'apparaissent pas par exemple dans le dictionnaire érotique (1983) que Ramon Etxezarreta a rédigé autour des mots du sexe. Quelques uns de ces mots sont recueillis dans les résumés fournis dans la table de classification : "kitxin katxaketan

dezakegu. Beharbada, horren mekanismo arrunta delako ez diogu gehiegi erreparatzen, edo, beharbada, diskurtso horri dagokionez, helburu gorenagoak ditugulako, ez diogu behar besteko garrantzirik ematen umorearen adierazpenari. Esan dezakegu, hizkuntzaren dohaina duten pertsonak ahoz nahiz idatziz umorearekin jolasteko gaitasuna dutela, hizkuntzari bizitasuna, gatza eta piperra ematen baitakite. Zenbaitetan "zuzenegiak" diren euskarazko diskurtsoetan, irria adierazteko baliabide horiek daukaten garrantziaz ohartzeko balio dezake ikerketa honek.

Tesi honetan egindako lana herri literatura gogoko dutenentzat ekarpen aberasgarria da. Corpusa eskainiz, testu berriak eta gai berriak ere gehitu baitira herri literaturaren baratzera. Ikerketaren zergatiaz edo justifikazioaz hitz egin dugunean (2.10. kapitulua) aipatu ditugu Ana Toledok Txomin Agirreren elaberrigintzari buruzko bere tesian (1989: 208) elaberrigintzaren ikuskera unidimentsionalaz idatzi zuela. Irri kontakizunak ere aipatzen ditu, baina denak mundu ikuskera berdinaren adierazle direla dio eta didaktizismoan erortzen direla. Hala ere, "ahozko" eta "idatzizko" bi tradizio daudela onartzen aritu", "neska batekin borrokan aritu"…

On peut trouver l'humour présent non seulement dans les conversations ou les discours quotidiens, mais dans une grande partie de l'expression littéraire. Comme il est un mécanisme très commun, on ne lui prête pas une grande attention, ou peut-être, comme nous assignons des objectifs supérieurs pour ce type de discours, on ne lui donne pas l'importance suffisante. On peut dire que ceux qui ont le don de la langue sont capables de jouer avec l'humour, tant oralement que par écrit, car ils savent exprimer toute la vivacité de la langue. Notre étude peut servir à nous rendre compte de l'importance qu'ont ces moyens dans le discours en langue basque souvent trop "correct".

L'apport de cette thèse se veut enrichissant pour ceux qui aiment la littérature orale, étant donné que les nouveaux textes et les nouveaux sujets s'ajoutent ici à ceux qui sont connus dans notre littérature orale. Quand nous avons abordé la raison d'être ou la justification de l'investigation menée (chapitre 2.10), nous avons mentionné ce qu'Ana Toledo (1989: 208) a écrit sur la vision du monde unidimensionnelle dans son thèse sur les romans de l'écrivain Txomin Agirre. Elle mentionne aussi les narrations comiques,

du.

Zuzendaria: Doktoregaia:

Donostian, 2015eko abuztuaren 31n

AURKIBIDEA

Sarrera 289
ERREALISTAK 291
APEZEI BURUZKOAK 291
1. E2-03 HAURRA KATEXIMA IKASTEN 291
2. E4-02 KONFESIOA 292
3. E4-03 APHEZ TRONPATÜA 294
4. E4-13 HIRU APHEZ 296
5. E4-17 XALGIA MENTS 297
6. E6-03 KATEXIMA GALDETZEN 300
7. E6-04 KHIA DEN LEKHIAN SÜIA BADA 301
8. E8-02 EMAZTEA ETA MAITALEA 301
9. E8-03 BOTOILA 302
10. E8-16 ERREKA 303
11. E8-19 APEZPIKUA ETA APEZA 304
12. E8-20 APEZA ETA HARRIA 308
13. E9-05 URDIA 309
14. E12-02 KADABREAK 309
15. E12-03 AITEN OFIZIOA 310
16. E12-08 APHEZ IZAN NAHI 311
17. E13-08 BOST MILA OGI 312
18. E22-16 KONFESIO IXTORIOA 313
19. E15-10 LANTZERRA URDINARBEN 315
20. E15-11 KANPHUN EZARRI NAHI 315
21. E15-12 KANPHUN EZARRI 316
22. E16-01 XOXUAK 316
23. E16-03 ASTO HILA 319
24. E16-08 ERTZO NINDÜKEZÜ 319
25. E17−02 AHANAK 320
26. E17−06 EGITEKOAREN KONFESIOA 321
27. E19-05 MUTIL GEZURTIA 321
28. E19-06 URDIA ZURIA 322
29. E20-01 KIRISTINA 322
30. E21-08 KONFESIOA 323
31. E22-11 OILO EBASLEA 325
32. E27-08 APEZAK HITZA JAN 325
33. E28-13 APEZA ETA MANUAK 326
34. E31-04 BI GELARIEN ARTEAN 50 URTE 327
35. E28-16 ARTZAINA ETA APEZPIKUA 327
36. E28-19 KRISTOREN GORPUTZA 328
37. E29-01 GARTAK 328
38. E29-09 BAHEA BUXATUA 330
39. E29-10 KONFESIORAKO GARAIA 332
40. E34-01 ERBIA BERA BAKARRIK 333

41. E37-04 ZE DOMAIA! 334
42. E38-04 GAINIAN ALA PIAN 335
43. E41-01 APEZA ITZALIAN 336
44. E43-01 LIBERA ETA SAN PIERRE 336
45. E16-39 PASTETXAK 337
46. E16-40 ZALDI BAT 337
47. E16-42 LAU GAIZA 338
ERGEL-ARGIEI BURUZKOAK 339
48. E1-02 SOSDUN TRONPATUA 339
49. E1-04 ZORDUN ABILA 341
50. E1-07 ELGAR 342
51. E29-07 ASTOAK EZIN ELKAR IKUSI AHAL 344
52. E10-01 ASTO GAINERA 345
53. E12-01 BI BEIZIK EZ 345
54. E12-05 BERTZA 347
55. E13-11 OLHAN TXAKURREN IXTORIAK 349
56. E13-12 ORAINO EDATEN 349
57. E13-13 KAKOILA AZTALIAN 350
58. E15-03 MANDOA ETA PATARRA 351
59. E15-08 MERKHATÜ IXTORIOA 351
60. E17-03 MÜTHIL JOAN 352
61. E21-07 ALEGIA 352
62. E22-04 NAGUSIA ETA ERBIA 353
63. E22-20 EIHERAZAINA ETA PREFETA 354
64. E25-07 MUTIL IXTORIOA 355
65. E27-05 ASTOARI XISTUKA 355
66. E27-11 ARDI KUTZU 356
67. E29-17 BERUAN AZKAR 357
68. E39-02 ASTO BAT 358
69. E40-05 EZ BIEI BATEAN 359
70. E45-12 ABILA ETA TONTOA 360
71. E16-37 ERTZOA 361
72. E22-08 ARGENTINAKO ESNE-SALTZAILE BATEN IXTORIOA 362
GORDINAK: SEXUA AIPAGAI DUTENAK 365
73. E2-01 EGUN ON 365
74. E2-02 APEZAREN FROGA 367
75. E2-04 ARTZAINA OSTATU BILA 368
76. E3-05 TAULA ERDIAN 369
77. E4-01 BEHIA JEIZTEN 371
78. E4-10 EZKONBERRIAREN JANA 371
79. E4-11 GIZON TRONPATIAK 372
80. E4-19 GORMANTA 373
81. E7-03 NESKA PUNTXELA BILA 374
82. E8-01 EMAZTEA ETA APEZA 375
83. E8-07 APEZAREN AGINDUA 375
84. E8-12 GORA ETA BEHERA 376

85. E8-13 JESUISTA GARIZUMAN 378
86. E8-14 SAN ANTONIORI ESKERRAK 378
87. E8-22 EMAZTEA JUJE AURREAN 379
88. E9-06 APEZA TA XITOAK 380
89. E10-03 BI BUZTAN 381
90. E11-02 XOXUA 382
91. E11-04 GEREZIAK 383
92. E11-06 BEHI SUSARA 384
93. E11-07 EMAZTE PHÜNTXELA 385
94. E11-08 PUNIZIONEA 386
95. E11-09 PISTOLETA MOZTÜ 386
96. E11-10 ASTOAREN BAZTARRA 387
97. E14-04 PANTALUAK 388
98. E17-04 MÜTHILA ETA NESKATUA 390
99. E18-02 OSABA APHEZA 391
100. E18-03 APHEZ BAT OSATÜ 391
101. E19-02 A ZER NESKATO POLLITAK 392
102. E19-03 APEZAK IXTARRA HUNKI 393
103. E19-04 MANDOZAI BAT LANDESETA 393
104. E41-04 GASNA 394
105. E21-03 EMAZTEAK SEI HAUR 395
106. E25-04 XAKUR USNARIA 396
107. E25-08 AGUR, MARIA, GRAZIAZ, BETIA 396
108. E27-09 ASTOAREN UZKERRA 400
109. E37-01 JAINKOA ETA BULANJERRA 400
110. E38-01 DENAK BARKATZEN 401
111. E16-41 GAINEKOAK 402
112. E38-03 ASE ETA HILA 402
113. E41-02 LUR SAGARRAK 403
GORDINAK: ESKATOLOGIKOAK 405
114. E3-07 AMETSAK 405
115. E4-08 DIAGNOSTIKOA 405
116. E4-09 EZKONBERRIA 407
117. E4-18 APHEZKÜPIARI GOMITA 408
118. E6-05 GALTZOINAK PANTALOIPEAN 410
119. E7-01 PUTZAREN BARKAMENDUA 412
120. E8-04 XAGUAK ELIZAN 414
121. E8-21 HIRU NESKATO GAZTE 415
122. E22-02 SUKRIA 416
123. E40-04 ZEZENAREN IXTORIOA 417
GEZURREI BURUZKOAK 419
124. E11-12 IHIZTARIA AHOHANDI 419
AKATS FISIKOEI BURUZKOAK 421
125. E1-06 GORRA ETA MEDIKUA 421
126. E10-02 GORRA 422
127. E11-03 AXKARREN IXTORIOA: HIRE ANAIA BEZALA 422

128. E14-03 TUÑUTA ETA BEGI BAKOTXA 423
129. E15-07 BÜZTANA 423
130. E22-14 BIMIELEN IXTORIOA 424
131. E42-04 ALABA MOTELAK 424
EMAZTEEKIN, EZKON BIZITZAREKIN LOTUTAKOAK 427
132. E8-10 OHAZPIKOA SATORRAK UZKAILIA 427
133. E8-11 ARRAUTZAK 427
134. E8-15 HAURRIK EZIN UKAN 429
135. E10-07 MEDIKUAREN FROGA 431
136. E12-07 BER DENTIA 433
137. E13-04 INTSINERAZIOA 434
138. E14-05 KAKOILAK 435
139. E14-06 AHOZ BEHERA 437
140. E21-10 OSTATIA IZAN BAZEN 437
141. E25-03 GASNAK MUTUTU 439
142. E27-06 DOMIXINE 440
143. E28-11 AMUARRAINAK ETA EZKONTZA 441
144. E29-06 ASTOA ETA EMAZTEAK 442
145. E29-19 MUSEAN 443
146. E36-03 XEKA 444
147. E30-02 GARRUZEKO MARGARITA 444
148. E4-06 HAUR BELTZA 447
ERLIJOAREKIN LOTUTAKOAK 449
149. E1-01 JONDONI PETRI ETA JESUKRISTO 449
150. E23-05 JESUKRISTO ETA JONDONI JÜANE BER OHIN 451
151. E25-01 JESUKRISTO, JONDONI PETRI ETA MANDOZAINAK 452
152. E28-24 ESKEKO SOSA 453
153. E29-11 HILA ALA BIZIA? 454
154. E16-38 JINKUA SO 456
155. E45-09 ZURUBI EGITEN 456
156. E27-01 JESUKRISTO EDO JUDU HERRATIA 457
ANIMALIA ETA LANDAREEI BURUZKOAK 459
157. E14-09 HARTZA, OTSÜA ETA AXERIA 459
158. E20-03 OTSUA ETA AXERIA 460
159. E29-04 GATUA ETA ERBIA 461
160. E45-10 ERREKALDEKO ZAKUR ZAHARRAREN IXTORIOA 463
161. E45-11 AZERIA ETA ETXEKANDERIA 463
162. E16-43 HAIZEAK APHALDÜ 464
163. E22-15 ARDIA TA AHUNTZA 464
LEIENDAK 465
LAMINEI BURUZKOAK 465
164. E9-03 LAMINAK ETA KUKURRUKUA 465
165. E20-07 LAMINAK 467
166. E20-08 LAMINAK ETA URREZKO ORRAZEA 467
167. E20-09 LAMINA HAUR MINETAN 470
168. E33-01 LAMINAK GAMERE-ZIHIGAN 471

169. E28-09 LAMINA IXTORIOA 472
HERENSUGEARI BURUZKOAK 475
170. E5-04 HERENTSÜGIA 475
BASAJAUNARI BURUZKOAK 479
171. E6-02 BASAJAUN IXTORIOAK 479
172. E20-06 BASAJAUNA 480
173. E33-02 HAGINEKO MINA 481
SORGINEI BURUZKOAK 483
174. E9-01 SORGIN IXTORIO 483
DEABRUARI BURUZKOAK 485
175. E9-02 DEABRUAREN ITUNA 485
TARTAROARI BURUZKOAK 489
176. E20-10 TARTARUA ETA IHIZTARIA 489
HARTZARI BURUZKOAK 491
177. E26-01 ARBAILAKO AZKEN HARTZA 491
178. E26-02 HAMARGARREN HARTZA 491
ASKOTARIKOAK 493
179. E18-01 ZEINIAK 493
180. E32-03 BELTZUNTZEKO JAUNA 494
181. E1-05 SARAKO ZUBIA 494
182. E43-02 CHATEAUKO LEIENDA− ÜRRÜTIKO ANDERIA 494
183. E43-03 AHÜZKIKO ITURRIKO LEIENDA 495
184. E13-01 SOULE-KO LEHOIA 495
MITOAK 497
185. E13-10 ZENDAKO EZ DEN BERETTERRIK 497
IPUIN MIRESGARRIAK 499
186. E1-03 DEABRUAREN ADINA 499
187. E20-02 HAMALAU 501
188. E22-13 TARTAROA ETA APUSTUA 503
189. E45-01 TARTARUA ETA URDE ZAINAK 504
ARRAZOIN/ATERALDIAK 509
190. E3-01 ENE BURUAREKIN HIZKETAN 509
191. E3-02 ARDO SAKRATUA 509
192. E3-03 XALBADORREN GERTAKARIA 509
193. E3-04 BURUZ BEHERA 510
194. E4-04 AZKEN NAHIA 510
195. E4-05 JAIO BERRIAREN NEGARRA 511
196. E4-07 GEZUR BAT 511
197. E4-12 BUHAMIAK 511
198. E4-14 MAKINONA 512
199. E8-17 IKASLEA BAKANTZETARA 512
200. E10-04 XALBADOR 514
201. E12-04 MANDÜA 514
202. E12-09 BIHOTZ ONAK 515
203. E12-10 SATORRAK 515
204. E12-11 ZAKURRAN GISAN 516

205. E13-02 BI MENTS (I) 516
206. E13-09 AXKAR ETA BIZIKLETA 518
207. E15-01 XORIA ETA ARRAUTZAK 518
208. E15-04 ETXEZAINA 518
209. E15-06 PHOIA ETA LOHITZÜNIA 519
210. E15-09 MAKINONA 519
211. E16-04 ORGAK KÜRRÜNKA 519
212. E19-01 APEZA MISIOETAN 520
213. E22-17 XALBADORREN IXTORIOA 520
214. E22-18 BOSTXO 521
215. E22-19 PERNANDO AMEZKETARRAREN IXTORIOA 521
216. E29-15 AIREA BEHAR 522
217. E30-03 ARNOA PIZU 523
218. E30-04 URDEA HILTZEN 523
219. E30-05 KARAKOILA 524
220. E35-02 MOZKORRA ETA URDEA 524
221. E39-01 ARNOA FINITU 525
222. E40-06 DRITXOKA 526
223. E45-15 ERANTZUNAK ZAILAK 526
224. E45-16 GAUZA ON GUTTI 527
225. E45-18 HAMABOST KILO BELAR 527
226. E16-05 HAUR GAIXTOA 528

TXISTEAK 529

227. E3-11 GIZONAREN HORTZAK 529
228. E3-12 BISTA ONA 529
229. E7-02 MIRAILEN EGILEA 529
230. E8-08 BAZKARIA PARTEKATU 530
231. E10-06 SALBATU BALITZ BEDEREN 531
232. E10-08 NANOAK 531
233. E11-01 KONTZILIOA 532
234. E13-07 HAURRA NIGARREZ 533
235. E14-02 HAUR SORTÜ BERRIA 533
236. E14-07 OREN BAKOTXA 534
237. E16-02 GERLA 534
238. E16-06 PENTSAMENTUKAN 535
239. E16-07 MANIFIKATA 535
240. E16-09 BELHAR EBAKITZAILE 536
241. E16-10 HILIK NINTZALA 536
242. E16-11 AHAL DÜZÜNA 536
243. E16-12 BAKOTXA BONETAREKIN 536
244. E16-13 EZTIZU OGENIK 536
245. E16-14 GAIAK AHOLKU EKHARTEN 537
246. E16-15 DE GAULLE 537
247. E16-16 ZORTE TXARRA 537
248. E16-17 LEIHOAREN GIBELIAN 537
249. E16-18 EMAZTIA OSTATIETAN 537

250. E16-19 LIBÜRÜA KHIMBERAZ 538
251. E16-20 HAS ZITAIE NIGARREZ 538
252. E16-21 HAMAR MINUTAETARIK GIZON BAT 538
253. E16-22 ARSENIKA 538
254. E16-23 ARDÜA 538
255. E16-24 APHEZA 538
256. E16-25 GORRA 539
257. E16-26 BERRIAK 539
258. E16-27 MEMORIA GAL 539
259. E16-28 ARGIZAGIA 539
260. E16-29 BESÜA GALDU 540
261. E16-30 ZER EDATEN? 540
262. E16-31 BEGITRESNAK GALDÜ 540
263. E16-32 URDE ZANKOA 540
264. E16-33 EZ DÜZÜ BEO 540
265. E16-34 MÜSA BAT 540
266. E16-35 ORAIN NÜZÜ HELTZEN 541
267. E16-36 TEMBRE BAT 541
268. E21-01 ERRIENTAREN GALDEAK 541
269. E21-02 GORRIA ALA XURIA 541
270. E22-05 BORTA 542
271. E22-06 ALDUDARRA ETA EMAZTIA 542
272. E23-03 GIZON BIRAOTIA KONFESATZERA 543
273. E23-04 GEZURRIK ERRAITEN? 543
274. E25-05 HAUR MENDITARRA 543
275. E25-06 SEHIARI POTTA 544
276. E27-02 HAMAR URTE HERRITIK KANPO 544
277. E27-03 ILARRAK 545
278. E27-04 MANDO EDERRA 545
279. E28-01 INPERIOA ERORI 545
280. E28-02 BIZITZA ETA LANA 546
281. E28-03 HIRU SENAR HILAK 547
282. E28-04 BETERINERRA ERI 547
283. E28-05 HAURRAREN GALDERAK 548
284. E28-06 BEHIAK EGARRI 549
285. E28-07 GANIBETA 549
286. E28-08 ARTABURUAK 550
287. E28-10 BONETA BURIAN 550
288. E28-12 MEZA HASIA? 550
289. E28-14 ÉCHANTILLON 551
290. E28-15 CASTOR 551
291. E28-20 ESPANTUKA 552
292. E28-21 APEZPIKUA IRATZARRARAZTEN 552
293. E28-22 APEZAK ETA LATINA 553
294. E28-23 JESUSEN AITA 553
295. E28-25 SENARRA ARRANTZAN 554

296. E28-27 KATTALIN 554
297. E29-05 INTERNETA 555
298. E29-14 ARGIA HILIK 556
299. E30-01 BUHAMIAK ETA ARDOA 556
300. E30-06 ARRATOINAK 557
301. E30-07 EZ POLIT, BENA GOXO 558
302. E30-10 DASSANCE ETA BERRO 559
303. E31-01 BASO ZIKINA 559
304. E32-01 PAZIENTZIA 560
305. E32-07 DENAK JAKIN 561
306. E36-01 MUSULMANA 561
307. E36-02 SINATZEN JAKIN EZ 562
308. E38-02 SAKRAMENDU PIZIAK 564
309. E38-06 TRIBUNALEAN 564
310. E40-02 EZ OROITU 564
311. E40-08 GEZURRA 565
312. E45-13 IXPIXUA 566
313. E45-14 FERNANDO 566
TXISTE GORDINAK 567
314. E3-06 ERLOJUAK HITZ EGIN 567
315. E3-08 EZIN ESERI 567
316. E3-09 HAUR UKAITEN 568
317. E3-10 HIRU EMAZTE PUTIAK 568
318. E4-15 EMAZTEEN ARTEKO KONTUAK 569
319. E4-16 BATE ARI ZIZTE? 569
320. E8-09 PIXAMA HORIA 570
321. E11-11 SUPOSITORA 570
322. E13-05 FRONDA 571
323. E14-01 MAGASIAN SAR 572
324. E21-06 KULOTAK 572
325. E27-07 GEZURRA ERRAN 574
326. E27-10 MUTILA ETA ETXEKO ALABA 574
327. E28-17 LAUGARREN ADINA 575
328. E28-18 ELKORRA 575
329. E29-18 ITZALIAN ARITU 576
330. E32-02 MEDIKUAK SUPOSITORRAK EMAN 576
331. E32-04 BEGI BAT BEDEREN 578
332. E37-03 SERORAREN BAINUA 578
333. E38-07 BIZIKLETA PONPA 579
334. E40-03 HAUTA ZAK 580
335. E46-01 ALIANTZAK 582
BESTELAKOAK 583
HAURRAK LOTSARAZTEKOAK 583
336. E5-01 AMAK HAURRA SORTU DIN 583
337. E5-02 BEHIN BAZEN MÜNTZERAT 583
338. E5-03 BAR, BAU 583

HAURREN JOSTAKETARAKO 585
339. E29-03 KUKURRUKU 585
340. E45-06 ERI KIKILA 587
341. E45-07 ERIEN ZEREGINA 587
342. E45-02 ZAPATA JOSTEN 587
343. E45-03 ARRE ARRE MANDAKO 587
344. E45-04 EMAN EZ EMAN 588
345. E45-08 GATU MIARRAU 588
BERTSOAK ETA KANTAK 589
346. E7-04 SORLEKUA DUT ESKUAL HERRIA 589
347. E8-06 URGULUAREN ARBOLA 591
348. E22-09 PELLO IKAZKINA 595
349. E22-10 IÑAKI, MARIA TEREXA ETA TRANSISTORRA 597
350. E29-02 ARTOXURITZETAKO KANTA 598
351. E40-01 ARTOXURITZETAKO KANTUA 598
ERANSKINAK 601
SAILKAPEN TAULA 603
WEBSTERREN TESTUAK 673
ADRIEN IRATZOKIK EMANDAKOAK……..……..699
JAKI BARCOSEK EMANDAKOAK……..……..703
LOS CALZONES DE SAN FRANCISCO.....715

Sarrera

Corpus honetan 1etik 351 arteko zenbaki batekin adierazita datoz kontakizunak. Kontakizun horietako bakoitzaren barruan, kontakizun beraren aldaera edo bariante bat baino gehiago aurkitu badugu, halaxe adierazi dugu. Aldaera horietako bakoitzak erreferentzia bat darama letra eta zenbaki batez osatua eta marra batekin berezita, bigarren zenbaki bat dator (Adib: E4-08). Lehen zenbaki horrek kontalaria zein den adierazten du, eta eranskinetan gehitu den "Sailkapen taulan" zein I. liburukiko Metodologiaren atalean (4.5.1. Populazioa eta lagina) ikus daiteke zein kontalariri dagokion eta zein eremutakoa den. Bigarren zenbakiak, berriz, kontalari horren zenbagarren kontakizuna den erakusten du.

Bigarren liburuki honen amaieran “Sailkapen taula” deitu duguna erantsi dugu. Bertan, kontakizun bakoitzaren zenbakiaren ondoren, izenburua, kontakizunaren gaiaren laburpena, eta kontakizun horiei egindako oharrak ikus daitezke. Taula hori baliagarria izan daiteke corpusean bilaketa azkar bat egiteko, edo kontakizun baten ideia nagusia ateratzeko. Laburpena egiteko orduan, gure hitzak erabili ditugu zenbaitetan. Baina kontakizunaren laburtasunagatik, mamia galtzen zuela iruditu bazait (txisteren baten kasuan, adibidez) osorik kopiatu dugu.

Corpusa erredaktatzean, grabaketetatik ateratako materialaren islada ahalik eta fidelena egiten saiatu gara. Hala ere, hau da edizio kritiko bat eta tesi honen azken helburua gure corpusa literatur alderdietatik aztertzea izan da. Corpusean jasotakoaz argibide gehiago nahi duenak, grabaketetara jo dezake. Kasuren batean hitzen bat transkribatzeko arazoak izan baditugu, edo ulertu ez badugu halaxe adierazi dugu testuan bertan.

Kontakizunen aberastasunaz eta horietako askoren umoreaz gozatzeko aukera hutsa pizgarria izan daiteke corpus honetako materialean barneratzeko.

ERREALISTAK

APEZEI BURUZKOAK

1

E2-03 HAURRA KATEXIMA IKASTEN

Mutiko gaizoa zan, prestuxkoa, ta apezak erran zakon. Dotrina, Katixima zen ikasten, otoitzek.

−Errak, behar deu ikasi beste aldiko, mundu hontan zer diren hiru ero, ez, hiru zozo.

Ta bertze gizon batek:

Ta −Zer dio apezak?

−Mundu hontan jakiteko zer diren hiru zozo.

−Ta bon, bon. Nik eakutsiko dizkit ba.

−Ba, hara lehenik, belia, ahuntza, ta gero hirugarrena, apeza.

Ta ikasia mutiko hura, apezakin da ta.

−Ikasituk ba zer dien, mottel, ikasituk ba zer dien hiru eroak, hiru zozoak?

−Bai.

−Ta, bon, errazkik zein dien.

-Ahuntza.

−Zendako? −apezak.

−Belaien[1] bazka ederra, ta sasiri eiten beti, ta lapar-ostoa jaten dia[2].

-A, bai, egia euk!

−Bigarrena?

−Belea.

-Ahahah! Zendako?

[1] Orotarikoan "belagai": Dehesa, pastizal. "Dehesa cerrada o femeral, *belagaia*"
[2] Belardian bazka ederra egonik, sasitara joaten dela, alegia.

−Ardi batek ilea erakusten duelaik, karrankaka hasten duk, putriak, saiak kargarazteko nondik behera ein bear duen[3].

−Ta ia, egia euk!

−Ta hirugarrena?

−Apeza −mutikoak.

−Ta zendako?

−Norbait hiltzen delaik, jendea nigarrez, ta apeza orroz kantuz.

2

E4-02 KONFESIOA

Sohütako aphezak kofesatzen zian neskenegün güziez. Eta emaztiak erraiten dü:

−Uh…senarra tronpatü düt behin.

Besteak bitan, besteak hirütan, ta gero azkenian aphéz txarrak:

−Ez dit haboro nahi entzün holakorik. Erranen düzie: "Izan naiz hurkan[4] eta ithürri ondüan ioi[5] niz".

Eta hola pasatzen da denbo(r)a eta egün batez, apheza ez hor, aphez gazte bat zen kofesatzen, eta emaztearekin jite(n) da. Eta hoo…

−Aste hüntan behin egona naiz ithürrian.

Eta bestea berritan, eta bestea hiruetan.

Kofesatzia finitü ondüan, badüa tabernarat eta herriko mera han zen eta ordün aphez gazteak erraiten dü:

−Oh, zü, Jaun mera, beharko düzü ithürri horretan zerbeit egin. Asko emazte iorten da. Eta bestiak ezautzen baitzüen istoria, erriz hasten da, erriz eta erriz:

−Zer düzü erri eiteko? Etzazüla erri e(g)in, Jaun mera. Zure emaztea hirü aldiz eori da joan den astean.

[3] Beleak ardia ikusten duenean, karrakaka hasi eta putreak ohartarazten dituela, lana egiten diela.
[4] Urketa
[5] erori

E8-05 KONFESIOA (II)

Beste aldi batez, herri batian erretora bazen, eta gero zera, beti nahi zituen oro hutsak ta oro zerak ta bon. Ta baziren neska gaztiak eta zer er(ra)teagatik ez, ta andriak. Batzuk besten gizonekin ibilki. Ta geo ibilki ta gero, kofesatzen zuten, ta apezak erraiten die:

−Eztut nahi aditu nahi gehio hola edo hola. Aski duzue erraitea iturrietan lerratu zaiztela.

Ta iturriak baitzien, herri guziko emaztiak heldu zien boketa egiterat ta

−Iturrietan lerratu zaiztela.

Ta geo aldi bat, edo biga edo hiruetan ta egin bezala ta hola. Biziki errextuaz beaz. Eta,

−Aita iturrian lerratu naiz aldi bat, edo lerratu naiz bietan edo hirutan.

Bainan apezak e(ho)orik e(r)e[6] aldatzen baitira, eta beraz apez hura izendatzen dute beste norapait eta beraz, ari zan bere baitan: "Hemengo ordainari behar dakot erran ba hemengo kofesatzeko moldia ta zea ta behar diat esplikatu ta hola".

Ta beraz, hura okupatia da juaitian. Ta ez di(r)a bate gurutzatzen ta ez du denborarik izan bestiai errateko ta beraz hara gateko eguna ta mera han zen, auzapeza, alkatia, han zen, segitzen ta erten dako:

−Zuri badut komisione bat gomendatzeko, ta otoi, faborez erranen duzu apez heldu denari ta.

−A bai, jaun erretora, ta zer zinin?

−Ta esplikatzen dako, hola ta hola da, eta hola iten da. Ta otoi errakozu.

−Ta bai, bai, bai.

Ta apezan kanbioa beaz buruilan da ta beaz Omia saindutako[7] heldu dira beaz emazteak kofesatzeat eta kofesatzen ta bigarren edo hirugarren emaztiak eta:

−Aita lerratu niz iturrietan.

Ta apeza harritia. −To! Ez erranki, kofesatzen usatia ditik hemen andriak!

[6] Edonorik ere: edozein tokitara
[7] Santu guztien egunerako

Ta beste batek fitsik. Ta beste batek:

−Aita lerratu niz bietan. Eta, uuuu. Bena hori eztuk eta parropian in, hori herrian in duk iturrietako zera. Ta sekula batek azpia hausten badu edo zera iten bada, ez tiat nahi nik parropian in hori ta mera abertitu behar diat, auzapezai hau behar dela laztu zola hori, ez lerratzeko. Ta beste batek hiruetan. Ta beste batek animale bat.

Biharamunean harrapatzen du mera ta erten dako:

−Aizu mera, bada problema bat herri huntan. Iturri hoitan zola leunegi da. Asko ta asko andre lerratzen da hor. Eta badakizu iturriak herrian eginik daudela ta ez dut nahi nik zerbait gertatzen bada parropian (e)gin da(d)in.

−Ta ez zaitela kexa jaun erretora! Ez dute horko lerrakoetaik min hartuko, ez ta zaurituko hor andreik.

−Bai, aise ai zara zu ta zea, bainan badia bizpahiru alditan iten dinak.

−Ez zazula, lasai, ez zazula horri kasu in, hori ez da, ez dute min hartuko, ez dute min hartuko.

−Jaun erretora aise mintzo za zu, besten etxean gertatzen deno, baina badakizu zure andrea re, bietan lerratua dela hor.

3

E4-03 APHEZ TRONPATÜA

Nik badüt ixtorio bat. Herriko gizon batek, aphezarekilan khexü zen, samurtia, beste lagun batekin zen eta harek iten dü ba.

−Hi ez üntsa aphezarekilan, ehiz[8] prest harekilan bazkaiteko.

−Zer?

−Daigün igandean ni aphezarekin bazkaitea nük. Haugi!

−Bai, aire!

Ta atzamaiten dü goiz mezan apheza, ta erraiten deio:

−Jaun apheza, eztüt ikhusi.

−Ta zer düzü?

[8] Ez haiz

−Badit Ameriketatik lazgarriko dotia ükhana! Bena eztakit nola eman aphezer. Eztakit zoin moldetan eman.

−Ziauri bazkaiteat, gero ikhüsiko dügü!

Ordian, joan zan bazkaiteat aphezaren etxeat lagünarekin. Déjà apairüa bazian eta apairüa finitu ondoan erraiten deio:

−Zertan dügü gure afera, apheza?

−Ah, ez dakit hantxe niz pentsamendukan nolaz behar düzün sos hori eman.

Eta gizonak erraiten dü. Ah ta meza txikia, ixila zonbat düzü?

−Berrogoita bost libera, kantatia.

−Eta mezperak zonbat tützü?

−Ah, mezperak kittoik dia, mezperak kittoik dia.

−Bon, aski düzü ene ontarzüna oro mezperan emaitia.

(Denetan benefiziotan zen, lagünarekilan irabazi aphairüa eta apheza tronpatüa).

E10-05 APEZ TRONPATUA (II)

Bi aizok etzuten elgar ikusten ahal, ta baño hil zen malerusa ta geo enterramendu egunian denek meza[9] emaiten. Ta hua ere. Ta emazteak errana zakon:

−Hik e meza emain duk eh! Ehian gogoan gizon hori, bena meza emain duk!

−Ta baietz, baietz, emain dudala nik e meza.

Ta geo han apezari:

−Meza zombatetan da?

−Meza, bost mila libea, erran zakon ordian.

−Bon, ta mezperak zenbatetan tuk?

−Mezperak beti urririk ematen tiau.

−Emaizkiok gaixo gizonai bi mezpea, meexi tiak! (Meza baten orde)

[9] Meza-saria esan nahi du?

E31-06 APEZ TRONPATUA (III)

Xiberuko mutiko bat eta bestia Itsasun, beste puntan hor beti elgarrekin, eta denborarekin xuberokoari enbeiatu xakoxun eta behar zuela jun haren ikustera. Juiten duxu Itsasurat eta baxakixun Borda ziala izena ta galdeiten dixi jaun erretorari:

−Hola banizun holako urtean aspaldi ba lagun hebengo bat eta

−Ah! Gaixua, juana da ba! Hila da!

Gaixua ordian eta

−Mezaño bat nikezu eman nahi, ta zombatetan duzie meza, ze balio dute?

Ta erten dakozu apezak:

−Honenbeste.

−Oitxu! Leheno bost libera xitxun, oin kariotu tia! Ta atsaldetan ematen den beste zeremonia hori zer da?

Etzun ene gisan elizan biziki.

−Hori bezperak dira, bezperak. Ta horiek zombat balio dute?

−Ah! Horiek urririk emaiten tugu.

−Jauna, biga hoitarik eman zautzazu.

4

E4-13 HIRU APHEZ

Ehortzeta batetan bazien hiru aphez, bata gaztia, bestia zaharxeago eta gero bestia net xaharra, ordin ehortzeta fini eta aphezak meza emaiten zian eta:

−Hau badügü!

Ta bestiak gibelian, diruantako:

−Beste bat balin bagünü!

Eta xaharrak gibelian tilinka-tilinka:

−Nihaürk ez behar baldin bagünü!

5

E4-17 XALGIA MENTS

Herriko adorazionian khartierreko aphezak oro jüntatzen zian, eta ürthe baten bürün, ohartürik zen apheza gelariarekin lo iten zela, ordin ezarri ziozün eta gorde xalgia aphez honi, eta gero kortian arrajin eta denak mahaian eta nehork xalgia[10] ez atzamaiten. [Urte batetik bestila gorde züan, eta gero kortian ez atzamaiten zoparen xalgia, eta apezaren ohian zen, urte hartan ohian izana, gelariarekin lo iten zen][11].

Eta ez atzamaiten:

−Nün da? Nün da? Eta ber apheza han zen.

−Ah! Nik badakit nün den!

−Bai! Bai!

−Atzeman zak ordüan!

Eta jüiten da, aphezan ohera jüiten eta xalgia bere lekün zen. Hartara, ai zien, gelariarekin lo iten zila, bere ohian baitzen.

11-05 XALGIA MENTS (II)

Lehen adorazionentako bi aphéz ber herrin biltzen zütüzün. Sohütako apheza Bildozen züzün.

Eta kuberta ederra eskatuko zakizün to. Eta erraiten diozü:

−Putan khaxa[12] hoi! Zopa(r)en hartzeko khaxa!

Erran ziozün:

−Oh! Ene nexkatük oro nahi lizketzü, oro nahi. Beti horren nahiz eta oh!

Eta neskhatük entzün zizün hoi. Fini zien eta mezperetat joaiten tützü. Neskatük eiten titzü akhodiñak[13]. Err(a)ten dizü:

−Sohütako apheza ohoñ düzü.

[10] Xalgia: burruntzalia
[11] Lehenbizi labupena egiten du, eta gero kontatu.
[12] P. Lhande: canette, vase en forme de grande cuiller ronde.
[13] Etxeko lanak

−Ohoña?

−Bai, bai. Khaxa, maite zizün khaxa horrek.

−Ah bai?

−Khaxa ments düzü.

−Ez dük posible![14] Bon, xerkhatüko düzü ontsa sarri.

Ta orotan xerkha zizün, ta etzizün kaxa atzaman.

Ta erraiten diozü neskatuai:

−Nün düzü manu düzün paper hoi?

Erraten diozü:

−Gaxo Battita, ez diat erraiten khaxa hartü diala. Ez diat erraiten e, ez diala hartu. Bena Jinkhü hunak entzüten badü, ni han niz eta khaxa bestian dük.

−Emanen daizüt arrapostia −erraiten diozü.

−Gaxo Johañe, ez diat erraiten nexkatuakin lotzen hizala, bena ez diat erraiten e ez hizala lotzen harekin e. Bena barda hire ohin oheratü bahintzan, khaxa atzamain hin, han ezarri diat!

E25-02 XALGIA MENTS (III)

Bazen apeza, ta bazuen gelaria nexkato gazte bat. Arras gaztea zen, eta bazuen anaia etxean, eta anaiak etzuen laket, etzuen nahi hola bere arreba apezaren etxean egon zadin. Apezari erran zion, gelariak erran zion:

−Ene anaia ezta ados, eztu nahi hola zurekin bizi nadin.

−Oh! Bo! Ikusiko du, gomitatzen duzu apairu baten hartzeat gure etxeat. Apairu bat emanen diogu eta gomitatu zuen, eta mutikoa etorri zen afaita.

Ta jan zuten, ta musean mintzatu zen apeza, ixtorioak erran zazkion, anitz gauza erran zion. Ta mutikoa beti bera egon zen. Eta gero han etxetik joan zen mutikoa. Ta baxerak biltzeko gero, gelaria ohartu zen zilarrezko furtxetak, eta ganibetak eta denak falta.

[14] Bere buruari esaten dio? Gizonezko hika erabiltzen du.

−Eh! Ta nun dira? Ah! Segur naiz ene anaiak ebatsi dituela.

−Bon, uste duzu?

−Baietz, baietz.

−Zaude, zaude. Nik idatziko diot letraño bat. Gutun ttipi bat zure anaiari eta hola idatziko diot gutun ttipi bat.

Idatzi zion: "Barkatzen daizut, zuk egin duzuna, badakit eztuzula diru ainitz, eta menturaz salduko dituzu, edo diru pixka bat eginen duzu horrekin, baina barka nezaizu, salbu nahi baduzu gibelerat ekarri, diru pixinen bat emanen naizuke".

Eta bestiak igorri zion beste letra bat: "Zure ganibeta, eta furtxeta, eta kuilera zilarrezkoak, zure ohean lo egin bazindu, han kausituko zintuen. Estalipean kausituko dituzu, zure ohean dira".

E42-01 XALGIA MENTS (IV)

Herri batetako apezak gomitatu zien afaiteat herri auzoko apeza eta bistan dena, gelariak nahi zila untsa errezibitu, mahaia ezarri zin biziki poliki, argenteria guzia ateraik. Afaria finituta apeza joaiten da herri auzoko etxeat, eta bistan dena gelariak bere puska guziak bere lekutan ezartzen, untziak eta guzik eta bistan dena. Eta biharamon goizean err(a)ten dako apezari gelariak bistan dena:

−Eniz bate kontent, zure laguna hemen pasatuz geroz, zali zilarra falta (d)ut. Ez tut erten hark hartia diela, bena eztiat erten ez diela hartia ere. Bakizu hartia balin badu, inahala fite ekar dezan gi(b)ileat!

Apezak ikusten dielaik bere la(g)una.

−Errak, errak! Hi pasatuz geroz gure etxean gelaria eztiat bate kontent, zali zilarra falta (d)ik! Ez (d)it erten hik hartia duala, bena ez (d)it erten ez dukala hartu (e)re! Eta hartu balin baduk ekarrak fite gi(b)eleat!

Hak ze erraiten dako:

−Soizak. Nik ez diat erraiten hi gelariakin etzaten hintzala, bena hi ehizala etzaten e(re) ez. Barda hihauren oihian etzan bahiz, zali zilarra harrapatuko hian.

6

E6-03 KATEXIMA GALDETZEN

Kateхima zen aphezekila, lehenago. Behin baziren biga. Dena eskuaraz. Ikasten zinin jakin gabe zer erraiten zinin, ttipi zinelaik. Eta ordin kateхima heltü zen eta komunione behar zütela egin biek. Apezak erraiten dü:

−Bon, nola deitzen da Jinko hunaren ama?

Batek erraten du, neskatxa batek:

−Nik badakit jauna.

−Nik e badakit!

−Nola deitzen da hoi?

Batek erraiten dizü:

−Nik badakit, Ama Birjina.

−Bon, bon, bon, bai, bai, üntsa, üntsa.

Eta beste batek erraiten dü:

−Nüla deitzen da, Jesus salatü din apostolü hura? Nola deitzen da?

−Nola deitzen da? Ah bena, nik eztakit.

Müthiko batek erraiten dü:

−Nik badakit! Judas!

−Ah biba zü! Ziek katiхima ikasi düzie. Ziek komunionia aise eginen düzie.

Beste batek erraiten dü:

−Errak hi, Jakes, hik behar deitak erran, heben, nüiz hil da Jesükrist?

Batek erraiten dizü:

−Nik!

Jeikitzen da hola. Ah jauna, enekizün eri zenez ere.

7

E6-04 KHIA DEN LEKHIAN SÜIA BADA

Eta gero ez dakit ber aldian zenez, e(d)o. Denek erraiten zien:

−Hantxe baldin bada, nünbait Jinküa han da. Eta

−Hortxet e bai. Beti gütan da Jinküa.

−Bon, jauna hori ez ginakizün ez.

−Ah, bai, bai, bai, gütan dela Jesükrist.

−Eta urai badakikezüe, khia den lekhian, süia badela.

Eta jeikitzen da bat:

−Jauna, ez düzü hoi hala.

−Zentako erraiten dük hik? Zentako?

−Gure etxian bada goztapüa[15], eta khia bada, bena suik eztüt ikösten.

8

E8-02 EMAZTEA ETA MAITALEA

Beste batin joan zen eta Arnegin Jaun Erretora Arnegiko Erretora izan zen izigarriko apez zera, eta beti ororen arranjatzeko ari zen, eta denak hola gertatuak hola ziren, beinan esaten[16] zuen beti:

−Eskerrak Jaunari, ezpeitugu handiagoarik izan, izaiten ahal beitzen handiagoa!

Eta urte batian, beraz, gizon bat joan zen Pamplonako ferietaat, eta, eztakit, astiandako gaten baitzien oinez lehenago, eta arua txarra zagon, hala merkatu txarra zagon, hiru egunen buruko etorri zen gibeleat eta harrapatu zien bere auzua andriarekin. Eta koleran hartu, haserretu ta hartu zuen arma ta eho. Bon. Ta beraz, Arnegi guzia harritia, holakorik, ta holako aixkidiak ziren eta holakorik eta hala, zer ta hola. Beaz, ehortze euna pasten da, apezak eiten du predikia ta nahigabe izigarria eta hola, ta bo, baina oano Jainkuak eta handiagorik ez inik eta hola. Apez hura igande

[15] Gorotz meta: goroztapua
[16] Hegoaldeko forma erabiltzen du, gure hizkerara egokituz.

oroz, bezperetaik landa, beraz musian hartzen zen beste bizpahiru zerekilan, eta batek er(ra)ten du eta:

−Jo, gure erretor hori eztuk guti azkarra, auzo batek bestia eho, holakoik egundo ez duk izan Arnegin ta er(ra)teko aintzina handia(g)orik izaiten ahal zela ta hau zela ta hura zela.

Ta erretora etortzen da ta.

−Hor zarezte?

−Bai.

Ta batek erran, ta besteak eta ez mentuatzen. Ta ixtant baten kartetan ai zen eta er(ra)ten dako batek, eta:

−Zuk jauna azkarra egin duzu predikua ta, eh?

−Ba, ta, ze in dut?

−Ta erran hola, ta hola. Ta auzo batek bestia eho du, egundo holakoik ez da izan eta zuk beti bezala erran duzu: eta beharrik hein hortan gelditu da eta esker dezagun Jinkoa, handiagorik izaiten ahal zen. Erraiten ahal duzu zergatik?

−Aise handio izaiten ahal zen, aise.

Ta besteak:

−Zergatik eta beaz, bai?

−Sekulan bezperan etorri balitz, nere tourra izango zan.

9

E8-03 BOTOILA

Beste behin eta apezak eta eskia e(g)itian harrapatia zuen eta beti zombeit igande hortan holako botoila, botoila bat bazuen eskian, eta igande batez erraiten dio beretterrari:

−Beazak nok emaiten daien botoil hori?

−Ta bo, bo, untsa da.

Ta meza finituta, beaz eta errten dako beretterari:

−Botoila hor duk? Eta.

−Bai. Han da bai Jaun Erretora.

−Ta nok emana du? Ta holako ta holako emaztiak.

Ah bon, kolera gorritan jartzen da hua apeza, beti mezan ta beti emazte saindu bat zela ta. Ta ondoko igandian beaz lehenago baziren mahain saindiak ta mahain saindietan belaunikatzen zen ta ordian ez zen eskurat hartzen ostia, hartzen zen mihirat. Ta hartzen du kalitza, ta sartzen du botoila hortxe ta denek (mihia ateratzen dute) ta andriak ein zuelaik hartzen du botoila ta pausatzen dako. Ta andria hasten da [keinuak egiten irentsi ezin duela], ta. Ta erten dako:

−Ta ezin diot irets jauna!

−Nik ere ez! −apezak.

10

E8-16 ERREKA

Beste aldi bat, apez bat, hala hola deitzen dute eta etxe batetarat eta behar zi(ti)n sakramendiak ereman eta eri handi zela, azkarki euria eina zuen eta erreka bat pastu eta erreka goiti tira, goiti tira, ta goiti tira ta lotsa zagon han. Hainbestenarekin, hantik hunerat gizon bat astoarekin heldu da ta:

−Ze ai zia jaun erretora? Behar dauzu zerbitzu bat in. Ta asto hori pasten al da? Behar tut sakremendiak ereman gaineko etxe hartarat eta horren gainean joanen naiz.

Ta −Nik eztut astoa nehori prestatzen, ta nahi baduzu igan zite gi(b)ilian.

Ta beraz, gi(b)ilian ta urean ta astoa sartua barrena, bi halako karga gainean eta apeza izitzen da ta hasten da:

−Agur Maria, Graziaz betia, ta hola ta gero, Jaungoikoa Apostuluak salbatu zintin itotzetik ta salba gaitzatzu berriz, Agur Maria.

Eta asto jabeak erraiten dio:

−Jaun erretora, geldi otoitzetatik! Sekula astoa belaunikatzen bada, hiruak hiltzen gia! Itotzen gia!

11

E8-19 APEZPIKUA ETA APEZA

Herri batean hola konfirmazioneko, apezak biltzen, hangoak eta gero apezpikiak jakiñazi zun apez batek bazila, beste eskualde(r)a xuxun, ikaragarriko gelari-kozinersa. Ta er(ra)ten dako:

−Zu jaun erretora, zu, neskatoa kozinari gogorra daukazu?

−Ta, ba! Ta hala ta hola.

Gaur etorriko naiz zuen etxerat, ta hola bihar gateko hurbilago daukat.

−Baina jaun apezpikia, ta zera ta, bi kanbera ditugu. Neskatoak lo inen du, ta gu bi gizonak bagara ere, lo inen dugu elkarrekin.

Ta apezak ez errefusatu nahi apezpikiari.

−Bon, bon, ni joanen niz ta aski duzu gero jitea.

Ta baietz!

−Jo Maria Joxepa, jo Maria Joxepa, eztakizu zer agintzen zaukun –apeza afolatia[17] arribatzen etxera ta:

−Zer dauka erretora, zer dauka?

−Jaun apezpikia heldu zauku, ta hemen behar duela lo egin. Ta esan diot ba!

Ta ez zaitela haserretu, eginen dugu zerbeit, mihisek kanbiatuko ditut nik eta zera ta hola ta bon. Ta gero afaldu, izigarriko afaria egin. Ta Maria Joxepa jun xuxun oheat, eta apezpikua ta apeza biak, eta herriko gora-beherak ta denetaz ari izan. Ta gero berant joan. Ta apeza ta apezpikia, delako biak lo goizean. Eta bolangera pasatzen. Ta alimaleko tuta bat egiten du, alimaleko tuta. Ta apeza pup inez[18]:

−Maria Koxepa, Maria Koxepa, pañadero, pañadero!− Apezpikia sahetsean.

[17] Erotuta, bere onetik aterata
[18] Supituki altxata

E14-08 APEZPIKUA ETA APEZA (II)

Aphezküpia etorri zen eta gaian sartzeko berantegi ziozün eta jaun erretorak erran ziozün:

−Bena heben egoiten ahal zia gaur eta enekin lo eginen düzü, nik ez dit ohe bat baizik, enekin lo eginen düzü.

Gelarisak ordin aihãria üntsa prestatu ziozün eta gero üntsa jan ondün joan zütützün oherat, eta elkarrekin lo egiten zizün aphezkupiak eta aphezak.

Eta goizan entzuten dizü esnekaia jiten, esnekaia jiten. Eta iratzarri züzün eta:

−Maddi, Maddi, esnekaia hor düzü.

E20-05 APHEZKÜPIA ETA APHEZA (III)

Behin aphezküpia[19] jin zen herri xahar, ttipi batetan ta gaiaz geo denboa gaxtua jun, ez juiten ahal eta erran ziozün aphezai:

−Hemen egoiten ahal hiz. Ta ah, bai?

Ta lo egiteko denboan, aphezak erran ziozün:

−Jauna eztit ohe bat baizik.

−Ohe bat baizik? Eta neskatüak nun lo egiten dü?

−Oh! Juiten düzü etxeat, eztüzü hürrünko hoi.

Ordin biak, aphezküpia eta apheza lo ber ohin. Eta sei orenetan goizen. Tan! Tan! Tan! borta Tan! Tan! Tan!

Ta aphezak aphezküpiai:

−Jeiki zite Mari! Badüzü norbait!

E21-05 APEZPIKUA ETA APEZA (IV)

Bazen herri batean apez gazte bat, eta herritar bat joan zen apezpikiari erratera nola posiblez gelariarekin untsa zela apeza.

[19] Eveque, artzobispoa.

Ta apezpikia harritia, apeza untsa ezagutzen zian eta inposiblea zela! Ta aldi baten burian beste herritar bat abian da ta:

−Ba, apeza untsa zela gelariarekin!

−Ta hala uste duzu?

−Ta ba, ba, ba. Nik uste lo ere iten ere du harekin.

−Ah bon!

Ordian harritia ta ze iten du apezpikiak. Bere buria gomitarazten du apezaen etxeat, atsalde batez. Ta bon, aperitifa emaiten dako eta gero elekan ai baitzien, ta ahal badugu zila[20] hemen? −erraten dio apezak apezpikiari

−Ta ba berdin.

Nahi zian ikusi gelarian mugimendia. Nola pasatzen zen.

Egoiten dira ta beti eleka ta beti eleka. Ta berantzen ari baitzen, apezpikiak erraiten dako. Ez dakit, oain etxea joaiteko ere beranta du, ta beharba hemen lo in nezake?

−Ah! nauziena erretora, bena gure etxian ez dira bi ganbera beizik, bat enia eta bestia gelariarena. Nahi baduzu lo in nerekin, berdin.

−Ba, lo inen dugu elgarrekin.

Ta apezpikia iratzartzen da gauerditan ta apeza bere ondoan da. Ta goizaren gainean apezpikia iratzartia berriz, bakizu nahi zin mugimendia ikusi.

Ta apeza erdi lo oono. Ta bapatean oto bat heldu da.

−Tota,tota,tota...

Ta ordian entzuten du apezak lotaik. Ta besondoarekin ukaldika hasten zako apezpikiai:

−Marisa, Marisa bulanjerra.

[20] Atravesar, profundizar?

E32-06 APEZPIKUA ETA APEZA (V)

Leheno Garaziko zoko batean herri tipito batean, apezak fama gobernantarekin lo iten zukela. Gobernanta da sehia, janak eta iten dituena. Eta apezpikuak bazian moto bat, Terrota[21]. Eta denbora batez badoa Baionatik Doniane Garazirat, Saint Jean de Pied de Port eta delako herri hortat eta jaun erretorak errezibitzen du izigarri untsa. Ta eleketa, eleketa hartzen die, izigarri eleketa. Ta gero denbora abantzatzen da eta lainoa zen ta ortzia hasten da, galerna. Ta apezpikia ezin gibelat joan etxeat. Eta hasten die ortzi euria, ortzantzaka, hostoak eta denak erortzen.

−Orain holako aroakin ez zia inondik e joain ahal Baionat.

−Ez niz sobera fida, ez.

Jaun erretorak erraten dako apezpikiari:

−Ba lo inen duzu gure etxen.

Ta gero han egonki, egonki, egonki eleketa ta eleketa. ta afaiteko tenorian izan ziten eta gero ohiera joain ziela. Bena bi ganbera jaun erretorana ta gobernantana. Ta jaun erretorak erraiten zin jaun erretorak apezpikiakin lo itea, biak elgarrekilan.

Ta gero, bihamon goizean, bostak eta erdiak edo gobernantak joten du jaun erretoran atea:

−Tak, tak, tak, tak.

−Jaun erretora il faut se laver pour aller a la messe.

Eta bulta baten burian. Oto bat, po,po, po !! To bulanjera, esneketaria, hartzen zakoten baten pinta bat, bertzean bi pinta hartzen zakoten. Eta bulta baten burian eiten dako jaun erretorak apezpikuari. Ukondoka.

−Mari, Mari, c'est le laitier là!

[21] Izen berezi bat da, moto marka bat.

12

E8-20 APEZA ETA HARRIA

Aldi bat eta, herri baten apezari oilarra ebatsi xakoxien eta ikaragarriko koleran beraz, apeza. Orduan bolanjerra, ta fakturra ta hori ezpaitzen biderik, ta fakturrari:

−Zer berri da herrien?

−Oilarra ebatsi dako ta ikagarriko koleran.

−Ah, bon! Gaixo apeza, oilarra ebatsi.

−Igandean peredikua hortaik egin beharra dut ta nik uste erran beharra tut.

Igandian beraz, peredikua:

"Giristino maiteak, badakit denek jakina duziela oilarra eatsi datatela, bena oilarra eatsi dian hua eliza honen barnian da. Nik badut hemen harri benedikatu bat, ta harri benedikatu hau, itzulian in eta, igorrita joain da ene oilarra eatsi dinan kopetan gainerat, eta berdin hil gogorra eon litake. Haatik, denen aintzinean xutitu eta barkamendu galdegiten badu, barkatzen dakot eta atxikitzen ahalko du bere oilarra".

Ta gero iten du, hartzen du harria, mezetan ta iten du:

−Bat! oain xuti dadila. Eta nehor ez xutitu. Ta,

−Biga! Nehor ez xutitu.

Hirugarrenian ez bada nehor iten, bortxatia niz harria tiratzerat, eta hiru! Abiatzen da hola eta emaztea xutituik galerietatat.

−Manez apal ak buria, tiratuko ik horrek intsentsua eta!

Hak e nahi zila oano oilasko ebaslia salbatu.

E22-12 APEZA ETA HARRIA (II)

Apezak oiloak galdiak zitin ta pentsatzen zin nok eramanak zazkon ta betire jendeak han eraman zin mezan predikuko, predikatzeko lekura eraman zin harri bat. Ta hasi zen predikuan:

−Norbaitek oiloak ebatsi dauzkit ta badakit nor den.

Harria hartu ta

−Tiratuko dakot, tiratuko dakot.

Ta emazte batek beretikan.

−Cuidao Frantxisko!

13

E9-05 URDIA

Ezterenzubin kondatzen da han gertatia bezala. Serora zeiniaren jotzera joan eta entzuten ditu kaderak eta bru, bru, bru. Norbait edo zerbait, alimale bat bazela. Joaiten da apezaren ikustera. Han bazela debrukeria. Apeza heldu da betterrarekin. Eta apeza hasten da: "dominus…". Eta sekulako azantzak elizan. Eta ausartatzen da atearen irekitzera. Eta urde bat zen. Orduan urde hura argia ikustearekin atera zen kanporat. Bena apeza atean baitzen, apezaren sotanan kokatu zen. Errana zion: "−Erran amen, amen, amen!". Eta urdandegian sartzean apeza kaskoaz jo.

14

E12-02 KADABREAK

Hemen adorazionia elizan, baakizü ingürüotako lehen herri orotan baitzien aphezak, urte oroz hemen bazüzün adorazionea, herriko San Marti düzü herriko patrũa. Adorazionia egiten zützün beste herrietako apezak oro zütützün goizan bazkaita, mezalat eta geo joaiten apezak bazkalazten zütüzün üngurüetako apezak oro. Eta gero bazütützün üntsa, mahaian egoiten zütützün, elhasten zütützün errokan eta kurridoren bũtila hutsak errokatüik holaxe. Arrestitan mezperak beitzien, eta mezperetako tenoren momentün, apezküpia hẽltu, baitzekin egün hartan elizan adorazionia zela herri hortako besta zela, apezak oro han zien.

Batto entzun züzün:

−Uh! Apezküpia hor da. Ordian berala amiñi bat aferak xüxendü, desordre amiñi bat zen lekhin. Eta apezküpia sartzen da.

−Bai, bai, ziek egün üntsa zire. Ai die mezperetako orduak hüllantzen.

−Bai, bai, bai. Gei dizügü bai jun, zeren hemen etxe huntan uste düt traza franko arrunt dela.

−Zer die kadabre hoik oro? −botila huts hoiek errokan baitzien han −Zer die kadabre hoik oro?

Ordin herri hartako jaunak erraiten:

−Bai, bai, kadabre hoik orok aphéza ikusi dizie hiltzeko.

15

E12-03 AITEN OFIZIOA

Aphezak egiten zin pẽdikia eta ari zen pẽdikiaren egiten:

"Oaiko gazteek ez die egin behar ofizio berririk hartü, behar lüke gazteek junarazi[22] etxeküek jünazten zutien ofiziüak. Hortxe ikusten dütüt hortxe laborari gaztiak e aitan ondün gailia[23] bizkarrin jüiten jaztoralat[24], eta hartxek e badü herrin maiastüria Junaxek hegatz bizkarrian bere semiarekin ai zen atzo teilaren arraberritzen. Hüra behar da aintzina segitü, behar dü semek hartu aitaren ofiziüak eta ikasi aitaekilan. Eta gero aotza[25] e ikusi dut mütürra ferratzen atzo eta semia aztaparren atxekitzen, lanaren ikhasten. Ttipitik plegia hartü behar da eta behar da…" −ari zen peredikian egiten.

Peredikia egin zin eta meza ondün gizonak oro jüntatüik.

−Bena egün, egün, egün, egün aphezak zer zin, zentako perediku suerte[26] hori egin dü eta eztik Jainkoa paketik aipatu eta bai gure ofiziuk, eta drole dük.

Eta hainbestenarekin apeza sakristinatik elkitzen da eta jüiten gizonen eskien hunkitzera eta erraiten:

−Egün jauna behar deizut gaiza bat galtegin, egün egin düzün pedikian ez gütützü behatu, denbora zalhe joain zütützü, bena drolexka egin düzü prediku hoi. Eztüzü bate Jinkua aipatu, egin duzu ofiziuen gainen. Guk baganakitzü hoik.

[22] Eramanarazi, segitu.
[23] Gailua, tresna.
[24] Lastorat?
[25] Arotza, ferratzailea
[26] Mota

−Bai, bai, ofiziü hoi enetako gauzaik ederrena da, behar lüke segitu eta behar lüke beti semik hartu aitaen ofiziüa.

−Ah bon! Zuri behar deizüt kestione pausatu:

−Ordin zük aita e apez zünina?

E20-04 AITEN OFIZIOA (II)

Roger Idiart gürekin bilkhüra batetan, biltzar batetan zen. Bazen Zalgizeko laborari handi bat. Han güntützün hamar bat edo hola. Eta leheneko lanak eta oraikuk eta Roger Idiartek erran zizün:

−Oh! Lehen lana atzamaitia aisago zan, ze lehen semiak egiten zian aitaen lana eta hola, eta hola beti. Eta denak isilik, eta Queheilla buneta handi horrek erran ziozün:

Eta hik aita aphez hina?

16

E12-08 APHEZ IZAN NAHI

Bazüzün hemen herrin gazte bat, gazte izigarri alauta, eta eskolan ez bate, aitü umen zen pixka bat bilaxkan, ta besta lazgarri maite, eta etxekuk inkietatuik:

−Ze elkhiko diagü semiaz!

Eta aphezai erran ziozün, ama elizan ebilten zen:

−Semik emaiten diküzü bai, Pettek izigarriko arrenkhüra, eztakit ze elkhiko den hortaik. Eta egün batez phũ behiekin hola züzün holaxen biden gainti eta aphéza bere gaien irakurtzen eta erran diozü:

−To! Hi hiza Pette, bai? Beharko dük hik bizin zerbeit eta plantatü, ezen eta etxekuk aitu tük hitzaz arrenküatzen.

−Ah! Bai, bai jauna! Bai, bai.

−Phũ, zü ikhüsi nahi züntügun to, badit ideia bat bena nahi zindüdan zü iküsi, ez dut ihũn aiphãtü eta apheza ahantzen düzü.

−Ah bon! Zer dük idea!

−Ahalgexka nüzü erraitea, bena nahi naiz lehenik zui erran.

−Ah bon!

−Bai, bai, zer düzü?

−Sendi dit aphezteko bokazionia.

−Ah!

Apheza zinez kuntent. Eztük sekula berantegi, aphez hün baten egiteko eta.

−Ah bon, Bai, bai bena etzazüla egün erran, eta nik e ezpaitut etxen erran bate, drole atzamanen baitie. Bokazionia sendi dit behar düdala apheztu.

−Ah, bon! Eta zer sendimentu duk, ikhüsteko hola apheztu?

−Uh aski auher eta gormant[27] nintzatekila, aphez baten egiteko!

−Aiba aintzina! −igorri zizün.

17

E13-08 BOST MILA OGI

Behin eta aphezak erran zizün phedikia:

Badakizie Jesus desertian bost mila jente gosiarekin eta bost ogi har eta nula erraiten dizun, multiplikatzen. Bon oain erran behar aphezak nola erran zuen:

−Bon, badakizie desertian bost mila jente bazien gosiaikin eta han ez jakin nola berian han Jesus heltü zen. Eta ordian hartü zütien ogi eli bat, handik bost mila hartü zien, multiplikatü zitien. Eta oan, hasia zen, oaino arresta bat dük. Nük eginen zian hoi?

Ondoko igantian batek erraiten diozü:

−Badakizia tronpatü ziela, bost ogi erraiteko partez, bost mila ogi erran düzü?

−Ah! Hori erran düt?

Ta daigün igandian norbaitek erran dü. Ondoko igantian erraiten dizü:

−Badakizie Jesüs bost mila jente gosiakin baitzien, bost ogi multipliatü tila eta denak janarazik eta arrasteik oano bost khorboilo arrabete.

[27] Jatuna, glotón, comilón.

−Nük eginen zien hoi?

Jaun xahar batek erraiten diozü:

−Jauna, nik!

−Eta nüla?

−Juan den iganteko arrastekin.

E29-13 BOST MILA OGI (II)[28]

Bai, jaun andereak, haurride maiteak. Jesusek beraz bazkatu zituen, jatekoa eman zuen bost mila jendendako eta bost arrainekin. Eta gero ohartu zen tronpatu zela. Ordun ondoko igandean zuzendu zuen:

−Ez, ez, ez, ez, ez!

Beaz jatekoa atxeman zuen bost mila jendentzat, bost arrainekin.

Eta gizon batek petik err(a)ten:

−Bah, hoi aixe in nezakek.

−Nola in zenezake aixe zuk.

−Joan den igandeko soberakinarekin.

18

E22-16 KONFESIO IXTORIOA

Gizon bat bazuan norabait, norabait bazuan ta borta baten pasatzen ai zela, borta zerratua zen, sartzeko borta zerratua zen, ta orduan leiho ttipi batzuk bazien, leiho mehar-mehar batzuk bazien eta handik behatu zin barneat, ta bittikak ikusi zitin, bi bittika politak. Ta errabiatu zen, nik oitarik bat gogotik hartuko nikek, hurbiltzen zen eta heldu zitzazkon pittikak ondora heldu zitzazkon ta gero, txiauri! txiauri! Ta hurbiltzen zitzazkon bai bena gero, hartzen berriz gibeleat ta gero hola-hola hartzen zien ta ez zien bildu.

Ta geo konfesatu behar zakon, bazko heldu zelarikan, izan ziala ideia pittika baten ebasteko. Ordian apezak erran zakon:

[28] Semeak kontatua.

−Ah! Bena hori ideia izan baldin baduzu, egina bazinu bezala da hori. Hori behauzu pagatu.

−Baina eztut ebatsi.

−Eztu inporta, hola ebatsian, kondian behauzu pagatu.

−Ta nori pagatu behar diot?

−Neri.

Apezari galdekozu ea, egin zuten pittikaren balioa estimia egin zuten. Eta bon gizonak ateratzen sosak sakeletik, ta emaiten zakon hola, bakizu sarearen eta zeretikan eta hola eskaintzen zakon eta apezak hartzeko denboran sosa gibeleat. Ta berriz e holan eskaintzen zakon, ta berriz hartzeko denboran berriz gibeleat. Ta apeza azkenean kexatu zen:

−Baina gizon drolia emango duzia ba!

−Ai Jauna! Ene pittikak hola-hola iten zatan.

E38-05 KONFESIO IXTORIOA (II)

Leno hola mutiko gazte bat Urritzatera joanki zen Baigorritik, ta ardi borda batean ahuntzak beren umekin. Ta gustatia zen mutiko hura ahuntxaz, ta nahi zin baño, baño hetaik nahi zin hartu, ta ondoratzen zaio, putxikatua baitzen pixkat, ondoratzen bena harek eskua barreatu ta gero tita.

Apezarekilan kobesatzera joan ta zazpigarren manamendian sartu zielaik, ea zerbait bazien zazpigarren manamendian eatsi.

−Ba, izan dut bai ideia pittika baten hartzeko, ardi borda batian.

−Ah! Bekatu in duzu.

−Bekatua ia?

−Ah ba, bekatu in duzu. Beharko duzu sarie eni eman.

−Bon, bon, ekarrikotzut ba.

Ekarri zakon ta apezak eskia iten zakon, saria hartzeko ta ahuntzak iten zian bezela, saria hula gibeleat tiratzen muttikoak.

−Emaitekotan behauzu eman, bestenaz bekatuan zira.

−Ah! Zu ere bekatian zira ni bezala.

19

E15-10 LANTZERRA URDINARBEN

Egiten zütützün heben, Altzükün, beste lekhütan e bai, bena Altzükün e bai, deitzen zütützün Rogazionek, nik ezaütü tüt. Ordün eiten züzün elizatik elkhi eta kartierretan joaiten züzün goiti, han behera, eta hantxe bazüzün kütxe eli bat eza(rr)irik eta han otoitz egiten eta. Ordin bedatsin gaizak ongi jün ditin eta idortia zelaik denboan ebia jinazteko. Ordin apezak erran zizün:

−Eginen dizügü, prozesione bat eginen dizügü holako lekhira, ebian[29] jinarazteko idorte baitzen, eta laboraiak kexüz ai eta.

Bon eta ordin deliberatü zien Altzükün behar zela egin Rogazionia. Urdiñarben hori entzün eta erran ziozün aphezai:

−Altzükün eiten düzie Rogazionek ebian jinazteko eta gük e behar genikezü egin. Haik ez zizün nahi Altzükün ebia ai dadin eta ez Urdiñarben.

Aphezak ez zizün hau bea nahi eta erran zizün:

−Bo, Altzükün ebia hasten bada, hemen lantzerra[30] phü aiko düzu!

20

E15-11 KANPHUN EZARRI NAHI

Beste behin apheza, edo hoi ber aphezarekin gizun bat jin züzün, merkhatin izanik edo eztakit aphairü bat eginik. Meza besta zerbait inez eta hola eguberriz edo bena gaian, eta gero amiñi bat edanik eta be(r)oxka, ai züzün elhestan aizuarekin, baña ez apaletik, hola amiñi bat ai züzün elhestan aizuarekin. Seme hoi züzün elizan.

Aphezak erran zizün:

−Balinbada gizonik gañi hortan elhestan, hük kanphun ezar beze!

Eta bestik entzün zizün. Erran zizün:

−Oano holakoik! Aski nekez jinen nük, eta oain kanphun ezarri nahi.

[29] Euriaren.
[30] Lantzerra= euri mehe, xiri miri

21

E15-12 KANPHUN EZARRI

Ber aphezarekin, lehen egiten zen bezala, egiten zititzien misionik, ordin jiten züzün kanpotik aphez bat misione bat deitzen zitzien eta harek peredikatzen zizün. Eta gero igaiten zizün bizpahiru egun edo aphezan etxen eta gero etxez etxe ibiltzen züzün, jenten ezagutzen eta hola. Hemen egoiten züzün apheza seriosa hola, prefosta kantatzen züzün beti kesta, nola deitzen da, sos biltze egiten baitzen, misione bazelaik behar zela jenerus izan, behar zela eman sosa. Eta ordin, erran zizün:

−Lehen ematen zen misionei, xahal baten sa(r)ia, xahal baten sa(r)ia.

Eta gizon batek xoko batetaik erran zizün.

−Emozie asto bat!

Eta gero handik landa gizon batek erran zizün:

−Hoi gu(r)e etxea jiten balinbada, hoi beharrik ingüatuko dük, hoi beharrik ingüatüko uk, hoi ohartemazie!

Eta joan züzün gizona. Eta ikusi züzün jiten, eta:

−Oh, oh! Ezkapi eta etzan zizün piperren artin. Piperrak hola handi ta etzan. Eta bestik:

−Oh. Eta badea norbait?

Ezpaitzekien, arrazerratu borta eta jun misioneat.

Erraiten zizün kanphun ezarriko zila, bena hua jin ondun, bera zizün kanphü jun, ezkapi.

22

E16-01 XOXUAK

Beste behin bazen mutiko gazte bat ardien eramaitea eta zerraillian, bide bazterrian sartzen da, baitzen kafia xoxuekin, xoxu-emeekilan eta abiatzen zen zerbait aphez :

−Ze ai haiz hor ?

−Ah Jauna, batützü hemen xoxoküme eli bat eta on tützü jateko.

−Bon, bana ützitzak hola, eztük aski handiak.

Eta mutikoa jun zen eta apezak xoxuak bildu eta jan.

Eta esposatu zelaik mütikoa, erran zün apezak:

−Emazte hau hartzen düka espüsatako?

Erran zakozün:

−Bai, jauna bai, hau eztüt utziko zietako xoxuak bezala.

E28-26 XOXUAK (II)

Beste motiko batek e kofesatzen du apezari, ta.

−Badut arrangura bat.

−Zer duzu?

−Badut zozo kafi bat bost umekin eta haizu da haren hartzia ?

−Non duzu hori, zozo kafi hori ?

−Holako pentzeko xehean jarrita, ezkerretaik bost urratseta(r)a, elorri tinken artean, ez du ez buxokak[31] ez axeriak atzemain, hain beita elorri tinkiak.

−Hori badakizia zer den, hori gure Jinkoaren gauzak dira hoien ebastia.

−Hori Jinkoari ebastia da ? Uh ! Gure Jinkoari aiko aiz ebasten. Uzten du zozo kafia hor.

Bi egunen burian ohartzen da zozo kafia faltan. Ama ta umiak denak falta. Ta nok in da? Ah! Hori apezak ina da! Nik erran dakot han bazela zozo kafia.

Urtearen ondotik espos da. Lehen bezela eliz aintzinean bere emaztegeiarekin.

Apezak galdeiten dako:

−Zuk Joanes hartzen duzu zure biziko espos laguntzat Kattalin

−Zer uste duzu zuretzat utziko dudala, iazko zozo kafia hura bezala ?

[31] Aphobelatz

E45-19 XOXOAK (III)

Aldi batez joan zen haur ttipi bat kobesatzera, bospasei, zazpi, zortzi urteko bat. Eta hola bekatuz zer zuen kondatzeko ta:

−Xoxo arraultze batzuk bazien kafia batean holako tokian.

Beste aldi batian joan zielaik, xoxokumeak sortuak zirela. Ta joaiten zen bijilatzea gaztelura ta xoxokumiak ya politak, handitiak. Ta egun batez bazoalarik ikusten du apezak han daudela xoxo kafi hartaik gibeleat, eta joaiten da aurrera xoxo kafira ta haren xoxo kumiak falta.

Joan zelaik denborak joan ziren eta gero esposatzera jarri zelarik, esposatzera joan zenean apezarengana joan ziren elizara, ta apez harek galdetzen dio mutikoari:

−Hartzen duzu Fidela emaztetzat.

−Ez, utziko lehengo xoxo-kumeak bezela zuretzat.

23

E16-03 ASTO HILA

Beste behin lehenago apheza eta alkaldea etzien bate üntsa... Apeza jün zen mezan emaitea elizala eta elizan heipian asto bat hilik.

Erran zakon eta betterrari:

−Erran izak jaun merai badela asto bat elizan heipin hilik eta herriko gizoner dela elkitzeko astüa.

Eta merak erran zion betterrai:

−Errok aphezai, astüa elizan hilik bada, elizako gizoner diela behar elkhi.

Eta aphezak igorri zon beretterrai arrapostia beretterrekilan:

−Baginakizün gure zela elkhitze[32], bena lehenik nahi izan dügü familia abertitu.

24

E16-08 ERTZO NINDÜKEZÜ

Lehen erraiten zizien :

Gizon bat kobesatzera jün zen.

Ta erraiten diozü apezai.

−Jauna, agitü zitazüt ixtoria bat.

−Ta zer agitü zaizü?

Ta, −Aizoko alorrin sartu nüzü, ta arto bürüak eyerrago baitzien, nihaünera urthüki tit.

Ta aphezak erran zakozün:

−Ta kontrarioa etzaizü sekhüla agitü?

−Ta ze kontrario jauna?

−Zihaunetik aizoanat?

−Hoi, jauna egin baneza, ertzo nindükezü.

[32] Gure zeregina zela kanpora ateratzea.

E45-17 ERTZO NINDUKEZU

Gizon bat joan zen kobesatzerat eta apezak erran zion hola ukaiten zituela bulta txar batzuk ai zen kobesatzen. Ta etorri zirenian ebasten gaineat, ukaiten zituela hola bulta txar batzuk. Ero bultak ukaiten zituela.

−Ta ze iten duzu bulta hoitan?

−Auzoko alorretik botatzen tut gure alorrerat arto buriak.

Erdi eroa zela bezala esan[33] nahi zakon. Apezak errten dako:

−Eh! Behar zinuke in beste aldera. Zure alorretik bestera bota.

−Bo, ordun arrunt ero nindateke.

25

E17−02 AHANAK

Etxe batetan bazüzün ahana, (bakizu zer den ahana?) ahana bazüzün nasaiki denetan, lurrin eta bon, nasaiki. Eta emaztik erran ziozun be(r)e pottikoari:

−Bon, ahan hoitaik zombait behar dük bildu ta aphezai eraman, harek ezpaitü gaixuak bate, ezpaitü. Biltzak eta…

−Bon −pottikoak erran ziozun −bena denak hasiak dia gastatzen[34].

Ta ordin aitak erran zizün, han txoko batetaik:

−Ba, aphezantako aski tük, bai!

Ordin pottikok bildu züzün zaku bat ahan ta ereman aphezai ta apheza izigarri kontent züzün. Ta norek erran deik, ordin ahan hoik eni ekharteko?

−Ah! Amak erran ditazüt, ahanen zuri ekharteko ta aita ados zen. Ba, erran dizü kanton batetaik zuetako aski ziela, izanik e lurrin.

[33] Hegoaledko forma darabil.
[34] Goastatzen, hondatzen, txarrak jartzen.

26

E17−06 EGITEKOAREN KONFESIOA

Bazüzün bi aizo, ordin funtsak algarren onduan zitizien, [artediarekiko][35], eta biek bazizien ogia. Bedarretaik ordin ogia mozten zin eta ezarten estekik txutik egün zumaitez.

Eta ordin bi aizüek hala zitizien ogia hor, eta ogia hor, bestia han eta ordin gai batez aizo hunek ekharten dizü hebentik bizpahiru eskuta −deitzen zizien− bizpahiru eskuta handiak. Eta ogia dena berdin baita, ber kolo(r)ia ta ordin ezarten dizü han haboro ukaiteko, beste aizuk ikusi gabe, eta biaramunin egiten dizu ber gisa, beste hiru eta biltzen denak. Eta geo ahatik kobesatu behar zila ondoko astin aphezangana jüiten düzü kobesatzera, eta ogia orano han züzün parte ta ordin galthua[36] jin zakolarik:

−Ebatsi düzia deuse? Ta...

−Ba ebatsi tüt bai, aizüai hor eta hirü esküta ogi atzo, eta hiru eskuta ogi egun, eta erranen deizüt bihar ere hiru ogi e(r)amain deitzüdala. Ordin beatzi ogi erraiten dizüt, ordin atzokua, egüngua eta biharkua.

Ordin kobesatu zizün bere falta, egina eta egitekua.

27

E19-05 MUTIL GEZURTIA

Leno apez batek bazin mutila, samurtu zuzun, ba, ta erran zakozun:

—Porropoa zara xu! Eta herriko jendek erraten dute ez (tu)xula egia bat erraten. Augi heldu den igandian meza nagusirat.

Ondoko igandean mutila han eta apezak eta predikuan:

−Gure mutilak erran dautat, ez duela egia bat erraten! Orai ikusiko duzue:

Apalazue burua
Aintzina apailado[37]
Apailado aintzina
Zoinek baitu burua apalenik

[35] Ez dut ondo ulertzen.
[36] galdera
[37] "Apailadu <apailatu" izango da.

Hartako ipurdia gorenik

Ezta egia putik?

−Bai jauna!

28

E19-06 URDIA ZURIA

Beste bat joana da kofesatzeat, eta zazpigarrenian:

−Urdia eatsi dut! Urdia zuria.

−Berdin balio dio hola erabiltzia.

−Urdia zuria zen.

−Berdin balio dio zuria ala beltza.

−Ze in behar?

−Ahal baduzu turnatu eta bestenaz ez, zerbeit elizandako eman.

Meza finitzen duzu

Gelaria: −Badiau politik!

−Zer da?

−Urdia falta diau.

−Urdia falta? Gizon bat izan da kofesatzen, eta "urdia zuria" uste nin koloria ziala erran nahi.

Ez ziala bihamonian emain!

29

E20-01 KIRISTINA

Behin gizon bat etzüzün sekhüla ebilten elizan eta epheza ikhusten zielaik haste züzün hola, hola eta hola [zeinatzeko keinua]. Eta aphezak erran ziozün:

−Bena zentako, kiristinau ona zia, zentako etzia jiten elizalat.

Eta gizonak:

−Bena ni enüzü kiristina.

−Ordin zentako hola, hola eta hola (zeinatzeko keinua) egiten düzü.

−Ba pentsatzen dizit honekin [burua] hoi betatzia [sabela], hoik aiazi gabe [besoak].

30

E21-08 KONFESIOA

Bi gizon bazien zierto adixkideak ta biek emazteak tronpatzen zuzten, ta baño izan zen lehenik kofesatzen. Ta memento batez apezak erraiten dako beste emazteik bazuenez.

−Ba, ba zombait aldiz.

−Ta nun duzu?

−Ah, ez dauzut erranen ez!

−Ba erran beharko duzu, ba! Ba badakik baina ez dik erran nahi, Eiherako Graxiana da?

−Ez, ez, ez, ez du hola, Graxiana.

−A, zaude, Gaineko bordako Gaxuxa da?

−Ezta, ezta hura.

Ta gero berriz apeza:

−Badakit nor den, Etxeberriko Rosario?

−Ez, ez, ez da hura.

Apaizak erraiten dako:

−Bon aldi huntako untsa da, eztut deuse jakin, ta aski tutzu bi Agur Maria itea ta untsa da.

Jelkitzen da gizon hura ta kalastrapian atzamaiten du bere laborari laguna hura bezela heldu konfesatzea.

Ta hark erten dako:

−Ze pusatia hiza?

−Bai.

−Erran dakoka emaztea tronpatzen duala?

−Bai, erran dakot ba.

−Norekin?

−Ba, pentsatzekoa da norekin iten dudan. Eztakot erran norekin iten dudan baina beste hiru adresa bildu ditiat!

E37-02 KONFESIOA (II)

Bestaldi bat hurruna joan tzen mutiko bat kobesatzeat ta kobesatzen hasi ta apezari erran tzakon, ba bekatu eginik eta ba geo seigarren hortan, ba bekatu in dut ba hola nexka batekin.

−In duzu?

−Ba, ba, in dut ba.

−Ah, behar dautazu izena erran nor den.

−Ah, ez hori ez dautzut errain ez. Ah, ez dautzut adrezaik eman nahi ordea.

−Hori gaineko etxeko Maddi zinin?

−Ez, ez, ez, ez, sekula ez.

−Ah, beheko etxeko Andrele edo?

−Ez, ez, ez, ez, ez.

−Ah! Bertze gaineko etxe hartakua? Hori ikusten du ba.

−Ez, ez, ez, ez, ezta hura ere.

−Aizu errazu nor den, bestenaz absoluzioneik gabe utziko zitut.

Berriz beste bat jin eta ez, ez, ez, ez, etzila errain.

−Bon, ordian zoazi eta abtsoluzioneik eztautzut emaiten.

Bon, kanpoa ateatu zen eta beste mutiko lagun bat harrapatu ta inik zan kobesatu.

−Ba, ba, kobesatu nauk, bena atsoluzioneik eztiat ukan. Atsoluzioneik eztiat ukan, bena adreza frango bildu diat.

31

E22-11 OILO EBASLEA

Bazen Mimia deitzen zakoten gizon bat, hura zen xerri hiltzailea. Apezak oiloak galdu zitin ta noizbait gizon bat Bazkotako joan zen kofesatzera gizona, oiloak ebatsiak zitian hura. Ta erran zakon, arrangura baitzin, oiloak janak zitin gustora, baina gero halare bazkoaren egiteko erran behar zitila errana zakon apezari. Ta erran zakon baita denboran oiloak ebatsi zituela, bai:

−Oiloak ebatsi tutzu?

Ta gero baziren bertze jendakiak ere han beha zeudenak geldi-geldia. Holaxe egoten ziren, bakotxa bere aldian beha kofesatzeko.

−Ta ze oiloak? –apezak.

−Bai, jauna bai, ixilik, jauna, ixilik.

−Ze oiloak? –berriz e, gorago oano.

−Baietz, oiloak, bena ez in abotsik.

−Ze oiloak? −gero ta gorago.

Ta gero bizarra bazuen apezak, bizarra atera zuen artetikan ta.

−Baietz jauna, oiloak, oiloak, oiloak –bizarretik tiraka.

32

E27-08 APEZAK HITZA JAN

Behin apez bat ari zen sermoian eta:

−"Eskelari bat etortzen baldin bada zure etxera, ez zako behin ere errefusatu behar nahi duena. Zeren errefusatzen baldin baduzute, hori Jinkoari errefusa bazinute bezala da, eta hori pekatu handia da".

Eta bazen jendea holaxe mukuru, betean zen, eta bazen eskelari bat. Eta biharamunean joaiten da apez etxerat bortan joiten, bortan joiten du eta apeza agertzen da eta:

−Ze nahi duzu?

Bazen usain bat, bakalaua pil-pila, usain on bat, ah!

−Ze usain ona! Bai eta zer da hori?

−Hori da, hori da bakalaoa, ta maite duzu bakalaua?

−Joe, maite dutanez? Bena nik ez dut suerterik jateko behin ere. Badu aspaldi ez dudala jan nik bakalaurik!

−Ah…bai…Eta inporta zauzu bezperakotik jatea?

−Bai Jauna, untsa, ez da inportik.

−Zato bihar!

Apezak beti azken hitza.

33[38]

E28-13 APEZA ETA MANUAK

Baionako diosesan diala berrogeita hamar bat edo hiruretan hogoi bat urte, lehenoko manuz behar zian apez batek nahi bazien ile faltsia[39] karreatu eta behar zien apezpikian baimena. Halaber, gelaria baldin bazien berrogei urtez pekoa baldin bazien[40], behar zien apezkikiain baimena. Apezpikiak horra du bere dioseseko bi apezen baimena. Batek galdeiten dako:

Batek perruk edo ile faltsien baimena, kaskoila baitzen. Bertziak galdeiten dako gelaria berrogei urtez pekoa ukaiteko baimena. Eta apezpikuak baten helbidea iten du, adreza enbelopan: "Halako herriko jaun erretora…" ta bestia "Halako herriko jaun erretora…" eta bati, ile faltsiak galdeinak zitinari ezartzen dako.

−Baimena emaiten diat, baina koroa egitekotan.

Ta gero, gelaria galdeina zinari, ezartzen dako:

−Baimena onartia, baina ez harekin altxatzekotan, ba pilota partida baten ikustera edo erosketen itera…ez harekin altxatzekotan.

Bena tronpatzen da enbelopaz, eta perruka galdeina zinari heldu zaio, "baimena onartia, baina ez harekin altxatzekotan".

Eta bestiari heldu zaio: "baimena onartia, bena koroa egitekotan".

[38] Ikus hurrengoa (34), motibo nagusia berdina baitute.
[39] Pelukaz ari da.
[40] aditza bi aldiz errepikatzen du.

Horiek gertatiak dira, horiek. Leno manu batzuk bazien eta behar zien segitu.

34[41]

E31-04 BI GELARIEN ARTEAN 50 URTE

Beste batek heben apezak emazte horiek maite beti eta hak fama bazin. Bi neska gazte gelaren egiteko eta erreglamendia ordian 50 urtez petik etxixin behar, handik gaineratekoak eta apezpikia jin eta ez zela gehio 50 urtez pekoik hartu behar. Ah bena biga bazitiela bien artean, bien artean 50 urteak.

35

E28-16 ARTZAINA ETA APEZPIKUA

Bazen ba, apezpikua badoa ba Arnoztegiko bortian. Donianetik eta Oriala buruz. Arnoztegiko bortian pasatzen da. Nik in izan dut bide hori. Behin bide hortan bazoan apezpiku bat, bere jaunztean eztu deus markaik apezpikuak delako hak ez gurutze, ez xingola gorri ez deuse. Ikusten du Arnoztegiko artzain bat han bortian eta:

−Zer ai zitutzun hemen, artzain hori?

−Ah, artzain? Ta zer artalde duzu?

−Berrehun ta berroeta hamar buru. Ba, udako lana iten dut aski, bena negiaren iteko badut lan aski ba.

Ta artzainak apezpikiari:

−Ta zu ze lanetan ai zira?

−Ni re artzain niz.

−Ah! Zu ere artzain. Ta zer artalde duzu?

−Apezpikiak bere diosesa guzia du gogoan. Ene artaldean badira hirurehun mila buru.

−Zombat erran duzu? Hirurehun mila buru? Zer lana duzu horiek denak erditzen hasten dielaik!

[41] Ikus 33. kontakizuna. Motibo nagusia berdina dute.

36

E28-19 KRISTOREN GORPUTZA

Apez baten ixtorioa hori ere:

Uda zen eta baziren batzuk trikote nasai batzuekin eta emazteki bat hasteko trikot handi batekin eta

−Kristoren gorputza, kristoren gorputza.

Eta:

−Kristo ze gorputza!

E32-05 KRISTOREN GORPUTZA (II)

Komuniatzea joan ta bi lerrotan ta jaun erretora gaztia, apeza gaztia ta harek e neska gaztiak e maite, ta jendiak ohartiak. Ta meza emaiten du ta komunioa emaiten hasten da ta joaiten da jendea tiki-tiki-tiki. Ta:

−Kristoren gorputza, kristoren gorputza, kristoren gorputza, kristoren gorputza.

Joan ta kalizaren behatzen gelditzen da, begiratzen du bi lerro hoietan oono bazenez jende andana. Ohartzen da hogoi-hogoita bortz urteko neskatiko ederra. Berak e maite itu emazteak. Kontinuatzen du:

−Kristoren gorputza, kristoren gorputza, kristoren gorputza, kristoren gorputza.

Eta emazte gazte bat heldu da aintzinat. Apeza gelditzen da:

−Oh! Ze gorputz ederra!

37

E29-01 GARTAK[42]

Apezek behar zuten eman predikuak, eiten ziuzten, predikuk eiten ziuzten eta geo erten zuten behar zela txintxo ibili eta behar zela ostiraletan ez haragia jan, arraina jaten zela. Ta geo bazien lau sasoinak, lau sasoinak bazien ta geo ordian, eta apezak

[42] Garta garaia urte sasoi bakoitzaren amaieran erlijio katolikoak agintzen duen penitentzia da. Jainkoari eskerrak emateko eta uzta ona opa izateko.

erraten zuen: bon eta aste huntan gartak[43], lau sasoinetako mehe bat behar zen ein aste hartan.

Herri batean eta apezak prediku bat in zuen bortitza, ta geo predikua ein ta ohartu zen:

−Oh, ze ahatzi ote dut errateko!

Ta ohartu zen eskeko sarea doi bat arin zuela, ta geo ohartu zen:

−Oh! oh! Ahantzi tut aste huntako gartak (gartak eztakit badakizuen ze erran nahi duten, erlixioneko urrats batzuk dia hoiek). Beaz eta predikutik ahatzi zuen erratea gartak zirela eta erten du: (Betterrak bazien ordian).

−Bihar joanen zirezte etxez etxe, beretterrak, errainen duzue ahantzi dudala, barkamendu galdeinez ene partetik, eta aste huntan behar dutela mehe egin, gartak direlakotz.

Ta ordian joaiten da, ya haurrak etxez etxe haik kontent ziren ba. Hemen emaiten zuten, nik dakita, xokoleta, beste baten eukitzen zuten ogi ona. Eta heltzen die etxe bateta, bortu gaineko etxe bateta, eta han ziren etxe hartan eta familia bat ederra, baziren bi neska eder, handitzen ari. Eta hamar mutiko eta denek, guziek jateko bazuten nahikundea baina jatekoa hein batian zen. Ta geo erraten zien:

−Erreko zie! Ta ze!

Heltzen die etxe hartara.

Jaun erretorak igortzen gaituk ta ziek mutilak ta ze berri ekarten duzie?:

Ta –Jaun Erretoraren partez heldu gira. Aste huntan gartak ziela predikutik ahatzi duela.

−Ah! bon, oh gaixo haurrak, errakozie ene partez Jaun Erretorari guk gartak (ikusten duzie familia eder hau) joan den astekotz inak tugula!

[43] Temporas, Les quatre temps.

38

E29-09 BAHEA BUXATUA

Eta delako leheno bazien elizetan serorak usu eta anderiak ziren eta oain bezala eguerri edo bazkoa helduik eta egun batez apezak eta behar zuela bere elizako saindiak garbitu. Eta gure serora xahartia zen, etzen zuubietan, bakizu, goiti-behetan, eta delako mantalina batzuk iten ari, "lamainak" deitzen ditugu, bakizu? [Uriak iten dutenak][44] Eta erran zakon:

−Ba zuk eztuzu hoi iten ahal eta gizon bat baitzen han eta aitzinatia Piarres hari in aaziko dazkot.

Eta geo ordian eta Piarres hua han zen, herrian bizi ta. Artetan ibiltze zien batzu bestean baatzetan, etxekanderiak porriak falta zitelaik.

Apezak erran zakon, honetarako serorai (ordun erraten zuten holakoendako "serora kotzoa").Ta hak e nahiko zukeela kofesatu, eta delako, bazkoko kobesatzen baitzen, ordian denbora hetan, orain e bai, nahi bada.

Eta gero ordian, eta zernahi jende baitzen, apezak, erretorak erran zakon:

−Aiba, aiba, kofesatuko zaitut baina bestiak in ondoan. Ta geo ordian eta apeza bere tokian eta kofesatzalea, serora famatu hura han. Eta in tuzte lehena, bigarrena, hirugarrena eta ez dakit ohointzakoa zenbagarrena den, ta gero ordian eta denak bekatu guztiak erraten tu gure serorak eta apeza isil-isila zagon eta.

−Barkamendia nahiko duzu gure bekatorosa. Ta apezak erraten dako:

−Ta ez duzu deusik esaten hor, eta zuk eta?

−Ez, ez, aita −errten da apezarentzat− memento hartan ezaut iduri aita.

−Ba, ene gelariak bixta llaburra bittu, iruitu zako zu bezalako bat ikusi dila ene baratzeko lur-saarretan, aitzurrarekin sarearen hertsatzen.

−Ta nola Jaun Erretora? Etzaitut batere aditzen.

−Bai, gortia niz, mintza zaite gorago, gora mintza zaite.

Bena hola eta hola entzun, ikusiz eta.

[44] Ez dugu ulertzen hor zer dioen.

−Oh! Jaun Erretora, beharko duzu ene tokirat jin ikusteko zuk ni adituko nuzunez eta.

Apeza baietz eta. Apeza jarten da kofesorearen tokian, ta gure bekatorosa apezaren tokian ta:

−Errazu jaun erretora! Etxe xuriko nausi xahar horrek, deabriak han beititu, iruitu zako zu ikusi zitiela zu gaixo ene andriarekin besoz beso elizako atean, eta zure ustez egia da hori?

Ta –Etzaitut bate aditzen, apezak berriz eta.

Apeza kentzen da ta :

−Ah ! Ez da posible ! Kofesionean bada halako, taulazko bahe bat eta hori buzatia[45] da ta mahaxturia pasatzeko, ta hori behar du berritu ta geo kofesatuko zaitut.

Botzaren pasatzeko, anitz bekatu pasatia baitzen, zikina zen.

E40-07 BAHEA BUXATUA (II)

Gizona konfesategira joaiten da ta er(ra)ten dio apezak. Kofesatzen du eta memento batez er(ra)ten dio:

−Zure emaztez kanpo, zombat emazterekin ibili zira?

Gizonak arraposturik ez. Berriz ere:

−Zure emaztez kanpo, zombat emazterekin ibili zira?

Arraposturik ez. Hor zitut ta mintzo niz! –apezak er(ra)ten du ta arrapostuik ez.

−Bena joana zira ?

−Ez, ez, hemen niz bena eztut fritxik entzuten.

−Ah, eztuzu entzuten? Zaude, lekuz kanbiatuko gira. Ni jinen niz zure lekura eta zu jinen zira ene lekura. Eta kanbiatu ziren lekuz. Eta gizonak apezaren lekutik erraten dako:

−Jauna, zu ene emazteaekilan zombat aldiz ibili zira?

Eta apezak arrapostuik ez eta berriz e.

[45] Buxatua: tapatua.

−Jauna, zu ene emazteaekilan zombat aldiz ibili zira?

Eta apeza ateatzen da kanpora ta:

−Joeo, arrazoin duzu e, ezta fritxik entzuten!

39

E29-10 KONFESIORAKO GARAIA

Bazien bi nexka pollit (ziek bezala) eta hek e behar zuten kofesatu ta usaian bazkoa aurten apirilan da, bena urte hartan, martxuan, martxuan, bakizu, hirugarren hilaetian, biziki goizik, bazko goizik ba(i)litz.

Ordian eta erran xahar bat bada : « Bazko goizik balitz, martxo ezpalitz ». Ordian, alimaleko horma in zuen ta nexka pollittek kofesatu zien bazko goizian, zeren eta itsasoan urak handi dira, eta tentazioneak ere bai, igande delarik. Ordian etzutela behar bekatia, bekatu iteko okasione, arrunt komuniatzeko, bakizu. Segidan gertatia baitzen beste zernahi artian. Ta geo ordian eta, Maaluixa deitzen zen batto, ta gero hura jin zen argi-xirrintean eta apezak ez zien ere, ez zitien eginak. Bazien bere predikia prepatu behar, ta behar zien eliza prest ezarri eta ikusten du nexka trixte hura han horman eta:

−Zer, egun konfesatu neauzu?

Ta –Ba, ba.

−Ordian eta

Hasten dira:

−Ale, ale, fite fite. Nik eztut asti(r)ik eta bo.

Ta ordian, lehena, bigarrena, hirugarrena, laugarrena, bosgarrena ta seigarrena jin zelarik, gure neska gelditzen da etzakin zer eta.

−Zer? Ordian eta seigarren hortan zer duzu erraiteko?

−Ta, huuuu! Kondenatia naiz bai, aita! Ta bon, ta zer gertatu zauku?

−Ta bo, aizoko mutiko tzar batek bota nu lurrea.

−Ah!, bo ho ho, ze bekatia! Ze in duzu erortzearekin?

−Ba, pantaloineko botoin bat errotik kendu dako.

−Oh ! Biziki bekatu handia da. Ta gero penitentziatzat behar duzu esku bekatorosak eman, ur benedikatu ontzia bada, ta han sartzen, hua hormatia zen, oren erdi bat han atxiki ta eztakit zombat Agur Maria ein.

Ta geo hura han (t)zagolarik hormaren barnian, heldu da beste andere pollita, eta harek ikustearekin :

−Ze haiz hor Kattalina'

−Ooo, Jaun Ertorak hemen ezarri un eta penitentziaren egiteko!

−Ta ze kofesatu dako?

−Petiri zaharrari botoin bat kendu dakotela pantalonetaik.

−Uuuuh! Enun ni egun kofesatzen hotz hunekin, nik behar badut erran, zer dautan eginik beharko baititut esku hoik hor eman, nok daki zombat denbora, ta kofesatuko nun denbora hau eztitu delaik.

40

E34-01 ERBIA BERA BAKARRIK

Bazen Ganix. Ganix zen biziki ihiztari ona eta igandero joan behar zuen ihizira eta ez zen mezara joan eta handik biharamunean apeza ikusten du ta.

−Ah ta Ganix ez zaitut ikusi ta mezan.

−Bai eta erbi bat banuen ikusirik eta oain doa zure etxeat.

Bekatuan barkatzeko.

−Ai, ai, ai.

Apezak hola iten du. Hartzen du sakeletik eta emaiten dako sosa. Eta joaiten da Ganix bere etxeat eta apeza ere joaiten da etxeat ta gelariari galdeiten dako :

−Bon, Ganixek igorri omen du erbia.

−Ganix ez dut ikusi, erbirik ez dut ikusi.

Zonbeit denboran burian, berriz apezak ikusten du Ganix.

−Errazu ta erbi hura ez da agertu gure etxeat.

−Ez da agertu ? Errana nion joaiteko zuzen-zuzena zure etxeat.

E35-01 ERBIA BERA BAKARRIK (II)

Bazen gizon bat auzo herrian, biziki abila eta harek beti dirua biltzen zuen nunahitik, ezkerretik eskuinetik ta behin apeza atzeman zuen karrikan.

−Egun on. Egun badut igorri erbi bat zure etxeat.

−Mila esker.

Eman zakon hola zerbeit dirua. Lehengo diru-sosa eman zakon.

Eta etxeat eta gelariari erran zakon.

−Halako gizonak ekarri du erbi bat honat eta.

−Ez, ez, ez, erretora, ez du deusik ekarri, nehok e.

−Ah, uste duzie tronpatu nula!

Ta ondokoan berriz ikusten du gizon hura.

−Errazu. Badut eta zuri hitz bat erraiteko. Bertze orduz erran datazu erbi bat igorri zinila gure etxeat eta gelariak erran daut han ez dela deuse jin.

−Jaun erretora, ez da nere falta! Ikusi dut erbi bat bidea trebeskatzen eta erran dakot: hel apezan etxeat!

41

E37-04 ZE DOMAIA!

Beste batian mutila bazen etxe batian, ta nexkato gaztia re ba han, elgarrekin han bultaka. Ta egun batez eta joaiten da kobesatzeat gure nexkatoa ta apezari hartzen zako:

−Ah jauna erran behar dautzut mutila badut.

−Ah! Mutila ba? Eta gero

−Joan den egunian behien bazkatzen ai nintzalaik sabaian, mutila jin tzata.

Ta gero?

−Besarkatu nau ta potta eman nau.

−Ah! Eta gero?

−Ah! Tinkatu nuk beraren kontra.

−Ah? Ta geo?

−Panttalonak apaldu daztat.

−Eta geo?

−Artiki nuk lurreat.

−Ah! Eta geo?

−Geo, etzaut amatxi jin!

−Oh! Ze domaia!

42

E38-04 GAINIAN ALA PIAN

Lehenago ere bazkoak iteko xartelak behar baitziren hartu ta txartela hartzera joan zen mutil gazte bat. Artzaina zen mutiko hura, ta apezeri ari zakon txartela behar zuela hartu bazkoaren iteko.

Ta, –Bai, bai, emain dautzut.

Katexima hasi zakon jauzika galdeiten han puntu bat, hemen bertze puntu bat, apezak. Etzakon responditzen behar den bezala, artzainak.

−Hurrengo aldiko beharko duzu ikasi untsa.

−Ah! Zuk ere bai ikasi beharko (d)uzu

−Ardiak zenbat os[46] tin –erran zakon artzainak−. Ardiak zenbat os tu?

Ta −Hunenbertze −apezak.

Ta artzainak arrapostia:

−Gainian ala pian?

Apezak ez jakinki.

[46] hortz

43

E41-01 APEZA ITZALIAN

Behin ai zien senar-emazte batzuk eta lur-sagar ateratzen alorrean, eta biziki bero baitzen eta astoa ere bazuten beren karro ttipiarekin ta han ziren izerditan eta astoa eguzkitaik buriak ezin kenduz. Ta bidian bestaldian harri handi bat bazen, eta harri haundi batean jarririk apeza, irakurtzen.

Ta azkenean apezak errten du:

−Gaixo astoa, iguzkitan ezartzen duzue eta ez duzue itzalean ezartzen ahal.

−Ba, apeza izan balitz aspaldian itzalian izain zen ba.

44

E43-01 LIBERA ETA SAN PIERRE

Lehen ziek pezeta zünien, gük franko. Frankoa jun da, pezeta jun da eta jin da euroa. Ordin hamar zentimeko sosa hil zelaik, jun zen zelilat eta han San Pierren aintzinila agertü zen eta erran:

−Hila niz eta nahi nüke leküxko bat zelin.

−Ah! Bai, bai gaixüa, haigü, haigü barneat.

Eta han ingürüak hasten dira khantüz, besta egiten düte.

Eta bihamonin hiltzen da hamar liberako dinerú. Eta hura ere prestatzen da San Pierren aintzinila eta erraiten do:

−Bon, nik nahi nike lekü ttipi bat zelin, eta posible da?

−Bai, bena lehenik beharko dü pasatü purgatorian.

Bon, bon eta han besta ez sobera handi, besta ttipi bat bazin. Eta hirugarren egünin, hiltzen da bostehun liberako bilete handia. Hura heltzen da San Pierren aintzinila eta haik e nahi zin zelin lekü bat.

−Ah! Hi gaixüa ez, hik infernila behar dük.

−Ah! bon, zertako ni infernilat? Beste tristan hoiek zelin eta ni infernilat ?

−Bai, baina hi ez haigü sekülan igandetan mezan ikhüsi.

45

E16-39 PASTETXAK

Herriko eliza lanetan zen eta aphez etxeko gela handi batetan jaun erretorak meza erraiten zian. Egun hartan talo (pastetx) bazien jateko eta gelhariak meza jarraikitzen zuen zukaldeko borthatik. Jaun aphezak zenditu zuen pastetxa ari zirela erratzen eta ari zen bere gogouari: ”Gelaria nola behar dut abertitu paxtetx hoik erretzen ari dela”.

Prefazioua aphezak hasi zian:

−Per omnia secula seculorum.

−Amen −oroek khanta.

−Dominus vobiscum.

Arrapostu:

−Et cum spiritatuo.

−Sursum corda.

Arrapostu:

−Habemus ad dominum

−Gratias agamus domina deo nostro.

Arrapostu:

−Dignus et justum est: Vere dignum est justum est tecum et salutare: pastetx hoi üngüa, sobera erreazi gabe.

Ordian gelharia zalhe phartitü bai paxtetzen üngüatzea.

46

E16-40 ZALDI BAT

Egun batez Jesusek erran zeion Jondane Phetiriri:

−Zaldi bat eman deiat Gure Aita erraite baduk has eta bu pentsamentia galdu gabe.

Joundane Phetik ordian:

−Bah! Gaiza aiza bat galthatzen deitadazut hor jauna.

Eta arrount hasten da:

−Gure Aita, zelietan zirena saintu izan bedi zure izena...Jauna? Zaldia gagñekouakin dateke ala gabe?

Eta Jesusek:

Hola orai eztukek ez zaldirik, ez gañekorik.

47

E16-42 LAU GAIZA

Jesus eta Jondane Phetiri, Espainian ebili ziren eta herri batetan sartzian hanko buruzagiak erran zeioen nahi ziela Ebangelioua entzun. Ebangelioua entzun ondouan Jondane Pheti hetara hullanturik erraiten deie:

−Jauna, zure beharra baginikezu. Jesuetarik behar zünüke gure erresumaentako ukhenasi lau gaiza: ogi, ardou, ogi nasaiki eta bakia bethi bakia.

Bena Jesusek entzunik hen galthouak erran zien:

−Hortxe lau gaiza ezpeitia algarrekin jouanen. Ogi, ardoua eta ogia ukhenen tutzie nasaiki, bena eztukezie bakerik.

Houna zentako baden jateko Españian, bena bakia falta die aspaldian.

ERGEL-ARGIEI BURUZKOAK

48

E1-02 SOSDUN TRONPATUA

Kanpaina gizon bat bazen, sosduna, eta bertzia très gogorra zen baina ez zuen sosik, ta nahi zuen beti baserri bat erosi ta lotu lanian ta sosik ez zuen. Aberats hura ikusterat gan zen eta atxeman zuen aberatsa, ta galdetu zuen sosa, ia zuen:

−Bai. Ta nola?

Ta −Berriz turnatzeko.

Ta bon urte baten buruan turnatuko ziola bere sosa. Eta sosa ematen dio, bere aferak iten tu, erosten tu, pagatzen tu, zorrak bazitun ordukotzat. Très gogorra zen. Ta gero urte bat eta erdi buruan oraino sosik ez heldu, ta aberats horrek galdetu zion. Errazu zuk orai niri, ta karrikan atxeman zun eta erran zion:

−Sosak behauzu turnatu niri.

−Ah, bai, bai.

Ta erran zion:

−Ba, ba, ba, ba. Zatoz bihar hamarrak airean etxea ta an izango naiz.

Ta biharamonian han zen delako aberats hura sosketa, ta non atxematen du gizona, atxematen du baratzean, ta beti baratzean atxematen du gizona jorran, aitzurraekin eta aldi bi-hiru kolpetaik hogei liberako urria ateatzen zun (nola erraiten da hori Louis d'or)[47].

Ta bertzia, aberats hura harritüik, zer duk hori?

−Ba, ba nik hola egiten diat, ta hartako nahi nitikek erosi nik lur hauk, ta hartako galdatu duk nik sos hoik eta:

−Ez duk posible!

−Bai, bai nihauk hortxe atea itiat.

(…)

Ba, gaki da beti. Bi kolpetaik, hiru kolpetaik beti bera, urre sosa ateatzen zuen.

[47] Luisa (diru mota bat).

−Bo, bena hori behar nauk saldu!

−Ik eman sosa ta turnatuko haut aitzur ori.

Ta aitzurra ona baitzuen, aitzurra hartu ta gaki da bertzia kontent. Ta etxeat ta andriari erraten dio :

−Sosik eztut ekarri baina ekarri dut aitzur bat, urria ateatzen du bi kolpetaik!

−Bo, zaude ixilik !

Ta −Baietz. Pausa in ta bazkaldu, pausa in ta gan behar deu baratzeat, ikusikouzu zer sosaldia ateako uten.

Bazkaltzeute, pausa iten dute, gaki dia baatzeat. Eta hasten da, taka, taka. Sosik ez heldu. Ta andriak:

−Zu gizon tristia, berritz e harek engainatu zaitu.

Bertzia errotu zen. Berritz atxematen du asteburuan eta karrikan, hura merkatuan, bertze aitzurra eman zion hura, eta erran.

−Puh! Zera, aski duk ekartzia hori etxeat eta ikusiko uk.

Eta beti, bi egunera gaki da berritz bere aitzurrakin etxeat, eta atxematen du bi asto bazituela astotegian, ttak, azpik ateatzen danak, ta han furtxakin gauza bera, furtxak pipipipi…sosa.

−Hau nahio?

Honekin aldi guziz, kolpe guziz bazuen.

Ta baietz, hura nahi zuela, iten zutela kitto gero. Furtxa ta aitzurra ere baginun.

-Aizu, e(d)ukiren duk geroxio eskuko biatzean!

Ta betiere bi puxka oik ere. Ez batekin ta ez bertzearekin fitsik, han sos zatirik ez behintzat. Errotu zen gizon hura, errotu, arras berotu, ta bazakien artaldea erosi zuen, artalde alimalea, ta plaia ixkiñean ai zen, itsaso baztarrian, ardiak alatzen. Ta errotu zen, sosa prestatu zion hura, gaki da beti itsas bazterrerat. Eta erraten dio:

−Oraikoan behaut neri sosa turnatu, hiri fitsik eztiat iten ta hik engainatzen nauk…

Eta −Ezetz, ezetz, mutiko, ezetz.

Baietz eta ezetz. Ta holako kuela alimale batzuk bazien, plaia baztarrian ola.

Ta −Baietz, baietz.

−Artaldea erosi duk hik eta…

−Artaldea? Hortxe horra…itsasoan baituk, itsasoan barnian tuk ardiak. Ta ardiak hola zien, halanahi, ta itzala ikusten zen itsasoan, ardi guziena.

−Ta nola in duk hori?

−Ta hola kuela hontan gan nauk duela bi egun itsaso erdirat, ta berritz ekarri naik itsasoak hunat, ta ardiak nik igorritiat kupela hontan gidatute.

−Ba zera! Kupela hori behar naik saldu!

Ta -Ez, hau eztiat salduko. Ta baietz ta ezetz.

−Ezetz. Nahi bahuk iten ahal duk itzuli bat ta horko ardi hoi denak biltzen tuk. Gupelan gan hadi ta bilduko ituk ardiak.

Itzala ikusten baitzun, itzalak oro, eun ta hogoita hamarrak, itsasoan denak ibilki. Ta beti ematen du kuela hartan, gure aberats hura, pusatzen du itsasorat, ardiak ekarriko zituela ta, han ito zen. Izorratu zen ederki.

49

E1-04 ZORDUN ABILA

Saran beti gauza bera, batzuk aberatsago die eta bertziak pobrego. [Eztakit zure herrian?]

Eta beti batto bazen aberatsa, eta hari erraiten zioten "Abila". Gizon abila zen eta izengoitia eman zioten "Abila". Eta goiz-meza(r)a gan tzen, gure batto gan zen sos galdez Abilari. Ta Abilak prestatu zuen bi behi erosteko sosa. Ta sosa prestatzen dio ta bi behi erosi zituen, ta bi behi onak, eh! Balio handikoak, Abilak atxiki sos harekin. Haren sosarekin halako behi parea erosi zuela harek eta merkatu ona in zun[48]. Handik hilebete batzuen buruan, oraino sosa turnatzeko zeon ta hor aditzen du goiz-mezera gaki dela sosa prestatu zion hura, Abila. Abila gaki da goiz-meza(r)a ta erraten dio, sosa prestatu zion haren auzoko batek:

[48] Gaztelerazko “buen negocio”.

Baakik, Antton akailan duk[49] antxu ila[50] eta ez dik egun pare bat emanen.

−Egun pare bat ez? Ze, akailan dela? To!

Ba, Abila, sosa hartzekua kexu, kafia hartuta gaki da, etxera bixita eitera ta ori.

Ta bertzia hor, delako sosa hartu zuen hura, atxeman tzuen ohean, joooo, joooo, joooo…

−Errak, errak, Antton −fitsik arrapostuik ez.

−Antton!

Gure Antton hola dela! Gero ta kexugo zen hilen zela hor segidan. Eta gaki da bearrirat, erraiten dio:

−Errak, Antton enauk ezautzen!

−Joooo, joooo, joooo…

Enauk ezautzen! Ni nauk hemen ni! Enauk ezautzen! Abila, hemen abila nauk!

Ta bertzeak bakizu zer erran zion:

−Behartuko zaik![51]

50

E1-07 ELGAR

Bazen mutiko ttiki bat etxean, eta aita ta ama eta mutiko bat. Eta memento hetan ibiltzen zien baserrietan zaldizkoak eta denak ebasten zuzten: oliuak, zerri-azpiak[52], kanpainetan zien denak. Ez baldin bazen nihor sartzen zien eta haik bazuakizuen[53]. Eta delako bi zaldizko etorri zien. Batto heldu zaioe, presentatzen zaioe. Baño hastetik errateko da aita ta ama, mutiko ttiki horren aita ta ama gan zien, beren ahuntzak elgar zuen izena ahuntzak eta ahuntza hil zuten, eta salda pixka bat in zuten etxean eta haren tripak garbitzera gan zien iturrira. Elgar zuen izena.

Eta aitak eta amak erran zioen:

[49] Akabailan duk, hiltzeko zorian.
[50] Abantzu hila.
[51] Alegia, hobe zuela Abila izatea, ez zuelako harengandik sosik jasoko.
[52] Urdaiazpikoa, jambon.
[53] Eramaten zituzten

−Bon, gu ga(n)en gituk tripak garbitzerat eta hi egon hadi etxean.

Batik bat aita han ibiltzen zela(r)ik. Nihor ez zela(r)ik sartzen baitzien.

−Bai, bai, bai

Eta hura etxean eoki zen eta ai zen, sua iten ai zen, tupina aintzinean emana. Eltzekaria iten ai zen. Eta suaren aintzinean ematen duzularik eltzekaria hola, ilarra biratzen da hola beti[54]. Ez hola ibiltzen, egosten[55]. Eta gero esan bezala, hotsa eta gainian atea irekitzen zen hola, sartzeko atian, leiho ttikia irekitzen zen lehenbizi eta gero dena, borta. Eta borta irekia zuen, eta sukaldean zen hola, eta soinua hemetik heldu zaio eta zaldia eta zaldiak sartzen du burua, delako atearen gaineko irekidura hartaik eta gizonak iten du hola pixkat eta:

−Bada, norbeit hemen? −oihuka.

Eta heldu zaio ttiki hura aintzineat eta

−Bada norbeit etxean?

Ta −Ba. Nork duk?

−Zaldi baten burua eta gizon baten erdia −harek ikusten zituen etxean.

Ta −Hi zer ari haiz hor?

−Heldu dena jaten eta etorriko denaren beira.

Ilarra heldu zelarik goiti hartzen zuen ilarra eta jaten zuen, eta bertzea goaitatzen zuen.

Ikaratu zen delako zaldidun hura, ohoin hura, ikaratu zen.

Eta −Zer ari haiz, zer erran duk?

−Heldu dena jaten eta etorriko denaren beira. (Beti ilarra)

−Nuk tuk aita ta ama? −Sartuko ziela, mutiko ttiki harengatik.

−Nuk tuk aita ta ama?

−Elgarri ta tripak garbitzera ganak.

Ta hor ikaratu zen, elgar hil zutela ta tripak garbitzera gan ziela. Harek ahuntzaren izena erran zuen. Elgar. Eta gan zen ohoina, espakatu zen.

[54] Bira egin eta gora egiten du.
[55] Keinu egiten du, egositakoak ez direla borobilean ibiltzen.

51

E29-07 ASTOAK EZIN ELKAR IKUSI AHAL

Hola, haurrik ezin ukan eta beti asto-ixtorioak, eta andre harek galde in zazkon senarrari bi asto, bi asto. Eta eosten ditu ba astoak eta bai astoak handitu zien eta beti gal a(r)ian[56] ai zien elgarrekin, putarra[57] ta ixtorioak eta emazteak erran zakon:

−Astotzar hori sal ezak, sal ezak asto hori ez zitela ikusi nahi, beti ai ziela putar eta ixtorio.

Eta eremaiten ditu eta Hazparneko merkaturat eta ezartzen ditu koblatan[58], hola. Ta heldu da gizon bat eta:

−Oh! Ze asto pollitak! Eta zer dira saltzeko?

−Ta, babababa… nahi battuzu erosi.

−Baña, baño. Aharratiak dira, eh? Eta eztute elgar ikusten ahal.

−Ah! bo, eztuk inporta, battut bi pentze, bat ezartzen dut aintzinean eta bestea gibelian.

Saltzen du ta sosa, dirua altxatzen du ta heldu da etxeat kontent asto-saria han ta:

−Oh! −ta joaiten da, erraiten daio ondoko zortzian andreari :

−Bah!, banoa ba merkaturat, gizon hura hain zen kontent, beharba baxkaria pagatuko daut!

Joaiten da ta ikusten du berriz ere astoa han, ta gizon hark alimaleko makil batekin jo:

−Zaka! Ta

−Nun da ene astoan saltzalea! Zu zia, zu zian bezelako faltsia! Tronpatu nuzu?

Ta –Ze in dut nik?

Eta –Zuk saldu dazkitzu astuak?

Ta ba…

−Astu horik itsu dira!

[56] Gal aldian, elgar galdu nahian?
[57] Uztarka, hasarretuak.
[58] Orotarikoan: "Palo que se ata a los cuernos de un par de bueyes para hacerles caminar".

−Itsu? Ze gezurtia ziran zu.

−Itsu dira! Eztauzkatzu erran itsu (dienik)!

−Ah! Nik erran dautzut etzutela elgar ikusten ahal!

52

E10-01 ASTO GAINERA

(Beñat Galtxetabururi entzuna)

Zen gizon bat merkatutik etxeat heldu, eta axkarra, puxka bat moxkortia, eta geo etxeat arribatu gabe herriko ostatian gelditu eta geo han e berriz edaten ai zan beste batzuekin, eta geo astoarekin zen merkatura joana, eta gibeleratekoan berriz, astoaren gibeleat behar tzila igan etxera juiteko, eta entseatzen du ta nihondik e etzin ahal astoaren gainerat igan, sobera moxkortia baitzen.

Eta −Jesus ene jinkoa otoi, lagun nexaxu astu hunen gaineat igaitea.

Eta entseatzen du eta gibelea.

−Jesus eta Maria otoi lagun nexazi astu hunen gaineat igaiten.

Eta berriz e entseatu eta berriz e gibeleat.

−Jesus, Maria ta Jose, hiruek lagun nezazie astu hunen gaineat igaitea, eta berriz ordian bolaiakiarekin[59] abiatzen da beste aldeat.

−Ez denek batean pusa!

53

E12-01 BI BEIZIK EZ

Habo(r)o ixtorio bano arrazũ, bákizü, arrazũ bat züzün, heben gizon bat khorbollo egile züzün. Khorboilũa, ezi belar ardier jaterat emaiteko, [turkia][60] khorboilũa deitzen düzü xiberütarrez khorboilũa, nün e belar ezarten beita, geo arrastelliaz ardier gi(b)ilat[61] emaiteko. Halako egile züzün. Gük egiten diagü ürrütxez, eta ingürüak gaztañatzez. Eta gizon haik halako xantza bazüzün. Saśũa züzün

[59] Oldarra, bulta.
[60] Ez dut hitz hori ongi ulertzen.
[61] Gibera, atzera, berriz emaiteko.

larrazkena, eta Donajuneko merkhatila, hala zen historia e, Donajuneko merkhatin izanik züzün eta ilhiak e biltzen zititzün, ilheka, ardi bixkarrai ilhiak biltzen zititzün eta geo, oai daoz heben Kaozoko kooperatiba hortat, aintzina eman zin be(re) lana kooperatibak egin dezan, khaminüetan ilhien biltzeko.

Egün batez, Müsküldiko herrin igaiten zelaik, justo ilheka züzün. Labora(r)iak oro juntatúik plazan ilhien ekharten. Ilhik kargatu ondun, auzuak ogi eta gasna ekharten ostatian, bi botila ardoekilan laborarier emaiten zen, eta pakhatzen segidan ilhia. Orok mahañin zien ogi ta gasna jaten, ta:

−To, hor dütük egun labora(r)iak egün ilheka die, ekhüratüko düt horien ikhüsteko.

Ekhüratü züzün. Oro jarri zütützün hemengo harek zerbait khontatüko dik eta txüti züzün ez ziozün ihũrk erraiten ez jartez, to godalet bat hartuko dük ardo txorta bat. Ogi ta gasna puxigo bat janen, ez ziozün ihũrk e erraiten, ari zütüzün oro haidü[62] zerbaiten, eta betik amiñi bat elhestan. Eta ez sekülan ihũrk ez phü edate(r)a emaiten, eta erraiten diozu kantüko laborariai:

−To hor dütük.

−Egun jurnala ikhusi düka hik?

−Ez.

−Ixtorio drole bat agitü dük Maulen. Mitxalotan (etxe baten izena) behi bat erdi dük. Hiru xahal, behi bat erdi dük.

−Ze mirakülia!

−Solamenté hirü xahal ekharri tik!

−Hiru xahal! Eztük üsü agitzen eh! Behi batek hirü xahal! Eta badiat arrenküra behiak eztik bi titi baizik, ah bon! Eta ordian hirugarrenak zer eginen dü! Nik egün egiten düdan bezala, so eginen bestiek edaten!

E31-05 BI BEIZIK EZ (II)

Apezak ai xutxun baskaiten, eta iten xutxun egur bazkaria, beren egurra apezari emaiten zienak egun batez gomitatzen xitxin bospasei jendek xitxen egurra emaiten,

[62] Zerbaiten zain, haiduru

emaiten urteko egurra. Baño bat etxixien gomitatu bazkarirat eta hak ere egurra ekarria xitxin eta apezak ez hura arrunt gustukua. Ta joan txun harat bila, joan txun harat han zielaik eta bestiak hola bazkaiten ari ta emozu ransainamendu bat jaun erretorari:

−Behi batek sortu dauzkit bi ahaxe ta justu-justua eztu titi bat baizik ta bestia ernegatua tu.

−Oh! Soizu makur handia da hori, makur handia. Ta ze inbehauzu oain?

−Egonin oain ni bezala, bestiai so eonez.

54

E12-05 BERTZA

Santa Grazin e bazüzün bi aizo, herrian bazien bi aizo eta batek erran zon bestiai:

−Errak bena hi, izan hiz gure etxen, etxekanderiak nahi zian urdanka ai, eta urdankako bertza galdu diagü, eztakit hik nun den?

Urdankan, bakizü tripotan egiteko bertza handia. Bertza galdü diagü. Mesfida züzün ebatsi zola eta ari ziozün, eta nun da?

−Ah! nik eztakiat, ba nik eztakiat ez nun dan.

−Emaztiak erraiten die hik eskietan ükhan diela, eta eztila geroztik haboro atzamaiten, eta nula?

−Eztakiat nik, eztakiat. Kasü ez dianez hik hartü.

Aharratzen tützü phü, azkar ttipia aizük.

Honenbestin erraiten dü:

−Bena ez badük nahi aitortü, nik eramanaziko hait hi barne harekilan. Hik hartürik diaigü bertz hura, eztik bertzek hartü. Hik hartürik diaigü bertz hüra.

Jün zütützün phü Ulu(r)a[63] jujian antzinila, deitu zizün bestik eta xuxen etziren bestik xehe ardit. Ez, ez, haik etzila bertzik hartü, haik etzila bertzik hartü, jiten ahal ziela etxea, eta haik etzila bertzik, eta haik etzila bertzik. Jautsi zizien han düdüka bena ez ziozün deusik aitorrarazi ahal izan. Eta jüjek erran ziozün:

−Bena zihaüren artian arranja zite. Ordin atzaman ezazie, bena nik eztüt gizun hau aküsatzen ahal. Hau net segur düzü eztila bertza hartu eta nik eztiot horri emaiten

[63] Oloronera

ahal deuse mespretxuik e, zeren ezpeitut aski proba horrek diela hartü. Ordin arranja zite zihauren arten.

Bortan elkhitzian bestik erraiten diozü, zoiñek bertza galdü baitzin:

−Junes, Junes Jinkua, hik gizontarzüna galdu dük, gezurran berma. Gizontarzüna galdü dük.

−Bai, ta hik aldiz bertza!

E19-07 BERTZA (II)

Kontrabandista, xangoluxia erraiten zakotzien. Ta kobreak, esnean egosteko supazterrian, kobreak nimiño batzuk, biltzen zitzin bestienak urtian, ta gero handik higatu eta berea emaiten xitxin.

Ta delako xangoluxiak, ukatu xakoxun pertza, eta Iholdiat deitu zin tribunaleat, mezkinak etzizin paperrik gabe emana ziela, eta gero delako zangoluxea eskualde gainean duxu.

Ta mexkinak gibeletik.

−Ha gaixua, gezurra egin duk, juramentu eginik. Galdu ek arima

Ta bestiak gibeletuta:

−Ba, hik e bai bertza.

E29-08 BERTZA (III)

Irudiz egiazko ixtorioa da:

Bakizu bertzak iten zien kobrez leno eta bazen kobrezko eta bertzak saltzen zituen Donapaleuko karrikan gizon batek. Eta gero elekaria zen biziki, elekaria zen eta denbora galdu zuen pixkat norbaitekin, ustez bertza salduko zuen, eta harekin eleka ai zelaik, beste batek bertza hartu ta joan zakon, ta geo afera auzian ezarri zakon. Eta bertza, seur zen haren ustez harek ebatsia zakola eta gero joaiten dira auzirat.

Denbora hetan, oain etxea dute, eztakit biziki diferentziaik baden, Donapaleun bazuten auzitegia.

Ta geo, auzian besteak ukatzen zuen, ukatzen zuen eta auzia gaineko gela baten baitzen, exkaler beheiti heldu zelaik, erraten dako bertza galdu zienak, bere ustez ohoinari:

−Ai, Zombatekoa! Galdu duk kontzientzia!

−Ja, ja! Ta hik bertza!

55

E13-11 OLHAN TXAKURREN IXTORIAK

Lehen gazte bat heltzen zelaik olhaat, behar zizün eta uren txerka juan, eta olhan sartzian erran "Bededicamus". Ez bazien hua erranik, ura urthükitzen ziazün eta arraurka igorten[64].

Eta ordin bat jun züzün, ez baitzizün erran "Benedicamus", ahatzi zizün, etzakizün. Arrabaduzü eta geo beste xahar bat bidian ikhüsi zizün eta erran ziozün:

−Zer?

−Oh! Ura erran ditate zikin zela.

−Oh gaixua! Aski dük arra bete ezak eta barnean pixa egin ezok eta sartzian erran ezak "Bededicamus".

Bon, hala-hala egin zizün eta "Benedicamus" eta.

−Ah! Ah! Ur hau hona dük, hau bai!

56

E13-12 ORAINO EDATEN

Eta beste behin eta erran ziozün, bazüzün xahar eli bat gazteendako gaxto e lehenago, ez oro eh! Erran ziozün:

−Xakur hau edanaraztea eraman behar nauk errekalat

Eta e(r)aman ondun erran ziozün:

−Edan din?

[64] Berriz ere ur bila igortzen.

−Ez anitx, ez ez züzün egarri.

−Bon, bon, bena arrabadua.

Arrajun züzün eta errekara heltü zelaik, gizon xahar bat han bazüzün nigarrez eta zer?

−Oh! Txakurra iadatea[65] igorri nizün, ez dizü edan nahi eta oi e ez dizü edan nahi.

−Egon ai, ai.

Ordin harri handi bat esteki ziozün kordai eta phützü handi batetat urthüki eta ordin harri behera jun züzün eta zakurra e bai zolala.

−Oain erranen beitaik edan dinez −sartzian erran zion.

−Bai, bai eta oano edaten ai düzü.

57

E13-13 KAKOILA AZTALIAN

Herriko langile bat jün züzün, bidian oihan xahatzea eta herriko me(r)a jün ziozün ikhustea eta:

−Hai haiz.

−Eta bai, bai.

Eta elhestan ai zütützün eta bazüzün kakoil bat bide erditan.

Eta palaekin kakoila lehertzen deizü eta erraiten deio merak:

−Zer dük, kexu hiz ala zer?

−Kexü? Ta bai bai!

−Eta zer dük?

−Goizaz geroz aztalian dit![66]

[65] eradatera
[66] Alegia, ez zela gehiegi mugitu.

58

E15-03 MANDOA ETA PATARRA

Gizon hoi joana züzün merkhatütik etxeat mandüeikin, eta karreta, bakizü, ibilin mandüan ibilin, eta mendin igan zian hünat jiteko, eliza aintzinin badüzü patarsko bat, eta han ertsi züzün gizona, mandüan pausarazteko, patarra baitzen. Jaitsi züzün. Eta peko aizo batek, oihu egin ziozün:

−Hau, goiz hüntan eman bahũ saldai puxi bat mando horri, ordin aidin tiratüko gendin.

Eta bestia gaitzitü, bestia bakizü, etxezain zütüzün hemen Altzü(rü)kün, eta ez sos anitx eta mandua bai mentuz, ez azkarregi-edo, gaitzitü ziozün. Eta badüzü pin han urdantegi bat, deitzen dizügü, urdi egoiten den lekü, eta hãn, behera so egin zizün eta eman zizün gizonai arrapostia:

−Baduk errana, eztela urde xahüik gizentzen[67]. Bena hak zian ihardets: −"Zikinak e ez dütük egiten"[68].

59

E15-08 MERKHATÜ IXTORIOA

Mando baten soz züzün gizon bat merkhatin. Eta ikhusten dizü mandu hun bat saltzailik interesatuik zena, interesatuik zena gizona, eta beti üngürü, ez ausart eta, aldian eta:

−Interesatuik zia? Mando hunek interesatzen zütü?

−Bai, bai, bana zombat da prezioa, bai interesaturik nüke, bana badiat problema ttipi bat, ez diket ahal dena arrunt pakatze.

−Ah, baina hori ez düzü problema, hoi arranjatüko gütützü. Erdia aski düzü oain pakatzia eta geroko aldi batez beste erdia pakhatüko düzü.

Bon aferak iten ditzie eta handik merkhatü bat igaiten düzü, beste bat igaiten düzü. Gizona ikhüsten züzün hola, bena ez züzün üllantzen sobera. Eta gero behin aski hüllan züzün, deitzen düzü.

[67] Gotzon Garatek bildutako errefraua (13018): "Urde garbirik ez da gizentzen".
[68] Alegia, urde zikinak ere ez direla gizentzen.

−Eta ordin mando hua, ze heinetan dügü? Üntsa da?

−Ta baaa, ez sobe(r)a, ez sobe(r)a, triste egoiten düzü, besteekin ez düzü sobe(r)a untsa jiten eta, buria apal egoiten düzü trixte, eta ez düzü sobera üntsa.

−Nik badakit zer den! Haik ahalkian düzü. Beste erdia pakhatü ondün, haik ikhusiko dizü haik buria altxatüko dizü, beste erdia pakhatu ondün. Ordün ahalkia iganik dükhezü!

60

E17-03 MÜTHIL JOAN

Usaia züzün heben, eta nik uste probintzia hotan e.

Müthil bat nahi zelaik etxe bateta akordatü edo jin Jondoni Martin züzün zea, egüna. Jondoni Marti züzün Aza(r)oan hameka eo zerbait holako düzü. Ordin züzün eta zertzen, akordatzen (erraiten nin bezala). Eta müthil bat jin züzün harat eta akordatü beharrez nausiai eta.

−Ba, bai, hemen biziki üntsa hizake. So izak (gora züzendüz), baduk xingarra, baittük tripotak, baittük lukainkak, bauk eta, denetaik baük hemen, eztau goseik.

Ta geo müthilak erran ziozün ta:

−Aintzineko müthilak ükhan balitü, ez zitükezün heben gehio.

61

E21-07 ALEGIA

Igandero aitzen baitzen behiekin, bi auzo baitzien elgarri hurran, ta auzua gelditu zen atsaskaria egiteko, ta bestiak ez zeukan jatekoik, atsaskariaren egiteko ta erraiten dako bulta baten:

−Gu e geldituko gaituk atsaskaiaren egiteko.

−Ta zendako?

−Alegia atsaskariaren iten aiko gaituk.

Bulta baten burian aizo batzuk partitzearekin bestiak e partitzen tuk. Ta bulta baten burian nausia ohartzen da, atsaskaria jan ez zuten ta nausi hura ohartzen da, bralanta[69], bakizu ura uzkailtzekoa, bate ez ziala eiten.

−Eh, mutiko ze ari hiza, berrant hoi hutsean duk.

−Goazen aintzina, alegia ihaulden aiko gaituk![70]

62

E22-04 NAGUSIA ETA ERBIA

Behin nagusia ta mutila ai zien ihatze pikatzen tailuarekilan, segarekin, edo biltzen biltzen ai zien, ihatze biltzen. Ta bazien ihiztariak urrunau ta tiroak aitu zizten, ta buria altxatu zuten ta ze in zuten, ikusi zuten erbi bat aldo−maldoka heldu her buruz eta nausiak errezteluarekin eragin hundarrean hil zuen eta ihizea espalaren azpian gorde zin.

[Erran zakon nausiak: "−Ze asia behar dutan nik seurik!"][71]

Ta ihiztariak etorri ziren eta baitzekiten noratsu joan zen.

−Zuek eta ikusi duzue hemendik erbirik pasatzen?

−Ez, ez, ez, etzutela ikusi ez. Alta hunat etorria da, hunat jina da ta mutilak bazterretikan.

[Ah ez, aintzinean errana zakon nausiak: "ze asia behar dutan nik seurik"]. Ordian mutilak ihiztarier keinu iten tzien, han zela erbia gordea, ta aldaatu zuten eta ihizia aldaatu zuten ta erbia han atxaman tzuten, ta ondio erbia bildu zuten ta nausiai alimaleko zartaldia eman tzakoten. Jo zuten ta erbia eraman zuten.

Ordian mutilak erran zakon:

−Ze zanpaldia bildu dukan hik seurik!

[69] arado.
[70] [lur itzultzen, uzkaltzen ariko bagina bezala ariko gaituk!]
[71] Ahaztu egiten zaio esaldi hori kontatzea. Esaldia aurrera pasatu dut kontakizuna ordena logikoa izan dezan.

63

E22-20 EIHERAZAINA ETA PREFETA

Eiheralarreko gizon batek kontatua Ameriketan.

Herri batean bazen kontseilia, bazen mera eta kontseilia. Eta merak eta denbora hartan frantsesik ez zekiten eta frantsesik nehok ez zekin eta joan zin eta herri hartako alkateak ukan zien mezia, prefetak igorri zion mezia baizik eta behar zila jin haren herrira eta behar zitila haren kontseiluko lagunak eta behar zitila ikusi. Ta bon holako egunean jinen zela. Ta gero bon gure gizona, hori sekretarioak erran zakon, berak ezin ta sekretarioa gelditu zen hor, frantsesez, ta eskuarara behar zuten hor, ta gizona arrunt kexu gizona, gizona kexu nola in behar zin harekin, frantsesik ez zekin. Eta oroitu zen herri hartan bazela eiherazain bat, debruia berekin zitina ta harek frantsesa bazekila ta:

−Ta ba hari galdeinen dakiat, harek mera balitz bezala, beharbada harek ulertuko duk hori, bestia joaiten ahal dela bena berdina duk. Joan zen errotaria ikustera eta kontatu zakon bere ixtorioa, nola prefeta jin beharra zen, eta ea faborez harek haren ordaingoa harek inen zin.

−Baietz, baietz segurki hortaz aise inen dut hori.

Ta ez zela kexa. Ta bon, jin tzen hura eta merak erran zien bere kontseiluko gizoner:

−Untsa beztituik joan zizte eh? Behar den bezala.

Ta ordian gizona meraren kostuma bitxiekilan, bere floka xuriekilan, eta atorrako botoinak eta denak urrezko botoinekin ta beren mustatxekilan. Ta bon, horra jarri ziren herriko etxen aintzinean, eta etorri zen, eta karrosan etorri zen bere mutilarekilan.

Ta jeusi zen handik ta beraz, delako eiherazaina zeukan aintzinean, bertze guzien aintzinean hura zen. Ta hari hasi zitzakon:

−Bonjour monsieur le maire.

−Bonjour monsieur le prefete.

Ta hasi ziren hizketan elgarrekilan ta gero gure eiherazainak ere ezpaitzin gehio oroitzen ahal, frantsesik ezpaitzin gehio furnitzen ahal.

−Je ne suis pas moi le mere ici.

−Alor, qui est vous donc?

−Moi, je suis le menuier de la commune, voila mes ânes ils sont là tous derrière moi.

64

E25-07 MUTIL IXTORIOA

Ortzaizeko edo etxe batean, laborari etxe batean baziren hiru mutil. Etziren nagusi onak eta mutilak bestaldekoak ziren, eta urte oroz, pagamendua etorri zen urtean, hirurak hitzartuak ziren etxe hartan etzirela gehiago egongo. Batek zuen izena Juan, bestiak zuen izena Ozta, ta bestia Mikele. Eta nagusia etorri zen:

−Hau Juan, hau Ozta, hau Mikele.

Ekarri zion urteko dirua.

−Hara ekartzen diat dirua, eta zer diok Juan.

Eta bestia:

Nik behautela etxe huntatik joan.

Uh! Ah! Bestiari eman tzion dirua. Hi Ozta?

−Nik soldata har ta trosta.

Eta Mikele, hura gaztea zen. Eta hi Mikele?

−Ah! Bertzek egiten dutena nik ere.

65

E27-05 ASTOARI XISTUKA

Lehen Etxahunen garaian, Donapaleuen zen tribunala eta Santa Graztar bat zen tribunalerat deitua eta han beste batekin zizün afera, ez dakit Atharraztar batekin edo ez dakit. Atharraztarra eta jujeak han ziren epai−etxearen, Palace de Justice, antzinean aiduru. Eta hura etortzen da astoan gainean tipi-tipi, jajajaja…irriz denak. Eta juje batek edo abokatu batek err(a)ten dako, astoa pausatzen eta juiten da Santa Graztarra:

−Jajajaja… jin zera astoan gainean.

[Bertzeak zaldiz etorri ziren]

−Bai, astoan gainean [irriz], bena biziki interesante da ene astoa.

−Ta bai?

−Soizu.

Txistuka hasten zaio.

−Bena ez du entzuten? Zu xistuka!

−Zendako behar dut hola bortizki xistu egin, astoak hain hurbil direlarik?

66

E27-11 ARDI KUTZU

Kanpoan dira mutila eta nagusia. Bai, lehenik goizian (hau Garaziko istorioa da). Astelehen goiza eta etxekanderiak err(a)ten du senarrari eta mutilari.

−Bo, ardi buru bat ezarri dut egosten, hor, da kanpoat joaiten zizte laneat, bena behar duzie oren guziz jin eta altxatu dupina, ikusteko nola egosten den burua.

Bo, kanpoan dira lanean eta err(a)ten dako mutilari nausiak, err(a)ten dako ta, bon.

−Ha(b)il etxerat eta so egin zak nola, zertan den gure bazkaria, mutila joaiten da ta altxatzen du zera, ta zup zupzupzup, zup zupzupzup, zup zupzupzup. Artzarran[72] burua han, zup zupzupzup, zup zupzupzup, zup zupzupzup!

Maite zituen begiak, ni baino, begiak, ta ganita hartzen du eta antzarraren begia mozten du eta jaten begia. Lehen denak jaten ziren, eh! zerian eta hola, begia jaten du.

Joaiten da eta lanean ari dira eta mutilaren nausiak err(a)ten du eta bon! Ni oain joanen nuk eta hadi antzina, eta nausia joaiten da eta zup zupzupzup, zup zupzupzup, eta ateatzen du estalgia, zup zupzupzup, zup zupzupzup.

Eta ikusten du burua begia faltan, eta mihia halaxe [gorantz bezala, eskuarekin]. Ganita hartzen du eta kak!, mihia mozten eta jaten mihia. Bo, joaiten dira berriz, lanerat eta eguerditan etortzen dira biak, biak eta nausia so bazkariari, nausiak estalgia jeikitzen du eta ah!, ah!

[72] Ardi zaharraren= arzaharraren

−Ardi kutzu, ardi kutzu, begia non duzu?

Eta mutilak:

−Mihia emaiozu, berak erranen dauzu!

67

E29-17 BERUAN AZKAR

Hori zen eta mutila, eztakit zuen eskualdetan hala dan. Laborarian haurra balinba. Gero ordian eta hemen ordian iten zen urtia, urtia behar zen egon mutil. Oain hilabeteakin batea dia, ta ezta gaizki, ta hobe. Gero ordian, heldu ziren eta mutilak lekuz aldatzen zielaik, jiten zien auzo batetat, eta iten ziuzten urteko soldatak eta prezioa eta geo, eta geo mutilak nahi baitzuen bere buria balioan eman eta errten du nausiari:

−Joan zitela ein keta eh! Ni beruan azkar niz.

Beruan azkar zela, bon. Gizonak ezbeitzien ordinateurrik, bena hor bai zien bere ordinateur ttipia [burua seinalatuz].

Ta errten die :

−Bo, untsa da belarka aiko dielaik, belarretan eta bero izanen delaik, mutiko horrekin ez diat probremaik izanen, eta ho(r)i aiko da bero izanik e!

Ta heldu da uda eta hartzen dira segakin belarra pikatu, ta geo harrotu ta berua, bero, bero ta geo ta geio ta nausia ere hasi zen pixkat beroa hartia zen pixkat ta:

−Ze ikusten duk?

Eta bere mutila itzalea joaiten zako. Ta ah!

Lehen eiten tu pentsaketa: "Zer datan erranik horrek? Beruan azkar zela?".

−Errakik Manez. Zer errana atan, akordioak in ginituelaik?

−Eniz ooit ez?

−Errana atan, beruan azkar hintzala!

−Ba, salda beruan.

68

E39-02 ASTO BAT

Beste ixtorio bat gertatia dena Irisarrin:

Irisarri bide bazterrian bazen haur bat. Eta egun batez haur hura ai zen asto baten ferratzen. Ordian laborariak ibiltzen ziren aroztegian, bat aizkorarekin, bestia aizkorarekin eta generalian pinterdi bat arno nonbaitetik hartzen zuten, arno xorta baten edaten ai zien, eta arotza ai zen mandoan ferratzen eta arotza ai zen mandoan ferratzen, eta bideari goiti heldu da Irisarriko jaun erretora, ezautu dudana, bere otoitzeko liburia leituz, bunetan gainetik hola behatzen du, eta errten dee:

−Asto ainitz.

Ta haurrak arrapostia.

−Ba eta beti heldu, jauna

E42-02 ASTO BAT (II)

Gizon batek igortzen du bere semia, arrunt gaztia alimaleko zaku zaharra bizkarrean ezarririk, hemen ezarri zakon lepuan gainean. Ta er(ra)ten dako:

−Apezaen etxeaino joango haiz, ihun gelditu gabe, hihaun zakia erortzen baldin bazauk, ez duk berriz altxatuko.

Ba bana haurra abian abian, gehio zaku zaharra ezin atxik. Botatzen du bidian ta etxe behan zon. Ta hainbestenarekin heldu da beste gizon bat:

−Ze ari hiz beste aldiz han bean

−Aitak igorri nuk zakur zaharraren eramateat etxeat, bena nik gehio nihundikan atxik zelan.

Gizonak erten dako:

−Bo, ze tristia! Altxatuko deat bizkarreat.

−Ez, ez, bon untsa, nihauk emain deat.

−Zer dok hire aitak bestenez, oi tristia hi igortzeko zakur zahar hunekin!

Ta haurrak erten dako:

−Ba, aitak errana zaun, mentuaz bidian harrapatuko niala asto bat!

E44-01 ASTU BAT (III)

Bazütützün Lakarrin familia bat beno haboro aphezarekin, bena bat, bena bat phu bai zinez, Etxeberrigai deitzen zizün eta aphezaekin aharra zütützün, ez zütützün elhestatzen eta ordian semia etzizün igorten ez kateximalat, eta mezelat e. Eta ordian aitak astua bazizien etxe hartan eta astua galduik baitzien aitak igortzen dizü semia astuan txerkatzea eta ebilten ai züzün astüan txerkatzen eta aphezak liburuaren irakurtzen kürütxatzen dizü. Eta aphezak erraiten dako:

−Norat haiz Petti?

−Aitak igortzen nizü eta astüan txerkatzea.

−Ah bon! Nik bat ikhüstean diat –aphezak erraiten dio.

−Nik e bai, bena guria grix düzü.

Erran nahi zizün apez hura beltz baitzen sotanaekin zela, ta guria gris da.

69

E40-05 EZ BIEI BATEAN

Bankan (bihamonean banindoan "a la mili“) Alduden bazen besta bat eta Bankak bazen ostatu ttipi bat ene koinatan arreba zen hango etxekanderia. Eta han etzan nintzan atsarretan. Eta ene koinataren aneia ere han zen, elgarrekin ginan. Eta Bankar bi gizon xahar, harrapatu gintien han Aldudetik gi(b)ilatekoan, afaiten ai ziela han. Brasa bezain bero, berotiak. Baño alerta zen, arina, gizon arin bat eta bestia gizon pizu bat, gizon haundi bat eta maingu.

Gu ere afaldu ginen, afaldu ta ofera joan ginen. Ta leihotik beha ginauden, ganbarako leihotik kanporat, zan argi ttipi bat borta aintzinian ta beha ginauden kanpora. Eta hor entzuten dugu, beo exten zutela eta joan behar zela. Bo oain etxeat biltzen die. Delako koinataren aneiak:

−Behar dau ikusi ze manera ibiliko duten.

Kanpora sakatzen dira eta gizon hura maingu hura. Erraten dio bestiari:

−Hi ekarrak ene mando hura.

Mandoa uzten zuen ez urrun, berrogeita hamar metro urruno bazen estable ttipi bat. Hartan uzten zuen.

Joaiten da mandoaren txerka eta heldu da mandoaekilan eta sartzen du han ostatuko borta aintzinean mandoa. Eta erten dako:

−Hi, mandoa hor duk, igan hadi!

Deja maingu, segurtadian niz denbora normalean behar zila murru baten gainera igan igaiteko.

−Igan zak mando horren gaineat− erraiten dio besteak.

Eta kaderak baitzien ostatuan kanpoan. Kadera bat ekartzen dako mandoaren ondora. Eta:

−Igan hadi kadera horren gainerat.

Eta hola betik gora so jartzen da eta bi eskiak jarriz.

−Jainkoa eta Andre dena Maria, lagun nazazie mando honen gainerat igaiten.

−Igan hadi kadera horren gainerat. Ez diagu gaua hemen pastuko eh!

Kaderan gainerat igan zen. Laguntzeko bi izterrak hartu zazkon. Lagundu zuen petik gora. Hainbestetan lagundu zuen, balantzarekilan mandoan beste alderdira erori zen.

−Segur min hartu dila ta!

Ixtant bat lurrian egon eta bestiak ez zin deuse erraten, delako haren lagunak. Puxka baten burian gizona zutitzen da. Ta petik gora so jartzen da ta:

−Bainan ez biak batean!

Jainkoa ta Andre dena Mariai galdeina zien laguntza.

70

E45-12 ABILA ETA TONTOA

Aldi batez bazen gizon bat bere ustez denak zazkinak eta gertatu zen tonto aluia zen artzain batekin. Ta hari erran zion harek denak bazazkila ta demostratzeko emain zakola abantail bat. Ta beraz, zoin?

−Zuk ez dakizun galdera bakotxandako, nik galdeiten dudan galdera bakoitxantxako zuk ezpadakizu, eman behar dauzkitzu hamar pezeta. Ta nik ez dakiten bakotxandako nik emain dauzkitzut ehun pezeta.

−Bon d'acord, d'acord ina. Ados.

Ta galdera iten dako.

−Hogei metreko zubi batek hogei toneladako karga atxikitzeko, ze loditasuneko burdina ta zenbat burdina ta zenbat zimenta behar du.

−Ta nik holakoik, nik ez dut erraiten ahal..

−Bon, bon hori hamar pezeta.

−Bon oain zuk in galdera nei. Arbola bati goiti igaiten denean animale bat, goitikoan baditu lau pata eta behetikoan eztu biga beizik.

Eta denak zazkin harek miatzen du, Europako alimaleak nola ziren: Asia, Afrika, Amerika, Ozeania ta etzuen atzemaiten.

Ta erten dio:

−To, eztut atzemaiten nehone holakorik. Tori ehun pezeta! Bena nahi nuke jakin ze animali den hori.

−Nik e ez dakit. Tori hamar pezeta!

Ustez tontoa zen horrek irabazi zazkon lauetan hogoi pezeta, ustez abila zenari.

71

E16-37 ERTZOA

Ertzo batek lagun bat salbatzen du ithotzetik. Directurak ohuratzen du:

−Biba hi, lagüna salbatu duk ithotzetik hiaurk ehakilarik igexkan.

Ministroua horra dük, hiri medalla baten ezartea, bena eztiagu kounprenitzen zentako tzilintzautu den. Tzilintzautu dela dio ertzoak?

−Ezarri nüzü idortzea.

72

E22-08 ARGENTINAKO ESNE-SALTZAILE BATEN IXTORIOA

Bankarra zen gizon hura, ta Argentinan bere lana zin, esne partitzen etxetan ibiltzen zen ta hauteman zitin bi emazte solasean ari zirela. Baten etxea, ta geo bi emazte eleketa han. Ta gero entzun zuen erraiten ta kasu eman zien zer erraiten zuten.

−Oino, oino fite esnia suiaren gainean utzia dinat.

Delako Bankar horri izengoitia ezarri zakoten Aguatero.

−Ta ordian erran ta nori erosten dakon esnia?

−Ba Aguateroi.

−Ba, uzten ahal duk gustian, ez haite gora joanen.

Amerika hortako esne saltzaileak esne sailtzaileak
Libertizioneko parerik gabeak
Giristinotasuna dira ikasiak
Bataiatzen dituzte guziek esniak
Eztira enpexatuko haur sortu berriak

Erreport egitera goizetan bagoazi goizetan bagoazi
Beren karruetarik einez zombait jauzi
Bati hartu eta bertzeari utzi
Karroan ura frango bainan esne guti
Irakiturik ere eztuk joaiten goiti

Erreport egin eta xuxen ostatura xuxen ostatura
Joko beretik bizi direnen lekura
Erranez saldu diat esnearekin ura
Aisa kenduko dio gaineko gordura
Ez dik balio ezartzea irakiten sura

Ostalerrak iten du bere baitan irri bere baitan irri
Urak emanak urak kenduko dauk hiri
Keinu egiten dio bere mutilari,

Hik ere joko bera egizok arnoari
Urez ase on bat eginik doan sarri

Horietarik zonbait direnean hiltzen direnean hiltzen
Debruak lepotikan ditu harrapatzen
Eta gero Jainkoak handik ateratzen
Ezpaitu nahi sekula infernuan sar diten
Beldurrez hango sua urez hil dezaten

GORDINAK: SEXUA AIPAGAI DUTENAK

73

E2-01 EGUN ON

Apezenak? Ez pullittak…

Len bazuten apezek, beti andre bat berekin. Bakizu, lan iteko ta. Bazuen apaiz batek bettoin bat, behia, pentze batean.

Ta beste gixon xahar batek, antxuxka[73] batek bazituen bida, ta behiak ziren nahasten elgarrekin. Ta apeza bila beti nahi zitun behiak bildu beretzako.

−Ta bon, ba(d)akik zer in behar dun hemen, behiak nahasik, ta behar duk sartu bat in.

−Ta zer in behar dugu.

−Ta bon, lemiziko nere leiho azpitik "egunon" eiten duanandako.

−Ta nik eiten badut leihotik "egunon" neretzako behiak, bestela zuretzako.

−Bon, ongi da ba.

Andrea han zeon ta apezak, horrek, gelariakin, (hemen neskatoai gelaria erten zako) eiten du lo apezak. Gizon gaizo hori joaten da ta zulubia[74] hartu (leihora ioteko zulubiak) hartu bizkarrien ta zeatu zulubiak, leiho azpian hola, ta eon leiho azpian, begira.

Heldu da gelarie, lo iteat, ta handik ixtant baten buruko apeza. Ta behar zutela xixkun egin.

Ta erraten dako apezak:

−Zer duzu hori?

−Erroma.

−Ta zuk zer duzu hori?

Ta −Aita Saindia.

[73] Antzuxka, zahartua antzu xamarra zela?
[74] Zurubia edo hormako eskailera.

Ta in ber zutela Aita Saindia Erroman sartu. Ta gizona, han dao, zulubi azpian geldi-geldia. Ta gizona txixka ein zutela ta.

−Ta bon leihoan goizik gizon xahar bat etorri behar. Behar dauzku behiak kendu. Behiak behar titut nik.

Ta baietz gelaria ta biek erten zien. Leihoa jist! irekiten du ta:

−Egunon Jaun Ertora!

−Han zinela aspaldi?

Ta −Bai, zuk Aita Saindia Erroman sartu duzulaik.

E21-04 EGUN ON (II)

Gelariarekin ikusi zin eta egun on iten dako eta auzoko laborariak. Eta entzun zitien laborariak apezak gelariari azpitan taunpika ari ta hola. Ta gero lekura joan zela goizez eta oh! Andredena Maria, nahi duzu Jesukristo ezar dezaun hor?

Ta gero ordian zabaltzen du leihoa ta bere lagunak:

−Egun on!

−Oh! Ta zu deja hor!

−Bai, Jesukristo Andredena Mariaren etxean ezarri baino lehen!

E22-07 EGUN ON (III)

Hori ere beti Fernandoren ixtorioaren gainean kontatzen dute hemen.

Delako gizon harek apostua in zin zeinek lehenago erran “Egun on” apezarekin. Ta apezak gelariarekin ta eztakit, ta zulubia ezarri zitin ganbarako leihora, ta han zagon, ta gero han ikusi zitila beren zeretan, “egun on” egin zin.

−Noizdik? Noiz ezgeoztik?

−Zu Erroman sartuz geoztik.

74

E2-02 APEZAREN FROGA

Bertze baten apez bat ibilki zen neska batekin puxka bat. Izorratu zin ta gizon gaizo batekin esposarazi. Gizon zahar batekin. Ta haurra sei hilabeten burun sortu zen.

Gizonak andreai erran zakon, sei hilabeten burun etzela haurrik sortzen. Sei hilabete zituela.

Ta kalapita pixkat izan zuen eta erran zakon andreari:

−Oain gizona bizi-txarra ematen ai da, ta « haurra ez dela enea, sei hilabeten buruan ». Uiuiui..

−Nik konpondu(r)en dut, bai, afera hori.

Arrantzari eman zen gizona, arrantzan, eskuz, urian (amuarrainak harrapatzen).

Arrantza ein eskuz ta ekarri zitun arraiak apezari, ta hark konpondu zun earki.

−Hartu itut honenbeste arrain, sulutuki. Honetako ta honetako.

Gizon bat gaten da arrantzaat, ta heldu da arrainei, trenpa, ta gizonak ematen dako edaterat, ta.

−Uiuiuiu…Ez omen zara zu andreakin sobera ongi heldu?

−Nola izain naiz, lehen egunean ez nuen andrea ukitu ta sei hilabeten burun haurra sortu da.

−Ba, badie sei hilabetekoak, zazpikoak, ta zortzi hilabetekoak ta beratzikoak ere. Hori tresnak iten du, eh! Buxtanak...

Apezak erraten du:

−Erakutsi nolako tresna duzun.

Ta gizonak arrantza ari ttittar bat.

−Bo, hori sei hilabetekoa duzu, sei hilabetekoa !

Ta apezak ateatzeu berea ta [besoa mahai gainean zabaltzen du]:

−Ta hau da beatzi hilabetekoa !

75

E2-04 ARTZAINA OSTATU BILA

Artzaina, artzainak mendian egoten dia, ta etorri zen ardiekin beheiti, nekatue, elurrak bustia ta ezin gehio, ezin kurri, ta gelditu zan etxe baten galdetzen lekua.

Ta −baietz, bai −emain zakotela.

Ta etxe hortan bazuzten bi ohe, bi ohatze. Ta batean neskatoa. Haurra, neska, ta senar-emazteena. Ta hor, artzainai ez jakin nun ezarria eman.

Senarrak erraten dako emazteari:

−Ba, hau ezartzen al dugu Maddikin, ez du berdin fitsik einen, ez.

(Artzainak) −Ai, ai gaizoa, pixkat berotzeko ondo. Ta pixkat berotzeko ondo.

Ta Maddikin berotzeakin pixkat ernatu baitzen.

−Artzaina goizik partitu, ardiak hartu ta aire! Artzaina goizikan, da ama beira. Alabai erraten dako:

−Aizu Maddi!

−Zer duzu ama?

−Zer zineten barda, halako kitxin-katxaketan.

−Uo, uo! Bazinakizu ama, uo!

−Zer dun? Erran ba!

−Bazinakizu, ama! Akerrak adarra bezalakoa sartu da pixa iteko zulotik barnerat. Ezpalu pixa iteko zuloik harrapatu, tripak aterako zizkan.

Ta −Aiai! Ez al hau izorratu?

−Ez, ez, ama! Berakin joana du! Ateratu ta berakin joana du!

76

E3-05 TAULA ERDIAN

Herri batean eta apeza oindik gazte eta bere gelaria edo zerbitzaria, nola errten duzue zuek? Hura ere oindik gazte, sasoikua ta jende guzia eleketa:

−Bo, oiek elkarrekin lo iten ditek, eztuk posible denak ain eta...

Bazen auzo bat, hen auzo, apezaren ongi zena, eta noizik noizera tipoaren etxean edo apezan etxean eaten zuten baxo bat edo hola, kolpe bat eta.

−Bon nik exkatuko zioat apezai, nik lasai hitz eiten diat horrekin eta bakizu sanoa dek eta eskatuko zioat.

Egun batez hola baxo bat hartzen ari zielaik galdatzen dio:

−Eztakit jaun erretora, aittu duzun berri, baina jende guziak hitz eiten du zuk beizik eta zure nesketoarekin lo iten ote dezun eta.

Apezak:

−Ee, gela berian gaude, gela berian, gela batean, ohe berian, bena erdian emana dugu taula bat, taula haundi bat.

−Ah, bon! Baino Jaun Erretora, gutiziatzen bazaitzu?

−Joaten naiz kanpoa ta, bueltatxo bat itet frexkatzeat.

−Ah, bon! Eta nexkatoari gutiziatzen bazaio?

−Hura e joaten da kanpoat, ideiak eta freskatuik.

−Ah! bueno, bueno. Baño barkatu Jaun Erretora, baino bier betan[75] gutiziatzen bazauzue?

−Ordun taula joaten da kanpoat.

E8-18 TAULA ERDIAN (II)

Leheno herri batian apezkikia jina baitu, herri guziak behar zutila bixitatu apezpiku jin berriak, herri guzietako apezetxeak. Eta apezetxeat beraz jun zutzun,

[75] Biei aldi berean

apezetxe ñimiñiño bat, ta bixitatzen dixu, ta ganbera bat bakarrik, ta nexkatoa ere bazixun, ta galdeiten dio erretorari:

−Ganbera bat duzie?

−Ba, apezpikia, ganbera bat, ganbera bat, zer nahi duzu itia?

−Ta, neskatoak ganbera hontan lo iten du?

−Ta, ba, ez kanpoan uztekotz ganbera hontan lo iten du.

−A bena, ez kexa, jaun apezpikiari.

Bazien animaleko zakur bat, hunek bezalako zakur handi bat bazuten. Ta apezpikiari err(a)ten dako:

−Ez kexa, eh? Egun guziez, zakur horrek gu bien erdian lo iten du. Bi eskualdetaik.

−Ah, bon. Apezpikia harritia ta apezpikiak errten dako:

−Biak gizonak girade eta etzautzu gertatzen errabia batzuk ukaitia.

−Ta, ba, ba, ba, ba. Ordian ze iten duzu?

−Jeikitzen niz eta etxiari itzulia bietan iten dut, ta ezeztatzen baita, berriz etzaten.

−Ah, bon, ta neskatoari ez zako gertatzen hola-hola. Ta hak ze iten?

−Hak e gauza bera, jeikitzen da. Etxe itzulia egiten du, edo biga, eztakit, ta etzaten da, ta hola.

−Etzautzie gertatzen biek betan ukeitia ideiak?

−Ah, ba, ba, gertatzen da, gertatzen da.

−Ta ordian?

−Ordian zakurra igortzen dugu, etxen itzulian.

E9-04 TAULA ERDIAN (III)

Badakizu apezpiku bat pasatzen zen bere apezak bisitatzen eta bon herri hortan oso diru gutxi irabazten zuen apaizak, pobrea zen biziki eta ordian apezak erakusten dazko bere etxe barneak, ganbera bat beizik etzuen, eta ofe bakar bat beizik etzuen. Bena ofeko estalki pean bazen holako bizkar bat. Ta:

−Zer duzu hori?

−Hori taula bat da. Bena ni alde batetik eta gelaria bestetik egiten dugu lo.

−Eta tentazionea duelarik?

−Taula kentzen dugu.

77

E4-01 BEHIA JEIZTEN

Bazen Santa Graziko etxe batetan, laborari baserrian behi bat, etzien etxekanderiak beizik jaisten ahal. Ordian müthila gaitzitüa:

−Nula debrü egiten dün horren jaisteko!

Etxekanderia zeoaekilan[76] jeistera abiatzen eta kotak altxatzen eta behia mihiarekilan üzkia, eta geldi-geldia egoiten behia, eta gizona, müthila, borta gibelian. Eta badoa etxekanderiana eta sartzen kilikan. Etxekanderiak erraiten dü:

-Debrü paleta[77]! Mihia nahi badük, bena ez adarra!

78

E4-10 EZKONBERRIAREN JANA

Bazen aphez bat irakurtzen patxada(r)ekin bere herrian eta bazen neskenegünarekilan khantoiko mütil bat ezküntia.

−Ah! Nola ibili hiz! Bizi berrian üros zira?

−Bai, bai jauna, bostetan borrokatu düt! Uh! Uh!

−Ezta holakorik erraiten! "Barda bost arrain jan tit" erran beharra da!

−Bon, bon.

Eta bost egünen burian berriz.

−Eta ordian nola da?

−Oh aphez jauna! Barda sei arrain jan tit eta hain baitzen hun zartagina lekatü dit!

[76] "Zeo" frantsesezko "seau" hitza da. Aska moduko bat.
[77] Pierre Lhande: animalia adardun mota bat.

79

E4-11 GIZON TRONPATIAK

Santa Grazin emazte bat juiten kofesatze(r)a eta aphezak kofesatüta erraiten dako:

−Behar tützü egin hiru xapelet[78] eta behaüzü hamabost herri üngürüz egin huñez penitentziatako.

Eta senarra tronpatia ta lazgarriko penitentzia eman.

−Ze ai haiz hor?

−Penitentzien egiten, xapeletak eskian.

−Zer egin dün holako penitentzien ükhaiteko?

Ta senarra tronpatü düla birritan.

−Jo, gaixüa!

−Ni banoan, etxerat!

−Zer, zertan behar dün joan etxea?

−Bizikletan txerka!

[Ber ixtorioan bada bizpahirü molde, bata zeran ingürian bizikletan eta bestia:]

Pentsamendü gaixtoa ükhanik, xapeleta iten eta eskia beneditian barnan. Ta beste emaztia jina:

−Zertako hola iten dün?

−Aphezak erran dat behar ni(ti)ala eskiak xahatü, hor benedika, penitenta nintean edo.

−Uh! Horri egin banian kobesa hoi, ipurziloa beharko dit ezarri barnen.

[78] arrosario

E4-19 GORMANTA

Aphezküpia jinik Ligirat.

−Aphezküpiak erriza lazgarri maite dü! Arroza, erriza egina!

Jan zian erriza paketa, paketa, eta gero oheatü ondon eri zela! Oh!

−Othoi, bediziai telefonatü.

−Uh! Eniz uain jiten ahal. [zien aarti dü][79]. Erranen daüzüt zer behar den hari egin.

−Zer behar düt egin?

−Behar düzü sabela frotatü, frotatü, frotatü, frotatü, iragan artio. Eta ezpada hobeki jüiten arratelefona, nik eginen dautzüt.

Bi egunen burian bedizia. Ordian?

−Oh, jaun medezia, lazgarri ona züzün erremedioa!

−Üntsa frotatu diogü sabela, sabelpia eta gero instant baten burian, esnia jün ziozün!

E17-05 GORMANTA (II)

Bazüzün apheza eta gelaria. Apezak biziki maite züzün "errixa" (arroza) ta gelaiak prestatu ziozün errixa esniaeki. Hemen erraiten ziozün frantseses "riz au lait". Biziki maite zizün hua ta egiten dizü kaxola bat handixka eta aphezak jaten dizü dena.

Ta geo eritü züzün sabeleko mina ta hau ta hua ta biziki… apheza etzüzün üntsa bate, eta gelaiak etzakizün ze egin. Ohera lagüntzen dizü eta geo medezian, medikuan[80] etxea juiten düzü, erraitea jin dadin, ezpaitzen telefonaik ordin, eta bizikletaz han bazizün hurraner[81] juaiten bidia eta medikuan etxea heltü ondoko eta mediküa ez etxen.

Eta mediküai neskatük erraiten diozü:

[79] Ez dugu ulertzen.
[80] Hegoaldeko hitza erabiltzen digu, guk errazago uler dezagun.
[81] Gertu

−Oh zer da? Ta bon apheza han biziki eri zela ta mediküak arrunt[82] behar ziela jin eta artin zer egina zin eta medikuai neskatuk erraiten diozü.

−Bo, min badü, aski düzü fretatzia sabela ta guria(r)azteko ta digestia iteko, ta frota izozü üntsa. Ta baldin aphaxka e bai.

Ta bo arraberri bizikletaz jiten düzü ta hasten düzü aphezai fretatzen sabel hua ta apaxka e bai erran bezala.

Artin medikua heltu düzü geo, artin heltu züzün medikua bere xakoaikin[83] eta erraiten diozü:

−Ordin nula da eri hoi? Eta frotatü düzie üntsa?

−Bai, frotatü dit ba üntsa, ta nik uste esnia igorri din kanpon, errixa handi zuano!

(Sendatu zen segitun!)

Bo oi lodi die istoriok, lodi die.

81

E7-03 NESKA PUNTXELA BILA

Zahartia zen puskaat gizona ta ez zian sekulan puntxelarik atxeman, gizonekin sekula ez ibilia, nahi zian atxeman halakoa. Ta Baionan artzain zen neska (b)at atxeman zin, itsusia, arrunt itsusia!

−To −bere baitan− aur(re)nik ikusiko neuk e gilia!

Ta hasi zien beren lana egiten, ta emaztiak erran zakon:

−Nauzia[84] ipurdia pixkat altxatzia?

−Ez, zendako?

−Zenbaitek hala nahi dute!

[82] berehala
[83] Frantsesezko "sacoche".
[84] Nahi duzia

82

E8-01 EMAZTEA ETA APEZA

Gero etxe batean bazen, gertatzen dan bezala, andria ez zen sobera ados gizonarekin, ta beraz artetan jaun err(e)tora ere jiten zen harat. Ta, beraz, gizona egun batez, gorde hola zagon, ta beraz, gorde ta ikusi zin err(e)tora heldu ta andriarekilan goiti gan ta ganberan sartu, ta nausia segidan gibeletik eta apezak salto in zuen leihotik, eta orduan samatsak[85] egiten ziren, ta samatsan otia bazen lodi, ta gizona, eiten zen bezala hain segur egun guziz. Ta otia hedatu berria zen eta otiak xixtak baditu.

Ta apezak salto in zuen leihotik eta gizonak haren gibeletik, ta ikusten zuen, andriak beaz, so iten du leihotik ta ikusten du gizonak antxuño[86] harrapatia apeza eta oihu iten dako:

−Otetik, jauna, otetik! Gizonak ezpeitu zapetik!

Ortotsik beitzen eta xixtatzen beitzin. Apezaren han salbatzeko.

83

E8-07 APEZAREN AGINDUA

Behin eta bazen eta apez bat ari zena, eta andriak ala(b)ainan beti diren bezela, eta andre tzarrik ez balitz, elitake gizon tzarrik. Andrek tuzte andeatzen gizonak. Eta beraz eta, apezak egiten du:

−Beren gizonez kanpo ibilki diren emazte guziek etorri tabularat eta benedizione bat emanen det dener, betan ez duzue osatzeik-eta benedizione bat dener. Ta aski duzue etortzea, ta emazte bat bazen eta ez zuen fitsik aditzen, fitsik eta nehorrek ez higitzen eta gaixuak hortzik ere ez zuen eta geo holako makila batekin hola ibilki ta hortzik ez eta hola.

−Zer erran du? [ahots totelez] galdetu, sahets aldeko lagunari ta.Ta

[85] Pierre Lhanderen hiztegian honela dio 3. sarreran: cour à fumier devant la maison. SYN: barrio, korrale. Kontalariak honela azaltzen du: "Samatsa da aintzindegi hori, basakortia er(ra)ten da, bena samatsa da eskuara erreala, denboran ez baitzen lurren da ez fitsik, otia pikatu eta hola ezartzen zen lodi, ta gero kentzen ta ongarria eiten ta nahasteka zereko, barrukiko".

[86] Abantzuño: ia-ia

−Erran du eta hara juiten denari, bonbona murtxatzeko bonbona sukre poltsa emanen dila, hara joaiten bazia xerka ta.Ta

−Ez zia joan zu?

−Ah, ba ni juain nuxu ba xerka.

Ta joaiten da maikuka, mainkuka, maikuka, ta apezak arribatzean eta.

−Ez zu, Maria, ez zu. Beste hek!

−Hortzik ez izanik ere murtxatzea iten ahal dut, eh?

84

E8-12 GORA ETA BEHERA

Beste bi gizonek elgar atxemaiten dute, soldado elgarrekin ibiliak eta bulta horien hantxe harrapatzen dute eta:

−Ta to! Ondo habil!

−Ta ba, ba, hi ere ba!

−Ba, ba.

−Ta familia?

−Ta familia, ba, ba, untsa

−Ta andria?

−Errotik martxan ni andriarekin, errotik.

−Bo, ni enuk sobera hala, ez. Emaztia gaztia diat, eta beldur diat beti beste norapeit joan zatan, edo beste norbeitekin.

−Bo, baduk erremedio hortako! Baduk gizon bat hemetik herritik jali ta geo zubia pasa ta lehen eskuin hartzen duk ta han etxe ttikitto batean baduk gizona, beaz eta hori egiten diina ta bon ezarriko hu hiru aldindako errotik zer inik[87].

Hau hasten da kalkulan.

−Ni hiru aldindako eniz joain, aise gehiotan beiniz, bena hiru aldindako hilabetian, hura harrapatzeko berriz.

[87] Tentetu egingo zaiola, alegia.

Ta biharamun goizian goizik joan zen, andreai fitsik erran gabe, ta joan zen harat. Ta beaz, medikia, beti han zen gizona blusa txuritan ta

−Heldu nik honakoak manatuik.

−Ta ba, ba, hemen egiten da. Ta bulutz zite!

−Ta buluzten da, ta ukitzen du, ta u la la! Eztakit gauza onik iten ahalko duten, bena inahala inen dut eh?

Beraz, masaja ta pikura ta eztakit ze ta hola ta erraiten dio:

−Orain hara, ene gustoko ina dut nik uste beno lan hobia. Bakarrik hilabete batendako zia, eta hilabete batez hiru aldiz baizik eztuzu iten ahalko. Ta hortako, aintzin behar duzu manatu, ieip! Behar duzu erran. Ta ordian, mogimendun jarriko baita, ta hala egonen da geldi-geldia, nun eztuzu xistu iten: ziup! inen du ta jautsiko da. Bena hua gal da, e? Hua gal da.

−Ta zenbat dut zor?

Ta kario harrapatzen du ta gainera ezta kobratia zeguritate zozialetik eta ah! loriatia zen ta gero, hola eskalerra jaustian.

−Bai ta, sekula ezpaladi martxan? Ta eskalerra jaustian, iten du eup! Ta txak! iten dako ta. Eskualdea martxan duk eta [behatzarekin gora markatzen du], eta xistua, zip! iten du ta jeisten dako. Oain bi aldi. Xarmanki!

Bere autoan heldu zen ta zubia pasatzian ikusten du bere aspaldiko adixkide bat ta iten dako, ieeeup! Ta tak! Ez galdua izateko behar zien etxe(r)a joan hua, etxe(r)a joan behar zila hua ta xutik, bera jarririk bena tresna xutik, bo! Gero zubian puntan gendarma bat ari, eta hark geldiarazten, eta lehena geldiarazten du ta han zagon gelditia ta berriz partiarazteko gerdarmak pritt! txistua iten du ta lanak fini (besoarekin behera egiten du).

−Bo, orain aldi bat, eztiat galdu behar hori ze bestenez xahu dut aldi bat,

Eta arribatzen da etxen ta:

-Nun hitzan? emazteak

−Eztut nahi bena behar dunat erran. Ta orain aldi bat beitut hori iteko, ta hori behar dugu in ta.

−Bai, bai.

−Egia errten denat! Hola izana nun zera iten ta.

Hondarrian beaz biltzen du emaztia ta hola zagon. Hantxa zagon ta emaztia buluzik sartzen da oihan ta bestia ere buluzten da ta emaztiari burura joiten zako, ta:

−Hik eztun sinisten edonore! Ni han izan nizala ta ikusiko dun, ieeep! iten dako ta emaztiari sudurraren aintzinean hola, ta emaztiak altxatzen du ez baitzin aspaldin holakoik ikusi fiufiu! (txistu egiten du) eta beheti (besoarekin behera egiten du).

85

E8-13 JESUISTA GARIZUMAN

Espainiako Garizuman ekarrarazi zuen Jesuista bat, apez misionista bat, herri bateko erretorak, predikatzerat. Ta jesuistak iten du:

−Kristau maiteak! Garizumaren sartzen baikaude, penitentzia gogorretan bakotxa behar dugu sartu. Hala nola, gizon-emaztek bi ganberetan behar dute lo egin.

Gizon batek goitik:

−Bai eta behingoan ganbera bat beizik ez dagolaik?

−Bai kanbera batin, baina bi ofetan.

−Bai bena, kanbera bat eta ofe bat dagolaik?

−Ah, kristau maiteak, kanbea bat eta ofe bat dagolaik, kanbea bat eta ofe bat dagolaik, kanbera berian eta ohe berian, bena uzkiz uzki.

−Eta behingoan batek eiten balu, putxi-putxi?

−Oh kristau maiteak: orduan nik ere eniro utzi.

86

E8-14 SAN ANTONIORI ESKERRAK

Beste Saint Antonion bazin, hemen bada Santa Antonio, bana han ere Tolosan bada, Santa Antonio ospatzen dute. Ta beaz bi laborari arribatzen dira ta:

−To Koxe! Aspaldi ikustekoa, ondo habil?

−Ba, hi ere ba Antonio?

Ta−Bai. Zer modu?

−Bo to badakik, nekazari gintien, bordari, ta etxe txar hau erosi ginien kabala guziekin ta badukat han lau urteko behi bat, ederra, ta umerik ez dautak iten, ta etorri nauk Saint Antoniori, behia arnaldu in dadin, ta otoitz egiterat. Ta hik?

−Badieuk hiru urteko mutil koxkor txar bat ta eztauku partitzen kurri, ta etorria nauk Saint Antoniori faborez, mutil txar hura kurri joan zadin.

Ta meza ta gaineratiko zera ta bon. Gehio eztu ikusten ta bon, heldu den urtian beilan berriz biak han.

−To Antonio! Ondo?

−Bai, hiri ere bai, Koxe? Zer modu, iten duk?

−Bai mutil txar hua, bi hilabeteko partitu zuen kurri ta etorria nauk eskertzeat Saint Antoniori. Ba, hiri ere dudaik gabe behia ernaldu zauk.

−Eta eztakiat Saint Antoniok ongi ulertu zuen hala nik gaizki esplikatu nion: Andriak bi ume in dauzkit eta behia beti antzu.

87

E8-22 EMAZTEA JUJE AURREAN

Leheno holako gizon nimiñiño bat bazen. Eta gero emazte hola haundi bat. Eta ekarri zion pleinta[88], baizik eta bortxatu zeila, bortxatu, beraz jun zen jujean aintzineat, beraz jujeak errten dako:

−Egia da bortxatia izan ziela?

−Bai, jaun jujia!

Soizu ze errten din delako gizon hari:

−Nik ez dut bortxatu!

−Aitorrazu egia! −delako jujiak emaztiari.

−Egia erran, ba, apaldu niz ba puxi bat.

[88] kexa

88

E9-06 APEZA TA XITOAK

Apeza eta gelaria biziki untsa ziren. Botuak eginak zituzten, bai apezak eta bai gelariak ere. Egun batez apeza ez da heldu meza ematerat. Hurrengo egunean ere ez. Orduan gure serora lastimatua da. Apezetxera juiten da. Jo bortan eta.

−Ba, zauri, zauri antzina!

−Zer gertatzen zauzu?

−Ez, ez, esplikatuko dauzut ba.

Ta joaiten da beraz, goiti-goiti, ta ausartatzen da apezaren gelara sartzen.

−Ta ze gertatzen zauzu?

−Ba hola, oilo koloka banuen. Eta oilo koloka hori azeriak ereman daut. Ta ia urranduak dira, xitoak ateratzera, ta ordian hoiek berotzen ditut hemen, ez diten berotu ta gal.

−Ah! Bueno, bueno, ordian behat ikusi ea pizten ari ote diren.

Ordian, gelaria ausartatzen da. Arroltze horien ikertzerat. Eta arroltzeak ikertzen.

−Ai, ai, ai, baño bada ba sortua! Xito bat bada sortua, burua goiti-goiti du!

E24-01 APHEZA ETA XITOAK (II)

Behin eta bazüzün apez bat heben sukarrekin, fiebrekin, gripa animal batekin eta gelaria joan ziozün ikhustera üsü kanberala eta bethi sukharra bazila ta geo hau dena:

−Jauna oilo loka arrautzetan gainean zizün eta oilo loka hil ziküzü, eta zer egin behar düt arraultzekin?

Txitxak elkhitzeko pondian zititzün, bi egun ments eta oilo loka hilik eta.

Aphezak erran ziozün:

−Bena elkhitzeko pontin badia, nik düdan sükarrareki arraultzak ekartze ohila, nik behopin atxekiko tit, nik behopin atxekiko tit eta.

Eta bon, hala-hala egiten dizü eta arraultz horrik igorri diotza aphezai ta harek be(r)e ohipin atxiki zititzin eta geo bi egünen burin erran ziozün:

−Oain, elkhitzeko pontin tuzü, behar düzü so bat egin, elkhitiaz txitxak. Iker ezazu.

Eta eskia barrenen sartuik ikaratzen düzü eta.

−Jauna hemen eztük txitxaik, eztük txitxaik elkhitzen. Ah! Hemen lepo bat atxaman dit.

89

E10-03 BI BUZTAN

Gizon adinetako batek bixta hari beti ari ttipitzen eta etxen eta bere semian emaztia ohartia nekez ai zela leitzen eta eiten dako erten:

−Aita xu geo ta nekexuo ai zara leitzen.

−Ba, ba ohartia xira xu're

−Bena badira oai behar dinak horrentzat, okulista deitzen dena bada geo eta medikia hortaz ibilten dena

−Ah bon! Eta nahiko duxia har dezatan rendez-vous.

−Bai, bai ta gogotik.

−Bena Baionat beharko duxu ahatik gaindiz-pi.

Ta bon enfin joaten tuk Baionat. Eta harek oro ikerturik eta leitzen eta argazkik.

−Oh! Gaixo gizona etzinan balinba aisa ai oai artino.

Ta −Ez, ez.

−Bon, bon oain jin baitzia ederki. Inen dauzut zuk behar tutzun lunetak, ber berinan einen tugu hurbil ikustekoak eta urrun ikustekoak.

−Ber berinak?

−Bai, hola begiak apalduko txulaik ondoan ikusiko duxu leitzeko ta geo altxatuko duxulaik begiak urrun ikusteko. Ordin ikusiko.

−Bon, bon horiek ederki ta denak hor. Ondoko zortzian beraz, juiten dira berriz Baionat, luneten txerka, delako lunetak eta iten duzten hoien etxeat. Gero han behar tzin esplaiatu.

Ta baietz. Deitarazten dakote, eta uh! Hauxe kanbioa! Ta hauxe! Loriatia zen eta erten dako bere semiaren emaztiai.

−Behar dugu kafe xorta bat edan, egun Baiona hontan eh! Kafe moka. Ta baietz

Han joan dira, eta geo han kafia manatuik eta oro eta errten dako bere fille-ari, eta hemen komunak nun tut, nik behar nikexi eta ura ixuri.

−Xe xadintxe, txetxu!

Ta geo hara juiten da ta geo han ura isuri ta geo trenpatia hantxe pantalon aintzinak eta guziak eta nekatua, ahitia.

−Ta ze ai izan zira aita! Ze ai izan zia, eztuzu behin e oano holakoik in! Ze ai izan zia!

−Zeude, pix iten jun eta bi buztan ikusi ttit, handi bat eta ttipi bat, eta ni handinai lotu nuxu, bena beldur nuxu ttipiak diala pix in!

90

E11-02 XOXUA

Larrañen bazüzün, negia züzün eta bi emazte kobesatze(r)a bazütützün. Eta elürra züzün tapastaz, karruntatuik[89]. Bata gazte züzün, bestia zahartzen. Ordin, zaharrak erraten diozü:

−Errazü Gaxüxa, ikösten düzie xoxü triste hoi. [Xoxua bakizü zer den? Txoria].

Xoxua bazüzün, ellurra tapastaz ai züzün, karrontatuik hola züzün.

−Ohh! Honek eztüzü balio. Hilen düzü gaur.

−Oh!! Bai, bai, hoi karrontatüik hilen düzü.

Zaharrak erraiten diozü:

−Gaxuxa, zük papo hoi be(r)o beitüzü, papoan sar ezazü. Arrapixkorratuko düzü[90].

Sartu züzün, titi artin ezarten titzü xoxüa.

[89] Izozturik.
[90] Berriz bizkortu, biziarazi

Ordin, kofesatzea joan züzün. Karrontatüik hor züzün. Bena Jinkoa, arrapizkorratu züzün. Ordin jartzen düzü kofesatzen.

Apezak erraten diozü:

−Les commandements, suivi de la messe, l'image...

Xoxüa ai zütüzün higitzen.

−Othoi jauna fite ai zite. Xoxüa gaizten[91] hasten zitazüt!

91

E11-04 GEREZIAK

Egün batez, hua egia düzü, udalatzen[92] nizün etxe khantin han eta emaztia ai züzün khantonier batekin elhestan. Eta Axkar horra düzü, gezi[93] bakizü, cerisa, fruta, ordin bazizün brake bat hola moztuik eta sisekin hola[94] kargatuik eta khutela beste eskin[95].

−Ordin hor zireia?

−Ba, ba.

−Gu(r)ekin nahi düzü elhesta.

−Ba,ba.

Emaztia jarten düzü (ge)risa, bi (ge)risa jaten. Ordin khutela hor zizün, ta ordin khütela, beste eskin ezarri zizün. Eta ezarri düzü azpiartetan eskia.

−Aizü Maddi, soizü geziarekin nüla zozua eyerki atzamaiten den!

E15-02 GEREZIAK

Berriz ona, berriz ona bortalte batetaik horra züzün eta lehen gerizeko adarrak hautsi zitizün, gezik biltzeko partez, adarrak bildu, hautsen. Eta hük ekartzen zütuzün etxeat, gezik etxeat ekhartzeko.

[91] gaizkitu.
[92] udalan ari, travailler à la charrue, labourer.
[93] Gerezia
[94] Bizkarrean jartzeko keinua egiten du.
[95] Labana beste eskuan.

Aizoko emazte batekin kü(r)ütxatzen düzü, eta elhẽstan ai zien bezala, emaztik ge(re)zi bat hartzen ziozün adarretik, adarrak bizkarrin baitzütin, ge(re)zi bat hartzen ziozün, eta elhẽstan beti ai zielaik, beste ge(re)zi bat. Amiñi baten burin beste ge(re)zi bat. Azkenik erran ziozün:

−"Badüzü errana, ge(r)izitzia bezalakoik eztela zozuan biltzeko, eta hala düzü".

Hor proba bat züzün. Gerizitzia bezalakoik etzela.

92

E11-06 BEHI SUSARA

Bazüzün gizon bat e, behi bat e(r)osi zizün, Donapaleuko merkhatian. Dona Jühaneko züzün, Saint Jean Pied de Port.

−Bena konfidantxa(ko) ote da behi hoi?

Labora(r)iak erraiten diozü:

−Ba, ba, hoi konfidantxa dük. Eta urt(e) o(r)oz xahala badik. Eta bihar süsara dükek. Bihar, bihar dik egüna.

−Bon, bon ordin e(r)osten diat!

Eta zezena, le toro, soron zizün. Eta ia süsara züzün eta behia.

Zezena hola ziozün, ta gainin ezartzen düzü eta penetratzeko phüntin, pup! üzkiarekin.

−Eta alajinkoa!

Ordin aizo bat, haen txerka badüzü eta

−Putain, horrek sartzeko phüntin, üzkia elkhitzen dio.

Zezena ertzo bezela jautsi züzün eta sartzeko phüntin, behera! Akhitüik, leher egin eta!

Bazüzün beste aizo bat portalin, eta ai züzün erriz, erriz bena fütitzen.

−Ze pito hoi futitzen hor, alajinkua! Debrik ikusten a(r)i eta hi futitzen a(r)i! Zertaz hola haiz erriz e?

−Ene emaztia (e)re Donianeko düzü gaxua!

93

E11-07 EMAZTE PHÜNTXELA[96]

Bi zahar:

Emazte ejerra züzün. Ze adin düzü zük.

−Oh! Lauetan hogeita zazpi urte. Eta zük?

−Oh! Lauetan hogeita sei.

Berdin züzün hantxe bai. Ah, bon, bon.

−Nahüzie kolphü bat edan biek?

−Kolphe bat? Bai, bai. Libro gütützü. Gütützü kolpe bat edatea. Emazte ejerra züzün.

−Janen düzügü gaur elkharrekin?

−Libro gütützü. Bai, bai, bai, ezpaduzie saltzen e...

Bon, jaten zien elkharrekin ta.

−Aizü ta, elkharrekin lotzen bagia gü?

−Eta zertaik ez? Libro gütützü...

Ordin biek lotzen tützü. Eta prefosta gaü bat ederra igan dizie. Erdi lo züzün akhituik. Ai züzün pentsamentukan:

−"Jakin banu püntzela zela, beste apari bat barkatuko niozün lehenago bai!" –ai züzün bere buriaekin.

Eta emaztia, akitüik züzün eta ai züzün bere buriaekin:

−"Jakin banu hain ardita[97] zela hau, pantiak elkiko nützün".

Hortako zizün puntxela atxeman.

[96] Inorekin ibili gabeko emakumea.
[97] trebea

94

E11-08 PUNIZIONEA

Bazkoko aphezak jiten zitützün jenten kofesatzeko, seminarist, bakizü? Ordin sartzen düzü eta emazte bat horra züzün eta:

−Jauna, péché bat egin dit bai, pekatu bat.

−Ah, bon, zer egin düzü?

−Egin dit "une féllation".

Ordin aphez gaztik, "une félation", ez baitzin seküla entzun, ez zakin zer eman behar zen comme punition. Ordin beste apezai jun ziozün eta erran ziozün.

−Errazu Jauna, felation-enentako zer emaiten dügü.

−Pas plus de cent francs![98] −erran ziozün apezak.

95

E11-09 PISTOLETA MOZTÜ

Bazüzün beste gizon bat e Maulen, gizon ardita züzün eta atzaman zizün eritarzun bat[99] haik e, emaztéki, eta ordin ez ziozün emaztiai erran nahi, eta min zizün terrible. Eta azkenoz ez zizün ahoa itxitzen ahal.

Medezi ikustea batutzü. Bazüzün medezi bat hüna, bena inpertinenta biziki. Erraiten diozü:

−Jauna, senarra emazteki batekin izan düzü eta ez dizü be(r)e baztarta[100] bate üntsa.

Ordin erraiten din:

−Eian nola din!

Elkhitzen dizü.

−Oh! Eierra dük. Badük afera bat, bat baizik. Behar dik moztü.

Ordin bestik erraiten diozü:

[98] Ez ehun libera baino gehiago!
[99] Eritasun, gaixotasun bat
[100] Zakila

−Oh, Jauna, moztü! Hoi tüzia?

−Ah, bai, bai, bai, kalkhüla zazie, bihar behar dela moztü.

Ordin zernahi erraiten diozü senarrai, urde zaharra!

−Bo, bena jünen gütük bihar beste baten ikhüstea, medezi zaharra da, bena galanta.

Joaiten tützü bertze baten ikuste(r)a. Haik erraiten diozü:

−Jauna, soizü, soizü, ze egin din, pistoleta jelgi, soizü, soizü.

−Eian nola düzün. Errain daüzut egia, Jolegi ikösten izan gütützü, bena ertzo düzü medezi hoi, erran dikezü behar zela moztü.

−Bon, bon, bon, zertako moztü, hori bea e(r)oiko dük!

96

E11-10 ASTOAREN BAZTARRA

Aita ta ama komisioneka juiten tutzü müthikoakin. Eta ordin emaztik erraiten diozü:

−Begira zak mütthiko, hoi, bestela debriak jausiko dik!

Ordin aita hor züzün kanphün mutikoaekin.

Bazüzün asto bat, emaztea komisioneka jinik, asto bat han. Ordin erraiten dizü haurrak:

−Papa, viens, viens, cet âne là-bas! Bagutzü astoan ikhustera!

Ta baduzü astun ikhustera ta:

−Alajinkoa! Horrelako baztar bat zizün!

−Aita, bena zer dük asto horrek hor?

−Oohhh! Hoi hilen dük! Dio! Ohhh! Hoi hilen dük! Oohh! Ze bekatüa!

Ama jiten düzü komisionekin.

−Ama, zauri ikusteat, zaugi ikusteat!

Ordin aita hartzen düzü deskargatzen autoilat eta baduzü amaekin mutikhüa.

−Soizü asto hori! Aitak erran ditazü, " ho(r)i hilen düzü", eman dizü.

−Hori hilen! Hori balü, hire aitak horren erdia balü!

E21-09 ASTOAREN BAZTARRA (II)

Beste kuple bat ere bazen eta haur bat bazuten, hamabi-hamairu urteko haurra. Eta egun batez aita abian da haurrarekin merkaturat, eta bon komisione batzuk iten tu ta gero badoatzi kabalen ikusteat, behi ta zaldi ta asto, denetaik bazien. Ta astoeta iristean, han bazien lau-bost asto ta baño bazen arra. Ta emea baitzen, ba erranen dut xuxen beroa, alboan emea zien eta tresna puxi bat agerian zin. Ta haurrak ezpeitzakin zer zen, aitari galdeiten dako.

−Ta aita aita!

−Zer duk?

−Hortxeko asto horrek tripapeko hori zer du?

−Ez duk deus hori, eri duk asto hori!

−Ah, bon.

Hantik ordu t'erdira abian da amarekin. Karrikan doatzi, ta ordian e badoatzi ta asto harroa sekula bezela. Eta ordian erraiten dio amari:

−Ikusten duzie ama horroko asto hori, tripapean beitu ze. Ta asto hori eri da?

Ta amak erraten dako:

−Asto hori eri? Nork erran dauk hori?

−Aitak erran daut.

−Ai gaixoa, hobe luke aitak eritasun hori balu!

97

E14-04 PANTALUAK

Herriko neskatila bat jun züzün, Bixkandi erraiten baitügü hemen, etxe handi batetat, nausiak abeatsak ziren eta jün zen ordin neskato, langile bezala, eta gero, Eguberriz jin zienin herrilat, karrikalat jin zenin, juiten düzü neskatüa kofesatzeat jüiten düzü, eta ordin bekhatiak erraiten diozü erretorai eta:

−Oh ! Behin ai nintzenin, ene bü(r)uzegian semia putiko eyerra düzü, eta ai nintzenin semian pantalüan lisatzen ükhẽn düt ideia gaxto zumbeit ukhẽn düt bai.

−Ah ! Hoi ez düzü üntsa haurra, ez düzü üntsa hoi. Ordin eta penitentzientako erranen düzü, Agur Maria, edo hobeki eginen dizügü eta züek xerria, urdia erraite dügü hemen, xerria hila baitüzie, ekharri ahal deitazü pakamendutako pate bokal bat.

−Bon, eta üntsa düzü eta üntsa düzü ta.

Bi hilabeten bürün neskatila horra düzü ikhüstea eta ekharten diozü bi bokal eta aphezak erraiten diozü :

−Bena bokal hoik hütsik dia !

−Ah ! Bena pantaloetan e ez zen deuse !

E30-09 PANTALONAK (II)

Bazen erri batean bikaria ta geo erretora zaharragokua eta alabainan beti jendek ekartzen zuzten beti gauzak eta hobenak oro beti jaun erretorandako, bikariandako arras guti. Eta bikariak bazien bere gormandizako dei bat: konfitura, izigarri maite zuen konfitura. Eta nehork ez ekartzen, denak jaun erretorandako. Eta egun batez emazte gazte bat heldu zako kobesatzeat, ta bazakin bikariak biziki konfitura ona iten ziela.

−Ah! Oaikuan bilduko diat ungi konfitura!

Penitentziatako kobesatzen du eta penitentziatako erraten dako.

−Zuk iten omen duzu konfitura ona!

−Ba, bai jaun bikarioa, iten dut ba konfitura.

−Penitentzietako errain dituzu bi Agur Maria, eta haurrekilan nehok ikusi gabe aski datazu igortzia bokal bat, untzi bat konfitura.

−Ba, ba, jaun bikaria, igorriko datzut.

Ta zomait eunen burian, ttan, ttan, ttan bortan, bikariaren bortan emazteño haren haurra, ta paper ttaku pollit batean bokala ta ah! Bikariak segidan mahai gainean ezartzen du, paperra kentzen ogi puxka bat hartzen, baso bat arno ixurtzen, ta bokala zabaltzen du, ta hutsa!

Behar nian erran, emazte gaixo hark, kobesatzean errana zakon bikariari nola etxen bazuten mutila, eta mutil haen pantalonak lisatzen ai zelaik, ideia gaizto batzuk ukan zitien. Ba huna ba ideia gaixtoak erraten baita, memento hartan. Eta ordian penitentzia ukan zitien, bi Agur Maria eta bokal bat konfitura, ta beaz konfitura jaten hasten da bikaria, ta bokala hutsa!

−Ah! Emazte xoxua, emazte xoxua! Bokalez tronpatu da seurra.

Ondoko aldian heldu delaik kobesatzerat erraiten dako, ta:

−Errazu emazteñoa, hondarreko nik penitentziatako emana nautzun bokal bat eta konfitura ekar zinezan eta seurra tronpatu zira. Inposiblez, bokala hutsa zen!

−Ba, Jaun bikarioa ba, mutil haen pantalonak hutsak zien eh!

98

E17-04 MÜTHILA ETA NESKATUA

Bazüzün etxe batetan, bazüzün ordin müthila eta nexkatua. Etxia etxe handia baitzen eta negin, negü batez ai zütützun gaztáñak erreik zütützün, eta gaztainak janik eta ordin lehen ezarten zizien, süthondun jaten baitzien gaztañak eta. Zakhü bat han pian, bakizü gaztaña axalentako, ta geo zakü hua bil eta [a(r)ian][101] zün garbitzia. Ta ordin geo, bon, mithila, neskatüa ta etxekoanderia ta nagusia.

Ta geo nausik erraiten dizü:

−Bo, ni oheat banuk!

Ohe(r)a jün zün, goixetaik, ta etxekanderia e bai, hura e bai ohea juna. Ta geo erran ziozün mithilari ta neskatuai:

−Geo, suia untsa hil zazie oheako, ez utzi bizirik suia, piztuik eta.

−Ez, ez –kasü emanen ziela eta egon zütüzün mithitila eta neskatua han eta emeki-emeki han izanez eta bof! amiñi bat jestoxka ta hau.

Eta geo mementua jin zelaik heltü züzün ta zakhü hartan gainen zerbait eta plantatü zütüzün eta nexkatuai ohatu ziozün. Eta nexkatua geo etzüzün eskualduntsa, nexkatüa Biarnoko züzün eta nexkatuak erran zizün. Zakhü bazter bat bazün suia hünkitzen eta khia, edo sutan jarri züzün. Eta hük han zielaik etzanik eta nexkatüak ikusi zielaik hua:

−Lou sac, lou sac! –hasi züzün. Lou sac !

Eta gizonak arrapostia :

−Ze lüzak ! Dena hor dün !

[101] ez dugu hitz hori ulertzen.

99

E18-02 OSABA APHEZA

Bazüzün aitañi bat arrahaürrarekin, behitegin sartu züzün, laboai etxin. Eta haur ttipik e, erraiten diozü.

−Aitañi, eta hori zer da?

−Hoi behia, aitañik erraiten dio.

−Bo.

[Ez, gaizki]

−Hoii, zer?

−Hoi, xahala.

−Eta beste hoi, zer da?

−Hoi, behia.

−Eta huraxe zer da?

−Hua, osaba apeza.

C'est un toro, zezena, koskoilak, kanikak osatüak, moztiak.

Gu ttipi ginelaik, jende handiek eta zaharragüek, erraiten zütüzien:

−Hik behar dük apheztu, eta osatüko haigü!

Eta gü lotsa gündüzün.

100

E18-03 APHEZ BAT OSATÜ

Zalgizen nahi dena neskatilakatü
Behar tu zaragoilak[102] üntsa bütüatü
Diauenaz aspaldi malhur bat agitü
Bi neskatila gaztek aphez bat osatü.
Tralala, laralalaila, trailala…

[102] Txomin Peilleinek azaltzen du (1986:174), zuberotarrentzat aragoitarren prakak zirela.

101

E19-02 A ZER NESKATO POLLITAK

Beste kantu batzuk neskatoen gainean:

A ze neskato pollitak zauzkun arribatu
Horien ikustia enuen pentsatu
Hoitarik ez dut nahi nehor izendatu
Baina behar ditut nik ni bertsu kantatu

Armendaitzen badira, neska elexkuak
Zonbaitek diotenaz otoitzekuak
Ene gustuko berriz, biziki beruak
Erne dituzte hoiek guztiek buruak

Maitia errezibitzen dute horiek leihora
Izar eta garbi delarik denbora
Izanik ere leihoa franko gora gora
Berek laguntzen tuzte joaiten petik gora

Etxekuek nahi dituzte horiek ongi zaitu
Etxian lau bost zakur inguru inguru
Batzuetaik zilaurri[103] bestetaik zibisu[104]
Nola behar da beraz, zienganat hurbildu?

Maite zaiotelarik horiek leihoan izan
Biharramonian arlote gisan
Aski duzue jujatzia guziek elizan
Gauaz eta egunaz ez ditake izan

[103] sillu-harri?
[104] Zerbitzu?

102

E19-03 APEZAK IXTARRA HUNKI

Apezak gelariai ixtarra hunki dio
Behin in badio, berriz ere einen dio

103

E19-04 MANDOZAI BAT LANDESETA

Leno, mando zonbait joan xuxun Landeseta egurketa, eta karroa kargatu eta mandoak, nihon e(r)e ezin karga tira. Ta gero etxe ttipi bat ikusi zin urrun, behar zin berriz alena hor karroan karga hustu, ta etxe ttipi bat ikusten du urrun ta to! Han behar zila gau hartan egoteko galde in, gaua.

−Goazi etxe ttipi hartarat.

Ta kokatia zela han eta gaua han pastu ahalko zinez ta senar-emazte gazteño batzuk ta elgarri so in ta:

−Baietz, baietz.

Ta hua joaiten xuan, ta honat heldu duxu.

Ta gizonak erten dako emaztiari:

−Gaur aski du lo itia erdian.

Ta mandozaina gauerditan pixkat higitzen oihian. Ta nausiak eje, eje. Ta gero bestia alegia ametsetaik, hi, hi, hi. Ta nausiak:

−Oain inen duk nahi dukan bezanbat hi, hi, bena eztuk karga hori tiratuko deskargatu gabe.

104

E41-04 GASNA

Behin bazen gizon bat, ibiltari bat hola ez zen bide xuxenetik joaiten, beste zeharbide batzuetaik. Eta pasatu zen behin Mendibeko batean eta arratsa heldu eta ez da hemen deuse! Ta azkenean atxeman zuen etxe bat arrunt mendian eta arrunt galdua. Eta bortan jo zuen eta:

−Arrasti on! Ta bazinukete enetako ta lo egiteko leku bat?

−Ba ez dugu, biziki etxe ttipia dugu bena gaizoa eztugu utziko kanpoan, galduko zira oihanean.

−Ta mila esker anitz.

Gero senarra ere heldu da.

−Ta gurekin janen duzu afaria, bena jakin ezazu biziki pobreak gira eta biziki etxe ttipia dugu eta ez dugu ganbera bat beizik, eta bon, oihean lo eginen duzu gurekin, gurekin lo inen duzu oihean.

−Ba, ba, enetako ez da problemarik ez.

Eta bon, afaltzen dira eta afari biziki sinplea eta gero gasna, finitzian hartzen dute gasna. Ta gasna izigarri una, ta gasna hartu ta ardoa, ta berriz gasna ta berriz gasna.

−Ta ah! ze gasna ona.

Ta azkean gizonak erraiten dako:

−Ba, barkatuko duzu, gasna ona bena hilabete guzirako egin behar dugu eta hau hilabete hastea da. Barka zazu bena. Gelditzen bazina gasna jatetik...

−Ba, ba eta barkatu ene ausartzeaz.

Eta gero egiten dute, badoazi oherat, emaztea bi gizonen artean eta lokartzen dira xarmanki. Eta gauean, behi bat dute bakarrik behikitik eta hasten da orroaz orroaz. Eta emazteak senarrari:

−Errak eta behi horrek zeait badik!

−Ah! bai, segurki egun erdi behar zen eta segur erditzen hasia da, joan behar dut ikusteat!

Eta senarra beztitzen da eta joaiten da barrukirat.

Eta emazteak erraiten dako beilariari.

−Joana da hara ta senarrak badu bulta bat han, eta oain duzu aukera, joana da eta ez da ixtant batean.

−Ba, ba, eta ez da konbeni.

−Ba, ba, eman ezak eta zeren beha haiz! Trankil izan gituk, ez da menturaz bi orenetan izain.

Eta beste gizonak, enbeia eduki kasik eta bena ezta menturatzen halere. Badu edukazione puxka bat untsa ikasia.

−Benga, ez hizak gose, eztuka nahi puxka bat gasna gehio!

105

E21-03 EMAZTEAK SEI HAUR

Emazteki bat joan zen kofesatzeat eta memento batez apezak galdeiten dako ea haurrik bazuenez. Ta,

−Bai, bai jauna ba(d)itut sei haur.

−Oh! Sei haur.

−Ba, ba, ta zazpigarrena bidian.

Apezak er(ra)ten dako:

−Bena emaztekia ikusten duzu. Beinan emaztekia ikusten duzu hemendik zomait urteren burian ze erreponsabilitatea duzun zure haurrekin?

−Beharko tuzu hazi haur hoik. Behar tuzu eskolatu eta gero lana re beharko (d)uzu atzeman, arrunt heier.

−Ba(d)akit bai jauna.

Apezak errten dako:

−Bo, soizu, errain dakozu zure senarrari, hementik aintzina kasu egin dezan ez dadin gehio haurrik izan.

Emazteak erraten dako:

−Ba, erranen dakot ba, ene senarra izigarriko gizon planttakoa da. Nik erranak oro iten tu. Segur niz jaun erretora nik erraten badakot ene senarrari kasu egin dezan ez dadin gehio haurrik izan. Harek kasu inen du. Bena auzoko gizaztar horrek, horrek ez du sekula kasu egin nahi.

106

E25-04 XAKUR USNARIA

Bazen ba beste apez bat, ihiztaria zen apeza, ihizen ibiltzen zen, etzuen nehoize jeus hiltzen, etzuen kausitzen, etzen ona, etzen tiralari ona. Entzun zuen bazela beste ihiztari bat auzo herri batean, biziki xakur ona baziena, xakur-ihiztaria, biziki una.

−Ta, nolaz da una xakur hori.

−Aski diozu erbi baten biloak usnatzera, erbiaren bila doa eta erbi bat ekartzen dautzu aintzinera.

−Ezta posible?

−Baietz! Ta berdin gauza bera, lapina edo beste edozoin.

−Ah! Ba nik nahi nuke xakur hoi eosi.

Ta erosi zuen xakurra, biziki kario pakatuik!

Ta saiatu zen, behar zuela ikusi nola…hartu zituen erbi biloak ez aski xakurrak eta usnatu zituen apezan erriak bakarrik. Abiatu zen. Zakurra joan zen airez aire ta berriz itzuli zen. Ta gelarian pantaloinak, kulottak ekarri zituen txakurrak.

107

E25-08 AGUR, MARIA, GRAZIAZ, BETIA

Bazen eta apeza ohartua zen bazela mutiko ttipi bat, hola bazter bizi zena, urrunako etxalde batean, eta beti nehoiz etzuen ikusten elizan, ez bakarrikan, ez kalian etzuen ikusten, beti mendian. Apezak bere buruari erraiten tzion: “Honek otoitzak eta fitsik eztaki”. Egun batez joan zen ikustera, ta:

−Agur puttil!

−Agur, jaun erretora!

−Hemen bakarrik bizi haiz?

−Eh! Etxekuekin eta hola, ez bakarrik ez, hemen ditut behiak eta behizaintzan egoten naiz.

−Otoitzak badazkika?

−Ez, ez bate.

−Ah ez?

−Ez, ez…

−Nahi tuka ikasi?

−Ba, ba, ikasi ba.

−Bon, hoik badituk behiak, hoik baditut lau behi, ta huni emanen diok izena Agur, horri emanen diok izena Maria, horri emanen diok izena Graziaz eta horri emanen diok izena Betea.

−Ah, bon. Ikasiko duk hori, hori. Hamabost egunen buruan etorriko nauk eh!

Baietz. Hamabost egunen buruan apeza berriz itzuli zen.

−Ah! Agur!

−Agur jaun erretora.

−Ikasi dituka otoitzak?

−Baietz.

Ea:

−Agur, Graziaz, Betea.

−Eta Maria?

−Ba, Maria susara zen goizean!

E40-10 AGUR, MARIA, GRAZIAZ, BETIA (II)

Mutiko bat zen etzuten etxekoek moldatzen ahal kateximat. Etzila berdin ikasten eta etzila denboraik galtzera joaitea ta beti behizai. Egun batez kateximatik landa heldu da apeza etxeat, ta erraten du:

−Heldu nizu, pentsuz[105] izandako mutiko hori nun duzi?

−Hantxe behizain da, pentze zokoan. Ez dugu moldatzen ahal, zerbeit egiten ahal baduzu jaun erretora?

−Ba behar du, komuniatu nahi badu, bestek bezala, behar du katexima ikasi eh! Eztu eskapuik eh! Denendako zer bera da, eh! Konprendi nazakozu, guk ez diau deus egiteik, ez da posible! Nun dela erran duzu?

−Hango zokoko pentzean.

Joaiten da apeza:

−Hola muttikoa!

−Hola jaun erretora!

−Ta behizain?

−Ba, ba, hementxe behizain.

−Kateximat ehiz jin!

−Zertara jinen niz kateximat, ez dut berdin deus ikasten ahal. Ezta ene burian deuse sartzen!

Apeza pentsaketa ai zen, ta :

−Ze behi pollitak tukan! Zer die izena behi ho(r)iek ?

−Ba hau Uxala, hau Muxalo, ta hau Xixto ta hau Katxo.

−Aha! Behien izenak badazkik ahatik!

−Ba, behiena, ba, behiena, ba, bena otoitzak ez beitira berdin!

−Errex tuk otoitzen ikastea, behazak, eskuta nazak. Behi horrei izenak behar dazkok kanbiatu.

−Ah, bon!

−Horri, emain dauk izena Agur. Huni, emain dakok izena Maria. Huni emain dakok izena Grazia. Eta huni Betia. Ta gero, hori hasteko, aste huntako. Hortan geldituko gituk? Eta heldu den ortzegunian haugi kateximat eta gaineratikoa segituko diau. Ortzegunetik goiti preparatuko deiat.

[105] Pentsamenduz?

−Ba, ta nola erran dauzu?

−Hau Agur, hau Maria, hau Graziaz ta hau Betia.

−Bon entseatuko naiz.

Apeza joaiten da, ondoko ortzegunean heldu da. Bena mutikoa etzen kateximan. Ta katexima finitu eta heldu da espresuki bere mutikoaengatik. Berriz heldu etxeat eta.

−Ni naiz berriz ere.

−Oh! Jaun erretora, oh jaun erretora! Nola jenatzen zitut! Ez tuzu erreusituko, kasko gogorra du, ez duzu erreusituko!

−Ba! Erreusituko dut. Behar da erraposkiloa, ez da behar bruto izan, behar da erraposkiloa.

−Nun duzu?

−Leku berberian! Behizain!

−Ah bon, untsa erortzen da. Joaiten da usaieko lekura eta:

−Hola mutikoa!

−Oh! Jaun erretora.

−Kateximat ez hiz jin.

−Oh! Eztu balio, eztut deus ikasiko eta ene burian ezta sartzen.

−Bon, ea kanbiatu gintean izenak, behi honak!

−Ah, ba, ba hori ina to! Hori gauza ttipia da, katixima bada beste lerro gehio eh!

−Bon goazen hastetik, nola die izena behi horiek?

−Bon hori errain dauzut ba: honek Agur, horrek Graziaz eta horrek betia !

−Ta txi, txi!! Ez duk hola gero! Nola errak duk, horrek?

−Horrek Agur.

−Ta horrek?

−Horrek Graziaz.

−Ta Maria?

−Maria etxean susara gelditia.

108

E27-09 ASTOAREN UZKERRA

Beti Santa Grazin baziren etxe batian nexka handiak. Erran nahi baita mutila eta nexkatoa, ta nausiak deliberatzen du egun batez oihanerat joaitea egur egitera. Berotzeko egurra. Bon bena err(a)ten dako nexkatoari (joaiten dira egur egitera):

−Bena badakizu aldikan astoak uzker bat botatuko duelaik behar dugu ari izan[106].

−Bai, bai.

Astoa ere aski zera beitzen. Eta bon, heltzen dira, plantatzen dira, axkorak lurrean ezarten. Astoa, astoa han da geldik. Eta puh! Uzker bat.

−Entzun duna?

−Bai, bai, bai.

Eta ttaka, ttaka, ttaka eiten dute.

Eta bon, berriz lanean hasten dira, aixkorakin kank, kank eta astoak beste bat egiten.

Neskari:

−Bai, bai, nahi duzu? Hiru aldiz.

Lanean hasten dira memento batez, eta astoak berriz uzkerra. Nausia antzina.

Eta neskatoak:

−Eztuzie entzun? Kak in beza oain.

109

E37-01 JAINKOA ETA BULANJERRA

Ostatu ttipi bat bazen elizaren pian bulanjeria iten zina eta denbora berian emaiten zin arno sorta edaterat herriko gazter. Gero igande batez usaian heldu den mutikoa biziki berandu heldu eta estonatia erran zakon:

−Bena nun egon haiz orain arte Peio?

[106] Alegia, behar dugu larru jo.

−Ba, bakizu holako neska polit bat hura maite dut eta hari galdein dakot harekin esposatu.

−Ah! Ta zer erran dat?

−Jeinkoarekin ezkondia dela.

−Ah! Hi huaikin ezkondia. Harek dakika, serora abiatia duk.

−Ah! Serora!

−Ba, ba, ba. Haatik emain daut sekretu bat: gauerditan behereko pentze hori, gauerditan joain duk emaztea, ze Jainkoarekin ari duk eleketa.

Oinez horra joaiten da gauerdi, ta gure nexkatoa ari Jainkoari:

−Oi Jainkoa, zoin maite zintudan, zoin goxo zu hemen izaitea enekin.

−Ah bai! Ni ere jetsi naiz zerutik eta oh! Ze plazerra, ze plazerra.

Eta gero hasten dira peeka, puxi bat peeka, potta eta hundarrian zerak iten diuzte. Eta gero erraten dako mutikoak:

−Ah! Eztu nihor Jainkua hor! Bekatu in dun oain, ni Peio nun hemen, Peio. Ah! Joaiten ahal haiz gustian bai, eztuk eta hemen Jainkoa ez, eta bulanjerra duk hemen.

Ordian berriz prestik bakotxa bere eskualde joaiteko.

110

E38-01 DENAK BARKATZEN

Senar-emazte beharrak joan ziren kofesatzerat, ta bakizu haren erdin apeza ta bi sahetsetan serbitxugileak, gizona eskualdekoa, borta aintzin ezarriak zitin, bon etzin arras untsa zerratia.

Ta gero absoluzionearen emaiteko neskari abiatu zen kofesioa galdeitea. Seigarren manamendian sartu zielaik gizon haiek beharria holaxe ezarrita entzun zitin apezak zer galdetzen zazkon denak, ta baitzuten lemiziko xixka pago handi baten azpian egina omen zuten. Ta apezak bazakien non ina zuten lemiziko xixka, ta

−Eguna behar dugu berexi.

−Bai, bai, iten ahal da, ez da ezin inezko. Iten ahal da.

In zuten, eguna berexi zuten. Neska joiten da lehenik, mutikoak hartzen dako aintzinaldia, gizongaiak aintzinaldia, ta pagoain gainean jartzen da hura, arbol batean isterkolozka. Handik bulta baten burian apeza. Enoatia gizongeia gainean enoatia posizione txarrian. Ta apeza heltu da bulta baten burian eta berek behar zuzten zerak in zuzten eta nexka etzen sobera gehiegi satisfos gelditu.

−Ta oain sekula zeait heldu baldin bada, barkamendia nori behar dut galdeitea.

Apezak:

−Gainekoai, denak barkatzen tu.

111

E16-41 GAINEKOAK

Aphez bat ari gerezi biltzien, geretzitzen gaña iganik, eta behar izan zian gorde entzun beitzutian elhekariak. Bi gazte ziren eta lurrean etzan zien eta pottka hasi. Mothikouak azartu zen neskaen hounkitzea, behar zuela amodioua egin. Bena neskak ezuen nahi eta erran zeion lagunari:

−Zerbait agitzen bazaiku nourek haziko du?

Mothikouak ihardetsi zon:

−Nurek haziko din? Eta gañeko haik prefosta.

Eta aphezak orduan ge(re)zitzetik:

−Ez nik, ez, nik badit zer egina hori gabe.

112

E38-03 ASE ETA HILA

Beste baten Xuberoan e bazin hola bi auzo, baño gaixoa, bi emazte xahar zin arrunt eta erreteta inak eta doi-doia bizi hantxe. Betroin xahar bat bazuten aantxu ernari batez, ta auzoak erten dako:

−To, betroi horiek gosiak tuzie, gosiak tuzu, ene pentze hortan baita belarra frango. Nik baitut frango, iten, ezartzen al duzie zuen betroina hor, ene pentzean.

Ah bon! Untsa zela untsa. Joiten dira, ezartzen dute betroina pentzean, bazkaiten dira, gero so in eta betroina eta hantxe zarra-zarra alimaleko belarrian. Ta gero loaldia joaiten dira, loalditik jeiki eta batek so iten du betroinari. Betroina hila.

−Betroina hila!

Joaiten da beste ahizparen ikustera.

−Errak, errak Jinkua, gure betroina hil duk alajinkua! Gure betroina hil! Horrek irudi dik gizonan tresna hura, gosearekin azkar dun eta ase ta hila!

E42-03 ASE ETA HILA (II)

Laborari bat bazin alimaleko behi-aldia etxe sahetseko pentzean bazka dena jana eta behiak arrunt gose, eta auzuan bi mutxurdin.

−[Egailik][107] pentzen alimaleko bazka egin eta ka(b)alei batez.

Batak besteari erten dako:

−Erran, erran, behi horiek hor gosiak. Bedera, hartuko du baño bederen bazkaz.

Bai, ungi, jartzen dute behia bazkaz. Bihamun goizian jeikitzen dielaik ze ikusten dute?

Behia leher iteko [aljia][108], baña hila.

Mutxurdinak erten dako bere ahizpari:

−Baakina hunek ze iduri du?

−Ze iduri du?

−Gizunaren instrumenta. Hura re gosia delaik bizi du eta ase ta hila!

113

E41-02 LUR SAGARRAK

Ai zien bi emazte lur-sagarren jalkitzen eta ateatzen du emazte batek hola, alimaleko bat, eta uh! hau ze puska ederra! Besteari so eta irriz hasten da eta ah! Nire senarrari ai nauk pentsatzen eta.

[107] Ez dugu ulertzen zer dioen hor.
[108] Ez dugu ulertzen zer dioen.

−Zer tuk hola handiak?

−Ez haundiak bena zikinak ba!

GORDINAK: ESKATOLOGIKOAK

114

E3-07 AMETSAK

Ametsa, gauza zozoa duk ametsa eh!

−Bai eh! Bai nik ere egin diat duela aste pare bat ametsa. Aberatsa nindukan, irabazia neukan, joko hoitan, milliunak irabaziak nitian, eta iratzartzen, esnatzen nauk eta gezurra! Etzuan ezer (e)re, ametsa! Bertze bat e egin nuan: neska batekin ai ninuan borrokan[109] hola. Batzutan huran gainian, hola borrokan. Hi esnatzen nauk eta ezer, gezurra!

Gan den astean egin nian beste amets bat eta lagun baten etxean afaldu, eta etxera sartzean, behar nula, eta gutiziatzen nauk kaka in behar nuela. Etxe(r)a sartu baino lehen, ematen nauk landa bazter batean, eta kaka iten diat. Esnatzen nauk eta egia egina niken.

Aberastasun eta horik denak gezurrak, baina kaka hori!

115

E4-08 DIAGNOSTIKOA

Lehen asteartez zen medezia merkhatian Maulen eta üsatzen zien, laborariak kabaleak sal eta iristen ziren auzogünia deitzen zen Hotellerie du Chateau-an, laborariak oro hor zien. Gizon bat arras mozkorra, oinez partitzen da eta medezia joaiten zen autoarekilan eta medezi gaztia khantian. Zaharrak erraiten dü gazteai:

−Ikusten dük gizon hori, errematismak jana dük hori.

Gaztiak:

−Eztük errematisma, ziatika dük.

−Ziatika? Ez! Errematisma dük!

−Ez, ziatika dük! Bon, galdatüko diogü!

[109] Larrutan, alegia.

Heltzen dia parerat.

−Jauna! Nondik joain zizte! Ahal bageneza galte bat egin!

−Zer düzie?

−Haigü, bi alde badiagü hemen[110]. Nik erematisma düzüla eta nire lagunak ziatika düzüla!

−Ba, medezi txarrak zizte biak.

−Zentako?

−Ezpadüzue gizon bat pantalonetan kaka egina ezagützen!

E12-06 DIAGNOSTIKOA

Andoze Ibarra deitzen düzü, hor Logibarre beheran, Andoze ibarran behera gizun bat bazüzün huinez, horra züzün oinez, holaxe zainkhüxka eta Bordeleko bi bedezi urzakan ai zien Larrañe gañeko hortan eta ezpaitzen urzoik otoz jaisten zütützün Atharratzeko ostatü hoitan bazkaitá eta jaisten zütützun biden, ikhüsten die gizün hüa ebilten holaxe.

Erraiten die:

−Horrek e hanka gaixki dik. Hoi opeatzen jüten ahal dük ahal delaik, holaxe korpütza oker atxekitzen.

Eta bestik erraiten diozü:

−Ba, soizü zankhua nun urthükitzen din, horrek belhãina dik, ez hanka.

−Ba, eztik belhãina, horrek hanka dik eh?

Gero otoarekilan ez zila heltzen, ez zütützün akort otoan, batak hanka zela, bestik belhãina zela.

−Bai

−Ez

−Bai

−Ez

[110] Bi iritzi desberdin

−Bon, berari galtatüko diagü ba!

Heltzen tützü gizunan aintzinila eta ekhüratzen[111], ototik jeisten.

−Egün on.

−Egün on.

−Bedeziak gütützü Bordeletik heltüik Larrañera ta egün heben beikia bakantzaz, ofiziüa üntsa ezagützen dizügü eta ai gütützu diskütatzen, zük hankatik sofritzen düzün, behar digüzü erran. Eta hunek galda iten dik zuk belhãinetik, zük belhãinetik düzüla sofritzen.

Eta behatzen titzü holaxe:

−Ziek bedezi zirela? Erraiten diezü gizonai, ziek deus etzire, deus eztüzie ezagützen, ez batak, ez bestik.

−Ah bon! Eta ordin zentako hola ibilten zie?

−Salbüik eta kakailak[112] hartü banaik, ordin hartako pantaloinetaik egin beitüt, ziek deus eztüzie ezagutzen.

116

E4-09 EZKONBERRIA

Ezkonberriak ziren kuple[113] gazte bat eta asteartian badoa merkhatilat eta ahizpa atzemaiten dü. Eta ordian, nola zen?

−Oso ondo, oso ondo![114] Bena eztakizü?

−Zer da, zer gertatü da?

−Eztü pantalüpekoik bate ekhartzen senarrak.

−Ez! Joain gira hara eta erosiko dügü.

Biak hara juiten dira, haitatzen, bat gorria, bestea xüria, bestea blua.

−Ah! Eta etxe(r)a heltzen da eta.

111 gelditzen
112 kaka-larriak
113 bikote
114 Hegoaldeko formak sartzen ditu nirekin hitz egitean.

−Oh Petti! Erosi diat zerbeit hiretako. Soik haik ezarriko (d)itük bihar, eta horrekilan be(r)o-be(r)ua izanen haiz eta…

Eta badoa borda hoitat büeltian, bakizü mendi hoitan borda ttipi eli bat eta ezarten dia kabale zombait han eta kabalen soinatzera[115] joan. Ta jüxtü ezkonberri ta kontent, kabale lanak egiten tü, ta kak(a) in beharra alimala, oh! Eta bada bordá gibelian bat eta han pantalonak aphaltzen hasten da, ta belar pixka bat hartzen eta zer dük hoi zankhoan artean! Bena Maddi [horiak][116] arrazu zian. Lazgarri atxematen tü hoik. Nehok ez zin ikhüsten!

Eta pantalonak altxatü, eta:

−Ze beroa!

117

E4-18 APHEZKÜPIARI GOMITA[117]

Aphezküpia berriz e, Santa Grazirat jin eta behar ziala üntsa errezibitü, eta ordian komitatiak zian, ba(ra)tzian zen, etxian barnian eta gelariai erraten dü:

−Komitatiak joain direlaik behar düzü, erratz ttipi batekin gibeletik üzkia xahatü! Eta ordin jüiten da eta aphezküpia komitatia da eta gordexka, lan egin ondoan erratz batekin etxerat jin eta aphezpikia:

−Oso modernoa düzia komitate hori, ba, ba, ba, ba, üzkiak eta denak xahatzen tü!

E22-03 APEZPIKIARI GOMITA (II)

Behin herri batera apezpikiak, herri bateko erretora, bere erretorari galdegin zakon, komisioni igorri zakon, nahi zila etorri, haren herria nahi zila bisitatu ta haren parropiako jendeak eta nahi zitila ikusi eta holako egunean etorriko zela. Eta gure erretorak erran zuen bere parropiako jender, hola ta hola, gure apezpikua etorri behar da holako egunean eta nahi nuke jendeak zaizten denak mezarat eta gero denak elgarrekilan egon gaiten eta goxoak elgarrekin.

Ta, bon, etorri zen eguna, etorri zen, bena lehenik hasi ziren pentsatzen: "bena apezpikia gure herrira etorriko dela ta gauzak behar zuztela izigarri mugi, behar

[115] Soigner: zaindu
[116] Ez da ondo ulertzen
[117] Kontakin hau ez dago osorik. Ikus beste aldaera hauek: E24-03, E31-03, E22-03.

zuztela prestatu, eta gauzak arrunt ongi egin behar zuztela". Bati gogoratu zitzakon: "Ba, apezpikua ere gu bezalako jendea duk ba, ta berdin-berdina bere eginbeharren egitera behartuko du hura ere, eta behar zutela espresuki harentzako egin komun bat. Ta egin zuten, ta gehiago da, ezarri zuten gizon bat komunan behian, isopa batekin, gero bere eginbeharrak egitearekilan harekin garbitzeko. Hala gertatu zen, ta apezkikiak egin zin bere eginbeharra egin zin ta berala isopa pastu zakon bere gibilaldean ta orduan apeza harritua behatu zuen beheti, eta berriz eh, zip!

E24-03 APHEZKÜPIARI GOMITA (III)

Santa Graziko apheza izan zizün Baionan, aphezkupian etxen eta hemen etzüzün oano komitatetan chasse d'eau (lan egin ondün ura tiratzen düzü, urak eraman dezan) eta Baiunan hua ikusi zizün Santa Graziko aphezak, aphezküpian etxen lehentze ikusi zizün komitati(r)a jin zelaik. Eta ura hoi emaiten aintzina.

Gero ondoko urtin Santa Graziko aphezak gomitatu zizün aphezkupia Santa Grazirat jitea. Bena Santa Grazin apezetxin ez zizün komitate modernaik eta bazüzün eta zilo batekin eta ordin aphezak erran zizün:

−Aphezküpia jinen delaik

Lehen Sakristaina baitzian elizaz okupatzen eta. Hari erran tziozün:

−Apezkupia jinen delaik, beharko dük atzetik juan eta taulapila jun[118], eta aphezküpiak bere lana egin ondün, xehatüko dük gibela[119] pintxeu batekin.

Eta hala egin zizien, eta geo aphezküpia apairutik landa, komitatila jun eta lana egin ondün, petik pitxet bat igan züzün xahatzeko. Apezkupiak etzizun sekula ikhüsi holakoik. Jun züzün ikhüstera ziloan zer zen eta pekaldetik beste pintxet aldi bat igan ziozün.

Eta ordin aphezküpik erran zizün:

"−Santa Engrace, tu ne verras plus ma face!"

("Santa Engrazi, eztüzü habo ikhüsiko ene südürra!")

[118] Taularen behera joan
[119] Atzealdea, ipurdia

E31-03 APEZPIKUARI GOMITA (IV)

Gero Santa Grazin, han ere apezpikia esperantxa zuten. Izigarriko evenemendia, bena mendirat Santa Engrazirat apezpikia. Hak arranjatu tuzte. Handi xuxun, etxun ordinatorrik ez ordian oano. Gero jin txixien eta Santa Grazirat apezpikia ta han Baionan batu denak eta

−Guk galde iten ziau, toiletaik nihun eztiau fitsik.

Gaua pasatu behar eta behar zin nunbait zerbeit in. Ta batek erran zin:

−Ba, bena Baionan eletrika dute eta han kabinan beren toileta pasatuta, xahatzen da eletrikaz xahatzen dute, eta hor aldiz ze in behar da? Toileta kanpoan in xixien beren gisa taulazko tegi eta gero gibelean leku ttipi bat. Hartan Petti gizon ttipi bat bazuzun eta hura ezarri zuten hartan sahetsean gordeik eta apezpikia jiten bazen, jiten zelaik, han handik behar tzin pintzeo batekin xahatu, apezpikiak bere eginbeharrak in eta. Eta Petti han txokoan, eta gero in zin, Pettik bere lana in zin apezpikia harritia Baionan.

−Hemen eletrikak tut eta hemen ze gertatzen da?

So egin beheti, eta gero berriz sudurrian pasatu zakoxun, eta apezpikiak erran omen zien, omen zien:

−Santa Engrace, Santa Engrace, tu ne verras plus ma face!

(Hori artoxuritzetan kontatzen zen)

118

E6-05 GALTZOINAK PANTALOIPEAN

Bi gizon joaiten dia Donapaleuko merkhatilat Xibero zola hortaik eta erraiten die. Eta heltzen die Sarrikotape eta Arruen artian eta batek erraiten:

−Oh! Beharrüniak hartü nik, behar tiat zagoilak[120] aphaltü. Eta ene beharrünik.

−Ah! Bon, bon! Nik ere behar diat.

Biak elkarren parian jartzen die, artho alor baten bazterrian eta biek pantaloak kentzen düte eta uh! erraiten dü batak bestiai.

[120] Zaragoilak: pantaloiak

−Ah! nik behaüt txükatu oai. Bere beharrünik egin onduan, hartzen die artopeoka[121], deitzen dügü gük, eta xükatzen dute, eta bestiak so iten dü:

−Errak hi, bena hik batük bi pantaloin.

−Eta bai.

−Zentako?

−Ah, ni hola joaiten naizenian merkhazale, ezarten tiat kaltzoinak, garbiago dük.

−Ah! Hik batük hoik.

−Ah bai, bai! Eta mediküat juiten nintzalaik, hola beztitzen nük. Ordin ez zen ezlipik, püntü horretan, kaltzoinak zian, franelazküak.

−Ah! Eta hoik nün erosi tük?

−Ah! Hoik Donapaleun atzamanen tük, holako magasian berak atzamanen tük nahi badük.

−Ah, bai! Pantaloak altxatü eta joaiten dira antzina. Eta merkhatila heltü aintzina:

−Hortxe badük nahi badük magasia. Aski dik erostia hor.

−Delako kaltzoiak erosi zütien. Biga ere bai. Bata orduko eta gero bestia behar üneantako berrik, sos gutxi baitzien.

Eta gizün horrek:

−Ah! Üntsa joaiten baitia. Eta bon, beren merkhatia iten die, üntsa bazkaiten die, khantan, edaten eta xopina bat edaten, eta etxeko tenoria heltzen da, arrastiko bost orenak.

−Bon, etxeatü behar diat.

Oinez hasten die. Hara beharünia heltü ondoan.

−Sobera jan diat, bazkaria sobera, eztüt ebilten ahal.

−Arra beharünia heltzen da eta zaragoilak apaltzen eta beharüniak egiten ta.

−Ah! bena errak eta, hik erran bei hitan, kaltzüak erositiat. Arrazo dük.

−Zentako? Erran beihian xahüago zela.

[121] artapeoka: artoaren hostoa.

−Ah! bai, bai. So egin ezak. Eztiat lürra zikindü bate. Pantalon gainekoa aphaltü zin eta bestia han ützi kaltzoia. Ahatzi zin aphaltzia.

119

E7-01 PUTZAREN BARKAMENDUA

Arnegiko apezak ta Luzaidekoak ez zuten sobera gehiegi elgar maite, bata frantsesa eta bestia Espainiako partian. Eta egun batez juiten zako Arnegiko apezari herriko emazte xahar bat kofesatzeat, xahartia gaxua ta kobesatzen hasten da ta iten dizko, bere bekatu guziak kondatzen dazko ta bestia abtsoluzionearen emaiten hasi, ta

−Zaude, zaude. Badut beste bekatu bat.

−Ze duzu?

−Ba, joan den igandean elizan purruz bat egin dut.

−Ah! Hori, hori seriosa da eh! Ta guk eztugu hemen Frantzian bekatu horren abtsoluzionea emaiteko deretxo, bakarrik Espainian, Luzaideko apezak badu deretxoa emaiteko horrendako, eta emainen dautzut paper bat iskiriaturik eta joanen zira Luzaideko apezarenganat, kofesatzera.

Oh! Loriatia emazteki xaharra, joaiten da beaz, Luzaideat, Luzaideko apezarenganat.

Ta erraiten dako beaz, kobesatzen hasi ta hola.

−Elizan purruz bat in dut eta, erran daut Arnegiko apezak zuk baduzula deretxoa abstsoluzionearen emaiteko.

Ba, baietz ba, baietz emanen zakola abstsoluzionea. Emazteki xaharra loriatia eta bere bekatian abtsoluzionia ukanik eta behar dakozu hartik eta Arnegiko apezari paper bat eman, iskiriatuik eta.

Ezartzen dako anbelopa barnian paperra eta joaiten da Arnegiko apezarenganat. Eta beti ta:

−"Kobesatu diat beaz hik igorri emaztekiño hori.

Eta barkatu dauiat in putz hori

Baina berriz ez dadin gerta

Sarrakok ipurditik hire sudur haundi hori".

E17-01 HÜTZAREN BARKAMENDÜA (II)

Izan zen etxe batetan arto xüritzia (doi-doia aipatzen baikünin, arto xüritzia) ta den-denak han zien, ta ordin batek kondatü zin ixtoria bat. Arto xüritze hartan izan zen, norbaitek igorri zin, nula behar düt erran, hütz bat, bakizü, aidia, aidia igorri zin, eta üsina ez zen beti ũna (ta sekhülan hemen segurrik, zuen eskualdean eztakit, bena hemen hala zen) norbaitek igorri zin isil-isila hütz bat. Eta han jentik hasi zien puh! ta puh!

−Hoi hik egina duk eta!

−Ez nün ni! Ta hura dük! Ta bon!

Ta afera gastatü[122] zen, biga hasi zien jokan, bi gizon, eta gero beste biga sartü zien eta sepaatzeko, ta gero izigarriko itsuskeria izen zen, denak jokan ta hau ta hua ta. Bon!

Eztakit gero artoxüritzia lana bürütü zienez hala han gelditu zen bena, geo egün zunbaiten bürian, emazte bat baitzen egilia, dolü penetan sartü zen emazte hüa, ta kofesatzea jun aphezai. Hara han ziela erran züzün izan zela gertakari latzgarria etxe batetan haren faltaz eta hura zela hützaren egilia, eta ingüria etzila erran, bena nahi ziela barkamentu galthatü Jinkoari.

Ta –Ba, ba, ba…

Aisa Jinko hunak dener barkatzen zila ta ordin untsa zela aitortzia lehenik ta penitentziatako eginen zila bi Pater, lau Agur Maria ta usatzen dien penitentziako…, ta geo handik antzina eman ziozün bere gizonai emaiteko gütün bat, gütün bat axal batetan ezarrik eta aphezak ixkribatü zion zerbait han eta bon:

−Etzazüla irakur, hoi emozu gizonai eta algarreki irakurriko düzie. Bon, etxera hel eta emaiten diozü gütüna, biek zabaltzen düzie eta gütün hartan aphezak erraiten zizün:

Barkatü düt. Ordin emazte hura lehenik, emazte harek bazüzün izen bat: Añagorri deitzen zizien, Añagorri. Aphezak ordin gütün hartan erran züzün:

"Barkatu düt Añagorriri,

[122] Goastatu, hondatu. Gaztelaniaz: estropearse, "corromperse".

joan den egunian egin din hütz hori

bena gauza hori eztadin berri

zilotik sarkozü südur handi hori".

120

E8-04 XAGUAK ELIZAN

Beste behin bazen apeza predikuan ari, ta prediku alkitik holaxetan so iten du ta ikusten ditu beretterak biak irriz ari, ta sakristirat joaiten da, ja meza finituta aldatzeko ta galdatzen du:

−Ze zinuten irriz oixtian eni beha?

−Jaun erretora, aldare xokoan bada holako xilo bat, eta hartarik bi xagu jalitzen dira, ta bi xagu, bi xagu josteta ta.

−Goazen ba, [klar][123] hotsa duk. Heldu denian eztituk jalkiko ez, zilo hori tapatuko diat nik!

Astea gan, ta geo bazien asko iteko ta aski ez. Ta hantxe, ta gero ondoko igandian ari zen berriz predikuan ta Mendibileko Maria, bakizu harek bide asko oinez eginik, ta prediku denboran egin zuen uzker bat ikeragarria. Ta ingurukoak denak irriz, ta hain handia egin zuen, galerietan ere gizonak aditu ahal zitun denak irriz eta.

Ta apezek pentsatu, hoik nere saguendako ari dituk ta nik denborarik ez izanik eta. Ta err(a)ten du:

−Kristau maiteak, badakit zertako ai zizten eta irriz. Bena jakizue heldu den igandeko zilo hori tapatia izanen dela.

E29-12 XAGUAK ELIZAN (II)

Egun batez eta apeza zen Lapurtarra, Baxenabarren gira. Lapurditik joan zen Xiberurat erretor, erretor. Ta gero gelaria bazuen, gelaria bakizu zer den?

Eta gero ordian, egun batez, igande batez izigarriko predikua in zuen ta nahi zun Xiberotarrez mintzatu, bena gaixoa, etzauken[124] in.

[123] Ez dugu ondo ulertzen.

Ta geo ordian, hasi zelaik xuberotarrez neska gazteak orok irriz hasi ziren gure jaun erretora arrunt gaitzitu zelako eta delako predikua fini eta in zuen ahal bezala eta gero delako gelaria mezan baitzen, igorri ta bazkaita jin zelaik, erran zakon gelariari:

−Zer zuten neska ergel horiek ene predikuan aintzinean hola irri iteko?

Filosofo baitzen gure gelaria, erran zakon. Herri hartako eliza xaharra zen ta bazitin xilo batzuk-ta, bakizu, zoladuran, ta

−Ba, etzuten deuse gaixo neskak, xagu bat bazen xilo batetik bestera zebilana.

Eta gero ordia:

−Oh! Bon!

Ondoko igandean berriz hasi zen ber predikuan eta berriz neskak sekulan bezala irri. Eta geo erran zuen eta hua irriz hasi zen. Ta zer gertatu zen?

Bazen andre bat izigarri lodia eta arrosarioak eorten uzten zituen eta apaldu zen errosarioa bildu nahiz. Eta espaki zakon tiro bat (puzkerra) eta ahaha!

−Neska ergelak, badakit bai zertako irri iten duzuen, baina heldu den igandeko xilo hoi tapatia izanen da!

121

E8-21 HIRU NESKATO GAZTE

Hiru nexkato gazte, mutxurdin, joan ziren Jondoni Petiriren aintzineat. Ta lehenbizikoari galdegiten dako:

−Nola paastu duzu lurreko bizia?

−Ba, ze nahi duzu jauna. Gizonak maite nitin eta zerbitzu zombait inez ta…hola.

Ta −Bon, bon, bon, sar zitez herioan.

Ta bigarrenari galdegiten dako:

−Ta zuk nola pastu duzu lurrean bizia?

−Ba nik e horrek bezela gizonak maitatu ta batek haur bat inarazi ta haurra nihaurek altxatu ut, ahal nien bezela zeait ta.

[124] Ez zezakeen egin

−Zure mereximendiak handiak beizik eztia. Sar zaitez zerian.

Pentsa hirugarrena kontent zenez. Hari galdegiten dako:

−Ta zuk nola pastu duzu zure lurreko bizia? Ta

−Ba nik eztut pixiteko baizik baliatu.

−Zazi, kakitea beaz!

(Beraz, otoi baliazkitzi, bestenaz ez zizte herioan sartuko!)

122

E22-02 SUKRIA

Bankako apezak ukaiten zitin bildotsak, hor artzain ta betire gehienak, hala ointxen dena bezela. Ta bildotsak ukaiten zitin, ta gero primaderan bazkaria emaiten zen, bildotsa emana zuten, etxeko jaunak emaiten zuen bildotsa jateko, bazkari bat. Ta gero, bazkaria egiten zuten xarmanki eta gero bazkaria finitzerakoan, gizonak aseta beteak izaten ziren eta joiaten ziren komunerat. Ta handik etortzen ziren ta gero bazkaria arras fini ta gero bazen kafia ta zukria ere izaten zen, eta gero bistan da beren eskiekilan hartzen zuten sukria ontzitik eta hola. Apezak erran zion bere gelariari.

−Errazu Joana, ta hola ta hola, gure gizon horiek eta horrela ibiltzen dira komunean eta handik heldu direlaik. Izaiten dira oain azukre hartzeko pintxetak, eta haren parea behar genuke eosi.

Ta baietz, ongi. Ta bon, erosiko zitiela gelarik, erosiko zitiela. Erosi zitin eta jin zen ondoko urtia, jin zen. Ta hola bazkaria jan zuten ta beti bezala, betiko komeria, eta kafian tenoria jin zelarikan azukria han zen, pintxetak etziren han. Ta gure apeza xutitu ta joan zen gelariarena.

−Ta errazu Joana, nun ezarri tuzu pintxetak. Badituzula, ta nun ezarri tuzu?

−Ta han komunian.

E24-02 SUKRIA (II)

Apezak besta egiten zizin urte oroz eta adorazionia deitzen züzün, eta kartierreko apezak oro jüntatzen zütützün egün hartan. Apairu handi bat egiten zizün

eta geo aphezak jaten eta edaten zizien eta apezai ez ziozün untsa juiten eta gelariai erran ziozün:

−Apezak oro apairü denboan, apairütik landa pix egitea batutzü komitatilat, eta geo kafia edaten batützü sukria botatzen dizie eskü zikineki eta daigün urteko beharko tützü espintxeta pieza huk ezarri. Eztezen sukria hünki geo eskü zikineki.

Bon ondoko urtia horra düzü eta ondoko urtin, apairü handia prefosta ta ber gaiza, apezak juiten pix egitera eta arrajiten eta sukria har eta kafian ezarten eta gero apeza gelariai jün züzün erraiten mespretxatzera:

−Bena erran neizuna espintxetak ezartez.

−Ezarri tit jauna!

−Eta nün ezarri tützü?

−Komitatin.

(Apezak txilintxaren atxikitzeko…)

123

E40-04 ZEZENAREN IXTORIOA

Bi laborari, Parisen hura ere, bi laborari elgarrarateratzen dire igande goiz batez, aperitifean. Konplimendiak egiten duzte ta erten dio :

−Nola, nola haiz, to ! Untsa hiza ? Ta aste una pastu?

−Ba, ba, usaian bezala, lanian ta.

−Ederki.

Eta erten dio batak besteari:

−Errak hi eta ohartu hiza, gure auzo horrek ze behi aldia erosi duen?

−Ba, jakina diat.

−Ikusiak tuka?

−Bai, bai, ikusiak tut. Bakar zombait askitto urranetik ikusiak ttiat. Ba, gibeleko bordat jiteko, itzulia iteko partez, bakik trebeska nola pasatzen nintzan pentze hortaik?

−Ba, ba, bazekiat ba. Earretaik eskapatia nauk ba!

−Earretik eskapatia? Ta ze, ze pasatzen da?

−Ze pasatzen? Ba nik ikusiak nitian han, zoko-zokoan zitean behi tropa hua, irudi ziten behi ederra, maneraz emaiten ziten. Banineakan trankilki eta mementu batez, ta zer ta nola? Gibelea behatzen diat eta ah! Behi bat heldu zitzadala gieletik.

−Ohoooh! Berriz behatzen diat eta ohartzen nuk, zezena zian, alajinkoa! Eni buruz heldu.

−Zezena?

−Ba, ba, zezena.

−Partitzen nuk, partitzen lasterka, aiden aldian bezain fite! Mementu batez ikusten diat nundik hua, antxu bizkarrian sartiak nitian haren bi adarrak, ikusten nitian. Ta krak! lerratzen zian ta erortzen. Nik abantaila hartzen nian berriz, ta berriz e, hiru edo lau aldiz hola. Adarrak antxu bizkarrian sartiak zezkakan ta berriz e krak! lerratu, erortzen zian. Arribatu nizalaik hesiaen ondora, oroit hadi ez dutala nehoren beharrik izan norbaitek altxatzeko. Jakintzak, apitxuan[125] pasatu diat pasatu! Pasau jauna, oroit hadi ta zangoz hunki gabe, e!

Bestiak behatzen diat eta

−Koño, ze kuraia ukan dukan halaike! Hori gertatu zaukala?

−Ba, ba, hori gertatu zaiak. Hortako erraiten deiat. Aski ondotik ikusia dutala baño zezena, aski urran ikusi deiat.

−Berriz erranta hori, mutikoa, ze kuraia! Nik hire partez, ene ustez, izialdurarekin pantaloinetan kaka inen nian.

−Debru mentsa, zertan uste duk lerratzen zela!

[125]Orotarikoan azalpen hau ematen du: " Acción de saltar sobre un caballo sin la ayuda de las manos, en un arranque"

GEZURREI BURUZKOAK

124

E11-12 IHIZTARIA AHOHANDI

Hiru ihizlari Larraiñen zütützün, eta Parisien bat haiekin eta erraiten dizie, "le chasseur c'est souvent le menteur", "hizlariak üsü aho-handi tützü".

Batak erraten dizü:

−Nik badiat xakur bat, alajinkua, kuxanta[126] (d)ük e baña ona dük, eh! Larrañen urzo bat ti(r)atü diat. Jo dü, Ligin ta alajinkua xakhürrak ekharri datak. Berrogei kilometra düzü.

−Ce n'est pas posible ça. Ez zizün konprenitzen.

Eta bestiak erraten dizü:

−Bai, nik basurdekako zakurra diat, terriblekoa bai. Igantin basurdia joana(r)azi diagü ta kholpatü diat, tiatü diat eta odola thorrotaka[127] zoan, bi kilometraz segitü diagü ta geo galdü diagü. Xakurrak galdü.

−Asteartaarekin, ene emaztia [badü nixa bat, nixan][128] urdia ta basurdia ta zakurra hartü ditia(g)ü.

−Ce n'est pas posible ça.

−Ah, oui, oui, c'est tout comme ça, c'est vrai. Iragan egünin, üsategian, bena lazgarriko bekhardala(r)ia[129] ona eta südürra terribleko dia. Iragan egünin, ene emaztian jarretiela senda(ra)zi doot[130], galtzen atxikitzeko, eta biharamenin fakturr(ar)en koskoilekin jin zitadak eta.

[126] Frantsesezko "couchant", zakur mota bat
[127] borborka
[128] Ez dut ondo ulertzen zer dioen hemen.
[129] Oilagorrak harrapatzen dituena
[130] Kremailera konponarazi diot

AKATS FISIKOEI BURUZKOAK

125

E1-06 GORRA ETA MEDIKUA[131]

Gizon gogor bat bere aziendak edanarazten ari putzu batean eta jaun midiku heldu patarra goiti eta ez zuela aditzen, ez nahi erakutsi medikuari.

Hor pentsatzen du galdatuko ziola edo erranen:

−Behi ederrak ditutzu horiek

Eta nik errepusta emanen diot:

−Ttipitto bainan propitto.

Gero galdatuko naik ian bururik badudan. Nik erranen zioat:

−Iaz baino pitta bat gehiago.

Gero galdatuko naik ian putzu hau barna den. Nik erranen zioat:

−Hunako aska huntaraino.

Gero galdeginen naik nun (den) hilaren etxea. Nik erranen zioat:

−Horko patar hori gora.

Medikua arribatzen da gizonaren ondorat eta medikuak:

−Agur, jauna, agur.

Eta bertziak:

−Ttipitto bainan propitto.

−Baduzuia buruik?

Eta bertziak:

−Iaz baino pittat gehiago.

−Makila hori sar bazineza ipurditik !

Eta bertziak:

[131] Kontakizun hau idatzi egin zidan eta gero irakurri.

−Hunako aska huntaino, jauna.

−Debruak joan bazineza hortik.

Eta bertzeak:

−Horrako patar hori barna, jauna.

Gaizo gogorra geroztik ez dakit nola dabilen.

126

E10-02 GORRA

Emazte bat eta Donibaneko merkatian joana arrotze ta oilo ta horiek saltzeat ta Donianeko merkatian zen han ta espainol erostun bat heldu zako eta erraten dako:

−¿Cuánto vale la gallina?

−Harina? debru astopitua ikusiko uk arina denez.

−Que te calles, que te calles, que tu eres loca?

−Koloka? Atzo in nahiko nun ba arrotzia!

127

E11-03 AXKARREN IXTORIOA: HIRE ANAIA BEZALA

Bazüzün Axkar bat. Mauleko merkhatin züzün, urden saltzeko. Eta ordin etzizün urdeik saldü. Bazizün anai bat Ame(r)iketaik jinik. Haura mehe düzü eta bizkarra konkor.

Ordin erraten dizü gizon batek:

−Gure Axkar! Ez duzie urde hoi saldu!

Ta −Maule düzü espainola.

−Ta ez alajinküa! Españolak difizil tützü. So egiten ze atzamaiten dien![132]

−Oaiko urdik behar die hire anaia bezala, handi, luze, mehe eta bizkarra konkor!

[132] Begiratu egiten dute zer erosten duten.

128

E14-03 TUÑUTA ETA BEGI BAKOTXA

Guk erraiten dügü hemen tuñuta, konkorra bakizü. Bazüzün bat eta juten da khantilat eta beste gizon bat begi bakotx züzün, begi bakotx. Ta begi bakotxak erraiten diozü, konkorrai erraiten diozü :

−Uh ! Bahoa goizetik kargatüik merkhatila !

−Ah bai goizik, hik ez baitük leiho bat baizik zabalik !

E40-09 TTONTTORRA TA OKERRAREN IXTORIOA (II)

Goiz batez ttonttor bat elki zen bidian, kruzatzen du oker bat ta okerrak iten dio:

−Hola Joanes! Ah! Ibilki eh!

−Ba, ibilki!

−Koño! Goizik kargatua haiz!

Ta ttuntturrak burua goititzen du ta:

−Ba, ba, ba, bai. Goiz izan behar dik, zien etxian ez duk leiho bat baizik ireki(ri)k.

129

E15-07 BÜZTANA

Ber gizona ai züzün hargingoan, deja erran dit hargingoan ai zela, eta mürrü baten müntatzen ai zütützün beste lagun batekin: harrik bota, ta lerrokatzen, eta gero, azken harria batzen züzün egiteko. Berak, Axkarrek ezartzen dizü azken harria eta gero, bestek lagunak ezartzeko phartez azkena, uzten dizü han.

Eta geo bestik, usteik eta fini erraten dizü:

−Ah! Azkena utzi ditela, bai urdia! Hihauk egiteko partez!

Bestiak erraten dio:

−Kasu in zak zer erraten dik eh! Urdik büztana gibelin dik eh! Nik aintzinin diat.

Eta bestiak arrapostüa:

−Hik e gibelin hobeki hüke, iztezain gaxto hoen gordatzeko![133] −zangok okher zitützün.

130

E22-14 BIMIELEN IXTORIOA

Bimielek debekia bazin, hitzak nekez ateratzen zitzazkon. Miel zien izena, baina izengoitia Bimiel erraiten ginakon, hitzaz nekez erraiten baitzitin behin baino gehiagotan. Ta bazen Alduden omen, ni eniz oroitzen bena, apez ttipi ttipi bat, bikario bat ttipi ttipi bat omen zen.

Ta behin aritu zitzakon Bimiel horri erraiten:

−Bai, nik baitut hiru ama

−Ah, bon. Eeetaaa non tutzu?

−Lehenikan ene ama, gero han egoten zen etxe bateko Katalin Crespo, hura ere ama kontsideratzen zin, ta gero zeruko ama

−Baaatek iiteko ere etzeeen haaandia.

131

E42-04 ALABA MOTELAK

Gizon batek bazitin hiru alhaba eta hiruak motelak. Bakizu zer den motela? Eta baten gizongeia jin beharra zen eta amak erran tzien:

−Hobe ziek ez mintzatzea, oain ni mintzatuko nun, hala den ohartuko ezen motelak ziela!

Eta gizongeia jin zelaik juxuxtun iruten ai zien, harian bakizu. Batek errten du:

−Tenka haria. (Haria trenkatu)

Bestek:

−Tontorropilomaria! (koropilo zan Maria!)

Ta gizongeiak errten du:

−Zer dira hok, motelak?

[133] Hankak okerrak zituela, alegia.

Ta hirugarrenak:

−Bai, ta hi petoter.

Orratzarekin begia xixtatu zakon. Petoter erran nahi du oker, begi-oker.

EMAZTEEKIN, EZKON BIZITZAREKIN LOTUTAKOAK

132

E8-10 OHAZPIKOA SATORRAK UZKAILIA

Hemen bazen leno Errekaldia beherian etxe bat eta bazen gizon bat, eta ikaragarriko eleketaria zen eta Mamu deitzen zuten ta. Beti er(ra)ten zin: emazte txiki-txiki bat zuen eta emazteari Mamutxa er(ra)ten zakoten. Er(ra)ten zin:

−Hau hirugarren emaztia diat. Lehen emaztia egarriak hil zian, boketa latsan ai zelaik iturrian. Bigarrena hotzak hil zian larre gorritzen ai zelaik eta jakizak hirugarren honi kasu iten dakotala.

Eta hura beraz, hemendik eta harat juan zen otepiteat[134], otepiteat, eta ez baitzen, baitzen bidian par-parrean, er(ra)ten zin:

−Errekaldetik leihotik so in diat barneat. Ze ikusi dut? ze ikusi dut? Ganberan ze ikusi dut eta.

Ta bestek:

−Ze ikusi duzu? Ta,

−Harritzekua, harritzekua.

−Ta ze ikusi duzu?

−Ohazpikoa[135] satorrak uzkailia.

Zolan lurra baitzen.

133

E8-11 ARRAUTZAK

Behin baten ari zakon andria gizonari, bakantzak behar zituela hartu ta bakantzak, ta ahizparekin gan behar zuela bakantzetat, ta beti lana ta beti lana ta zera. Ta bon, gero baietz, baietz eta. Esposatu zirelaik egina zuten, mahai ohian (table de

[134] Ote epaiterat.
[135] Ohazpikoa bazen leno, ezpaitzen komunik, pixiteko.

nuit) bazterrian bazen, eskualde bakotx bazen tiranta, han andrek ezartzen zuten erraztuna ta kollirak ta pettanttak eta gero beherago irekita ezartzen zuten delako ohazpiko hori bakotxak bere eskualden egiteko ta. Ta hek egina zuten sekula ez beiratu batek bestianari, gizonana ta emazteana. Ta bon, beaz gaten da astiandako gana zen bere ahizparekin ta lehen egunean, beraz gizona sartzen da ganberan, usaian beti andriarekin ta bera gabe, eztuela kasu iten, ta bigarrenian hasten da pixkat, ta hirugarrenian ta muble ttipiari so ta buriari hazka ta.

−Sekula balu zerbait hor gordeik! Sekula balu zerbeit! Ta sartzen da ohian ta laugarrenian e bixi-bixia horra ta geo bosgarren egunian, tiranta irekitzen joaiten da ta tiranta irekitzen du ta harrapatzen tu bi arroltze barnian. Ta to! Andriak nunbeit oilo kafira harrapatu ta hara partitzeko ta eztik izan astirik han ezartzeko ta hemen pausatu dizkik eta harrapatzen du envelopa bat ta envelopa bat, irekitzen du ehun mila libera barnian, dirua.

−Bi arroltze, ehun mila. Ehun mila, bi arroltze. Eta hak gainera, dirua aldatua han juaiteko, bakantzetat.

Ta beaz, bihamuneko egun guzia, bi-hiru aldi lanetik etortzen da ta beti hek han. Ta arribatzen da andria ta,

−Bo, ta untsa hiza? Ta potta.

−Untsa hiza? Hi untsa?

−Uh, loriatuik, uh, loriatuik. Untsa heldu den urtian e berriz joan beharra gaituk, ta bi ahizpak joan beharra gaituk.

Ta bon, bon, bon. Ta andria ohartzen da ta

−Bena, hik zeik bahuk eta hik zeik bahuk, ez haiz usaiekoa ta. Bena ze pastu da ni enintzalaik hemen?

−Ez, ez, ez beste holakoik ez.

−Ta bai, zeait bahuk.

−Ta bon errain denat: Banekin enila egin behar bena, joana nauk eskualdeat, badakin beti bakartasunean hantxe, ta bakarrik ta alta einahala inda ta tiranta ireki ta bi arroltze haik, har matutinatan ta bitxi zatan ta bi arroltze ta.

−An, bon. Ta ireki duk? Hitzemana gi(ni)an ez giniela bata bestiana ireki behar? Ta ireki huk halere.

−Ta ba, badakin. Ta bizpalau egunez egonda ta ezin egona in zatan. Ta oano bitxiago in zatan envelopa bat han, sos paketa ua ehun mila lira.

−Hura ere in duk. Bo,

−Erraen deat, hori erraen det zer den. Hi tronpatu hutan aldi guziz arroltze bat ezartzen nian han, ta gizonak eiten du hoita hamar urte esposatuik eta bi aldiz hamabost urtetatik aldi bat ez zela biziki eiten du.

−Ta ehun milakoa?

−Ehun milakoa? Dotzena bat iten nian guziz arroltzak saltzen nitian ta hemen saria.

Anitz aldiz tronpatua zuela, ez zela andre ona.

134

E8-15 HAURRIK EZIN UKAN

Behin bazen, gizon aberats bat, kontia. Ta haurrik ez zuen ukaiten ahal, nihundik e haurrik ezin ukan eta bazuen eta bordaria, gizon ederra eta bikaina, eta harek. Egun batez erten dako bere andreari:

−Gure konte segida guzia eztaukagu, ta hik behar huke ume bat in beraz, bordari hortarik.

Ta baietz, eta ezetz, eta ezetz eta baietz. Ta bo so izan. Ta kontiak ordin bat eta besterat joaten zin, berdin ihizin eta ihizin astiarendako[136] gaten zin eta batetik besterat, eta holako astian.

−Ta aski dun, eta ni banun. Bordarian etxetiarra, erraiten duzie zuek, maizterra, bordaria. Ta ganen nuk hara errateat.

−Ta bon, zu ta heldu niz, zerbitzu bat.

−Bai, Jaun kontia, ta zer? Ta zer?

−Behar duzu, ume bat eginarazi nere andriari.

[136] Aste osorako

−Bai, jaun kontia, ezta posible!

−Bai, bai, bai, konpondua niz andriakin.

−Mutikoa heldu bada, barrukiko idirik ederrena emanen dautzut. Ta neskatxa bada, behia, behirik ederrena.

−Ba, bena ezta posible…

−Soizazu. Ein behar duzu.

Izitzen ari baitzen, ikaran zagon ea berdin kanpo(r)a botako zuen. Eta gero, andriari esplikatu, andriari beraz esplikatzen dako ta.

−Eztakin kontiak zer, haurra behar dinat eginarazi, haren andriari.

−Ez al duk inen?

−Bestela kanpoat igortzen gitin.

Andriak e kanpoat joaitia bano, nahiago zin kontesakin izaitia, beste nornahirekin bano. Ta joaiten da beraz kontesaren ikusterat ta:

−Lanetan gaude hori ta zera ta.

−Ba, ba, badakit. Aldi bat eta fini eh! Aldi bat!

−Bon, bon untsa da.Ta noiz?

−Bihar goizean ziauri!

Beaz andria beheraino koztumarekin. Plantan[137] bezti huan, hara ta kenduko tu arropak eta plantan beztitu iten dako ta. Ari zuan zapetaino.

−Zapetak! Iten dukan lanendako aski tut kloska horik e, eskalapoinak aski tuk aise.

Ta joiten da, ta gero berriz jiten, ta inork ezpaitzian fitsik erraiten, ta bulta baten burian agertzen du kontesak akitia zela. Ta handik ixtantian, kontesa ez zela hain untsa. Ta naski esperantxetan zela.

−Badiat, idi baten edo behin baten mentura.

Ta goiz batez bea azaldu zako ta kontia, mutila.

[137] egoki

−Ta kontian partez, behar duzu jin, idian txerka, zor diala zuri, eta beraz, idian txerka.

Ta loriatua!

Iten dako emaztiari,

−Ikusten idia.

Handik eta ordu erdi baten buruko heldu zako. Parezkak batuk, mutikoa ta neska. Kontiak erran du, behi baten txerka ere joan behar duzula. Behia ta idia. Emaztiari itzultzen da:

−Meskila! Meskila![138] Zapetakin joan banintz, barrukiko guzia neretzako zunen, zapetakin utzi banindu, joateko partez kloskekin.

135

E10-07 MEDIKUAREN FROGA

Medikiak eta emazte batek senarrak azkar edaten zakon eta:

−Hi ez hurbildu hai. Hola hartzen bahaiz eta sobera edaten duk, arno hortaik sobera edaten duk.

−Bon, nik untsa sendi dinat ene buria. Eta hik uste, bena ez denat nik hanbeste edaten. (Eta bon, en fin bref) medikiari aipatia zakon, emazteak bere medikiari. Senar hura abtsolutuki behar zuela ikusteat igorri, biziki sobera edaten du.

−Espea xaxu, ni ez niz etxia jiten ahal!

Ta −Baietz. Ta bon.

Ta iten dako azkenean akitien bortxaz. Ta astelehen batez erraten dako seidan:

−Egun plazer bat in behar dona?

Ta –Ahhh?

−Ta ze plazer?

Medikura joian naun eta Donianeko merkatulat, bena lehenik pasatuko medikia.

−Ah bon! Bena biba hi! Ta baietz! Medikurat.

[138] Meskila, enuxenta.

Medikiak er(ra)ten dako:

−Bon, zu hemen lehen aldikoz, nor zitut zu? Ta emaiten dazko izena ta

−Ah! Segur e ene emaztiak aipatia duke

−Ba, hartako doia, jin beharra zinela! Erran du jin beharra zinela! Ta bon.

−Zerk ekartzen zitu?

−Bon, hak dio biziki sobera edaten dudala, bena neri etzata iduri, askaitean bizpairu godalet behar tut goizian, ta geo bazkaitean berriz bizpalau.

−Uhh! Ta afaitean?

−Bistan dena, afaitean anitz heldu da, haatik hori.

−Anitz, anitz! Ta lanean e ari hiz?

Berahala konpronituko duxu ze errana dautan:

−Etxe buata hontan beti atzitzen tut lurreko xixariak. Zuk ezautzen tzu hori, laboraria zienaz burutik, lurreko xixariak.

−Ta bai.

−Ta geo bizi dira? Soizazu.

−Ta bai alaina.

−Ta hementxe baso bat arno. Ta hementxe baso bat ur.

−Behartuko xira. Behar tu xixaria ezarri urian. Behazazu hori eztenez gustian eonki hortxe ta ze agitzen da?

−Oh! Sekula enike erranen urian nola laketzen dan.

−Ba terrible! Behat huna.

Hartzen dako hua bera ta ezartzen du arnoan. Tak! Gure zizarea hila.

−Behaxu. Hor ezta gehio higitzen. Hori hila da.

−Ah ba! Hori hila da.

−Ba, ikusten dut, ikusten dut.

Ta kentzen du ta ezartzen hor sahetsean.

−Oain eniz denboran galtzen aiko gaineratiko gauzen esplikatzen. Ikusten duxu arnoak ze iten dien.

−Uh! Alaina, alaina. Oano holakoik.

Ta ordian atantzionia harrapatuik zakon. Emaiten dako kaxeta atentzionea ina.

−Ta hementik hilabete pare baten burian hola nahi zitut berriz ikusi.

Ta baietz. Ta bon, hola joan da

Bazkaldu Donapalen edo Donianen ederki ta atsalde erditan etxeat, ta emazteak, zer zen.

−Ta untsa in duk itzulia?

−Ta ba, segurki, segurki.

−Ederkixko, ederkixko, ta medikiak ze erran dauk?

Medikiak erran datana, konpreniazi datana. Inteligenta duxu gizon hori, inteligenta.

−Ta ba! Obeditu behar beita hari!

−Erran datana! Arnoa sustut, sustut ez uzteko.

−Ah bon!

−Nahi ezpadut xixarian krisa. Xixarian krisa ez badut nahi, arnoa sustut ez uzteko. (Xixariek kalte egin ez dezaten, arnoa sustut ez uztia).

136

E12-07 BER DENTIA

Bazen gizun bat ostatün, edaten zin pixka bat eta laboraria zen, eta herriko aphézak bazekin trüfale bat zela, herriko aphezak eta erraiten dio. Merkatütik horra züzün bizikletaz:

−Oh! Egün Petti goizik goizik, oh! Merkhatüa dük ützi, igaran astearteko gisa, hor gainti ibiliko edo!

−Ez jauna, ez jauna, goizik horra nüzü bai etxeat, eta badüzü egün beste arrenküraik.

−Ah bon!

−Eta zer düzie −aphezak erraiten diozte −arrenküa?

−Etxekanderiak ere behar dizü merkhatzale arrasti hüntan eta ber dentia[139] dizügü. Hortzen dentia. Emaztiarekilan berak ditügü eta ordin behar düt etxeat sartü, emaztiak ükhen ditzan hortzak zera juiteko.

E15-05 BER DENTIA (II)

Ber gizona, Maulen agitu züzün merkhatin, eta juntatzen düzü beste gizon eli batekin eta:

−Aigü, aigü, ardo bat edanen diagu.

−Ez, ez, ez, emaztik arrasti hüntan behar dik merkatzale eta ber dentik, ber horz faltsik, ber dentia diagü. Behar dit dentia eman emaztiai, emaztia juiteko merkatzale.

Ez züzün hola, bena hoi züzün kondatzen.

Alegia, hola zela.

137

E13-04 INTSINERAZIOA

Behin bazützün, gain hartako bi ama hil ziezün eta behar ziela intsinerazi. Bon, bon, ordin eta ereman zütützün, jün zütützün biek insineratzera eta ezin errarazi. Eta bidean bazkaldü, ta geo aihaldü, gero jin bai izigarriko trenpian etxeat eta ingüra batetan elhur baitzen aütoa hasten ziazü patinatzan eta erraiten diozü:

−Oh! Hautsa lehen ezarten ginizün gük amiñi bat, lotzen dü. Ah! Hartü abailan boita[140] bat.

Ezarten dizie erdia. Tünela igaiten dizie goiti. Ta beste ingüran ber ixtoria.

−Arrasta[141] ezartzen ahal diagü, ta etxea atxemanen diagü.

Ordin ezarri zizien arrasta ta heldü zütützün etxea. Etxe ondün, suia ontüik erraiten genizün gük. Hauts pian ezarten züzün ikatza, hauts amiñi bat gainen, süazian.

[139] Dentadura, gezurretazko hortzak.
[140] pote
[141] frenoa

Hor eyerki atzaman zizien eginik, bon, ahal bezala erdi moxkor baitzien biak. Boita bete, ta bihamenian ama jeikitzen düzü.

−Gaixo Juhañe hil hortxe ta gaixo –eyerki boeta zabaltzen dizü, boeta zabaldu ta hautsa küxkur bat.

Lehen pubelik ez beitzen jaurtitzen zütien suila.

−Uh! Ta badük arrautsa[142] küxkur bat.

−Oh! Gaixua ez deizüt erran nahi baina aitak bazizün oilanta bat hor, kanpo hartan, ikhüstea emaiten baitzizün artetaik, eta hor agertzen beitia.

−Oh! Gaixua parkhatzen diot, bai, gizon üna beitzen.

138

E14-05 KAKOILAK

Bazen eta edale bat bazen eta mozkortzen zen bena utzi zin edatia, ez zin habo(r)o edaten eta joan zen eta kakoilan jün zen txerka eta ordin eta adixkide batek behin erraten dio:

−Haigü behin honat edatea! Haigü honat!

−Ah! Ez diat habo(r)o edaten, etxekanderia kexü diaket.

−Haigü ikhüsiko diagü bai.

Eta kakoilak bildüik zititzün eta gero ordian egon züzün etxean eta edan amiñi bat eta beant züzün eta bi oren beantekin heltü züzün etxeat. Etxea heltzin, borthala heltzin, entzüten dizü emaztia, edo andria erraiten baitüzie ziek, kexü!

Eta paüsatzen tizü kakoilak lurrin:

−Eh! Ale, ale, oai heltü beikia, hel zite etxia. (Bakizü, ordin beranta ziozün)

E29-16 KARAKOILAK (II)

Bazen herriko mutil bat, eta eztut uste hegoaldean holakoik baden, andria arras emazte bortitza zuen, ta geo lanean zebilan, diruaren irabazteko ibili, ta herriko mutila aitzen zen eta mihiseak garbitzen eta arroilak eta iten zituen, eta gero ordian,

[142] errautsa

iluntzetan pixkat maite baitzuen edatia ta (ponpet errten dugu guk) eta ahateak, antzarak akordatuz heldu zen etxeat.

Andriak erran zakon:

−Ah! Hi erretretan sartuko haizelaik! Araiz ! Araiz ! Egonen hiz etxean ! Ehut utziko ateatzeat, ez hiz berriro hola mozkortuko!

Ta geo ordian gaizo gizonak xalo-xalo, baatzia iten tzuen eta andriari ekartzen zopa iteko puskak eta han zaon.

Bena andreak bazun defaut bat, eta doi bat gormanta zen, ta pixkat alferra ere, eta egun batez maiatza zen eta iten du euri erautsi odei−erauntsi ezti−ezti bat eta ordian primaderan kakoinak kentzen dira(bakizu zer dien kakoinak? Escargot, karakoilak).

Eta erraiten dau senarrak:

−Ta ze in bear dizin pentsatu ta erraxu? Ze karakoilak badien eta murru horietan.

−Eta ...ah ! Bilzkik, bena ez jostatu hemen, eh !

Geo ordian eta, joaiten da ta jartzen da biltzen eta, taberna edo ostatia baitzen, eta bere leheneko lagunek:

−Hara Pierra! Haugi hunat!

Eta – Ez, ez, ez, ez.

Eta –Haugi hunat!

Bere karakoilak han zituen zaku baten barnian eta geo eraten dute baso bat, biga, hiru…karakoilak goiti-goiti-goiti. Eta gero beheti-beheti jausi.

Eta gero etxeat ezin joan. Han doa sobera pizia. Eta juxtuki eta urte hartan herriak in zituen, bakizu, kalean iten baitie, trotoir nola erraiten da eskuaraz? Espaloiak eta gaixoak ahatzi zuan, ezta hartan trebukatzen, etxeat heltzen ai zelaik bere karakoilekin, eta karakoilak juaiten da muturrez beheti, bere karakoilak braaaaa… hedatzen dira.

Andreak entzuten du, eta bere senarra :

−Arraoiak dira!

Rau ! Heldu da, borta za(b)aldu orduko ta gure gaixo herriko motila bere karakoilai :

−Xaste, xaste gaxoak, a(b)antxuño helduak beigira ![143]

139

E14-06 AHOZ BEHERA

Hemen Maule ondoan khondatzen zuten, hilerrian hila bazen eta senar-emazte eli bat, eta ez zien abenitzen, ez zien üntsa jiten, bena ez ziren dibortxatu horregatik, denbora hetan ez ziren egiten, eta atzemaiten die aizüek, emaztia ehortzi berri züzün, eta atzamaiten dizie aizüek hilerrin eta atzamaiten dizie alarguna senarra, erriz, emaztian hilerrin.

−Bon badakiagü, aizüek, adixkidek badakiagü etzinela üntsa jiten, etzinela zinez abenitzen beina eztiagü konprenitzen zertako erriz ai hizan egün.

−Badakika zer pentsatzen nin: Emaztek erran zitala ”ehorzten banaik barne ehortzik e, aztaparkaz goiti elkhiren nük eta aitzen ahal dük to!” Ahoz behera ezarri diat tunban.

Eta ordian aiko zen beheti, goitiko partez.

140

E21-10 OSTATIA IZAN BAZEN

Beste kouple bat bazen ezkondu berria eta gizona hargina zen eta hargintzan eta gauetik usatua zen ostatian izaiten ixtant bat, lanetik landa. Eta ezkonduta ere hasi zen egoiten lagunekin eta emazte gazte hura etxean bera. Eta hua eneatzen gizonai beha. Etxera joaiten da eta beti eresian eta hola. Eta egun batez erraiten du ezkondu berriak:

−Gaur etxea banik segidan!

−Haugi, haugi gurekin. Ixtant bat eta ez duk berant oraindik

−Ez, bania etxeat

−Haugi, atxemain duk emaztea gero ere.

−Banit etxea.

Partitzen da eta bidian.

[143] Ia-ia heldu gera.

−Gaur e jostatuko gara, tenorea badiat.

Etxeat eta emaztea ohera joan da. Ah bon! Abian da ohera beragana. Argia pizten du ta emaztea ohean da. Bulta baten burian sartzen da, argia hiltzen du ta pota iten dako ta emazteak batez[144]. Bularretan segitzen du perekaka, ta emaztea beti berdin, ez higitzen e ta ez deus errten. Gero estomakan e hasten zaio perekaka ta emaztea beti berdin, gogor gorra, ez higitzen, deus ez erraten e. Estomaketik landa pasatzen da azpita. Ta azpitan perekaka hasi orduko, hasten da emaztea:

−Arte hortan ostatua izan bazen geldituko hintzan ba!

E30-08 OSTATIA IZAN BALITZ (II)

Beste gizon bat e, beti ostatian behera joaiten zen, ta geo etxea ta arrunt logale emaztia zumbait aldiz aspaldian gizonaen beha egona ta, loz hasia ta iratzarririk egona ai ixtant bat senarrarekila, ta senarra jump!, gero lokartzen.

Ta e(g)un batez errten dako senarrari:

−Soizak, gaur haugi goizik etxeat. Ni arrunt osagarri nauk egun eta haugi goizik etxeat eh!

Ta – Ba,ba,ba, ba, jinen naun, hitzemaite it, jinen naun. Ba, ba, ba.

Juiten da hantxe ta gizona ez da ageri, ta hondarrian heldu da ba gizona, ta emaztia plantatzen zako ohe bazterrian, xokoko murriaren kontra ohia baitzen, lehenekua. Ta haren emaztia plantatzen da hegi-hegian. Bortxaz behar zien pasatu emaztiaen gainetik (edo lurrian lo in). Ba, pasatzen da ba gizona airez aire emaztian gainetik beste alderdirat, beste alderdirat eta xokoan hare plau! lokartzera abiatzen. Emaztiak:

−Urde kaskanta! Ostatu bat izan balitz, sartuko hintzan ba hor!

[144] Batere ez

141

E25-03 GASNAK MUTUTU

Apezan etxeat ekartzen tzuzten gasnak eta bakizu, oilaskoa ta gasna anitz gauza ekartzen tzuten. Apaizak emaiten tzieten jatera. Bere gelariari errana zion:

−Norbaitek oilaskoa edo zerbeit ekartzen badu, beti emanen diozute zerbeit jateko.

Gelariak hori bazakien. Eta egun batez jin tzen menditik alimaleko gizon bat:

−Ekartzen dauzkitzut bi oilasko ta bildots baten erdia.

−Ta apeza, jaun erretora ezta hemen, benan pixka bat janen duzu.

−Ba, berdin.

Bazuzten bi gasna mota. Gasna hoberena apezak atxikitzen tzuen beretzat. Gasna arruntenetik emaiten tzion hola besteri. Salbu gelaria tronpatu zen, gasna onetik eman tzion holako peza. Hola bi botoila arno…

Ta gelaria, oh! bere buruarekin.

−Gasna guztia jan beharra du!

Laster egin tzuen, apeza eleizan baitzen.

−Erretora jauna, gasnaz tronpatu naiz, eta holako, holako etxeko gizon bat etorri zaut eta gasna onena eman diot eta jan eta jan ari da, naski dena janen du, ezpada…

−Ba, aski du, bakizu zer erran behar diozun, gasna hortarik sobera jaten bada mututzen dela.

−Ah, bon! Berriz itzuli zen. Gizon hura ari zen jan eta jan:

−Ze gasna ona!

−Baietz ba.

−Ba ona da, bainan sobera jaten bada, mututzen du.

−Ah bon! Ordin, hondar hau hartuko dut ene emazteari emaiteko.

E35-03 GASNAK MUTUTU (II)

Behin eta apezaren etxera joan zen gizon bat txerri puxkekin. Urdea hiltzen zenean ematen ziren tripot bat eta lukainka batzuk apaizari. Ta gero erraten dako jaun erretorari, gelariak holako jaunak ekarri ditu xerri puxkak.

−Bon, bon emakozu gasna hortaik –bazuen gasna apezak. Ta hura baizan gasna ona, jan ta jan ai zan. Ta gelaria harritia: "−Ez dek geratuko gasnarik". Biziki, biziki jaten zian. Ta tira ta tira ta.

−Jaun erretora, gizon hori ez da gelditzen gasna jatetik ta animaleko puska du janik deja.

−Errakozu gasna hoitarik sobera jaten bada mututzen dela.

−Kasu emazu, gasna hoitarik sobera jaten baduzu, horrek mututzen du.

−Mututzen, ordian gordeko dut emaztiai emaiteko hori. –sakolan sartu zian.

142

E27-06 DOMIXINE

Behin bazen Santa Grazin mutiko bat, Dominixe deitzen da. Han zen mendian, leku basa batean han eta. Mutikoa pixka bat gibeloia-edo. Behin berria kurritzen da Santa Grazin, Basabürü guzian, delako Dominixe delakua ezkontzen zela Santa Graziko nexkarik politenarekin.

−Ez da posible!

Ezkontzen da neska, ezkontzen dira biak. Jendia han harrituta eta bon! Denbora aintzina joaiten zen eta urte zombaiten burian, berriz ikaragarriko berria kurritzen da:

Neska, delako emazte gaztea, leku ataka txar batean astoak egin du xankarte bat eta neska bota du beheiti, leku baxa batea ta neska hil in da. Neska hil. Ehorzketan herriko emazte guziak han ziren eta gizonak ere. Hori apezak pixka bat bitxia atxemaiten zuen. Gizonak han, bizpahiru egunen burian. Dominixe delakua joaiten da ehorzketa sarien pagatzerat apezari.

Eta apezak:

−Ah! Gaixo Dominixe, pena handia duzu bena, hoi badakizu Jaingoikoa beti zurekin düzü eta ez dut erran, ikusi düzü zombat adixkide badu zurekilan? Eta emaztiak oro Santagraztarsak ehortzetan zütüzün eta gizona oro ere bai.

−Bai, bai.

−Ikusi düzü ze atxikimentu zien zuetako? Üdüri züzün zerbait gertatzen zeiziela, zeren eta, bena ze nahi zien gizonak?

−Astua erosi (Beren andreen botatzeko).

143

E28-11 AMUARRAINAK ETA EZKONTZA

Bazen ba Piarraño ofizioz saskigile zen eta espos da egun batez. Esposako zeremoniak eginik gaten da apezaren ikusteat ta:

−Jaun erretora, beazitut bart paatu, bena, bakizu, ene ofizioan saskigile, ezpaita diru handirik egiten. Bena soizu laket ditzat, braconnier hua laket ditzat eta aste gielez jiten naiz erreka bazterretat eta amu batzuk lagatzeitut kordan estekatuik, eta nehok e ikusi gabe ta, bihamon goizian, nehore ohartu gabe gabiltzanik, lotiak dien amuarrain eta aingirak ta holako biltzen itut eta ontsa bazauzu, ekarriko dauzut kilo bat aingira!

−Biziki, untsa zegok kilo bat aingira!

Esposako zeremoniatik egunak juiten dira astiak juiten, hilabetiak juiten, urtiak eta nehondik ez ageri aingirak apezan etxeat! Ta apezak:

−Errazu Pierraño, diala urtiak, esposatu zintualaik hitz eman zenidan kilo bat aingira! Beti beha nago! A, ba, errazu beste tratu bat eiteko, errazu!

−Bi kilo emain dauzkitzut, gure ezkontza desiten baduzu!

Kilo bat iteko, ta bi deseiteko!

144

E29-06 ASTOA ETA EMAZTEAK

Bazen eta hola bikote bat, eta gertatzen dena maleruski, etzuten haurrik izaten ahal. Ta senarra zabilan lanean goizetik atseat eta egun guziz eta andrea etxean zagon. Eta andrea trixte zen, trixte zen ta senarra ohartu zen bere andrea trixte zuela ta gau batez, iluntze batez etxean erraiten dako:

−Zer duzu hain trixte? Ta

−Bo, ez dugu haurrik eta trixte naiz.

−Bo, eta ze iten al dut nik zuri, ezpadut haurrik egiten ahal.

−Ta, ba, asto bat eros bazineza.

Eta astoari astogune bat eta harekilan batzutan, eta ezar nezake borta aintzineko pentzean ta gero txikien lekuan eta okupa naiteke.

−Ta bo, ta baietz.

Ta erosten du asto gazte bat, edo tipi bat eta asto tipiak handitzen baitira.

Geokotz astoa haunditu zen eta egun batez astoak eztu (nola erraiten duzie putarra, uztar batez gaxo andrea hiltzen du). Latza da ixtorioa!

Hiltzen du. Ta andreakila mundia jin zen, bixitaren egiteat. Eta ehortzeta egunean elizak eta plazak eta mundu guzia han zagon eta.

Baitezpada ohartu zen aizo bat, eta bo, emazte, andre guti zela eta ainitz, biziki ainitz gizon bazela ehortzeta egunean eta doluminak eiten dazko bere aizoari ta

−Ohooooh! Ze pena izain duzun! Eta

−Ba, ba… eta

−Zure andrea eta enuen uste hola ezautia zela.

−Ba, ez, ez, eta etzakiela zertako ta.

−Eta zertako iruditu zat biziki, biziki gizon bazen ehortzeta hortan eta.

−Zure emaztek eztu sekula ere egirik erranazi, eta

−Bahaiz astoa. Eztakik zertako jinak dien hoek ehortzeta eta.

−Ez? Astoa die erosi nahi.

145

E29-19 MUSEAN

Bazen bikote bat eta senarra biziki laket zen musean (ez dakit aitzen zizten musean), eta gero izigarrriko muslaria zen, eta ordian estakuru ttipi batendako beti musean eskapatia zen, ta tabernan edo ostatian laket ta, ordian, etxekanderia samur, beti falta zuela bere senarra anitz gauzendako. Ta gero, egun batez irabazi zitien partida guziak eta buah! heldu da gaizoa alegera. Ta behar zuen, irabazten duenak behar du ondoko aldian segitu, zoin gehiagoka istorioa. Ta etxean sartzen da, ta:

−Oain nik nola eginen dut, ene etxekanderiaren zeremonia.

Ta sartzen da, ta geo bazuzten exkalerrak eta exkalerrek bazuzten taula batzuk kurrinkan ari, eta alimaleko arrabots bat iten du, ta hainbestenarekin orloja edo pandula hasten da danga, danga, danga, danga!

−Urde pandula zozua! Eztik balio! Lauetan jo dezake oren bata dela erraiteko!

Sartzen da bere ez dakit oia hegiko ala nungua zen, sartzen da eta andria lo zen, edo lo alegia bede(re)n, eta gero ordian bere museko istorioak burun hartiak baitzituen, erraiten dako andriari beharri xilora:

−Inbidio!

−Paso!

−Inbidio!

−Orore paso!

Senarrak buruan eiten du to! Behar deat irudikatu jokoa, itzulika dadin. Ordian iande atsa, leheno iandetan zena, oain launbatetan ai die, astelen atsa ixil-ixila ofian.

[Beti paso!]

Ta berriz ondoko iandean.

−Nola inen dut nik, baimenak biltzeko. Astearte atsean beti paso, paso. Ta astizkena, ohartu zen gizona joan zen ofera eta, andriak baxera (nola erten duzie ontziak?) garbitu zuzten. Biziki arrabots iten zuen eta gero andrea heldu da ta, senarra alegia lo ta andreak iten du:

−Inbido! ofian sartu orduko.

Ta senarra: −Bah! –paso iten du. Berriz:

−Inbido!

Mihisiak tira ta, ez dakit gaua zen, nola ikusi zuen edo senditu. Andreak erraten dako:

−Gaizo astoa! Ze holako jokuakin ez duk hala hordagotzen!

146

E36-03 XEKA

(Aña Marik kontatua)

Gizonak errana emazteai:

−Ni hilen nizalaik, dirua, sosa behar zuela eman bere partia[145]. Eta gero emazteak errana zakon bere lagun bati:

Ba eta nere gizonak errana dut:

−Ba ni hil eta ene partia emain duzu kutxan.

Emazteak baietz, baietz errana zakon. Gero gizona hil eta galdegin:

−Hura egin duzie?

−Ba, ba xeka[146] bat eman xakoxut. Tumban barnean.

147

E30-02 GARRUZEKO MARGARITA

Emazte bat bazan biziki bihotz onekoa, gizonak maite zitian biziki, eta auzoko herrian bazen mehaxturua. Hak berriz emazteak maite, ta aldi batean errekontratu ta, elgarri gustatu, ta geo pasatu zienak pasatu, voila! Eta ordian denbora hetan ematen zuzten kantiak. Gazteriak beti holako hoitan bazuten jostatzeko molde (b)at, atsetan. Bestenaz, ezpaitzen jegitzen eta beren buruak etzuzten eakutsi nahi. Ordian atsetan joiten zien bers zahar batzu ta tuta ta harekilan, ttutta ta zanpaka ta bertsiak in ta hek kanta ta trufatzen zien holako jendetaz trufatzen zien.

[145] Galdera estilo zuzenean egitetik zehar estilora pasatzen da.
[146] Txeke bat, paperezkoa.

Hek bekatu handiak baitzien. Gero artean bertsiak badira eta hek bertso hek eta. Gaztian ikasi ttut eta, hok goguan atxitzen ttut :

1.−
Herri pollit bat bada, deitua Lukuze
haren auzo herria deitua Garruze
nahiz horien arteko bidia den luze
Lukuztar gizon batek pasatzen du aise.

2.−
Lukuztar gizon hori zon baden ardita
zaharra izanagatik bildu du kredita
zonbaiten gauzek ere baitute debita
zer sostengua duen Garruzen Marg(a)ita

3.−
Margita senarduna, Manex alarguna
Manexen emaztia xangrinatik joana
jakin zalarik nola zabilan senarra
arrazoinakin galdu du bere osasuna

4.−
Gizon hori zen xarpantier eta prenurra
Margitaren senarra ere xarpantiera
Garruzen hartu zeuten etxe bat e(g)itera
orduan bildu zuen Margita sarera.

5.−
Lanean zirelarik etxe berri hartan
erran zion Manexi: “zauri eguerditan”
biek pasatzen zuten pausako denbora
bere senarra aldiz igortzen lastora.

6.−
Finitu zutelarik Garruzeko lana
Manexek ere egin zien bere plana

Hargindegi behar diat, ekarri niganat
bestenez ez diat ikusiren madama.

7.–
Hargindegi jin zaion erran ber gogotik
ezpaitzuan pentsatzen zoala hain ondotik
hura jin orduko Manex doa lanetik
joaiten da trenka bidez, ez bide berritik.

8.–
Iragaiten zelarik xendrako bidian
norbait errekontratu ohartu gabean
erran zion: "zoaz busti gabe maneran"
zer ihardetsi zion, ez dut nahi erran.

9.–
Gizon horrek baditu hiru hogoi urte
urteren arabera zentza ordu luke
bainan bizio tzarrak kitatzeko neke
bainan bizio tzarrak kitatzeko neke[147].

10.–
Gizon hori zen gaztian orgulutsia
emaztia beharrez beden erakutsia
uste baino beherago izan zen jautsia
zaharra hartu zuen eta itsusia.

11.–
Zaharra hartu zuen dotez baitzen ontsa
hori da amodiorik gabeko ezkontza
ezkongeiak izan zizte hortako lotsa!
amodiorik gabe nehor ez esposa.

[147] Ez du bertsoa oroitzen eta aurrekoa bi aldiz errepikatzen du.

12.−

Plazerrago laiteke kanbia baladi
joan ez daadien debrua gidari
mulde ederrak[148] eman orde Andresari
oro utz eta eman penitentziari.

148

E4-06 HAUR BELTZA

Hola beti laborari bat, emaztia eramaiten dü ürrüneko klinika(ra), haur ükhaiteat. Klinikara heldü ondoko, ama etxetik…

−Haugi beheala, badügü behi bat ertzen[149] ari.

Arrünt behia ertzen ari eta gero berriz Olora[150] jün eta haurra jina. Eta haurra so egin eta beltza haurra. Ta emaztiak erraiten dü:

−Badakik zer gertatü den hemen?

−Ez, bate.

−Nik bate enian esneik eta khantüko emazte hau, beltx hau, eman diok bülarretik esnia eta beltxatü dük net[151] haurra.

-Ah, bon!

Gero berriz etxeat etortzen da, amari khuntatzen hori. Eta amak erraiten dü:

−Bon, enük estonatzen. Hihaü sortü hintzelaik, enian bate esneik nik e, eta behian esnia eman dakat eta orai adarrak hasi zaztak phüsatzen[152].

[148] Orotarikoan: maneras, modales; costumbres.
[149] Erditzen, umea ukaiten
[150] Oloronera
[151] guztiz
[152] Adarrak ateratzen hasi zaizkit

ERLIJOAREKIN LOTUTAKOAK

149

E1-01 JONDONI PETRI ETA JESUKRISTO

Ibiltzen zien Jondoni Petri eta Jesukristo kanpainaz kanpaina, kanpaina, basarria, eta ibilki zien hola [kolpez etorri zait gogora zeuk erranik] eta ibilki zien hementik hamenka ta unatuak zien. Ta etxe baten galdetzen dute loiamendua eain emain zioten ganbara zenbeit pausatzeko, gau bat pasatzeko. Ta errefusatu zuten.

−Ezetz −ez zutela.

Urrunago ibilki ta bertze batean ezetz, ta azkenean arras unatuak zien ta bustiak trenpan ta atxematen dute, baserri batean beti hartu zuzten. Ta hartu zuzten ta gau bat ona pasatu zuten han. Ta bihamonian ematen dute gosari ttikia ta partitzen die berritz Jondoni Petri ta Jesukristo, biak.

Eta bon, ta gau ona pasatu zutela ta. Eta beti amak erraten dio alabari:

−Bon, bon. Etxetik lanea nik gan behar dut kanpoat ta ganbera berritz in. Ganbera, oiak-eta arribatu behar zuztela. Gaki die goiti ganbera arribatzeat, eta eun guzia pasatu zuten sos biltzen. Sekulako sosa emana zuten ganbaran. Piezak hazka egun guzia ama-alabek, hala pasatu zuten.

Ta oi aitu zuten bertze etxe-kanpaina oietan, errefusatu zuten oetan. Ta geo penatuak zeitzen.

Ta −Guk ez utzi hemen gau bat pasatzeko ta ez eman, ze lastima hori! −ta ez dakit zer.

Handik bi-hiru edo lau urteren buruan, berritz pasatzen dire oiek berak Jondoni Petri eta Jesukristo. Hola ibiltzen tzien leno.

Eta beti aitua baitzen ori denetan, aitua zuten nola gertatu zen sosa ezin bilduz ama-alabak aitu ziela, eta beti lemixikoak erran zion:

−Bai, bai badugu, hemen ganbara, lo iteko manerat. Hartu ziuzten ta beti beren hura gogoan, sos biltzea, sosa utzi baitzuten, etzedin lehena pasatu. Ta beti ematen

dute gau ona pasatu zutela, gosaria ematen diote, han partitzen dire. Ta amak erraiten dio:

−Bon igo lenbixi ganberain, baina lemixi hara gabe behar haut, hara gabe pixiteko lemixi. Ta pixiten hasi zien ama-alabak, haik e sos biltzen ustez aiko ziela. Eun guzia pixiten pasatu zuten.

E22-01 JONDONI PETRI ETA JESUKRISTO (II)

Etxe batera joan ziren, eta gero etxe hartan galdein zuten ostatu, eta baietz eman zieten. Ta lo in zuen etxe hartan.

−Ta ze lana izain duzue iteko gaur?

−Gaur behar ditugu asteko garbitasunak eta xurik garbitzeko eguna hartu.

Bon goizian hasiko zin lanak, igandin zauziela egun guzia. Ta Jesus ta Petri joan ziren ta ama-alabak hasi ziren arropa garbitzen, ta beti arropa, beti arropa, egun guzia arropa garbi. Eta gero eman hola garbitzeko ta gero auzo guziek ikusi egin zuten. Bena ze gertatzen zen, ze gertatzen zen galdegin zaeten.

−Hola ta hola, izan dira gure etxean Jesus eta Jondoni Petri eta erran daukute hola eta hola, gaur iraunen duzuzien lanak, iraunen duzie egun guzia.

Ta orduan haiek ere, auzoek bertze etxeek ere ekarrarazi zituzten Petri eta Jesus. Ta eman zieten jatera ta izigarri untsa errezibitu zituzten. Eta biharamonian hola-hola erran zien:

−Gaur ze ingo duzie?

−Bai, badugu gauz bat egin behar.

−Bon, gaur hasiko duzien lana, iraun diezauziela egun guzia. Eta erran zuten ama-alabek elgarri:

−Sos kondan hasiko gitun.

Gero bertzik erraiten zakon:

−Bai, lehenik komunera joain gitun, ta gero hasiko gitun sos kondan, kontamenak ez galtzeko.

Komunera joan ziren, eta gero egun guzia komunian pasatu zuten.

150

E23-05 JESUKRISTO ETA JONDONI JÜANE BER OHIN

Jesukrist eta Juanes, joan zütützün laborai etxe bateta, eta han ogi joiten behar zizien ai, ogi joiten erran nahi baita, ogiai bihian elkhitzen, matxinekin ta bakizü. Eta ordingo etxekanderiak erraiten diozü, zeai Jesukristo eta be laguna Joanesi:

−Ah! Ba oan bena, egün etxen egoiten ziren, bena bihar behar duzie jeiki ogia joiteko gueki eh! –erraiten diozü.

Eta ordin, bihamonin ez Jesukristo ez bestia jeikitzen. Etxekanderia juiten düzü, eta Jondane Peti bera ohe bazterrin beitzen, ber ohin zütützün, eta [Juanesi] emaiten tiozü zafrako eli bat eta jeiki zadin eta hitz errana ziela ogi joitea joanen ziela. Bon, eztüzü ez bata ez bestia aleik jeikitzen. Jesu Kristek erraiten diozü Jondone Petri(r)i:

−Bon, bena ni oain bazterrin jarriko nük, bestela beti hik ditük kaskak hartuko.

Berriz jiten düzü etxakanderia goiti:

−Ah! Oaiko aldin, beste xokoko harek behar dik bai eta beti Jündane Jüane züzün.

151

E25-01 JESUKRISTO, JONDONI PETRI ETA MANDOZAINAK

Jesukristo ibiltzen zen hola, herri batetik bestera, jenden ikusten, eta beti laguna Jondoni Petri zuen, Jondoni Petrik beti laguntzen zuen Jesukristo. Eta egun batez hola zoazin bidean eta erreka gune batean, bide bazterrean ikusi zuten mandozain bat karga uzkailia. Eta mandozaina ari zen otoitzian, otoitz eta otoitz.

−Otoi otoi eta itzuladazu ene karga, eztezadan gal ene karga hau.

Eta Jesukristo aldean iragan zitzaion, ez zion kasu egin. Jondoni Petri harritua zagon, harek zer du, hainbeste otoitz Jesusi eta hunek ez Jesusek kasu egiten ere, mandozain gaixo huni. Zertako utzi du hola? Etzion deus erran, Jondoni Petri isil−isila egon tzen eta beti bidean zoazen, eta biziki urrunago, kasik Ortzaizera arribatu baino, Ortzaizera heldu baino lehentxoago, beste mandozain bat, harek ere karga uzkailia.

−Arrain bat eta puta! Ari zen sakremamuka ari zen eta nahi zuen harek ere mandoa lagundu, bakizu, ez zion, izerditan, zikinduta zen ta ez zion.

Kristo joan zitzaion eta harek erran zion. Lagunduko zaitut eta soizu, ta up! Karga itzuli zuten, eta aintzina segitzen zuten. Jondoni Petrik erran zion:

−Baina errazu, sakremamuka ari zen, zu mendekatzen zintuen, eta beste gizon gaixoa zuri otoitzean ari zen. Hari eztiozu jeus ere egin. Hura eztuzu lagundu, eta hunei dena.

−Ah ba! Hunek… hau saiatzen zuan zerbaiten egitera. Hunek nahi zian berak ere, hunek indarra egiten zian. Baina hunek ez. Hartako hau diat lagundu. Hunek zerbait egin nahi baitzuen.

152

E28-24 ESKEKO SOSA

Bazen eta apeza, katolikoen apeza, ta juduen apezak, delako, zer du izena harek? Juduen apezak galdeiten du katolikoen apezai.

−Iten duzie eskia?

−Ba, mezan ba, mezperetan ez.

−Ta ze iten duzie eskeko saria?

−Ah! Badiat kurutze handi bat, ta haren gainerat botatzen diat eskeko sosa. Ta eskuinekaldera joaiten dena, hura apezpikiai igortzen, bere fresendako ta ezkerrekaldea juiten dena, hura elizako fresendako baliatzen ta. Baita argi ta akoztika eoste ta holako.

Ta ziek judu, iten duzie?

−Ah ! Guk ofizio guzitan eskia eiten dugu – juduen apezak.

−Ta ze iten duzie eskeko sosa.

−Ah! Guk hobeki iten dugu ba:

−Ta ze iten duzie?

−Nik hartzen dut eskeko sosa ta Jinkoari botatzen dakot: Oizu Jinkoa, oizu sos guzia!

Ta gero gainera atxitzen eztina sakelera biltzen diat.

E29-20 ESKEKO SOSA (II)

Apezak eta. Bi apez bazien bi parropietan eta gero ordian eta ez zakiten batek besteaen berri eta galdeiten dako batek besteari.

−Eta hik ta. Eskeko sosaz ze iten (d)uk? Eta

−Nik dena igortzen diat apezpikuari. Eta hik nola iten duk?

−Ni joaiten nuk baatzerat eta eskeko sosa botatzen diat Jinkoari xuxenka joan dadin, eta Jinkoanat joaiten dienak Jinkoandako eta eorten dienak enetako.

153

E29-11 HILA ALA BIZIA?

Bazen beste bat elizetan. Delako baitire saindiak hola hegietan, gero ordian eta gizon batek hola galdein zuen eta behar ziela garbitu. Ta xorta bat edan zuen, ta solas in. Ta San Joseph Saindia bota zuen lurre(r)a eta harek lurrez inak zien edo plasterez, ta hautsi zen, bruuuu, ta geo ordian erran zakoten eta:

Delako zera hori, hemen Jaun Merak edo alkatiak bildu zuen bere kontseilia eta behar zela beste bat ekarrazi. Baina etzakiten behar zen frantsis batez mintzatu, Baionan ziren iteko uzina, gero hori frantsez eta eskualdun zen, eta hori frantses eta eskualdun zen eta hari igorri zuten eta geo han zen, eta saludoak behar zirela banatu ta joaiten da ta geo han Espainiako karrika deitzen da, La rue d'Espagne, ta han sartu zen, eta han andre eder bat jin zakon ta zer nahi zuen?

Eta oooh nahi zuela San Josephen itxura erosi, ta geo ordea kontent zen, ta baietz, baietz ta igorriko zakotela, ta geo ahantzi zuen andriak galdeitia ze koloretakoa nahi zuen, eta senarra jin zelarik.

−Ze koloretakoa nahi duen ahatzi diat, ahatzi diat galdeiten.

Holako gizona da eta hortxe badoa bidetik eta oihu iten dako.

Ta geo saindugilea frantximenta baitzen:

−Ze kolore nahi duzu? Mauve ou vive.

Ta bestea elkor zen, eta :

−Zer, mort ou vive ?

−Avaient le vivant, l'auront tué nous même ! Emazu bizirik ! Hilen dugu guhaurek !

E31-02 HILIK ALA BIZIRIK ? (II)

Ainharben leneko denbora iten xitxun bestak, elizako besta handiak eta:

−Zein dute jaun hori, Jakobe? Noski patroina, uste dixit eta geo guk estatua deitzen dugu, potreta ibiltzen die, eztira urrezkoak ez bana hetaik eta geo apezpikia espeantxa zuten herri hartan ta iten dute. Bazen emazte xahar elizaz okupatzen zena,

eliza xahatzen ta hartzen zena, ta orduan hark hartzen du jatsa hartzen du ta harekin ari zen parra-parra zerain xahatzen, estatuaren, eta aski frotatu baitzin aurtiki ta hautsi zin ta gero desolatia, heldu da desolatia harat eta:

−Bai, agitu zitazüt −xiberotarrez mintzo baitzen− agitü zaut xahatzen ai nintzalarik.

−Jakoben estatua hautsi düzü ta porroki, xehatu.

Eta apezpikia jin behar eta haren errezibitzeko kontseiliak eta denak bildurik han ze in behar zuten, ze egin behar zuten eta gero, azkenean behar zela, Baionan saltzen zuztela estatuak, holako portretak eta baño, kontseiluko gizon bat behorrarekin igortzen dixie harat eta gero hak ekartzen. Han erraiten dakotzie. Ageriko baitzen gaixoa gure gisa eztela, gibelatia zela.

−Madame, nahi duzu hilik ala bizirik? (Mort ou vive?)

−Guhaurek hilen dugu.

Gero berriz heldu zelaik berriz hautsi xin ta gero ze in behar, ze in behar, apezpikian eguna jina ta in zitxien, gizon bat beztitu zitxien, puxkat haren estatua eta hura ezarri geldi−geldia han eta meza denboran hura han geldi-geldia eta gero uda baitzen Jondoni Jakobe zen sasoiez eta xokoleta elia zin, eta ezpainetan oano kutxia baitzin, uliak heldu zazkon eta ez ezpaitzen egoiten ahal, hoi! ta gero berriz hoi!, eta gero jende guzia harritia. Mirakulia izain da!

Gero etzua polita erraiteko bena den bezala, edana baitzin, urxuria edo pixa nahibaduzu espaki zakon eta hola da juiten eta ordian emaztek kaputzu handi batzuekin, gure amatxik eta ibili dute, kaputxina handi batzuekin. Hau mirakulia bada! Belauniko arresten eta pixarekin zeinatzen.

154

E16-38 JINKUA SO

Eskola katoliko batetan, serorak ari dira haurren arrats-azkariaren prestatzen. Mahain luze batetan pauzatzen dute sagar eijer eli bat eta hen gañen izkibatzen: "Bakhotxak bat har dezala, zeren Jinkoua so beita".

Hurruntxago esku-zaria bixkotxez betherik. Haur esku batek paper bat pausatu du hitz horieki: "Heben nahi duziena har ezazie, Jinkoua sagarren beilari beita".

155

E45-09 ZURUBI EGITEN

Bazen gizon bat ongi zena, edertsa zena eta bazen pobre eskean ibiltzen zena. Gure garaian ibili dira eske etxetan ibiltzen ziren eta gizon ongi zen harek gero zerbait eman eta otoitz egiten zuen, eta gizon aberats horrek iduri zuen Jainkoari hurbilo behar zuela izan pobre harek baino, bakizu. Eta galdatzen dio:

−Ze ari da Jesukristo?

−Zurubi pare baten egiten.

−Zendako?

−Beherean direnak goiti eremaiteko eta goiti direnak beheti jeusteko.

Eta bon, joan zen eta eske ibili zen hura goiti joan zen eta bestea joan zen beheiti. Eta hara zer zen zurubia. Beherean zirenak goitik joan ziren eta beherean zirenak goiti etorri ziren.

156

E27-01 JESUKRISTO EDO JUDU HERRATIA[153]

Batzuek err(a)ten dute Jesukristok edo bertzek Judio Erratia pasatzen zen heben eta galdegin zuen gau baten pasatzeko grazia edo baimena artzain saldo bati eta artzain haiek ezeztatu zuten bere galdea, eta Jesukristo edo Judu Erratuak leku hura madarikatu zuen eta lurtatu zen lakua.

Lurtatu zen eta denak urez bete. Eta Jondone Johane gauan, gauerditan leku hortan gertatzen denak izena du estaintzia. Han gertatzen denak entzuten ditu artzain gaztiak oihuz, ardiak deitzen, ardi zintzarrada eta xakurra xaunkaz. Jundane Johane gaua guziz, gauerditan.

Hori da hemengo ipuin bat, baina Probentzan, Biarnoan eta edireiten dena denbora berean.

[153] Bideoetan ez du zuberotarrez hitz egiten.

ANIMALIA ETA LANDAREEI BURUZKOAK

157

E14-09 HARTZA, OTSÜA ETA AXERIA

Kontatzen zizün lehen, hartzak badakizü eztia maite dila. Eta behin buria sartü zizün zuhain baten arteka handi batetan. Geo han ezin elkhiz ai züzün, eztiantako jun züzün, ezin elkhiz. Eta axeria igan züzün han eta erraiten diozü hartzak:

−Oh! Gaxua behar naik lagündü, behar dük jün lehen karrikala lagüngoa txerka, behar dük jün, behar dük jün ahalaz berta lagüngoa txerka.

Eta axeria prefosta habil, eta elürra xüri züzün, dena.

Eta erraiten diozü:

−Bai, jün eta bai ni lagungo txerka, bena kasü eman ezak otsük sudur mosküa hotz dik eh! Hotz dik! Eta kasü eman ezak, gisala badük hemen gainti otso eta!

Axeriak eta ekharten diozü elur pelota bat eta gibeletik hartzai. Eta hartza elkhi düzü!

−Etzaik balio eta lagüngo txerka jün nendin.

Otsük südürra hotz beidik, harritü zen.

158

E20-03 OTSUA ETA AXERIA

Otsua gose zen eta ikhüsi zizün axeria. Eta axeriak erran ziozün, axeria gaxto baitzen eta abila, erran ziozün:

−Soizü, hantxe badük asto bat, joanen nizü mintzatzea eta hi ber denboan, korda hünekin esteka ezak gibeleko zankhotik eta hik beste bürian. Ordin axeriak:

−Egün hün astoa! Gaiza egin bai, korda ezarri astüan aztaparrian, eta bestia otsüan lephüan. Eta gero axeriak, gaxto baitzen hartü zizün makhila handi bat eta jo astua. Eta astua jün apatakaz apatakaz eta axeria:

−Atzaman ezak, atzaman ezak, atzaman ezak! Eta azkenekoz, ikusten beitzen ez zila atzamaiten ahal erran ziozün:

−Ützak! Ützak! Ützak!

Eta otsüak ordian:

−Ah! ützi ahal banü, ützi niok!

159

E29-04 GATUA ETA ERBIA

Ihiztariak baditu mixterioak eta aldi bat gertatu zen, ihizlaria zen, ihizlaria ta erbi ihiziko gizona ta gero, ostalera zen. Ta gero harek eta gizon batek ikusi zuen nola egiten zuen. Ta geo ordean galdein zakoten nahi zuketela, nai zuketela jan harek harrapatu erbia. Ba, erbia ezpaita nahi delarik harrapatzen, gatiaz ari zuen eta, bakizu, kozina, ta geo orduan gatua preparatzen jateat eta gizonak, gizonak xoratiak ziren, biziki gauza ona zela delako gatu, erbi famatu hura.

Gero ordian, horren kantia nahi baduzie kantauko duziet. Xuberotarrez da eh!:

1.–
Arrotz abil bat bada
plazan Barkoxtarra
ihizin ibiltzeko, txakur bat du faltxa
adinez ez delarik oraino xaharra
erbi baten hiltzeko da partikularra
lalalalalalalalai, da partikularra.

2.–
Mintzatu izan dute jaun ihizlaria
jan nahia zutela harek hil erbia
ase ditu eginik salsa bat handia
aspaldin hautaturik gatu bat larria
lalalalalalalalai, gatu bat larria.

3.–
Toki ederrian da abilen karrika
ihizlariak ere han bere fabrika
gato bat han zebilen noizian behinka
bortan edo umen du makil zapartaka
lalalalalalalalai, makil zapartaka.

4.–
Hil eta ezarri du txilintxa kakotik

odola joaiten zola beharri xilotik
bai eta ere larrutu bortak juntaturik
nihor ezta olako gatu ehailerik
lalalalalalalalai, gatu ehailerik

5.–
Bazen frantses-espainol-italianua
azken horrek baitzien tiratu buria
erranez kurritia zuela mundia
saltsan atzaman gabe holako gozua
lalalalalalalalai, holako gozua.

6.–
Gati horren prezia hameka libera
laurden bat gutiago, buztana ken eta
sei lagunek jateko bazuten sobera
gatza arrunki emanik saltsari barnera
lalalalalalalalai, saltsari barnera.

7.–
Saltsa unaz goseak kasu egin beza
erbiaren arraza xuhurtzen ari da
holako kozinerak beitu bere trufa
saltsa egin onduan akabo matraka
lalalalalalalalai, akabo matraka.

160

E45-10 ERREKALDEKO ZAKUR ZAHARRAREN IXTORIOA

Bele zaharra gasna pikuan arbola gainean zagon. Azeria ohartu zen eta azeriak errten zakon bota zezan gasna hura, bestenaz arbola aurtikiko zakola, eta beliak ez zuen gasna botatzen, aurtikitzen. Eta azkenian:

−Errak hik, kantugile, kantari ederra baihiz. Zendako ez tuk kantatzen hire kantu eder hoietaik bat?

Ta belia, zozua, hasi zen kantuz eta ordian erori zitzaion ta hartu zion gasna.

Ta bueno, belia beti oroitzen zen ze egina zakon, ta azeria abila beti, nahi zuen beliak burlatu azeriaz. Bainan azeria abilago baitzen belia baino. Egun batez ahua zabal zala alegia hila jarri zen azeria. Ta lagunek erraten zuten:

−To, hantxe dago erregea leno zakur zaharra, hilik.

Ahua zabal zala dio:

−To, zahartzean kondatzeko hainbeste lasterkaldi baitaute inarazi, zahartzian kondatzeko hor daukot [aferakakin][154].

Txak, ordian atzaman zian azeriak belia, ordian ere tronpatu zin.

161

E45-11 AZERIA ETA ETXEKANDERIA

Oilo lokak jaten zituen azeriak eta etxekanderia kexu zen azeriandako ta azeria ikusi zin sartzen egun batez ziloan ta bernetik erraten zakon:

−Ba, haren botatzeko behar zitila oilaskoak bota ta ordin haren hezurrak kokatuko zitzazkola zintzurrean ta ordin itoko zela. Etxekanderiak botatzen zazkon oilaskoak eta:

−Ito hiza aantxuño?

Ta berriz e:

−Ito hiza aantxuño?

[154] Ez dugu ondo ulertzen.

Etzuen itotzen ahal. Azkenean erran zakon bota zezakon ura. Urakin itoko zuela. Bota zakon ura. Ura edan zuen. Jana baitzuen ura edan zuen eta gero erran zakon:

−Ito hitza aantxuño? Ta ito hiza aantxuño? –beti abotza apalduz bezala eta azkenian erran zakon.

−Badakiat nola itoko dugun. Keia botata. Suia egin eta keia botata.

Suia ondoan egin eta keia barnerat pusatzen zuen. Eta azkenian ez baitzuen axeria ito, azkenian erran zian:

−Oh! Zozoa, hik bota nan oilaskoa ta ase nun, bota dinan urarekin eran dinat eta bota dinan keiarekin haurren xatarrak idorrarazi tinat.

162

E16-43 HAIZEAK APHALDÜ

Xiberuan bada, hura zen belharra. Eta hüxtü belharra, haiziak hola plegatzen. Eta ardi-mihiak erran zon eta hüxtü belharrari:

-Belhar ephailik igan züzün.

Hak prefosta ez arrapostuik eman, moztuik baitzen.

163

E22-15 ARDIA TA AHUNTZA

Argia, haizia, Jainkoak in ziala ardia. Debriak erran ziela, bai harek eginen ziala ardia aisa, ta gero hasi zen egiten ta ahuntza atera zila, ahuntza ardian partez. Ahuntza gaixtoa baita, ohoina baita, beti zereko gainetik pasatzen baita, gauza hoberenen jaten, gaixtoa delakotz, okerra delakotz.

LEIENDAK

LAMINEI BURUZKOAK

164

E9-03 LAMINAK ETA KUKURRUKUA

Izpuran bada Larrea, jauregui bat zen. Han baziren etxetiarrak denboran eta beraz jauregi bat da, eta jauregi horrek bazuen dorre bat amaitu gabe egona, eta kaskoa xirulan hola eginda. Eta ordian hori nola zen hola? Jabeak itun bat egina zuen laminekin.

Bere arima emanen ziola argi hasteko argi zirrinta gabe amaitzen bazuten jauregia. Oilarrak kantatzen zuen momentuko. Eta beraz, ari ziren laminak jauregiaren egiten. Eta jabeak gizonak ez baitzuen joan nahi infernurat. Su handi bat piztu zuen, prestatua zuen aurretik, lasto ta mats xarmenduz[155] ta holakoz su leku bat. Ta su hori piztu zuen oilategitik ikusten zen lekuan. Eta argi horrekin oilarrak eta uste izan zuen argi heldu zela, eta oilarrak egin zuen: Kukurruku! Orduan laminak ez baitzuten oraindikan amaitua, orduan hortan utzi zuten dorrea amaitu gabe. Jauregi horrek zuen kontrolatzen zubi hori: Lauribarre. Erreka horrek Lauribarren du izena.

E13-06 LAMINAK ETA KUKURRUKUA (II)

Ligiko zübia laminek eginik düzü, ordian gai batez egin zizien.

−To Gilen, ekharri Gilen, bagütük ehün, mila gailen...eta jokia egin zien Angelusetaik eta Angelusetako artien, gaiko ilhün-zeinietaik eta goiz-zeinietako[156]. Ordian eta ai zütützün eta fini abantxü zizien, harri bat bazien ezarteko, eta Angelüsa sonatu eta harri hura eztützü sekula inok e egonazi ahal bereki. Bertan düzü geozti.

Laminak lehen bazützün bena polboa eta ihizkako zea hasi zienian galdü zütützün oro. Haek zituen lotsarazten eh! Lotsatü zütützün bata bestean lotsa jin zelaik.

[155] Mahats sarmenduz. Gaztelaniaz, sarmiento.
[156] Hitz hori ez da ondo entzuten.

E6-01 LAMINAK ETA KUKURRUKUA (III)

(Aitari entzuna)

Nire aitak kontatzen zuen, haren etxe ondüan, mendian da, hementik bada sei kilometra, eta Orhi mendian kaskoari burüz iten. Eta harek erraiten züen, bere axeaitai entzünik, arramaiatzan hoitalau-hoitabostian, San Juan. Ordian elkhitzen zela lamina bat, edo andere eder bat Orhiko lezetik. Orhin bada leze bat, Orhi phüntaren phian. Eta hantik elkhitzen zen ordian, emazte pullit bat, ürrezko orrazearekilan erestatzen[157]. Eta artzainak joaiten ziren haren so egiterat, eta han baitzen pattar, anitz larrützen ziren, haren so egitez. Hua kontatzen zien.

Ligin eta llaminek behar zien gauaz egin zübia oilarran lehen kükürrüküa entzün gabe. Eta ordin llamiñak aitzen zien gaiaz lanian eta behar ziela jokia egin, herriko neskaik ederrena hentako zatekila, zübiaren egiten bazüten eta zübia bükatü abantxü zien, ürrhentü abantxu, eta oilarrak egin zien lehen deia eta ordian llaminek ez zuten ürrhentü ahal izan lana eta geo ba(r)atü da gisala, bi harri falta zian han, zübü bürüxkoan. Hola erraiten zien Ligiko laminentako.

E20-12 LAMINAK ETA KUKURRUKUA (IV)

Ligin lehen zübia bethi zurezko zen, eta urte oroz kasi urak juiten züzün, eta behin bazitützün hamalau gizon han edo hamabost edo, ta han sartu(r)ikan. Ta batak erran zizün, eztiagü sekhüla zubi azkar bat eginen bethik, urak jüanen dik eta[158]. Azkenekoz, entzün zizün joiten bortha, llamina bat.

−Zer erran beharra badüzie: zübü azkar handi bat.

−Bon, eginen deiziet, bena kondizione batetan: lehen urhentzen badügü oilarrak kantatu beno lehen goizan lehen igailia hor junen dügü, hartuko dügü.

−Eta oh! Pentsamentuka, oh!

Pentsatzen: enüke ni lehen igailia, badükek besteik eta hola.

Eta egin zien. Eta jenten artin bazin gazte bat izigarri abil, inteligent, eta harek pentsatü:

−Te! Badiat ideia bat.

[157] Orrazten
[158] Urak eramango du eta.

Ordin llaminak zübien egiten ta denak hor Gillen deitzen zien:

−Hartzak Gillen! Totzak Guillen! Hartzak Gillen!

Eta zübia jüiten jüiten goa-goa abantxü. Ordin müthikü hüak hartü zizün büia bat, piztü, eta jün oilantegila, hola, eta oilarrak ikusi zizün argia.

Eta zer da? Zer da? Deja eguna. Eta kuku animal bat egin zizün. Eta llaminak oro harri urtuki eta ezkapi. Bena zubia egina zuzün salbu harri bat, eta hua gisala oano mentsik.

165

E20-07 LAMINAK

Behin gizon bat jüiten zen belarra(r)en müztera gailüa bizkarrin eta oihüz eta oihüz:

−Oi! Oi!

Zer zen? Lamiña bat zerrailian khaparen[159] erditan joikan:

−Oh! Lagunt, lagunt!

Gizonak erran ziozün:

−Sartü hiz hor, aski dük elkhitzia!

Eta gizuna jün, sorhoan ondoko khapar bazter orotan, bazter orotan.

166

E20-08 LAMINAK ETA URREZKO ORRAZEA

Beste behin, hiru emaztek, Game(re)ko emaztek, gaizak oro xahatzen zitzien etxen, baina geo juiten ha(r)a arraxahatzea lamina zilüla, eta behin batek atzaman zian urrezko orratze bat kanthian, arroka handi baten, eta hartu zizün eta gorde txakolan[160] eta bihamenian, bi solo beitzien, bi solo harat heltzeko, harriz gainaz beteik hola lodi phü.

Jentek:

−Hemen ze agitü da? Gain hüntan, nüla agitü da?

[159] Zerrail: hesi eta khapar: arantzez betetako sastraka
[160] Sakolan, poltsikoan.

Eta haik pentsatü zer zen eta jün emekiñi orrazien arraekharte(r)a. Eta bihamenin ez zen habo(r)o ez harri bat e han soloetan, denak oro jünik.

E23-02 LAMINAK ETA URREZKO ORRAZEA (II)

Laborai batek hor Gamee-Zihigako bazter hortan, mendian eta mendi hortan anitz zilo eta harpe eta zernahi badüzü eta hor laborai batek bazizün ahüntz, eta ahüntzak mendin zititzün eta ahüntz ama batek bere ahuñiareki ai züzün zilo bazter hartan ala, bena umia zilora iori ziozün eta galdu zilüan. Eta geo ahüñia marrakaz barnetik, eta ahüntza ama ebai marraka handiz, umia galdüik behera jünik. Ordin ze egiten dü, beti marrakaz ai züzün eta amiñi baten burian, laboaiak entzüten dizü ahuñi hua, ahuñ ahüntz hua, umia galduik zinez marrakaz. Ordin erraiten diozü:

−Ah! Ahuntz horri zerbait agitü ziok bai −bere burian igaiten dizü.

Eta zalhe juiten düzü ahüntzanganat goiti, eta han arrunt konprenitu zizün ahuñia zilün zela eta ordin zilotik elkhi behar zizün, dena barna baitzen. Hapataka etxea arrajiten düzü soka bateki. Soka bat hartzen dizü, eta esküko argi bat, zilolat jaisteko ilhunpe baitzen, eta zilün sartzen düzü, ahuñia atzamaiten dizü eta amiñi baten burian, xokuan ikhusten dizu zerbeit argitzen. Argiaekin hüllantzen düzü xoko harta, ziloan xoko harta eta ze ikhusten? orraze bat. Eta zinez argitzen eta üdü(r)i ziozün balio handiko urre, urre zerbeit zela, urre orraze bat. Ordingo orrazea hau sakolan hartzen dizü, amiñi bat bizkarrin hartzen dizü, eta sokatik goa zilotik elkhitzen. Eta prefosta ahüntz ama zinez kontent, be(r)e umia atzamanik eta geo laboraria berriz etxea jüiten düzü.

Eta geo, bo, bihamena jiten düzü, goizan leihük zabaltzen titzü ikhusteko ze denboa zen, ze lani lotü behar zin bee laboantxan, eta ikhusten dizü bere baratzia, bere alorra eta dena holako harri handiz bethiak, izigarriko harriak, eta ez zititzün be(r)ak higitzen ahal. Jo, ze eginen düt hainbeste harri khentzeko. Ordin mithilai erraiten diozü:

−Bon, beharko tiagu elkhi bai. Bon aizüen txerka jünen gütuk. Aizuek lagüntüko gitie harrien elkhitzen.

Ordin jüiten tützü, amañi xaharran sutondü xokün orraze hoi ikhusten dizü, eta harri hoik oro hor metatüik be(r)e baratzian.

−Uuumm! Hoi lamiñen orrazia dük! Ah! Lamiñen orrazia! Eta hoi beharko dü berekilat iaman −erraiten diozü semiai amañiak.

Bon, bena mementuko harrik behar zitützün elkhi behar, bon eta iamaiten dizü orrazia zalhe berekila atzaman zian lekhilat. Eta geo pentsatzen dizü bihamonin oano harri hoi nola elkhiko ote. Eta geo bihamenin leihuak irekitzen tielaik ikhüsteko ze denboa den, ez harri bat e ihüne, harriak denak galdiak. Eta ordin ikhüsi zien laminen orrazia zela.

E41-03 LAMINAK ETA URREZKO ORRAZEA (III)

Hemen Ibarlan dira eureka hau, ur-erreka hau eta puxka bat badu berezitasun bat erreka hunek. Sorgia eta itur burua han du Lekunberriko Urtzategian beherian hor. Han du iturburua eta gero galtzen da azken bi etxe hoien artean, Oihanartian eta Hauztegi artean, parean hor. Han galtzen da, lurpean sartzen da. Eta gero hemen bada zilo bat eta ura berde-berde ateratzen da. Hango ura da eta hor berriz ateratzen. Eta euri anitz egiten duelarik ez du iresten ur guzia zilo hartan eta bada erreka bat, udan idor-idorra da. Beraz, badu iturriak berezitasun bat.

Erraten dute, leheno herriko bidea ere hortik pasatzen zen, eta behin behiak eta orgekin erori zien zilo hartat, eratera joan zirela etxeratekoan eta gero erori egin zirela. Eta han ito zirela. Sei-zazpi metra barna da.

Eta hor bada alor ttipi bat ilo horren ondoan eta nagusia edo etxekanderia joan zen alorrerat eta ikusi zuen iturri bazterrian urrezko orraze bat eta bildu zuen fite eta etxea ekarri, eta pentsa ze aberastasuna zen! Eta etxean izan zuten gordeik edo altxatuik eta gero iluna pasatu zen eta biharamonian joan zen alorrerat eta ikusi zuen alor guzia harriz tapatia zela. Laminen lana. Laminak egina zela.

167

E20-09 LAMINA HAUR MINETAN

Bazitützün bi emazte aizü. Bata izigarri ün, serbitxau, bestia beti gaxto, beti jelos eta hola, eta behin emazte ünari entzun zitzun nigarrez, llamina bat jin ziozün eta:

−Zer düzü zük, zer düzü nigarrez aitzeko?

−Oh gaixoa badüzü han llamina bat, behar dizü haur bat ukhen, eztüzü zük egiten ahal. Othoi jin zite laguntzera.

−Bena jün nola?

−Jinen niz ni llurpean, ene bizkarrin igan zite.

Bizkarrin igan ordüko, lurpian züzün llaminarekin, eta han ikhüsi zer agitü zen, suia piztü, ura beroazi, haurra sorrarazi eta llaminak oro erran ziozün:

−Oh! Eskerrik anitx, eskerrik anitx.

Eta batek erran ziozün:

−Soizü, hortxe batützü bi poto, bata ttipi gris, eta bestia oro ürria bezala.

Erran zizün:

−Bo, ez dit lan handirik egin, aski dit net ttipi horrekin

Eta bon, hartü zizün bizkarrin eta etxeat heldü, eta zabaldu ondün, ürrez beteik, beteik. Eta erran zizün:

−Oh! Lan ttipi horrentako hainbeste ürre. Ordin aisa jin ziozün poto baten galthatzia. Eta eman ziozün hor, bena hutsik. Bena bazin pieza bat ützirik ahatzirik zolan.

−Eztit ikhüsi. Eta nula zin, zentako zin, uhuina zela.

Ez, ez, ordin kontatü ziozün nula agitü zen. Eta bi egünen ondün, llamina jin gaxtoan etxeat eta erran ziozün:

−Lagunt, lagunt, othoi, othoi.

−Badit besteik egiteko nik! Erratzkaldi animal batekin, hauts oro, errautsa oro…

−Othoi!

−Bon, jinen nük.

Jün züzün eta han lurpian izan ondoko, jarri zokho batetan. Erran zien:

−Hori behar düzie egin, ez hola, hoi…

Beti manatzen. Beti kexatüik.

Azkenekotz erran zitien llaminek.

−Bon, oain arrajinen zia, eta bi poto hoietaik bat har ezazü.

−Oh! Enüzü ene aizoa bezain ertzo, nik haundia hartuko dit, eder ho(r)i −ai züzün.

Eta etxea jün ondün be(re)hala, ikhara hola zabaldü, zer zen barrun, ta hauts. Deuse besteik.

168

E33-01 LAMINAK GAMERE-ZIHIGAN

Bazüzün Gamere-Zihigan. Etxeberrian bazitützün laminak eta Etxeberriko jenteki harreman onak zitützien. Etxeberriko jentek, ünki anitx egiten zizien laminer. Eta ordian egün batez laminak jin zitützün Etxeberrira, etxiala eta han bi untziekin, bi ttipiña, biga pausa zititzien mahai gainian eta jin zitützün etxenko güziak eta etxenko güziak han ingüratüik eta bon, so egin ezazie, badüzie heben bi ttipiña, batan badüzü ürrina eta bestian badia ziarrezko diarrek[161].

−Zer egin behar da! Oh, guk badizügü ordin segur fres handik, sos beharra. Eta ordian hartüko dizügü zilarra den ttipiña hortaik. Buala, delibetüik.

Bena nausiak:

−Uh! Bena eztük amañi heben. Behar dizügü amañik zer pentsatzen düen ikhüsi.

Eta ordian haur bat jüiten düzü amañin txerka eta amañi jiten düzü eta.

−Zer da?

Eta bon eta hor eta hua eta amañik:

−Bon egin ezazie nahi düziena, bena nik badakit kozina egiten dügülaik ze nekia düdan, eltzeko [urhẽntziala][162].

Zeren eta, ez beitzen [odi oik][163] ordian. Zeren eta ürrina urhẽntzen beita.

[161] diruak
[162] ez dut hitz hori ondo ulertzen.

Bon, nik ordin ürrina har niotzü. Bon, ordin etxenkuek hola deliberatzen dizie, ürrina hartuko ziela.

Eta ordian hilabetian igaiten tützü eta etxenkü ürrina urhẽntuik behar zizien beste bat hasi. Ordian ze egin die:

Hura ekarten dizü eta hartzen dizü kuila zürrezküa, bakizü, ezpelez eginik zena. Eta ez züzün holako puxka bat bea, puxkat bat bea, bena beste güzia urhe zen, urhe zen.

169

E28-09 LAMINA IXTORIOA

Gure etxondoan laminak bazila, ta gauaz etxe batean, jateko gauzak galtzen tzitixin, galtzen jateko gauzak. Gero pentsatzen zien laminak zitazkela, borta leihok denak untsa zerratuik e, jateko gauzak galtzen. Laminak ziela xamindegitik sartzen. Ta arrats batez in txixin supazterrean alimaleko su bat ta bertz bat urez beteik ezarraia, ta geo laminak jautsi xamindegitik beheti, ta geo nausiak, edo etxekanderiak norbaitek ur erakia laminari botatu xakoxu, joan tzain! Jatekoik har tzedin. Ixtorio osoa zian kondatzen. Eta gero lamina gaztia joan xakoxun xamindegitik goiti, uasiaka, garraxiaka, min baitzen, eosia baitzen. Da gero kanpoan bazituxun aita−amak edo geienak eta:

−Zer da? Zer da? Zer gertatu da?

−Min hartut, min hartut!

Ta: −Zein zien, zein zien?

(Ah! Ez oano!) Ta artean galdetzen xakoxu?

Galdetu xakoxu, gaztiai, ura botatu xakonari:

−Zer zin izena?

Ta izena erran xakoxun:

−Ni nihaur. Ni nihaur ziela izena.

Ta bestiek galde in zakotelarik zer zien, min ziela, eosi ein zila. Nola in zien, egosi zen, ta:

[163] Ez dugu hitz hori ondo ulertzen.

−Ni nihaur.

−Ah! Ordin, ni nihaur!

(Emazteak txikitan etxondoan entzuna)

HERENSUGEARI BURUZKOAK

170

E5-04 HERENTSÜGIA

Aitak kondatzen zizün Xaxi Bixkaik ikusi zila, herentsügia. Bazakizün eta herentsugia ikhüsik eta larrazken batez eta ülüntze batez ikhüsi zila, eta jentek erraiten ertzüa zela. Ez zela herentsugia, bena bai, larrazkenian aittaittek erraiten zian: arto hostüak hegoarekin aidatüik.

E20-11 HERENSUGEA (II)

Azalegin hola heltzin Auzkirat ezker zabaltzez badüzü Azalegiko mazela bat hola pantar phü, eta han badüzü harpe animal bat: La Grotte des Cent Vaches. Ehün behi sartzen ahal die, eta zenbaitek erraiten die Mille Vaches. Gisala han züzün herentsugia eta edaten zielaik, grotta hortxe düzü, errekarat, kilometra bat phü, büztana gainen zutzün eta ai zützün edaten.

E23-01 HERENTSUGIA (III)

Altzaiko herentsugian ixtoria zinez ezagüna düzü Xiberuan. Ordin, holaxe erraxten düzü:

Badüzü Ibarnaban hor mendian karbe bat, harpe bat eta han badüzü ixtoria bat, zilo hai atxeki den ixtoria bat. Ordin han bazüzün gisala herentsuge bat. Herentsugia erran nahi baitü hiru bürütako izigarriko herentsugia, animala, handia, eta behiak jaten zititzün eta ingü(r)üko laborariak ez zütützun bate kontent, behiak galtzen zititzien, bazakizien han zela, bena ez züzün ihore ausartzen holako herentsuge bati oldartzia. Lotsa bazizien, beldurra bazizien. Ordin bazüzün armadan zerbitxü eginik izigarriko gizon fanfarrüa, Atargi deitzen züzün, eta ordin harek azkarraren egiteko, ah! hura oldartuko zela ihize horri, hua hilen ziela. Ordin ze egin tzin. Eta behi bat eho zizün, eta polboaz bete zizün behi hua, eta igorri zizün dürdüilaxka, harpean sargiala, nün baitzen herentsugia. Pentsatu zizün herentsugiak hau janen zila eta geo zaphartatüko zela.

Ordin hua polboaz beteik monturan gainen eramaiten dizü hegila, eta emeki emeki zilüan etzila[164] lerratzez igorten zilola. Herentsugia elkhitzen dizü, behia jaten dizü, eta eztuzü lehertzen herentsugia, eztüzü lehertzen, eztüzü ehaiten, anitx animale baitzen ta azkarra. Ta geo herentsugia juten züzün edatea, peko erreka bat urla, hürrün e, hain züzün handi, nun büria edaten baitzin, eta büztana oano harpean baitzin.

Eta ordingo behi oi jan zizün eta geo basatü[165] züzün hale, zeren ta min egin beitzeion polboa haik, eta geo han bago artetik büztanarekin bagoak haustez eta behera jeitsi züzün Donapaleura. Donapaleuko berriz jun züzün Donibane Lohitzunela, eta han urian galdü, itsasüan. Eta egün zümaiten bürian, lotsatü baitzen Atagi fanfarrü hoi, fiebra, kalentüra edo sükarra jin ziozün, e(r)itu züzün eta hil.

E33-03 HERENSUGIA (IV)

Bazen Azalegiko karbia eta bestietan üsantxa den bezala kabaliak emaiten ditzie bortiala eta ordian kabaliak emaiten zititzün. Eta noizean behin behi bat galdü eta ezer ez jakin, zeren gaiza handia da jententako jakiteko ertsak[166] badienez, lerratzen bada kabalia han uzten dizie edo bada zintzarri edo zerbait. Ordian etzien eretsak ikusten. Zer izaten ahal zen? Eta ordin han goaita zitützün. Eta ikusten dizie bat-batetan han herentsuge mihia luzatzen eta goititzen begia eta zer egin behar zen?

Eta ordin bazüzün Azalegia, Zagua deitzen dizia, bena Azalegia züzün ordian. Erdi Aroan etxia Azalegia eta ez Zagua deitzen da. Eta ordian Azalegiko hortan bazen potiko bat eta bazakien nüla erabili polbora jaustatzeko.

Eta ordian hak erran zin:

−Nik eginen düt behar dena.

Ze in zian? Hartü zizün behi larru bat, lastoz bete eta goiti jün züzün eta suia ezarri züzün, eta aurtiki zian behera. Eta herentsugik ikhüsi züzünian, gaintitu züzün, eta ordin herentsugiak bazizün suia bere hartan. Eta ze egin zian? Herentsugia joan züzün petik goa ta izigarriko orroak egiten zititzün eta buztanaz bazterrak xahatzen zititzün eta zuhaitzen gainek e moztu, eta oaindik e moztuik tützü.

[164] Etzin aldea, mendebaldea
[165] Basatiago bihurtu
[166] Ertzak, koxkak

Ordian potikoak, herentsugia juiten eta bazizün zaldi xuri bat, eta zaldi xuri izigarriko üna eta harekiko jün züzün, jün züzün Altzaiko mugala, Lexarria deitzen dena, eta hortik etxea sartü züzün. Bena ber denboan gibeletik zizün herentsugia bena herentsugia etzizun honako bidian jin, bena Altzüküko bidialat eta Donibane Lohitzunirat jün züzün eta han suiaren etortzeko urian sartu. Eta geroztik ez dizie berririk. Bena diozie berriz jinen dela horrat. Eta ordian berriz jinen dela erraten düzü jentek sinhẽsten diela.

BASAJAUNARI BURUZKOAK

171

E6-02 BASAJAUN IXTORIOAK

Gü haur ginelaik, gaixki iten aitzen baikinen, bakizü haurrak lau-bost urtetaik hasirik hamar urtek artino, hartzen güntien harriak eta teilatürat, hegatzerat botatzen güntien. Ordin beldurtzen güntien etxekuek, aitak surtut:

−Uh! Kasu egin ezazie, basajauna jünen baita.

Ta basajauna! Basajauna! Gük ez günien beldurrik. Erraiten zien bai basajauna, bena geo heltzen zelaik ilüna, ordian denak etxea jiten ginen eta etxian geldi egoiten. Eta behin izan zen ixtorio bat eta hola hemen haurrak, egiazko ixtoria, oano bano haboro haur bazen herrietan, eta hor lehen bazien lehenago zortzi douainier familiekilan eta horko haurrak aitzen gu bezala eta behin hortxe bazen kaserna[167], eta gu zer ginen bost-sei urte eta debria buruan, eta hari ziren harri ürthükitzen hegatzerat eta amak peredikatzen, eta haurrak ekhürü egoiten zien, bena gero hala hasten.

Ordin aitak ze in zien: Harek bazien leheneko, basurde-larrü zahar eli, artzainek ebilten baitute, ahuntz-larrüa, bakizü? bortian ebilteko, halako bat, eta egin zien egur ttipi bat gordeik pasatü zen eta joan zen erreka zilo deitzen dügü, errekako kaparrilat. Eta haurrak ez günien ikusi, eta beti ai ginen, harri ürthükitzen eta mementu baten burian egiten dü eots itsusi bat, hartzana bezala, eta guk haurrak so iten dügü eta ikhüsten dugu gizuna, munstro zerbait heltzen, harek ezarri zuen bere ahunz-larrüa eta basurde-larrüa bizkarretik gainti eta heltü zen holaxe eta haurrek ikusi genialaik gizon hura heltzen erreka bazterretik, han zalhe ezkapi eta biak gorde züzülüpian eta ez kanpoat elkhi lotsatuik. Gure ametsian ikusi ginien basajauna hura zela.

Bada gune bat basajauna deitzen baita, basajaun erreka, Ekibegi zolan eta hor basajaun hua erraiten zitzien, gauaz heltzen zielaik müthikuak, bakizü lehen defendu[168] zen bazelaik soñú, ülhünien behar zien neskatilek etxe(r)a arrajun, zombaitek e bazien oren baten bide, edo oren bat et'erdi, ordin bortxatüak zien ülhüna gabe heltzea. Erraiten zien lehenago, zümait neskhatila ejerrak zielaik, aitek eta amek begistatzen zütiela, bestela heltzen baitzien müthiko gaztiak onduan eta ordin jarri zela

[167] kuartela, etxola
[168] debekatuta

han gordeik, arroila hartan, eta hantik neskatilak lotsarazteko handik elkhitzen zela eta gero goiti joaiten, bere etxera. Nik entzutia düt.

172

E20-06 BASAJAUNA

Behin hirü artzain bazian, lehenik olan eta geo setem(br)eaz[169] jeitsi beste ola(r)a hala. Eta artzin zaharrenak erran zizün:

−Nün da zartegina! Nün da zartegina! Eztiagü arraiki iten ahal!

Ordian gaztiena igorri gainiko ola(r)a hala. Eta han aintzin ikhusi zizün khia lehenik eta gero süa. Eta gero sartü zan emekiiñi Basajaun animal bat han jarrik:

−Zer behar dük, jain haik! Zer behar dük, jain haik!

−Ez, ez, horra nüzü zarteginan txerka.

−Bon erraiten badük hirü egia, emanen dak zartegia.

−Oh! Gaixo, mutikok erran zizün:

−Argizagia eder da, bena ekhiak argitzen dila habo(r)o.

−Ai, hoi, hoi, hoi, egia, egia, egia.

−Eta bigarren egia?:

−Hoi lürra da eta hau zelia.

−Bon, bon eta hirügarrena?

−Hirügarrena? Mütikoa nigarrez

−Jakin ükhan banü, eninditzan jinen hünat.

Ordin Basajaunak eman ziozün zartegia eta igorri, ützi jüiten.

[169] Septembre, irailean

173

E33-02 HAGINEKO MINA

Bazüzün Larrainen gordeta, bazütützün sei edo zazpi artzain eta bazüzün bat gaztena eta agitü züzün han eta haginetako mina bazizün eta atzian züzün etzanik eta bat-batean borta zabaltzen da eta sartzen da basajauna, ez beitzen bero handirik memento hartan orano, basajauna jüiten düzü süpazterrialat eta bere zango han ezartzen, hautsin berotzeko. Eta phütikoa ezartzen düzü zer agitüko zain. [besoekin dardar egiten du]. Eta ordin basajauna itzultzen düzü eta:

−Zer dük, zer dük hor?

−Haginetik min.

−Haginetik min?

Eta ordian, jüiten diozü eta hartzen diozü zankhüko behatza, eta rau!

Hagineko mina galdü züzün, bena horrek erran nahia badüzü:

Basajaunak baziala ezagützia sendotzeko, batützü holako phüntiak eta nihok e(r)e baliatze titzü.

SORGINEI BURUZKOAK

174

E9-01 SORGIN IXTORIO

Gure etxe hortarik parez badago mendi bat, mendi lope zabal eder bat gora, mila metroko hori urran egiten dute, beatzirehun metro, Iturranburu. Badira beraren parez hiru iturri sortzen direnak, udan ez dute urik, bainan neguan badute. Gero beherian erreka, gure etxetik pasatzen dena, Xanboko erreka eta beheraxeago Goretsiko erreka. Eta Iturranburu horta, etortzen ziren arratsaldetan mutilak eta neskak txirularekin eta hor dantzan aitzen omen ziren. Eta hori kondatu dautan gizonak, orain inen du, berrogoi urte ba hila da. Badakizu, Manex Goienetxe izeneko bat, entzutean baduzue? Beraren aitatxi zen. Eiheralarrekoa. Berak kondatua.

Joaten ziren hara igande atsaldetan eta han dantzan eta ikasten aitzen ziren soroan, soro pollita baita. Eta apaizak maldizioak, madarizioneak eta emaiten zituen. Paganokeriak zirela horiek, dantzak, eta horik denak gauza horik paganoenak zirela, ez zirela kristauenak eta eztakit zer ta eztakit zer.

Gero beste ixtoria bat beti Iturranburu horren injurian. Egun batez heldu omen zen harri erauntsia. Kazkabarra beltz-beltza heldu eta azantza badakizu, txalaparta bezala, tatatata, tatata…ta arada hautematen omen zen, arada. Eta bistan dena, apezak zeinua joiten zuen andere serorak eta apezak bere beretterrarekin jauntziren bere surpri ta otoitz guziak egiten zituen Satanen kontra kazkabarra ez zedin herrira jin. Eta ari omen zen hizkuntza misteriotsuan, bistan da latinez, hizkuntza sakratuan eta izerdi uharretan ari zen. Berettera berari so, petik goiti berari so. Ta:

−Nauke[170] jakin zertako dudan izerdia hola? Ezarrak zangoa ene zapataen gainean, eta ordian ulertuko duk zendako. Beraz, hola egiten du eta ikusten du apeza blablablabla, eta ordian ikusten du Iturranburuko zeruan apaiza Satanekin borrokan, hodeien tartean biak ari ziren borrokan. Eta apezak blablablabla, eta hainbestenarekilan izan omen zen ximista izigarrizko bat eta ikusi zen debrua joiten lurrera, eta sufrezko garrak botatzen ziren bazter guzietaik. Eta ondoko egunian edo ondoko artzainek ikusi zuten soro hori itzulipurdikatua zela dena, basurde tropa bat

[170] Nahi nuke

izanik bezala musurka, txintxikatzen eta debrua zen herrian egin behar makurra apaiza geldiarazita han mendian egin zuen makurra.

Orain esplikazionea: Nola zen prua[171] hura, debruak aspaldi egiten prua hura eta han pagano tokia eta han ez kristauen tokia. Igande arratsaldetan, mezperetan nahiko zituen apezak ikusi lekuan, normala. Iragan urtian, alta ez da urrun, oraindikan egin zan arrunt gain hartan. Jinkoak daki zombat aldiz, behika ta ardika ta astoka, ibilia mendi hartan, bide puxka bat baita, haraino egin zan hua. Mendiak badu hegiz hegi sei kromlech, sei harrespila badira. Eta hanbestetaraino dire, jendek ez daki zer diren, ihiziko posta urtzoak handik pasatzen baitira egiten dituzte zimentazko, parpinezko aterbe zahar batzu, badakizu, eta halako batean bada, erdiz erdi atzemana kromlech eta errana diet Garaziko eta hartaz arduratu behar luketener: -ken arazkitzue horiek hortik, ihizlarien porkeria horiek. Beraz leku sakratua zen. Eta beraz, oraindik hemeretzigarren mendian oraindik jarraitzen zuten txirula joitera ta dantzara hara joaiten igande arratsetan.

[171] proba

DEABRUARI BURUZKOAK

175

E9-02 DEABRUAREN ITUNA

Salbatore beste mendi batean da, baina beti Garazi da. Salbatore Iratira joaitean Mendibetik, bada baseliza bat, eta hori zen izenak dioen bezala, Salbatore, Jandona Iatirat joaiteko bidetaik bat, hortik sartzen ziren Otxagabiko Zarautz herrialdetarat eta hortik gero joaiten zien Garesera. Eta ordian hor mendian bazen baseliza hori Egina. Irudiz Erdi Aroan, hamabigarren mendean edo mentuaz zaharragoa eh! Romanikoa da formaz. Han kondatzen dira sekulako ixtorioak:

Mithiñan etxe batean baziren mutil-neskak etxe noble batean. Mutil-neska gazteak eta artaxuritzeko gaua zen. Artoxuritzeak egiten ziren azaroan edo abenduan, neguko gau luze hoietan eta jendeak etortzen ziren saskiekin eta hola. Lemiziko jendiak hautemaiten dira etxe hortan, zakurrak dai-dai eta artoxuritzaileak heldu dira. Aitzur-hotsa, kakoa. Kakoa da orka bat bezala baina hola. Eta arto meta luzeak jartzen dira. Artoxuritzaileak jartzen dira lerroan hola. Arto meta hortarik tiratzen da kakoaz eta saskian ezartzen da eta jendeak aitzen dira artoxuritzean, kantuz ta bertsutan. Ahal duten guzia arrailerian. Artetik sagardoa ematen da ta guzia. Ordian aitzur hotsa baitezpada behar da. Eta aitzur hotsa atsalde hartan erabilia zuten mutil-neskato hoiek, etxetik mendirutz bazen bordalde bat: Jau borde “Jauregi borda”. Ta Jae bordan utzia zuten, eta motikoak erraiten du:

−To bost libera emain nition orain, haen txerka joan litekenari.

−Egia huka −hari egina zian neskak.

−Hi bai hi. Hi haizan bezalako beldurti zaharra!

−Hik erran duk lekukoen aintzinean, ni joain nauk txerka!

Beaz neska juaiten da txerka, eta denboran buruan entzuten da neskaen ahotsa. Ezkaratzeko ateak bakizu nola izaten ziren, ate bat osoan eta beste atea erditik moztuta. Handik sartzen zen argia, ta hotza ta euria, eta borta gainekoa deitzen zen, borta gainekoa. T aborta gainetik ezkaratzera bota zen, entzun zen aitzur hotsa botaia.

−Hara hor duzie aitzur hotsa. Nik hor eremaiten nin.

Hok hauek eramaiten die. Nor ziren hauek?

Ba, baina ordukotz jende frango baitzen eta aitzur hotsen beha baitzeuden. Jendek atera ziren korralerat eta entzuten zuten eskuarearen intzirea, tititi! Eta ordian zakur eta jende lasterka joaten dira intzire horiei jarraiki. Bide bat bada kontrabandisten bidea deitzen dena, beste batzutan Iholdiko bidea deitzen dena, Jauregia du etxe horrek izena, Jauregi horren aurretik pasatzen zen bidea, eta bide hori goiti, bada bidexka bat eta bide horrek egiten du sardea, bata joaiten da Iholdira eta bestia jeisten da hemen beheiti eta gero oaixtian joain zizte herrialde horretara, Landibarrera. Beti ere jendek neskaen abotsetarat segi-segi-segi, gauaz oihuka ta xakurrak xanpaka ta eztakit zen eta akitzen hasi zirelarik, azantza atxikitzen baitzuten, arrabotsa egiten baitzuten, beste etxe batzutan han ere artoxuritzetako jendeak eta izanki. Ta ateratzen ziren ta hola:

−Gure herriko nexkatoa eremaiten die, eremaiten die noapait!

Eta hola beste jende batzuk segi, eta beste batzuk eta beste batzuk eta Iholdiko bidea hartzeko partez, Obidozaharreko erraiten zaio kartier horri, horra hartzen du neskaen ahotsak eta segitzen du, Landibarren artoxuritzeak baitziren, Landibarren beste jende batzuk segitzen due, eta joaitek partez Azkonbegiko zokora, hor badago bide bat, zubi bat pasatzeko Izurara bidean, eta hor segitzen dute. Doaike denborak akituak ziren, jendek patar hortan segitzeko, betire Izurat jeitsi eta Izuran jendek segitu zuten. Izurarrek segitu zuten, gero Lasalledarrek segitu zuten, eta La Salle igaran eta badago patar bat, Urtziategiko malda deitzen da, isildu ziren neskaren ahotsak. Eta jendeak harritiak baziren eta komentarioak e baziren eta gau triste harek ukan zuen oihartzun izugarrizkoa hainbertze jende ibilita.

Biharamunian Iratiko artzainek atzemaiten dute baselizaren inguruko soroan neskaren gorputza hilik. Hilik: Esplikazionea berahala: Debruak eremana. Zergatik debruak eremana? Ilunduta egin zuen ituna, kontratua. 5 libera ematen badu, joanen nauke eta ilundu ezkero, Nafarroko Foru Zaharra da hori: ilunduz gero ez zen itunik egin behar. Eta lehenago gauza horik jende xeheari gertatzen zen, kultura guzitan. Arau baten indarra, larderia, nausitasuna sakralizatu egiten zen. Beaz, hori Nafarroko Forutan lege zibil bat zen. Lege zibil hori, lege sakratu bezela ekarri zen. Beaz, ilunduz gero ez da itunik deliberatu behar zen debruak beren partea hartzen dute. Eta orduan beaz debruak eremana zen. Eta omen neska izana omen zen aintzineko ekainean, baziren hiru erromeria, bat izaten zen ekainean, hori gazten erromeria izaiten zen,

ordin andregaiak, emaztegaiak joaiten ziren horra. Haleren Iratin Iturranburun bezala, dantzaleku ta jantzan aitzen ziren, makilan, ta palanka bota ta hoiek denak egiten ziren, olinpikoak egiten ziren. Zoin gehio Xuberotarrak eta Garaztarrak elgarrekin. Betire neska hura aintzineko aurreko ekainean izana ezagutu zuen legua: Oh Salbatore jauna! Otoi salba nezazu!- egin omen zuen. Debruak ereman omen zuten airez aire. Ordin bada ardi joare ttipi bat han elizan, ardi joare hura bera hasi omen zen ttili, ttili, ttili, tteleka. Tteleka hasi omen zen hura talatalatala egiten. Ta:

−Baliatu zan ba, jaun txar hori, hasi baita! –ta deabruak utzi zuen erortzen eta han hil zen neska. Bon, oain esplikazionea:

Ta gero zaude in zuten artzaineak, aldare etxola txabol ttipi bat, aldamenetik eta nik ikusi dut han zurez eginda haur itxurako bat, ez duzu erraiten ahal neska den edo beretter bat den, zen zaekin baita, eta eskutan aitzorrotz ttipi batekin. Eta aitzorrotz hori ikusi nuelarik nik ordian banituen bederatzi urte, eta aitzorrotz hori ikusi nuelarik bazuen hortz bat hautsirik izana eta artzainek beste xiri zuri batez ordaindua. Eta gero izan naiz hirurogoita bian edo hiruan, ez zen gehiago zurezko itxura hori eta artzainek erran zautaten:

−Ba, eta hemen lapurrak eta pasatzen dira, eurite batez paraxutistak, -badakizu frantziako armadak, ibiltzen tu gauaz mendian- aterbetzeko han in zutela, txabola hartan sartu eta geroztik artzainen txabolan, etxolan atxikitzen zutela delako aitzorrotzekilako hori.

Lehenbizi debriaren historia hori kondatzeko, hor baduzu, apezaren interbentzioa bada, ez da dudik. Debrua eta hori, eta tteleka entzun eta Salbatore etorri eta debruak utzi, hori badago elizako jendearengan. Gero bigarrenik biol ixtorio bat da ez dago dudarik. Neska hamabost urtekoa, gauaz zabilana, zaldian izain zen, zaldia gainerat ona, zaldi biziki ona izango zuen, zen hoinbeste bide egiteko, behar zuen oso ona izan eta ongi ferratua, eta holako zaldia apaizak izaten zuen eta gazteluko jaunak. Musde Sarriren kantorea badakizu? Musde Sarri hori apez bat da Mitiriñan egon dena eta izigarrizko andrezalea da.

Eta gero beste gauza bat bada pentsatzeko noizkoa den, ez baita hain zaharra ixtorioa. Mito prekristianoa, kristianoek beraren gainean berritu mitoa, eta gertakizunak ikusten duzu sedimentazioa nola egiten duen. Eta gero zaldia azkenean, leher iten ari zitzako, zen seurrik e zaldi hori hiltzen egon zen. Zaldia izanik e biziki una, bortxatiak direlarik hola, gero hiltzen dira, oren batzuk goiti-beheti hiltzen dira.

Betira ikustearekilan atzeman ez zutela jendek, neska honi ahua hersten zako. Eta erraten dute:

−Bena zendako ez zuen utzi neska. Ene iduriko ez zuen neska, zeren ene iduriko neskak identifikatua zuen zalduna nor zen eta bazakien salatua izanen zela. Horrek erran nahi du esperientzia gutxiko mutil bat izain zela, gaztelu nobleko seme bat izain zen, lehen aldia zukeen hola neska baten bortxatzeko. Eta apeza izan bazen e arrunt gaztea izain zen segurasko. Noblea zela ia kasik segurra da. Zendako? Egin zuen bidea egin zuen Bithiñako mugen barrutik ibili zen. Beaz saiatu zen herriko lurrez eskapatzen. Eta herriko lurretan tokiko jaunak egiten bazituen krimak eta guzti, ez zen erregeren justiziak egitekoa. Han inmunite bat bazuen.

Frantzian izan da Napoleonen eta gerretaik ondotik, mila zortziehun eta hamabostean “Restauration” deitzen den erregimen politiko bat. Louis XVI.-aren anai zaharrago batek hartu zuen. Eta hor izan zen erregetiarrak kanpoan egonik exiliatuta, horiek egin zuten izigarrizko legislazio erreakzionarioa. Ezarri zuten aintzineko legedia martxan. Beaz, Restauration garai hortako gertakizunen bat izain da.

TARTAROARI BURUZKOAK

176

E20-10 TARTARUA ETA IHIZTARIA

Bazüzün, Saint Saveur, Iratin kanthin han eliza bat, txapela bat, eta San Salbadore hartan behar zizun egün bat, ez dakit, urrietan edo hola, jentek oro biltzen eta han orazionik egiten eta jente hoien erdian bazen ihizlari handi bat, ertzotuik ihizteka. Eta ordin, meza ai zelaik, entzuten zititzün zakurrak, ürründik ingurian han, ingurian han eta hapatakaz[172] elizatik elkhi züzün eta ordin tartaruak hartü zin heben lepotaik eta erran ziozün:

−Ah! Pagano zahar haiz, eta argizagilat igorri.

Eta heltü bada oano, argizagia eder delaik age(r)i da.

[172] Korrika batean

HARTZARI BURUZKOAK

177

E26-01 ARBAILAKO AZKEN HARTZA[173]

Altzürüküko ihiztariak bildü ziren eta basuan, iteko basüan sakabanatu ziren eta bati hartza etorri zitzaion, kurrux, kurrux, kurrux, kurrux eta beaz orbeletan zerbeit entzün züen eta arnas estuan jeiki zen eta hartza buruz burü gertatu zitzaion. Tiro egin zion eta omen bizkar hezürra hautsi zion. Bena ez zuen hil eta golpe bakoitzeko fusilak edo armak edo xispak zituzten, eta orduan arbola batera igo behar izan zuen, eta arbola hori astigar bat zen eta gizona gora eta hartza ondotik gora aztaparka eta beharrik bazüen aizkora ttiki bat bazüen beraz gerrikoan gizonak eta ordian aintzineko aztaparretan, atzamarretan joiten zuen hartza eta oihu egiten zuen lagunei:

−Hel, hel, hel.

Eta azkenean lagunak etorri zitzaizkion eta hartz harekin bukatu zuten eta ba omen dago, zutik dago arbola hori, astigar hori eta osaba zenak erran zigun atzamar erexak, hatzak ageri direla haren enborrean.

178

E26-02 HAMARGARREN HARTZA

Izeba horrek kondatzen zigun nola Bidalün bat hartz ehiztaria zen. Eta bederatzi hartz hil zituen eta gero hamargarrenarekin topo egin du eta haren tenka kondatzen zigun. Ataka batean goaitan egoiten zen. Beaz hartzaren zain, hartzak pasatzeko ohitura zuen estu−une batean eta ezkerreko besoa artilez itzulikatzen zuen, eta eskuinekoan ganibet haundi bat zeraman. Hartza etortzen zelaik, eup! edo holako zerbeit botatzen zion. Eta orduan hartza jeikitzen zitzaion eta orduan hartzaren ezkerreko beso azpitik sartzen zen bere ezkerreko besoa ahoan emanaz eta ganibet ukaldika hiltzen zuen. Bihotzean halaxe sartzen zion. Eta horrela bederatzi egin zituen. Hamargarrena etorri zitzaion eta ezin izan zuen berehala hil eta hartzak harrapatu zuen eta biak itzulika behera joan ziren. Azkenean hil zuen, hartza hil zuen. Eta ohera

[173] Bideoetan ez du zuberotarrez hitz egiten.

joan eta egon zen barne zortzi egunetan eta gizona hil egin zen. Orduan zerk hil zuen, ala izialdurak, beaz bihotzekoa eman edo bestenaz pozoinak, hartzaren atzamarkada oso pozointsua da.

ASKOTARIKOAK

179

E18-01 ZEINIAK

Kontatuko deizut Altzüküko eta Zalgizeko eta Mendiko zeinia. Bazüzün Zalgizen zeinü emailia, Pucho deitzen züzün, eta ene aitak hartü zizün haren lekia. Eta igante oroz meza handira gabe oren bat lehen, zeinüzaiñak zeinia erabilten zizün, eta deitzen züzün arraphikia, arraphikia emaiten zizün. Ordin bazüzün eta eliza gainilat eta ez dakit zonbat denbora igaiten zin, arraphikia sonatzen zizün, arraphikia emaiten zizün. Hau emaiten zizün, arraphikia hola züzün.

−Ttipa jan ttipa jan, jan, jan, jan, ttipa jan, ttipa jan...

Hori züzün arraphikia, hamar minuta heltü bada joiten zizün. Bon, eta oren baten bürün meza handia züzün. Herritarrek agitüik zütützün.

Eta arraphikia Altzüküko herrin entzüten züzün, haizia alde zelaik phü, ez baita ürrün e. Eta han bazizien beste zeinü bat. Han beste gisaz emaiten zizien arraphikia.

Altzüküko zeinik, Zalgizekoai arrapostu emaiten ziozün. Erraiten ziozün:

−Txinkor eta pastetx, txinkor eta pastetx, txinkor eta pastetx...

Eta beti hola züzün, eztakit zombat denboa.

Eta ordin Altzüküko zeiniak arrapostia hola emaiten ziozün Zalgizeko zeiniai. Eta Mendin bazen beste zeinü bat, bazen zeinü ttipigo bat han. Eta Mendikoak arrapostüa emaiten ziozün Altzükükoai.

−Baldin baginü, janan ginü, baldin baginü janen ginü.

Herri ttipia baitzen, eta zeinu ttipia baitzien, ez zizien gaiza handik. Hori ez zizün botz eder bat, botz ttipi bat zizün.

180

E32-03 BELTZUNTZEKO JAUNA

Iriburu. Batzuek erraiten dute iriaren burua dela eta beste batzuk hiru buru direla. Zen hori zen gertatu Beltzuntzen hemen, Beltzuntzen. Bazen zaldun bat, Jauregia hala da. Oso ona zen ezpatarekin hala. Horrek in zuela delako suge hori hitzeko. Eta gero gilbeleat erori zen bere azpirat eta ito zen azpian.

Leheno joaiten ziren urteak eta urteak, bakizu Beltzuntzeko aintzidari bezala armada ta joaiten ziren gerlarat, joaiten ziren urtiak, eta gero ez dakit zombat urte egon ondoan etorri zen etxerat, baina ez zen etorri bere jantziekin, etorri zen pobre bat bezela eta gero ez zuen ezautu bere emazteak. Eta nahi zuen ikusi fidela zuenez. Ta untsa bazkaldu zen ta afaldu ta ez dakit zer. Ta galdatua zakon ea lo iten ahal zuen haekin. Ta ezetz. Ez fidela zela ta orduan erakutsi zuen nor zen. Nahi zuen ikusi ea fidel zenez.

181

E1-05 SARAKO ZUBIA

Saran in zuten zubi bat, erromanoen gisan, ur ttiki batian eta sekulako denbora eman zuten. Bortz urte edo eman zuten zubi hori egiten eta deitu zuten gero zubi hura "Astie". Hortako esaten dute beti Saran badela astie, holako zubin azpien.

Hortako zuk erraiten nauzula, orain: gaur presatua naiz, eman fite. Aski duk Saran pasatzea, astia hartzera!

182

E43-02 CHATEAUKO LEIENDA− ÜRRÜTIKO ANDERIA

(emazteak kontatua)

Hor eta erregen emaztea faltatzen zen üsü, atsetan zortzi oenetaik at eta behin inkietatü zen hua ere, sekülan ez ageri, sekülan ez ageri. Gai batez soberatü ziren eta jüiten zen ogi ttipiak egiten zitien eta labian errarazten zitien eta emaiten zitien paubrendako. Eta horrela señora ohartü zen ez zela, etziala tronpatzen, joana zela intentzione onetan.

183

E43-03 AHÜZKIKO ITURRIKO LEIENDA

Lehenago bazien lau-bost hotel, kurak egiten ziten, joaiten zen jende paketa. Bena diela laueun bosteun ürthe bazen Altzaien señor bat, errege bat, Señor de Zaro deitzen eta egün batez gardak bazütinan oihanin, Ahüzkiko oihanin behe hartan, gardak atzaman zuten mutiko bat orkatz bat ehoik. Orkatza eho zin. Eta prefosta ez zin libre ihiztekan aitzia erregian oihanianetan. Eta arrestatü zin eta kondenatüik izan zen hiltzera. Bena mutikon aitak galthatü zion erregeiai nahi zila, ahal zinez aitatzen semian hiltzeko manera.

−Ah eta bon bai

Ze(re)n proposatzen zin eta nahi zela, semia hila zelarik Ahüzkiko ura edatez. Eta ordin egün batez joan ziren Ahüzkiko iturrila eta han motiko gaztea ezarri zuten ttottotuik eta gero eta ezarri zuten entonnoir-a[174] [ez dakit nula erraiten duzien ziek, bakizu barrikan ura ezarten baita] hura ahotik eta ur botatzen han urek eta sekulan ez zen mutikua han(pa)tzen, ez hiltzen. Eta gero ikhüsita izigarriko istilük, eta mutikoa ez zen hil, oro pix egiten baizin eta bizia salbatü zizon hengatik eta ondotik, hortako zuten eta gero egin han hotel hük, zeren ordin ikhusi zin urak bazila bere karitatia.

Leienda da bena posible da zeren jiten direnak kuren egitera, edaiten ahal dute hamar botila hola eta dena pixa egiten da.

184

E13-01 SOULE-KO LEHOIA

Behin jün züzün bat soldado eta soldadokan Paisat eta ordonnance du capitaine züzün, quatorce-eko gerla finitzian. Ez dakit nuiz zen. Eta gero kapitainarekin joaiten zelaik pasatzea, aleman bat motoz igain ziezün eta oihan batetan ekhüratu bere motoaiki eta erran ziozün kapitainak. Hüa mekanikai eiejerra zen eta hüa behar zitiela frantsesak ebatsi alemanai.

−Bai, bai bena.

−Ni fida nük bai, egur bat hartü(r)en diat eta atzemanen diat.

[174] Enbutua.

Ordin jün züzün eta moto haeki he(g)ian ekhüratü eta egur batekin bü(r)ütik behera eman eta motoa ebatsi. Moto hua Paisat ekharri, han desmüntatu, üsinak egin eta egin zizien moto, oto eta zernahi, canoë ebai azkenekoz. Bena behar baitzen markha, ordian souletain batek ekharri beitzizün, ekharri baitzien moto hua hara, eta lehen mekanikak han egin beitzien. Ordian Souleko emblema ezarri zien, le Lion. Eta geroztik Peugeot le Lion deizü emblema bezala. Hortako düzü Peugeot-ek le Lion de la Soule comme emblème.

MITOAK

185

E13-10 ZENDAKO EZ DEN BERETTERRIK

Eta badakizie Santa Grazin zentako ezten habo(ro) beretterrik. Aphezak ukhen zizün destrenphü bat. Jün züzün birapila otoarekin, mankhatü, ospitalian igan zizün hamabust egün, handik jin züzün, arramezaen emaiten hasi eta meza emaiten dizü eta meza denboran beti ai züzün beretterrai soz.

−Eta hau eztük arraigoko, gelditüko da… haurrak beti lotsa beitia. Eta ikhusten düzü memento batez grimasa[175] baten egiten. Ordun meza errestoa igan zizün eta ez haboro egin eta meza urhentzin[176] erraiten diozü:

−Bena jauna ukhen düzü destrenpü bat eta deja.

−Ez nik ez.

−Oh! Bai, bai.

−Eta nüiz?

−Holako zein bai.

−Ah! Bena ardua arretzen[177] hasi deat.

−Ah! Eta jauna enia irüdi zitazüt –betterrak erran ziozün.

Ordin eta ardoa edaten ziozün betterrak.

−Bi zapart eman ziozün eta geroztik ez dizie betterrik.

[175] Grimace, keinu.
[176] Urrentzean, amaitzean
[177] Mingartzen edo igaiten.

IPUIN MIRESGARRIAK

186

E1-03 DEABRUAREN ADINA

Beraz eta bazen beti, sartaldero ibiltzen zen zakur alimale batzuekin, promenant eta larrez larre, eta atxematen zituen baserritarrak ta pausatzen zituen kestionetara. Eta behin beti, eta denek hura uzten zuten bazterretik ahal bazen utzi pasatzera, haren eta alderditik bertze mendi mazelatara, an zuzten ardieketa. Eta beti hartzen du zakur alimale hoiekin bertze mendirat, ta han atxeman zuen baserritar bat ta behar zuen arek iru kuestione pausatzen tzituen, iru galde eta batto, bederen behar tzen batto pentsatu, bertzenaz garbitzen tzuen beti gizona, eramaten zuen bera.

Eta beti, Mattin baserritarrarekin, topez tope egin zuten alkar, eta atxeman tzuen eta zakurrak ibiltzen tzituen, arrastatzen zuten, zakurrak eramaten zuten beti. Eta daldaretan sentitu zen gure Mattin eta erran zion, mendi kaskoan, kurutzin eta bon:

−Zuk behauzu orai erran neri zelai hortan zonbat etxe diren.

Bi errepusta uzten zituen ematen.

−Ehun eta larogei.

−Ez.

−Ehun ta berroita amar.

−Ez.

−Ehun ta zazpi etxe dire.

Huts egin zuen holan. Eta gero galdetu zion berritz.

−Eta bon, orain behauzu pentsatu nik ze adin dutan −Satanek erantzuten du.

Eta hau abil hasi zen.

−Larogeita hamar urte.

−Ez.

Zaharra baita, boltsa handi batekin. Ta beti,

−Larogeita hamabortz urte.

−Ez, bueno uzten zaitut gaurkoan, baina bihar goizeko zortziak eta erdietan etorri.

Geeta[178] han zuten eta zortziak eta laurdenak aidean etortzeko eta han izain tzela debrua. Gizona gaki da etxerat eta andria ere nigarrez hasten da, eta zer zuen andreak kexu?

−Satan, bertze mendian nengon eta atxeman nau. Bi galdera banazkin eta batto ez dut pentsatu eta bertzia ere ez du pentsatu, baina utzi nau bizirik etortzen, pentsa. Bihar behar baitut arraposta eman, zonbat, zer adin duen ta ez diot ematen ahalko…eztakit. Ta ongi joan zen gaztea, zakurrekin etortzen zela bila.

Eta beti eta Kattalin andriak erraten dio:

−Hori gizona aise inen dugu, arrimatuko[179] dugu aise. Nik adituko dut ze adin duen. Zuk ezautzen duzu? ez duzu ezautzen. Errain zaitut nik bihar, ze adin duen.

Eta beti gure Kattalin gan zen biharamunean goizik, seiak et'erditan oilotegirat, eta bi kilo eztikin gorputz guzia biluzi zen, gorputz guzian eztia eman zuen bira-bira bere gorputzian ta oilar bat bipiltzen du ta oilo-lumak pausatu bere gorputzian, eztiari kolatzen baitziren, denean.

Gaki da bixi-bixia geetetarat, ateketaat eta lehentxo, zazpiak eta laurden airian eta beti ordu aski goiz izain zela han eta ematen da atekaen gerizan eta ikusten ditu zakur alimalek, Kattalinek eta lepo gainetik bere poltsa handiekin ta kargekin eta.

−Baitiat nik larogeita hamazazpi urte eta eztiat egundaino olakoik ikusi! −oihu egin zuen.

Eta Kattalin partitzen da etxera lasterka ta erran zion Mattini:

−Zazi, segidan, eta errozu laurogeita hamazazpi urte tuela.

Eta gan tzen gure Mattin erdi-lasterka bere ateketat ta debrua han beti, han egoki, ta erantzun:

−Azken errepusta behar nauk eman eta xuxena:

Ta egin zuen:

−Bai, zuk laurogeita hamazazpi urte ituzu.

[178] Ataka
[179] Orotariko Euskal Hiztegian: "arranger, mettre en ordre".

Ori izigarria atxemateik errepusta hori.

−Libro uzte hauk hartarik.

Ta in zun:

−Libro uzten haut bertatik!

187

E20-02 HAMALAU

Hamalau Obelix bezala düzü, izigarri azkar eta hola. Aita ta amek etzüten haurrik ükheiten ahal, eta azkenekoz jün Lourdeat edo Erromat eta galthatü, eta azkenekoz ükhen zien haur bat, bena haur bat izigarri azkar eta beti gose, beti gose, beti gose, eta emaztik erraiten zizün:

−Hoik hamar aldi bezainbeste jaten dik!

Azkenekoz *Hamalau* deitzen zien haurra, eta handitu onduan, behar zin beti jan, jan, jan. Ordin nahi zizien igorri eta erran zien:

−Ederkiñi, abil eta har ezak zerbait gaiza ttipi eta jün mundienganat ikhusteat nüla den. Eta Hamalau jün zen eta igan zen laborai etxe baten aintzinian, doi-doia emaztia ai zen leihoen zabaltzen, eta erraiten zin emaztik:

−Fu! Egün, ogia egün behar diagü muzten, zeren egün, bihar ebia jinen da, behar dügü, behar dikezü hamalau gizun phü lan horren egiteko. Eta bestia heltü eta erran ziozün:

−Hamalau ni niz.

Eta ordin eskaini zizün lan horren egitia. Eta erran zizün:

−Lehen nik behar dit jan. Eta jan zizün, bi arroltze, hirü, dozena bat, hamasei txinkor, txinkor, txinkor eta betik egarri eta azkenekoz jün, edarien hartzez erran zizün:

−Horrek ez dik beharrik, edarien hartzen dit.

Eta erran ziozün emaztiai:

−Eguerditan jinen zia alorrilat eta ekartzü jateküa bestelan ezdit urhendüko[180] lana. Eguerditan jün emaztia bi zahekin kargatuik eta Hamalau lo han, etzizün lo deus egin. Eta emaztia:

−Oh!! Hola düzü! Ohoina zia!

−Ez, ez, emazü jatea, janen dit eta gaur arrajin zite.

Eta gaiaz arrajin zen eta ze ikusi zin. Alor oro moztuik. Ogi paketak oro eginik eta oro prest. Eta estonatu zuzün eta hartu zizien müthil bezala.

Emaztik erran ziozun senarrai:

−Hoi behar diagü galazi eh! Igorriko diagü egur txerka oihan harta eta han battük heltü bada ehun hartz beno habo eta heltü bada ehoko die. Bon, eta Hamalau jün bai behiekin ta orgekin eta hasi egur biltzen eta geo jan, jan, jan eta siesta egin eta iratzarri zelaik, behi bata hartzek jan zien. Eta izigarri kexu, hatzaman zin hartz bat beharritik eta erran ziozün:

−Ah! Ene behia jan duk!

Eta behiarekin ateratu eta etxerat arrajin. Eta erran ziozün hartzai:

−Ez haiz higituko, bertzenaz nik emanen daut! Eta hartza goxoki!

Geroko egunin emaztiak lotsatuik erran ziozün:

−Eztiagu ahal, egiten ahal, behar diagü atsolutoki galazi. Arraigorten diagü oihanilat.

Badüzü oihanilat bi: hartza eta behia ateratuik. Eta jun züzün eta iratzarri zelaik behia janik. Izan zuzün ertzo baten gisan, beste hartz bat atzaman, ateratu bestiarekin:

−Ah behia jan dük, oai haen lana eginen dük!

Ordin jentik erraiten zizün:

−Nula, nula galaziko dügü!

Behar zizien igorri zubi baten eaikitzia, eta ura handi eta azkar beitzen heltü bada uak joanen zila. Berak harek ezarririk zur zunbait uraren arrestatzeko eta zubia bi minutaz egin.

Eta emazte xahar batek erran zizün:

[180] Ez dut amaituko

−Igor ezazie infernilat.

−Bena nün da infernia? Hantxe, hantxe mendi gora hartan phüntan, badüzü su amiñi bat, eta han debriak hek heziko dizü. Eta igorri zizien debrilat, bi sosen galtatze(r)a, zeren behin eman zien bi sos debriai eta…etzien…(bueltatu)

Emazte xaharra ikusi zizün etxera juitin eta harek erran ziozün:

−Behar tük bi gaiza hartü: barra burdina bat, azkar, azkar eta *les tenaies*, trukesak guk erraiten dügü hola, eta harekin egon han. Badüzü trankil, bortu gainera, khanta lotsez eta heltzin ikusten düzü kheia, suia eta hasten düzü:

−Badea norbait?

Eta debrien emaztiak, otoi, otoi, ixil hadi, ixil hadi, entzun diat debria jiten han. Eta entzüten bahai edo senditzen, fini, janen hai. Eta Hamalauk erran ziozün:

−Ageiko! Eta mahainen jarri züzün haidü, ta debria sartü ta:

−Ha! Hi hiz Hamalau! Debri jentik oro ezagutzen titzu. Hi hiz Hamalau?

−Zer nahi dük enetaik? –oh, Erran ziozün eta trukesekin sudurra hatzaman zinetz eta barraekin bi zankük hautsi. Erran ziozün:

−Eta oai urre zakhü hoi emain deitak

−Debriak oh, oh,oh…

Azkenekoz eman ziozün eta Hamalau arrajin etxeat eta jentik ordin izigarri kontent, zeren baitzin urre anitx.

188

E22-13 TARTAROA ETA APUSTUA

Tartaroa zen gizon azkar bat oihanean bizi zena.

Haur bat bazen eta harrapatu zuen bidean bazoalarikan, iruten ai zen presuna bat, etxondoan iruten, haria egiten.

−Ta norat haiz muttikoa?

−Ba hola ta hola banoa, mendira ta oihanera, basora.

−Ba kasu eman zak, Tartarua bada

−Ba ez ez, igual zuela.

Ta eman zion harek holako hari pilota bat. Hartu zin ta gero handik zoalarikan, txoriak hazten zitin norbait atxeman zin doaike, ta harek xori bat eman zakon haurrari. Ta harekin joan zen eta gero Tartarua atxeman zuen. Ta Tartaruak galdatu zakon zertan zan haren lurretan, eta

−Eginen diau apostia, eginen diau bien artian. Zeinek harria urrunago igorri. Ta harria igorri zin Tartaruak izigarri urrun ba. Ta bertziak xoria atera zin ta axa[181] burura joan zen. Ta Tartarua hasarre zen, ta orduan erran zakon. Erran ez, hasarratu eta arbola bat hola errotik atera zin. Ta mutikoa hasi zen ordian, hari pilota hura hartu, arbola bati estekatu ta alimaleko arbola aldea ingurina, ta denak aterako zitila uste ukan zin Tartaroak, ta ordian Tartaroa izitu zen, eta hala garaitu zin, mutikoak garaitu zin. Izitu zen, Tartaroa izitu zen.

Ardi bat hil zin ta ardi baten tripak ezarri zitin mutikoak, alegia bereak balitu bezela hemen, ta gero Tartaroa ikusi zitaken ta ganibetarekin urratu zitin. Ordian harek bezanbat eginen ziala Tartaroak, bere buriai tripak atera zitzazkon.

189

E45-01 TARTARUA ETA URDE ZAINAK

Begi bakarra zen tartarua, kopetan zuen begi bat tartaruak eta bazituen oilar handiak, gaztainak eta haritz oihanak bazituen eta zerri aunitz, urde aunitz hazten zuen. Eta bazituen urde zainak. Bena urde zainak hiltzen zituen tartaruak eta egun batez ezartzen du bat eta zerrizaintako eta bidian bazoalarik tartaruaren etxeat atzaman zuen xori saltzale bat. Eta galdatu zion txori saltzaleak:

−Norata zira?

−Tartaroaren etxerat zerri zain.

−Oi, oi, ez zaitela joan. Tartaruak denak hiltzen tu. Zerri zain guziak.

−Ba zuk ematen banazu xori bat, enaiz hilen.

Emaiten dako, badoa aintzina eta atzematen du hari edo korda, soka saltzale bat. Ta harek eh galdetzen dio:

−Norata zira?

−Tartaruaren etxerat zerri zain.

[181] Haitza?

−Beharrik ez zite joan, harek zerrizain guziak hiltzen tu.

−Zuk emaiten banauza korda hoitaik bat, soka hoitaik bat ez naiz hilen.

−Hoi baizik ez bada, emanen dauzut ba nik.

Ta badoa kurri aintzina ta atzamaten du gasna saltzale bat. Ta gasna saltzaleak galdeiten dio eia norata ai zen.

−Ta Tartaroaren etxera zerri zain.

Ta erraten dio harek e gauza bera:

−Ba ezitela joan, tartaruak zerri zain guziak hiltzen tu.

−Ba zuk ematen banauzu gazta bat ez nau ni hilen.

Emaiten dio gazta. Joaiten da tartaruaren etxeat ta hasten dira norgehiagoka. Tartaroak errten dio:

−Eia harria nuk igortzen du urrunago.

Tartaroak botatzen du harria ta botatzen du urrun, gizon azkarra zen. Bestiak hartzen du sakeletik xoria eta hura joan zen urruno. Ta hari irabazi zion.

−Bai, irabazi diazu!

−Oain behar diau ikusi eia nork xehatzen din harria hortzen artian.

Ta tartaroa hasten da kirriski karraska ta harek gasna sartu zin eta harek xehatu zin gehiago gasna.

−Ta bon, hortan e irabazi diazu. Behar diagu ikusi orain nork eia arbola denbora gutiagoz aurtikitzen dugun.

Tartaroa hasten da aizkorarekin kiski−kaska kiski−kaska. Ta noizbait arbola brau! Berriz hasten da kiski-kaska kiski-kaska ta brau! bestia.

Ta bestia, soka hartu ta ai zen arbola bat esteka, beste bat esteka, beste bat esteka. Ta harek tartaroak aurtikitzen zuen baino askoz ere lasterrago estekatzen zituen arbolak. Eta tartaroak galdetzen dio:

−Zer in beuzu? Ze ai zira hola?

−Denak estekatu eta denak batera bota!

−Ez, ez, ez, ez ezazula holako lanik in. Ene urden bazka ezta gehio bazkaik izain ta nik arbola horik behar ditut.

Ta bon, irabazitako utzi zun orduan. Joaiten dia atxeat eta atsean afaiten dute. Ta ganbara gela erakusten dako tartarua non den. Ta joaiten da gelat eta gauaz miatzen du gela ungi eta ohe azpian gizon bat hilik. Ta to! Ta zer iten du? Gizon hil hura ezartzen du ofearen gainean eta berak ofearen azpian pasatzen du gaua. Ta tartarua gauaz jiten da burdina barra batekin ta kopetan ematen dako ta uste zin hila ziela. Bihamun goizean jeikitzen da tartarua lehenik, gero bestia. Ta tartarua harritia. Ta galdeiten dako tartaruak:

Untsa lo in duzue barda? Ez duzue deuse senditu?

−Bai, bai kopetian holako kukuso ausiki bat bezala.

Ta bon, joaiten dira, arditeira joaiten dira. Ardiak e bazitin tartaruak ta hasten dira behar zutela ezpatan ari izan, bakizu ezpatakin elkarri nork sartzen zin ezpata. Ta hautatzeko bazitien han, saski batian, kristalezko, mitrazko argi−argi batzuk. Ta bazen burdinazko bat artian. Ta tartaroak erran zakon :

−Hauta zazu nahi duzuna.

Ta iten du, besteak dirdiratsuak baitziren :

−Ba niretzat, burdinazko zahar hau erdoildu hau.

Ta hasten dira, ta burdinazkoarekin, klask, hausten zazko ezpata, denak hautsi zazkon. Ta azkena hautsi zakonean, klask ! begitik sartu zakon ezpata. Ta ordian itsu utzi zin. Behar zila atzeman eskuz, ta hark menperatuko zila, zapalduko zila. Ta hasten da ardien ateratzen, bedera, bedera. Ta arte artan bazakon emana eraztun bat, tartaruak urdezainai. Hasten dira ateatzen poliki-poliki-poliki ta zerri zainak ze iten du, bordazu joan zen ardi joaldun bat larrutzen du ta azkenetaik badoa ta larria bizkarrian pasten da, lau paten gainean, joailiakin eta soinatzen zila, hola bizkarrian in ta erraiten dako tartaroak :

−To zer duk hik egun. Azkenik usaian lehenbizikoetaik pasatzen hiz ta gero, atea zenean erran zakon tartaroak zerrizaina zela, gibeltik.

Ta sakeletik galtzeko beldurrez eraztuna sartzen du ilian. Ta ilian sartuta, hasten zako :

−Hor, hemen, hor, hemen− eraztuna.

Ta hasi zen kendu nahiz ta ezin kendu. Ta beste tartarok hurbil segitzen lasterka. Ta iten du, ezpaitzuen kentzen ahal eta beldur baitzen atzaman ziela, moztu zin eria ta bota zin zubitik beheiti. Eraztunak hor, hemen, hor, hemen iten baizien han, tartarua zubitik beheiti joan zen eta han garbitu zen tartaroa.

ARRAZOIN/ATERALDIAK

190

E3-01 ENE BURUAREKIN HIZKETAN

Nere aita zena, Ezponda eta bere lehengusu bat, Ezponda hura ere, pasatzen hola mandoz ibiltzen zen, garai hetan eta gelditu zen baso erdi bat edan behar zutela eta naski, bida ere eran zuten, eta nere aita zenan lehenkusua hasi zen esaten nere aitari:

−Jono! Hasia nauk eta inkietatzen!

−Zer duk ba!

−Nere buruakin solasean hasia nauk, ta goraki

Aita zenak esan zion:

-Hoi eztuk okerra! Hobe duk bakarrik aitzea, ulertzen ez duen batekin baño!

191

E3-02 ARDO SAKRATUA

Lekorne(r)a deitu ginuzten, mezetarako, bertso ematen, hiruna-launa bertso, Xanpun eta biok, eta egiten zen elizan buelta, kantari, bakizu elizan buelta iten zuten ta gu tartean ailatu ginen mezetara ta jendea kanpoan zen oraindik. Ta gu sartu gibeletik eta apezaren ardoa atxeman genuen, hola xulo batean, apezaren ardo sakratua, ta batean usain ta bestean jasta, ta botoila behititu ginun pixkat. Bertsoa kantatu genun ta meza bukaeran berriz pasatu ginen apeza beztitzen den leku hartaik. Eta:

−Hori ene arno sakratua! −apezak.

Xanpunek atera zion:

−Bai, Ezpondak eta biek masakratua!

192

E3-03 XALBADORREN GERTAKARIA

Xalbador zenak ere ateraldi bat egin zuen. Urepelen urte batean idorte zen, euririk ez zuen eta mendian goiti joaiten ziren goizian goizik euriaren eske. Otoitzak

egin eta. Eta bidean kantari joaten ziren "ora pro nobis..." eta holako kantu batzuk eginez eta gero aldapa fierra baitzen, apaizak esan zuen:

−Hemen ez dugu kantatuko, arnasaren hartzeak ere lana ematen baitu eta hemen ez dugu kantatuko, goian kantatuko dugu eta.

Salbu gizon xahar bat bazen, adinetako gizon bat, astoaren gainean etorria. Hankak pixkak gaizki zituelako astoan etorria. Ta harek esan omen zuen:

−Nik abestea izango nuke goitikoan e! Baina astoaren gainean hola meritu guttiago!

Ta Xalbadorrek albotik:

−Nola meritu guttiago, biga etxe beretik helduta!

193

E3-04 BURUZ BEHERA

Bakizu laborantza berria etorri zenean (hau gertatua omen da) egiten ziren behiak eta ematen ziren iratzeak eta ongarriak. Orain zilo bat egiten da eta hau urarekin garbitu eta delako zilo horretara joaiten da behien hondarkin dena. Egun batez bazen zilo handi bat eta aita han sartu, erori. Eta semea amagana etorri eta:

−Ama, aita ziloan sartu da gerriraino.

−Ba, aterako duk ez dik lehen aldia− amak.

−Baino buruz behera da, eh!

194

E4-04 AZKEN NAHIA

Misioniak bakizü zer zian. Herrietan pasatzen zien aphezak, arrakonbertiazteko, jenden arrakonbertiazteko. Oai ez da egiten. Hogeita hamar urthe hüntan edo hola. Ta bazien herri hartan misioneak. Eta gaü hartan, zea zien "zelia". Ta misionesta hasten da:

−Denak nahi zizte zelian sartu. Denak nahi zizte zelian sartu. Zelian sartu nahi ziztenak, xuti zizte. Denak xütitzen dia, salbü emazte xahar bat.

−Zü beaz emaztekia ez zia zelian sartü nahi?

−Ba, ba, bena ez oono.

195

E4-05 JAIO BERRIAREN NEGARRA

Etxe batian, laborari etxe batian, emaztia, emazte gaztia jüaiten da haur ükhaitera, Donapaleurat, eta gizona khanpüan ari dü harat honata, harat honata. Eta elkhitzen da:

−A jauna, badüzü laboraria!

−A ba, zendako, zergatik laboraria?

−Azkarra da! Eta laborariak bezala nigarrez hasi da arrünt.

196

E4-07 GEZUR BAT

Lehen Süñietan bazen züloa, eta bi bazien bi gazte eta püttikoa hasten zaio:

−Ze begi ederrak tützün. Batützü bilo holiak polittak! Eta bülarra!

Eta emaztekia asetzen hasia, ta:

−Uh gaxoa! Nik etzat holakorik erraiten hiretako!

−Ba ta eztüzü behar, ni bezala gezur bat erran ezazü.

197

E4-12 BUHAMIAK

Ai zien üdan arrainkan eta hola beti eskhüz, eta udan beti gardoen[182] atzamaitea joaiten zien, eta ordian ezartzen zütien negüko presontegia, eta presontegitik elkhitzian eta Maulera jin, eta behar zutela bazkhaltü eta sosik bate ez zuten, dirurik bate, eta bazkaltzen die üntsa Etxolan, oai Etxola deitzen da. Eta ordian hasten die biak:

−Nik pagatzen diat!

[182] Gardoa: kardoa

−Nik pagatzen diat!

−Nik!

Eta Ontxi Garindainekoa zen eta hasten da:

−Nik inen düt zerbait, etzitela kexa! Eginen korsa[183] (course) bat eta lehen ailatzen denak, harek pakhatüko dik. Bon, bazizte!

−Bai!

−Bat, bi ta hirü!

Biak partitzen die lasterka eta batak bestiai:

−Oain bagoazi etxeat!

Eta etxeat joan zien.

198

E4-14 MAKINONA[184]

Makinon baten ixtorioa, behi eosten eta kabale eosten diena. Nola deitzen düzie ziek? Etxietan ibilten da, behien hoskan, ardien hoskan…gük makinona deitzen dügü. Etxe(r)a joaiten da eta behin gizon batek bi behi saltzeko, bata oso polita eta bestia, txarra. Ordian txarrantako:

−Hau behi ona dük!

Makinonak erraiten dü:

−Ez düka bestiantako deus erraiten? Bestiak zer dü?

−Harek ez dü beharrik, harek agerian dik ederra dela.

199

E8-17 IKASLEA BAKANTZETARA

Herri batean bazen, hori gure herrian gertatia, ni haur nintzelarik haurra, sobera, pixkat dizipatia nintzen, guti ikasten eta sorginkerian eta baginen bizpahiru hola, ta artero errienta kanbiatzen zuten eta urte batez ukan genien hola handi bat, eta ezarria

[183] lasterketa
[184] Tratantea, abere saltzaile.

zuten han gora ezarria zin hark (arbelean idazteko bezela egiten du), eta ondoko urten etzauku heldu eta emazte bat, emazte zahar bat, hola txikia, eta geo lehen egunian alabaina gi(b)elian hantxe gi(b)elian betiko bizpairuak, erdi irriz eta zera. Gero beraz, emazte hura hasten da, bere zerian eta eskiriatzen eta ezartzen da (hankapuntetan) punttian, eta holaxen ta gero batek irri iten du iup! Harek eta hastetik egina zaukun sartzian berian:

−Badakit hemen badira ezin moldatuak, baina enekin ezta hola pastuko! Denak ezerriko zuztet nik zerinik eta denak eta bo! Oixe harritiak giñen, baño. Ta hurbiltzen zako ta erten dako:

−Zeuk irriz?

−Ikusi dut eta zuek e(g)ina beherian, hola luxatia etzanik −eta kolera gorritan −Ah ba, ikusia dut eina beherian. Hutsa duk.

Ta berala paper bat ezkribatzen du ta hau eazak[185] etxeat eta hiru egunez ehizala hunat agert gehio. Eta hau aita-amek sinatuik ta igor ekidak. Nik fitsik ez ikusirik ta ai tzatan bakantzetako gogoa sartzen ta beste hiru beintzat.

−Horrek eztik xantza!

Ta hantxe ginen ta bon! Enerbatia zen pixkat ta ai zen (eskribatzen arbelean) ta bestia hasten tzaut neri.

Ta −Zer duk hik? Zer duk?

Ta−Barkatu. Ikusi dut zure behera gaina[186] −er(ra)ten dako.

Bo, hori gaitzitu zakon, ta eskiriatzen dako berriz, ta

−Hi aste batez etxen. Aste batez!

Ta fitsik ez ikusirik. Ta berriz hasten da ta crera[187], bakizu crera iskribatzeko ta bi parte hausten, enerbatia baitzen, bi parte ta ene aintzinean gaixo emaztia holaxetan konkortzen da, ta nik segidan kaierra han ezarri ta ai baitzen kanpoat, ta bortak ezpaitzin, bortak iten du ieie…

−Noat hoa?

Ta, −Ba, nik ikusi dauzkitzuk denak eta joanen naiz berriz bakantzeta.

185 Eraman zak
186 Azpiko gona
187 Igeltsua, tiza

200

E10-04 XALBADOR

Xalbadorrena, egia zen, Alkatek kontatzen zin ardura.

Xalbador zena, igande goizekin bizarra eginik eta beztitzen ari, ta Iholdyra joateko bertsutara kermezarat, Xanpunekin ta baziren hiru-lau. Ta kanberako lehiotik so iten du, ta aizoko pentzian oto bat aat-unat ari pentzian.

−Errana zian, aizoak errana zatean permisa igana dik edo ari duk autoan ikasten permisarenia eiteko.

−Behar zatat gelditu arte bat, ta bon beztituik gelditzen zako Xalbador Baigorriratekoan.

Ta −Ze ai hiz?

−Badakik eta oto tzar hau nahiutala eskietan hartu puxka bat, eta permisa iragan aintzina eta egiten ai nuk.

−Ez, ez hiz untsa ari.

−Zaute! Ze in behar?

−Haugi bideat, pentzea bera joanen duk gero.

201

E12-04 MANDÜA

Hemenko gizon batek kontrabandan Frantziatik Espainialat igaiten zütien mendiz mandüak, mando paketa, hemen mandüak hazten gintin eta gero hezik. Ordun bazen [galthü][188] Espainialat, eta hortxeko gibelin espainülek edukitzen züten hülakoekin, üken tzütien hamar bat mando eta espainülek han zien, eta espainülek ordun münta bat so egin hor hor holaxe, ta bati ikusten deizie izigarriko llaparra eta begiak amiñi bat zerratuik holaxka eta españuulak:

−Zer dik horrek begi hortan? Zer dik horrek begi hortan?

Nagusiak:

−Errak nahi düana:

[188] Ez dut ondo ulertzen.

−Hi bena, mandu hau drolexka duk, hunek zer ukhen du begi hortan?

−Oh! Lehenago bixta.

202

E12-09 BIHOTZ ONAK

Bazüzün aphez bat Zalgizetik izan züzün Mendikotat, aphezküpiak leküz kanbiatüik. Ikusi bide luze hortan paseatzen züzün, eta i(r)agan zizün urtek aphez haik Zalgizen eta geo jun baitzen Mendikotat. Mendikotan münduk agurtzen zizün, agur, agur.

Zalgizetik jin zinen eta hemen gütützü, ta erraiten diozü:

−Zalgizen ederki zinen?

−Ah, bai, bai. Ni Zalgizen ederki nindüzün. Zalgizen jente xüxena eta jente jakintsüna. Balin bada hutsüne.

−Bai, bihutz ünak musala artino! (sosantako musa, le porte monnaie, diru-zorroa)

Ez ziela sobera musa zabaltzen.

203

E12-10 SATORRAK

Bi anai bazütutzün, bata etxe nagusia zen eta bestia etxeko semia, ez esposatia, eta biek bazitien bizpalau urteren diferentzia. Eta ezkontüik ez zenak, etxeko semiak permisa hartzen zizün urtzakako. Urte hartan etxe hartan bazen izigarria sator. Etxenko nagusik, anaiak erraiten diozü:

−Balio dik bai hik, permisa ukhan dezan. Eztük bate ürzoik erhaiten. Eztütük sator hoik erhaiten ahal!

−Bai, eta hik nagusi hoik aski tük hik kanpon ezartia.[189]

[189] Alegia, nagusia izanik aski duela satorrak etxetik kanpora bidaltzea.

204

E12-11 ZAKURRAN GISAN

Bazen bücheria bat Atharratzen, Abadie deitzen. Haik bücheria baitzin, ha(r)agi franko, bazin zakhür bat ederra, beti lo, borta aitzinian, pixka baten aseik baitzen ha(r)agiz. Han bazen, deitzen zien Abadia juiten zialaik, zakhürrak phüsatzen zien[190] eta sartzen zien magasian haragien eosteko.

Eta ostatian ziren laborai eli bat hortxen, herri aizün[191] Gamen. Eta erraiten:

−Ordin beotürik eta amiñi bat emazte kumers[192], eta batek erraiten dü, eta bazen hen arten bat müthil bat, etxe bateko müthila ai zen besteekilan ostatian bürrat baten edaten eta bat, bi, hiru, eta geo alageratüik zien eta erraiten dü batek, esposatüik baitzen:

−Kasü geo, ni nizan trenpin etxekanderiak haek ikhüsiko naik.

−Bai hi, Abadian zakhürran gisan, ha(r)agian khantin lo[193].

205

E13-02 BI MENTS (I)

Ama izan züzün Lourdan Ama Birjina baten eosten eta ordian Ama Birjinakin jin züzün eta nahi zizün hua mürrian ezarri txilintxan. Ordin bazizün puntta bat, martillia eta bi seme bazititzün bena ertzoxka biek. Eta ordian phü erraiten diezü.

−Nük ezarriko deitazie phünta hau?

−Oh! Nik bai. Hartzen dizü batak phünta, eta hasten düzü phüntaen ezarten bena büria murrilat eta phünta barneat eta ihündik e ez zizün sartzen ahal, sartzen dizü eta mankhatzen düzü eta ai, ai, ai, ai! Beste ertzu khantian erriz ai ziozün.

−Badakiat, badakiat nik nüla egin behar den!

−Zer?

−Phunta hoi beste khantiko murrian ezarteko düt!

[190] Eramanarazten zituen
[191] Auzoko herrian, Gameren
[192] Emazte kontuez ari
[193] Haragiaren aldamenean lo.

BI MENTS (II)

Eta geroz halaz izan zütützün eta Saint Luc[194] ereman zitizien eta gero bata azkarra züzün eta bestea üherra eta ordin direkturrek erraiten diezü, behar zila demenajatu[195] eta behar zila kamionet bat ekharri otoen khantila. Ta hak ekharriko zola bai. Ta:

−Anaiak laguntüko hai!

−Bai, bai, biak jinen gütützü, ta bon, bon.

Amiñi baten burian ikhüste dizie azkar hua konkortuik, kamioneta bizkarrian eta bum ! khantin phausatzen diozü. Eta :

−Bena zertako ez dük laguntarazi anaiai ?

−Anaiak laguntzen dit !

−Eta nün da ?

−Kamionetan barnan estaia[196] ekharriko dat hik !

Gero biak deliberatu zütützün, Saint Luc (erraiten baitugu Paueko ments hoien etxea, entzutia baduzu?), bon, ordian behar zizien ezkapi phü handik.

Ordian erran ziozün ezkapiko ziela.

−Ez, ez ziela ezkapiko. Zerratuik zela.

−Ta bazela xila bat, keila[197] bat eta joain ziela handikan −ai zütützün.

−Bon, dagoin astelehenen ezkapatzen gütük. Keila goa bada, petik iganen gütük, apal bada gaintik. Ordin aste hontan hoi arrapasatü zizien biek: goa bada, petik, apal bada gaintik.

Ordian astelehenian aleike üntsa küntrarioa [peia][198] lezan, züina ardeitsago baitzen, jün züzün ikhüstea. Eta hantik jiten düzü trixte:

−Ez gütük eskapatzen ahal.

−Zentako?

194 Pauen mentsak eramaten dituzten zentroa.
195 Déménager.
196 soka
197 Keila: barroteak
198 frenatu?

−Ez dük keilarik.

206

E13-09 AXKAR ETA BIZIKLETA

Behin eta jün züzün, bizikletara ezin iganez ai ziozün eta aphezak erran ziozün:

−Ah! Axkar, axkar eztakit horta igan ahal zianez.

−Bai, bai, ai nitzozü bai arkaka[199], bena ez zitazüt nahi egon.

207

E15-01 XORIA ETA ARRAUTZAK

Gizon bat heldü zen igande batez mezalat eta geo, pix e(g)in zian bide bazterrian, eta geo brageta zabaldüa heldü zen. Eta aizo batek erraiten dü:

−Hau bena, ze ai hiz brageta hoi zabalik, txoria ezkapiko zaik! Eta

So iten dizü, eta:

−Ah! Bon, bego, bego, berriz etorriko dük bai, arrautzak hor tik!

208

E15-04 ETXEZAINA

Etxezain zela ai züzün, mendin egoiten zütüzün, eta ai züzün kanpün lanin, sos puxi baten i(r)abazteko hargingoan, ai züzün kanpün eta etxe baten aintzinean igain zelaik, hemenko emazte batek erran ziozün:

−Balio dik! Kanpüan lanian ai eta etxe bat ezin ükhena, züena! –etxezain zütüzün−.

Eta hak arrapostia egin ziozün:

−Asetzen den urdiak, ez du aterbü beharrik[200].

[199] Ardiak ibiltzen dira arkaka.
[200] Errefrau itxurako hau ez dut aurkitu Gotzon Garateren sailkapenean.

209

E15-06 PHOIA ETA LOHITZÜNIA

Eta gero ostatin, beti ber gizona. Altzükün bazüzün bi ostatu. Bazüzün Lohitzünia eta Phoia, bi aizün. Eta ordin, Lohitzünian jauntsi zin edaten, beti edaten, edaten, eta geo etxea juaiteko azkena behar ziela edan aizün, azken ostatin, Phoian. Eta Phoian edaten hasi zelaik, aski erana baitzien aintzinetik, iten züzün holako, gibel nahi zizün jin[201].

Erran zizün:

−Oh! Phoia eyerki egon hadi, Lohitzunek kanpün botatuko deit[202].

210

E15-09 MAKINONA

Beste makinon bat züzün hemen mendin egoiten, Mendi-ko hori egoiten, eta lehen egiten zen bezala, oain bezala, axuriak, prezio bat emaiten zizün axuriak, eta geo pezatze joaiten zütützün eta geo merkhãtü ondarrin paper batekin sosetan pakhãtzen züzün laborai bakotxak. Eta laborai bat badüzü haien burian pakhãraztea ta haik elkhitzen düzü sosa, sosa lodi, sosetan hola behar baitzen pakhãtu. Ta laborai batek erraten diozü:

−Ai, horrenbeste sosekin ibiltzen baitzia, ni enukezü laket norbaitek ebastia.

Ta hak arrapostüa:

−Ni enükezü laket, gabe.

211

E16-04 ORGAK KÜRRÜNKA

Izan niz eta barantailaren zazpian Altzain ene osaba baten eta urtebü bezala, eta apheza Junes Cazenave han zen ene anaiekila elhestan ari.

−Jauna nüla ziade.

Erran ditazüt:

[201] Botaka egiteko keinua egiten du.
[202] Alegia, Lohitzunen edandakoa kanpoan ezarriko zuela.

−Untsa nüzü. Ez dit pleñitu behar.

Eta erran diot aintzina :

−Orga kürrünka diena düzü ürrünena heltzen.

Ba arrapostü eman zaik.

−Baina eztait kürrünkaik.

212

E19-01 APEZA MISIOETAN

Misioneak iten xitxien herri hartan, eta etxek emaiten xitxien puskak, oilaskok eta hola eta gero mixionestek etxixien ukan, behar zutena jateko. Ta gero in zien pedikia misionestek eta biziki untsa errezibitiak izan ziela Armendaitzen, ta oilasko karrankak entzun zuztela. Eta gero haren gainean gu beroazi gintxin, Miru err(a)ten xakoxen makinun bat bertsuka ai xuxun. Ta joan gintxun apezaren aintzineat ta harek eman xitxin kantiak:

Errespetatzen dut nik
Jaun hunen sotana
Ez eta ere hunek
Iten duen lana
Etzun dut bazela hemen
Oto bat gibelka emana
Pentsatzeko da hura hemendik
Ez dela hutsik joana

213

E22-17 XALBADORREN IXTORIOA

Urepelen bazen Frantsisko izeneko gizon bat ta eskalapoin egilia ere bazen eta manatu zazkon eskalapoinak gizon hari, baina baietz erran zakon bena ez zazkon egiten, ez zazkon egiten. Ta azkenean gure Frantxisko kexatu zen ta hasi zen marmarika bere buriarekin ta erraiten eginen zitila berak eskalapoinak, eginen zitila. Ta Xalbador gaztea, mutiko zarra han zen. Ta erran zakon:

−Zuk eztakizu, eztakit badakizun, eskalapoinak iten, baina zuk egin zintina hasteko bazakin.

214

E22-18 BOSTXO

Gero bazen beste gizon bat, Bostxo esaten zakoten izengoitia. Ta behin Bostxok sarri bazin pipa, pipar gider luxe bat, pollitak omen ziren, bi sos omen zuten balio. Ta behin pilotaka joan ziren Urepelen, ta halako baten pilota jin ta pipa hautsi. Ta gizona kexu, gizona kexu izigarri eta pipa hautsia.

−Koño pena diat, bi sos pagatia nian.

Ta bertze gizon bat bazen, Frantzisko Eroa errten zakotena, alegia irudi eroa, arrazoinkeria izigarri.

−Eztuk, eztuk deuse, oano hiru gelditzen zauzkik.

Bostxo zien izengoitia, ta pipa zin erosia bi sosetan, ta pena zin bi soseko pipa hautsi, eta harek erran zakon: ez hadi kexa, oano hiru gelditzen zauzkik.

215

E22-19 PERNANDO AMEZKETARRAREN IXTORIOA

Ixtorio luzeak, hori ere Almandoztar batek kontatia erten dut, eta nik uste luzia da. Pernandoren ixtorioa, Pernando Amezketarra gizon zelebrea baitzen. Betire arrazoinkaria baitzen, bertsularia zen.

Behin bazen artzain bat, hura ere gaizoa, alegia gaizoa, baina arrazoinkaria hura ere, ta Pernando bazagon hiru lagunekilan eleketa, ta ohartu ziren delako bertze gizon hura artzaina zen, bazen hola erdi alegia gaizo bazagon bat, heldu zela baina arrazoinkaria hura ere, eta erran tzen Fernandon bertze hiru lagun e.

−Bai nik hori hiru gauzetan, hiru esanaldietan tapatuko dut, eztu arrapostuik emaiteko xantzaik izanen.

Ta bertzek ezetz. Ta baietz, Fernandok baietz, tapatuko ziela. Heldu zen, gizon hura heldu zen, artzain hura heldu zen, astoaren gainean, artoa eiheratik heldu zen. Ta Pernandok erran zakon:

−Nola dabil e? Nola dabil e? hartuta ogie. Lemiziko galdea hori.

Bertzeak arrapostua:

−Bai batzuk astoetan, eta beste batzu mandoetan. Bai, bai, baño gorabeheretan gorabeheretan, astoetan baño gorago mandoetan.

−Baietz, gizona, baietz baina ia zer egiten duen, zer egiten duen.

−Zer egiten duen? Ta zer eginen dik? Irina, arraiua astua.

Ta gero ondotik kexu zen, kexu zen, apostia galdia zin. Ta alta behar zila, gizon hura, artzain hura behar zila lotsarazi, lotsaldi bat behar zakola eman. Gau batez ezarri zin barrika bat ziloak eginik, alde guzitaik ziloak eginik, ta gau batez joan zen etxola ondora, ta ardiak ere han ziren, ta barrikan barnera sartu zen bera, Pernando, ta gero piztu zin argia, ta gero ziloetatik argia alde guzietatik ateratzen zen, argiak bizitu ziren eta joare errepikak aditu ziren. Artzaina atera zen etxolatik kanpoat. Ta argia ikusi zielaik joaiten omen da bere makila eskian. Ondora joan ta:

−Ze ari haiz hi?

Laguna baiza arima erratua, arima pobretu, arima bazela ta meza baten falta zakola zeruan sartzeko ta otoi erran dako meza bat emaiteko. Hola jun zitzakon.

Ta bertziak:

−Badago sosik?

−Ez, ez, sosik ez.

Aintzina etorri beharko (d)uk. Gure apezak ez dik sosik dela beizik emaiten. Sosik gabe apezak ez dila mezaik emaiten.

216

E29-15 AIREA BEHAR

Geo zurgin ixtorioa heldu da bakizu hola:

Denbora hetan, badu eztakit zombat ehun urte Garruzen periak iten dia. Ordin jin zien lehen, kotxia errten duzi edo otoa, berria eta ordu artian zaldi-karrosak zien eta bazen herri batean zurgina eta oto berri-berria zuen estrena eta gomitatu zuen delako herriko mutila, behar (t)zutela Garruzeko ferietan ongi bazkaldu. Eta bazkaldu ziren eta geo atsalde-askaldu eta afaldu.

Arratsa etorri zen eta etxerateko bidia etzakiten nun zuten sobera jinik eta partitzen dira gaizo gure herriko mutilari, otoaren bornean, barnea ilundu zakon eta

bazoatzi, bazoatzi. Hainbestenarekin erraten dako gure herriko mutilak mahaxturia edo zurginari barnia ilun zuela, behar zukela aide pixkat, ta gaizo gure…otoa ezpaitzuen sobera, ezpaitzuen sobera ezautzen, gogoa beste nunbait zuen. Bidiari so iteko ordian birina apaltzen hasten da ta gaizo arroilan sartu ziren eta raepa!

Alimaleko sasi batean sartu ta gero han ziren biak musurka sasiaren bornean, berinatik trebeska pasatiak eta:

−Urde astapitoa! Oain badaukak aski aire!

217

E30-03 ARNOA PIZU

Garruzeko ferietaik, soberaska arno edanik, ta bidian hemen er(ra)ten da antzarrak akordatzen zitiela (antzarrak hetik heltzen bazu, hantik joaiten dira, nahi bazu hara joaitia, behar duzu hara joan). Gixon mozkorrak hola−hola iten du: batian honat, bestian harat eta…

Eta beste batek ikusten du gizon batek eta:

−Eh! Pettan! Garruzen arnoa ona zeon noski!

−Baa, una ziak, bena pizi hau eramaiteko!

218

E30-04 URDEA HILTZEN

Mutil bat juiten zen urdea hiltzen. Hemen etxe guzitan nonor ibiltzen da, biziki etxetan urdia hiltzen, zerria eta geo mutila bere kusi batzuen etxeat familiak gomatatia izan zen urdiaren hiltzeko, eta usaian bon, eguna behar zen urdearen egiteko, zeren besta puxkat iten baitzen, untsa baxkaiten eta afaiten eta geo jokoan aitzien eta bon gure mutila, gaizoa egon zen hiru eun, eta hirugarren goizian heldu da etxeat eta nausia behien bazkatzen eta deizten eta ari, ta:

−Egun un, nausia!

−Ah! E(g)un un bada!

−Ze urdea? Urde handia hil duzie naski?

−Bon! Etzun ez baitezpada haundia, bena luzia!

219

E30-05 KARAKOILA

Ta geo kantonera bazakizi zer den? Herriko mutila, herriko lanak egiten dituena, arroilak garbitze ta hortaik iten zuten eta geo biziki lan zen lekian hartzen tzien eta bizpalau elgarrekilan ta geo bazuten [herria gotorra zuken, baño chefa edo biziki euria iten. Badira subordinak ere, ez dira bakarrik].[203]

Eta eguedi joitian, goizian hasi, hatsian zazpiak eta erdiak edo hola, eta eguerdi joitian, aintzindariak, chefak errten dei, eta:

−Tenoria da! Goazen baxkaitaat! Ta kantonier batek aitzurrarekilan, alimaleko ukaldia tiatzen du, eta chefak erraten dako, aintzindariak:

−Bena errana deat gelditzeko! Eta baxkaaita joan behar deula, ta.

−Ba, goiz huntan, zazpi orenez geoz, banian karakola (b)at beti zango-aztaletan. Bi parte in dut!

Hori da kakoilak baziela. Kakoilak jarraitzen zakon beti, ordian lanian bera ez zen gehiegi a(b)antzatzen.

220

E35-02 MOZKORRA ETA URDEA

Bi gazte ziren, Donaixtin ziren gaztean larunbat atsa eta gizonak ibiltzen ziren ostatian, moxkortzen ziren, zen ta etxean ez zuen beti astirik ematen eta fite atxemanak ziren. Baño arrunt bi kilometretan bizi zen eta zen xutik eta ostalersak erran zien bi motiko her:

−Hori behauzie lagundu, etxea joateko eta behauzue lagundu.

Eta hek bazuzten hitzorduak inik nexkekin gau hartako eta ez zuten enbeia bi kilometretan joan gizonai laguntzeat.

Iragan zuten sahetseko etxalde bat han.

−Ze ingo diau, utziko diau zerritegian eta frexkatuko da hua.

Joaiten dira zerriteira, han tegi bat zabaltzen dute eta han urde zerri bat, gru, gru, uh! ari zien zerriari jaten emaiten.

[203] Alexandre Bordagaraik azalpena egin eta mozten dio.

−Hemen ez untsalaz.

Tegia zerratu eta beste tegi bat zabaltzen dute eta animaleko urde gizen bat etxean ibiltzekoa ta lo.

−Hemen ondoan −untsa jaurtia zen lastoz eta− honen ondoan egonen duk ba!

In kas, ezarri plantan ez zakoten ezarri buria urdian burian alderdirat, ezarri zazkoten zangoak urdian buruan alderdirat eta buria bestaldeat. Ta haren emaztik Jomena zin izena. Hainbestenarekin urde gizenak iten du animaleko putza. Ta bestiak ze erraten du:

−Itzul hadi bestaldera Jomena, ze hats zaharra haunan!

221

E39-01 ARNOA FINITU

Denboran xerri hiltzeak iten zielaik auzuak eta gomitatzen ziren eta gertatzen ziren. Bon goizian xerria hiltzen zen eta hasieran generalian elkarretaratzen ziren tripotaren dastatzeko, afaiteko eta beste puxka baten egiteko. Eta etxe batean gertatu zen ez zuten mahastirik, eta arnoa erosiz behar zuten fornitu. Eta xerri hiltzea, gaua bazoan, musean ai zien gizonak eta edaten bistan dena eta goizaldean, goizeko hiru orenetan etxekanderiak erraten dio nausiai:

−Arnoa ttipitzen ai zaigu, ta eztira etxera joain, oain ametitu behar, kanpoan ezin ezar.

Eta arnoa finitu zelaik, gomit gizon oso batek alde egin zuen ez baitzuen arno xortaik ukaiten ahal.

Ta ordin nausiak erran zakon:

−Arnoa finitia diau.

Arrapostia:

−Ze puta! Ez balinbada ez gomita!

222

E40-06 DRITXOKA

Hunenbeste denboretaik iten zien misionestak. Misionen itera herritara. Herriz herri eiten ziren eta beti parekan ziren, eta hori zan interesatzen ze(re)n ta misionest batek iten zuen predikua ta bestea sahetsean jarririk joaiten zen eta ditxoak ateatzen zazkon. Konparazioneako, nola jendeak behar zuen eta konportatu eta predikian, eta besteak sahetsetik atea eta:

−Bai, hik hori aise er(ra)ten duk, eta ditxoa er(ra)ten zakon sahetsetik irriarazten zuten. Ez niz oroitzen ni.

Ordion, misionetako ixtorioa da. A(rra)tseta amaitzean joan ziren gure herrian bi, etxeko nagusiari, adin bat bazuten, eta puxka bat berotiak. Eta ai zen misionesta prediku alkitik ai zen. Erran ta erran ai zen:

−Giristino maiteak, zer da bi burutarik josia? Giristino maiteak, zer da bi burutarik josia?

Bi edo hiru edo lau aldiz errepikan. Eta ohartu baizen laguna berotia zela, beharrira erraiten dio:

−Ez dakika hik zer den?

−Etzekiat, etzekiat nik zer den, ta.

−Nik bazekiat ba?

−Zer da?

−Tripota.

Ta xutitu ta.

−Tripota jauna!

223

E45-15 ERANTZUNAK ZAILAK

Argiarendako zaukaten ta. Fernando Amezketarra. Orain espainola, frantsesa, eskualduna, denek huts hortan erortzen gira. Harek herriko apezak erran zion:

−Fernando nik eginen deizut galdera bat erraza.

Fernando erran zion:

−Galderak denak errazak dira, erantzunak dira zailak.

224

E45-16 GAUZA ON GUTTI

Aldi batez, esposatu zen neskato bat etxe batera, herri batera. Ta aspaldiko kontua baita hori. Eztei egunean ta elkartu ziren nexkatoain ta gizonain aldeko denak. Ta gero aunitz denboraz, ez baitzen autobusik eta ez baitzen, aunitz denboraz ez ziren elkartu eta gero feria batean gertatu ziren neskatoain aita ta mutikoain aita.

Ta erten dio nexkatoaren aitak mutikoaren aitari:

−Ño, gure etxean zen gauzarik hoberena joana da zien etxerat.

Ta besteak erantzun:

−Ordian gauza on gutti gelditu da zien etxean.

225

E45-18 HAMABOST KILO BELAR

Beste aldi batez joan zen mutiko bat kobesatzera apezarenganat. Seigarren mandamentuaz gainean, erten dako badakola neska batekin etzuela baliatzen bekatu egiteko beldurrez. Eman zako lemiziko aldian bi aitagure iteko, ta ondoko aldi batez joan zelaik gauza bera. Berriz e emaiten dako lau aitagure iteko. Hirugarren aldiz joan zen ta beti gauza bera, ta ordun eman zazkon hamabi aitagure iteko. Laugarrenean joan zelaik gauza berarekin, erten dio:

−Behar tuk igan hamabost kilo belar.

Ta egiten dio mutikuak:

−Ze uste duzu ni behi esnaduna nizala?

−Behi esnaduna ez, bena astoa bai.

226

E16-05 HAUR GAIXTOA

Lehen etxian gaixto ginelaik, axamak-eta erraiten zütüzün, kondatzen zien ixtorio batzük eta:

Etxe batetan bazien bizpalau haur, baño bat gaxtüa. Ta beti :

−Enetako gazna. Honat ogia, honat ura ta…ta beti bestek baño gaxtoago. Eta negüan sutondoan egoiten zen, oihu ezarten : beotzen, beotzen, beotzen !

Aita ta ama, aita edo ama juiten zien eta gibel tiratzen. Eta behin igaile[204] batek erran zien:

−Hoi, uzten baduzie be(r)a, beotu ondun be(r)a elkhiko düzü.

Ta uzten düzie. Ta hala-hala egin zien. Ta ber egün aldin. Haurra hasi zen, beotzen, beotzen. Ta utzi züzien. Ta be(r)e gisala zalhe eskapi züzün xutik.

Ene asamak kontatzen zaiten oik, gaixto ginelaik.

[204] Iragaile batek.

TXISTEAK

227

E3-11 GIZONAREN HORTZAK

Gizonezkok lehenago joaiten gira ohera, lo egitera. Garai batean emaztekia beti, eta gizona ohean zen, eta emaztekiari oihu egiten dio:

−Nun haiz ba, nun haiz Kattalin.

−Hemen, eta hortzen garbitzen ai nauk.

−Eh! Emaitten dun denbora!

−Bai, bena hirenak e iten itiat!

228

E3-12 BISTA ONA

Berroeita hamar urtez gorako emakumeak eiten dio, gizona ya etzanda ohean. Bazuten hola kristal, ispilu handi bat eta andrea biluzten da, larru gorritan ematen da eta:

−Jo, beaz zahartzen ai nauk! Behazak, behazak, nere bularrak behetti ai ttuk. Hemen ere haragi puska bat.

Senarrari eskatzen dio:

−Esan ezak zerbait goxo, goxo, gogoa alaitzeko.

Ta bestiak:

−Bista ona duk!

229

E7-02 MIRAILEN EGILEA

Bi gazte soldado denboran elgarrekin egonak eta gero hiruetan hogoita hamarretan pasatiak eta egundano ez elgar ikusiak eta atxemaiten die elgar numait.

−Eta nola haiz? Eta ze ixtorio? Eta ze ari hiz?

−Bo, nik laborantxan ai nuk to! Nik aita-amen segida hartu diat eta laborantxan segitzen diat. Eta hi ze ari hiz?

−Bo, ni ari nuk miraila iten.

−Miraila iten? Zer da miraila?

−Ta miraila ez dakika zer den?

−Ez?

−Miraila hola hire aintzinean ezarrita, hire buria ikusten duk han.

Harritia hua. Etzila sekula ikusi, ta.

−Ekarriko dat bestaldian baño!

Ekarri zakon beraz miraila ta mirailari so plantatzen du ta:

−Hori, hori, gure aita zena! Gure aita zena!

Ba, ta ezarri zian gordeik gabinetian mihisen artian, ta nehorrek ikusi gabe ta noiznahi joaiten tzen bere aitaren ikustera. Bere aita zena! Emaztia mesfidatia :

−Zer debru hartzen da gizon hori ! Beti ganberala juiten eta.

Eta egun batez etxera heldu eta miraila hartzen du. Harek ez jakin zer zen mireila eta:

Mirailari beira hola plantatu zan ta:

−Ai, ai, ama! Zer da gure gizon zozo hori, emazte itsusi hunen ikustera jiten dela!

230

E8-08 BAZKARIA PARTEKATU

Behin batian gizona ta emaztea joaiten dire ostatu baterat ta. Ta emazteak galdatzen du:

−Nik nahi dut hazitarat zopa, ta ekarrozu estrekosta gizonari.

−Ah, bon, ta. Ta gero? Zopa badaukagu.

Ta −Ez etorri gero.

Zerbitzaria berriz juiten da ta emaztiak galdatzen du.

−Nik oain beaut entrekosta ta gizonak hazitarat salda.

Eta nolaz da hori, hori bitxi da.

Ta ba, erran dautzau zergatik, ahokoak biek elgarrenak ibiltzen tugu, ta horrek salda jatean nik entrekosta jateut ta gero bestalde.

231

E10-06 SALBATU BALITZ BEDEREN

Bi emaztek eta beren senarra galdu otoko akzident batian. Eta batek net galdu ta hil ta bestea mankatuik maingu gelditu. Eta gero handik eta urte pare baten burian, elgar atzaman zuten bi emaztek.

−Ta beant ta beant arribatu hintzana, izigarri bidia in zitat.

−Ba, ba, ba. Ahal dan bezala bena bon, ze inen da? Aurrena moldatuik eta behar diagu.

Ta bon, ta –Nola in zin gibel onduan? Nola kendu hintzan afera hetaik?

−Aferetan etzua gaizki, halere ukan ninan hogoita bost miliun senarra hila zelakoan eta geo ukan ninan hogoita bost milium haur bakarreko, berriz aitaik etzutelakoan. Ah! -Afera hortaz kestione- sosain partetik eta eztinat eta erraitekoit ukan ez. Eta hi?

−Ba, nere aferak [inerakako][205] fresak eta oro pagatuik.

−Bon, bon, bon.

−Ba antxu ba. Ta nunbaitik e gure xoxola horrek salbatu behar xinan beden!

Bere senarrarenak oro.

232

E10-08 NANOAK

Xuberoan gertatia. Ostatia ta atseko hamar orenak eo zerbeit holako, ta bazen han xuberotar ostatuko usaia zina ta azkar berotia ta han ezin etxera juanez, ta han zen, han zen, itzulikaka goiko aldean.

[205] Ez dugu hitz hori ulertzen.

Ta nagusiak jotzen du atea, ta bon etzin besteik iten ahal, ta hainbestenarekin otokar bat heldu, ta otokarra ostatuko aitzinean gelditzen, eta denak eta ttipi hoitarik, ñañoak.

Ta bestea:

−Otokarrak ukein du jendia, behauk goxatu beharra. Ta baietz.

Ta haritz baten kontra pix iten ari zen ta ikusten tu jausten ta zask! Sartzen sazko ostatian, hogei bat, hogeita hamar bat, ta bestia beti pixaiten ari zen ta geo han eonik, eta oano holakoik! Oik zer dira! Nik gaizki ikusi, segur.

Bon, han zen kanpoan ta beste aldin ikusten tu gibeleat heldu, biga ta beste bizpahiru ta denak ttipi ta uh!

−Errak Ellande! Alajinku kasu eman! Babyfootak oro partitzen ai tzaizkik!

Alimaleko mahatsa bazen, ta geo han jendia tiki-tiki haserretia, ta gizon bat bera honoko lekia libro ta bestiak oro baitzian ta hola atxeman tzuten ondoko harek eta.

−Ondoko harek, ta azkenin behar dakogu galdein.

Ta galdeiten dakote:

−Barkatu jauna, untsa bitxi da hau, dena betia da ta zure onduan lekia…

−Ah ba, gaixoa hori ina zen ene emazte zenarendako.

−Ah bon.

−Ba, bena artian xantza makurra ukan du, hila izan baita. Ordian haren lekia nahi nin hutsik atxiki, in artian hileta ta nik eutsi ta.

−Ale, ale ziniena nahi familiako noiti bederen balia zin eta hor hutsik tapatia zenaz burutik!

−Ez, etzen nehor libro, enterramendian dia oro!

233

E11-01 KONTZILIOA

Badüzü *le concile*, bakizü zer den? Bi apez bazütützün, ta ordin gaüan ahialtü tützün biek hotelin.

−Entzün düzü, oano lehia eman die[206], ezküntüko gütüzü oano.

−Jaaaa! Ez gütük ezküntüko! Ja ja ja ja…

−Bai, erran dit, oano ezküntüko gütük!

−Ba, gaxua nik eztit ikhüsiko en fin! Gure haurrek ikusiko die!

234

E13-07 HAURRA NIGARREZ

Haur bat ai züzün nigarrez eta bi gizun bilhaxkan[207] eta erraiten diozü gizun batek:

−Zer dük nigar egiteko?

−Hor hantxe aita ai zitak bilhaxkan.

−Ah! bon, bai, bai ikusten (d)iat bai, bat bluez bezti dük eta bestia beltzez. Eta zuin da hire aita?

−Nik eztakiat eta hek e(r)e ez.

235

E14-02 HAUR SORTÜ BERRIA

Haur ttipi bat sortu zizün etxe batetan eta ez zizün beharri(r)ik, papilüa deitzen den hoi, bate gabe sortu zizün, iküsliarrak, ikusteat jiten zien jenteak :

−Oh ! Holako potiko eierra eta oi domage duk e, oi dolügarri dük eh ! Nola düzü ?

Eta ordian aita beti betik horren entzütez hozkitüik[208] züzün.

−Iküstea jiten denak iten dielaik holako arrapostüen bat edo zerbeit emaiten badeit, zürraldi bat emanen deat.

Eta geo jiten düzü adixkideik obena ta erraiten diozü:

−Ah ! Hoi potiko eierra dük ba, bena üntsa iküsten dia, bista ün dia ?

[206] Pierre Lhande: débat, eztabaida piztu.
[207] Bilaxkan, eztabaidan haserre
[208] Hokiturik, nazkaturik.

−Bai, zertako galthatzen deitak hoi ?

−Ah, inün dia, egünen batez lunetak kharreatü behar bazitin !

236

E14-07 OREN BAKOTXA

Bazen eta beste edale bat eta gaian beti beant sartzen zen, beant sartzen zen eta goizan sartü zen oren batian, oren batian, oren bakotxa erraiten dügü gük. Eta emaztik erraiten dio:

−Orain hiza sartzen?

−Eta bai, bai, oren bakotxa beizik ez tütüzü.

Eta arlojak egiten dizü tun, tun, tun.

Eta gizonak behatzen ziozü: ez dik balio erraitia hiru orenetan oren bakotxa dela!

237

E16-02 GERLA

Gerla denboa züzün. Bazien aleman eta frantses eta ai zien tiroka, panba! eta panba! eta egun ooz panba eta panba! Ta puh! Ta frantses batek erran erran zütien:

−Bada aleman aunitz deitzen Haus. Haus deitzen bada, agertzen dena tirokatzen dugu.

Ta Frantsesak iten du:

−Hauz!

Ta alemanak :

−Ia! (zutitzen dira). Ta danba!

Ta ordin hola. Jun tzen ta hola kontent. Ta hola.

Bigarren gerla jin zelaik, ber gaiza

Alemanek : « Bada Frantsez anitx Martin deitzen, eta deituko dugu Martin, ta jeikitzen dena tirotuko ».

Alemanak iten du :

− Martin !

−C'est toi, Haus ?

Ta alemanak jeikitzen tuk. Ta pan !

238

E16-06 PENTSAMENTUKAN

Eta erraiten zien lehen:

Semiak errain zozen aitari:

−Aita, zendako amaki ezkontü hiz?

Ta aitak arrapostü:

Hi're hasi hiza eta pentsamentukan?

239

E16-07 MANIFIKATA

Behin erraiten zizien:

Bi emazte jün zütützun mezpeetat, elizaat, aseik.

Beno baño lo züzün. Eta bestiak erraiten diozü sahetsetik:

−Iatzar hadi, Manifikata[209] ai dük.

Ta lo zienak :

−Eztiat nahi, ixurtan ai balitz e.[210]

[209] Bezperetako aire bat da.
[210] Edariaz ari dela uste du.

240

E16-09 BELHAR EBAKITZAILE[211]

Ene lagun batek badü kargu bat harrigarria? Badütü 5000 gente zankha petan. Belhar ebakitzaile da ilherrietan.

241

E16-10 HILIK NINTZALA

Eri hintzana, ikhũsi hebait hospitaleti elkhitzen dit gizon batek lagunari. Eta hünek: behar ere enaik ikhũsi ilherietarik elkhitzen, erran hian, hilik nintzala.

242

E16-11 AHAL DÜZÜNA

−Presonerak: Hamar ourthe presontegi, bena jaun jüjia, badit lau eta hogei ta hamabost ürthé.

−Badakik dio jüjiak: eginen düzü ahal düzüna.

243

E16-12 BAKOTXA BONETAREKIN

Traiteun zalzaile bat, laborarisai erraiten deio. Nun duzu gizona. Eta hunek : ürdetegin duzu, bena aiza ezagutuko duzu bakotxa duzu bunetaekin.

244

E16-13 EZTIZU OGENIK

Emaztiak gizonari: gure ezküntzeko berrogei ürthietako, eho bageneza? Eta gizonak: zerentako ürdia? haik eztizü ogenik.

[211] E16-09 eta E16-42 bitartekoak idatziz eman zizkidan eta beraz, ez daude horien grabazioak. Transkribaketak berak eman bezala egin ditut, baina testuen ulergarritasuna errazteko, formatua eta ortografia egokitu egin behar izan dut zenbaitetan. Txiste gehiago ere eman zizkidan, baina batzuk besterik ez ditut sartu, erakusgarri.

245

E16-14 GAIAK AHOLKU EKHARTEN

Ogendanta jeiki zite. Emaztia eho duzu eskünt eta biharamenian. Zer badüzü erraiteko zure defentsarako? Eta ehailiak: Gaiak aholku ekharten diala Jaun Jujia.

246

E16-15 DE GAULLE

Erregentak : De Gaulle, Juanne d'Arc bezalaxe da : Frantzia zalbatu dizü. Eta külüpützak[212] zaihetzetik : zeren haidü gira erreazteko.

247

E16-16 ZORTE TXARRA

Eztiat zorte hünik emaztéki dio gizon batek ostatian. Bi emazte ukhen tiat. Lehena jünan zitak, eta bigerena egon !

248

E16-17 LEIHOAREN GIBELIAN

Jauna badizu 25 minuta züie leihoxkaren aitzinian nizala. Eta bestiak: Eta ni jauna badizu 25 urthe gibelian nizala.

249

E16-18 EMAZTIA OSTATIETAN

Lagun batek beste bati: Badaiak gaixki, ene emaztiak gaiak oro igaraiten titzak ostatietan. Zer dü edaten? Ez, ai duk ene txerkatzen.

[212] Burua hutsa dutenak, ikasle txarrak. Frantsesez: "cancre"

250

E16-19 LIBÜRÜA KHIMBERAZ

Khantazaliak ari dira Nathebitateko ahairen prestatzen. Gizon bat begi-tresna lodi eli batekin ai da zelü odeietarik khantan: Leon-Leon. Aphezak: Ixil zite libürüa khimberaz düzü eta hitzak Noel-Noel-Noel dütützü.

251

E16-20 HAS ZITAIE NIGARREZ

Aita badoua oihanialat egur egitea. Hantik behala seme gaztenak oihüz: Aita, aita aigü zalhe, Amañi hil zikuk. Aitak ordian: ezkunian beste mentzik, hona nuk behala, artian has zitaie nigarrez.

252

E16-21 HAMAR MINUTAETARIK GIZON BAT

Gizon batek egunkarian eraküsten dü: Ameriketan hamar minutaetarik gizon bat leherturik da. Buria iharrüsten dü erranez: gaixo, gizona!

253

E16-22 ARSENIKA

Gizon batek pharmazientari: Badüzia arsenikik. Bai, badüzia ordonantza bat? Ez bena badit emaztiaen portreta.

254

E16-23 ARDÜA

Eskolan errejentak: Aitak erosten dütü 6 büteille ardü 1,50 € bakotxa zümbat egiten dero? Külüpütxak: 3 egun.

255

E16-24 APHEZA

Kamion gidazale batek hedexurieri: Baduzieia müntua beltzik?

−Ez, dio hedexuriak.

−Behi beltzik?

−Ez ere.

−Dios, apheza lehertu dit ordun!

256

E16-25 GORRA

Gor bat jarten da alki batetan, bena baratze püblikoko beirazale batek erraite deio. Eztiala hor jai, alki hoi tintatü berri düzü. Gorra: Nüla? Eta begirazaleak: Berdez.

257

E16-26 BERRIAK

Barberak erriari: Batit bi berri zuretako, hũn bat eta txar bat. Has zite txarretik dio erriak: zankhouak hain tüzü gaixki, bortxatu nüzü bien müztera. Eta hũna? −Zeure kantiko lagunak erosten deitzu oskiak.

258

E16-27 MEMORIA GAL

Jaun bedezia, memoria galtzen dit, dio erriak. Ah eta nouitzaz geroztik dio bedeziak. Ez dakit, enuzu ohart.

259

E16-28 ARGIZAGIA

Bi haur argizaziari soz: Ouzte duka badela nourbait argizagian? Baietz, baietz, gai oroz argi phisturik duk.

260

E16-29 BESÜA GALDU

Herreskikari[213] batek emazte bati: −Batit 6 haur hazteko eta aitzina, eskuñeko besüa galdu dit. Eta emaztiak: Arregretatzen dit, eztüzü heben.

261

E16-30 ZER EDATEN?

Gizon bat heltzen da hospitaliala, aseik, khordoka. Ikhertzen dian bedeziak : −Oh la la, ze edaten düzü. Eta bestiak: Ez dakit! Ze eskentzen deitazut.

262

E16-31 BEGITRESNAK GALDÜ

Erzo bat ari da argizanko baten pian zerbaiten txerkatzen. Igaraile batek: ze txerkatzen düzü hor. Begitresnak galdü titzat. Segur zia her dütüzüla galdü? Ez, ez, bena heben argitürik tüzü bazterrak.

263

E16-32 URDE ZANKOA

Haragitegian: Egun hün, baduzieia urdé zankhorik? Bai jauna, ze pointurra.

264

E16-33 EZ DÜZÜ BEO

−Garçon, ezarten düzü behatza, ene zopan

−Ez zitiala kexa, ez düzü beo.

265

E16-34 MÜSA BAT

Hereskikari batek, hede xurieri: −Ez duzie müsa bat atzaman, edo ihourk ere ez deizie ekharri müsa bat?

[213] Etxerik ez dutenak.

−Zümbat zozekin bainen?

−Ahal balitz 1000 eurokin.

266

E16-35 ORAIN NÜZÜ HELTZEN

Gizon bat erorten da hegatzetik. Bena erorten da Sobera mankhatü gabe, eta bürian da: Ah ah! Hede xuriak: zer igaraiten da heben. Eta bestiak: Eztakit, orain nüzü heltzen.

267

E16-36 TEMBRE BAT

Emazte bilho holli batek galtzatze dü:

−Behar nikezü tembre bat 55 centimako bat.

−Oizu dio postierak.

Eta emastiak: −Eskarrik hanitx: zumbat behar deizut?

268

E21-01 ERRIENTAREN GALDEAK

Errient bat zen eskolan haurrekin eta egun batez ideia heldu zako haur bati galdeiteko, eta er(ra)ten dako:

−Soizu baitutzu hiru botila arno, hiru botila arnok egiten dute hamabost libera, zenbat egiten dute ba sei botila arnok?

Haurrak arrapostia:

−Gure etxen egun bat jauna.

269

E21-02 GORRIA ALA XURIA

Haur bat joan zen ostatu(r)at botil bat arno behar ziela, eta nausiak errten dako:

−Bena eztuzu zuretako?

−Ez, ez, ez.

−Gorria ala xuria nahi duzu?

−Eztu inportik, itsu batendako da.

270

E22-05 BORTA

Bazen Xan Martin Apet erten zakoten gizon bat eta guarda izana zen, guarda errana baita mugazaina. Ta geo xahartua adina in zakon harek ta erretiroa hartia zin, ta gero maite zin xorta bat edatea maite zin ta behin Alduden sartzian bada zubi bat, ta han zagon gelditurik, ez zen un juiteko inorat ere. Han pasatzen ai tzen batek erran zakon:

−Ze haiz hor Xemartin?

Xemartin zuen izena

−Ba to, hementxe niauk, karrika guztia ikusten diat inguruka nola dabilen, ta beha niauk ere borta noiz pasatuko bertan sartzeko.

271

E22-06 ALDUDARRA ETA EMAZTIA

Aldudar bat beti ostatian zen ta beti berandu, beste hori re heldu zen ta emaztia ofian, ta emaztiak etzion kasuik egiten, hitzik etzuten erraiten zenbait egun hartan ere, ta gau batez horrela sartua zen gizona, emaztea ohean, ta solasa eman ta emazteak arrapostuik ez. Ta hondarrean gure gizona hasten omen da bazter guztian miaka behaka ofe azpian, alde denetan alegia zeaik galdu balu bezala. Ta azkenian emazteak erraiten omen dako:

−Ze bilatzen duk?

−Hire mihia.

272

E23-03 GIZON BIRAOTIA KONFESATZERA

Gizon bat jun züzün kobesatzea, eta kobesatü zizün uh! eta jüratzen zila anitx, (jüratu erran nahi dizü zin egin eta Jainkua, eztakit burhauti[214]). Ordin juiten düzü kobesatzea, bazko phündin, eta erraiten:

−Bai, artetaik jüratzen düt, Jinkua erraiten düt eta hola.

Bai, bena −aphezak erraiten diozü− eztüzü gaixtokeriaz egiten.

Eta bestiak:

−Ez alajinkua nik ez!

273

E23-04 GEZURRIK ERRAITEN?

Beste behin, aphezak galdeiten diozü.

−Gezurrik erraiten duzia?

−Eztit gezurrik erraiten, entzuten bai franko!

274

E25-05 HAUR MENDITARRA

Bazen eskolako haurra, menditarra, ta kalkulan ta hola ez zen ona, baina buruz, ez zuen izkiriatuz sekulan eman nahi fitsik. Ta erakaslea beti…egun batez ispetorea jin beharra zen, ta erakaslea:

−Zer eginen dut nik orain.

Inspektorea jin zelaik erran zion inspektoreari.

−Hemen badut nik menditar bat, alta ezta zozua eh? Bainan eztu erantzunik emaiten, kalkulan ta hola ezta una.

−Zaude, utzazu −inspektorak erran zion− nik eginen dizkiot galderak.

[214] biraoti

−Egun on Pettan! –Pettan zuen izena.

−Egun on Jaun inspektorea –ozen mintzatzen zen.

−Kalkulan ez omen haiz sobera ona?

−Oh! Sobera ez.

−Hire amak emaiten dizkik hamabi liranja, nik emaiten dizteat beste hamabi. Zenbat dituk orotara?

−Bo, aise sobera badut liranja! Zendako hoinbeste liranja!

275

E25-06 SEHIARI POTTA

Bazen eta aberats batzuen etxe bat, eta bazuten neskatoa, sehia, ta bazen mutiko tipia.

−Ta eh, Antoine, Antoine, oherakoan sehiari emanen diok potta.

−Ez!

−Ez? Zentako ez?

−Ah! Eztut nahi hartu aitak barda hartu dituen bi talo, sehiari potta eman nahi izan duelarik!

276

E27-02 HAMAR URTE HERRITIK KANPO

Behin mutiko bat joan zen herritik. Hamar bat urtez ez zen agertu eta jin zen herrirat, eta lagunek eta erraiten dute:

−Uh! Nun hintzan hainbertze denboraz.

−Izan nuk Xina eta koxinxina eta Anglater eta Australian. Ah! bena hik Geografia ezautzen duk?

−Ba, han ere izana nuk!

277

E27-03 ILARRAK

Aragoinean bi artzain, etxolan hor dira eta bat hamabiak aldera, hamekak aldera bat joaiten da mendira ardiak uztera, eta batek, etxian gelditzen denak:

−Behar diat zopa ein eta zoin ilarretaik ezarten dut. Eh! Zoin ilarretaik eiten dut eta zopa!

−Aski tuk hihaunetarik ezartia, haize hunekin ez diat deus entzuten.

[Ilarrak gauza xuhurrak ziren, bakizu batak bazuen eta ilarra galdeiten zuen besteari. Nahi zuen bere lagunaren ilarretik zopa egin, bena bertzeak.

−Oh! Aski tuk eta hire ilarretarik ezartzia, haize hunekin ez diat deusik entzuten].

278

E27-04 MANDO EDERRA

Artzain bat. Barkoxeko artzain bat joaiten da borturat eta mando eder baten gainean arribatzen da etxolara eta uh! uh! ze kabale ederra! Santa Graztarra zen. Ze kabale ederra, bai!

−Mando hünek ekarri düzu hama(b)ost egunen anoa eta gizon bat.

−Nun utzi du?

279

E28-01 INPERIOA ERORI

Oroith niz eta Oztabar bati entzunik gauza hau:

Ostiral Sainduz juiten da XeMartin elizkizunetan parte hartzera, gurutzenbide eta holako eta gero handik landa behar tzila Bazko ere ospatu. Eosten du botila bat rom−a eta etxeat heldu zelaik, botila besapian:

−Ah! Behar diau jastatu, ta botila irekitzen du, ta so iten du gibeleat aintzinat, nehore izain bazen, bere izariarekin trago bat edaten du eta gero bulta baten, eta ezpaitzen batere gaxto bigarren trago bat egiten du ta hola lau-bost aldiz, bikain iten

du botilatik edaten. Ta gaizoa, astiek harrapatzen du ta bi jausitan jiten da arroilat, eta handik ezin ateaz ai zen, otoitzean: (4:34)

−Jesus, zuk utzi Inpenorea[215] ta ni Romaren pean.

Ta holako gauza batzuk.

280

E28-02 BIZITZA ETA LANA

Erraten dute leno Ameriketan hogei bat urtez edo gehioz Ameriketan egona norbeit eta hunat heldu eta to! Bere gazte lagun bat atzamaten du:

−Zer diok aspaldiko! Aspaldi to ehintzala ikusia, eta zenbat denbora zin joan hintzala Ameriketat!

−Hogeita zortzi urte.

−Hogeita zortzi urte! Uste duka badela denbora!

Bestiak:

−Ziek bazinezten haurride andana bat? Zombat? Lau?

−Ez gehio.

−Bost?

−Ez gu sei haurride.

−Ah! Berdin ahazten baigira.

−Seirak bizi zizte?

−Ez, ez nihaur bizi.

−Ze oaiko hilak?

−Ez, lanean ai tuk.

[215] Hitz jokoa. Imperio izeneko rona eta Erromako Inperioa.

281

E28-03 HIRU SENAR HILAK

Emazte bat hiru aldiz arradontsatia zen, hiru senar bazitin segituik tombalat. Ta beste emazte batek galdeiten dako:

−Nola galdu inen hire senarra?

−Onddoak jan eta gaixoa.

−Eta bigarrena nola galdu inen?

−Onddoak jan eta gaixoa.

−Oh! Soizak, hirugarrena ere onddoak jan eta gaixoa?

−Ez, ez, lepohezurra hautsi, etzinan onddoik jan nahi.

282

E28-04 BETERINERRA ERI

Behin eta beterinerra, kabalen soinatzen ari dena, maaxela, kabalen artatzen ai den medikia bazen eri ohian eta medikiak harrazten du, eta medikiak:

−Nun duzu min?

−Ah! Zuhaurk pentsa! Nik eztut ene klienter galdeiten, nihauk behar dut atzaman nun duten min.

− Erran nazazu nun duzun min, artatzeko nun duzun min erran ezazu.

− Zuhaurk pentsa nun duan min, nik eztut ene klienter eztut galdeiten eta.

Bon, midikuak iskribatzen du lerro bat, bigarren lerro bat iten du, ta gero beterinerran emazteai errten dako.

−Soizu lehen egunean emozu zure gizonari lerro hori, biharamunean ezpada hobeki, emakozu bigarren lerro hori, eta hirugarren egunian ezpada hobeki igor ezazu eritegirat.

283

E28-05 HAURRAREN GALDERAK

Komunist militant batek ukaiten du gomita mitin halako biltzar handi batetat juiteko. Ta sei urteko semiak:

−Nik ebai zuekin aita

Ta −Ez, ez hara ezik duk juan, jaun-meria duk han. Gain hartan direnak, taulan gainean jartzen direnak jaun-meria batzuk dituk.

−Nik e nahi dut jin zuekin.

Joanen hiz baina ixilik joaitekotan, ez han haurren legen, jaun meria baita gain hartan.

−Bon ixilik egonen niz.

Joaiten dira biak eskuz esku bi aita-semiak eta gero ixil-ixila egoiten da. Eta biltzarra finitu, ta etxeratekoan.

−Errazu aita, batek erraiten zuen gain hartarik "camarade" "camarade". Ta zer da "camarade"?

−Soizak, hi ta ni camarade gituk, eskuz esku juiten gira.

−Ah! Zu aita camarade!

−Gero beste hitz bat eh gogoan dut han, erten tzina: "le gouvernement". Eta zer da "le gouvernement"?

−Nok manatzen gaitun eta guhaur le gouvernement.

−Ah! Soizak nok dun manatzen. Ama le gouvernement, aita zu camarade, ama le gouvernement. Eta beste hitz bat erten zin: "l'avenir", "l'avenir" hau, "l'avenir" hura. Zer da "l'avenir"?

−"L'avenir" gero, gero. Gure etxen ze izain da, ni zahartua izain nuk eta hi're ba, zahartua izain zira. Noiz eta gero aneia ttipi hura, nini ttipi hura hiru hilabeteko nini ttipi hura, hura l'avenir.

−Ah! Zu aita camarade, ama le gouvernement, eta l'avenir aneia ttipi hura, nini ttipi hura.

−Hori ta bera. Biba seme!

Gauaz hartzen da "camarade, camarade!"

−Zer duk oihuka tenore huntan?

−Errakozu le gouvernement delako horri, amari beraz, l'avenir kaka eman dela, kanbia dezan l'avenir.

284

E28-06 BEHIAK EGARRI

Behin eta erraiten dute lehen ogi joiten hartzen zien, ogi joiteko mekanika, batusan[216] aintzinean. Ta geo atsetan, ibiakoitz atsa zelaik, atsaldetan ogi joitea, atsa joaiten zien eta besta iten, alabainan, eta jan eta edan eta hartzen zena. Eta bihamun goizian, goizean jinak eta etxeat sartiak, behizainak behiekin hartzen lanian, eta behiekin etxea bazuan, eta justu-justu apeza juiten mezaen emaiteat. Eta zapartaka joan zien behiak, egarri baitzien, errekaat eaterat. Eta apezak erran zakon:

−Zu ere izan bazina hoiek bezela egarri, jinen zinen lehentxeo etxeat!

285

E28-07 GANIBETA

Bazen Jutsin, biziki poliki kondatzen zitin ixtorioak. Eta gizon bat behin eta, usaia hala zen, hameikak eta erditaik haat, arrotza heldu zelaik etxeat, etxekanderiak gomitatzen zien arno ta saldaen hartzeat:

Eta hori etzen aperritifaik eta oin bezela, bena,

−Haugi hai eta saldaen hartzeat!

Behin arrotza joan zen etxe bateat, eta etxekanderiak gomitatzen du barneat arno ta saldaen hartzeat, eta ber denboan bazien nausian mutilak e kanpoan zien ondoan eta hoik hiruak gomitatzen tu barneat eta hiruak ai tzien arno ta saldaen hartzen. Lehenik salda ta gero nagusiak:

[216] "Batusa" zer den azaltzen du: Batusa itzulika hasten zen, motorrarekin egin partez, bihiekin ibilarazten zuten errota bat eta gero horrek axa zien, eta hark bolant bat hartzen zin eta hartaik uhal batekin, batusa, la batuse itzulika hasten zien eta ogia espala hartan pasatzen zen hor emeki eta behiek eta hola inguruarazten zuten mekanika eta hori hogeigarren mende hatsar artio hola, zen. Zeren eta bapurrak, motorrak ibiltzen zien edo suiarekin edo esantzarekin. Eta hogoigarren mende hatsarretik hunat, beti hala.

Arrotzak ogi zopak baztertzen zitin, asiettan bazterreat eta salda hartzen eta ogi zopak bazter ezarriz eta nagusiak:

−Hi Maria bena errana dunat, Maria, jadanik mehigoak egin ditzan, nornauk jan ditzan, ogi zopak hain lodiak! Nik errana dut meheigo itia!

−Ba, ganitak etzian mozten lodi beizik etzian iten.

Mutila sahetsetik:

−Ene xingarraen hausteko ganita hartua bazen, hak mehe inen zauzun ba!

286

E28-08 ARTABURUAK

Behin eta gizon zango luze bat ekarri zitien eta artoak eta inak eta txar! Gizona zango luze batzuekin eta txar, eta auzoa aldiz, gizon ttipitto bena buru handi batekin, eta trufatzen zakon:

−Errak hartu al zauzkit, hi bezala zenbat zango tu!

Bertziak:

−Ez ziak inportik, igual zita, hi bezela burutzen badira!

287

E28-10 BONETA BURIAN

Bazen behin, eta beteriner bat heldu da etxea ta (oi aitu dukezie seurrenik) ta ikusten du ete aintzinean sei urteko mottiko bat eta:

−Errak puttik, nun duk aita?

−Aita zerriteian eta zerriai jatea emaiten ari. Bai, ezautuko dukezie gure aita, boneta burian duan hoi duzu aita.

288

E28-12 MEZA HASIA? (Emazteak kontatua)

Oztibarren gertatia. Erretora mezara berant jin. Ta:

−Jaun erretora beranta duzu meza?

−Zer da, meza hasia? –erretorak erran zuzun.

289

E28-14 ÉCHANTILLON

Beste behin bazien gure herrian (hori ere egia da, veridique), apez bat izendatia izan tzen, hemeretzigarren mendian, apez bat izendatia izan tzen, arrunt ttipiñoa, arrunt ñañoa, sotanarekin eta lepoko xuriarekin, arrunt ttipiñoa, bena espiritu xorrotxekoa. Eta hain xuxen, Alsazetaik, Frantzia eskualde hortaik jin tzen, apezpiku bat izan zena izendatua Baionat, nahi zitin egun batez bildu beharrian apezak bere diosesako oro bildu. Eta gero, Jutsiko erretora ere, apez ttipi ttipiño bat, eta aldizka pasatzen ziren apez ttipiño baten aintzinean. Apezpikia harritia:

−C'est ça le Pays Basque?

Mais chez vous en Alsace, les échantillon on les present en grand ou en petit.

290

E28-15 CASTOR

Leno bazen, baziren bi soldado, lagun egonak soldadogoan gaztian elgarrekin. Bat joan zen Pariserat, bere biziaren egiterat, eta bestia aldiz Eskual Herrian batu. Peio Eskual Herrian batu, eta Kaiet aldiz Pariserat joan bere biziaren egiterat. Erretretandik etzuten elgaren berri eta erretreta hartuta jin tzen Pariseko hura, karlosa zen, mutil zahar egona zen. Eta:

−Peio, hau duk hire etxea?

Ta : −Bai, bai

−Alimaleko etxea duk, biziki haundia etxea !

−Bai, bai. Familia handia diat, eta behar diat etxea ere araberakoa egin.

−Zer familia duk?

−Zortzi haur. Soizak erakutsiko daut etxea! Lehen barne hau egin nian, lehen haurra sortu zelaik, haen prima altxatu ginielaik, harendako dirua altxatu nielaik, lehen barne hau egin nian. Bigarren hau egin nian, bigarren haurra sortu zelaik, haren

primarekin, haren diruarekin. Hirugarrena, halaber, hirugarren haurra sortu zelaik, haren primarekin, eta hola, laugarrena, laugarrena sortu zelaik, haren eta bosgarrena berdin, seigarrena, zazpigarrena, zortzigarrena, azken barne hau zortzigarren haurra sortu zelaik egin ginien, haren prima altxatu ginielaik. Gero partitzean erten dako:

−Adio castor!

Ta ze erran nahi, "castor"? Eta hiztegiari behatzen du ta a, b, c, castor. « Animal qui construit la maison avec sa queue ».

291

E28-20 ESPANTUKA

Hiru haur baziren eta batek espantu, bestek espantu eta hirugarrenak espantu.

−Batek:

−Nik bai oseba apez eta boneta kendurik "agur jaun erretora".

−Nik bai oseba apezpiku, eztu txapela hola bi puntaekin goiti ta. Ta geo makila eder hori eskian ta eaztun ederrarekin belaunikatu eta musu emanez "agur jaun apezpikua" erten dako jendeak

−Ba, zer duk hori! Nik badiat oseba biziki lodia, eztuk etxetik ateatzen ere. Ateatzen den bakarretan, jendiak eskiak ezarri goiti ta:

−Jeinko maitia! (harriturik)

292

E28-21 APEZPIKUA IRATZARRARAZTEN

Gero bazen eta apezpiku batek gaua pasatu zian Lourden, ostatu batian, hotel delako batian eta erran tzakon ostatuko nausiari:

−Bihar iatzar nazak bost oenetan. Badiat prediku prestatze eta zeremonia prestatze ta holako badiat, ta badiat biziki lan iteko bihar. Ta iatzar nazak bost oenetan.

Nausia ta mutila, garçon du café delako hura ai zien barnen garbitzen, jendiak oano jeiki aintzin, cendrierak hustuik eta untsa arrastatuik eta hola. Geo bost oenak joitean oroitzen zaio apezpikiai behar ziola iratzarrarazi, ta geo erraten dako garçon du café−ari.

−Ai, halako gamberalat eta borta jozak eta norbaitek errainen baitauk: “qui est là?” (“han nor dago?”)

−C’est le seignor monseignor.

−Zer, apezpikiaren iratzarrarazten nik joain behar?

−Cela le seignor mon garçon. Tronpatu zen.

293

E28-22 APEZAK ETA LATINA

Leno denak iten ziren latinez, meza latinez eta konfirmazionea latinez eta kurutzearen seinalea kopetan inez eta latinez erranez, Maria bazen Maria eta izena erranez. Eta Andrea, Andrea izena eta Marcus [eta latinezko izena eta Alain, aipatzen den izena, latinez Alanus, latinez emaiten]. Eta aldi guziz herriko erretorak hurbiltzen tzien eta erranez latinezko izena, eta bazen haur bat Alain izena zina eta apezpikiari hurbiltzen zaio:

−Alanus. Apezpikiak horri ere bestei bezela konfirmazionia kopetan![217]

294

E28-23 JESUSEN AITA

Gero bazen eta beste konfirmazione ixtorio bat:

Apezak prestatzen ditu haurrak konfirmazioneko. Gero erraten dako, Apezpikiak galdeiten dien gauza hau da:

−Nor zen Jesusen aita lekukoa?

Ta – Joseph hori, Joseph, hori ardura galdeiten dik.

Batek hola eskribitzen du, Joseph, pantaloinen barnealdian hola.

Gero apezpikiak galdeiten dako:

−Zer zien Jesusen aita hazliak? Baakit haren deitura ere?

−Zuk ba(d)akizu San Josephen deiturak zer zien?

[217] Alanus, zera da, ipurdia. L’anus.

−Tergal.

295

E28-25 SENARRA ARRANTZAN

Arrantzatik bizi dira hiru lardenak, arrantzatik. Badira berdin zenbait egunentzako beren itsasuntziekin arrantzan hartzera. Ta arrantzalen bi emaztek usaia dute goiz guziz beren erosketak egitea halako merkatu handi batean. Egun batez, hola solas zerbaiten ematen dute, eta egun batez, bat ohartzen da bestiak batila uspel batzuk tartian eta.

−Zer tuk uspel horiek, nok in dauzkin horiek?

Ta: − Senarrak, senarrak.

−Ah ba! Nik uste nian hire senarra joana zela zortzi egunendako itsasorat!

−Nik e uste ninan!

(Beste norbaitekin atzaman zin)

296

E28-27 KATTALIN

Beste mutiko batek e luzaz atxiki zien Kattalin izena zuen neska batekin. Ta ondarrian neskak itzuli egin zakon eta fuera tipust−tapast beste batekin ezkontzea abiatu zen.

Eta gero joaiten da apezaren etxerat eta:

−Heldu niza jaun erretora!

−Agur Joanes!

−Heldu niz ba ezkontzako paperren egitera!

−Ah! Untsa Joanes untsa. Jar zite. Ta noiz sortia zira? Ta zure izena, ta noiz sortia zira? Ta zure aitak zer du izena? Ta amaen izena zer da?

Ta gero apezak uste baitzuen:

−Zure emaztegeia Kattalin?

Hori entzutian Joanesek, bonetan hatz eginez.

−Putan, hura ukan banu, enintzan honekin ezkonduko ez !

297

E29-05 INTERNETA

Baziren bi anaia, batto laboraria etxean egon zen eta anaia gazteagoa, joan zen, enjeniertu zen, jakintsun.

Gero, eta, gero heldu zen bere haurrekin, familiarekin bakantzatat, oporretat eta urtean aldi bat eta heldu zen ta geokotz emeki-emeki hura ere erretretan sartu zen. Eta gero semea ari zen, lan iten zuen eta arma iteko usina batean, gauza latza. Eta gero egun batez laboraria ere erretretan baitzen, eta eosten zuen bere egun guzitako (nola erraten duzie, kaseta) eta kasetan ikusten du arma egiteko etxe hua hersten zela, hersten zela.

−Oh! −erraten dako andreari, bazkariaren egiten hasi baitzen– eta ze malurra gure Guillenek. Bere seme-alabak ezarriak baititu arma iteko usina hartan, eta hersten dela, gaxo haurra, goseak hilen dako. Axean, telefonoa baitzen etxe guzitan, telefonatzen dako bere anaiari ordian ta:

−Ze berri?

−Berri txarra jakin diat.

−Eta zer?

−Baizik eta arma iteko usina hura hersten dela. Zien gaixo haurrak han lanean ari, ta bai goseak hilen tuk.

−Enaik eta ez dituk goseak hilen, einternet badie.

−Einternet, zer duk hori? Nik eztakit zer den einternet.

−Ba hori duk tresna bat, horrekin dena egiten ahal duk. Nahi badek nini bat ere egin eta motikoa Berlinen eta andria New Yorken izanik, elgar ikusi gabe egiten ahal die ttipi bat.

−Ah!, bon!

−Hori duka! Hori hala dela!

Haik lehengo denborari pentsatzen baitzien:

−Arrainka joan den egun hortan amuak galdu zaizko beharko hargatik!

298

E29-14 ARGIA HILIK

Denbo(r)an eta bo, amodioa ixtorioa da beti, eta oain beno bakano zien kolorezko jendia ikusten, hemen denak gure kolore erdi xuri gira. Eta geo egun batez gertatu zen, andere bat haur minetan gertatu zen, gaixo anderea, ta geo haurra sortu zelarik, delako haurra biziki kolore ilunekoa sortu zen, eta senarra erotu zen, erotu, ikusi zuelaik haurra.

−Zu izan bezalakoa, tronpatu nun, tronpatu nun!

Eta erraiten dako andereak.

−Baina hire falta uk!

−Zeren falta?

−Eta bai, beti amodiua ein nahi duk arg(i)ak hilik ?

Haurra beltxa baitzen.

299

E30-01 BUHAMIAK ETA ARDOA

Bazien gure denboran, baziren buhamiak ibiltzen zien, jende miserabliak etxeik gabeko jendeak hola zebiltzanak kurri, eta ordian biziki eleketari pullitak zien, ongi mintzatzen zuten eskuara, eta eskuara ederra bazuten bena beren gisakoa. Bazuten beste azent bat, bazuten. Ta gero kurri zirelaik oiloa baldin bazan etxetik urrundua, ee, ttak!

Bazuzten ttakur ttipi batzuk ta…ixil-ixila ttak! atzamaten zuzten oiloak eta geo zaia luze batzuekilan bizi zien emazteak eta hen pean gordetzen zuzten oiloak eta hola!

Ordian hortaik bazen erran tzaara eskuaraz, gure aitatxi ta amatxi ta daneri entzun duguna: “Etxetik urruntzen zen oiloak ezien xantza handirik berriz jiteko” eta hola ere: “Bi etxetako txakurra goseak hil”.

Buhame horik ukaiten zuzten berdin haurrak eta gauaren barnian, zeren haur iteko etzian alferrak eh! eiten zuzten haurrak ausarki. Eta geo gure etxean bazuten −nihaur Mehainen sortia barniz−, han eta bazuten ogia iten zen lekia, labia, labetegia.

Eta han ukaiten zuten, aita zenak emaiten zuen eta bizkarrian lasto metatik har eta lasto puska (b)at eta han gaua pasatzen zuten, euria bazen aterbia ere bazuten.

Eta geo bihamo goizian, tan! tan! eta bortan gure aitak suia biztu orduko hantxe arno berotu txorta bat behar zien eta emazteaindako atsolutoki ta librantxan aise ukaiteko. Ta geo gure amatxik in zun, gure amatxik in tzun. Geo, pentsatu zien ze inen (t)zien gizonak:

−Ai(re)!, ai(re)! emazteanat! Aire, aire hire andreaganat! Nik ekarriko diat, eta han hobe eotia hire emazteandako! Bestenaz hik erdia eain baituk bidian !

300

E30-06 ARRATOINAK

Bazen neskatoño bat eta mutikoño bat elgarrekilan jantzan ari izan zien pesta ats batez, ta neskatoa jina zen amatxin etxeat pestetako ta lehen hemen bazen usaia pesta atsetan, atsa hurbildia zen edo arras jina eta nexkatoak beldur ziren berak etxea juteko. Ordian mutiko gazteak behar gintin laundu etxeat nexkatoak.

[−Ze lana!]

[−Ba!]

Hala gertatu zen eta etxe ondora die batea eta mutikoak errten dako nexkatoari:

−Oh! Bazinaki zombat gustukoa zitudan. Zombat iruitzen zatazun maite ukanen zutala zu, ene bizi guzian. Ain zitut eta zure begitartea pollita atxemaiten eta.

Ta neskatoak:

−Nik e, nik e iruitzen zatazut maite ukanen zutudala bizi guzian.

Mutikoak erraten dako:

−Ze plazerra nuken zuekilan ixtant bat ohera juaitia.

−Ba nik e ba −nexkatoak− nik e ba, bena amatxi ez duk lokartzen goizik. Amatxik entzun eiten dik.

−Ba, tronpatuko deu amatxi !

−Nola in behar duk ?

−Eskalerretan nik hartuko haut bixkarrean, eta hola amatxik ez din entzunen urrats bat beizik goiti juiten.

Ba, hala iten dute. Amatxi ixilixila ta. Ba, bano gero sobera uste beno gehio azantza in beitzuten gaixo haurrak. Ta amatxi kanaekilan murrian joiten, beste alderdian beitzen.

Ta:

−Erran Mayi!

−Ze duzu amatxi?

−Zer dira azantz horiek?

−Bo, granerrian[218] seurra garratoinak.

−Bo, haurra, garratoina baldin bada, ez dok garratoin ttipia!

301

E30-07 EZ POLIT, BENA GOXO

Ta behin bazen eta motiko bat, gaixoa inoxenta poxi bat [ta geo horrek errten ziena] bezperetan ibiltzen zen, eta bestian hemen gizonak aitzen zien kiletan[219]. Bakizu zer den kila? Sei kilo zutik ezar, zoinek gehio, jostatzeko. Hirutan hogei iten zen partida, han bazebiltzan. Pundiak kondatzen ziren. Pinta arnoa baliatzen zen, partida bakotx. Ta ordian:

−Hor aitzen zen beti, gaixo mutiko hua aitzen zen kila altxatzen, behar baitzien aldika oro beti txutitu, txutik ezarri kilak oro eta geo kilak xutituta, juiten zen bestek pa(g)atu. Berak ez baitzien sosik bate. Besteek pa(g)atu arnotik edaten emaiten zien dener. Ta finitia zielaik itzulia, berak basoa bete-beteik, ttak! eaten zien. Eta bizpalau baso edan eta heldu zazkon eta euforiak goiti.

Ta neskatoak [ezautu duzu Pierra Loiteikoa] ta eoiten zien neska gazteak banka batean jarririk, ta gero alegia jeuse:

−Untsa, untsa.

[218] Grénier: ganbara
[219] Boloak botatzen.

Baño, Ane Mari Landazaarrekoa, izigarri maite zitien hura, izigarri eta gaixo Ana Mari ta belaunak hurbiltzen zazkotxo.

−Ia, halo, halo Pierra, eztuk pollit hola hartzea.

−Ez pollit, ez, bena goxo.

Aspaldiko legia da.

302

E30-10 DASSANCE ETA BERRO

Beste herri batean e bazien apeza ta bikaria. Ta bikaria Dassance izena zen berea. Eta erretorak aldiz Berro. Eta egun batez samurtzen dira. To! Kexatiak hau kateximа batek ez untsa iten eta besteak edo [nexka bat ahazten][220] ez aski usu kobesatzeat heldu. Ze in behar zuten. Hondarrian apezak err(a)ten dako bikariari:

−Zuk jakiteko zer zien, aski duzu zure izenai lehen letra kentzea. Dassance, lehenbizikoa ken eta Assance (Azantz)

Bikariak erretorari:

−Zuk berdin in zu Jaun Erretora −Berro zuen izena− B ken eta Erro[221].

303

E31-01 BASO ZIKINA

Bazuzun hemen, Bunuze herri ttipi bat da, denboran etzon, orain badira hotelak…, ordian emazte xahar batek iten xitxin igandetan, emaiten bakarra hura zen, ostatu, ostatu, etzin ezautza handirik, emazte xahar bat xutxun eta mezatik landa jende guziak, edo gizonak, ordun etzun emazteik ibiltzen, gizonak juiten xutxun harat eta gero baxuxun buhamea erten dugu guk, ta gero beti akusatiak xitxun ohoinak ziala ta auzo batek galdu zitin zerri bat ta gero ordian zerria galdia ta etzakixin nor zen. Gandarmak ibili xitxun eta jin xitxun ostatuko emazte xaharraren galdeka.

−Zuk hemen igandetan entzuten batitzu jendiak eleka ari ta zerriaren gainean menturaz zerbeit entzun duzu, norbaitek in diela hunek edo horrek edo norbaitek, in dienak.

[220] Ez dut ondo ulertzen hor dioena.
[221] Eroa, tuntuna, alegia.

−Ba, jauna eztut entzun ez.

Gero emazte zaharra bihozduna zen izigarri dena, baso bat arno eskeintzen txi. Ta gero erran ziezun gendarmer, baño bakizu gerdarma xuberutarra zen eta, chefa hura. Erran ziezun:

−Errain duzie ba, baso bat arno.

−Ba, eztugu usaiarik.

−Ba, ba, ba, nik nehor eztut uzten eskaini gabe baso bat arno.

Ordian etxuxun oraiko kontrolaik ez, baso bat ekartzen dixie, arnoan ibilik, arno kolore argia. Hori baño gehio oxke[222] bat hautsirik bazin, puxiño bat hautsia.

Eta gero gendarmak basoan ezartzen dizie bati ta biak elgarri so ta etzuen enbeiaik baso hartarik edan eta biak elgarri so ta azkenian chefak erraten dakoxu bestiari:

−Ba hik edan zak lehenik hik xorta bat.

Ta etxakizun zer egin, basoa ez garbia eta gero ze in zien. Kalkulatu zien gerdarmak:

−Hoitan ere badire bat edo beste abilak −kalkulatu zin mentuaz− oxke hortaik nehork ezdik edaten.

−Hortaik edanen duk oxke hortaik– hartaik erran zin gendarmak

Eta emazte xaharrak erran txakoxun:

−Oh jauna! Untsa ene ber gustia duzu, nik ere beti oske hortaik edaten dut.

304

E32-01 PAZIENTZIA

Enterramendu batian emazte bat nigarrez hipaka ari beti eta hilan gorputzian nigarrez hipaka hipaka ta jaun erretorak erraiten dako:

−Arrazu pazientzia, arrazu pazientzia, arrazu pazientzia –bazterretik iten dako.

−Bai, nahiko niuke harek ni.

[222] Ozka, koska, puskatutako alderdia, alegia.

Pazientzia erraiten baitzakoten karlos bati, han ibiltzen baitzen, ta beti trankil, trankila, lana beti beranta, trankil, trankila beina beti bizi, Pazientzia emana izengoitia.

305

E32-07 DENAK JAKIN

Emazte xahar bat, ehun urte ta medikiak erraten dako.

−Ah, zuk ehun urte baituzu!

−Ba, ba ehun urte.

−Ehun urte ta denak baazkitzu!

−Ez, ez dazkit denak.

−Ze behauzu jakin.

−Ez dakit nola hil behar dutan.

306

E36-01 MUSULMANA

Musulman bat hil zen eta gero badakizu Mahomet dutela bere jinkoa. Ta gero kontent zen otoitzean ari zela bere bizian, seguraz e saristatua izanen zela zeruan. Eta joaiten da taka-taka zerura buruz ta borta joiten du ta.

−Ze nahi duzu?

−Nik Mahomet nahi dut.

−Ah, Jondoni Petri naiz ni. Bizar handi batekin.

−Jondoni Petri?

−Ba, Mohamed gorago da.

Hura kontent Mohamed Jondoni Petri baino gorago.

−Juan behar duzu eskalera horiei goiti.

Eta juaiten da eskalerra horiei goiti eta beste ate bat joiten du. Gizon eder bat, bizar pulit batekin, gazte bat.

−Ze na(hi) (d)uzu?

−Ah, nik Mohamed nahi dut.

−Ni Jesukristo niz. Mohamed gooro da.

−Gooro? Ze Jesukristo beno goora. Ha kontent zen.

−Behauzu gooro joan, zubi horren goiti. Han baduzu beste ate bat.

Beste aterat arribatzen da eta han gizon batek irekitzen dako ta gizon xahar bat.

−Nor zaitut zu?

−Ni naiz...nik xerkatzen dut Mohamed. Ni Mois naiz. Ta ze Mohamed gooro da?

−Ta ba,ba.

Ordian loriatia zen. Gero eta joano goro, gehio zela bestek baino. Ta iristen da ate batera ta han gizon bat dena argitan. Ta ordian eta:

−Nor zitut.

−Ni Jinkoa niz.

−Jinkoa? Ze, Mohamed oono zu beno goro?

−Ez, ez. Nauzu kafe bat hartu, nekatua zira?

Ta bai, bai.

−Mohamed ekakitzu bi kafe.

307

E36-02 SINATZEN JAKIN EZ

Xiberotik asko joaten ziren Pariserat lehenago laneat, badizu lanik ez soberaik, eta bedeau da elizan lanean ari direnak, bakizu eskeko sosa biltzen. Kabera erraiten da hemen, baina bedeau frantsesez erraiten da, suisa eskuaraz erraiten da, suisa ere. Bakizu Vatikanoko soldadoak dira suisak eta suis hortaik heldu da izen hori. Hemen e erraiten dute, orain ez da gehiago, baina lehen errten zen suis. Beraz Parisera asko joan zen. Aiherratik ere baziren joanak lehenago suis hola. Eta gero bazen Xiberutar bat joana Pariserat, eta bere bakantza oporretan etorri zen etxera eta bere aneia ttikia bazuen, lanik ez eta bo esan zakon :

−Zato enekin Pariseat eta izain dugu lana !

Juiten da Pariserat eta ni bezala izain da lana ta apezarekin ikusi zuen eta bai, bai, hartuko dugu. Emain dakot kontratu bat eta beharko duzue kontratua sinatu.

−Ah ez dakit sinatzen !

−Ah, behauzue sosan da kontatzeko, behauzue jakin pixka bat.

−Ah, nik ez dakit izenpetzen, ez dakit sinatzen.

−Etzire izaten ahal ba suis.

Gaizoa joaiten da kalerat eta han aurkitzen du bretoin bat, mutil bat hura bezala hura ere lan bila ere. Hari erraiten dako:

−Nik badut oseba bat ari dena hor Brest-en lanean, portuan eta harek seguruasko zerbait lan aurkituko du, eta juiten dira biak Bresteko porturat ta han emain dakote lana, aurkitzen dute lana untzien kargatzen eta deskargatzen eta bakizu portu hoietan bada lana. Bena beti zuten beren ideia, ikusten zuten untzia joan Ameriketat buruz, eta beren ametsa beti joaitea zen. Eta diru puxkat bildu zuten eta Ameriketat joan ziren eta han artalde batekin joan ziren artzain. Eta gero artzainek egiten zuten diruz pagatzeko orde egiten zuten ardi bat, hamar ardi edo hola emaiten. Eta tropa bat egin zuen mutil horrek. Tropa handi bat eta gero ta handio, ta gero diru pixkat egina eta lur puxka bat erosi, ta lur puxka bat erosten du, bena ez balio handikoa, asko leku txarra. Baina zer zen gertatu. Petrola aurkitu zakoten han leku hartan ta ze in zin diru asko in zuen zen ta ez zuen saldu bena zuen alokatzen eta beti prezioa goiti joan eta izugarrizko dirua bildu zuen. Eta egun batez hogoita hamar urteren buruan edo berriz Xiberura joan zen. Eta gizona txapelarekin eta zigarroarekin joaiten da, nora joaiten da diruduna, ba bankorat. Bankora joaiten da eta hango zuzendariak:

−Eseri, eseri.

Eta jartzen da ta.

−Ta ze ta.

−Nik badut hola dirua ta.

Harrituta gizona hola.

−Bon aski duzu hor sinatzea, izenpetzea.

−Ah! Ez dakit.

−Ez jakin sinatzen. Orduan ze izango zinen zu sinatzen jakin ukan bazizu.

−Suis.

308

E38-02 SAKRAMENDU PIZIAK

Gero nun eta biharretaik ezkon ar beitziren, ta neska joan tzen apezarengana zenbait berri jakiteko.

−Zerbeit behar nuke jakin zureganik fitexko esposatu beharra beiniz.

−Ah, baia?

−Oain errain dauzkitzut ba nik, sakramendu santiak biziki piziak dira gero.

−Biziki piziak, ez al da egun guzian gainean egon?

309

E38-06 TRIBUNALEAN

Neskatikoa biziki gora zen eta mutikoa ttipia, ta neskak mutiko ttipi horren alde in tzin, ta biak konduak zielaik behartua baitzen hartaz, ta konduak in tzuzten ta neska kexu, tribunalera behar tzutela joan, neskak.

Ta ba, ba, akort zela, mutikoak. Ta joaiten dira tribunalera, nexka lehenik, ta mutila noizbait berant. Tribunaleko jendeak enoatiak, mutikoan beha:

−Eztuk jinen hua, eztuk jinen hua.

Ondoren jin beti. Ta tribunalat erten dako:

−Nahi nuke jakin nola in duzin:

Izigarri gora baitzen nexka.

−Nexka bai, ta ni ere apaldu nintzen puxkat.

310

E40-02 EZ OROITU

Joan ziren bi emazte haurra ukan zuen eta haien lagun batek:

−Jo! Ta joan behar ginau eta Gaxuxaren ikustera. Haurra ukan eta lehen bisita, usaia da hori, normal da. Haurra behar diau ikusi, ze haur eder bat omen du!

Joan omen ziren bi emaztekiak eta:

−Atsalde on! Ta:

−Atsalde on! Oh! Ziek hemen ta sar zizte, sar zizte!

Ta bon, xokoletak eta prestatu, ta ofreitu eta xokoleten edaten ari zielaik, batek errten omen dio:

−Eta nun dun eta haur eder hura, xarmanta!

−Bon, oono eztuzie ikusiko, oono eztuzie ikusiko.

Biziki drole atxeman zuten.

−Ez duzie ikusiko? Zer erran nahi din?

Bon segitzen dute beste komersamendu batzuk eta denbora joanki, xokoletak edanak, partitzeko prest. Eta elgarri erraten dute:

−Beno, oano eztiagu ikusia!

Ta erraten dute:

−Errazu, ta oain joan behar diau, haur hura ez dun erakusten ahal, nun dun haur hura!

−Ba ta beha nion nigarrez noiz hasiko den, enun oroitzen nun utzia dutan!

311

E40-08 GEZURRA

Mutiko bat gustatia zen nexkato batez, ta er(ra)ten dako:

−Oh! Ze nexkato plaxenta! Oh! Ze nexkato pullita! Edertasunez betea zira, oh! arraro holako persona errekontra dezaten! −Dena aritu zitzakon, dena felizitazione ta erran ta erran ta finitu zuelarik, erraten zuena neskak er(ra)ten dio:

−Ba, ba, berdin baditake, arrazoin duzu, berdin baditake. Bena, maluruski nik zuretako ezin bertze ezin erran.

Ta gizonak arrapostia emaiten dio:

−Debru ergela, erran zazu ni bezela! Gezurra.

312

E45-13 IXPIXUA

Beste baten in zuten ixpixua bi lagunek, ixpixua edo apostua bi lagunek, nor lehenago lokartu. Ta hasi zen baño zurrungan hasi zen ta errten dio besteari:

−Ni lokartia nauk.

Ta bestiak erraten du:

−Enazakala itzarraraz.

313

E45-14 FERNANDO

Aldi batez bazen emakume bat beatzi seme zituena. Ta auzo herri batetaik joan zen gizon bat etxe horta. Denek Fernando zuten izena. Seme guziek Fernando zuten izena. Eta goizik joan zen etxe hortat. Ta barur haustekoa prestatu zuenean. Fernando! Oihu egin zuen eta braust, beatziak elgarrekin, denak.

Joan ziren gero. Ta askal ordua etorri zenian. Fernando! Ta gauza bera.

Ta bazkal ordua etorri zenean. Fernando! Ta gauza bera. Beatziak hara.

Gizon harek galdatu zion emakumeari:

−Ta bederazka nahi tuzularik nola gaideiten tuzu?

−Abizenetik.

TXISTE GORDINAK

314

E3-06 ERLOJUAK HITZ EGIN

Neskak mutilen ondotik ibiltzen die. Neskek egiten dute lanik handiena maiz. Neska batek mutil polit bat ikusi zun, ta hurbildu ta eskua hartu hola ta:

−Jo, zen muntra edo erlejo polita dezun [Nola erraiten duzue erlojua?]

Ta eskua hola keresatzen zion. Mutikoa arras polita zen. Ta mutikoak erraten dio:

−Kontuz eh! Hitz egiten nau erlojuak, eh!

−Ah bai!

−Bai, hitz egiten nau.

−Ta ze esaten dizu?

−Galtzoinik ez daukazula.

−Baditut!

-Joño, aurreratzen da ordu bat

315

E3-08 EZIN ESERI

Mutil gazte batek, hamazazpi urte:

−Aita, nahi dut ateratu lagunekin.

−Ez. Gaztexegi haiz. Ez oaindik. Datorren urtean.

−Aita. Amak e baia eman nau. Ateatu behar dut

−Eh!

−Aita goizik sartuko naiz. Gauerdi.

−Beno kontuz eh! Gauerdi, eh! Kontuz ni hor izain nuk, eh!

Gauerdi etortzen die. Mutila ez sartu. Eon, eon. Ordu bat. Eza. Azkenean mutila ailatzen da[223].

−Ikusi duk! Ez dituk gehio gauerdi!

−Bo, aita. Baditut barkamenak.

−Zer duk barkamen!

−Maitasuna egin det.

−Ze! Hola ta maitasuna egin duk! Iseri hadi, mutila!

−Kontatuko dizut, bena iseri ez naiz egiten ahal eh!

316

E3-09 HAUR UKAITEN

Emazte batek haur ukaiteko klinikara joaiten da, ta haur ukan zuen, eta bere lagun batek bazituen bi seme ta senarra. Ta igande arratsalde batez.

−Ta joño, ospitalean da, ta bisita bat egin behar dut.

Ta beren bi semeak hartuta joaiten dire bisita egiteat. Ta klinika handia zen. Ta mutil ttikia. Bon, eztia luzaz izain.

Ta aszensorian sartu, ta goiti ta galdu eztia iten! Botoia sakatu ta goiti ta ikusten dute beste emakume bat haur ukaiten ari, haurra sortzen. Medikua ere, hara, hara, hara, oain, oain, oain! Medikuak haurra atera orduko ematen dizkio bi ttapako! Ti-ta! Ta ttikia sortu orduko nigarretan. Ta batek besteari:

−Ikusi duk, mediku tzar hori, nola jo duen!

−Bai, bena ikusi duk nun gordia zen!

317

E3-10 HIRU EMAZTE PUTIAK

Hiru neskak beren bizia egiten baitute maitasunetik, putiak edo. Eta ai zien goiz batez:

−Nere azkeneko tipoa, atzo, nere gustuko eta garagista zuna.

[223] Ailegatzen da

−Zergatik, nolako zen?

−Hemen behatz ondok eta beltzak zitina.

−Nerea tindatzaile zuna? (Teinturier).

−Ta nolaz?

−Behatzen azpian, zuri zuria, dena tinta zina.

−Ta hi, hi, zer?

−Ni, azkenengoa? Laboraria, baserritarra.

−Ta ze sinale zian horrek?

−Beno, lehenik hasi zatan sekoegi zela, gero bustiegi zela, eta gero azkenian esaten garestiegi zela.

318

E4-15 EMAZTEEN ARTEKO KONTUAK

Bazen eta emazte xahar batekilan hizketan ari:

−Oi, nik oano poliki ari nük, astian behin.

−Oi, berritan.

Eta hirügarrenak etzin deus erraten.

−Eta zü?

-Ai, gaixoa, gure Pettiri, ez zaio bate gogortzen, ordian murtxatzen diot.

319

E4-16 BATE ARI ZIZTE?

Lanba kartierra bada hemen, eta küple gazte batek ez zien haurrik eta emazte xahar batek dio:

−Oh! Bate ez zizte ari?

−Eta emaztiak erraten dako: ai gütützü bai, txürrü-txürrü.

−Ah! Bena eztüzüe txürrü-txürrü ai behar, txasta-txasta!

320

E8-09 PIXAMA HORIA

Aitamek nahi zuten mutikoa beti izan zain ziklista handia, ta erran zakoten hola izateko ta hein hortaratzeko badakik behar duk uko ein nesker eta andrer eta denakbizikleta ta pedalatu, bena ez andrekilan, pedalatu bizikletan, eta gero beraz, ikaragarria jalitzen da. Horiz bezti beti, maillot horia ta hoberena ta hoberena ta.

Egun batez egiten du:

−Beti emazteik gabe ta bizia ez duk hain bikaina, ta behar diat emazte ta zera ta bon.

Ta uko iten du beaz bizikletari, ta aitamek errana beti segitu ahoku[224] artio, ta printzipio handitako familia ta. Ta harrapatzen du andregaia ta hain segur ez date penatu, loriaz beti hanpatua baitzen ta beti hoberena ta beti hoberena.

Bena halere esposatu artio ez zuen nahi etzan neska harekin, ez baitzen halaxu aiko mendia ere, eta beti ez zuen etzan nahi. Eta esposa eguneko bazuen eta pixama horia erosia, horia. Ta andrea beaz, hatsean, ta andria ona, eta bestia ez ageri, ez ageri. Heldu zako bulta baten burian bere pixama horiakin ta andriak er(ra)ten dako:

−Kentzen ahal duk hori hori, zernaiz hemen e(z) haiz lehena izain.

321

E11-11 SUPOSITORA

Ainharbeko gizon bat. Sabeleko min batekin züzün eta baduzü merkhatilat, Mauleat.

−Eta farmaziant bat ikhüsi behar düzü.

−Medezian pakatzeat, ya ya ya! Zerbait eman zadak eta!

−Ordin supositora eman zak. Hoik üntsa, fite inen dik zerbait! Eta astartin arrajin arratzaldin nüla izan.

Farmazientak:

−Ordin hobeki hiza?

[224] Pierre Lhanderen hiztegian: AHAKU, ahoku: convoi funèbre. Alegia, "aita-amen esana jarraitu heriotza artio".

Bihamenin emaztik prepatzen zitazük kafoletarekin. Deuse, zero. Eguerditan zoparekin. Deuse, zero. Gaüan olio ta binagrekin. Deuse. Üzkin sartu banü, hobeki zükean menthüz[225]!

322

E13-05 FRONDA

Bazüzün potiko bat, bazizün fonda bat, bakizu zer den? (pour lancer le caillou) harri urthükitzeko. Sakolak bete zitützün eta joan züzün Paueko Bernadotte ta Casenave ta han bitre[226] hausten. Ehün eta bost, ehün eta sei, ehün eta zazpi, bitrak hausten zititzün eta polizia agertzen ziozü. Manotekilan[227] eta ale! Presú!

Bost hilabeten burüan presontegiko direktorrek erraiten diozü, bon ejerki egon zela eta fini ziala zera, libratuko ziala, fonda konfiské ziela, ez ziela hua habo(r)ó ukhenen, bena behar zila erran emploi du temps ze behar zin egin.

−Ah! Eztakit, eztakit.

−Bon, bena potiko ejerra zia, aski dük neskatilatan aitzia.

−Ah, bai, bai [herabe moduan]

−Bon, ordün ze eginen dük. Ezkapatzen bazaik, ze eginen dük?

−Lasterka eta gibeletik jün.

−Bai, bai ta nün?

−Bon, sorüan gainti lasterka.

−Eta gero?

−Oihanian sartzen bada, arragibeletik jünen?

−Bon, eta geo ze eginen dük?

−Gibeletik jün eta geo atzamanen.

−Ah bai ! Eta geo atzaman eta ze eginen dük ?

−Atzaman eta geo lurrian ezarriko dit !

−Ah bai ! Eta geo ze eginen dük?

[225] Menturaz, beharbada.
[226] Vitre, beirak, kristalak.
[227] Esku-bilurrak.

−Geo kulotak elkhiko titzo.

−Ah bon eta geo ze eginen dük?

−Erraiten badeizüt arrapreso ezarriko naizü!

−Ez, ez, ez hait ezarriko!

−Bai, bai.

−Ez, ez hait presü ezaiko.

−Bon ordin ze eginen dük?

−Lürrian ezarriko düt, gero kulotak elkhiko. Bena presü ezarriko...

−Bena ez, erraiten badeit, hitzemaiten...ze eginen dük !

−Külotak elkhiko...

−Eta gero ze, gero ze eginen dük ?

−Külotan plastikan errekhüpe(r)atü, frondaren arraegiteko.

323

E14-01 MAGASIAN SAR

Bazüzün merkhatü bat, kabalik saltzen baitzien Oloan, eta gizon batek süetatzen[228] züzün behi bat, eta zinez mehia züzün, hertsia eta ageri zitizün sahets hezurrak. Eta han pasatzen zombaitek erten diozü :

−Zombatetan saltzen tützü kürküilak?

Eta gizonak behien büztana airatzen dizü eta :

−Sar zite magasian, preziua fixatuik düzü barnian.

324

E21-06 KULOTAK

Pixkat kokina da bena, motiko bat eta nexkato bat baziren adixkide handiak eta neskatoa [gaitzitia zen][229] puxiño bat mentuz, mutikoak nahi zazkon kulotak ikusi. Ta

[228] Souhaiter, nahi izan.
[229] ez dut ondo ulertzen hori ote dioen.

ez zazkon ikusten ahal, eta egun batez iten du neskatoak xokoleta maite zun biziki ta behin xokoleta tablet batekin joaten da

−Ta oain behar duk mahain horren gainea igan.

Ta neskatoa igaiten da. Ta ez dakit ze pasatuko zen ta jausten da ta neskatoa badoa etxea, xokoleta tableta eskuan. Ta aitak erraten dako:

−Nondik duk xokoleta tablet hori?

−Mutiko batek eman daut.

−Ah bon ta zeindako eman daun.

Bai, erran dait mahai gainean igaiteko, ta igain naiz ta xokoleta table bat eman daut.

−Ordin kulotak ikusi dizkit?

−Ez, ez, ez dauzt ikusi ez.

Bon, zenbat egunen burian berriz elgarretaratzen dira, nahi baitzitin motikoak kulotak ikusi ahatik.

−Bon egun emanen dauzkinat bi xokoleta plata, ta kadera ezarri mahai gainean ta haren gainera beharko dun igan.

Igaiten da gogotik ta mutikoak ikusten dau ta bi xokolet platarekin abian da etxera. Ta aitak berriz:

−Nondik tuk xokoleta plata hoik?

−Ba egun motikoak eman daut bigarren xokolet plata.

−Ah bon, zeindako eman daun ba?

−Erran daut oono goro igaiteko ta ni igan niz.

−Eia, egun berean kulotak ikusi dauzkin ba!

−Ez, ez, ez dauzk ikusi ez.

−Ta ze gisa zen?

−Enitien ezarriak!

325

E27-07 GEZURRA ERRAN

(Ernest Alkat-ek berari kontatua)

Joan den mendean edo hola bi apez gazte gertatzen dira Lapurdi aldean.

−Ba untsa hiza?

Ta −Ba, ba.

Ta –Zer da berri?

−Ez dakit zer gertatu zaien azkenin eta. Apezpikutegian izan nuk, eta han beranta bildu eta etxerat arribatu nuk eta atxeman diat han afaria supazterrian bero-beroa, eta afaldu dut eta ohera joan eta ohean harrapatzen diat gelaria lo, biluzirik ene ohean lo.

−Ah, bai?

Eta –Bai! Eta ze…

−Poliki hartu diat besoetan eta bere oherat eraman, han pausatu biziki eztiki eta gainean ezarri ohe estalgiak, ez ledin enfredi.

Eta – Ah, bai, bai.

−Bai, bai. Hik ze eginen huen?

−Hik bezala! Hik bezala! Gezur bat erran.

326

E27-10 MUTILA ETA ETXEKO ALABA

Behin eta ari ziren lanean, kanpoan, senar-emazteak eta mutila, eta alaba etxian gelditu zen. Eta bon, hamaikak entzuten dituzte zeinuan zombatek eta bon hamaikak pasatu eta, hamaikak eta erdi eta bon err(a)ten dako mutilari, nausiak err(a)ten dako:

−Bon, a(b)il etxerat eta Txuta eta Mantxua laxi zak eta kanpoat igor, −behiak, bi behiak esnedunak kanpoat igortzeko−, gu helduren gitzak oren erdi baten buruko eta bazkalduko gitzak gero. Bon, hala-hala mutila joaiten da, eta oren erdi baten burian etxekoak heldu dira etxera eta. Entzuten dute etxerat arribatzian, klank, klank, klank.

Eta barrukitik, behitegitik.

−Jo, ze azantz da hori? Behiak basatu dira ta klank, klank, klank.

[Ez dut lehen erran]. Ari ziren gailuarekin segan, belar-segan eta klak, klak, klak.

Ta –Ze debru da hori?

Eta atea idokitzen du ta, zer zen?

Mutila bere alabaren gainean ari eta pikatzekoa, bakizu, zorroztekoa, zorrozte-harria han zen klank, klank.

327

E28-17 LAUGARREN ADINA

Bortaik gizon zahar bat elkitzen da. Zer dute gogoan jendek?

−Zer erran behar dauku gizon zahar horrek, hori hirugarren adineko gizon batek?

−Hori laugarren adineko gizona da. Bata ala bestia aitu dira gaurko egunian, hirugarren adineko gizona ala laugarren adinekoa?

−Zer dute berezitasunik?

−Biak eharzkortzen dira, baina ez gauza beraren gainean. Hirugarren adineko batek pix in eta ahanzten du brageta itxi. Aldiz, laugarren adineko gizon batek, pix in eta ahanzten du behar dela brageta ireki.

328

E28-18 ELKORRA

Artzain mutil bat elkorra, arrunt elkorra, eztu deus entzuten eta aspaldian mendian zagon bakarrik eta heldu zaio artzain nausia.

−Errak untsa (di)tuka ardiak?

−E?

−Ardiak untsa (di)tukanez?

−A! Zigarreta pipa ekarriko ut eta pipatuko diau ordian!

329

E29-18 ITZALIAN ARITU

Ixtorio honen denboran eta leheno jendeak…mezak eiten zien, eta oain e bai balinba, bezperetan, bereziki bezperetan iten zien. Ta gero ordian, aita bat beti meza bezperetan zabilan eta heldu da, harek goixa gorria maite zuen eta pixkat lenik heldu da ta. Etxen sartzen da ta aditzen tu eta etxe iriko aitzak, aitzak bazien ta, txakurrak xanpa ta xanpa, xanpa ta xanpa. Alaba pollitak baitzitien, errten du alaba bati.

−Bena xakur horrek zer du xanpaka, beti xanpaka.

Bo, hura gorri-gorria zen, ez zuen erran nahi baziela norbait han.

−Bena zer duzu jesto hori, norbait balin bada sarrazazue, sarrazazue!

Ta mutikoa heldu da polliki-polliki ta.

−Jar hadi hor mutikoa, guk bezala afalduko uk !

Bo! Afaiten dute goxoki ta errten dako mutikoari:

−Bena hi ! Zer huen, zer gisaz heldu haiz honat eta :

−Ba, jina nizun ba zuri galdeitea ea Kattalin ukaiten ahal nienez.

−Ah! Kattalin ukaiten ahal duk, bena guk ez iduki guk eguzkian pian ontasunik, doteik idurika.

Ez zekola iduika. Ta beste mottikoa ixil-ixila eoiten da pixkat eta. Ta ez al da untsa? Ta:

−Ba ez dik inporta, iguzkian ez baduk deuse, aiko gaitu itzalakotik. Itzalean aiko dia, itzaleko ontasunarekin.

330

E32-02 MEDIKUAK SUPOSITORRAK EMAN

Medikurat emazte gazte bat joaten da. Ta:

−Dena da min, dena da min. Zangoan min. Ipurdian min ta tripan min. Besoan min. Lepoan min. Burian min.

Ta medikura joana ta:

−Zer gertatzen zauzu?

−Denatarik min hartzen dut. J'ai mal partout.

−Bon, metez vous sur la table.

Ta hasten da burutik beheti.

−Ah, ai!

−Il y a quelque chose de grave?

−Non, non, non, rien.

Estomaka. Ta bon :

Vous allez prende des supositoires. Supositorrak behar tutzu hartu. Papera inen dut.

Ta joaten da paperarekin farmaziara. Badoa etxera. Table gainean bere zakia husten du. Supositorrak eta denak hor. Ta gero hanbestenarekin heldu da senarra, plazako itzulia inik. Heldu da etxerat hua, senarra joaiten da. ganberara alderatzerat, laneko arropak eta zertzen tu, sakolak eta hustu.

Merkatian erosita zituzun briketeko harriak. Briketeko harriak ezarri zutun supositorran ondoan.

Eta emazteari heldu zako. Ah eta behar diat hartu!

Heldu da ganberalat eta hor supositorrak hor.

Errana zakozun medikiari:

−Que-est que c'est ce supositoire. C'est quelque chose comme à fondre dans un verre d'eau.

−Non, non, non, non, on turne dans le derrière et il va fondre lui seule.

Ta gero hartzen tu briketeko harriak, ttipitto baina.

−Vous vendrais me voir dans huit jour. Il faut que je sais l'effet que vous fait.

Joaiten da umorian medikuana.

−Alors ça vous fait du bien ?

−Chaque fois que que je prende ce supositoire, c'est la robe qui me prendre feu.

Uzkar guziez, saiak erretzen zien.

331

E32-04 BEGI BAT BEDEREN

Apezak meza hastean erraiten du. Meza finitzean jinen zirezte, elizaren erditik bi lerrotan. Meza emaiten du eta gero heltzen da komuniatzeko mementoa. Emaztekiak ezker eta gizonak eskuin. Eta gero plantatzen dia komunioneko mementoan emaztekiak hor eta gizona hor, tiki-tiki-tiki abantzatzen ari, abantzatzen ari eta gero. Hainbestenarekilan eta hogoi urteko neskatila gazte bat, gona laburrak eta behaztopatuik eta belauniko erortzen da hor, ipurdia, kulotak xuri-xuriak agerika.

Eta erretora ohartzen da ta:

−Giristino maitek ezeziela horri kasoik in, bi begiek itxutuko zaziete ta.

Ta gizon lauretan hogoiko xaharrak:

−Arrajinkoa! Holako zer ederra izanki eta behar litake begi bat beden irriskatu!

Begi bat tapatzen du eta bestearekin.

332

E37-03 SERORAREN BAINUA

Kar bat jin tzen haur gaztekin, Frantzia erdi hortaik ura etzuten ezagutzen, ta jin tzien Biarritzeko plajat ta serorak erran tzien haurrer:

−Kasu emazie, kasu emazie, etzitela urian sobera sar. Han zangoak busti nahi baldin baduzie, bana ez zangoik sar. Ta hek han gelditzen dira ta serora joan da aintzina urian.

Ta han entzuten dute belaunetaino urian sartua.

−Oh! Zer plazerra, zer plazerra, hemen belaunen bustitzea, Jinkoa barka zazu, otoi!

Joaiten da aintzina eta izterretara artio sartzen urian.

−Oh! Ze plazerra! Otoi otoi Jaungoikoa barkatu, eniz egoiten ahal plazer hau hartu gabe!

Bon joan da aintzina, ta urian hasten da xutik ta klak, ipurdia ere urian trenpa. Berriz txuti ta zerbeit erraten tzin bar, bar, bar. Ta gero neskak erten du:

−Ba, horrek eta gure aita errten dik.

−Ez, eztu Gure Aita erraiten, Agur Maria, Agur Maria.

−Ez, ez da Agur Maria.

Beste bat abiltxoino baitzen neska. Hak erraiten din:

−Bon, bon, jakinen diat ba nik zer erraiten din. Bainoa ondo−ondoa ta entzunen diat. Ta joiten da ta entzuten, jiten da berriz gibeleat gure nexkatoen ikusteat. Ta biak ari:

−Agur Maria zian.

Ta –Ez.

−Ah, ordian gure aita.

Ta –Ez.

−Ta ze er(ra)ten zin ordian.

−Ze erten tzin? Erranen dautziet ba nik.

−Jinkuak defendi arte eman daut jatea, aski dut oain edatea.

333

E38-07 BIZIKLETA PONPA

Behin hola gizon batek bazin emaztea espeantxetan tzin ta norbaitek eta erran zakon:

−Ba, hori behauk hori merian deklaratu, ez merian ez, sekretarian behauk eta in. Zeren eta sosa galtzen duk, behauk eta in deklarazionea.

−Ah bon! Joain nauk, joain nauk ordea.

Sekretarioa jiten da.

−Ta ba omen tuk paperrak eta iteko, emaztea espeantxetan diat eta.

−Ah! Espeantxetan, eta nun duk midikuaren paperra.

−Medikian paperra, eztiat bihiik ere paper. Ina duk bat, espeantxetan duk.

−Hi, hi, hi, ez duk hori hola, behauk medikiaren paperra, eta gabe eztiat iten ahal nik paperrik.

−Ba, ageri eztik eta! Izaitekoa emaiten dik airia o chofajia gero!

−Ba, hau astapitoa, ze uste duk ene tresna bizikleta ponpa bat dela!

334

E40-03 HAUTA ZAK

Hori Parisen gertatia da. Hemen er(ra)ten dugu eskualdunetan er(ra)ten dugu arrabendako buñula, er(ra)ten dugu. Buñul zar hori! Buñula. Izengoiti bat da, buñula. Parisen buñul[230] bat bazebilen trotoir gainean promenan, ta bere goxotasunik hoberenian, ta heldu zaio nexkato gazte bat bizikletian, ta gelditzen zaio buñulen parrean, alturan ta erten dio:

−Hola, arratsalde on!

Ta behatzen dio. Nik eztut ezautzen hau?

−Hola, arratsalde on!

−Oh! Ibilki zara ta oinez gaixoa, zato eta igan zite bizikleta honen gainerat!

−Eh? Bizikletaren gainerat. Zer darasan? Nun nahi du igaintea ni bizikletaren gainerat, nun? Nun?

−Ba, hemen deitzen da, paketak biltzen diren lekuan, porta−bagegean.

−Porta-bagegean?

−Igan hadi porta-bagagean!

−Porta-bagegean? Burutik untsa? Ale, ale, parti hadi, parti hadi!

Berriz e naski, horrelako zerbitxa proposatzen eta, gizona eztuk normal? Hola in, eta gauza hori errefusatzen? Igan hadi bizikleta honen gaineat?

Azkenian e igan zen. Bon, bon, horiek denak hola, dena den, oren bat eta erdi, bi orenen burian, aisa bazabilen bizikleta horren gainian, halako buñul hura, ta poliziak arrastatzen du, ta erraten dio:

−To, bizikleta hori, bizikleta politta duk, e?

−Nori ebatsia (d)uk?

−Ez diat bizikleta ebatsia!

[230] Arabe arrazakoa

−Ah? Nok emana dauk prestuz?

−Nik ez dut bizikleta hau prestuz ukana, bizikleta hau enia duk.

−Ah, ah, hiria uk? Uh, eztekit, bon berehala ikusiko diau. Atea zak eta idantitateko karta.

Kart-idantitatea atea zak, ta artian behatuko diau bizikletai. Leno bizikletak bazuzten plakak izena(r)ekin, jabian izenaekin. Plakai behatzen dakote, ta plakan ixkribatia zen, "Etxegarai". Hartzen dute, dalako gizon haren kart−idantitatea ta leitzen dute "Moustafa".

−Ta, ah, ba, ba, ah, ba, ba, hirea duk bizikleta ba! Ah, ba, ba, xuxen, xuxen! Etxegarai bizikletian duk izena eta kart d'identitatean Moustafa. Bon, oain, arraileriak aparte, nun ebatsia duk bizikletia hori?

−Nik ez dat bizikleta hura ebatsi?

−Nun ebatsia dik bizikleta hori, bestenaz heldu hiz gure autoan, ta erematen iuk komisariat, e? Ez duk hor erremedioik e?

−Nik ez diat bizikleta hau ebatsia! Nauka kondatzia?

−Joan daneko, baik eta nik uste denbora, baiuk eta denbora zerbaiten kondatzeko, oren erdi bat ai gerala kalapitan, baizik eta zeurea dala bizikleta, ta ez dela ebatsia, zeuk kondatzeko, konda zak!

−Hara ni Parisen nindeailekan, trotoirran gainean kurri, nihaun baitara, enian nehori jeuse galdeiten. Eta nexkatoa galditu zatak onduan. Erran datak: „igan hadi bizikleta honen gaineat". Oono, bietan, edo hiruetan igorri diat, igorri erranez: „aide hemendik, nun naun igain bizikletat, zeren gaineat!

−Portugal aldea tira nahi nik, eta. Parti hadi hemendik!

−Badakik eta señor komisario, eta bakizu ta gizonak ahulak gira, ta azkenian erreusitu ta Portugal aldea ta hartu ta ereman nau. Eta eraman nau, "au bois du Bologne". Ta harat arribatu ta arbol bati kontra ezarri du bizikleta. Ta hor kendu, buluzi, buluzgorri jarri zaut, kendu tu arropa guziak eta ni harritia beha hari. Ta buluzi orduko er(ra)ten dat:

−Hare, oai hauta zak.

−Ah ! Ni bizikleta hartu ta partitu.

335

E46-01 ALIANTZAK

Behin eta küple bat phü ezkontzea bazützün, eguna hitzartuik prefosta eta gizona terrible hozpea züzün gizona eta ordin ezteietat juiteko, asten erropak üzten titzü eta geo bestik gainti ezarten. Eta gero meian prefosta jai züzün eta ber egunin elizala juiten. Eta ordin apezak aliantzak eta benedikatzeko galtatzen diozü, aliantzak nün tützin, eta hasten düzü aliantzak ikertzen.

Ue, nihun e atzamaiten, oritu zizün peko pantaluetan zütila. Eta ordin hasten dizü, emaztia kantian zila eta hasten düzü pantaluak jeisten, eraztunen atzamaiteko eta.

−Ze ai zia? erraten diozü emaztik.

−Badakiat bazela egia, bena ez hemen geo!

BESTELAKOAK

HAURRAK LOTSARAZTEKOAK

336

E5-01 AMAK HAURRA SORTU DIN

Amak haurra sortü din
Mailü ükhaldiz eho din
Züzülüpin gorde din

337

E5-02 BEHIN BAZEN MÜNTZERAT[231]

Behin bazen Müntzerat
Haik in zin kakaplat
Lehen lehen mintzazaliatzat
Tto! (ixilik egon behar, hitz egiten duenari)
Tto! Hiretako!

338

E5-03 BAR, BAU

Bar, bau, tau, tau
Jan ezak haur hau

[231] Isilarazteko helburu berdinarekin, idatziz jarri zidan Adrien Iratzokik honako hau (E1): Gu isilarazteko mahainean ginelarik amatsik erraten zuen: *Egun batez gan zen gizon bat baratzerat eta han jan zuen aza ferdea eta egin zuen kaka ferdea. Lehenik mintzatzen denarentzat hura*. Eta guk ttikiak, ixil ixilik jaten ginuen.

HAURREN JOSTAKETARAKO

339

E29-03 KUKURRUKU

−Kukurruku !

−Zer duk oilarra ?

−Burian min

−Zeik in dau?

−Axeriak

−Axeria nun da?

−Gaparpean.

−Ta gaparra nun da?

−Suiak erre.

−Ta ura nun da?

−Idiak edan.

−Edia nun da?

−Alorrean.

−Zer ari da idia?

−Ari da edaten.

−Zer nahi egiteko?

−Artoaren ereiteko.

−Ta artoa zertako da?

−Oiloer emaiteko.

−Ta oiloak zertako dira?

−Arroltza erruteko.

−Ta arroltzak zertako dira?

−Apezai emateko.

−Ta apezak zertako dira?

Arimen salbatzeko.

(Beste bertsio bat)

E45-05 KUKURRUKU

−Kukurruku!
−Zer duk oilarra?
−Buruan min.
−Zeinek egin?
−Axerikok.
−Nun da axeriko?
−Sasipean.
−Nun da sasia?
−Suiak erre.
−Nun da suia?
−Urak itzali.
−Nun da ura?
−Idiak edan.
−Nun da idia
−Alorrian.
−Ze ai da?
−Artoen iten.
−Zendako artoak?
−Oiloendako.
−Zendako oiloak?
−Arroltze iteko.
−Zendako dira arroltzak?
−Apezendako.
−Zendako dira apezak?
−Meza emaiteko
−Zendako dira mezak?
Gure eta mundu guziaren salbatzeko.

340

E45-06 ERI KIKILA

Eri kikila
Haren mutila

Lanpero[232]

Lan petit
Eta zorri hiltzailea

341

E45-07 ERIEN ZEREGINA

Hunek xori bat ekarri
Hunek bipildu
Hunek xaltsatu
Hunek jastatu
Eta tripa handi honek dena jan.

342

E45-02 ZAPATA JOSTEN

(Haurren jostaketak, haurraren hankatxoa hartuta)

Zapata josten josten josten
Zaharrak urratzen, zaharrak urratzen
Iltzeen kankatzen, kankatzen, kankatzen

343

E45-03 ARRE ARRE MANDAKO

Arri arri mandako
Bihar Iruñerako
Etzi Baionarako

[232] Lanpero, lanpa imintzen zelako, eta hau ttikiagoa izanik, lanpa ttikiagoa ezartzen zen.

Handik zer ekarriko?
Zapata ta gerriko
Heik oro norendako
Gure haur ttipiendako
Mattinendako edo Delphinendako...

344

E45-04 EMAN EZ EMAN

(Haurren lotsarazteko, haurra altzoan hartu eta egiten zen)

Eman ez eman
Urak eraman
Laarre gidertu
Otsoak ausiki
Aita zurratu
Ama biratu
Ama txixaarra
krin, kran
Bortara joan
Zerratu
Ta eman ez eman
Kanpoan gelditu

345

E45-08 GATU MIARRAU

Gatu miarrau
Jan behar diat haur hau
Bihar ala gaur
Gaur, gaur, gaur, gaur.

BERTSOAK ETA KANTAK

346

E7-04 SORLEKUA DUT ESKUAL HERRIA

(doinua: Mutil koxkor bat itsuaurreko)

Sorlekua dut Frantziak duen Eskual Herri maitia
Nere aitamek altxatu naute giristinoki haurrian
Hastapeneko urte goxuak emanik heien aldian
Orai hemen naiz Kalifornian, desertu baten erdian
Gau-egun oroz artalde baten alatzen mendi gainian

Aurten lau urte halabeharrez Iratin nintzan agertu
Izar eder bat xarmegarria laster nuen ezagutu
Izarra nitaz eta ni hartaz, aisa ginen agradatu
Beldurrez eta hauta zezaten, ezkontzaz nuen galdatu
Bizi guzikoz enia zela, eman zautan arrapostu

Egin gintuen biek botuak espos lagun izaiteko
Bai eta ere eskuak eman, beti fidel egoiteko
Erraiten zautan sines nezazu, nik etzaitut ahantziko
Lehenago dut nere odola zuregatik isuriko
Ene bihotzan sartia zira, eternitate guziko.

Zorigaitza zen ezinegona ni maitiaren aldian
Hura behar tzen bizi hirian, eta ni mendi gainian
Jiten nintzaion bai ikustera, beti ahal nuenian
Erraztun eder urre bat ere, ezarri nion erian
Hari behatuz kontsola zadien ni falta ninduenian.

Ene biziko oroigarria, joan de Erramu bezperan
Orduan nintzan menditik jautsi maitiaren ikustera
Gauazko zortzi orenetan zen ni harenganat heltzean
Borta xilotik behatu nuen, sartu gabe sukalderat
Jaun gazte baten aldian zagon, goxoki maite fidela

Ixil-ixila sartu nintzan izar eder harenganat
Gintuzun elkar besarkatu eta eman musu bana
Ordu berian ohartu nintzan, nik erosi eraztuna
Jaun gazte horrek zerabilala bere erian emana
Lantz ukaldi bat bezela zautan hartu bihotzian barna

Han nintzen berriz oturuntzian, biharamun eguerditan
Izar hura zen mahainburuan, jaun gazte haren aldian
Ni aldiz gaizua urruntxago, arrotz batzuen erdian
Jan-edan gabe pentsamenduka han nindagon errabian
Bihotzak zaitan panpaka joiten eta ni arra begian.

Afal onduan izar hura ez zen ez nitaz oroitzen
Jaun gazte harekin goxu-goxua bere ganberan sartu zen
Han egonikan aski denbora jaun hori ateratu zen
Ni ere orduan hurbildu nintzan [zer ote zuen esaten][233]
eta galdatu zendako zuen bertze hura preferatzen

Entzun orduko hegaldatu zen ene bi besoen artera
Etzuela ni bezain maiterik elez ene leuntzera
Solas guziek hasbeherapena, zainetan zuen ikara
Bere gaizki lazgarria ez baitzezaken deklara
Azkenian aitortu nuen egiaren aitortzera

Oraino ere erraiten zautan ez dut zu bezain maiterik
Bainan ene gaixtakeriak urruntzen nau zugandik
Zorigaitzian eroria naiz zuri ez fidel egonik
Fruitu baten esperantxan nagozu bertzenganik
Sabel barnian hezur biziak senditzen ditut jadanik.

Oroit zireia eni eginik egun batez juramentu
Etzinuela munduan behar nitaz bertzerik maitatu
Ziniolarik nahiago dut ene odolaz gabetu
Etzira ez gabetu bainan bertzetarik emendatu

[233] Nik erantsia, zati hori falta da.

Nik jakin gabian jostatu zira bainan ederki tronpatu

Infidelak gertatzen dira mundua hasiz geroztik
Evak ere etzuen Jinkoa maitatu oroz gainetik
Sugeak zuen gaizkira bildu fruitua janarazirik
Zu ere bertzez zira fidatu ni maite ninduzularik
Enetzat zinen maite fidela izan ez balitz bertzerik.

Adios beraz ene maitia uzten zaitut sekulakotz
Elgarrekin eman oren goxuez nuzu beti oroituko
Hamalau bertsu hok eman ditut gaztek etsenplu hartzeko
Nesken hitz ederreri ez sobera fidatzeko
Hitzemaiten dut ni enautela bietan tronpatuko.

347

E8-06 URGULUAREN ARBOLA

Bada biziki kantu zahar bat, hura beharba kantatuko (d)ut:

(doinua: mendizaleak aurrera)

Euskalherri ederrian,
Aita-ama onen artian
Haur bakarra naiz etxian
Lai, lararara i

Giristiñoki naute altxatu
Molderik hoberenian
Atxikiz bere menian
Beti erakaspenian
Zuhurtziaren gainian
Laralai lai lai lai lai
Zuhurtziaren gainian

Haur txumea nintzelarik

Ez omen nuen parerik
Maitagarriago zenik
Lai lararara

Baina urguluz ongi koska
nere gogoak emanik
ez bainuen deskantsurik
ez nuen maite lanik
ezta burrasoek erranik
laralailailailailai
ezta burrasoek erranik

Jarri nintzen hanpatua,
Soinekoz aberastua
Ene buruaz hartua
Lailalerala

Altxalilia udan bezala
Noranahi airatua
Maite nuen deskantsua
Pestak eta merkatua
Hori zen ene gostua
Lailaralaleralai
Hori zen ene gostua

Lore banintzan bixtako
Eder jauregi bateko
Aberatsen erronkako
Lailaleralai

Ipurdi faltsuz
Zaia bilduan jarria nintzan orduko
Ezin para kokoriko
Gutiago belauniko
Gisa nindagon tendiko

laralailailailailai
Gisa nindagon tendiko

Aberats bat zen ohartu
Neri begira gelditu
Eta laguner galdatu
Lalaleraraia

Mendi gaineko Maria zauku
Gu bezelaxe beztitu
Nork ezaguturen gaitu
Aberats garela sortu
Zer behar dugu pentsatu
laralailailailailai
Zer behar dugu pentsatu

Besta egunian ernia,
Lan egunian nagia
Ohantzian egoilia
Lalalerala

Amattok oihu eginagatik
Oh! Jeiki hadi Maria
Lo nindagon alegia
Ezin argituz begia
Zer etxe altxagarria
Laralailaiailai
Larala larala lai
Zer etxe altxagarria

Jeiki onduan deskantsuz,
Beti mirail bati buruz,
Burua (biloak) ezin apainduz
Lalaleralai

Gero urratsa ezin ikusiz
Gibela firurikatuz
Gerria mehe tinkatuz
Hatsa ere ezin hartuz,
Beti nindoan mendratuz
Laralalalala
Laralalaralai

Zentzuz erromes bainintzen
Guti nuen ezagutzen
Ogia nundik heldu zen
Lalalerala

Uste bainuen txoria zela
Lumarengatikan biltzen
Guti nuen ezagutzen
Hortaz nintzen engainatzen
Ni idurikorik baitzen
Laralailaiaia
Laraialaiaia
Ni idurikorik baitzen

Noizbait ama abiatu
Behar nintzela sanjatu
Nik ongia gaizki hartu
Lailalerala

Baina aita mintzo denian
Galtzak soinian baititu
Bi hitz ziztan adrezatu
Bortxaz nuen obeditu
Gero etzait urrikitu
Laralailailaila
Laralalaralai
Gero etzait urrikitu

Mendietan zelaietik
Garazin Amikuzetik
Xiberoan Lapurdik
Lailaleralai

Urguluaren arbola zauku
Zabaldu oroz gainetik
Aski handi da engoitik
Pika dezagun ondotik
Betikotz Eskual Herritik
Laralalala
Laralalaralala
Betikotz Eskual Herritik

Urguluaren arbola zaiku
Zabaldu oroz gainetik
Aski handi da engoitik
Pika dezagun ondotik
Betikotz Eskual Herritik

(Lurrerat zohan arbola dauka
Aldaxketan gelditu
Neri hola zaut gertatu
Aitamek naute salbatu
Eskerrak dioztet biurtu
Laralaialaiai)
(horren biak eztaikit)

1870-1880ko kantua

348

E22-09 PELLO IKAZKINA

Jende beharrak ziren Pelo ikazkina, Pelo ikazkina
Eta bere emazte Joxepa Martina

Beren etxola zuten pezoinez egina, pezoinez egina
Eta janari hotza, talo ta xardina

Neguko arrats batez senar-emazteak senar-emazteak
Nakaiztorik zaduzkan xardina jateak
Gu beti mixerian, asean bertzeak asean bertzeak
Ez da xuxen zioten holako legea

Sorgin bat sartzen zaie leihotik barnera leihotik barnera
−Heldu naiz hiru gauzen zuen eskaintzera
Hiru gauz hoietarik hauta bat bedera hauta bat bedera
Nahi den bezain handia deus bezain sobera

Pelo oihuz hasten da supazter zokotik supazter zokotik
−Ai nik tripot bat banu jan niro gogotik!
Tripot bat erortzen da paum! ziminiatik paum! ziminiatik
Jan on bat egin dezan Pelok oraikotik

Martinak senarrari ai zer Pelo haize! Ai zer Pelo haize!
Ezakina zerbait hoberik galdetzen
Balinba tripot hori dena den hoi gizen
Sudurretik dilindan balitzaik gelditzen

Martinak hitz horiek atera orduko atera orduko
Pelorik sudurrera tripota doako
Pelo oihuz hasten da debru ta karajo debru ta karajo
Sudurrarekin baizik ez du aterako

Haur guziak ondotik zakurra saingaka zakurra saingaka
Lau zehe sudur hori nola ez ahalka
Etxean ere ezin andrea balaka andrea balaka
Ez diro ixilaraz hark haren kalaka

Azkenekoz Pelori gogora zaio egin gogora zaio egin
Hirugarren galderik ez duela egin

Balinba tripot hori dio suntsi dadin dio suntsi dadin
Tripota suntsitzen da orain du atsegin

Alegia hortarik hau da agertzen dena hau da agertzen dena
Askoren gutizia ontasuna dena
Ukan ez dezakegu haundien fortuna haundien fortuna
Dugun bederen goza guti den duguna

349

E22-10 IÑAKI, MARIA TEREXA ETA TRANSISTORRA (1960 BUELTAKOAK)

Ferietarik etxerakoan motozikletan joaki
Mari Teresa eni loturik ekartzen nuen goxoki
Garondoari ufa ufaka ari zitzautan eztiki
Noizean behin erraiten zuen zoin ona ziren Iñaki

Herrira gabe arrats apala erortzen ari zelarik
Motozikleta gelditu dute bi hitz aipatu beharrik
Mari Terexa nik maite zaitut aspaldi aspaldidanik
Harek herabez errepostia Iñaki zaude ixilik

Baina neskatxa etzen hori esan hitz egin zaikenarekin
Jauna lekuko maite nuela bietan nion hitz egin
Present bat berme nahi zuenez, ere bai nion galdegin
Muxu baten truk transistoño bat Iñaki nuke atsegin

Transistoño hura erosi nion, ahal nezaken begiko
Musu batean onartu zautan ekarri nion orduko
Hura ibiliz eta adituz nitaz zela oroituko
Hundar goiz batez elgarrekilan lanpapean ezkontzeko

Xantxienean etzen ixiltzen transistor hura goiz−arrats
Mari Terexak hura gaberik etzazken egin bi urrats
Kantu heieri emana zagon gogo bihotz botz eta hats

Nok asma noizbait transistor horrek eni andregaia ebats

Kantore hitz bat arras maizegi hartan baitzuen aditu
Oui mefiez vous car l'amour est fou, Il prometait puis rien de tout
Mari Terexa durduzatu zen, trixtatu eta eritu
Iluntxe batez transistor hura atean nuen kausitu

Letra batekin pausatu zautan alazean transistorra
Gaixo Iñaki nitan ez konda biak enganatu gira
Bihotz guzia desegina dut nausitu zaio kedarra
Azken orduan konprenitu dut amodioen gezurra

Bada munduan gauza eierrik baina nor fida hoieri
Etxeragino sartzen dauzkute zorion eta txarkeri
Eni gehiago ez otoi aipa radio transistor hori
Behin betikoz egin baitauzkit bihoz barnean bortz zauri

Jean Pierre Irachet apezak eginak, Landesetan egon zen, *Herria* aldizkarian idazten zuen.

350

E29-02 ARTOXURITZETAKO KANTA

Artatxuriketa joaiten gira etxerat, joaiten gira etxerat eta joaiten gira oherat.
Sarri jinen zaio, Kattalin Etxe-xuri zatoz niganat,
zatoz niganat eta bi potten emaiterat, bi besuen arterat
tralaralalai, lalai

351

E40-01 ARTOXURITZETAKO KANTUA
(errespetuzkoa)

Larre gorrian ipar aldian amodiotan urtsua
Mutiko gazte adin galanta Fermin presentekoa
Horri hor den emanen zaio bera den bezalakua
Bera on eta hobeago luke Mariana itsasondokoa

(lagun arteko irringarria)

Kikilin eta florian eder, florian eder geroa
Xoxoa galdu nik hura banu, ederretan nuke gogoa
Konpainian mutiko gaztea, Xalbat presentekoa
Xalbatek ederki, Josefinak hobeki
Horiek horiek eremanen dute bizia ederki
Etxe egin berria, ganbara leiho garbia
Bortan klinka sartu eta zer besarkaaldia
Xalbat kontent zirea?

ERANSKINAK

SAILKAPEN TAULA

ZENBAKIA	KONTAKIZUNA	IZENBURUA	DESKRIBAPENA	BALIOKIDEAK eta OHARRAK	SAILKAPENA
149.	E1-01	Jondoni Petri eta Jesukristo	Jondoni Petri eta Jesukristo ostatu bila dabiltza. Etxe batean abegitsu hartzen dituzte. Ordainetan urre pila ematen diete. Auzokoek hori jakitean, beraiek ere hartuko dituztela etxean. Dirua kontatzen pasako zutela gaua eta lehenbizi pixa egin behar zutela. Dirua nahi eta gau osoa pixa egiten bukatu.	Barbier: Ixtorio-mixterio	Errealista: erlijioarekin lotuak IKUS: E22-01
48.	E1-02	Sosdun tronpatua	Kanpaina gizon bat zen sosduna eta beste kanpaina gizon batek nahi zuen baserri bat erosi baina dirurik ez zuen. Dirua eskatzen dio, berriz turnatzekotan. Esaten dio sosa turnatzeko joateko bere etxera eta han dago aitzur batekin. Urrea ateratzen zuelakoan. Hurrengoan bi asto bazituela eta horiek kolpe guziz bazutela. Bestiak artaldea erosi zuela, eta itsas bazterrean ziren eta ardiak itsasoan. Kupelan sartuta itzuli bat egiten uzten dio eta aberatsa itsasoan ito.	Aarne-Thompson Unibos. Le paysan pauvre et le paysan riche (AT 1535) Tipo 1539 "El villano astuto" Chevalier *Cuentos folkloricos españoles del Siglo de Oro.*	Errealista: tentelak-argiak

186.	E1-03	Deabruaren adina	Deabrua larrez larre ibiltzen zen eta baserritarrei galderak egiten zizkien. Hartzen du baserritar bat eta hiru galdera egingo zizkiola eta erantzuna bilatu behar zuela. Lehen biak ez ditu asmatzen. ´Salbatzeko deabruaren adina asmatu behar". Etxera joaten da beldurrez aidean eta emazteak oiloa lumatu eta lumak kolatzen ditu gorputzean. Iztar koloka jarri eta burua sartzen du hanka tartetik. Laurogeita hamazazpi urte baditut eta sekula ez dut holakorik ikusi! Salbatzen da.	Webster	Ipuin miresgarria
49.	E1-04	Zordun abila	Gizon aberats bazen eta denak "Abila" deitzen zuten. Horiekin behiak erosi. Handik hilabete batzuetara oraindik sosa turnatzeko zegoen. Goiz mezan lagun batek esaten dio Antton, sosa prestatu ziona akabailan dela. Bisitan joaten zaio kobratzeko asmoz: -Enauk ezautzen, Abila nauk! -Behartuko zaik!	Ikus Timoneda Sobremesa, I,21. (Chevalier) "El acreedor dormido".	Errealista: tentelak-argiak
181.	E1-05	Sarako zubia	Bortz urte eman zuten Saran zubia egiten, eta izena eman zioten Astie. Hortako zuk erraiten nauzula, orain: gaur presatua naiz, eman fite. Aski duk Saran pasatzea, astia hartzera!		Leienda. Askotarikoak.
125.	E1-06	Gorra eta medikua	Gizon bat aziendak edanarazten ari putzu batean. Medikua dator patarra goiti. Ez zuen nahi medikuak jakitea ez zuela entzuten. Pentsatzen du: hau galdetzen badit, hau erantzungo diot. Galderak ez datoz bat berak pentsatutakoarekin.	Aarne Thompson 1698 Camarena 247 "El labrador se hace el sordo"	Errealista: akats fisikoak
50.	E1-07	Elgar	Haur bat etxean geratzen da bakarrik gurasoak "elgarri" tripak ateratzera joaten direnean.	Ikus E29-07	Errealista: tentelak/argiak

73.	E2-01	Egun on	Apez batek bazuen bettoin bat. Beste gizon zahar batek bi bazituen ta behiak elkarrekin nahasten ziren. Apezak nahi zituen behiak bildu beretzako. Apustua egiten dute. Zeinek esan lehenik "Egun on". Gizon zaharrak zurubi bat jartzen du apaizaren leihora eta han gelariarekin atzematen du jolasean. Apaizak leihoa irekitzen du ta gizon zaharra han da. –Aspaldi al zaude hor? –Aita Saindua Erromako zubian sartzen ari zela.	Ikus: E21-04 eta E22-07 Zakila: aita saindua. Alua: Erroma Maitasuna egin: xixkun egin	Errealista: gordina sexua
74.	E2-02	Apezaren froga	Apezak neska haurdun utzi, esposarazi egiten du haurra sei hilabeteren buruan sortu. Senarrak sei hilabete haurrik ez zela sortzen dio. Apezak emazteari lagunduko diola esan. Senarra arrantzan aritzen da amuarrainak ekartzen dizkio apezari. Badira seikoak, zazpikoak. Hori tresnak iten du. Apaizak ateratzen du berea. Hau da bederatzi hilabetekoa.	Zakila: arrantza hari tittar bat	Errealista: gordina sexua
1.	E2-03	Haurra katexima ikasten	Apezak mutikoa jarri katexima ikasten. Erran ezazu munduan zer diren hiru zozo: belea, ahuntza, apeza. Ahuntzak sasiari heltzen dio belarra edukita. Beleak ardia ikusten duenean, karrakaka hasi eta putreak ohartarazten dituela, lana egiten diela. Apeza, norbait hiltzen delarik jendea nigarrez, apeza orroz kantuz.	Ikus Poggio 230. "De qué modo se confunde a un predicador que grita mucho"	Errealista: apezena

75.	E2-04	Artzaina ostatu bila	Artzaina menditik jaitsi nekatuta eta ostatua galdegiten du. Bi ohe zituzten ta ezartzen dute Maddi alabarekin. Pixka bat berotzeko ondo, baina berotzearekin pixka bat ernatu zen. Biharamonean joan egiten da. Amak galdetzen dio zer aritu ziren. –Ez balu pixa iteko zuloa bilatu, tripak aterako zizkan.	Zakila: akerrak adarra bezalakoa Maitasuna egin: kitxin katxaketan.	Errealista: gordina sexua
190.	E3-01	Ene buruarekin hizketan	Ezponda eta bere lehengusua.- Inkietatzen hasia nauk. Hoi eztuk okerra! Hobe duk bakarrik aitzea, ulertzen ez duen batekin baño!		Arrazoina/Aterialdia
191.	E3-02	Ardo sakratua	Ezponda eta Xanpun Lekorneko elizan ardoa eta apezak: -ene ardo sakratua. –Ezponda eta biok masakratua.		Arrazoina/Aterialdia
192.	E3-03	Xalbadorren gertakaria	Euria egin zezan eskatuz prozesioan doaz. Aldapa batean apaizak ez kantatzeko dio. Astoan doan batek berak kantatuko lukeela, baino meritu gutxiago duela. -Nola meritu guttiago, biga etxe beretik helduta!		Arrazoina/Aterialdia
193.	E3-04	Buruz behera	Egun batean zilo handi batean aita sartu. Eta semeak amari esaten dio. Amak erantzun ez dela lehen aldia. Baino buruz behera da, eh!		Arrazoina/Aterialdia
76.	E3-05	Taula erdian	Apeza eta gelaria. Zer egiten duzu inketatzen zarenetan. Itzuli bat egin eta ohera berriz. Eta biak inkietatzen bazerete? Taula kendu.	Alfredo Asiain, Chevalier Ikus E8-18 Ganbera bakarra	Errealista: gordina sexua

314.	E3-06	Erlojuak hitz egin	Neska batek mutilarekin ligatu nahi du. Eskutik heldu eta mutila dio erlojuak hitz egiten duela. Galtzoinik ez duzula dio. Ordu bete aurreratuta dago.		Txistea (gordina)
114.	E3-07	Ametsak	Ametsak kontatzen dizkiote batak besteari: Aberatsa zela, neska batekin borrokan ai zela. Aberastasun eta horiek denak gezurrak, bena kaka egia.	Neska batekin borrokan aritu. Ikus Juan de Arguijo Cuentos 448	Errealista: gordina eskatologikoa
315.	E3-08	Ezin eseri	Mutil gaztea ez da gauerdirako iritsi aitari baimena eskatu eta gero. Iristean, barkamendua duela dio. Maitasuna egin duela. Aitak esertzeko dio eta kontatzeko. Kontatuko dizut, baina eseri enaiz egiten ahal.		Txistea (gordina)
316.	E3-09	Haur ukaiten	Ama umea ukaiten: haurrak galduta ospitalean. Medikuak jo du baina merezi zuen ikusi duzu nun zer gordeta		Txistea (gordina)
317.	E3-10	Hiru emazte putiak	Hiru emazte putiak bezperan norekin egon diren kontatzen elkarri. Batek garagista. Bestean tindatzailea. Nirea laboraria, lehenik hasi zetan lehorregi zela, gero bustiegi, ta gero garestiegi.		Txistea (gordina)
227.	E3-11	Gizonaren hortzak	Gizona ohean emaztearen zain. Emaztea hortzak garbitzen ari zela. Gizonan hortzak ere egiten ditiat!		Txistea
228.	E3-12	Bista ona	Emazteak zahar ikusten du bere burua ispiluaren aurrean, eta senarrari eskatu zerbait ona esateko: bista ona duk!		Txistea

77.	E4-01	Behia jeizten	Laborari etxekanderiak baizik ez zuen behia jeizten ahal. Eta mutila gaitzitua zen. Kotak altxa eta behiak milikatu bitartean geldirik. Mutila borta atzetik ikusi eta sartu egiten dio. Mihia nahi baduk bena ez adarra!		Errealista: gordina sexua
2.	E4-02	Konfesioa	Apezak konfesatzen zuen. Eta emazteek esaten senarra tronpatu dut behin bitan...Apezak ez nahi hori entzun eta esaten die esateko izan direla urketan eta iturri ondoan erori direla. Behin apez gazte bat etortzen eta merari esaten dio iturria konpondu behar duela. Merak irri egin eta jaun mera zure emaztea hiru aldiz erori da.	Senarra tronpatu: urketan izan direla esan. El cura y el alcalde Martín Criado El cura bribón de los cuentos de tradición oral Ikus E8-05 Konfesioa	Errealista: apezena
3.	E4-03	Aphez tronpatüa	Apezarekin ondo konpontzen ez den bat eta laguna Ameriketatik dotea ukan dutela eta nola eman ez dakitela. Apaizak afaltzera gonbidatzen ditu. Apezari afaria irabazi eta dotea emango ziolakoan tronpatzen du, diru dena bezperetan jarriko dutelako eta bezperak ez dira ordaintzen.	Ikus E10-05 Aphez tronpatua (II) Poggio	Errealista: apezena
194.	E4-04	Azken nahia	Herrietan misioneak ziren, jendea errekonbertiarazteko. Ta gaur hartan gaia zuten zerua. Etzia zelian sartu nahi? Bai, bena ez oano.		Ateraldia/Arrazoina
195.	E4-05	Jaio berriaren negarra	Haurra jaio bitartean senarra kanpoan da. Jaiotakoan laboraria dela esaten diote. Zergatik hori? Azkarra da eta nigarrez hasi da arrunt laborariak bezala.		Ateraldia/Arrazoina

148.	E4-06	Haur beltza	Gizon baten emazteak haurra izan behar du. Ospitalera joan baina behia ertzen ari zela abisua ematen diote. Itzultzen denean ospitalera andreak haur beltza izan duela esaten diote. Amari kontatzen zer esan dion andreak: batere esnerik ez zuela eta emazte beltx batek titia eman eta azala beltz jarri zaiola. Amak erantzuten: nik ere bate esneik ez nuen, eta behian esnea eman nian, eta orain adarrak pusatzen hasi.		Errealista: senar-emazteei buruzkoa
196.	E4-07	Gezur bat	Gizon bai emazte bat lausengatzen hasi. Emazteak berak ezin duela horrelakorik esan. Ta gizonak: - ez duzu behar, nik bezela, gezur bat erran ezazu.		Ateraldia/Arrazoina
115.	E4-08	Diagnostikoa	Bi medikuk ez dakite zer duen, batak erreumatisma duela, besteak ziatika duela. Besteak: kakalarria.	Ikus E12-06	Errealista: gordinak eskatologikoak
116.	E4-09	Ezkonberria	Bi emazte hizketan. Senarrak ez duela pantaloipekorik erabiltzen. Batzuk erosten dizkio. Senarrak jantzi eta kabaleak egitera joaten da. Kakalarria sartu. Eta han pantalonak apaltzen ditu. Gero lurrera begiratu ta deus belar maili gorriak ikusten nonahi. Galtzak igo ta a zer beroa!		Errealista: gordina eskatologikoa
78.	E4-10	Ezkonberriaren jana	Ezkonberria apezari:Barda bost arrain jan tit. – Hori ez da erraiten! Beste egun batean: Barda sei arrain jan tit, hain tzen hun zartagina lekatu dit!	Larrua jo: arraina jan. Zartagina lekatu? Emaztearen alua lekatu?	Errealista: gordina sexua

79.	E4-11	Gizon tronpatüak	Emazteak gizona tronpatzeagatik apaizak penitentziatako 15 herri oinez egin. Beste emazteak etxera doala esaten: Zertako? Bizikletan txerka. Gero berriz elkar ikusten, beste andreak eskua beneditian barna, behar zuelako eskua xahatu. Txirrinduak doanak: uh! aisa onean ein dun konfesa, ipurziloa beharko dut ezarri barnen.		Errealista: gordina sexua
197.	E4-12	Buhamiak	Buhamien ixtorioa: Maulen afaldu ondoren, lasterketa egiten dute ez afaria pagatzeko.		Arrazoina/ateraldia
4.	E4-13	Hiru aphez	Hiru apez ehortzetan: gaztea, zaharxeago eta zaharra: gazteak, hau badugu. Zaharrak, beste bat baldin bagunu! Eta oso zaharrak: nihauk ez behar balin bagunu!	Hitz jokoak	Errealista: apezena
198.	E4-14	Makinona	Makinonari bi behi saldu nahi gizon batek: hau behi ederra duk. Eta bestiandako ez duk ezer erraiten!: hau bistan da ederra dela!		Ateraldia/Arrazoina
318.	E4-15	Emazteen arteko kontuak	Hiru emazte: Batak astean behin egiten duela. Besteak bitan. Hirugarrenak ez du ezer esaten. Pettiri etzaio batere gogortzen, orduan murtxatzen diot.		Txistea (gordina)
319.	E4-16	Bate ari zizte?	Emazte xahar batek kouple gazte bati: Ezin zuten haurrik ukan eta. Bate ari zizte! Eztuzue txurru-txurru ai behar, txasta-txasta baizik.	Larrua jo: Txurru-txurru aritu Txasta-txasta aritu	Txistea (gordina)

5.	E4-17	Xalgia ments	Adorazionean apezak elkartzen ziren. Batek bazekien apeza gelariarekin etzaten zela. Xalgia apezaren ohean gordetzen du. Gorde zuen apezak berak bazekiela non zen. Ohean bilatzen du. Ez zuela beraz apezak bere ohean lo egiten, gelariarekin baino.	Ikus E11-05 E25-19	Errealista: apezena
117.	E4-18	Apezkupiari gomita	Apezkupiak Santa Grazira joan behar zuela eta komitatia izigarri moderna duzue!	*(Ez dago osorik)* Ikus: E24-03, E31-03, E22-03	Errealista: gordina eskatologikoa
80.	E4-19	Gormanta	Apezkupia Ligira jin eta erriza lazgarri maite du! Eritu. Medeziak telefonoz esaten behar zaiola sabela frotatu. Medeziari esan gero, oso ona dela erremedioa. Lehenik sabela, gero sabelpean eta bulta baten buruan esnea joan zaio!.	Ikus E17-05 Poggio 195 Del Fraile que conoció y se tiró a comadre con zorrería y malicia.	Errealista: gordina sexua
336.	E5-01	Amak haurra sortu din	Haurren lotsarazteko		Haur jolasa
337.	E5-02	Behin bazen Muntzerat	Azken mintzatzailearentzat kakaplat.		Haur jolasa
338.	E5-03	Bar, bau	Haurren lotsarazteko		Haur jolasa
170.	E5-04	Herentsügia	Herentsugea		Leienda
164.	E6-01	Laminak eta kukurrukua (III)	Laminak ilea orrazten aritzen ziren eta gizonak joaten zirenean ikustera anitz larrutzen ziren. Ligin zubia egin behar zuten gaiaz, amaitzear zegoela kukurrukua entzun eta amaitu gabe geratu zen.	Berak "mitoa" izendatzen du.	Leienda

171.	E6-02	Basajaun ixtorioak	Gaiztakeriak egiten zituztenean basajauna joan zela esaten zen. Basajaun erreka deitzen den lekutik ilunian neskak ez ziren pasatzen basajauna agertuko zen beldur.	Berak "mitoa" izendatzen du.	Leienda
6.	E6-03	Katexima galdetzen	Nola deitzen da Jainko unaren ama? Nola deitzen da Jesus salatu zuen apostolua? Nuiz hil da Jainkoa? Ah! Ez nekien eri zenez ere.		Errealista: apezena
7.	E6-04	Khia den lekhian süa bada	Apezak mutilei: Beti gutan da Jainkoa! Ah, hori jakin ez. Eta kea den lekuan sua bada. Gure etxian bada goztapua, eta khia bada, bena süik eztüt iküsten.		Errealista: apezena
118.	E6-05	Galtzoinak pantaloipean	Merkatura doaz eta kaka egiteko gelditu. Batak bi pantaloin ditula ikusita, besteak ere erostea erabakitzen. Hurrengo batean gogoa sartu eta bi pantaloinak jaistea ahaztu.		Errealista: gordina eskatologikoa
119.	E7-01	Putzaren barkamendua	Arnegiko apezak eta Luzaidekoak ez zuten sobera elkar maite. Emazte batek beste gauza batzuen artean kofesatzen du putza bota duela elizan. Arnegiko apezak paper bat egiten Luzaidekoari horren abtsoluzionea hanemateko. Luzaidekoak bertso bat ematen dio bueltan Arnegikoari idatzita. Sarrakok ipurditik hire sudur haundi hori.	Bertso batekin amaitzen da Ikus: E17-01	Errealista gordina: eskatologikoa

229.	E7-02	Mirailen egilea	Soldadutzan elkar ezagututako bi lagun elkartzen dira zahartzaroan. Bata miraila egilea zen eta besteak ez jakin zer zen hori. Oparitzen dio mirail bat. Etxera eraman eta ikusten baitzuen bere aita zena joaiten zen ganberala. Behin emazteak hartu eta: Zer da gure gizon zozo hori, emazte itsusi hunen ikustera jiten dela!		Txistea
81.	E7-03	Neska puntxela bila	Gizon batek nahi zuen neska puntxela bat. Behin Baionan artzain zen neska bat aurkitu zinez itsusia! Beren lan egiten hasi zirelarik: -Nauzia ipurdia pixkat altxatzia? Zenbaitek hala nahi dute.		Errealista: gordina sexua
346.	E7-04	Sorlekua dut Eskual Herria	Beste gizon batekin esperantzetan geratutako emakumea.	Bertsoak: Infidelitatea	Bestelakoak: Bertsoak
82.	E8-01	Emaztea eta apeza	Emaztea apaizarekin zegola harrapatzen du gizonak: -Otetik, jauna, otetik! Gizonak ezpeitu zapetik!	Errimarekin amaitzen da Ikus Rodriguez Pastor. Unas notas sobre el folklore obsceno	Errealista: gordina sexua
8.	E8-02	Emaztea eta maitalea	Pamplonako merkatutik bueltan emaztea maitalearekin harrapatu eta hiltzen du. Apaizak beti bezela sermoia: sekula okerragoa izan zitekeen. Eta hori? bezperan etorri balitz nere tourra izango zan.		Errealista: apezena
9.	E8-03	Botoila	Apezak mezatik botoila kentzen dutela daki. Beretterrari nork egiten duen begiratzeko esan, eta emazte bat zela ikusten du. Hurrengoan kaliza ahora hartzen baitzen botoila jartzen ahoan. –Ezin diot irets jauna! Ezta nik ere!		Errealista: apezena

120.	E8-04	Xaguak elizan	Apezak ikusten ditu bi beretterrak irriz, xaguak. Jakizue heldu den igandeko zuloa tapatua izanen dela.	Ikus E29-12 Zuloa tapatua	Errealista: gordina eskatologikoa
2.	E8-05	Konfesioa (II)	Apeza aldatzen dute: iturrian lerratu da, merari esan bera emaztea ere bai.	Ikus E4-02 Konfesioa	Errealista: apezena
347.	E8-06	Urguluaren arbola	Neska alferra aberats soinekoz jantzia. Urguluz betea zen aitak zentzatu zuen arte.	Bertsotan. Esapideak: -Zuhurtziaren gainean atxiki -Txoria lumarengatikan biltzen dela uste izan. -galtzak soinean izan	Bestelakoak: bertsoak
83.	E8-07	Apezaren agindua	Apezak mezetan esaten du gizonez kanpo ibilki diren emazteak joateko. Emazte xahar batek ondo entzuten ez eta ondoko andreari galdetzen dio zer esan duen: -bonbonak emango dizkiola joaten denari. Apezak andre xaharra ikustean, bera ezeztz, ez joateko: -hortzik ez izanik ere murtxatzen ahal dit!		Errealista: gordina sexua
230.	E8-08	Bazkaria partekatu	Gizona eta andrea ostatu batera: entrekosta ta zopa eskatzen dituzten baina ordena desberdinean. Hortzak trukatu.		Txistea
320.	E8-09	Pixama horia	Txikitatik ziklista izateko hezi duten mutila azkenean ezkontzen da. Ezkon gauean pixama horia jantzi: kentzen ahal duk hori, hemen ez haiz lehena izanen.		Txistea (Gordina)

132.	E8-10	Ohazpikoa satorrak uzkailia	Gizon batek kontatzen du, hau hirugarren emaztea duela, beste biak hil egin zaizkiolako. Eta honi kasu ematen diola. Beste batek esan: ohazpikoa satorrak uzkailia ikusi duela, ganberako leihotik begiratzean.	Hitz jokoa: adarrak jarri esateko: ohazpikoa satorrak uzkailia.	Errealista: senar-emazteen artekoak
133.	E8-11	Arrautzak	Emazte batek bakantzetara joan nahi ahizparekin. Ohe-mahaian bakoitzak bere gauzak uzten zituen. Behin gizonak emaztearena begiratzen du ta bi arrautza eta ehun mila libera topatzen ditu. Emazteak haserre esan: arrautza bat ematen didate tronpatzen hauten bakoitzean. Dozena bat iten nian bakoitzean saldu egiten nian.		Errealista:senar-emazteen artekoak
84.	E8-12	Gora eta behera	Gizon bati ez zitzaion zutitzen, eta gizon batengana joaten da erremedio bila. Igotzeko: Ieup! Jaisteko: fiu! Lehen aldian eskaileretan jaistean galtzen du aukera. Bigarrenean gerdarmearen txistuarekin. Hirugarrenean emazteak tresna ikustean fiu, fiu! Ta jeitsi.		Errealista: gordina sexua
85.	E8-13	Jesuista Garizuman	Jesuista batek Garizuman predikua: ganbera banandutan egin behar da lo, bestela bi ohetan. Bestela ohe berean baina uzkiz-uzki. Egingo balu putxi-putxi. Ordin nik ere eniro utzi.	Hitz jokoa: egingo balu putxi putxi. Ordin nik ere eniro utzi.	Errealista: gordina sexua
86.	E8-14	San Antoniori eskerrak	San Antoniori eskatzera joaten dira bi lagun. Batak semeak oinez ikas zezala. Besteak behia ernari jar zedila. Hurrengo urtean eskerrak ematera: mutila kurri joan da; baina besteak, behiak ordez emaztiak izan ditu bi haur.		Errealista: gordina sexua

134.	E8-15	Haurrik ezin ukan	Konte batek umerik ezin eduki. Bordariari esaten dio: mutila bada idirik ederrena, neska bada, behirik ederrena emango dizkiola. Eskalapoinekin joaten da. Bixkiak jaiotzen dira. Zapetakin joan banintz, barruki osoa enetako litake.		Errealista: senar-emazteen artekoak
10.	E8-16	Erreka	Apaizak gizon bati eskatzen astoa prestatzeko. Sakramenduak ereman behar zituela etxe baterako. Gizonak nahi badu gainera igotzeko esaten.Erreka pasatzen hasi eta apaiza otoitzean hasten da. Zaude otoitzetik, astoa belaukitzen bada…		Errealista: apezena
199.	E8-17	Ikaslea bakantzetara	Andereñoa jartzen da hanka puntetan eta ikasleak behera etzanik. Hiru egunez zigortzen du. Beste batek esaten du ikusi duela bere behera gaina. Astebeterako etxera bidaltzen. Crera puskatu eta konkortzen da. Bere errientari: "Nik denak ikusi dizkiat eta banoa bakantzeta".		Ateraldia/Arrazoina
76.	E8-18	Taula erdian (II)	Apezpikua jin eta galdegiten du gela bakarra duten apezak eta gelariak. Baietz baina erdian zakurra jartzen dutela. Errabiatzen bazera? Etxeari itzuli bat egin. Biak errabiatzen bazerate? Zakurra igortzen etxen itzulian.	Ikus E8-13 Jesuista garizuman E3-05 Taula erdian	Errealista: gordina sexua
11.	E8-19	Apezpikua eta apeza	Apezpikuak jakiten du apezak gelari kozinersa oso ona duela. Bere etxean geratuko dela esan. Bi ganbera dituztela eta apezak eta apezpikuak elkarrekin lo egingo dutela. Goizean panaderoak tutta jo ta. "Maria Koxepa, Maria Koxepa, pañadero, pañadero!" –ta alboan apezpikua.	Ikus E14-08, E20-05 eta E32-06	Errealista: apezena

12.	E8-20	Apeza eta harria (II)	Apezari oilaskoa ebatsi zioten. Predikuan esaten du harri bat hartu eta ebatsi duenaren kopetara joango dela, altxatzen ez bada. Emazte batek: "-Manez apal ak buria, tiratuko ik horrek intsentsua eta!"	Ikus E22-12 "Apeza eta harria"	Errealista: apezena
121.	E8-21	Hiru neskato gazte	Hiru emazte joan ziren Jondone Petiriren aintzinerat. Apezak emazte bati "Ta zuk nola pastu duzu lurrean bizia?": gizonekin ibilita. Zoazi heriorat. Bigarrenak: gizonekin ibili ta batek haur bat egin ta hori altxatzen. Zoaz zerura. Hirugarrenak nik pixiteko besterik ez dut erabili. Zoazi kakiterat!	Ikus Gure Almanaka 1928, 69. orrialdea.	Errealista: gordina eskatologikoa
87.	E8-22	Emaztea juje aurrean	Emazte handi batek gizon txiki bat eraman jujearen aurrera, bortxatu egin duela. Gizonak ezetz. Emazteari esateko egia: "Egia erran, apaldu niz ba puxi bat".		Errealista: gordina sexua
174.	E9-01	Sorgin ixtorio	"Arrazoia ematen du zergatik dantzatzera joaten diren zelai jakin batera".	Berak "mitoa" izendatzen du.	Leienda
175.	E9-02	Deabruaren ituna	Artaxuriketan ari zirela, neskak ituna egiten du, 5.000 libera. Debruak eraman eta hila agertu. Nafarroako Forua: lege zibila, lege sakratu ekarri zen. Mitoaren interpretazioa: Apaiza, biolazioa, Musde Sarri izigarrizko emazte zalea zan. Noblea zela, bidea Mitiriñako mugen barrutik. Errestaurazio garaikoa izango da.	Berak "mitoa" izendatzen du.	Leienda
164.	E9-03	Laminak eta kukurrukua	Laminek dorrea egin zuten, harri bat faltan utzi, oilarrak kantatzean.	Berak "mitoa" izendatzen du.	Leienda

76.	E9-04	Taula erdian (III)	Apeza eta gelaria: zer egiten duzue inkietatzen bazarete. Taula erdian jarri.	Alfredo Asiain Ikus: E8-18, E3-05	Errealista: gordina sexua
13.	E9-05	Urdia	Apezaren sotanan kokatu zen.	Camarena:174 "El gocho en la capilla de San Antonio"	Errealista: apezena
88.	E9-06	Apeza eta xitoak	Apeza eta gelaria. Ez da mezara agertzen. Oilo koloka lapurtu diola azeriak eta gelaria apezaren gelan sartzen da. Xitoak ateratzeko zeudenez arrautzak berotzen ari zela. Orduan gelariak arrautzak ukitzen ditu eta: Hara, baño sortua da!		Errealista: gordina sexua
52.	E10-01	Asto gainera	Gizon bat merkatutik etxeat heldu, puxka bat mozkortua. Asto gainera igotzeko errezatu, lehenbizi Jesusi, gero Jesus eta Mariari eta azkenik, Jesus, Maria eta Joseri, ta astotik erortzen da.		Errealista:tentelak-argiak
126.	E10-02	Gorra	Pasadizoa: Donibaneko merkatuan: erosle eta saltzailearen arteko gaizki-ulertua: ¿Cuánto vale la gallina? Harina? ¡Que te calles loca! Koloka?	Hitz jokoak.Gaizki ulertuak.	Errealista: akats fisikoak
89.	E10-03	Bi buztan	Pasadizoa: Betaurrekoak behar dituela, urrutikoak eta gertukoak batean. Gero komunera joan eta pixa egiten du galtzetan. Bi buztan ikusi tit, bat handia eta bestea ttipia. Handiari lortu nuxu, bena beldur nuxu ttipiak diala pix in!		Errealista: gordina sexua
200.	E10-04	Xalbador	Xalbadorrek ikusten auzoa ari zel,a autoarekin permisa atera baino lehen praktikatzen. Esaten dio ez dela untsa ari. Ta ze in behar. -Haugi bideat, pentzea bera joanen duk gero. .		Ateraldia/Arrazoina

3.	E10-05	Aphez tronpatua (II)	Bi aizok etzuten elkar ikusten ahal. Bata zendu zen eta bestiak meza emango ziola. Mezak asko balio ta orduan bi bezpera eskatzen ditu urririk.	Ikus E4-03 Apez tronpatua Ikus E31-06	Irri ixtorioa: apezena
231.	E10-06	Salbatu balitz bederen!	Bi emazteren senarrek istripua izan zuten. Bata hil eta bestea zauritu. Zendu zenarenak izugarrizko ordainak jaso. Zauritu zenarenak zergak ordaindu behar. "–Gure xoxola horrek salbatu behar zinan bederen!"		Txistea
135.	E10-07	Medikuaren froga	Emazte batek bere senarrak asko edaten duela uste du. Horregatik medikuarengana joateko esaten dio. Joaten da. Medikuak txitxarea urean eta arnoan sartzen du, edateak dakarren kaltea zein den erakusteko. Emazteagana joan gero eta: -zer esan dizu? –Edaten jarraitzeko, bestela xixareak ateratzen direlako.		Errealista: senar-emazteak
232.	E10-08	Nanoak	Zuberoan gizon mozkor bat ostatu kanpoan da. Ta autokar bat iristen da nanoekin. Gizona pixa egiten ari da zuhaitz batean eta nanoak ikustea bere mozkorragatik dela uste du. Babyfoot-ak ihesean ari dira!		Txistea
233.	E11-01	Kontzilioa	Bi apez kontzilioa izan dela eta. Oraino ezkonduko gütüzü! Nik eztit ikusiko bena, gure haurrek iküsiko die!		Txistea
90.	E11-02	Xoxua	Bi andrek xoxo bat ikusten dute karrontauik. Batek esaten besteari papoan sartzeko. Gero konfesatzera joaten da. Otoi jauna fite ai zite xoxua gaizten hasten zitazüt!	Ikus: Juan Rodriguez Pastor. Unas notas sobre el folklore obsceno. "El pájaro".	Errealista:gordina sexua

127.	E11-03	Axkarren istorioa: hire anaia bezala	Urdik behar die hire anaia bezala, handi, luze, mehe eta bizkarra konkor		Errealista: akats fisikoak
91.	E11-04	Gereziak	Emazte bat ari zen gizon batekin elhestan. Axkar iristen da geriza brake batekin eta emazteak pare bat jan. Soizu geziarekin nula zozua eyerki atzamaiten den!	Ikus: E15-02	Errealista: sexua gordina
5.	E11-05	Xalgia ments (II)	Adorazionearekin Sohutako apeza Bildozen züzün. Sohutako apezak kaxa hartu ziala esaten dute, ments baitzen. Erantzuna ematen du: Barda hire ohin oheratu bahintzan, kaxa atzamain hin, han ezarri dat!	Ikus E25-02 E4-17	Errealista: apezena
94.	E11-06	Behi susara	Gizon batek Donibaneko merkatian behi bat erosten. Biharamunean susara izango zela eta. Soroan jartzen eta zezena penetratzera zihoanean, put! uzkia atera. Gizon batek trufaz: -Ene emaztia (e)re Donianeko düzü gaxua!		Errealista: gordina sexua
93.	E11-07	Emazte phüntxela	Gizon batek emazte zahar adinetako batekin ligatu nahi. Afaltzera gonbidatu eta ohera joaten dira. Eta pentsatzen du:-Jakin banu puntxela zela. beste afari bat barkatuko niozun lehenago. -Jakin banu hain ardita zela hau, pantiak elkiko nützün.	Sexu harremanak izan: Elkarri lotu	Errealista: gordina sexua
94.	E11-08	Punizionea	Emazte bat bazkoan konfesatzera joan eta apaizari: felation bat egin zuela. Apaiz gazteak ez jakin zer zen hori, eta beste apaiz bati galdetzen. Felation-enentako zer emaiten dügü: -Ez ehun libera baino gehio!		Errealista: gordina sexua

95.	E11-09	Pistoleta moztu	Senarra beste emazte batekin ibili eta asuna hartzen du. Medezi batengana joan eta moztu egin behar dela. Beste batengana joan eta: Zertako moztu, hori bea e(r)oiko duk!	Pistoleta: zakila	Errealista: gordina sexua
96.	E11-10	Astoaren baztarra	Komisioneka joan gurasoak haurrarekin. Aita ta haurra kanpoan geratu eta asto baten baztarra ikusi. Hori hilen! Da esaten du aitak. Gero amari erakutsi: Hori balu, hire aitak horren erdia balu!	Baztarra: zakila astoarena. Ikus E21-09 Astoa eri.	Errealistak: gordina sexua
321.	E11-11	Supositora	Gizon bat merkatian da. Ez zen ongi eta farmazientari zerbait eskatzen. Eskatzen dio supositorra. Biharamonean berriz jin eta esan ez diola efekturik egin, ez gosariarekin, ez bazkariarekin…Uzkin sartu banu, hobeki zukean mentuz!		Txistea (gordina)
124.	E11-12	Ehiztaria aho handi	Hiru ehiztari aho handi. Batek bere zakurra uxanta da: Larrainen jo urzo bat eta berrogei kilometra ekarri. Bestearenak basurdea harrapatu duela. Hirugarrenak, emazteak sudurra terriblekoa duela. Jarrutiela konponarazi eta biharamunean facturr(ar)en koskoilekin jin ziteketeat.	Koskoilak: gizonen barrabilak "Chasseur,vanteur" "Ehiztariari erdia bakarrik sinestu". Chevalier	Errealista: gezurrei buruzkoa
53.	E12-01	Bi beizik ez	Muskuldin justo ileka zen. Laborariak arno ta gasna edaten elkartzen ziren eta segidan pagatzen ilea. Haietako bati ez zion inork edaten emaiten basoa hartuta ere. Zerbait esateko altxatzen da eta kontatzen: -Behi batek hiru ume izan dizkit. Bi titi baizik ez. eta bestiak zer egiten du? Nik bezala so egin eta bestiak edaten.	Ikus E31-05 Pernando Amezketarra: lau errape. Bosgarren txahalarena bezala.	Errealista: tentelak/argiak

14.	E12-02	Kadabreak	Adorazionian apezak elkartzen bazkaritan. Mezperetarako apezpikua heldu eta esan Zer dira kadabre horiek oro (botilak)? Apeza ikusi dute hiltzeko.		Errealista: apezena
15.	E12-03	Aiten ofizioa	Apezaren predikua: oraiko gazteek behar lukete bere aiten ofizioa hartu. Herritarrak harrituta amaieran galdetzen diote: -Orduan zuk ere aita apez zünina?		Errealista: apezena
201.	E12-04	Mandüa	Kontrabandan Frantzitik Espainiarat mandoak: Espainol batek mandoa begiratu eta esan: Zer dik mandu honek drole duk!. Lehenago bixta!		Ateraldia/arrazoina
54.	E12-05	Bertza	Auzo batek besteari bertza lapurtu diola eta jujiarengana eraman baina honek juzgatu ez. Bortanelkitzean erraten: -Hik gizontarsuna galdu duk. -Bai ta hik bertza.		Errealista: tentelak/argiak
115.	E12-06	Diagnostikoa (II)	Bi bedeziak eztabaidan hankan min duela belaunean min duela. Hari galdetu. Pantaloinetan kaka egin du.	Ikus E4-08	Errealista: gordina eskatologikoa
136.	E12-07	Ber dentia	Edaleak apezari: emaztiak behar du merkatila: hortzak behar ditu. Ber dentiak ditütü.	Ikus E15-05	Errealista: senar-emazteak
16.	E12-08	Aphez izan nahi	Gurasoak kezkaturik semea beti bestan zebilela eta. Apezak esaten dio zentzatu behar dela. Apeza izan nahi duela erantzun. Zendako nahi duk apez izan? Auher eta gourmant.		Errealista: apezena

202.	E12-09	Bihotz onak	Apaiz bat Zalgizetik Mendikotara doa. Han ederki zinen? Bai, jendea bihotz ona. Besteak erantzun: -Bai, bihotz onak musala artino!		Ateraldia/arrazoina
203.	E12-10	Satorrak	Bi anaia bata etxe nagusia bestea etxeko semea. Azken hau ehiza zalea permisoa eskatzen du ehizara joateko. Ez ditut etxeko satorrak erhaiten ahal. –Bai eta hik nagusi hoik aski tuk kanpoan ezartia!		Ateraldia/arrazoina
204.	E12-11	Zakurran gisan	Bucheria baten kanpoan zakurra egoten lo. Ostatuan ziren laborariak edaten. Batek esposaturik baitzen. –Ni naizen trenpin emaztiak ikusiko nik. –Bai,Abadian zakurran gisan, agian kantin lo.		Ateraldia/arrazoina
184.	E13-01	Soule-ko lehoia	Zuberotar batek 14ko gerlan motor bat ebatsi zion aleman bati eta mekanizien ona zenez, gero horrekin autoak…egin ziren. Horregatik darama Peugeot-ek Zuberoako lehoia.		Leiendak: askotarikoak
205.	E13-02	Bi ments	Bi mentsen gertakariak		Ateraldia/arrazoina
137.	E13-04	Intsinerazioa	Bi gorpuren hautsekin zer egiten duten. Autoa ez irristatzeko errepidean bota. Gero kutxan arrautz bat agertzen da. Amak barkatzen diola dio.		Bestelakoak: senar-emazteen txistea
322.	E13-05	Fronda	Mutil bat atxilotu zuten fronda batekin kristalak puskatzeagatik. Espetxean egon eta gero askatzen dute. Poliziak erraten dio zer egingo duen orain mutiko polita baita. Neska bat ezagutu,...kuloteak jeitsi eta fronda berria egin.	Ikus E37-07 (Ze domaia)	Txistea (gordina)

164.	E13-06	Laminak eta kukurrukua (II)			Leienda
234.	E13-07	Haurra nigarrez	Haurra nigarrez bi gizon bilhaxkan ari direlako. Gizon batek eta nor da zure aita: beraiek ere ez dakite.		Txistea
17.	E13-08	Bost mila ogi	Apeza nahasten da predikua ematean. Herritar batek: hori nik ere egingo nuke. Nula? Joan den asteko sobrekin.	Poggio 227 Un cura que estaba predicando se equivoca en el número diciendo cien por mil	Errealista: apezena
206.	E13-09	Axkar eta bizikleta	-Ah! Axkar, axkar eztakit horta igan ahal zianez. -Bai, bai, ai nitzazü bai arkaka[234], bena ez zizün nahi egon.		Ateraldia/arrazoina
185.	E13-10	Zendako ez den beretterrik	Beretterrak apezaren ardoa edan zuelako.	Berak "mitoa" izendatzen du.	Mitoa
55.	E13-11	Olhan txakurren ixtorioak	Olhatik ura atertzean "Benedicamus" esan behar zela. Behin berriz bidali zuen ahaztu egin baitzuen. Gizon batek erran pixa egiteko bertan. Hau bai ur ederra!	Ikus Hizkuntzen Atlasa	Errealista: tentelak/argiak
56.	E13-12	Oraino edaten	Zakurra ura edatera eramateko esan nagusiak. Ez zuen egarririk. Nagusiak errietan egin. Gizon batek harri bat estekatzeko. Oraino edaten ari da.		Errealista: tentelak/argiak

[234] Ardiak ibiltzen dira arkaka.

57.	E13-13	Kakoila aztalian	Gizon batek lan gutxi egiten. Gizon batek goizaz geroztik aztalian kakoila zuela esaten dio.		Errealista: tentelak/argiak
323.	E14-01	Magasian sar	Merkatian behi bat saltzen zuten. Zein da prezioa. Buztana altxata. Sar zaitez magasian, prezioa fixaturik da.		Txistea (gordina)
235.	E14-02	Haur sortü berria	Haur bat belarri gabe sortzen da. Bisitan etortzean denek errepikatzen gauza bera. Aita nazkatua. Lagun minak: ondo ikusten du? Zertako? Betaurrekoak jarri behar baditu.	Ikus: el niño sin orejas	Txistea
128.	E14-03	Tuñuta eta begi bakotxa	-Uh ! Bahoa goizetik kargatuik merkatila ! -Ah bai goizik hik ez baitük leiho bat baizik zabalik !		Errealista: akats fisikoak
97.	E14-04	Pantaluak	Herri neskatila bat kofesatzera joan eta esan etxeko semearen pantalüak lisatzean pentsamendu okerrak izan dituela. Apezak penitentziatako bi bokale pate. Hutsak ekarri. Pantaluak ere hutsak ziren.	Ikus E30-09 E22-16 E38-05	Errealista: gordina sexua
